

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Oiartzun



Aurkibidea

Udalerria: Oiartzun

Sarrera



Oiartzun Gipuzkoako ipar-ekialdean dago, Oarsoaldea eskualdean. Nafarroa eta Gipuzkoako mugan egoteak Oiartzungo hizkeran eragina dauka. L.L. Bonapartek, 1863. urtean, Oiartzungo euskara iparraldeko goi-nafarreraren sailkatu zuen. Koldo Zuazoren euskalkien mapan (2005), erdialdekoaren eta nafarreraren arteko hizkera da Oiartzungoa. Biak ere ez dira oso oker ibiliak izango; izan ere, hiztunen jarduna entzunda, nagusietatik gazteetara aldaketa nabaria da. Ahozko ondare hau kontsultatzen duenak igarriko du Oiartzungo nagusiek oraindik ere nafar ukitua gordetzen dutela, gazteek ez bezala. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 10.005
- **Euskaldunak:** %76,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **80**
- Zintak: **144**
- Pasarteak: **1.309**
- Transkribatutakoak: **214**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **679**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaitzi motzak
- Oiartzuarren baitan
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak



Bixenta Aduriz Escudero (1936)

Mañoli Aduriz Lopetegi (1941)

Mañoli Aduriz esanda baino, Ugaldetxoko ile-apaintzailea dela esanda jende gehiagok ezagutzen du. Ez da alferrik aritu 40 urtean ofizio horretan. Ugaldetxotik bezalaxe, Oiartzun guztitik ere etortzen zitzaizkion bezeroak, baita Errenteria eta Donostiatik ere. Umetatik gustatzen zitzaion ilea apaintzen aritzea eta hartarako hasi zen ikasten 14 urterekin. 18 urte zituela jarri zuen ile-apaindegia, Txukuneko behiak ondoan marruez zituela. Ile-apaintzaile ona izan delako baino gehiago pozten da inorekin haserretu gabe utzi duelako ofizioa. Ugaldetxoar petoa dugu Mañoli, asko maite du auzoa, eta horregatik ematen dio min azkeneko urteetan zaindu gabe egoteak.



Tiburtxi Aduriz Urdanpilleta (1932)

Gregori Almandoz Huitzi (1921-2011)

Gregori, Aranon jaioa zen. 60 urte baino gehiago egin zituen Oiartzunen, Joxe Luix Irastortzarekin ezkonduz geroztik. Baina begiak bixi-bixi jartzen zitzaizkion bere jaiotetxea eta jaioterria aipatzen zituen bakoitzean. Larrazabaltarrak, gizonaren aldekoak, ez ziren dantzazaleak, baina bere familia beti izan zen oso dantzaria: beren aitak seme-alaba guztiekin Aranoko plazan dantza egin zueneko aski gogoan zuen. Baserrian lanean, neskame, ezkondu eta gero ere etxetik kanpo lan eginez... Gregoriren bizitza ere lanak markatu zuen, baina bera oso baikorra zen eta ezin zela kexatu zioen: Gaztaro alaia eta arrunt polita izan zuela zioen, eta zahartuta ere, balitzen zirela.



Anttoni Andalurria Urrutia (1918-2010)

Gaur egun desagertua den eta Tolare jatetxearen ondoan zegoen Etxenagusin jaio zen Anttoni. Tolareko haurrak etxean izaten zituzten, eta, bertako etxeakoandreak eskatuta, oraindik neska kozkorra zela, hasi zen neskame Tolaren. Bertako haurrak zaintzen hasi zen, baina Tolare, taberna eta dendaz gain, baserria ere bazen, eta denetariko lanak egin zituen Anttonik. Eta ez Tolarekoak bakarrik, Ergoien eta Oiartzungo etxe askotara ailegatu zen lanera. Toki askotan eskatu zioten neskame joateko, baina berak beti nahiago izan zuen Tolaren gelditu. Nobio bat baino gehiago izan omen zituen, baina nahiago izan zuen ezkongai gelditu. Auzoko haur belaunaldi asko zaindu zituen, ia-ia bereak bazituen bezala, eta haur haiek heldu bihurtu eta gero ere, denen kezka izaten zuen.



Mari Jose Arana Aranburu (1950)

Iturriozko Garaño baserrian jaio eta hazia da Mari Jose (argazkian, ezkerretara). Baserritarra izaki, Iturriozko kaleko bere lagunak baino lan gehiago egin behar izaten zuen, baina beti ateratzen zuen denbora beheko sorora jaitsi eta jostatzen aritzeko. Bere bi lagunekin egin diogu elkarrizketa: Maillolli eta Domirekin. Elkarrekin hikaz aritzen dira eta hemen ere halaxe aritu zaizkigu.



Tiburtzio Aranburu Lekuona (1925-2017)

Tiburtzio (argazkian, ezkerretik hasita bigarrena) Altzi baserrikoa da. Bere bizitza guztian baserrian aritu izan da, baina gaztetan, dirua aterako bazuen, beste zenbait lantegitan aritu behar izan zuen: meategietan, kontrabandoan... Gerra kontuak gogoan ditu Tiburtziok, Altzi inguruan ibili baitzen frontea.



Simon Aranburu Pagadizabal (1930)

Oiartzungo Gaztelugoia baserrian jaioa, Pikoketan. Guraso biak bertakoak zituen. Bederatzi senide ziren. Aitak Arditurriko meatzeetan egin zuen lana, eta gero baita etxeko sei mutilek ere. Simonek 34 urte egin zituen meatzeetan lanean, itxiera arte. Ez zen eskolara joan, eta doktrina auzoko emakume batek erakutsi zion, Jaunartzea egiteko. Umetatik lan asko egin zuen, ganaduarekin eta ardiekin; hamabi urterekin morroi bidali zuten gertuko baserri batera. Baso lanetan ere ibilia da. Txiste eta bertso zalea da. Irungo Olaberria auzoko Aristigazte baserrian bizi da; arrebetako bat haraxe ezkondu zen.



Rufino Arbelaitz Sarasola (1924-2014)

Umore handiko gizona genuen Rufino; agudo hasten zen bertso-kantari eta gertakari xebreak kontatzen. Bertsoarako zaletasuna aurretik zetorkion. Bere osaba omen zen oso bertsozalea; ez zen alferrik Zurkoko Kazkazuri bertsolariaren iloba. Rufinok bertso asko zekizkien buruz; edozer gauza kontatzen zuenean, bertso batekin lagunduta biribiltzen zuen. Altzibarko Olalde baserrikoa zen Rufino. Altzibar bera eta Olalde ingurua beti izan dira mugimendu handiko guneak. Hainbat lantegi sortu dira bertako urak aprobetxatuz: bi errota, arrain-fabrika, paper-fabrika... baita auzotarrak iturri gabe utzi zituen edari-fabrika ere. Horien denen berri eman zigun Rufinok, elkarrizketan zehar.




Maria Jesus Arbelaitz Zapirain (1936)

Oiartzungo Iturriotz auzoko Garmenditxiki baserrikoa da; aita eta ama ere Iturriotz auzokoak zituen. Gerra garaian jaio izanagatik miseriarik ez zutela izan dio, baina bai bestelako zerbait jateko gogo. Txikitako jostaketak eta gaztetako Txiki Erdiko bilerak ongi gogoratzen ditu; hantxe (Txiki Erdin) ezagutu zuen bere senarra den [Bixente Mitxelena](#). Zazpi seme-alabaren ama da.



Euxebi Arregi Aldai (1934)

Ergoien auzoko Egurtzi baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Leaburukoa. Hiru ahizpatan zaharrena, herriko eskolan ibili zen, eta gero Donostiara joan zen ikastera, akademia batera. Artean gaztetxoa zela Egurtzitikira joan ziren bizitzera. Baserritik bizi ziren; ama Errenteriara joaten zen tratua saltzera. Irungo [Patxi Bolaño](#) soinu-jotzailearekin ezkondu zen.



Maitxo Arruabarrena Ansa (1926)

Maria Arruti Garate (1904-2001)

Oiartzungo Plemunta baserrian jaioa. 14 urte zituela neskame joan zen. Maria ia 40 urterekin ezkondu zen Domingo Urtegi Besoburu alargunarekin, eta ume bat ere izan zuen, baina urte gutxirekin hil zitzaion. Grabazioa neskame egon zen etxeko familiak egindakoa da, eta, bertan, familia horretako pertsona eta eginkizunei buruz hitz egiten du. Grabazioa Joxe Iturriotzen bidez jaso dugu (elkarrizketatzaileak haren gurasoak dira).

Juan Mari Barrenetxea Retegi (1928-2019)

1928ko azaroaren 1ean jaioa Ugaldetxoko Txipito. Aita, Juan Barrenetxea, Dimakoa zuen eta ama, berriz, Andresa Retegi Ugaldetxoko Palaziokoa. Hamar senidetan bosgarrena zen bera. Bi urte zituela, senide asko zirela eta, izeba eta osabarekin bizitzera bidali zuten gurasoek Itturburu baserrira. 12 urterekin ikasi zuen barbero lana Ugaldetxoko Joxe barberoarekin eta 1950. urteaz geroztik, bere kontura lan egin zuen. Maitxo emaztearekin 24 urterekin ezkondu eta bi seme-alabaren aita izan zen. Elkarrizketa egin zitzaionean Zubiaurre etxean bizi eta lan egiten zuen, Altzibarren.



Imanol Barrenetxea Urkia (1951)

Oiartzungo Iturrioz auzoko Torres baserrian jaioa. Gurasoak Oiartzungoak biak; aitak Pasaiaiko portuan lan egiten zuen, ama etxekoandrea zen. 6 senide ziren. Imanolek, aitak bezala, Pasaiaiko portuan egin zuen lan. Bere zaletasunen artean txirrindularitza da nagusiena. Bi alaben aita da.



Luixa Berrondo Iartzabal (1916-2014)

Luixa Berrondo esanda baino, jende gehiagok ezagutuko zuen emakume hau "Luixa maixtra" esanda; izan ere, oiartzuar asko izan ziren Luixaren ikasle. Maistra garaietan gogorra izanaren pena zuela esan zigun Luixak. Gogorra ez dakigu, baina ausarta eta nortasun handikoa zela ez dugu zalantzarik. Baserrian jaio zen eta gazterik gelditu zen guraso gabe. Osaba apaizak senide guztiei eman nahi izan zizkien ikasketak, eta aukera ongi aprobetxatu zuen Luisak: irakasle-ikasketak egin zituen. Gerrak onen-onenean harrapatu zuen, gazteek ohikoa duten aisialdia ahaztu eta lana egin behar izan zuen beste askok bezala, baina bere garaiko emakume batentzat pentsaezina izan zitekeena egitera ausartu zen bera: gerrak lanerako aukera kendu zionez, berak, bere kabuz, eskola ireki zuen. Ugaldetxoko eskolan 80 ikasletik gora eduki izan zituen, eta denak erne edukitzeko makina bat trikimailuz baliatuz irakatsi zien denei: hezkuntzaz gain, heziketa ere bai. Poza gaitza ematen zion, ikasle haiek, bizitzan aurrera egin zutela ikusteak.



Maitxo Bikandi Aristizabal (1916-2009)

Kaleko Putxutxoerrekan jaio eta bizi izandakoa zen Maitxo. Ez zuen batere bizimodu samurra izan. Toki batean baino gehiagotan lana egina, hogeita bat urtean Errandonea ogi eta ardo biltegian aritu zen. Kale-kalean biziki, gerra aurrez aurre ezagutu zuen. Gerra hark, gainera, anaia eraman zien. Kanoikadak, fusilamenduak, salakeriak... Hori gutxi balitz, lanean ere ez zuen batere zorte ona izan Maitxok: Altzibarko paper-fabrika erori zenean, bera han barrenean lanean harrapatu zuen.



Joxe Billaluze Arbelaitz Leatza (1945)

1945eko martxoaren 9an jaioa Iturriozko Paraditxoko baserrian, Sarobe errekan. Zortzi senidetan zaharrena. Aita Joxe Billaluze Mitxelena zuen, Paraditxo bertakoa; ama, berriz, Ignacia Arbelaitz Aranburu, Sastarre baserrikoa. Aurrekoengandik datorkio "Legatza" ezizena. Txikitatik txondorgintzan aritu izan da; azken urteetan Joxe Manuel Etxarte "Trumoa" lagun duela.



Jesus Camarero-Nuñez Sorondo (1929)



Igantzik Bentetan jaio zen eta 9 urterekin aita hil zitzairenean Oiartzuna plazako Peruki etxera etorri ziren amonarenera. Amaren aldeko familian pilotari ezagunak ziren. Bera, berriz, plastikoari lotutako industrian aritu zen lanean eta kooperatiben sorrera garaian beste batzuekin batera Tajo enpresa sortu zuen. Lartaun Elkartearen sorreran ere ibilia, bertako kide aktibo izan zen.

Korneli Egimendia Aranburu (1910-2010)



Altzibarko Albisturrene etxean jaio eta bertan bizitakoa. Albisturrene etxea ez da herrian ezaguna den Albistur taberna, baizik eta Etxeaundi eta Zamora etheen artean dagoena. Ama eta biak bizi ziren bertan. Apopiloak zituzten, eta horrez gain, udan kalera etortzen zirenen arropak garbitzen eta Altzibarko bi tabernatan ere lanean aritu zen Korneli: Soteronean eta elkarrizketa garaian Albistur den tabernan. Apopiloen artean Santos Arozena txistularia zegoen: berez Lizartzakoa zen eta Karrikako harrobira etorria zen lanera. Gerora, Korneliren senarra izango zen. Senarra, semeak eta bilobak txistulariak zituen Kornelik. Txistulari asko bai inguruan, baina txistua jotzeko beta askorik ez, nahikoa lan baitzuen etxean eta kanpoan.

Juantxo Elizegi Zapirain *Prailetarra* (1938-2018)



Iturralde baserrian jaio zen. Aita Iturraldekoa zuen eta ama, berriz, Aldura baserrikoa. Aitak baserrian egiten zuen lan, eta ama kalera jaisten zen esnea eta fruta saltzera. Joxe Aizateko eskolan ibili zen umetan. Baina oso gaztetatik mendian egin zuen lan bere anaiekin batera. Bi anaiek lanak hartu eta gero lau anaia aritzen ziren zuhaitzak bota, zuhaitz landareak aldatu, mendia garbitu, mendi-bideak egin... eta gisako lanetan. Zegama, Aizkorri edo Arantzazu izaten ziren uda parteko lan-tokiak, eta gero behera jaisten ziren neguan. Askotan aste osoa pasatzen zuten mendian, lana, otorduak, lo... dena bertan egiten zutela. Iturralde urruti xamar gelditzen zela eta, Joxek hogeita sei urte inguru zituenean, Karrikako Gartxienera aldatu ziren ama eta semeak. 35 urte zituenean mendiko lana utzi eta Beta fabrikari hasi zen lanean. Han aritu zen hogeita urte inguru. Gero ardiak jartzea erabaki zuen eta Eskontsegi berri baserrian jarri zen bizitzen eta ardiak hazten. Baina handik gutxira artzaintza utzi beharra izan zuen. Geroztik Petra Lekuona Egoitzan bizi izan da.

Domingo Elizondo Lekuona (1926)

Gaztetatik Ardotzen bizi bada ere, Masalengoa da Domingo. Oartzunen hiru familia aritzen ziren mandazain:

Masalengoak, Zuloagakoak eta Isatsenekoak. Hirurak ere auzoak, ergoiendarrak. Aitona hasi zen ofizio horrekin eta bere aitari utzi zizkion mandoak. Domingo beti egoten zen mandoei begira, eskolara joan baino nahiago zuen haiekin mendira joan, eta halaxe hasi zen mandazain lanetan, oraindik mutil kozkorra zela. Mandoekin mota askotako garraioak egiten zituzten, baina batez ere egur-ikatzarekin aritzen ziren; beraiek jaitsi menditik eta beraiek saldu. Butanoa eta gasa sartu zenean, egur-ikatzaren eskaera jaitsi egin zen eta lanik gabe gelditu ziren mandazainak. Ordurako, hala ere, Domingok ofizioa ongi ikasia zuen eta asko daki baso eta abere kontuetaz.



Maria Jesus Enbil Urdanpilleta (1940-2018)

Maria Jesus, baserrian jaio eta hazia izaki, gaur egun galtzen ari den baserriaren lekukoa izan zen: nekazaritza guneaz gain, instituzio eta ohitura zaharren gordailu den baserriaren lekukoa. Amonarekin eta osaba-izebekin hazi zen, eta oso txikitatik baserriaren ardura izan zuen. Ergoien auzora ezkondu eta bere bizitza gehiena bertan egin bazuen ere, Gurutze auzoa ezin ahaztu. Gurutze auzoa eta bere jaiotetxea, Saastiarrene.



Jose Manuel Etxarte Pikabea Trumoa (1945-2018)

Jose Manuel Etxarte Pikabea oiartzuarra. Elkarrizketa egin zitzaionean 65 urte zituen.



Joxepa Etxeberria Olaziregi (1928)

Oartzungo Larraburu baserrian, Txikierdi ondoan, jaio zen. 13 senidetan hamargarrena zen bera. Gerra zibilean aita fusilatuta hil zieten. Aitak moilan egiten zuen lan itsasontziak deskargatzen. Errenteriarra ezkondu zen eta bertan lau seme-alaba izan zituen. Plazara joaten zen barazkiak hartuta eta esnea ere partitzen zuen han. Labe baserrira joan ziren bizitzera eta, azkenik, Aranon bizi da azken urteetan.



Kontxita Etxebeste Etxabeguren (1915-2015)

Oiartzungo elizaren atzean zegoen Kinkirrinkiñenea etxean jaio zen. Aita eta ama ere oiartzuarrak zituen. Aita arotza zen eta Erretereria-Oreretako "Real Compañía Asturiana de Minas"-en egiten zuen lan. Kontxitak esaten duenez, familia pobrea zen beraiena. Zazpi senide ziren, bera ahizpetan gazteena eta mugituena, herriko gauzetan parte hartzea gustatzen zitzaiona. Gaztetan antzerkia egiten aritu zen, 36ko gerra hasi baino lehen. Euskaraz, hainbat antzezlan prestatu zituzten eta baita jendaurrean antzestu ere, horietako zenbait emanaldi Donostiako Kursaal zaharrean. 36ko gerrak giro hura hautsi zuen. Kontxitaren anaia, Txomin Etxebeste, fusilatua izan zen. Familia abertzalekoa izaki, oso momentu gogorak igaro zituztela kontatzen du eta horretaz hitz egitea oso zaila egiten zaio. Erreteriar batekin ezkondu zen eta Erretereria-Oreretan bizi izan dira. Bi seme-alaba izan zituzten.



Faustino Galdos Arbide (1934-2016)

Faustino (argazkiaren eskubian) Galdos bezala ezagutzen dugun tabernako seme gazteena da. Beti ezagutu dute taberna etxean, Eguzkialden. Lehendabizi, zati zaharrean eta gero, berrian. Galdostarrak izan ziren Gurutzera berrikuntzak ekartzen lehenengoetarikoak: kamioia, irratia, telefonoa. Auzoko esne guztiak beraiek biltzen zituzten, gero Donostiara eramateko.



Juan Galdos Arbide (1924-2015)

Juanito (argazkiaren ezkerrean) Galdos bezala ezagutzen dugun tabernako seme zaharrena da. Beti ezagutu dute taberna etxean, Eguzkialden. Lehendabizi, zati zaharrean, eta, gero, berrian. Galdostarrak izan ziren Gurutzera berrikuntzak ekartzen lehenengoetarikoak: kamioia, irratia, telefonoa. Auzoko esne guztiak eurek biltzen zituzten, gero Donostiara eramateko.



Maitxo Gaztañaga Etxeberria (1927-2012)



Maitxo -argazkian ezkerretara-, berez Abaltzisketakoa, bost urterekin familiarekin batera etorri zen Erreneriako partean dagoen Isturitzagagoikoa baserrira. Bertan jaioa ez bazen ere, bere bizitzan zehar izugarri maite izan zuen Isturitz aieka. Txikitatik hasi zen ama eta izebarekin Erreneriako merkatu plazara joaten. Garmendira ezkondu eta gero ere, makina bat urtean jarraitu zuen barazki-salmentan. Elkarrizketa bere koinata Frantxiska Irigorriekin batera egin genion.

Maritxu Gaztelumendi Urruzola (1938-2020)



Oiartzungo Karrika auzoko Arozkene baserrian jaio zen, 1938ko uztailaren 17an. Arozkene baserrikoa bertakoa zuen aita, eta Erreneriako Egiburu baserrikoa ama. Ahizpa zaharragoa eta bi anaia gazteago izan ditu Maritxuk. 22 urte inguru zituela kalera joan zen bizitzera familia guztia, Karrika auzoan bertan. Eskola garaian, etxeko lanetan laguntzen eta esne partitzen ibili zen. Zerbitzari lanetan jardun zuen gaztetan, Gurutze auzoko jatetxe batean hasi eta Erreneriako Panierren, Maria Cristinan, Igeldon, Fagollagan zein Epeleko Etxeberrin ere aritzero. 24 urte inguru zituela, ordea, administrazio ikasketei heldu zien Maritxuk, eta ikasi bitartean, hurrekin irakasle aritzeko aukera sortu zitzaion, Errenerian lehenik, eta hazten ikusi zuen auzoan bertan gero, Oiartzungo Karrikan, hain zuzen. Karrikan kultur sustatzaile lanetan ere jardun zuen, dantza taldea eta beste hainbat kultur adierazpen bultzatuz, eta gaur egun Karrikan den Artaso Elkartea abian jartzeko lehen pausoak eurek eman zituzten, gerora auzolanean altxatua izan bazen ere. San Migel patronatuan hasi zen lanean gero, eta Villabonara ezkondu zen; bertan zazpi urte inguru egin eta Oiartzunera itzuli zen bizitzera, Ugaldetxo auzora, senarra eta bi semerekin. Oiartzunera itzuli eta gerra aurreko "poxpolinak" berreskuratze lanetan jardun zuen, Jon Oñatibia idazle eta txistulariak abiatutako asmoa gauzatuz. Hiru liburu ditu idatziak eta bere kontura argitaratuak: *‘Karrika Xabaleko aritz-ondotik’* (2004), *‘Poxpolinak’* (Jon Oñatibiaren oroimenez) (2004) eta *‘Aitona sutondoan ipuin kontari’* (2014).

Xabier Harregi Agirrezabala (1932)

Ama Lazkaokoa eta aita Hazparnekoa zituen Xabierrek. Oiartzunen ezagutu zuten elkar eta bertan ezkondu ziren. Gaztea zen oraindik gerran aita eraman zutenean. Amak ezin sei seme-alabak mantendu, eta familiakoen artean banatu zituen, aita erbestetik etorri eta berriro elkartu ziren arte. Xabierrek hasieran ez zuen gustukoa barberu ofizioa, baina aitak bere lanbidea jarraitzea nahi zuen, eta behartuta sentitu zen. Ez dauka damurik, azkeneko urteak oso gustura egin baitzituen; bezeroen artean, gainera, lagun asko zituen. Herritar askoren kudeaketa eta diru kontuak eramaten lagundu du; izan ere, ez zuen eskola asko eduki baina beti izan du ikasteko gogoia, eta halaxe ikasi du: zaletasunak eta esperientziak lagunduta. Arantza txiki bat ere badauka Xabierrek: gazteei jakinarazi nahi die euskaldunak bere eskubideen alde borrokatu behar izan duela ez gaur egun bakarrik, aspalditik baizik.



Julen Idarreta Cardona (1990)

Julen Idarreta Cardona oiartzuarra da. 1990eko urriaren 12an jaioa, Oiartzunen bizi izan da beti. Ama oiartzuarra du eta aita, aldiz, donostiarra. Hiru senidetan zaharrena da bera, eta Lizentziatura du Hezkuntza Fisikoan. Master bat bukatzen ari zen elkarrizketatu genuenean, eta judo irakasle eta entrenatzaile moduan eskolak ematen aritzen da Donostiako Amara auzoan. Judo irakasle moduan haur zein helduekin dabil Julen eta jarduera horri lotutako eta beste hainbat kontuez dihardu, Asier Retegi koadrilako lagunarekin egin genion elkarrizketan.



Manuel Iñarra Lizartzu (1924-2011)

Manuel Zamalbideko Bidegurutzeta baserrian jaio zen (orain desagertua dago baserri hori). Gazterik hasi behar izan zuen fabrikari lanean. Hasieran, Laneran; ondoren, Pasaiaiko Astilleroetan; eta, azkenean, Luzuriagan aritu zen, erretiroa iritsi zitzaien arte. Lan asko egin bazituen ere, berez arotza zen Manuel. Gizaseme isila zen, baina gustura aritzen zen garai bateko kontuak kontatzen.



Frantxiska Iragorri Iriarte (1920)

Frantxiska -argazkian eskuinean- Garmendi baserrikoa da. Batez ere gerra garaiko oroitzapenak ditu. Oroitzapen gogorak. Bera orduan gaztea zen, eta gauza askoz konturatzen zen. Gerra garaiak gogoratzeak ondoeza sortzen dio, baina, gaia aldatzen duenean, umore ederreko emakumea dugu Frantxiska.



Inaxi Irastortza Artola (1914-2008)



Inaxi Irungo Kateakoa zen, eta igartzen zitzaion hizkeran. Ureder baserrian jaio zen eta Maldaburura ezkondu. Gizona Betelu aldekoa zuen, artzain familiakoa. Gero Maldaburu saldu egin zuten eta Altzibarrera etorri ziren. Bizitza osoan baserrian lanean aritua izaki, asko zekien gai horren gainean. Baserritik kanpora ere lan asko egin zuen: Fonda San Marcialen, Sein baserrian, esneketari lanetan... Lana zer den ongi zekien emakumea genuen Inaxi.

Maitxo Irastortza Gaztelumendi (1929)



Ergoien eta Karrika goitik begiratzen dituen Zabalea baserrikoa da Maitxo, eta ongi ezagutzen ditu bi auzoak. Eskolara Aierdira joan zen. Gogoan du erdaraz jakin ez eta isilik egon behar izaten zutela, baita Lexoti bertsolariaren familia jatorra ere. Esne-banaketan gaztetan hasi behar izan zuen, neskame gabe gelditu zirenean. Borrondegira ezkondu zenean, ez zuen mira askorik egin, ordurako aski ederki baitzekien zer zen baserriko lana. Enrike senarrarekin batera elkarriketatu genuen.

Joxe Luix Irastortza Mitxelena (1917-2009)



Joxe Luix Iturriozko Larrazabal baserrian jaio zen. Baserri horrek Oiartzungo kalea baino gertuago ditu Goizueta eta Arano. Ez da harrizkoa, beraz, Larrazabaltarrak aieka hartarako joera izatea. Andregaia ere Aranokoa egin zuen: Gregori. Hala ere, bai aieka batera bai bestera, oinez asko ibili behar izaten zuten; eskerrak Joxe Luixek beti gustuko izan zuen oinez ibiltzea. Erretiratu eta gero ere makina bat sari jaso zituen ibilaldietan. Hasieran baserrirako izaki, beste senideek baino eskola gutxiago izan zuen; baina gerran zauritu ondoren, lanean hasi zen eta han nabaritu zuen eskola falta. Hala ere, beharrarekin ikasi zuen, eta jubilatuen etxean ere 20 urte baino gehiago aritu zen bertako kudeaketa lanak egiten.

Erramun Irazu Apezetxea (1926-2013)



Erramun Portuburuko seme gazteena zen. Tornolan maisu eskasia edukiki, ez zuen urte asko egin eskolan. Baina Erramunek berezkoa zuen ikasi nahia eta aski ederki jakin zuen bizitzaren eskolatik behar izan zuen hura bilatzen. Ttikitatik ongi ezagutu zuen baserriko ardura zer zen, baina, horrek bizitzeko adina ematen ez zuenez, kontrabandoan ere arriskatu behar izan zuen. Portuburukoek ahozko transmisioa landu dute; su bazterreko kontaktak bizirik dirau haienean.

Pako Iriarte Rekalde (1935)



1935ean jaio zen Pako Iturriozko Estrataburu baserrian. Oraindik haurra zela, izeba-osabekin bizitzera joan zen Ergoienera. Jostaketarako denbora askorik gabe, beti aritu izan da baserrian lanean; beti izaten baita zer egin. Gaztea zela, sos pizarrak ateratzeko mendiko lanetan eta gau-lanean aritu zen, baserriko lanak sekula utzi gabe. Ondoren, esneketari lanetan hasi zen. Hasiara batean, Altzibarrera; eta gero, Altza eta Herrera ingururaino, "parrokiano onak" zituen. Pakok baserria maite du, eta Sarobe baserria mantentzeko lan handia egin du, garai bateko tresna eta tramankulu mordoak gordetzen ditu. Horrez gain, Comète Sarearen lekuko ere izan zen mutil kozkorretan, II. Mundu Gerratik ihesi zetozen makina bat abiadore-aliatu etxean hartu baitzituzten, orduan beren lanaren garrantziaz oso jakitun izan gabe.

Jexux Isasa Iartzabal (1928)



Jexux Igerobiaundin jaioa da (berak esaten duen bezala, "Iyerubi haundin"). Baleione bezala ere ezagutzen dugu baserri hori. Aspalditik egiten da sagardoa bertan. Jexuxek ederki dakizki edari horren sekretu guztiak, eta aski gogoan ere baditu Oiartzunen sagardotegi pila ederra zeuden garaiak ere. Bere aurrekoek kontatzen zizkietenak eta berak gogoan dituenak kontatu dizkigu, eta hartara, sagardotegietan egoten zen giroa ezagutu dugu. Izan ere, orain tabernetan bezala ibiltzen zen lehen jendea sagardotegiz sagardotegi. Bertan txotxetik edan eta basoka erosten zen; etxera eramateko ere etortzen zen jendea; eta horretaz gain, behiarekin garlean ere banatzen zuten... Makina bat sagardo egin eta banatu izan da Iyerun.

Joakin Iza Artola (1911-2011)



Joakin Ugarterrotan jaioa zen, beste bederatzi senidez osatutako familia batean. Altzibarko errekaen beste aiekan nahikoa haur elkartzen ziren jostatzeko, denak ere Ugarte ingurukoak: Ugarte berak, Ugarterrotak eta Ugartetolareak osatzen duten etxe-multzoak. Gazte-gazterik hasi behar izan zuten lanean, bera eta beste bi anaia Errenteriako paper-fabrikari aritu ziren lanean. Han harrapatu zituen gerrak. Behartuta eraman zuten, eta, euskaraz hitz egiten uzten ez bazioten ere, gogoan du tenientea euskalduna zutela. Gerra eta lana gogoan bazituen ere, gustukuen gogoratzen zituenak dantza garaiak ziren: "ai ai, gue denbuk!".

Carmen Jauregi Oiartzabal (1927)



Ergoien auzoko Zulatxipi baserrian jaio zen Carmen. Aita Zulatxipikoa zuen eta ama Ugaldetxokoa. Umetatik hasi zen baserriko lanetan. Aierdin ibili zen eskolan, auzoko eskolan, Doña Julia maistrarekin. Sagardo garaian kupel pare bat hustu arte sagardotegia izaten zuten Zulatxipin. Esnea eta etxeko fruta kalera eramaten zituzten saltzera. Eskola utzi eta gero Joxepa Iñaxi modistarengana joaten zen josten ikastera; bere amandrea zen. Juansendo baserriko Francisco Etxebesterekin ezkondu zen eta Juansendon jarri ziren bizitzen, senarraren etxean. Baserri hori eta inguruan zeuden beste lau gehiago bota egin zituzten Mamut eraikitzeke. Baserria espropiatu zieten eta Altzibarrera joan behar izan zuten bizitzera. Carmenek oso gogoan ditu baserri ondoko errota (Juansendoko errota) eta hango zelaietan zituzten fruta arbolak.

Pakito Landabea Lasa (1932-2020)

Oiartzungo Altzibar auzoan jaioa da Pakito. Aita Gonzalo baserrikoek jaso zuten eta bertako senar-emazteak izan zituen guraso. Ama, berriz, Karrikako Bidasoro baserrikoa zen. Lau senidetan Pakito zen zaharrena. Aitak Arditurriko minetan egiten zuen lan eta barberoa ere bazen; bi lanak tartekatzen zituen. Hamalau urterekin hasi zen lanean Pakito Altzibarko harrobian. Handik Errenteria-Oreretara joan zen lanera, eta bertan egiten ari ziren obretan pintxe modura ibili zen lanean. Gero Luzuriaga enpresara aldatu zen, eta bertan moldeatzaile ofizioa ikasi eta jubilatuta arte aritu zen. Baina Pakitoren benetako afizioa txirrindularitza izan da. Gaztetan txirrindularia izan zen; bost urtez aritu zen afizionatuetan eta bi urtez profesional mailan Añorga taldearekin. Geroztik beti ibili izan da bizikletan. 1970 urte inguruan Lartaun zikloturista taldea sortu zuen beste bi kiderekin batera. Begoña Odriozola pasaitarrarekin ezkondu zen eta Errenteria-Oreretan bizi izan dira. Hiru seme-alaba izan zituzten.



Joxe Luix Lardi Landa (1932-2016)

Txiki-txikitatik hasi behar izan zuen lanean Joxe Luixek. Baserri askotan ibili zen morroi. Garai haietan ikasi zuen pandero-jotzen; eta geroztik, hainbat soinularirekin bileratan, ihoteetan eta musika non, hantxe zen bera, bere pandero eta kantekin. Gerra ondoren, auzoko beste gazteekin batera, Ergoingo jaiak eta ihoteak berreskuratzeko lanetan aritu zen. Morroi eta artzain lanengatik, Oiartzungo mendi, bide eta tokiak oso ongi ezagutzen zituen.



Joxe Lasa Auzmendi (1920)



Beasainen jaio zen Joxe. Aita Beasaingo Olea baserrikoa zen eta ama Ataungoa. 1924an, Joxek lau urte zituela, Oiartzungo Audele baserrira aldatu zuen bizitokia familia osoak. "Duquesa de las Torres" zen baserriaren jabea; jabea hil zenean baserria hustu behar izan zuten. Eskola bat baino gehiagotan ibili zen, Mendizarren, Txaparren, mojekin eta Beheko Plazako Eskola Publikoan ere bai. Eskola utzi eta denbora gutxira soldaduskara joan behar izan zuen, eta lau urtetik gora egin zituen. Soldaduskara joaterako Errenteria-Oreretako Papeleran hasia zen lanean eta bertan aritu zen berrogei urtetik gora, jubilatuta arte. Kontxi Ralla errenteriarrarekin ezkondu zen eta Arraguan jarri ziren bizitzen, bertan lur-saila erosi eta etxetxoa egin baitzuen Joxek. Artean autopista egin gabea zen eta errepide berria egin behar zutela-eta lur zati bat saldu behar izan zuten. Bete bizi izan dira berak eraikitako etxetxoan, Arraguan. Hiru alaba izan zituzten.

Enrike Lekuona Artsuaga (1928-2019)



Bederatzi senidetatik bera gelditu zen baserrian, Borrondegian. Baina bizitzaren gorabeherengatik toki askotara ailegatu izan da Enrike. Lehenengo ikasketak Karrikako eskolan egin zituen, eta Donostiako jesuitenean eskolak jaso zituen, lanaren truke. Soldadutza Leongo meategietan egitea aukeratu zuen. Paper-fabrikari mutil kozkorra zenean hasi zen lanean eta industria-erreformak bete-bete harrapatu zuen; horregatik, Europako hainbat herritara joan behar izan zuen makina berriak ezagutzera. Europak eraman duen bidea hartzen ari garela dio, urte gutxitan galduko direla baserria eta garai bateko patxada. Maitxo emaztearekin batera egin genion elkarrizketa.

Juli Loinaz Azpiazu (1933)

Donostiako Loiola auzoan jaio zen amaren jaiotetxean, Zamarre baserrian. Bi gurasoak Donostiarrak zituen, ama Petra Azpiazu Arrastua eta aita Joxe Mari Loinaz Ibarburu, Betolondegi baserrikoa. Loiolatik Puntalera mugitu omen ziren. Donostiako gauza gutxi gogoratzen du, 3 urte zituenerako Oiartzuna etorri baitziren, Ezkontzegira. Gerrak bertan harrapatu zuen. Komunio handia egin zuenean Frantsillara joan ziren bizitzera. 1953an Epixkarrera ezkondu zen. 1957an Arraskura mugitu zen eta geroztik bertan bizi da. Baserriko lana ongi ezagutu du, elizako ohitura zaharrak eta sendabelarrak ere primeran ezagutzen ditu.

Mailloli Manterola Arrieta (1953)



Mailloli (argazkiaren erdian) Iturriozko Torren jaioa eta Txokoan hazia da. Iturriozko kaleko giro hura faltan sumatzen du, eta batez ere festak. Berriz ere zer edo zer antolatzen hasteko grina erakutsi zigun. Bere bi lagunekin egin diogu elkarrizketa: Mari Jose eta Domirekin. Elkarrekin hika erabiltzen dute eta hemen ere halaxe aritu zaizkigu.

Xeledonio Manterola Artola (1921-2017)



Aizarte baserrian jaioa, guraso biak oiartzuarrak zituen. Bost senide ziren. Arditurriko meatzeetan ibili zen lanean, eta gero baita harrobian ere. Irungo Olaberria auzoko Txirripa baserrira ezkondu zen, bertako alaba batekin. Baserriko lanetan ibili zen geroztik: segan, ganadua gobernatzen... Lau seme-alaba izan zituzten.

Mari Karmen Mendiburu Etxeburu (1940)



1940ko maiatzaren 19an Erretereriako partean den Artamugarri-erdikoan jaioa. Oiartzun eta Erretereria-Orereta arteko mugaren ondoan. Baserria Erretereria-Oreretako lurretan egon arren, Oiartzun gertuago geratzen zitzaenez, Iturriotz alderako joera zuten beti. Aita auzoko Arbide baserrikoa zuen, Jose Manuel Mendiburu. Eta ama, Lorenza Etxeburu, berriz, Donostiako miseriakordiatik Artamugarrin jasotakoa zen. Aizateko eskolan ibili zen Mari Karmen, baina erdietan ez ziren eskolara joaten, baserrian lana izaten baitzen. Sei senidetan gazteena da Mari Karmen. Ezkondu aurretik Pitusan aritu zen lanean eta Domingo Albisu Bordazpikoarekin ezkondu zenean lana utzi eta etxeko lanetan hasi zen. Bi semeren ama da.

Teodora Mendiburu Etxeburu (1936)

Artamugarri Erdikoan jaio zen Teodora, Oiartzun eta Errenteria-Orereta arteko mugaren ondoan. Baserría Errenteria-Oreretako lurretan egon arren, Oiartzun gertuago geratzen zitzaenez, Iturriotz alderako joera zuten beti. Aita auzoko Arbide baserrikoa zuen eta ama, berriz, jasotakoa zen. Aitak baserrian egiten zuen lan eta esneketariak saltzen zien esnea. Auzolanera joaten ziren ondoko baserrietara mantenu truke eta pozik, lana egitearen truke nahikoa jan eta edana ematen zitelako. Aizateko eskolan ibili zen Teodora, baina erdietan ez ziren eskolara joaten, baserrian lana izaten baitzen. Baserritik Oiartzungo Iturriotz auzora jaitsi ziren bizitzera ahizpa eta gurasoak. Oiartzungo Peluberri baserriko Inazio Etxenagusiarekin ezkondu zen eta, senarra harakina zenez, Orma izeneko harategia ireki zuten izen bereko etxepean. Oso estimatuak ziren bertan egiten zituzten odolkiak eta egin orduko saltzen zituzten. Salgai zuten haragia ere inguruko baserrietakoa izaten zen. Hogei urte inguruan izan zuten harategia. Senarra hil zenean harategia itxi zuen. Ordurako Amazkar baserría erosi eta erabat berritua zuten. Geroztik Amazkarren bizi izan da alabarekin baserriko lanak utzi gabe: ingurua txukundu, baratzea egin, oiloak eta txekorra hazi...



Santos Mitxelena Aranguren (1931-2021)

Santos (argazkian, ezkerretik hasita hirugarrena) baserri askotatik pasatakoa da. Ugaldetxo eta Arragua artean dagoen Igartza baserrian jaio eta oso gazterik joan zen Gurutzeko Borrokazelaieta baserrira. Elkarriketa egin zitzaionean, Biok Bat etxean bizi zen. Igeltseroa izaki, toki askotara iritsia da Santos. Kontrabandoan ere ibilia dugu.



Bixente Mitxelena Arbide (1927)

Ama Oiartzungo Aldako baserrikoa zuen eta aita, berriz, Peluagakoa. Gurasoak Peluagara ezkondu ziren eta 9 seme-alaba izan zituzten, seigarrena da Bixente. Gerra garaian txikia bazen ere, ongi gogoratzen ditu, batez ere, Gurutzen egoten ziren soldaduak. Berrogeita bost urte bete arte baserriko lanetan aritu zen eta ondoren, Errenteriako Niessen lantokian egin zuen lan. [Maria Jesus Arbelaitz](#)ekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituzten.



Joxe Mari Mitxelena Gelbentzu (1925)

Arraguako Bidagurutzeta baserrian jaioa eta hazia dugu Joxe Mari, "Birauztan". Arragua ingurua asko aldatu bada ere, berak oraindik gogoan du nolakoa zen auzoa bera mutil kozkorra zeneko garaietan, eta aski ederki azaldu digu. Desagertutako baserriak, bertako baserrien jabe egin ziren kanpotar aberatsak, gerra garaian Errenteria ezin harturik zebiltzan soldaduak... aski gogoan ditu denak. Eta bertsoak. Bertsozale amorratua da Joxe Mari: anaiak erosten zituen bertsopaper guztiak buruz zekizkien, baita elkarrizketa egin zitzaionean ere. Bat-batekoan ez hainbeste, baina bertso-jartzen aritu izan da orain dela gutxi arte. Adinarekin horretarako gogoia joaten dela dio Joxe Mari, baina gaztetan umore ederrekoa zela dio, eta ez du esan beharrik, bizimoduak astinaldi gogorrak eman badizkio ere, zorionez, oraindik umore ederra ageri du eta.



Mañoli Mujika Ezponda (1931)

Herreran jaio zen 1931n. Lau senidetan bigarrena. Aita donostiarra zuen eta ama, berriz, Oiartzungoa. Hiru urte zituela, gerra zela-eta, Bilbora joan ziren ihesi. Ama bertan hil zitzaien 29 urterekin. Handik Grenoblera (Frantzia) bidali zuten eta bost urte inguru egin zituen bertan. Gerra bukatu zenean, aitarengana itzuli behar izan zuen, baina berak ez zuen nahi, dagoeneko Grenoblen etxekotuta zegoelako. Gainera, frantsesez besterik ez omen zekien. Frantziatik itzuli eta Herreran pasatzen zuen astea; asteburuetan Oiartzunera, amonaren etxera. 14 urterekin neskame lanetan hasi zen Oiartzungo Karrika auzoan. Gerora taberna eta denda izan zituen. Oiartzungo Jose Luis Olaziregirekin ezkondu eta bi alaba izan zituen.



Joxepa Oiartzabal Eiguren (1925)


Arditurriko Soroeta baserrian jaioa, aita bertakoa zuen. Meategiko arduradunetako bat zen. Hiru senide ziren. Mojetan ikasi zuen, eta 14 urterekin Arantzara joan zen neskame. Hernaniko batekin ezkondu zen, eta Frantziara joan ziren bizitzera, Fleurance Gers herrira. Semeak bi urte zituenean bueltatu ziren, eta Arditurriko ostatua hartu zuten. Meategiko langileak izaten ziren bertan jaten eta lotan. Pikoketako tabernan ere aritu izan da lanean.



Inaxi Oartzabal Etxeberria (1929)



Inaxi Zamora baserrian jaioa da. Nortasun handiko emakumea dugu, baserrian gogor hazia eta hezia. Bizimodu gogorra eduki badu ere, edo horretxegatik beragatik, gaur egungo aldaketa gehienak ongi hartzen ditu: eliza kontuak direla, emakumearen egoera dela... hitza bere tresna dela erakutsi digu; neurriko esaera eta hitzak jartzen dizkio azalpen bakoitzari.



Maritxu Oiarzabal (1938)

Joxe Juan Oiarzabal Arozena Gurdiya (1947)

Oiartzungo Gorrinzulo Zahar baserrian jaio zen Joxe Juan, 1947ko urtarrilaren 26an; Gurutze auzoa eta Pikoketa artean zen Gorrinzulo Zahar. Hamar senide izan ziren. Igeltsero izan da Joxe Juan ofizioz, eta artzain afizioz. Gehiago edo gutxiago, beti izan ditu ardiak etxean. Hondarribiko Jaizubia auzoko Gebaralarre baserriko Pepi Aginagalderekin ezkondu zen, eta Irungo Olaberria auzoan bizi dira orduetik. Joxe Juanek beti izan du lotura handia herri-kirolekin; sega munduarekin, batik bat. Desafioen bat edo beste jokaturakoa da, eta Irungo Iñaki Bengoetxea segalariak laguntzaile izan zuen Joxe Juan urtetan; lagun handiak dira biak. Bertsozalea da Joxe Juan, eta Txingudiko Bertso Eskolan aritzen da. Bertsoarako lagun arteko jarduna nahiago badu ere, jende aurrean behin baino gehiagotan aritutakoa da.

Frantxiska Pagadizabal Artola (1931-2012)



Frantxiska Ergoiengo Txarondo baserrian jaio eta hazi zen. Ezkondu zen arte, baserriko eta etxeko lanak egiteaz gain, ilobak ere hazi zituen. 30 iloba zituen eta arrunt maiteak denak, baita ilobek bera ere. Txarondon esku onekoak ziren gehienak: josten, arotz lanetan... Artalde ederra edukitzez zuten, artilearekin makina bat lan eginak dira. Beraiek egiten zuten artilea, eta harekin etxeko arropa gehiena. Dagoeneko galduta edo galduxeak dauden ohiturak aski ederki ezagutu zituen Frantxiskak: artzaintza, txondorrek, karobiak, gobada, auzolana, kardakia, sanjuanak, Eguberriak, sorginkeriak... eta horiek denak, arrunt hizkera aberatsarekin kontaktzen zituen, gainera.

Joxe Pagadizabal Artola (1928)



Txarondon jaio eta Olatzenera ezkondua dugu Joxe. Baserritarra eta artzaina izaki, Tornola eta inguru guztia lurrazaletik ezagutzen du, baina baita lurpetik ere, Arditurrin aritua baita lanean soldadutzatik libratzeko hasi eta meategiak itxi ziren arte. Joxeren garaian zinka ateratzen zen gehienbat, baina erromatarrek beruna ateratzeko utzi zituzten arrastoak aski ezagunak ditu; oraindik ere harritu egiten da da haiek egin zuten lan guztia ikusita. Arditurriko meategiek askori ematen zioten jaten, eta itxi zirenean, kolpe handia izan zen herriarentzat. Garai haiek ere aski gogoan ditu Joxek.

Segundo Pagadizabal Artola (1933-2019)



Txarondon jaio zen Segundo, Tornola auzoan. Garbi du Tornola eta Ergoienen arteko muga, beraiek tornolarrak izan dira beti. Segundo sei senidetan hirugarrena da. Gurasoak Jose Domingo Pagadizabal eta Manuela Inaxia Artola zituen. Aita Txarondokoa eta ama Irungo Zurrunbilokoa, baina gazterik Oiartzuna etorria. Txarondon bizi den laugarren belaunaldia da Segundo, ez daki hurrengorik izango den. Baserriak 200 urte inguru omen ditu. Beren aurrekoak Aia aldetik etorri omen ziren minetara lanera eta orduan eraiki omen zuten Txarondo. Gerra karlistan erre egin omen zuten, baina herritarren laguntzarekin berreraiki zuten. Kontu eta istorio mordoa kontatzen dizkigu, sorgin kontuak tarteko, hizkera politarekin. Trikitixa jotzen ere trebea, pieza batzuk jotzen ditu.

Arroxa Pikabea Artola (1916-2009)



Arroxaren jakinduria guztia jaso eta hemen jartzeko motz gelditzen zaigu txoko hau. Izan ere, berak esaten zuen moduan, "bizimodu klase asko izandakoa" zen. Oso gazterik alargundu zen eta 11 seme-alaba hazi behar izan zituen berak bakarrik. Hori gutxi balitz, kanpoko askori ere lagundu zion. Xabier Leteren hitzak ongi aplikatu zituen Arroxak: "ez dadukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona". Arroxak bazekien zer zen emakumea izatea, eta gai horretan oraindik atzean dagoen gizartearen aldean, bera oso aurreratua zebilen.

None Rekalde ahizpak



Rekalde Urdanpilleta ahizpak sasoi bateko kantuak abesteko eta kontuak esateko bildu ditugu. Aita oso kantuzalea zen, eta bi ahotsetan kantatzen erakusten zien. Ugaldetxo auzoko Garro baserrian jaioak, zortzi senide ziren, horietako zazpi neskak. Ezkerretik eskubira, Kontxita (1939), Maria Dolores (1929-2018), [Maria Luisa](#) (1928), Maria Jexux (1934), Arantxa (1932) eta Juliana (1931).

Maria Luisa Rekalde Urdanpilleta (1928)



Ugaldetxo auzoko Garro baserrian jaioa. Zortzi senidetan seigarrena. Aita bertakoa zen, perratzailea, eta ama Altzibarkoa. Manuel morroia ere beraiekin bizi zen. Moja ikastetxean ibili zen. Gerra etorri zenean amonaren etxera joan ziren, eta etxea soldaduz bete zitzairen. Aita kartzelara sartu zuten, nazionalista zelako. Gerra ondoren Donostian ibili zen ikasten, Señoritas de San Vicente ikastetxean. Ahizpekin batera kanporako josten hasi zen gero. Irunera ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Txingudi Ikastolaren sorreran parte hartu zuen.

Joxepa Retegi Aizpurua (1925)



Ugaldetxoko Esnao baserrian jaio zen 1925eko otsailaren 25ean. Aita Pio Retegi, karrikatarra zuen; ama, berriz, Josefa Luisa Aizpurua, Iturriozko Anatxuri baserrikoa. Zortzi senidetan zaharrena izaki, etxean lan asko egitea tokatu zitzaion Joxepari, ez zen handik asko ateratzen, ezta eskolara joateko ere. Gerra garaia bete-bete bizitu zuen eta hainbat istorio kontatzen ditu, zehaztasun handiz. Altamira baserriko semearekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen.

Inaxi Retegi Elizegi (1925)



Inaxi (argazkian eskuinean) Aranbiden jaio eta Aranen hazia da. Lau senideak oraindik gazteak zirela hil zitzaizkien gurasoak eta izeba batekin gelditu ziren Aranen. Baserriko lanetan ez ezik, josten ere asko aritzen zen Inaxi. Lehendabizi Iturriotzen ikasi zuen josten, eta geroago Errenteriarra joan zen ´korte´ ikastera. Baserriko lanak egin behar izaten bazituen ere, ahal zuen guztietan kalera joaten zen. Beti gustatu izan zaio kaleko giroa eta lagun asko ere bertan egin ditu: Mari Karmen Zalakainekin ikasi zuen kantari eta koruan ere urte askoan aritu izan da.

Asier Retegi Oiartzabal (1990)



Oiartzuarra da, 1990. urteko maiatzaren 23an jaioa, eta Ingeniaritza zibila ikasitakoa; irakasle izateko masterra ere egin du. Urte askotan zehar pilotan jokatzen ibilia da Asier, eta gaur egun, haur eta gazteei pilotan jokatzen erakusten aritzen da. Bi senidetan zaharrena, oiartzuarrak ditu gurasoak. Bere hizkerarekiko kezka berri azaltzen du, eta adierazi, ahalegin berezia egindakoa dela Oiartzuera ongi ikasten eta lagun artean eta inguru hurbilean hitanoa sustatzen. Lagun talde edo koadrilaren aisialdian euskarak hartzen duen eremuaz eta betetzen duen funtzioaz dihardu bereziki, beste hainbat konturen artean. Julen Idarreta koadrilako lagunarekin batera elkarrizketatu genuen.

Maitxo Sagardia Olano (1926)



Maitxo Astigarragan jaioa bada ere, sei urterekin Oiartzunera etorria da. Oiartzungo kalea ongi ezagutzen du, elizaren atzean zegoen Ollokine baserrian hazia baita. Ollokinen jostundegia zuten izebek, eta makina bat neska pasa ziren bertatik josten ikasteko. Maitxok gerra aurreko eta ondorengo Oiartzun ezagutu ditu, eta aski ederki daki gerrak zer ondorio utzi zuen herrian eta herritarrengan.

Nikolas Sagarzazu Oiarzabal *Ankamotxenekoa* (1931)



Bederatzi senidetatik txikiena, aita igeltseroa eta ama etxeakoandrea zituen. Lanbidez praktikantea eta zaletasunak berriz, futbola eta igandetean lagunekin ateratzea. Emaztea errenteriarra, bi alaba izan zituzten.

Lorentxa Saizar Lopetegi (1927)



Lorentxa (argazkian ezkerrean) Lezoko Maintzine baserrian jaio eta Aranera ezkondu zen, bertako Piorekin, Inaxiren anaiarekin. Piorekin ezkondu zenean, Pioren beste bi senide eta izeba bizi ziren Aranen. Bost seme-alaba hazi ditu bertan, eta senarra lantegira joaten zen bitartean, baserriko lanak egiten zituen berak. Oraindik ere Lezoko hizkera eta ahoskera gelditzen bazaio ere, oiartzuera ongi ikasi du eta Oiartzun bera ere bertako edonork baino hobeto ezagutzen du.

Joxe Luix Tapia Iparragirre (1933)



1933. urteko abenduaren 11an Ergoiengo Epele baserrian jaioa. Ama Maria Iparragirre zuen, Epelekoa bertakoa eta aita, berriz, Martin Tapia Penadegitxiki baserrikoa. Bi senidetan zaharrena da Joxe Luix. Aita oso gazterik hil zitzaian eta gazte-gaztetatik hasi behar izan zuen lanean: baserrian, kanpoan eta baita kontrabandoan ere. Ederki kontatzen ditu, batez ere, kontrabandoko kontuak.

Dolorex Unsain Aizpurua (1935)

Domi Unsain Iartzabal (1949)



Domi (argazkian, eskubitara) Iturriozko Beltzenen jaioa eta Sarasenen hazia da. Bere lagunak ez bezala, bera mojetan ibilia da kalean. Aski ederki ezagutzen du Tronpeoko malda. Lagunak, ordea, oraintxe bezalaxe, Iturriotzen zituen orduan ere. Bere bi lagunekin egin diogu elkarrizketa: Mari Jose eta Maillollirekin. Elkarrekin hika erabiltzen dute eta hemen ere halaxe aritu zaizkigu.

Pepi Urbietta Enbil (1949)



Oiartzunen jaioa 1949an. Bi senidetan nagusiena. Gurasoak ere oiartzuarrak zituen. Amak baserrian lan egiten zuen eta aitak, berriz, Errenteriako "La Papelera" lantegian. Pepik administrazioan lan egin izan du. Jesus Garcia arabarrarekin ezkondu eta bi seme izan zituen.

Pili Urritegi Artola (1945)

Joxepa Zabalegi Lazkanotegi (1916-2009)



Joxepa Altzibarko Martinmotzenen jaioa zen, eta bertan bizitakoa, Arandaranera ezkondu zen arte. Bederatzi senide izaki, lan asko egina zen umetatik, baserrian bezalaxe kanpoan ere. Martinmotzenen dolarea zeukaten eta jende asko pasatzen zen bertatik. Joxepak lana egin behar izaten zuen eta ezin izaten zuen egunero joan eskolara. Maistrak errieta egiten zion horregatik; izan ere, eskolarako asko balio zuen. Gerora ere, Arandaranera ezkondu berritan, auzoko haurrei eskola eman zien Aizegainen.

Joxe Zabaleta Labandibar (1929-2012)



Karrikako Etxeberrikoa bazen ere, berez, Donostiako Mirakruzen jaioa zen Joxe. Baina oso gaztea zela etorri zen familia bertara. Ama zuten Etxeberrikoa. Karrikara bizitzera etorri baino lehen ere, eskolako oporrak Altxatzekin pasatzen zituen Joxek. Ama ez omen zen oso gustura etorri, baina beraiek honera eginda zeuden eta ez zuten mirarik egin. "Kastillano burro" deitzen omen zioten Karrikan, eta gero zer da, eta erdaraz ahaztu. Edonork esango zuen Joxe donostiarra zela: Oiartzungo bazterrak beste inork baino hobeto ezagutzen zituen eta baserrian ez ezik, mendian ere lan asko egin zen. Urte gehienak Diputazioan egin zituen, errepedeak konpontzen, baina lantegi askotatik pasatakoa zen, 14 urtetarako lanean hasia baitzen. Oiartzuar petoa bagenuen ere, hitz batzuetan gipuzkera kutsua nabaritzen zitzaion.

Roxario Zalakain Irastortza (1923)



Roxario Iturriozko Martiagirrenean jaioa da, beste zortzi seniderekin batera. Aita ferratzailea zuten, baina bere lana ez zen nahikoa hainbeste haurri jaten emateko, eta gazte-gaztetatik hasi behar izan zuten senideek etxetik kanpo lanean. Bera hamabi urte zituenerako hasi zen Aduriz sagardotegian lanean, eta hantxe ibili da lan eta lan erretiratu arte. Egunero-egunero joaten zen lanera, baina, gaztea izaki, igande eguerdian lana bukatu orduko han joaten zen lagunekin Txikiardiko bilerara. Gauza gutxirekin ilusioa izaten zutela nabarmendu digu Roxariok, eta lana besterik ezagutu ez duen emakume honi umorea gordetzen duela igarri diogu guk.

Kaxilda Zubialde Olaskoaga (1911-2012)



Kaxilda ergoiendarra zen, Txanpañen jaio eta bizitakoa. Gaztetan kaleko Ollarragirrera etorri ziren eta handik ezkondu zen plazara. Ergoiengo Garatekoa zuen senarra, arotza. Txanpañe Aierdiren ondoan dago, eta Aierdi eskola zen. Hori dela eta, auzoko bere adineko hurrekin harreman handia eduki zuen Kaxildak. Plazan bertan biziki, Oiartzungo gertakari nagusien lekuko bikaina zen Kaxilda. Bere garaiko beste askoren modura, gauza onak baino txarrak gehiago pasatakoa zen, baina umore onari eusten zion beti.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Gerra hasiera

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/003
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Frantxiska ongi gogoratzen da gerra hasi zen egunaz. Hamasei urte zituen garai hartan. Altzibarko bileran zeuden eta etxera bidali zituzten.

Transkripzioa

- Nik hamasei. Bai, kasi hamazazpi. Julion, bueno, hamasei t'ardi.
- Gotu ongi ingo zazte?
- E?
- Gotu ongi ingo zazte?
- Ni bai! Nik rekuerdo erra dut!
- Je! Nik'e battut errak hanguk! Jesus...!
- Guk gerra nola hasi zen, gue amak permisua, pentsatu e! Hamasei urte, iya hamazazpi 'ta, permisua man zigun Azañea joteko, launak, e!
Bokadillukin, pensa zu! Gue pozak! Erretratzeko makina bat bagenun, gen hura hartu, Azañea jon giñan,
han geo Garmendixikin bizittu zen Modesto hura eta... Beste bat zein zen? Ergoingua, Trajinosen. Haik han eta gu erretratuk eta atetzen. Makina bagenun Batistak, zea Bartzelonatik karriya, soldadu eondu zenin 'ta iruitzen zigunen mundu guziya bagenula!
'Ta handikan Altziberra sartu 'ta Altziberko billera, jaitan izaten zen 'ta, gu pozik, amak permisoik ez zigun maten joteko halakota 'ta "gaur aprobextuko ñeu ba" Altziberko billera! Hara jon 'ta, ez dakit zein izango zen, han gizasemen bat, san zigun:
"umik, jon itxea, itxea jon, itxea jon" 'ta san niyon: "hau duk pesta! Itxian permisoik maten ez honea torri 'ta itxea joteko! Ze pasatzen da ba? Zertik jon ber dugu itxea?" 'Ta "bai, bai, zea" orduko sartuak zin, Goikoetxeko Arraskularrea reketik eta tiroka 'ta hasiyak!
"Ezetz, tiruk botzen 'ttuzte 'ta!" "Jon itxea, itxea joteko!" "guazenman hemendikan ordun!" Anda demonio! denak bakotxa gen itxeta! 'Ta ya... Pentsatu, ya, hurrungo euneko, ya batailla hasiya zen.

1.2. Errepublikazaleak baserrian

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Maitxok gogoan du gerran errerepublikazaleak eduki zituztela Isturitzen. Lehendabiziko batailoikoak ongi portatu ziren beraiekin; hurrengoak, berriz, ez.

Transkripzioa

- Guk... Zeak euki genittun, gorriyak!
- Klaro! Zuek haik hartu arte!
- Bai.
- Hemen pasa genittun bittartin!
- Baserriyan gorriyak euki zenittuzten?
- Bai, barrenin. Batailloi bat, bi batailloi eondu zin! Aurrenekuk... Oso onak gaiña! Jesus! Gaiña han zen, Joxe Mari, handik, handik hiru torri giñan. Ttikina betzi hillabetekua, eta geo, ordun jaiyua, oihaletakua, goun dakat, ttikiya, azidentin hil zena, Joxe Mari hua, hogeita zazpi urtekin hil zen, hua ttikiya 'ta uoi....! Denak han ibiltzen zuten, besuan barrena 'ta, bai batailloi oso osua! Irunguk matrimoniyo bat, etorriyak, bi haur amonakin utzi eta etorriya! 'Ta geo enteratu....
- Bean artin, e?
- Bai, gerra etorriya haikin! Eta geo ama enteratu zen hil zila biyek! Frenten batin biyek hill, in zila! Bai hola... Geo haik jun 'ta berriyak etorri zin! Haik demoniyuk zin! Impernuko etsai guziyak bekin zittuzten! Gue attonai 'ta... Lepuan katiak 'ta... Denak kendu! Kontuz e! Denak pistolakin haik!
- 'Ta haik 'e gorriyak zin, miño...
- Igual igual! Bai, biño, beste zean, txandatu in zin 'ta!
- Karo, batailloiyak!

1.3. San Markosen errepublikazaleak eta Garmendin erreketekak

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Frantxiskaren baserrian, Garmendin, erreketekak egon ziren. San Markon, errepublikanoak zeuden, eta handik botatako bonbek ezin zuten Garmendi harrapatu. Horregatik egon ziren han erreketekak. Behin Garmendiri eraso zioten hegazkinarekin, eta bertakoak majararen ondoan gorde ziren.

Transkripzioa

- Gue etxian reketik! 'Ta soldaduk gue itxian! Larogetitahamasei laun eondu giñan gu Garmendin, e! Aldi batin! Bos famili bueno bos famili osuak ez, biño itxe bakoitzetik bi, Ibarrekuk, Katalintxokuk, e... Aintxuixkikua 'ta Matteonekuk.
- 'Ta gue itxia kañonazuk ez zun harrapatzen San Markotik, porke sagardiya nola genun, hola in ber 'men zun kañonazuk, hola 'ta geo hola, 'ta gure itxia ez zun harrapatzen! Bat inguratu zitzaigun, oillotegiko birexurreko ixkiña hartan, 'ta...
- Bai, 'ta hura zen, reketek bat zen, tenientia, euskalduna e! Ardua biño moxkorroua 'ta Iturrioztik heldu zen, 'ta ingurun lertu zea kañonazua! birexurran, harren larriya! Lurraz betia korrika gue itxea!
- San Markosen uandik iongo zin republikanuk?
- Klaro! Gorriyak saten geniyonak!
- Haik jakin, ez zula harrapatzen zeak!

- Klaro, bueno...! Haik bazekiten gue itxian tropa zola! 'Ta baita abioya torri 're eun batin! Bai biño, abioya torri zen... Gure itxian zon kompaiñitikan bi pasa zilako haruntz! 'Ta ordun haik san zioten non zon tropa!
-Eta aeroplanua 'ta... Gu inoxentik! Heiyeya, heiyeya joten giñan denak eskapo!
- Jesus...! Hombre!
- 'Ta ataira beitu 'ta ni akortzen naz, zarpatik hartu 'ta nola eaman ziten barrenea.
"Torri ñai honea!" 'Ta ni atia jon 'ta, abioya bajo bajo bajo, uango abioyak... ze-ene-te jartzen zun, komunistan sinak. Hora kusi nunin, hura martxa barrenea! Eta gue Regina, gue Regina hura genun denan maistra. "Tozte honea 'ta hartu 'ta zea" majaran onduan!
'Ta ordun ze difentia izango zen, e! Ze inoxentik! Miño bai... Garmendi atakatu zuten!

1.4. Isturitzen errepublikazaleak eta Munuandin frankistak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/006
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:13:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Maitxok kontatzen du Isturitzetik Portuluzera bidali zituztela. Kontrarioak Munuandin zeudela esaten zioten. Egunez ezin zuten atera, eta gauean aritzen ziren baserriko lanak egiten. Soldaduek hartu zuten baserri guztia eta beraiek toki gutxirekin gelditu ziren.

Transkripzioa

- Eta ordun haik ze itten zuten, baserri bat hartzen zuten miño baserrikuk bertan ioten zin?
- A! Bai, bai, bai! Gu behintzat bai!
- Gui bigarrenko tandak, haik, bigarreguk e... Han bialazi in ziguten! Portuluzea jun giñan gu ordun!
- Portuluze zein da?
- Portuluze da Oartzabaldik hauntxixio beste baserri bat, uain hutsa iongo da, ez dakit hua berrittu 'ta in zuten, biñon uste 'ut hutsa iongo dela!
- Ez, ez! Gue itxian...
- 'Ta azkenin jon giñan gu hara! Hara pasa ziguten! Ba... Baiño eunez ez giñan atetzen! Munaundin zoztela saten zuten kontraiyuk eta zea, arropa 're zuriyik ezin genun jantzi!
Eta denak hantxe! Karo, hemendik distingittu itten zittuzten hara! Eta behiyak eta gabin nozpatt ilumpetan jon 'ta, belarra 'ta ba hola, urti, garai hontan zen gerra!
- Julion
- Ez... lenoztik!
- Julion, dieciocho de Julio
- Meno...
- Julion, miño klaro, geo urtiak zea in baizin!
- Ez, miño horrembeste demboa ez zuten pasa, Errentira sartzen.
- Ni Joxemaingatik akortzen naz...
- Keba, no, no...! Julio, dieciocho de Julio eta hemen eondu zin... Bi

hillabete? Errentira pasatzeko? Holokon bat!

- Ba ni akortzen naiz, errapollua 'ta baratzan aldatuk amak, eta illumpetan jun eta azpitik hostuak eta kendu 'ta... Nola heltzian jateko, errapollua 'ta errapollua primaberakua da ba!

- Ez, ez, ez, primaberan ez zen gerrik!

- Nik gaiñekun ez dakit gehiyo, zazpi urte 'o nittun 'ta nik gaiñekun ni hola akortzen naiz e...

- Gauzak!

- Bai, gauzak!

- Ordun enteinttu 're ez zenuten ingo!

- Bua...! Ze entendittu ber genun! Gorriyak! Saten zutena, "hara gorriyak!" Bo...! Biño azkenekuk izugarriyak zin!

Juten zin mendira, ben manduak eta sestukin hartuta Trabalekutik eta ardiyak eta oilluak eta...

- A! Hemen 'e bai, e? Hemen reketik... Saukuri txokorra!

- Biziyik tirua man, oilluai lepua moztu, Bota harrika hiltzeko...

Bo...! Haik, haik izugarriyak izandu zin! Bueno...! Geo gaiña gu geldittu giñan gaiña kuarto batekin denak, 'ta beák hartu zizkiguten kuarto denak, eta balakin zulatuta jarri gaiña! Ni akortzen naz, gu ttikiyak, karo, zazpi urte 'ta... Bestik, ni zaharrena!

Sillan, gu 're gaixtuak jarri 'ta zolotik beitzen gu, bakizu, azkenekuk 'e bai baizittuzten emakumik karriyak bekin! Bai, bazin emakumik 'e! 'Ta gu handik beitzen 'ta haik emakumikin han barrenin! 'Ta bo...!

1.5. Erreketeak ezin errenditurik

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/007
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:13:15. **Bukatu**: 00:16:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Erreketeak nahi zuten moduan ibiltzen ziren baserrian, denaren jabe eginez. Garmendiko aitik eta bizilagun batek ez zieten uzten nahi zutena egiten.

Transkripzioa

- Guk reketik izandu genittun errak! Gue attak zea, baratzeko tipulak, oan tipula jaten dugu guk biño, ordun zeiniek?

- Ordun iñorrek ez!

- 'Ta, baratza jon 'ta, atera tipulak raka raka 'ta, gue attak, gue atta karlista zen, biño karlista fiña, e? Harrek Ezin zun eaman iñoi kalteik ittia 'ta detentziyak 'ta bueno...! Kustiyua da, "ettik iñork horretik gehiyo jango!" Pixa depositotik hartu, porroka pixak eta tipula guziyak pixaz bete! Ala! Biñon, jon 'ta raka raka, 'ta hoi bakarra ez...! Sukaldea... Reketik oso lotsagabik zin, e! Sukaldea iyo, oliyua hartu, martxa! 'Ta Katalintxoko amona, arrontin salada zen, erderaz 'ta zean 'ta.

Geo arratsetan hola bombardeua zenin 'ta denak, argi guziyak itzaliazi itten ziguten. Eun batin han geunden zean, salan, txakurra itzekua béakin karriya zun, eta "beno... Ez gaittun ba beti nearrez eongo, e!" "Zakurra jarri ber ñeu dantzan."

Salan, sartu 'ta seittun lembiziko sillan hura exeita 'ta txakurra ondian.

Txakurrak seitzen ziyon! "Aber, parra in nahi al zute?" 'ta "Bai" "Zakur hau jarri ber dut dantzán" horregatik Trinidadok beti saten zin zea, la pitxita y la reina kantatzen ziyon 'ta...

"Benga, benga, aber, dantzatu e?" "la chiquita y la pirrinda no se cuantos va bailar..." 'Ta hola hasten zen eskuakin 'ta txakurra ttente ttente jarrita... Eta guk gutxi aski!

- Ordun 'e...

- Eta sekulako parrak itten genittun gen amon harrekin 'ta behintzat eun batin sukaldin han kozinan aitzen zen, 'ta esnia zea sobra! handikan behiyak, behiyak gue itxea karriyak iñondikan salidik ez! Arrozkonletxe in ber zula!

'Ta, han zon arrozkonletxe itten 'ta, teniente leno san duten ze hoi sukaldea torri 'ta han exeita hora. Reketia sartu zen 'ta ez zun ikusi, jon 'ta rau! Oliyo botilla hartu zun 'ta "¿Qué vamos a hacer nosotros si nos llevais el aceite? ¿Por qué no haceis abajo?" 'Ta ez dakit zer 'ta...

Ze hoik, Maijoxepa hoi 'ta. "¡Necesitamos" "¡Pues comprar!" eta, buelta manta jon zen 'ta, geo tenientik: "¡esque ya ve usted lo que nos hacen, y no tengo derecho de enfadarme!" Erderaz e! Ongi itten zun. Eunero Donostira jotén zena 'ta hola zen 'ta. "Esque nos quitan todo y ¿Qué va ser esto?

¿Con qué vamos a hacer nosotros las comidas?" 'Ta... ez zin gehiyo torri sukaldea! Jarri zun ordena teniente zahar harrek! Ui...! Torri 'ta dena kendutzen ziguten!

- 'Ta atrebittu zen emakume hua...

- Bai! Ez zun kusiya han exeita zola! Buelta man zunin...: "a! ¡Estaba uste ahí! No me importa e, no me importa porque es la verdad"

- A! 'Ta horregatik... Harrei zea...

- Bai! "Es la verdad, eso nos hacen y... ¿Con qué vamos a hacer nosotros comida, sólo con arroz con leche vamos a vivir o qué?"

1.6. Ikurrina zanparazten

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/009
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra hasieran, Oiartzungo kalea erreketez bete zen. Frantxiska ogi bila joan zen batean, herriko ezagun batzuek ikurrina zanpatzeko esan zioten. Frantxiskak ez zuen egin eta ihes egin zuen handik.

Transkripzioa

- Karlistak hoikin juntatu al zin, 'o ze in zuten...?

- Bai, beira! Gerra hasi zen leno san duten bezela iandi horrekin. 'Ta handikan... bai, hiru lau eunea ya Oiartzunen sartu zin, e.

Eta ni akortzen naz, Katalintxoko leno san dutena, familiya geunden gue itxian 'ta klaro, ogiyik ez zen 'ta ogiya billa jon ber izaten zen kalea! Eta Joxe, hil zen, hora 'ta ni giñan deneko bialtzen zigutenak, biyek edadetsu berekuk...

- Anaia?

- Ez Katalintxoko semia.

- A!

- Joxe? A bai! Altziberren!

- Eta... Behintzat, gu biyek edadetsu berekuk, hamasei, hamazazpi urte 'ta pf! Beldurrik askoik ez ordun guk eta, kalea ogiya karri ber genula! "Bale". baguzen hemen, Lizarrazpin barrena eta Zaku 'ta nola dia kalin? Hoin osabak eta... Haik Iturriotzen zoztenak, haik 'e kalea ogi billa! "Hara! Reketik sartu dia Oiartzunen!" Eta Oiartzungo beste izaun bat, heldu zen reketikin 'ta guk 'e bagenekiuon ze sango ziguten.

"Hoik viva España sango digute 'ta guk agur kontestatu ber 'yogu". 'Ta "bai, hoixe in ber dugu". Karo, lembizikun...

- Karo, hamazazpi urte 'ta...

- Bai, biño, ez beldurrik lembiziko eunetan!

- Bai, biño, gehiyo, gauz gehiyo, gu bezela ez...

- Eskarmentoik 'e ez 'ta.

- ...Gu ttikiyak giñen, gu aman onduan 'ta guk ez genun zeaik, biño!

- Bai, hamasei, hamazazpi urtekin ya iertzen da...

- Bai, bai...!

- Bueno...! "¡Viva España jóvenes!" 'Ta guk: "agur!" 'Ta haik asko zekiten agur zer zen!

Gu pasa 'ta geo, haikin heldu zenak in ziyoten san gu abertzalik giñala. Jitu 'ta "¡jóvenes, viva España!" 'Ta Posteko Dolorexek, Iñarra 'ta hoin alkatia 'ta eondu zen horren izebak: "Jiba zizte ez bazute enteintzen".

- Kalea jon giñan, zer zen hura! Kale guziya reketez betia. Bua...! Dena hola, e! Eta kalea sartu giñan 'ta ez dut izena sango, zea, batek san zin besotik helduta, bi ahizpak zauden. San zin: "Frantxiska, hara hemen zuen ikurriña oain bakizu, ;no os valen eta a pisar esto!"

"Zer?" "¡Sí sí!" Gaiña erderaz hitz eitten zuten. " Tienes que pisar."

"Kostako zattuzte erki!" Nik buelta eman eta oaiñ bankuk eta gauzak dia, biño guk leno bian genun saardoteiya, Garmendikuk hor saardoteiya genun bian.

- Xabalen azpiyan zeona hura zuena zen?

- Bai. Eta nik betik gottiko pasua banekin erki, 'ta ni pasillotik xiau....! Sartu nitzan hara, saardoteitik atera 'ta ni itxea ogiyik gabe! Biño dembo askoa e!

Biño dembo askoa e! Ez pentsa neska hoik utzi zitela ben pixkatin ben ondotik u...! Zarpatic helduta! Eta, itxea etorri nitzan 'ta ogiyik gabe 'ta: "hombeste dembun eonta ogiyik gabe heldu za?" Amak. "Biño ze aittu za oain arte?"

'Ta san niyon, atta 're han zen 'ta: "bira, jon ga 'ta holokok 'ta holokok, e, san dite ikurriña zampatu ber nula! Eta esan yotet kostako yotela erki 'ta saardoteitik barrena sartu 'ta eskapo iñ 'ta torri in naz!" 'Ta gue attak san zin: "oso erki iña! Igual da zein den koloreko ikurriña, ikurriña oso gauza sagradua da 'ta ez da sekula hanka azpiyan ibili ber, oso ongi in zu!" Ui...! Hura poza neria!

1.7. Lehendabizi erreketekak eta gero soldaduak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/010
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena:** Garmendi erreketez bete zen. Bazekiten bertakoak abertzaleak zirela, gainera. Gero, soldaduak sartu ziren. Gero bere koinatua izango zen Pascual soldadu haien artean zegoen. Kanoikada batek udaletxea harrapatu zuen; bertako gartzelan zegoen herritar bat bertan hil zen.

Transkripzioa

- Handikan aurrea, bueno...! Garmendi seittun bete zen reketez... Gaiña iertzen ziyotenin beste ideatakuk zila, bueno! Ze pillak gue itxea! Pes han, han eukitzen zittuzten holoko perolo haundi batzutan rantxuk eta janak eta denantzako

'ta 're bai eondu zin demboa mordoxkan. 'Ta geo sartu zin militarrek. Biño militarrek sartu zin San Inazio eun batin. Sartu zin Aiñeko estrata hortatik goitik betti, denak, Pamplonatan oiñez, e! Txiki-txiki iñak.

Eta hain buru zen Oiartzungo beste... Zuek izena santa ez zazte akortuko, biño behintzat, Joxe Barbero deitzen ziyona, hura zen karlista, 'ta hura ate zen birea de guía eakusteko Oiartzuna nondik sartu.

- 'Ta ni tolarea jon nitzan batin, builla gaitza 'ta... "Zer da builla hau?" Beitu nun 'ta estratan betti, "ai...!" Haik izuak, ordun bai, izutu giñala! "Beitu, beitu ze heldu din hemen, hemen soldaduk heldu dia!" Han torri zen ne koñadua Pascual.

Pamplonan soldado zoztenak, tropa hartu 'ta honea pasa zutenak. Eta... Bueno pes, herrira 'ta ne koñadua, geo ne koñadua izandu zena, pes Etxetxikin, karo, gaiña itten zun bero bat, izugarriya! 'Ta ura eaten, iñok ezin ase urakin soldaduk, e!

'Ta ordun san ziyoten gue, ne ahizpan suegrak san 'men ziyoten: "bueno, bakizute..." Gaiña euskeraz sumatu 'ta, harrek pozik euskeraz, ez hemengua, biñon aizi behintzat, euskeraz 'ta... "Zerbatt pasatzen bazattuzte torri e!

Pes, ze sango zattuztet ba nik, eozer gauza ber zutela, ba torri! " Gue ahizpak san 'men ziyon. 'Ta baita handikan hiru eunea, Mendingo zea hortatik sartu zen frentia, militarrena, Mendindikan, San Markoa botzen zittuzten kañozazuk 'ta gauzak.

Eta, hor herittu da ba mutill hoi, balak pasa ziyon hola besua batetik bestea. Kapitanak san 'men ziyon: "Pascual, si tienes donde esconderte, márchate." 'Ta harrek hiltzeko beldur bat bazun gizajuk! Mortala! San 'men ziyon: "pues en la casa aquella que nos dieron de beber."

"Me dijo aquella señora que fuera si me pasa algo" "¡Escóndete y no aparezcás hasta que se te cure todo!". Hura Etxetxikira! 'Ta, geo Etxetxikira 're iya San Markotikan kañonazuk sartzen zin, heiyetik sartu zizkaten.... Bi eun lenoztikan koñadua detenittua zola ayuntamiento, kañonazua sartu 'ta juzgadua leno zea zen, oain alondigako zea hortan. Hil zen kañonazukin, bestia erittu, Rafael Iturriozko Rafael zeana, Tomaxenekuna. Eta...

- Preso zoztela?

- E?

- Preso iongo zin han?

- Detenittuk, nazionalista zea baitzen, batzokiko... Nola saten da? Batzokiko...

Jefe 'ro zona. 'Ta hoik euki zittuzten. 'Ta kañonazuk sartu 'ta hora hill in zen.

1.8. Gerra nahi ez zuten soldaduak

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/011
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Pascual soldadua zauritu egin zen; eta, frontera itzuli nahi ez zuenez, bakailao azala jartzen zioten zaurian Garmendiko gazteek, hartara zauria ez ixteko. Teniente batek bazekien han zegoela zauritutakoa, eta ikusi egin nahi izan zuen. Hor ibili ziren, zauriari gatza kendu nahian. Tenienteak ez zuen azpijokoa igarri.

Transkripzioa

- 'Ta ordun pes, amona Matxiyoa, Matxiyokun parientik zin, han karo, semia ezkondua. Haik hara 'ta ne ahizpa Garroko Ixiar ttikiya besuan 'ta ne koñadua soldadua herittua Garmendira, 'ta ordun san nun: "Hau ze heldu da honea soldadu horrekin?" 'Ta "Maitxo, zein zu hau?" "Neska, hola 'ta hola, lengun torri zin soldadutakua.

San geniyon zerbatt pasatzen baziyon tortzeko 'ta herittua do 'ta nola utziko nun ba kalin? 'Ta itxea..." " Ez, ez, ez" gue amak san ziyon: "erki in 'zu! Nola utziko 'zu ba kondiziyo hoitan mutilla?"

- Eondu zen gue itxian bi hillaete t 'erdi bai! 'Ta azkenin...

- 'Ta kurak eta?

- Kurak? Bakaillua jartzen ziyoten arratsin heridan...

- Gaixtotzeko!

- Ez itxitzeko! Bestela soldado jon berko zula seittun 'ta!

- 'Ta gu gaztiuk eta, bakizu! Katalintxoko 'ta, Matteoneko 'ta gue Luixa 'ta Regina 'ta...

Maitxo... Maitxo ez, Maitxo 're han zon, biño hura ez zen sartzen holoko gauzetan. Eta, bakizu, gaztiak, grupua iñik ya...

- Nik hola aittua baidut hoi...

- Eta...

- Gatza 'ta...

- Haik bakaillu azala jartzen! 'Ta goiz batin, pes ni betti jon nitzan.

Ibiltzen giñan soldado tartin 'ta rekete artin... Biño soldaduk zin ordun 'ta difentzi eerrako komportamentua! Jesus...! Militarrak, bakizu, beti izandu dia hola! 'Ta bai han 'e, e! Edukaziyo batekin 'ta... Gaiña beák 'e janak eta oso goxuak eta onak itten zittuzten 'ta...

Gui iruitzen haik txarrak ber zutela, pentsatu! Saten zuten: ";Bajar una cazuela, que os damos carne bien rica!" Han izautu genun guk rekete bat, zea, Elias, eta... Pamplonakua. Eta behintzat, zea, herittu zen mutill hoi 'ta gue itxea.

'Ta, gue itxian gazte hoikin arratsetan 'ta sukaldin... Txistoso porrakatua zen, juerga gaitzak. 'Ta, betti jon nitzan 'ta, ze hoi, teniente bat han.

- "¿Aquí hay un soldau, no?

- Bian non itten zuten sua? Non itten zuten sua? 'Ta kazulak eta manitu?

- Ui! Bian, ataiyan!

- A! Kampun.

- Eta... San zin: " ¿Aquí hay un soldau herido, no?" "Sí". Ui...! "¡pues dile que baje!" Ui...! Korrika jon nitzan 'ta Joxe Leonen kuartun lo itten zun. "¡Pascual, Pascual, hay un teniente abajo, que bajas!" 'Ta bakaillo azala izaki harrek jarriya han arratsin!

Eta nik ordun deskubrittu zer zen han! Kendu zun benda 'ta klaro, gatzan zea zui zuiya han! "¡Trae, trae un trapo mojav, trae un trapo mojav!" 'Ta Regina 'ro Liuxa 'ro ez dakit zein jon 'ta ra-ra garbittu ziyoten gorri-gorri jarri ziyoten bestin koloria eta jun zen izu batekin!.

"¿Aber ese brazo?" Klaro! Ese brazo uaindikan itxi gabia! Bakaillo azalakin oandikan han 'ta! "¡Bueno pues, ya te falta poco y Pascual, cuando se te cure, pasas por la comandancia, e! ¡Ya se a terminau tu plazo!" Harrek bai poz erra, ez ziyolako izautu ze jarri zun han!

'Ta iondu zen, oaindikan 'e dembo mordoskan iondu zen jon gabe! Akortzen naz jon zenin, eske senide bat bezela genuz ya! 'Ta akortzen naz ni zea...

Lukas 'e soldado jona zen ya! Eta hura frentin 'ta hura martxa 'ta... Ni nearrez 'ta nola ez niyon aiyok esan!

'Ta zubiyan gaintikan aiyoz in zigun hola! Biño harrek: me voy a morir, hare be morirrekin jon zen hura.

1.9. Bilbo hartu zenean

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/013
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:28:36. **Bukatu**: 00:31:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Fronteen gorabeherak. Bi oiartzuar hil ziren Lemoako frontean. Bere senarra izango zena eta bere anaia bi bando ezberdinetan. Bilbo hartu zutenean, zelaian ari ziren lanean Garmendikoak; kanpaiak eta koheteak entzuten zituzten. Ez ziren etxera joan, erreketeez beldur. Bilbo hartu zutenean, jende asko atxilotu zuten Oiartzunen.

Transkripzioa

- Geo ya soldaduk eta jon zinin, militarrakin difentzi izugarriya, e! Bueno...! Errespeto bat eta... Denai tratatzen ziguten oso ongi 'ta gaiña beák zuten hura emateko 'ta... Jesus...! Reketetikan militarrea? Txuritikan beltzea hambesteko difentziya!

- Bai, e?

- U...!

- 'Ta ordun hoi ze in zen, Errentira 'ta pasa zinin reketik jon, biño soldaduk geldittu iñ, geldittu in zin?

- Karo! Tropak sartu zinin denak ya Donostiño! Donostitik aurea ya berriz gerra! Biño bai!

- 'Ta hemen zein geldittu zin?

- Ez, ez, ez! Jon zin, jon zin!

- A! Denak jon zin!

- Denak jon zin!

- Haik eamango zittuzten gue itxian zoztenak eta 're? Haik ez al zin Naparro aldea jun, gorriyak 'o?

- Ez, biño... Gorriyak saten zena... Ez! Gerrak korrittu zun Bilbao hartu arte.

Geo Bilbauko frentik izandu zin txarrak. Lemonan hil zin eun batin... Bi oiartzuar, kompaiñi berekuk. Bai, Donoxtina... Zuk aittua izango zu Donoxtina zein den? Donoxtina? Bai...! Hor nola afusilatu zittuztela 'ta... Karrikako biri hortan.

Horko baserriko Donoxtina eta Goñin semia. Biyek hil zin!

- Goñi karlista harren semia?

- Bai, Goñi karlista harrren semia, bai! 'Ta haik karri zittuzten Oiartzuna enterratzea.

Haik hil zin Lemonako frentin. 'Ta han eondu zen baita 're ne gizona gorriyan ayekatikan gudari, gudariyak zin hemen reketik bezela, gudariyak eta militarrek. 'Ta han eondu zen. Eta anaiya, bi anaiyak alkarren kontra mendi berin ibilli zin! Pentsatu, hoi 're bada ba, e?!

- Gerra!

- Bai! 'Ta Bilbau hartu zuten arte! 'Ta ni akortzen naz Bilbau hartu zutenin... Gu Untsaskon giñan belarrak, zea metak eta ittea jona, eta euntalako kampanak Errentiyan 'ta kohetik eta jesus...! Zer ez zen han! 'Ta "bada gaur, haundiya pasia da ba gaur, beitu, zerbai badugu!" 'Ta gue Antoniok san zun: "ez ga itxea jongo, e! Goiz!

Deskuidun sartu baldin badia 'ta hor sartzen badia reketik itxez itxe ingo 'ute izugarriya!". San 'ta izan! Gu...Zea, Araingo kaskotikan aitzen, Oiartzungo manifestaziyuk. Karlista denak kalez kale 'ta itxez itxe. Gu ion! 'Ta ama izutua: "biño hoik ze ai dia umi hoik?"

'Ta berandu itxian sartu gu! 'Ta bai izandu 're gue itxea, bai izandu gue itxea! Luixa 'ta, hoik zartzio zin, ahizpa 'ta. Geo... Lukas soldado ya, 'ta Antonio. Gue amak: "jesus...! Agertu al zazte? Hemen torri dia zuek non zazten galdezka!"

"Pes horretxegatik eondu ga ba ama, Araingo kaskun, ikusten baigenittun "

- 'Ta reketik zuetaz galdetu zuten?

- Oiartzungo jendia, e! hor sartu zenin erua bezela jarri zen jende guziya, Jesus...!

Bilbau hartu zutenin? Madre Santa! 'Ta uo...! 'Ta bueno, hartu 'ta detenittu harrapatzen zittuzten guziyak! Aber zembat eondu zin Oiartzunguk, oaiñ aztua dakat nik.... Badut librua, e! 'Ta letu ber nuke. Askoi! 'Ta aber zembat hill zittuzten!

1.10. Ergoiengo kartzelan

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/014
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:31:57. **Bukatu**: 00:34:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Kartzelak Ergoienen: emakumeak Paloman eta gizasemeak Etxenagusin. Anaiari bisitan joan zirenean, Oiartzungo erreketek batek ezagutuko ez balitu bezala tratatu zituen, eta Frantxiska arrunt haserretu zen.

Transkripzioa

'Ta detentziyuk ze izandu zin, sartu zinitikan, 'o geo gehiyo izandu zin, 'o....

- Bai, sartu zinetikan 'e bai. Bai porke... Donostiya hartu 'ta biño leno, gue Joxe Leon detenittua zon. 'Ta Luixa baita 're. 'Ta ordun gue Luixa 'ta Itu...

Ergoien nola zea... ostatua nola da hoi?

- Tolare?

- Ez, beste aldekoa.

- Bialde?

- Bialden hola buelta manta hola itxe bizitzak... Han zea...

- Palomata?

- Palomata bizi zin...

- Bai.

- Han eukitzen zittuzten emakumik detenittuk Oiartzunguk. Han. 'Ta gizasemik... Potiko deitzen yogu. Zean, bueno, Olaiz... Jesus...! Olaizola ez. Jesus...!

Hola gelditzen naz, e! Batzutan.

- Bai.

- Taberna nola famosu hoi neska, eskoiku hoi!

- Tolare?

- Tolare, bai! Tolaren onduan bizi zin Pottikotarrak deitzen geniyonak. Neska sor bat bada hor oandikan.

- Bai. Etxenasi 'ro zen. Geo bota 'ro in zuten etxia.

- Bai, pes beno, hoik bizi zin hor. Potikotarrak, ijitotarrak, ijito kasta zin hoik. 'Ta hango txerri tokiyan, hango txerri tokiyan sartzen zittuzten gizonak. Detenittuk.

Eta... Han eondu zin... Gue Joxe Leon 'ta asko, Oiartzungo asko! Eta... Joxe, leno san dutena, Joxe, Katalintxokua 'ta biyek, pes jana matea, pes biyek.

'Ta San Markotikan botzen zittuztenin kañonazuk eta, zea batzuk zin ttikiyak, hola siete y medio

'ta bestik haundiyak, granadak! Txistutikan iertzen geniyon noa zijun!

Pentsa 'zu nola jarriyak geunden, e! 'Ta ez giñan izutzen. "Fiu...!" 'Ta

"hemen dun, hemen dun, hemen dun" saten zun Joxek!" 'Ta pum! Aurrexio!

'Ta "hara!"

'Ta balak txisto bat ibiltzen zuten, eske ez zuten kontrolik! Kuestiyua zen bota tirua! 'Ta gu martxa, janakin 'ta jon giñan eta Oiartzungo... Hil zen, rekete bat. Eta "aber zea, Joxe Leonen Joxe Leonena heldu naz jana kartzea" 'Ta: "¿Cómo se llama?" nei erderaz san.

Ni sublebatu! Ez dakit, ez dakit nola ez ziten nei ordun jo! " Hik lotsik ez duk!" san niyon. "Familikuk bezela izaki eta ze apellido dun ne anaiyak galdezka ai yaz?" Hasten naz béakin enfrentatu, joko nun, e! arrontin alteratuta! Ate zen Joxe Leon 'ta san zin:

" hago ixilikan Frantxixka, hago ixilikan! Ez zanela ezer san!" "Ezer sango ez dit ba! Nei horrek zertako galdetu nau ze apellido dugun!" "Ixo, ixo. Jon ixilik, utzi gauzak 'ta jon".

1.11. Fusilamenduak eta umiliazioak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/015
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:34:41. **Bukatu**: 00:38:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Preso batzuk fusilatu egin zituztela gogoratzen du Frantxiskak. Oroitzapen horiek txarrak dira eta izutu egiten da oraindik ere. Emakumeak ilea moztu eta kalean ibiltzen zituzten. Apaizak eskatu zuen horrelako umiliazioak ez egiteko.

Transkripzioa

- Eta handik heldu giñala, Gaztañoko onduan zamazkiten beste bi detenittuta. Bi reketen erdiyan beste bi. Arritako bi anaiyak. Gue Joxe Leonek saten 'men ziyon: "Joxe Mai alde in zak!" Gaiña geo utzitzen baiziyoten igual zelaira joten pixa ittea, pentsa 'zu ze zea kontrola zuten, e! "Alde in zak, alde in zak, ez zigutek gauz onik ingo guri hoik eta! Hik bakizkik hemengo biriak eta alde in zak Frantzi aldea, sei zak hemendik" eta "ez biño, geo anaiya bakarrik gelditzen duk eta!

Horrei geo zerbai pasatzen baiyo nik eskapo inta?" Ez zun eskapo in, biño bea hil zuten. Fusilatu in zuten hura. Joxe Mari bai. Heldu giñala, pes haik Gaztañoko onduan 'ta "aiyo gaztiak!" Holaxe san ziguten. " aiyo, aiyo" . Dakat geldittua nik hura begitan erretrato bat ikusko banu bezela. Ze aurpegiya zeaman mutill harrek. 'Ta bestia gaztia, bestia Ferminek edadia zun, pentsa 'zu, ez zittun... Hamazazpi urte! Baldin bazittun! 'Ta bestia ez, bestia zartxio zen, biño gaztia, hogeita gutxi urtekua.

'Ta hoi gauza hoi denan rekuerduk e, hola tortze 'izkitenin 'ta, oaiñ hasten dinin hola... 'O... Eozer, oain bakizu ze naspilla dabillen denin!

- 'Ta bakarrik zaudenin, 'ta... Pentsatzen pentsatzen!

- Izutu itten naz, e! Orduko rekuerdua hain txarra dakat sartua! Eta kendu itten ttut telebisiyuk eta radiyuk eta denak! Eske zarrakua gaitza itten naute! Orduko momentuk, guk ordun oso gaizki pasa genun! Gezki, gezki, gezki!

- Holoko zeak, ez! Herriko jendia elkarren kontra 'ta horrek ze...

- Kontra 'ta nola!

- Miñ haundiya man ber du horrek e?

- 'Ta gue Luixak zun beldur bat! Porke ordun hasi zin e...! Illia mozten emakumiri, zeako, e....! Erretxikiko bi ahizpai. Pentsa 'zazu, haik zer zin gaizuak! Ezer ez! Ordun saten zen bezela, pes ezkertiarak zin. Haik Donostira eunero esniakin jon 'ta torri itten zin 'ta bat behintzat, itxetik iñoa atetzen ez zena, Maria Luixa pixkat gehixio zen, biño ezer ez hala 're. 'Ta hairi illia moztu eta hemen utzi xorta bat 'ta lazo espaiñola jarri han eta kalea!

- Ze burla, e!

- Reketik bueltan zittuztela. Viva España ejua iñez Errandoneku hortan hasi 'ta manifestaziyua bezela kalin ibilli bueltaka... Hoi da, eta bueno... ! In zittuzten bi eunin, 'ta hirugarrengun bikaiyua jon 'ta komandantzira 'ta san 'men zuten, bueno,

bea itten zela responsable denantzako 'ta itteko mesede andri hari pakin uztia, e! Herri guziyan parregarri zabilzaztela 'ta ez zutela eskubireik 'ta... euntalako bronka armatu 'ta hala moztu zen hura. Bikaiyua ate zelako. Biñon... gaizuak! Zea, bertaiño Altziberko...

Karrikako harrobiño torri beák eta han reketik hartu 'ta kalea, gaintik zea, viva Españaka 'ta haik "Viva" kontestatu!

- Ui! Ze erremeiyo ingo zuten!

- Bai, biño, ze ze ze benganza, e!

- Hombre!

- Lotsa 'ta...

- Dena!

- Umillaziyua! 'Ta ezertan sartu ez zin emakumik gaiña, e! Bakarrikan zila, pes hoi, Acción Vasca 'ro ezkerreko partidokuk zilako! Uf! Asike nik askotan saten dut: "jesus...! Oain saten da?"

1.12. Fusilamenduak

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/016
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Oiartzunen fusilatu zituzten lehendabizikoak. Kartzelatik libre utzi eta gero, bidean hil zituzten. Fusilatu baten ama penak jota hil zen.

Transkripzioa

- Oso gaizki pasa genuen guk. 'Ta geo... Joxe Leon 'ta Panplonan kartzelan. handikan karta... Ezta pentsatu 're! Keba! Bixita joteik ez zen! Eta Joxe Leonek Panplonan in zittun...

- Hua zer zen, anaiya?

- San Kristobalen bai, anai zarrena. San Kristobalen in zittun harrek... Bai, demboa mordoska in zun harrek. Igual lau hillaete biño gehiyo. 'Ta zorriyak eta zikiñak janak! Bueno...! 'Ta ordun hill zittuzten Oiartzunguk...

Hor leno san dutena "hemen sartzen dena bere itxian dago" horko nausiya eta beste bat zea, zuek ez zute izautzen 'ta karo! Karlos Ttentte deitzen geniyonan anaiya, abogadua zen. 'Ta haik arratsin ustez libre utzi 'ta birian hill.

Haik zin lembiziko Oiartzunguk hill zittuztenak. 'Ta geo... Pes asko!

Oiartzunen afusilatuk badia mordoska. Eta enteatzen giñan seittun, seittun enteatzen giñan. Ez dakit nola, biño... Pasatzen zen.

- Hoik denak ze eamaten zittuzten...

- San Kristobalea.

- A! San Kristobalea.

- Karo. Hemengo pasua oaindik ez zon. 'Ta geo... Pes oandikan, pf... Haik biyek libre utzi zittuztela san 'ta hill, geo Arritaku hoi 're hil zuten, geo beste Acción Vasca deitzen zitzaion beste partido batekua Estankoko goiyan bizi zena.

Andria gaizua erotuta geldittu zen azkenin ama, e! Berez ez zen oso zea, biño. Harrek itten zun, Goñin itxean aurrea torri, klaro, ordun Goñi 'ta, bazin hemen kabezillak Oiartzungo reketin jabik eta... Atian aurrin jarri 'ta ejuka, biño nahi zittun guziyak saten zizkan.

Ez atetzen Goñi kampo! Miño amona azkenin be, be eromen harrekin hill zen. Semin penakin. Gaxua! Zen amon bat... Bai.

1.13. Ondarretako kartzela

- **Hizlaria(k):** Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-008/018
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:42:11. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Bi arrebek egiten zioten bisita anaiari Ondarretako kartzelan. Paseak behar zituzten bisitak egiteko. Bera behin pase gabe joan zenekoa. Beorlegi tenientea egoten zen Ondarretako kartzelan.

Transkripzioa

- 'Ta Donostian ba hor tokatzen zen eunetan bixita izaten zen. 'Ta Luixa 'ta biyek ibiltzen giñan. Luixa bolara hartan ez dakit, ez zola ongi 'ro komei, ni behintzat, karo, kalea jon ber izaten genun agiri baten bila. Leno san dutena, Arizmendineko komandantziya 'ta.

'Ta san nun: " bo...! Ni ez naz jongo hara!" 'Ta, ni jon janakin 'ta, han Andre zea, ordun... Meikua zun gizona, Ezkerreneko, kaleko Irigoien 'ta. Klaro, beitzen zizuten lista abezedariyun zeatikan. Irigoien Iragorri.

Andregaia hasten zen: "ai ama! Ai ene, ai ene, ai ene, ai ene!". Arreba bezela pasatzen baizun anaiyak 'ta "geldik eon hai" san niyon eun batin zea "hombeste istori! Jakinta zea horrek saten zattula arreba zala 'ta!". "Ai ene, ai ene, ai ene!".

Geo behintzat, ni ailletu nitzan 'ta: "aber usted" "hermana." "Aber, la documentación.". "No he traído. Pensaba venir mi hermana, pero como no estaba bien, pues he venido yo". Hola beitu zin. baita hurrungun bixita torri da 'ta gauz bera, nik paperik ez.

Ni berriz paperik gabe, lasai arraiyo! Jon nitzan 'ta "Aber la documentación" berriz 'e. "No he traído. Tenía que subir al pueblo y no me daba tiempo de venir aquí" 'Ta... Beni hoi: "ai ene, ai ene, ai ene!" atzetik 'ta "geldik eon hai!" saten niyon.

Eta, "¡pues ahora mismo me voy a enterar si es usted hermana, y como no sea hermana y el que dice usted que es hermano, saldra a la calle y usted se quedará dentro!". Hura aittu zunin Beni harrek, para que quieres más!.

Ta ordun apaiza, apaiza ordun Salvador, anaiya apaiza zen 'ta... Bakizu, apaizak 'e beti errespeto pixka bat. San ziyon: "no, no, yo me hago responsable de que la señorita es hermana". "A, bueno". Jon giñan atian ondoa 'ta Beni hoi: "oiandikan 'e daldaitan nion"

"txorua ñaz hi! Ze ingo zigutenen ba!" Salvadorren parrak. "Balientia za e Frantxiska? Lengun amenaza in 'ta gau 'e torri za zu paperik gabe, ze kostatzen zizun kaleño jotia 'ta..." "Bai, kaleño jon 'ta geo honea torri! Hortako topun han nengon!"

'Ta behintzat, ateyeran zea, Beorlegi zun apellidua tenienti harrek. "adiós" hola nei bizkarrin. "Hijastra". "¡No hijastra no, hermanastra sí!" Karo, apelliduk bigarrenak nola genittun diferentik... San niyon: "hijastra no, hermanastra sí". Hola beitu zin 'ta martxa!.

Geo handik demboa mordoska batea Donostira jon giñan 'ta trambik ordun Bulebarren barrena maten zuten buelta, 'ta gu trambin, 'ta zea hoi, Beorlegi hoi, beste militar batzugin han kafeteiyan, oaiñ 'e bado kafeteiya han.

Izautu zin, hola in zin, 'ta pitorreun e, pitorreun oaindik. Nik 'e hola in niyon sanez : "zerriya! Hurrungun karriko papera bai!" geo zer da 'ta handikan eun batzuta infarto bat man 'ta hill in zen!

- Gizon hua? Bueno, zea...

- Bai, 'ta gaztia zen, e! Beorlegi hura. Harren osaba eondu zen como jefe de toda las compañías hemen Arizmendin.

- Bai, Beorlegi zea...

- Bai. Hain osaba zen. 'Ta hola ibiltzen giñan...

1.14. Salaketak

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/019
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:46:00. **Bukatu**: 00:48:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Kartzelan zegoen anaiak jakin zuen zein izan zen bera salatu zuena. Etxera bidali zuten segidan. Salaketa asko egoten ziren. Maitxok aitaren bila nola etorri ziren kontatzen du, eta nola lortu zuen ez eramatea.

Transkripzioa

- Geo Joxe Leon atea zen... Karo, joten giñan 'ta ez genakigun.... Karo, iñok ez zekin zertik sartzen zin. 'Ta nonbatte eun batin ai 'men zen kartzelako jefetakon bat pes libruk pasatzen 'o ikusten 'o ze denuntzi zuten 'ta hola. Gue Joxe Leon atzetik... Harrek ez baizun tontotik ille bat.

Atzetikan ikusi be denuntziatua zein zen 'ta san 'men ziyon: "ahora que me tengan todo el tiempo que quieran no me importa. Ya sé quien es mi denunciante". "¿Cómo sabes tu?" "Porque he leído". 'Ta, bi eunea biali zuten itxea!

- Hua san zulako igual?

- Karo, harrek...

- 'Ta geo zerbatt ingo ote ziyon 'o...

- Bai.

- Hoi gorra izan ber du ba jakittia zeñek zeñ iñ zun, ze askotan izaunak izango zin?

- Hombre! Hoixe ezaunak, herrikuk! Herrikuk!

- launik haundinak 'ta saten zuten!

- auzuak eta!

- Bai, ez onenak!

- Geo ordia, sate 'ute nahiz 'ta politikagatik ez, urtetan bizilaunak gaizki zilako 'ta aprobetxatu in zutela 'ta.

- Jesus... Maria 'ta Jose! Jesus! Dudan?

- Geo 're, geo 're.

- Geo 're bai.

- Geo, geo... Hoixe, Apaolakua 're hill zuten, zazpi alaban atta.

Gerra hemen bukatu 'ta, biño oiandikan san duguna, eaman itten zittuzten. azpiyak atetzen ai zela gizona, honeaiño galtzak gora, abarka hutsakin hartu 'ta Astiarrako kamiyun hantxe utzi 'men zuten hilta.

- Bai, Bai.

- zazpi haurren atta.

- 'Ta Larraburukuk'e bai!

- 'Ta ez zin enteratu!

- Larraburukuk 'e bai!

- Larraburukuk 'e zembat senide zin?

- Bai, hoik 'e bazuten.

- Bazuten? Atta hill hoiri 're! Hoik 'e hamahiru seme-alaba 'ro... Ttiki-ttikiyak geldittu 'ta atta afusilatu ziyoten.

- Geo ondotik asko eaman zittuzten. Ni akortzen naiz batzuk hola.

- Nahi zuten guziya itten zuten!

- Ordun eamaten zutena ez zen etortzen.

- Bueno, denak 'e ez, e! Ba...! Torri bai.

- 'Ta gue osaba 're, guk solterua, aman anaiya itxian gendun eta...zea, ordun San Markoa 'ta eamaten zittuzten, hartu 'ta eaman. Eta etorri zin guarda zibilak izango zin, gu itxia erre 'ta bian geundela. Azkeneko zea batailloi harek itxia erre ziguten abiyeran, itxeik gabe geldittu giñan. Eta, etorri eta hua osaba eaman ber zutela bekin eta gue atta ez dakit nundik noa zerbatte erderaz 'e pixkat bai 'ta komei 'ta behintzat, saardua itxian 'ta saardua eskeiñi 'yo 'ta hasi dia eaten 'ta hor 'men dute nahikua ean 'ta libre! atzea utzi 'ta osabaik gabe martxa beak. Harek salbatu zun. bestela akabo zen. Eamango zuten. Attak saardua manez mozkortu! Eta... Utzi 'ta alde iñ.

1.15. Fusilamendutik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Gaztañaga Etxeberria, Maitxo; Irigorri Iriarte, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-008/022
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:52:27. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Fusilatu egin behar zuten batek ihes egin zuen, eta baserri batean gordetzeko eskatu. Etxeko andreak salatu egin zuen. Baserri ondoan akabatu zuten.

Transkripzioa

- 'Ta han san 'men ziyoten: "nik badakit hilko nautela harrapatzen banaute, biño nei jarri nazute Errentiko biria, gutxi..." Ez dakit zembat seme-alaban atta zen. "Gutxinin familiyatik despeittu nahi dut". 'Ta hoik ze in zuten, ordun... Txikierrdin...

Hora zen beste... Ez reketik eta ez militarrek, beste nola saten da erderaz? Otro cuerpo hola falangista tipoko Acción... no se cuantos zuten izena. 'Ta hoik zozten Txikierrdin, kuartelakuk hemen gue itxian 'ta eondu zin bezela. 'Ta andri horrek ze in zun?

Mutikua biali Txierdira sateko... Aterik baizin lenoztikan billatzea menditan 'ta zeak, jendik, oi... Tropak 'o... Zeak. 'Ta mutikua biali Txikierrdira satea hain itxian zola gizona! 'Ta béak nondik bialiko zun! Hoi iñ ber da, e! Eta gizona, pes harrek san 'men ziyon nondik sartu 'ta, abitu zeneko seittun zerkatua. Tirua handik eta tirua hemendik eta, bea eskapo. 'Ta azkenin Berrondoko onduan, baserri baten onduan, hola arbola baten onduan hor hil zen.

Hor hil zuten gizon hoi. Handik eskapo iña. Eta hoi eondu zen hor... Hillaete askuan. 'Ta andria tortzen zen astero. Arbol haundi baten onduan sartu zuten, pensa 'zu! gorputza 're bai, han bertan. Biño geo ya atera zuten, e! Geo ya eaman zuten Errentira.

Biño hoi, haik denuntziatuta bialitako denuntziyakin hill zuten gizon hura.

1.16. Oiartzunen jabe

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:05:08. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Erreketek eta herritarrek hitz egiten zuten elkarrekin. Askotan, elkarri toreatzen ere aritzen omen ziren, baina kontu handiarekin beti. Oiartzunen jabe egin behar zutela esaten zuten erreketek; eta herritarrek, ederki kostako zitzaizela erantzun. Gerra hasi zenean, Corneli eta familia Karrikako Galtzaraberrira joan ziren.

Transkripzioa

- Reketik, haik 'e ba denatetik, batzuk onak zin 'ta bestik gaixtuak. Noski, Oiartzunen jabe in ber zutela 'ta san niyon nik batei: "Oiartzunen jabe? Kostako zizute erki gui hemendik atetzen!" 'Ta toritzen ai giñan, halako batek bestiri.

"¡Porque, porque esto es nuestro y vosotros habeis venido de no sé donde! Y no tenemos nada que ver con aquello, nosotros vivimos aquí tranquilamente, y bien además. ¡No como vosotros, coger las pistolas y los escopetas y venir a matar a la gente!"

'ta hola aitzen giñan broman 'ta zean, biño, biño, haik bena itten zuten.

- Ez al zin haserraten?

- Ez, ez, ez. Broman aitzen giñan 'ta! Biño ez giñan haserretzen behiñ 'e.

- Eta herrikuk bai al zin reketik zinak?

- Ez. Herrikoik ez zen reketek.

- Kampotik torri zen dena?

- Denak kampotik torri zin. Zea, hala san ziuten, geo gu Galtzaberrin eondu giñan, han pixkatin, ez zon Altzibarren eoteik, dena bete baizen soldadua 'ta reketia 'ta zeakin... Hara jon 'ta han eondu giñan 'ta handik hala san ziuten zea, rekete batzuk:

"¿Qué hacen ustedes aquí?" "¡Ui, en algún sitio tenemos que estar! Allá no hay nada más que tiros y no sé porque teneis que echar los tiros a la gente que vive tranquilamente... Porque quereis vosotros todos de aquí quereis todo de aquí y no puede ser,

nosotros también tenemos tanto derecho como ustedes." "Si además tenemos que ir hasta Pasajes. Para ser Oiartzun tiene que ser hasta Pasajes" "¿Hasta Pasajes?" "sí, sí no está mal si consiguen no está mal."

- Galtzaberri, Galtzaberri non da?

- Galtzaberri... Oan kendua do, hor jonta zen. Galtzaberri... Zentrala zen.

- Zentrala bai.

- Bai.

- Hara jon ziñazten?

- Hara jon giñan gu. Han izaunak genittun 'ta han eondu giñan.

Numbaitte sartu ber genun Altzibartik bial... Denak biali 'ta.

1.17. San Markostik tiroka

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena:** Galtzaraberritik Altzibarrera itzuli zirenean, auzoa hankaz gora aurkitu zuten. Dena konpondu eta isilik egon beharra zegoen. Galtzaraberritik Oiartzungo kalera ogi bila zihoazen batean, San Markostik botatako tiro batek jo, eta beren ondoan zegoen mutil bat hil zuen.

Transkripzioa

- Eta zuen geo Altzibarko itxetan sartu al zin beák? Geo bueltatu, bueltatu ziñaztenin nola...

-Uo....! Puskaik onenak eamanak eta, hantxe txikittua bazter guziyak eta, ahal zen bezela! Arreglatu pixkat eta ixixilla. Han ixillik eon berra zon. Ez zon han kantai 'ta dantzan ibiltzeik!

- Ez zon, bukatu zin dantzak!

- Bai, bukatu zin hango zeak. Hantxe. Geo noizpatte bakotxa gen itxeta joteko ba 'ta, jun giñan, dena zikindua 'ta... U! beák nahi zuten bezela ibilliya 'ta! Sartu giñan 'ta geoztik hantxe!

- Eta Galtzaberrin ziñaztela, jakingo zenuten ze pasten zen herriyan 'ta!

- Bai, asko ze pasatzen zen, nola... Ogiyan 'ta billa torri ber genun Oiartzuna, 'ta zea, harrobiyan barrena pasa ber genun nahitanahiyez 'ta, tiruk San Markostik titzen bait zittuzten, 'ta, gu iya ailletun, zea, harrobira, ya ailletun harrobira 'ta tiruk hasi zin 'ta,

hola baztertu giñan pixkat pareta kontra, 'ta Txirrista saten geniyon mutill bat, Zirrista izena, ez dakit ze izena izango zun, Zirrista bai, "bajjua Zirrista" 'ta hura 're paretan kontra arrimatu zen 'ta tortzen zaiyo bala kontra 'ta hantxe seko utzi zun! Bai, hora ikara pasa nun!

Gu ya ailletun 'ta hora hilla han. Bai. Geo seittun geldittu zin, beno, geldittu, berriz 'e seittu zuten, biño gu pasa giñan gen tokira jon ber genun aldea. Pozik tiroik ez zenin! 'Ta holaxe, gaizki, gaizki. Gaizki ibilli giñan.

1.18. Pasaiara joateko agindua

- **Hizlaria(k):** Egimendia Aranburu, Korneli

- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix

- **Erref:** OIA-011/006

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena:** Nafarroatik heldu ziren erreketek Galtzaraberrin gelditu ziren galdetzera. Pasaiara joateko agindua zeukaten eta bidea nondik zen galdetu zieten bertakoei.

Transkripzioa

- Han esan ziuten ba, kampo atera giñan gu, 'ta soldado mordoska bat heldu zen, reketik, Napar ayekatik heldu zin 'ta hoi 're Naparreko zean do ba, birian Galtzaberriku hoi 'ta. "¿Qué hacen ustedes aquí?" "Esperando a ustedes", nik.

"Esperando a ustedes aber lo que nos va ha hacer". "¿Qué quieren ustedes que haga?" "Ui, pues no sé. Aquí dicen que estan matando a la gente y no sé porque estan matando a la gente". "Pues matar no la mataremos, pero quisieramos saber el camino de aquí a Pasajes cuanto es".

"O...! Yo no sé, primero tiene que pasar Oiarzun, y luego de allá adelante tienen que ir a Pasajes". Pasaira jon nahi zuten nombatte.

- Bai, Naparrotikan Donosti aldea jon zin.

- Bai, Donosti aldea jon nahi zuten 'ta. Ni: "No sabemos, yo al menos no. De Oiarzun no he salido yo"

- Karo zuek 'e...

- "Nunca. Nunca he salido yo de... (...) hasta la calle, a por los recaus, y lo demás nada, siempre en casa, con el miedo de la guerra dichosa que traeis por aquí, por Navarra y por todas partes " 'ta konfintza pixkat hartu genun 'ta "Si, asi es pero... Así nos han mandau,y..."

"¡Klaro! Yo comprendo que a vosotros también os habrán mandau aquí a venir" "si para ir a Oiarzun y de Oiarzun a Pasajes" "¿De Oiarzun a Pasajes? Primero tienen que pasar el barrio Alzibar, luego tienen que subir a Oiarzun y de Oiarzun a Pasajes. No sé, yo nunca no he ido y no sé nada".

Ni Pasaian izandu nitzan biño...

- Harrapatuko zuten biria.

- "¡Yo de Pasajes no sé nada. Allá, allá allá ya le enseñaran!". 'Ta hartan.

1.19. Gerra giroa

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/007
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:13:53. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra aurretik, hegazkinak hasiak ziren atzera eta aurrera. San Markostik tiroka hasten zirenean, zubi azpian gordetzen ziren, hor babestuta zeudelakoan. Inork hil nahi ez. Gero gosetea; errotak itxita zeuden, baina lurritakoek gordean ematen zieten irina.

Transkripzioa

- 'Ta gerra hasi aurretik, 'o sartu ziñ... Biño len zuek ba al zenuten, aitzen al zen kalin 'o... Jende zarragui 'ro aitzen al zeniyoten torriko zela gerra 'ro? Zuek zerbaiten susmua bai al zenuten?

- Bai, abioiyak eta bazabizten bueltaka 'ta. Geo San Markostikan 'e tiroka 're hasi zin 'ta,

San Markostikan erki hartzen baizuten gue ayeka hora, 'ta guk tiruka sumatzen zinin itten giñan zuiya, oan 'e han eongo da, Altzibarko zuiy haundiya hora, hara azpira joten giñan. Igual igual zen jon ezta 're biño! Biño, defensa, iruitzen! 'Ta hara joten giñan,

geo abioiyak 'e pasatzen zin, 'ta, ikara maten zuten denak... Denak ikara. Geo soldaduk 'e gorde itten zin askotan 'ta Iruñarrenin 'ta hoitan 'ta soldaduk eoten zin 'ta, denak hantxe, bata bestia non gordeko 'ta ... Iñork hil nahi ez! Hoixe zen, iñork hil nahi ez!

'Ta holaxe. Bizimodu tristia pasa genun.

- Gerran 'ta gerra ondoren 'e bai.

- E?

- Geo gosetia!

- Geo gosetia. Joe, geo... Ogiya beltza... Oaiñ beltza despreziatu itten zen, biño ordun beltza 're estimatu itten zen. Ez dakit, Naparroitik kartzen zuten ogiya gaiña!

- Errotak itxi iñ zittuzten.

- E?

- Errotak itxi iñ zittuzten hemen.

- Hala saten zuten.

- Bai.

- Gui lurrittako errotakuk, lagun haundiya zen gue Attakin, Santosekin, 'ta saten ziyon:

"zu toz hiruak aldin goizaldea 'ta nik erekiko 'ut atia, zuk ez atek jo. Torri trenbiretan barrena 'ta nik emango zattut, zea iriña 'ta amak 'eo, amonak 'o, norbattek ingo 'izkizute taluk" 'Ta "bai, bai, iriña izan ezkie torko ga" 'ta handik harrek launtzen zigun asko,

lurrittako errotakuk asko launtzen zigun.

- Gordian emango zun harrek?

- Gordian 'ta, geo Santos joten zen billa 'ta, zakukin 'ta hora 're bildurrez,

arratsin 'e iual ibiltzen zin non nahi 'ta. Behiñ 'e ez zitzaiyon tokatu ezerez, biñon...

- Tokatu baziyon...

- Larri aski ibiltzen zen tokiyak bazittun. 'Ta hara jon 'ta han iriña maten ziyon harrek, béak posible zuna 'ta geo saten ziyon: "hau attutzeko hombeste dembo jongo zizu 'ta ordun berriz torri, nei deittu" 'ta hola ibiltzen giñan batetik bestea. Ahal zen bezela!

- Ahal zen bezela. Hau garaiyak!

1.20. Tartean militar onak ere baziren

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/008
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena**: Gerran, kanpora atera, eta agian familiako bat topatzen zuten bazterrean hila; eta ezin ezer egin. Militarren artean, batzuk baziren onak: leihoa estaltzeko esan zieten, argia ez ikusteko, ordena zutela-eta argia ikusiz gero tiroa botatzeko. San Markostik tiro asko botatzen zituzten.

Transkripzioa

- Oain hobekiyo bizi da bai jendia ordun aldin!

- Bai.

- Jo!

- Kejatu 're bai, gehiyo, e!

- E?

- Gehiyo kejatzen gala, biño!

- Bai, biñon, hora tristia zen, kampo atera 'ta igual ikusten zenun familikon bat hilla bazterrin han 'ta... Tiroka ai zila 'ta...

- Eziñ ezer san!

- Ezin pasa! Toki triste... Dembo tristik pasa genittun, oso tristik! Gaiña san ziuten batzuk bazin haitan 'e onak 'ta san ziguten (bideo moztu itten da) han tren zubiya zen, ez dakit oain han bado 're.

- Nongua?

- Altziberkua. Harriya eamaten zuten hara...

- Karrikako trenana? Bai.Oaindik hor do, bai.

- Bai. Esaten ziguten trenan guardin eoten zila askotan guardin han eoteko saten ziyotela 'ta gue sukaldeko... Sukaldeko zea, leiyua harrapatzen baitzun pare parin, kristala... Kristalakin 'ta kristala haitan koltxoiya 'ro zerbait jartzeko,

argiya sartzen zela 'ta kaltegarri zela guetzat 'e. zertikan haik argiya ikusi ezkio tirua titzeko ordena zutela. 'Ta geo in genittun sako batzuk koltxoiyai illiak kendu 'ta illiak sartu zaku hoitan 'ta haik zintzilik jarri. Xintxilik jarri han iltziakin 'o nolazpatte, argiyik ikusten e...

Galdetu geniyon: "kuste al zute uan?" "No se ve nada. ¿Qué le ha veis hecho?" "¡Ui! ¡Quitar a los colchones la lana que tenía y poner aquí, qué remedio nos queda! No teníamos otra cosa."

- Karo, zona!

- "¡No teníamos otra cosa, tener que poner aquí o oír los tiroteos que vosotros hechaís por aquí!. No sé porque, nosotros si no hemos hecho nunca nada y tener que estar aquí debajo del tiroteo". 'Ta parre itten zuten haik ordun.

- Jo... parra erra.

- Parra.

- Eta ordun, San Markostikan 'ta botzen zittuzten tirukin 'ta jendia 'ta hiltzen zen ordun, e?

- Bai! San Markostik tiro asko titzen zuten. San Markostik Altziberra tiro asko! Pottonea 're... Uste 'ut azertatu zutela batin Pottonea 're, biño barrenin iñor ez 'o ez dakit zer zuten. bazuten zerbatte. Biño San Markostik tira, denak, tiro denak San Markostik titzen zittuzten.

1.21. Altzibarko fusilamenduak

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:22:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Altzibarren hiru lagun fusilatu zituzten. Ergoienera ihesean zihoazela harrapatu eta Altzibarrera eraman zituzten. Beko-Ostatuan jarri zituzten begiak estalita. Beraiek etxetik ikusten zuten hura, izututa. Bi soldadu-ilara jarri, eta tiroka hasi ziren. Corneliri min egin eta ia erori zen.

Transkripzioa

- 'Ta geo... Zu gotze al za fusillaketak 'ta holakuk gotze al za? 'O fusillatu zutela jendia 'ta... Hoi gotzen al za?

- Fusillatu? Hiru laun. Nunguk zin mutill haik aztua, aztua dakat nonguk zin mutill haik.

Hemenguk zin behintzat, bertakuk. Ugaldetxokuk 'o ez dakit nonguk zin, ez dakit haik nonguk zin, ez dakit. Biñon... Haik Ergoina ihesi jon, Ergoinen harrapatu, ekarri Altziberra hiru... Hiru, hiru laun izan ber zuten. Altziberra

karri 'ta Altziberren Bekostatua,

ez dakit badakizun non den?

- Bekostatua zein da?

- Bekostatua Iruñarreneku hoi, itxian azpiko ayekako itxia...

Han ate haundi bat izaten zen kotxia sartzeko 'ta. 'Ta ate haundiya hola itxi zuten gu itxetik... Gue itxetik bistan baitzen. Gue itxe txarra ttikiya zen 'ta handik... Han jarri zittuzten hiruak begiyak lotuta 'ta san nun: "ze in ber 'te yote hoik?" Gu izutuk!

Geo jarri hiru 'ro lau soldado illaran, bi aurrin 'ta atzin beste bi. Bi illara 'ta tiroka hasi zin... Ni behintzat, ni miñ iñ 'ta iya eroi in nitzan! gizajuk! Ogi puska biño onaoko mutillak! Hantxe hiruak hill zittuzten! Hantxe hiruak hill, bai. Hamakin bat holako in zuten bai! Miño... Haik iña dena ongi iña zon 'ta!

- Bai, biño, jo...! Errak iñ zittuzten, e!

- Earrak, bai!

1.22. Atxiloketa asko

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/010
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:22:08. **Bukatu**: 00:23:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra bukatu eta gero, 'mantxa' zeukala iruditzen zitzaien hura kartzelara eramaten zuten. Jendea kexatu egin zen eta orduan hasi ziren batzuk aske uzten, baina batzuk hil egin zituzten.

Transkripzioa

- 'Ta geo, gerra bukatu 'ta geo 're, jendia detenitu 'ta itten zuten, kartzela eaman 'ta... Ez?

- E?

- Gerra bukatu 'ta geo 're kartzelara 'ta eamate zuten jendia!

- Bai, eaman zittuzten! Bate mantxa zuna iruitzen zitzaipotena hartu 'ta eman kartzela 'ta, kartzelan hantxe iuki. Ahalik eta jendia maittu 'ro, jendia zeatu zen arte, aleiya, haik ez zutela ezene kulpik. Kampotik etorritako jendia zela dena, gu bertakuk ez genula ezere kulpik!

'Ta... Orduntxe hasi zen pixkat libratzen, bat 'o beste 'ta... . Geo behintzat, nozpatte libratu zittuzten, biño denak ez. Hill iñ zittuzten batzuk 'ta... Uan, nik ez dakit zein zin hillak eta zein zin zeak. Nik dembo... Urte asko da 'ta...

- Urte asko da bai!
- Biño, gauz onik ez! Ez zala behintzat... Hemen gerraik ez dugu behintzat, desitu berrik gehiyo!
- Hoi ahal bada ez, e! Hoi azkenekua, gerra! E?
- Uf! Haik 'e ez ziyoten beitzen ezta ezta ezeei 're!
- Bai, 'ta geo... Gorrotua ikaragarriya! Bata beste eziñ ikusiyik!
- Eziñ ikusiya bata bestia!

1.23. Zaldun zuria

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/011
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:23:46. **Bukatu**: 00:26:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra bukatu eta gero, Lesakako errepidea egiten hasi ziren. Beorlegi zaldi zuri baten gainean ibiltzen zen lanak begiratzeko. Kornelik ezagutzen zuen, bere ahizpa neskame zegoen etxean egoten baitzen jenerala. Zuri-zuri aritu zitzaion zalduna, eta baita Kornelik esan beharrekoak esan ere.

Transkripzioa

- Geo Ergoingo karretera 're in zuten ordun 'ta... Hara jotzen zin ben zaldi zuiyak hartu 'ta... Zein jeneral zen hora? Jenerala... Zaldi zuiyakin ibiltzen zen beti.

- Ortiz de Zarate, igual?

- E?

- Ortiz de Zarate 'o... Beorlegi 'ro holokon bat?

- Beorlegi izango zen, 'ta... Nik izautzen nun gaiña.

zertikan ne ahizpan itxian eondua baitzen hura eun batzutan, Beorlegi uste 'ut zela. San niyon: "¡Muy buenas tardes señor Beorlegi, ¿Qué tal, qué tal andamos?" "¿Tu dónde vives?" "Yo aquí, debajo de vuestros pies" san niyon holaxe, "debajo de tus pies, debajo de los pies de usted.

Porque vivo ahí abajo en el barrio de Alzibar y yo le veo de casa como va con el caballo blanco" "¿me ves?" "Sí, ya le veo ya, y le conozco además, como solía estar en la casa de Ibarra" "¡Sí! ¿Y hasta eso me conoces?" "¡Por qué no? ¡Y además que tenga usted buena suerte,

pero que no nos maten a nosotros, e!" " ¿Y dónde vivis pues?" "Yo, mire ahí, Alzibar" Ergoingo karretera goitik baizijun han Muxuruko aurretik

barrena "Ahí en esa, en esa casita pequeña como no podemos hacer grande... En la pequeña".

Leno 're broman aitzen giñan 'ta geo ne artin 'e "aittuko ttuk ba!" Asko sateik 'e ez zon. "En esa casita pequeña... Ahí vivimos y le he visto pasar dos veces aquí y le he... Y he dicho en casa y no les he dicho nada a saludarle a usted" "muy bien, gracias chica, gracias".

Bai, bai gracias, gracias-ekin patu zun behintzat, harrek. Ez zion iñoi ezer 'e pasa, e! Biñon...

1.24. Goseari aurre egiten

- **Hizlaria(k):** Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-011/013
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:29:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Ahizpa Donostian zegoen neskame, eta nagusia kontsulatua zen. Nagusia ihesi joan zen Holandara eta gauzak bidaltzen zituen etxera. Ahizpak beraiei bidaltzen zizkien, eta horri esker ez zuten hainbesteko gosea pasatu.

Transkripzioa

- Ta ahizpa ordun zenekan Eibarren?

- Ahizpa nik Donostiyan nun.

- A! Donostiyan. Eta Beorlegi harrekin eendu al zen Donostiyan?

- Bai.

- A...!

- Hora konsuladua batzen. Nausiya konsuladua Holandakua zun, 'ta han alkar harrapatzen zutenin han erki eoten zin. Geo, gerrako dembun gauza dena bialtzen ziyoten Holandatik Donostira, nausiya 're Holanda jona baitzen ihesi bezela jon zen hora 're.

'Ta geo ahizpak itten zin nei pixkaka-pixkaka biali 'ta hambesteko mixeiyik ez genun ikusi guk. harrek bialtzen zigun gauz asko: oliyua 'ta, ogi... Ogi puskik sobratzen bazen 'e bai 'ta, ordun dena ona zen!

- Karo, ze razionamenduk 'e ez zun asko emango!

- Oi! Razionamentoik ez zen ezere izango, ezerez ordun razionamentoik, gutxi!

- Karo!

- Ogiyan billa joten giñanin 'e ze maten zuten ba? Ogi... Tostada zar zea

batzuk, hola redondo... Eziñ txikittu zin mooko zea batzuk tostada zar batzuk, besteik ezerez.

1.25. Gerra ondorengo lan eskasia

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/021
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:38:56. **Bukatu**: 00:40:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Gizonak, ahal zuenean, baseritik kanpo ere lan egiten zuen, baina gerra ondoren zaila zen lana harrapatzea. Gero bai, portzelanetan jende asko hasi zen lanean. Gizonak semeak nahi zituen, eta lehendabiziko hirurak neskak atera ziren. Hala ere, neskek lana berdin egiten zuten, segan mutila gogorragoa bazen ere.

Transkripzioa

- Ezkondu 'ta ya Maldaburura 'ta zea in ziñanin geo ya kanpoa 'ta lanea 'ta ez, ez? Dena baserriyan?

- Baserriyan. Ez. Ne gizona faten zen, hola, iñon billatzen bazun lantokiyak... hamabostaldi bat pasata 're hura, diru hura geyo eta faten zen iñon harrapatzen baldin bazun, miño zalla zen, zalla lantokiya harrapatzen, ezin zen harrapatu. Gerra ondorin oso eskas... mixeia zen. Bai.

- Geo handik urte batzuta hasi zen igual...

- Geo polikigo, Ventas, 'o Irungo... bai, Porcelanas, Porcelanetara jende asko okupatu zen, bai, asko jendia. Zean, Ventasen... jakingo 'zu nun den Porcelanas. Ez dakizu?

- Bai, Pocelanas Bidasoa.

- Bidasoa.

- Hua aspaldikua da.

- Aspaldikua. Gerra denbuan... alemanak 'o ez dakit zer din hor, horko nausiyak zien. Hillak izango dia honezkio. A ber zenbat denboak.

- Eta zenbat urtekin...? Lendabizi ze euki zenun semia 'o alaba lendabizi?

- Lendabizi alaba. Ne gizonak semik nahi zittuen, baserria genula 'ta "semia torriko, semia baleo, semia..." Hiru neska aurrena! Batin bat, bestin besti, bestin besti 'ta hiruak neskak! Laugarrena mutilla torri zen.

- Azkenin!

- (...)eko.

- Miño neskak baserriyan iual-iual aiko zin?

- Bai, bai. Igual-igual-igual itten zuten. Zen; sayera bat. Segan 'ta hola, beti mutilla gorragua; segako.

- Indarra ber?

- Indarra 'ta...

1.26. Gerran anaia galdu zuten

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/003
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:03:06. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Anaia gerran hila. Soldadutza ordaindua zeukan libratzeko, baina, gerra etorri zenean, behartu egin zuten frontera joatera. Otxandion hil zen. Anaia oso dotorea zela aipatzen du, gorbata eta guzti ibiltzen zela. Gerra noiz eta nola hasi zen gogoratzen du; Nafarroatik sartu ziren erreketek. Beraiek Zallara joan ziren eskapo.

Transkripzioa

- 'Ta bagiñan betzi senide! Ordun denak familia numerosa! 'Ta hoben-hobena mutilla jatorra eta gaiña zun patua soldauxka aurretik biño gerra torri zenin, eaman in zuten, korbata 'ta guzi ibiltzen zen 'ta ordun auzuak burla itten ziyoten: "hoi kaballerua korbatakin ta!".

Zertik ez, ba? Zertik ez ba? Zintzua zen, ez zun sos bat gastatuko kampun! harek. 'Ta beti errealuk kartzen amai 'ro nei, 'ro... On puska 'ta! Ai...! Hua hil zenin, gue amak haik karraxiyak! Hobenak galdu zin e! Ordun 'e!

- Asko gaiña!

- 'Ta hola.

- 'Ta ordun hua zon soldauxka itten ai zelako gerran tokatu ziyon, Francokin aittu berra?

- E? Bai. Han bukatu. Otxandianon hilla izan ber zun. 'Ta kartzeko 'ta ordun, hasi giñan batea 'ta bestea 'ta, oan bezela eon bazin zeak...

- Errextasunak!

- Bai. Kotxik eta gauzak, biño ordun ez zun iñork karri, kamionan batin kartzeko zen 'ta, ez genun konsegittu.

- Eta, hango kamposantun 'o zea iñ zuten?

- Han enterratu.

- Han enterratu.

- Man zun paliza erra harrek gue itxian. Hoi gizajua! Erretratuk 'ta battut nik.

'Ta gaiña zen zintzua! Harei gustatzen zitziayon ongi jaztia. Traje errak 'ta korbata 'ta...

- Zea huaxe...

- Bai, hill ezkie e, san izandu zin batek: "zuen anaiya dotoria zenuten!".

"bai, hala zen, zintzua zen 'ta dotoria!" "korbatakin 'ta!" "Hoixe ez dakit. Itxea jon 'ta retraturi beitzen yo 'ta!" Bai, bai, korbatakin!.

- Gutxi ibilko zin ba hola...

- Bai, oso gutxi. Oso kaballero zen, e!

- 'Ta zer zun, lana hola berexiya 'ro? 'O... bestela?

- Ez...! Papeleran itten zun lana. Oaiñ, ez dakit ze empleo izaten zun papeleran!

- Biño behintzat, ofizinin 'ta ez zen aitzen hola korbata 'ta jazteko.

- Ez, ez, ez. Bea zen hartakua 'ta zintzua! Bai, gizajua! Utzi zun huts erra! Asko galdu zin ordun! Lastima zen bezela! 'Ta gaiña zun soldauska patua, e!

Aurretik patuta libratu itten baizen ordun! 'Ta patua, biño, gerra torri zen, 'ta hala! ¡Todos por ahí!

- Han 'e ez zen iñor gehiyo libratu, e?

- Ez nuke berriz gerrik ikusi nahi, e! makiña bat near in zun jendik! Geo torri zin reketik, Naparrutik. Gerra hasi zen dembun, eta eskapo gu itxetik! Zaiyan parientik genittun 'ta hara! Eta atta bakarrik itxian geldittu. Eta reketete txulu haik...

Eun batin amak saten zin: "oi! Atta bakarrik itxian 'ta jon berko 'zu!". Ni gaztina 'ro, ez, gaztinan aurrekua, anaiya banun gaztio. Aspaldi hilla do hura 're. Eta, itxea torri 'ta atta nearrez. Ez ziyoten utzitzen kupeletik saardua atetzen 'e! Bertako nausiyai!

beák (inpun) handikan hartuta.

- A! 'Ta zer zittun itxian sartuak?

- Itxian bai...! Oi, ordun haik aintzen zuten!

- 'Ta nolatan geldittu zen atta?

- Oi! Attak near itten zun ni ikusi niñunin. Ni tortzen nitzan, besteik ez zen tortzen!

- Biño nola ez zen zuekin iyo gotti?

- E? Joten nitzan biño... Hain mendin bezela. Haik atzetik seika. ¡Eso sin ver no se puede creer lo que es la guerra!

- Ez, ez.

- No se puede.

- Gu gaztiak...

- Bu...! Jaiyo gabiak, jakiña ba! El año treinta y seis estalló!

- Erki gotuko za...

- 'Ta hiru urte! Gerran pasa genittun! Erki zen, e!

1.27. Altzibarko fusilamenduak

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/010
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:20:04. **Bukatu**: 00:22:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerran Zaiara joan ziren ihesi eta aita bakarrik gelditu zen Martinmotzenen. Joxepa joaten zitzaion laguntzera. Zaiako gainean, soldaduek aitaren berri galdetu zioten behin. Altzibarko fusilamenduak gogoratzen ditu eta baita izugarrikeria hura ikustera propio joandakoak bazirela ere.

Transkripzioa

- Ez biño... Ai...!

- Ona da bai. Gorputzak... Muiitu berra du gorputzak.

- 'Ta gerra hasi zen dembun, torri baizin belarri motza hoitako erruz.

Itxian sartu 'ta nahi zittuzten guziyak iñ... Atta bakarrik geldittu itxiin eta amak bialtzen niñun hor Zaiya, Oaiñ eroiya 'men da baserriy hora. Zeozer parintik giñan 'ta hara jongo giñan. Eta han... 'Ta ni bialtzen niñun: "atta ikustea jon berko zu ba!" Amak saten zin.

"Hua bakarrik ez da eongo han". Tortzen nitzan 'ta... Jesus...! zeñiek kaso iña bai! Ni gazte gazte gaztia, hogeï urte. ipurtzulotik seika 'ta... "¡Hala... Por ahí! Iros a Navarra!" Eta gaixtuak zin, e! Gaixtuak zin, desapiyuk eta. Bai. 'Ta " Alto...!" han, Zaiko gaiñetik.

'Ta abitu belaxen in ziten bi Munizipalak 'o zerbatt militarrek 'o hola zin 'ta. Ni harri koskor baten gaiñin tak! Exei: "Alto estoy " 'ta "¿Qué salada, e?" batak bestiri san ziyoten 'ta "salada? Izortzen ez bazea...", torri 'ta iya noa nijun 'ta. 'ta atta aber non nun. 'Ta itxian. 'Ta itxia aber non nun 'ta Altziberren. 'Ta "bueno, bueno, bueno, ya puedes seguir" Biño hilli 're iñ zittuzten ordun, e! Bi Altziberren. Bat Iyerukua, Xegundo. Gizajua, mutill on askiya! Haik denuntziatu zittuztenak 'e... Haik 'e kontzientzi errakin geldittu zin ba. Ez dakit, politika madarikatu horrekin! Bi!

- 'Ta bestia zein 'te zen?

- Bestia aztua dakat oaiñ. Mikelentxonekua 'ro... Ez dakit ba, nongua zen hai. Bi laun behintzat, oso mutjill majua zen, Iyeruku hura behintzat.

- Herrikuk behintzat?

- Bai...! Izaunak! Jesus! near errak in nittun ordun! 'Ta... Altziberren neskek, oaiñ 'e hillak dia, 'ta propiyo hura ikustea! Ze gauza ikustea jon zin, e! 'Ta oaiñ enitzake jongo ni ezertik e. Geo 're bestela 're pena erra maten zin 'ta, (pff) jesus! Izugarriyak iñ zittuzten gerratin, e!

- Bai. Gehiyegiyak.

- Gehiyegi! Uo...! Gerra! Jaungoikuak guarda zala!

- Batzuk dena libre 'ta bestik eziñ ezer iñ!

- Eze ezin iñ!

- Dembo asko iñ al zenuten han, Zaiyan?

- Ez. Torri... Atta bakarrik itxian 'ta ni torri nitzan auro attana 'ta geo ama 'ta 're torri zin 'ta.

Denak horrea juntatu zin 'ta oaiñ iñorrez 'ta oaiñ iñor ezta.

1.28. Arrandegian lanean

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/012
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:23:47. **Bukatu**: 00:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Martinmotzeneren ondoan arrandegia zegoen, eta bertan egiten zuen lan. Ahal zutenean arraina lapurtzen zuten. Pasaiatik etortzen zen arraina. Kaxatan txukun-txukun jarri eta Bartzelonara bidaltzen zuten. Gauez egiten zuten lan. Gizonak bezala aritzen ziren. Etxetik kanpo lan asko egin da Joxepa. Artajorran ere aritzen ziren.

Transkripzioa

- Asko kusiya! Lan asko iña 'ta! Jende klase asko ikusi're in genun. Arrandeyan'e bertan genun, itxetik bertan arrandeyia, 'ta gabez lana in ber izaten nun. 'Ta arratsin leatza lapurtu, nausiya loaletzen zenin ohiyea joten zen, 'ta "izortuko ñeu ba!". 'Ta nei leatzakin korrika itxea jon ta... bertan baigenun itxia! Arraskan bota 'ta ixi-ixillik ate 'ta martxa. Amak, guriak bai poz erra!
- Harrek ez zun galdetuko nondik agertu zen!
- Leatza ez zun eozeñek jaten ordun!
- Ierriko zun zuk karriya zela!
- Hombre!
- "Harrapatzen bazattuzte!" saten zun harek beldurra berriz. "Bai, zaude beldurrez beti!"
- Ba ordun leatza izango zen...
- E?
- Leatza jatia izango zen...
- Oi...! Leatza 'ta, bixigua 'ta, denetik tortzen zen.
- 'Ta ze, ze arrandeyi... Biño ze arrandeyi...
- Pasaiyatik tortzen zen arraiya horrea. 'Ta hor itten genun kajatan jarri dena, eta geo bialtzen zuten kamionatan Bartzelona!
- Hara!
- arraiya, bai!

- 'Ta ze fabrika 'ro zen, ze izena 'ro daka? Nik ez nakan aittua.
- Hua zen... Arrandeyia! Arrandeyia, leno Errota izandutako tokiya zen. Biño, geo arraiyakin hasi zin negoziatzen 'ta...
- 'Ta hoi zer zen, geo Pitusa 'ta jarri zuten inguru hortan?
- Bai, bai.
- Dena inguru hortan?
- Bai, bai, bai.
- Oain pabelloiak dia baita're.
- Bai.
- 'Ta gabin lana, e?
- Gabez lana in ber... Hua zen tristina, e! Ñea...!
- Oyin eoki 'ta bozinak joka hasitzen zen zea, kamionak 'ta martxa. sos batzuk atetzetik pozik!
- 'Ta garbittu 'ta 're in ber izaten al zenuten arraiya?
- Bai. ongi jarri behintzat kajatan. txukun txukun jarri itten genun. Kaja haik...
- Izango zuten kaja... Kajak karga... Hoeita hamar kilo iual. Leatza zea batzuk, peskadilla, bestik bixigoz...
- 'Ta kargatzen 'ta 're zuek aitzen al ziñazten kamioitan?
- Bai! Guk gizonak bezela lana! Ez ga eozein izandu, ez! O...!
- Berko sasoya euki!
- Osasuna zer 'te da, e!
- Bai. 'Ta gehiyo non za lana iña, Joxepa?
- E?
- Kanpun... Etxetik kanpo 're toki gehiyotatik lana iña za?
- Bai, sos batzuk irabaztetik pozik! artajorra 'ta.
- artajorra... Patu... Zea kobratzen?
- Bai, bai.
- Bai, e?
- Bazin familiyak ez zinak laneko 'ta... Holakuk aprobextu itten genittun.

1.29. Goizuetako bidean, Arano

- **Hizlaria(k):** Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-017/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraren ondoren, gosea. Goizuetara ogi bila joan izan da. Arano ikusi zutenean Jesu Kristok zer esan zuen gogoratu ziren.

Transkripzioa

- Han herriya 'o ttiki ttiki bat ikusten da 'ta... Arano 'ta... "A! Jesu Kristok hoi san 'men zun, mundun ibilli zen dembuan. " Han pasaeran "(H)Ara... No...!".
- Pentsa ze urruti don!
- Istoriyak! Len izaten zin, bai! Uo...!
- Ailletu ziñazten Goizuta?
- E? Goixuta, bai...! Goixuta...
- Birez bire?
- Bai. Ogiya 'ta asko. Bai. aberikin jon giñan 'ta abeiya kargatu 'ta. Behiñ, uste 'ut ailletu giñala.
- In berko zenuten, Okillira, 'ro Berdabiyo 'ro jetxi in berko zenuten 'ta geo berriz handik Goizuta, ez? 'O...
- Ez, ez. Bada bestela biria. Hilla da nekin jon zena, Austiña, Zaikua zen. Haik genittun parientik 'ta gu hara jon giñan gerra eskapo.
- 'Ta ordun zuk zanzkan hoge urte 'ro hola?
- E?
- Zembat urte zenittun ordun?
- Nik ordun hoge urte. Politten polittenin. "¡Guapa!" eju errak itten ta"" Hala!" Nik. "¡Vete por ahí!".
- Denai purrusta itten al zenyon?
- Nik ba al dakizu ze ...

1.30. Gerraren ondorioak

- **Hizlaria(k):** Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-020/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Putxutxoerrekan bizi ziren. Gerra garaian etxetik joan ziren, baina ez denbora askorako. Kanoikada asko izaten ziren plaza aldean. Egun batean, 160 kanoikada kontatu izan ditu Maitxoren anaia batek. Anaia zaharrena gerran hil zitzairen. Gizaseme batek soldaduei esan zien aita eta anaia "gorriak" zirela, eta Iruñeko kartzelara eramane zuten anaia.

Transkripzioa

- E?
- Gerra 're tokatuko zizun zui?
- Gerra 're tokatu zian. Handik itxetik ateta ibiltzen giñan. Kañonazua besteik ez genulako.
- Non bizi ziñazten zuek?
- Putxutxerrekan.
- Uf...!
- Hara, Jesus! Eun batin gue anaiyak kontatu zittun kañonazuak, azkeneko eunetan. Zeatu 'ta ehun... Ehunda... Hirurogei 'ro ez dakit ze zeatu zittun inguru hartan. Geo alde in baizuten. 'Ta nombatte azkenaldiyan... Miño bestela 're bai. Kañonazuak sartu han inguruan, zeau, Exkerreneko baratzia zen, 'o zelaiya 'ro zea. Erramolatzak zekazkiten eta handik aldatuk zian erramolatzak leiyotik kampo, barrena. 'Ta hola gerra demboan. Anaiya 're han hil zitzaigun, hogeita lau urtekin. Dena hola.
- Eta zea, e... Kañonazuk zin bitartin zuek Patxutxerrekan eon ziñazten, e? Ez zizuten biali?
- Noiz? Gerra zenian?
- Bai.
- Ez. Noa jongo giñan? Atetzen giñan ahal genun tokira, biño geo bertan ioten giñan.
- Bai, e? Ez ziñazten inguruko baserrita 'ta jon zuek?
- Bai, jon 'zandu giñan. Errota 'ta hola. Biño geo, besteik ez genun 'ta itxian.
- 'Ta anaiya... Ze... Gerra jon zen 'o ...
- Gerrea jon zen. Biño hura lembizi in zuten, gizaseme bat bazen oso ergela 'ta zea, gue atta 'ta anaiyagatik san 'men zun gorriyak ziala zea, Naparrutik sartu zian soldaduai 'ro, eta haik kampuan harrapatu zuten dena hartu 'ta kartzelan sartu. Hartu 'ta Pamplona oiñez eaman zittu... Ez dakit noaiño oiñez. 'Ta han ez dakit zembat hillabete pasa, 'ta beste asko in zittuzten afusilatu. Biño guria e... Launa bazun, 'ta harrek han zea antti bat izauna 'ta harren poderioz iñ zittuzten prozesatu. 'Ta pasa zittuzten zortzi hillabete 'ro ez dakit zembat kartzelan. Bestela lepua. ' Ta holoko gauzak.
- Gauza okerrak!
- Txarrak.
- Txarrak.
- 'Ta geo klaro! Anaiya 're hil zitzaigun, atta 're handik bi urtea hil zitzaigun.

1.31. Oiartzungo fusilamenduak

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Anaiya frontean hil zen, eta berak jaso zuen haren heriotzaren berri ematen zien telegrama. Aita ez zen politikan sartzen eta anaiak ere ez. Kanpotik ekartzen zituzten kamioietan hemen fusilatzeke. Lehendabizi Beko-plazan fusilatzen zituzten eta gero hasi

ziren kanposantura eramaten. Oiartzungo mutil asko fusilatu zituzten han.

Transkripzioa

- Dena, dena tristia. Anaiya 're frentian hil zen. Telegrama ailetu zen 'ta nik hartu ber izandu nun, 'o nei tokatu zin hura hartzia 're. Txar guziya netzat!

- 'Ta anaiya ze in zuten Maitxo, zea, e... Reketik emanezi...

- Reketiak hartu Irun... Zeatik Pamplonatik etorri zianak eaman. Gorriyak ziala 'ta. Beste gizon horrek san zula 'ta. Gue attai ez zitziyon gustatzen politikan sartzeik eta.

- Biño han...

- Gaztiak akaso Batzokiko zea izango zuten, biño... Behintzat, politikan asko sartu ez.

- Biño garai hartan igualtxo zun. lozeiñ eamaten zuten, ez?

- A bai! Bai. Asko afusilatu zuten. Gui, Donostira jun giñan lehengusua 'ta biyek relojei batea 'ta nonguk zazte 'ta Oiartzunguak eta. Hola hasi zen: "bai, Oiartzun hortan 'e..." ez dakit zer 'ta bakit zer 'ta... Geo san zigun: "ba al dakizute zembat dian afusilatuak? Oiartzunguak?" 'Ta san zigun: "cuarenta y nueve 'ro" ez dakit zer. San zigun nola zen. Kantidadia 'ro san ziguten, ez naz akortzen. Gue auzuan bertan 'e bazian afusilatuk. Asko zen afusilatua. 'Ta kampotik kamionetan karri, han kampon harra... Hartzen zittuztenak 'ta bestetan ez itteatik beko plazan paretan kontra jarri 'ta han hiltzen zittuzten. 'Ta geo hasi zian kamposantura eamaten 'ta han afusilatzen. 'Ta Oiartzungo mutillak 'e bazian afusilatuak han. Nik dena holako... Txarra.

- Holako rekuerduk...

- Akortzen nazena.

- Jo! Erra da.

- 'Ta guk ordun ze urte genittun? Pues hogei 'ro.

- Hogeï 'ro.

1.32. Gerran hildako anaia

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/024
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:51:48. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Anaia soldadutzatik libratuta zegoen, baina gerrara joatera behartu zuten. Lehergai bat lehertu zitzaion eta bertan hil zen. Txirringulari ona zen anaia, Touringen zegoen. Beste anaiak lau urte-edo pasatu zituen soldadu. Garai hartan, ezkonduak eta edadekoak, denak eramaten zituzten.

Transkripzioa

- Ba hua jon zen frentea. Biño ze san 'zu?

- Leno soldauxka zun, 'ta ate zen libre. Kinze... Bentizinkokua 'ro zer zen hura? Behintzat, libre. Eta gerra hasi zen 'ta eaman zuten 'ta gerran hil zen. 'Ta libre atetako mutilla.

- Hoi da, hoi da.

- 'Ta beste anaiya 're libre ate zen hurrengua. Difentzi gutxi zuten, 'ta hura 're libre. 'Ta hura berriz, soldado in zun geo lau 'ro bost urte.

- Biño aleiya, bertzi in zutela, ez zen be borondatez jon. Bertzi in zuten bea! Behar, behar, beharrazi!

- E... Ez naz akortzen. 'Ta izan ber zun gaiña hura gerran hasi zianian, kampotik, zeatik Alemanitik ez dakit ze, karri 'men zittuzten... Kañoiyak eta nola izaten dia morteruak 'o kanoi ttikiyak 'o ez dakit zer. Eta disparatzen aittu 'men zian asko. Gui san zigun béakin zenak, e! 'Ta san 'men ziyoten... Guriak san 'men ziyon alferezai. Hura berua zeola 'ta peligrusua 'ta hoztutzen utzi ber zela! "¡Ta que no importaba!" Que no sé que 'ta no sé cuantos... 'Ta botaazi, beai botaazi ber. Bestia bazkaltzea jon 'ta hura geldittu 'ta harrek bota 'ta txikittu bertan!

- Lertu in ziyon!

- Berogiya 'men zeon 'ta lertu nombatte. 'Ta bertan dena puskatua geldittu.

- 'Ta abisua ailletu zen.

- Hogeita lau urte 'ro izango zittun. Hura geo gaiña zean, bizikletan ibiltzen zen afiziyo haundiya zun 'ta karreretan atetzen zen Erreinteyan 'ta barriyo... Herrita joten zian. Soziedadia, Errentiko soziedadia, Turin 'o nola? Hangua zen. Ai! Saten hasi ezkeo, penak pasa besteik ez dila in!

- Hoik aztutzia izango litzake onenea, biño izin dia aztu hoik!

- Ez!

- Izin dia!

- 'Ta beste anaiya hurrungua pasa zun lau urte 'ro... Ez dakit zembat, soldado. Orduan esposatuak eta denak eamaten baizittuzten 'ta jende bastante urtekuak! Harrapatzen zuten guziya! 'Ta geo han eon ber. Trixtura! Galanki pasa ber. Nik ez nitzake izan alegria haundiko gauzak pasatakua biziyan, ez.

1.33. Ikasteko baino lanerako premia handiagoa

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Erizaina eta dendaria izan nahi zuen, baina etxean ez zuen komentatu ere egiten. Garai hartan, etxetik joaten zena apaiz edo moja joaten zen. Gerra ondorena zen eta ikasteak baino premia handiagoa zeukan lanak. Emakume asko ziren lanera joaten zirenak.

Transkripzioa

- 'O ez da pentsatu 're itten?

- Nik momentu hartan nere zea zin, nere... Nei gustatuko zin izatia oso bi gauz diferentik. Enfermera eta dependienta. Nik horaxe nun buruan. Bai. Eta... Jesus...! Amesten nun gaiña askotan! Bai.

- Biño okurritzen al zen satia etxian nik seittuko nuke ikasten 'ta...

- A! Ez, ez, ez. Ez, ez. Keba. Ordun, ordun gehiyena itxetikan jotzen zena zen apaiz 'o monja. Eta geo tarteka ikastea jotzen zinak bazin. Eta person pizkorrak e... Askiyak eta atera aterik 'e bai, biñon oso gutxi, oso gutxi. Ordun gaiña ni berrogeiyan jaiyua 'ta gerra ondoria zen eta ordun pues hori, e... Zen beharra eta ahal zunak ahal zuna ittea eta... Bai, biño len san zattutena Oiartzundikan badia person asko pizkorrak aterik eta biño gutxi batzuk, uan bezela ez. Uan bezela gehiyenak ikasketak eta ez, ordun ez. Ez, 'ta gaiña ez zon zeikan, esan nahi nuke... Ez gerra ondoria zelako, ez zon, ez zon uan bezelako... 'Ya uan eta lenotikan bezelako 're erraxtasunik ikasteko ez zon, ez zon.

- Ahal bazen lana in ber?

- Bai. Lana derrior, derrior.

- Eta lanea jotzen zin emakumik? Orduko zue erarekuk Errentira Pekiñea ta bai ez?

- Bai, asko asko. 'Ta ni, ni biñon zerbatt zarraguk 'e bai. Hor Pekiñea 'ta manta fabrika 'ta hoita Oiartzundikan emakume asko jotzen zin eta ordukoz 'e oso gutxi, biño bazin amak haurrak hazitzen ai zila fabrikan lana itten zutenak. Gutxi, e! Oso gutxi kontatzeko gaiñe, biño bazin e... Fabrikan zabiztela ezkonduk eta ez zea haur bat eta bi, bost 'o, lau 'o bost 'o... Haur eta haik hazitzen ai zilikan, lana iñ eta handikan jubilatuk. Biño gutxi. E... Zeakin ikastetakin esan dugun bezela, gutxi jotzen zin bezela aurrea karrera bat 'o ikastea bezela, fabrikan ezkonduk seittutzen zuten emakumik 'e gutxi zin. Biño lanea jotzen zinak asko! Asko hemendikan bai.

1.34. Diru mugimendu gutxi: trukaketa eta errazionamendua

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/019
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:54:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Lehen erosi adina trukutzen zen. Dendara arrautzak eraman eta etxerako behar zena hartzen zen. Gerra ondorengo errazionamendua ere gogoan du: hiru kategoriatan banatuak zeuden kartillak.

Transkripzioa

- Ta zu gotzen za, diruz aparte trukaketaz gotzen za?

- Bai, bai, bai. Arrautza asko. Arrautza dendata asko. Arrautza eaman dendata eta guk itxian ber genuna. Bai. Baita're geo gerra ondorengua izanagatikan'e akordatzen naz rasionamentua. Hoi're akortzen naz. Hiru kategoriazin: primera, segunda ta tercera. Ta primerakuk zuten ogiya kantidade gutxiyo eta oliyua ta, e... Letxekondesada ta txokolatia 'ta hoi kantidade haundiyo. Eta terzerakuk zuten ogiya kantidade gehiyo, letxekondesadikan ez, eta gaiñeko jenerua're kantidade ttikiyo. E... Kartilla batzuk zin eta haikin jotzen giñan uan Arrandeiya Maritxu den hortan Baraiberrenak ardo almazena zuten ta han banatzen zuten rasionamentua. Bai. Eta hara jotzen giñan, eta nik eamaten nittun itxekuk eta Austiñenekuk. Eta famili haundiya zen han, ta gaiña primerakuk zin haik, primera kategoriakuk eta ordun marmita batin oliyua. Ta ni batetikan gaztia ta, bestetikan ttikiya, han jotzen nitzan oliyua birian galduez hairi eamatea. Ogiya eunero eamaten genun, ta ogiya billa beak tortzen zin guen itxeaiño, biñon hillabetin behingo rasionamentu hura neonek entreatzen nun. Eta beno, bireko nekik aztutzen zin hara jon ta txokolatia ematen zitenin. Dena aztua gelditzen zen. Bai.

- Txokolatia're rasionamendun barrenin al zon?

- Bai, bai. Haikentzako bai, primeran barrenin baitzon. Biñon terzerakuntzako ez zen... Txokolatia nik uste dut kantidade ttikiyun maten zigutela, biñon letxekondesada behintzat, ez. Ez ziguten ematen guri.

- Ta hoik zertik 'te zen, kategori difentik?

- Hoi... Esplikutzen ez dakit. Biñon akordatzen naz hiru kategori hoik zila. Eta... Ogiyana're akordatzen naz ongi, eta letxekondesada ez genula izaten're bai. Binon gaiñekun ez dakit hoi zergatik izaten zen.

- Eta ogiya ez zen asko... Bueno denetik gutxi izaten zen, ogiya're gutxi!

- Ogiya gutxi bai. Ogiya gutxi ta txarra.

1.35. Lantegiko errazionamendua

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:26:45. **Bukatu:** 00:28:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena:** Errenteriako Esmalterian lanean ari zela, langileei errazionamendua ematen zieten. Aza eta moniatoaz gogoratzen da Rufino. Lantegian, gordean, patata errea jaten zutela ere gogoan du.

Transkripzioa

- Biño, txandaka aitzen giñan, e! Batzuk ale batzuk 'ta bestik bestia.
- Gu, zea... nakila nik, zembat, zer zen... Pentsa 'zu ze kartzen zun goseti hartan. Azak, zea, jendiri mateko. Razionamendua karri 'ta razionatua azak berde berdik. Mekauenlaletxe! 'Ta listiña kajetan jartzen aitzen giñan 'ta zembat zen. Emakumik gehiyo zin gizasemia biño. Aza berdik! Joe! Errenteitik ate 'ta itxea ordun kartzen nittun bizikletan, bizikle... Kartzen nittun. Geo moniato 're bai. Joe, bestia! Moniato!
- Hoi ez nittun nik izautu han. Moniato 'ta Aza (...)
- Ez al zenun izautu moniato? Joe! Nik zue lehengusua, Lutxi, zen guekin aitzen zena eta (...) Etxeberrikua. 'Ta harren partik eta hain itxea jun 'ta hain moniatuk eta denak karri 'ta. Gosia! Mekauenlaletxe! Ordun pasa genittun guk errak!
- (...)
- Moniato hoi patata bezela erre 'ta...
- Gozuagua, ezta?
- Gozua. Pata erria jan ez dun jendia 're. Labian jarri taka 'ta labiak kriston berua iukitzen zuten 'ta guk burniyan gaiñin jarri 'ta istanteko erria patata! Patata erria jan.
- Ogiya falta.
- Bai. Biño patata erria jateko 're zokoa jon 'ta jan ber zen, ikusten bazizuten!
- Biño oaingo jana biño garbiyo!
- Hoixe!
- Patata erria 'ta oain jaten duguna ez dakigu!
- Hoi bai. Gehiyo bai, biño...
- Haik naturalo dia, zin!
- (...)
- Gaiña askotan izango zuten harra barruan, ezta?
- Rellenuk.

- Betiak, patata betiak!
- Patata betia!
- Bai, ordun harrak eta ez zin beituko, dena barrena! Haik 'e goxuak!

1.36. Etxera ezin itzuli

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/008
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerran, Solchagaren familia Iruñera joan zen eta lan gabe gelditu zen, baina Zamorara ezin zuen joan, Txikierdin bidea itxita zegoelako. Beraz, bere ahizpa batekin bizitzen jarri behar izan zuen.

Transkripzioa

- Hoi 're han akortzen naz. Eta geo pues, nada, gerra. Eta gerran ondotik, han berriz 'e eondu nitzan.

- A, bai? Geo ondu ziñan berriz?

- Bai. Biño Pamplon aldea ez. Haik zeara jon zin, e... Pamplonara jon zin, eta gerrak harrapatu zin hain itxian zola. Ne baserriya Txikierditik hauntz, pasoik gabe geldittu nintzan itxea joteko. ¡Oseake pa dicinueve años ya me iba yo abandonada otra vez de mi familia! Eta ibiltzen zen ne ahizpa josten...

1.37. Gerraren ondorenak

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Urteko errenta 66 duro kostatzen zitzaien maizterrei. Garai hartan ez zen batere sosik ikusten eta baserritik bakarrik ateratzeko asko zen. Portuberrin, anaiak meategietan egiten zuen lan, eta hark ekartzen zuen diru pizarra, baina gerran hil zen. Hika.

Transkripzioa

- Miño gu errentan bizittu giñan. 'Ta hirurogeita sei duro ziñen errenta miño hua patzeko 're urtian itten genittun 'o txokor bat 'o zerrikume batzuk 'o...
Jornalik ez den tokijan baseritik atera ber baldin bada, oso diferentia da.

'Ta ordun neskame 'ta jotia, gue zarrai... ni Ergoien eon nitzan... Bialden, sardo saltzen. Zea, jon zelako hango gizona sardo... 'ta gue attak: "Ez al zu neska bat mango sardua saltzeko?" 'Ta ni torri nitzan. Hua izan yunen ne ate... 'ta ne anaia, gerran hil zenak, gerran hil zitzañ... lenbizikua Oiartzunen, 'ta hura Arditturrin hasi 'ta beti xox bat eta beti difentziya izaten zen familiyan.

- Bai, beti hua geyo. 'Ta gerran ze in zuten eaman in zuten 'o?

- Bai, soldao. Soldao zon, 'ta permisukin torriya itxian eta etorri zen... San Juanetan, 'ta hurrengo eunin San Juan iturrira jon giñuzenen behintzat, hoi dakat gouan. 'Ta geo hilabeteko permisukin torri zen 'ta geo altxatu zen gerra, eta guria ez zen presentatu miño beste bost laun 'o bazittun 'ta haik presentatu zin 'ta hairi galdetu 'ta geo gue etxea... detenittu in zuten: jon zin reketik 'ta geo eaman zuten Panplona 'ta han konpañiya prepatu 'ta Olaitzala, Olaitzola torri zin, hor jarri zuten kozina 'ta hor eondu zin denbo bastantin. 'Ta hortik jon 'ta lenbiziko atakia Irunen; lenbiziko atakin hil zen. Bai, Oiartzunen lenbizikua. Gue amai, bizitza erdittu zionen. Aizu, hogeita hiru urteko mutilla hiltzia ordun. Oaiñ azidentikin 'ta hiltzen dia miño, ordun.

- Hola hiltzia...

- Hola hiltzia...

- Zer zen zarrena hua?

- Hura zen bigarrena. 'Ta geo Inaziok...

1.38. Gerrara eramanak

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Inaziok, bere anaiak, sei urte pasatu zituen gerran; azkeneko urtea, Bartzelonan. Zorriak janak itzultzen ziren etxera. Hika.

Transkripzioa

- Hura zen; biarrena. 'Ta geo Inaziok: horrek sei urte pasa zittun gerran.

- Bai, san izandu digu gui.

- Geo hoi... horren eaman ber zuten... hemezortzi urte komplittu gabe eaman zitenen gerra gue Inazio. Sekulan Oiartzundik ate gabia, pusill bat ikusi gabia 'ta... hala eaman zuten. Sei urte pasa zittun. 'Ta Manuelek suertia izandu zun; ya gerra bukatu zen 'ta Lesakan in ziñen soldauxka. Lesakan bazen konpañiya, bakizu gerra ondorin nonahi jartzen zittinen 'ta. Bai. Ge Inaziok azkeneko urtia pasa zun Bartzelonan soldado, Bartzelonatik zeatu zen... Zorri pilla 'rra karri ziñen. Itxian sartu zenin, ne atta difuntua

uztarriyan jartzen behiyak 'o ez dakit ze ai zen 'ta: "Atta, dena zorritz betia torri naz 'ta...", "E'yaiyela ordun gotti jon" 'ta gue amak arropa guziyak hartu 'ta balde batin sartu ziñen suan jarri 'ta denak han bukatu zin zorriyak.

- Jo! Nola torko zin haik!

- Bai. Zorriyak... nik kusi nun mutil bat, (berez 'e zea zikiñ xamarrak zittuzten) 'ta ne gizon difuntuak, orduko gerra, klaro, gerra bukatu... Koxme zun izena 'ta, e... san zin: "Ekarri nazu alkandoa 'at" 'ta "Ze in ber 'zu", "Koxme, nik uste 'ut, zorriyak dena betia dola 'ta putzun sartu ber dut, putzun". Harren bizkar-hezurako hezurra hoi dena, dena zorriyak jana ziñen, llagatan jarriya. 'Ta hala bizi zen hura gizajua, amaik ez zun ta... atta... Eta ne gizon difuntuk hartu zepillua dena garbittu, garbiya jantzi 'ta bueno... holako ixtoiak!

- 'Ta klaro, gerra zu ongi gotuko za. Hogei urte...?

- Hogei urte, gerran. Ni dena gotzen naz gerra.

1.39. Tiroak, bonbak, lapurretak... gerra

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/008
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:15:37. **Bukatu**: 00:19:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Gerraz ongi gogoratzen da. Ez zuen eguzkirik egin urte hartan. Etxetik atera orduko, tiroak non-nahitik. Tropak mezara joan ziren eta San Markostik bonbardaketa hasi zen. Santuseneko gurdi-bidetik aita eta biak zihoazela, bonba ondora iritsi zen. Langileen Batailoia errepidea egiten. Gauza beltza da gerra. Hika.

Transkripzioa

- Hogei urte, gerran. Ni dena gotzen naz gerra. Gerra, lengo esayera da: gerraik hobena miño pake txarrena hobia dela, 'ta bai. Ordun ez duzu pozik 'ta deuse, 'ta beti usai bat, zea usai... polbora usaiya 'o... gaiñea gerrako lenbiziko urtian euzkiyik e'tziñen sateko... ez dakit jaingokun zeaz... euzki gabe bizittu giñan gerra hasitako urti hartan. In zun urte bat... 'Ta aieka guzitatik soldadua 'ta guardiya 'ta beno. Ogiya billa torko bagiñan 'e eozin tontorretan bazozten guardiyak jarriyak: pa 'ta... ti 'ta... Nei ez zitt tokatu beñe jotzia miño... ordun kartilla bat maten zuten ogiyan billa joteko, laun batek 'o bik 'o... 'ta attak eta nik jotia bakarra genun libre ogiyan billa. Ne ama hamakiña bier atzetikan beira eondua: ni itxetik atera ordu goiko Galtzatak gaiñatik hasiko ttunen zipi 'ta zapa. 'Ta beñe ez zitzaidan suertu nei jotzia. 'Ta nik granada bat... San Inaziyo euna, eliza jon 'ta handik atera 'ta tropak sartu zin elizan meza entzuten, oaiñ miño fede... ez dakit nola den hori. Eta ikusi ziten nomatte zeatik, San Markotikan, San Markon frente geitza izandu zen, eta hasten da bonbardeua 'ta Oiartzungo eliza bai, orro errak! Ez dun nolanahiko... in zizkaten harri batzuk bota. 'Ta handik atera

'ta, atera 'ta, ate bittartin auantatu geniñen, tropak ate zin bitarte, 'ta aùn y todo baguzen, oaiñ dena etxez betia zion hoi, Santosene aldeko tarti hartan arto-zelai izugarriya zen. Eta goiatik biria, eta goixiotik biria, geoztik in zuten Ergoinea biria, zea karretera, bestela zen gurdi-bidia miño zabalxio miño ya...

- Bai, Gaztañea atetzen zena.

- Atta ta biyek zakua bizkarrin genula 'ta hor ikusten dut zu gauz beltz bat xi-xi-xi "Atta atta, non..." 'ta guk bai korri errak. Atzetik bai harri pilla 'rra hartu geniñen. Bai, harrek in zun zoluakin, beno... itxe bat sartuko zen. 'Ta ez zen lertu... geo hamakiña bat abere zar sartu zitenen zolu hartan, geo aberia, ordun ez zen kotxeik eta aberikin zen dena 'ta gosia 'ta llagatan 'ta... abere asko hiltzen zen. Denak zolo hartan. Pilla 'rrak battun han sartuak. Nik behin ikusi dut, bonba nola tortzen den: beltz-beltza birian... bueno! Penagarriya, penagarriya. 'Ta ordun ezin zenun hitzeiñ 'e gauza asko 'ta. Bakizu (non aitzik 'e ez zen): dena militarra, dena reketia, dena... 'Ta lapurretan 'ta beno, gosia zuten, arto zelaitan 'e... artua guk ez dugu jan miño... zuitzen zitenen 'ta erre 'ta jarri 'ta hura jaten zuten Trabajoriak. Trabajoria... beno, golpe bat 'e etziñen harrek gogoz man karretera hortan. Ne attak saten zun: "Autxiliko tunelian gogoz emantako golpe bat 'e ez dun". Hor pasatu zittuzten hiru urte 'o, hortikan karretera Ergoien hasi 'ta Lesaka itten. Oso gauza beltza da gerra, beltza-beltza, beltza, beltza... Nik askotan... bai, hoi iruitzen yote askoi, oaingo gaztia ez 'iten ikusi 'ta, kontua, pero... gerrik, 'ta lengo esayera da: "Gerraik txarrena miño pakeik txarrena hobia da".

- Eske gu ez ga ezta imajinatu...

1.40. Gerra aurreko giroa

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/011
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:24:35. **Bukatu**: 00:26:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Gerra aurretik ere bazen miseria, baina goserik ez. Hala ere, giro nahasia zegoen; grebak egiten ziren. Tropak sartu zirenean, Portuberriko apopiloak bertan zeuden; meategietako langileak ziren eta greban zeuden. Gazte asko zegoen lanik gabe, baina ez zen pentsatzen gerra etorriko zenik. Nafarroako sarraskia.

Transkripzioa

- Len zena 'ta geo ez zena 'o...

- Nik ez dakit... leno gerra aurretik 'e mixeia zen zu, mixeia galanta. Hau zea da Gorka seuraski, semia... Gerra aurrin goseik ez zen miño pakeik 'e, ordun 'e huelga 'ta... nasiya jendia. Arditturri lanin ai zen ordun 'ta ni tropak torri zinin Portuberri dena jendez betia zionen huelgan zolako. 'Ta ordun tropak zer zin 'ta ez zen... "Bai, zea Endarlasako zubiya bota 'ute

tropak" 'ta... Geo handik bi eunea azaldu zin hemen. Geo Eskasea, aitzia izango zu? Eskase tropak estrenatu zuten lo itteko arratsin, geo zabaldu zin denin 'ta...

- 'Ta gerra hasi aurretikan arguyua 'ro aitzen al zen zerbatt heldu zela 'o okerrea zijula zerbatte 'o?

- Bueno, sinixtu 're... jendia bakizu, lanik gabia gaztia dena itxian, iñork 'e ez zun lanik, miño gerra torko zelik iñork 'e ez zun pentsatzen. Ez zekiteneen gerra 're zer zen 'ta. (Atzokui san niñen) 'ta Naparrun hasi zela, atzoko kontuk bai, handik etorri (da) General Mola, naparra zen 'ta harrek ekarri zizun tropak, lenbizikuk. Handik hasi zen Pamplonatik, han 'e herri ttiki guziyak, etorri nahi ez zuna apusillatu 'ta, han likidaziyua izugarriya inta torri zen. Torri 'men zen. Nik hangua lehengusu batekin, neriakin, ezkondua bada 'ta harrek hala saten zun: zazpi senirekin geldittu zela hain ama 'ta atta eaman 'ta geyo ikusi ez. 'Ta hola asko, han? Ez... ni Zaragoza bastante, beno, bastante jon naz, 'ta Zaragoza guzela zenbat herri beltz-beltz-beltzak hutsak. Denak gerrako dembun hartu 'ta karri 'ta geo... Oaiñ, tartin ateratzen dia batzuk, hemen, handik hemengo familiarrak jon 'ta ben terrenua izaki 'ta itxe batzuk bat 'o beste iñak eta hola ikusten dia. Miño gañekuk? Nada, abandonatuk itxiak. Herriyak hantxen, herri osuak.

1.41. Lanpostu batengatik fusilatua

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/012
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
 - Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena:** Nafar asko etorri ziren gerran; erreketek. Asko bertan gelditu ziren. Inork gutxik ezagutzen duen fusilamendua kontatu digu Arroxa.

Transkripzioa

...'ta hola ikusten dia. Miño gañekuk? Nada, abandonatuk itxiak. Herriyak hantxen, herri osuak.

- 'Ta handikan torri zinak, reketi haik, euskaldunak 'ta izango zin ba?

- Gutxi, gutxi-gutxi. Gutxi, oso gutxi. Pamplonan ya euskaldunik ez dun, 'ta handikan harakua Zaragoza aldeko jendia torri zen. Gutxi.

- 'Ta handik aurrekuk denak bertuk?

- Bertuk, bai. Bai.

- 'Ta zeari... gizona 'ta hanguk zin, aldia hartakuk, Itturin...

- Itturinen. Hoik 'e torri zin, klaro, hemen nola suerdatu baiziyoten lana

denantzako, nola ez baizuten gerra jon beharrik ne gizonak eta iñork 'e, eran extranjeros, iñor ez zin jon hoik gerra...

- A klaro, amerikanuk zilako.

- Bai. Iñor ez zin jon gerra hoik. Eta ordun ne familiya hori torri zen Makintxea bizitzea, bai. 'Ta hola, hoik bezela. Errenteiko plazan? Zea... Oaiñ ez, oaiñ ya. Hor puestuk jarri zittuztenak, hola torritakuk kantidadia, gurasuk geo karriyak zin. Berak honea torri, umik onea gerran karri 'ta berak bakarrik geldittu 'ta geo han gurasuk karri honea, holakua, naparra erruz zen hemen e!, erruz, erruz. Erruz... Beno, ni beti Errenteiko plazan, san niyon: "Hau 're naparra", 'ta beak saten zun: "Somos navarros" y "Si, ya se ve". 'Ta hola ixtoiak kontatzen hasi ezkie... ezin kontatu halakuk dia, gerrako... Esan zina, lenbizi torri zena honea, gerrako... jon zila Aranburura 'ta hango amonak ez zula deus jakin nahi 'ta, honea dirijitu zittuztela 'ta, bueno... eta san zin: "Bueno, afusilamentun...", hemen bizittu zen geo 'ta, gizona hura hilla hunan, "Haren atta non hil zuten iñork ez diu san, 'ta zuk bakarrak. Ui, ezta itxekuk 'e ez zakiten hura non hilla zen", "Pues, Oiartzungo kamposantun hilla da. Porke hemen goiko gizona, beste bizitza du honek goian, eta hoi Lizarrea gelditzen baserrira jon gabe lotan, Lizarren arreba zun 'ta, eta geo zolua ittea eamaten zittuzten Oiartzungo kamposantura, 'ta gizona horrek ze san ziyon: eaman dute... kulpik gabe ekarri zuten, Errentiyan zon guarda hoi, 'ta beste batek guarda sartu nahi zulako horrei txibatazo bat gezurretakua iñ, gizona hiltzeko, zu. 'Ta san ziyon: "Aizu, ingo al diazu nei enkargu bat?", "Ui" gizon honek esan 'men ziyon "Nik ittekua bada...", "Sanki yozu ne itxekuri nik ze paradero damaten" esaten zun, "Ne denbun ez ddit aztuko gizona haren serenidadia, hiltzeko zai jarriyak, zeak, soldaduk". 'Ta ez zekiten honea torri zinak "Beno, Oiartzungo iñork 'e ez diu... ibilli ga galdezka horrena 'ta iñork 'e...", "Beira, Oiartzungo kamposantun hilla da hura".

- 'Ta zer zen, Errentikua?

- Errentikua, baserri batekua. Bai, 'ta hola. 'Ta zean, oaiñ (arte ez 'men ttizten...) bost gorputzen hezurak, zean hoik, zean, Lekunen. Hor sartu ziten, hor? Jainkuak daki zenbat hil zuten hor. Hortik eskapo inta... geo tiro 'at emanta eroi zen 'ta ez jo, 'ta in zun eskapo gizon batek, Pasaikua, geo be andria hemen ibiltzen zen, arrai saltzen. Eta hura altxatu 'ta eskapo in ziñen, ez zun jo, eta lenbiziko baserrira, Oiartzabalea jon, 'ta han ate joka... hango gizonak nei kontatu: 'ta atia jo 'ta "Zein da?" 'ta hola 'ta hola "Ireki nazu" 'ta "Nik atia ez zattut...", "Ereki nazu" 'ta ireki ziyola, eskual lotuak 'ta hankutsik. "San niyon: nik etzattut etxian hartuko, eskuak eskatuko zattut eta apargatak eman, 'ta zuk, nahi zun tokira jon" 'efektibamente, miño han hill berra izango zen...

1.42. Norberarentzat ez izaki eta entregatu egin behar, gainera

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/015
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:33:47. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Gerraren ondoren, baratzean egiten zenetik zati bat entregatu egin behar izaten zen. Batzuetan ez ziren iristen kopurura eta erosi egin behar izaten zuten gero entregatzeko. Gipuzkoako errota itxi zirenean, Nafarroara joaten ziren ogi bila, estraperloan. Hika.

Transkripzioa

- 'Ta hoi denak ikusita ez da geo erraza izango ba aurrea itxia 'ta bizimodua seitzia?

- Bai, in berra, in berra. In berra, in berra... Jendia zor askokin gelyittu zen. Beitu: iña zuten zea illarra 'ta haitik entreatu in ber izaten zuten, igual patata, igual illarra, igual... 'Ta zengatik? Porke Francok nola ez baizun urriik Españian, lenotikan eamana baizun. Ekarri zun muniziyua extranjerotik eta geo ez zon dolarik eta deus ez zon hemen patzeko 'ta dena bializun hola: illarra... gauzakin. Eta Haizian Inaxio, oain zu ez za akortuko, hura puertun lana itten 'ta eun batin potua, san 'men ziyon: "potu, potua tomate bat eaman in ber dit" 'ta potuk kargatzen 'ta itxea jonta Xatur, hoi Bordazpiyan bizittu zena...

- Izautu nun bai, Haixiana 're izautu nun.

- Bai. Harrei san 'men ziyon "potu tomatia karri 'ut, nahi bazu zean jartzeko" ereki du 'ta oliyua! Ha zenbat hola, 'ta hola asko, hola asko.

- 'Ta itxian jango ez bazen 'de, entregatu in ber!

- Entreatu in ber, bai, bai. 'Ta ez zunak; eosi.

- Ez zunak eosi?

- Eosi 'ta entreatu, in ber izaten zun. Bai. Hoi hola da: ez zunak eosi 'ta entreatu. Hamakin batek bai. Hoi izandu zen gerra ondoko mixeia: zunak 'e... berrogei patata... beno, askotan illarrik ez 'zu erdiyik 'e itten zelayin, 'ta berrogeita hamar kilo entreatu ber ttuzu 'ta hogeita bost ttuzu etxiin, 'ta beste hogeita bost eosi in ber. 'Ta holakua beno... 'ta geo rasionamentua; oliyua, ordun hemezortzi peza asko zen, 'ta harrapatzen bazenun... eta oliyua izateko antxo lata haundi batzuk eosi 'ta oliyua kendu harrei 'ta antxoa lata hua jakitako 'ta geo oliyu harrekin gañeko gauzak iñ. 'Ta bizimodua hoi izandu zen, geo ondotik.

- Gerra bea 're gorra, miño geo ondorena 're gorra... hainbeste urtian.

- Bai. Nik, gue Felipek oaiñ ttu, oaiñ jon'zka berrogeita hemeretzi urte eta hura jaio zenin oaindik 'e nik rasionamentuko kartilla nun. Bai. Kartilla harrekin jon 'ta maten zizuten ume bakotxantzat hillateko mango zizuten medio... kilo erdi bat azukre... Hillate guziko! Hola dena, hola neurtua.

- Klaro, 'ta zuk garaia hartan hazi zenitun seme-alaba guziyak?

- Bai. Hamakiñ estraperlo in niñen nik! Hamaika estraperlo bai!

- Berko!

- Berko! Goizutan 'ta hiru ordu, lau ordu, ya hiru ordu 'ta lau birian ni tripa haundiyakin 'ta berrogeita hamar ogi, kilo ez zen alletzen miño,

buruan etorri naz hamakiña bider. Uzpuuko gañea. Kontrabandua zen. 'Ta ikusten banittun Guardia Zibillak 'o gordeta eon pixkat 'ta...

1.43. Emakume langilea

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/017
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:37:20. **Bukatu**: 00:41:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Errotak Nafarroan ez zeuden itxita, eta Gipuzkoan bai. Arroxak lan klase asko egin behar izan du 11 seme-alaba aurrera ateratzeko. Hika.

Transkripzioa

- Zea... eta... hoi nola izaten zen? Klaro hoi zen errotak itxiyak zilako?

- Bai. Errotak itxiyak zielako.

- Ze jotzen ziñazten? Iriña 'o?

- Beitu... iriña. Beitu... 'ta ogiya... Naparrun ez zin itxiyak 'ta Gipuzkoan itxiyak. 'Ta Naparruan kolak beti eoten ttunen errotatan. Eta ogiya 're rasionamentua han ogiya ez zon kontrabandua, gu genun kontrabandua, harrapatu ezkie.

- Hoi da. 'Ta zuek ze itten zenuten zuentzat eta bestentzat 're karri?

- Bai, bai. Guk 'ta... gue... ne gizon difuntua hamaika ogi karriya dut estraperlo, jesus! Askok, asko.

- 'Ta harrapatu in zizuten, noizpatte harrapatu?

- Ez, beñ 'e. Ez ziun harrapatu.

- Ez e?

- Zea... Lengun obispua 're torri zin nei zea bat ittea... entrebixta bat ittea honea, obispua, aurtan. Eta san zin: "Zenbat, etxeko andre, zenbat bizimodo klase eaman ttuzu zuk?" eta "Nik? Sei 'o zazpi bai!" 'ta hemen barriyun don apaizak hala san ziyon: "Honek kontatutako ixtoiekin nik sermoi bat atera nun e!". Zer daitzate hoik? Jai al dute 'o? 'Ta hola.

- Bai, bai. Eske... gauza pilla 'rra in ttuzu zuk e?

1.44. "Trabajadoreak"

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:56:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerra garaian 'trabajadoreak' etortzen ziren Portu berrira. Lapurreta asko izaten zen. Trabajadoreen artean jatorrenak andaluziarrak ziren. Hika.

Transkripzioa

- ...hogei 'ta geyo laun, beak... 'Ta hoik jaitan, jaiero gue itxiin, berindua prepatzen ziyon gue amak. Eta hola... Gue amak jana asko jartzen zun. 'Ta hola.

- 'Ta zue gizona izandu zena 're torko zen? Ez, hua apopillua zen.

- Hua apopilua zen. Hua geo, gerra ya bukatua zen hua torri zeneko, bai.

- Miño ordun, dantza ze izandu zen, gerra arte?

- Gerran, ya gerran. Ordun ez zon... porke trabajadoria 'ta ze naspilla izaten zela uste 'zu? Beira jarriyak denak lapurtzeko 'ta e'zuten 'ta... Gerran taberna ezin zen izan biño... Taberna ez gen... ez zen itxi sekulan. 'O baten batek nahi baldin bazun botil bat ardo eamateko 'o... Batzuk mutillak izaten zin itxetikan dirua bialtzen ziyotena eta ongi bizi zinak trabajadori haitan 'e. Denetik bazin. Lapurrik haundinak ttunen de los de Bilbao, Bilbaotarrak 'ta personik jatorrenak andaluzak zin, trabajadori haitan, andaluces.

- Trabajadorik zer zin prisioneruk hartutakuk ez? Ze geo aparte zin soldauk?

- Ez, ez, ez. Haik trabajadorik haik kartzelan in ber zuten tokiyan lanin itten zuten, be pena.

- Bai, hoi da.

1.45. Gerra nola sartu zen

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/007
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:10:36. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Santosen familia Igartzatik Borrokazelaietara etorri eta agudo hasi zen gerra. Gogoan ditu kanoikadak eta bala-soinuak, "pakun-pakun", Urkabetik. Juanitok kontatu digu erreketek sartu

zirenean Okelarren behia nola hil zuten. Tiburtziok, berriz, Aldakon idia nola hil zuten.

Transkripzioa

- Eta gerra gotzen zazte ordun? Gerrataz?
- Ez, libratu giñan! Gerratik libratu giñan gu.
- Libre bai. Bai, gaztiak ziñaztelako, biño gotu itten zazte, nola hasi zen 'ta?
- Hoixe gotu!
- Ni batez.
- Bai, bai.
- Ni bost urtetan torri nitzen honea 'ta gerra seitan torri... Sei urtetan 'o sei... Zean zen, treintayseisen gerra.
- Bai!
- Eta nik bost urte in 'ta handikan auro zen gerra. Biño akordatzen naz, kañonazuak eta nola ibilli zin denak burun betti abioyak nola ibiltzen zin. Hoi dena akordatzen naz ni. 'Ta balak 'e, zea, bala soiñuak, pan, pakun 'ta pakun iñez 'ta. Leiyuan jarri koltxoiya 'ta ohiyan gaiñin jarri denak gu, senide denak, mutikozkorrak eta neskakoskorrak denak han jarri, eta eoten giñan denak, bala sartu gabe. Urkabetik aitzen zin tiroka: "takun 'ta takun 'ta 'takun! 'ta" Geo reketiak eta nola ibiltzen zin 'ta dena akortzen naz ni!
- Reketiak sartu zinin gaiña, hortik barrena torri zian, 'ta handikan, hango disparukin behiya zeatu zen Okelarren!
- Bai. 'Ta geo izeba hara jona, gue arreba ttikiya nexkakoxkorin hara.
- Bai.
- Eta atta nola jon zen korrika hara 'ta nexkakoxkorra hartu 'ta besuan hartu 'ta nola karri zun itxea. 'Ta hoi dena akortzen naz ni.
- Bai, karo.
- 'Ta atta, zea izeba atzetik nola torri zen 'ta hoi dena akortzen naz ni. Bai.
- Kuadran barrenin hil zuten behiya, ez? Kuadran barrenin zen, ez?
- Kuadran barrenian. Bai.
- Hoi non?
- Gue atta 'ta, biño geo abixua
- Gu dugun baserri...
- Reketiak sartu zienian. Pamplonatan reketik hortik barrena sartu baizian. 'Ta orduan.
- Biño behiya hil zuten geo baserriyan hemendikan...
- Handikan dispaatu.
- Bost minutu birian dugu baserriya 'ta han hil zuten behiya. Tiroz, osea, bala batekin. Geo Aldakon 'e hil zuten garai haitan. Iriya berriz hor.
- Han iriya bai.
- Iriketan ordun Pamplona ta...
- Gabian kampun dabilela.
- Kampun 'ta ibiltzen baizin, ordun ez baizen kamionik.
- Karo! Gabian ate zuten hua zeara, goiko zelaira 'ta han belarra jaten klak eta klak eta bestiak: "¡alto quién vive, alto quién vive!" 'Ta iriya han 'ta.
- Karo gosiak amorratzen 'ta mendiyen! Lesakatik etorriya iriya. Zea, be uztarriya 'ta karrua 'ta ahal zen bezela!. Trastik ordun ez baizin kamionin ibiltzen. Iriyakin 'ta mandoz 'ta, astua 'ro zaldiz 'o. Ordun ez zen kotxeik. Hoken itxian zen kamion bat, besteik ez zen. Hemen Oiartzunen, zembat kamion izango zin?
- Gutxi.
- Gutxi, je, hamar ez behintzat.
- Bi 'o. bi 'o hiru, ez?
- 'Ta iriya 'ta.

1.46. Erreketeen ibilerak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-060/008
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Erreketee abereak bertan akabatu eta eramaten zituzten. Beste batzuetan, eramanarazi, tasatu eta txartel bat ematen omen zuten; baina oraindik ez da ezagutzen inor kobratu duenik. Gurdiak edo kamioiak zituztenak derrigortu egiten zituzten zaurituak Lesakara eramatera. Erreketee Pikoketako zeharretik sartu ziren. Irun hartu behar zuten eta Beorlegik Galdos aita hartu zuen gidari. Gogoan dute Pikoketako fusilamendua.

Transkripzioa

- Hamahiru, ez?
- Bai, gehixio 're bai.
- Reketiak hor eondu zin, zea Gaztelun. 'Ta joten zin itxez itxe harriya hartu 'ta oillua harrapatzen bazuten, da....! Harriyakin jo 'ta zakoa denak, oilluak harrapatu (...) itten zuten.
- Harriyakin...
- Handik aurrea oilluak genittunak gambaran gorde itten genittun guk. Bestela eunero jon 'ta jota oilluak eamaten zittuzten denak.
- Tiroz botzen zittuzten, tiroz, tapa, tapa. Biño geo (palankan) sartu zin. La ostia! Baita zea re haik... Guenin bota ez zituztenin konten! Haik ez zuten... Hala zozten, haik ittia ez da harritzekua. Beák gaizki, gosiak, haik ittia ez zen harritzekua.
- Bai orduan...
- Ordun ez zen zeik.
- Gaiña ixilik eon bihar.
- Aber ba, joe!
- Jo, erra marka! Zea maten 'men zuten, ez? Balik 'o... Animaliya maten zutenin baserritikan, balik maten 'men zittuzten, ez?
- Bai, bai.
- De adorno, ez? 'O...
- Biño kobratzekoik ez.
- Kobratu al zun? Iñor 'e ez daki kobratu zun iñork 'e.
- Nei oaindik sekula iñorrek ez nau san behintzat kobratuik!
- Ez, ez.
- Tasatu 'ta hoimbeste, zuetzako, biño...
- Ni ya hoi ez na akordatzen. Ni total, nittun bi urte gerra hasi zenin 'ta hamalauin jaiyua 'ta hamaseiyin hasi zen gerra. 'Ta hoik ya gehiyo...
- Ni akortzen naz itxetikan erittuak eta pentsuk ta eamatea itxetikan behiyak eta gurdiya hartu 'ta atta joten zen. 'Ta zortzi ordun ez zen itxea tortzen. Hor ibiltzen zen hairi launtzen. Reketiai 'ro zea hoiari, launtzen. Hemendik baserri guziyak, e! Tellei, Antsiskoi... Denak.
- Denak, txandan txandan. 'Ta zea, Lesaka!
- Lesakara 'ta!
- Lesaka jon ber! Oaiñ bino aziendak hokiyo prepatuk eoten zin bai ordun,

beti kostumbratuk lanin.

- Ez oain bezelako kamiyukin gaiña, bire txarrak, estraka tartetik 'ta kirrinkiti karranka 'ta. Bai, bai.

- 'Ta sartu ordun, nondikan, nondikan torri zin? Ze nik nakan buruan Autxilitikan.

- Hoik nondikan torri zian?

- Bai.

- Pues...

- Pikoketatik, ez?

- Pikoketatik, ziarra hortatik gañea.

- Reketia bai (...) Hortikan hortikan.

- Hortik hasi zin tiroka. Tak handik eta tak hemendik.

- 'Ta hortikan ya Aldako... Altzibarra 'ta Aldakoa etorri zian.

- A...!

- Lembizikuk. 'Ta hortikan ya hasi zin ya zeatzen.

- Pikoketatik torri 'ta Ameztitan barrena. Goitik bera.

- Pikoketa miño hauntzotikan. Menditikan.

- Hauntzotikan, bai.

- Bai, bai.

- 'Ta hor Pikoketan bazin gorriyak 'o, ez?

- Han hill zittuzten, zea, geo... Karo, Irun hartu, hartu ber zuten nazionalak 'ta Pikoketatikan barrena hasi zian 'ta hara jon zian, gañea gue atta izaten yun giddai aurrian.

- Ya, ya, ya.

- Beorlegi zeatuk. Eta han sartu ttuk 'ta batzuk eskapo in ziten. biño 'ta hamazazpi harrapatu zittuztenak bi... Bi milizianak, eta beste hamabost mutil denak bertan afusilatu zittuzten.

- Bertan zolua in ta sartu.

- Hamazazpi urte, bai!

- Oain dela urte gutxi ate zittuzten...

- Oan berriro ate ttuzte zeak...

- Hor Pikoketan 'ta afusilatu in zittuzten.

- Hamazazpi 'ro...

- Hezurak atetzen oain dela urte gutxi aittu ttuken hor.

- Pikoketakuk urte batzuk battuk, biño... Oaiñ aittu dia, oaiñ berriro aittu dia, zeaku hontan, Lekungainko hontan 'o... Artikuzko biri hortan aittu dia lengo astian 'o... Aurrekun 'o....

- Bai. Bat in dute 'ta oain kampo santun onduan ai 'men dia.

1.47. Trabadoreak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/010
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraren ondoren, irin bila joan ziren Nafarroara. Antsillesen 'trabadoreak' eta Borrokazelaletan eskoltak edo kintoak. 'Trabadore' batek ihes egin zuen, eta garesti ordaindu zuen.

Transkripzioa

- Gerra, 'ta gerra ondorena, ez? Gosia geo erra, ez?
- Bai. Gosia! (...) bai. Ez oliyoik, ez ogiyik...
- Jango baldin bazen iriña billa, zeaiño jon ber, Lesakaiño jen ber.
- Bai.
- Bai, errotak eta itxi iñ zittuzten hemen eta... Haik Lesaka 'ta horrea jon 'ta kontrabandun.
- San Antona. Gabez beti, San Antona jon 'ta handikan hartu 'ta geo San Antonen ez bazen harrapatzen, Lesaka!
- Erra martxa!
- Bai, bai.
- Naparrun ez baizittuzten zeatu... itxi.
- Ez. Hanguk ez. Hemenguk bai.
- Hemen bai. Gipuzkoan 'ta bai.
- 'Ta gaiñekun ze baserritan iondu zin? 'O zuk san 'zu len, ez? E... Soldauk baserritan sartzen zin, 'ta han eoten zin. Hemen Pelun 'ta eondu zin, ez? 'O...
- Bueno, hemen barrakoiyak iñ zittuzten.
- Bai, Arkale aldin 'ta. Babilonian 'ta
- Lenoztikan gue itxian 'e bai. Zea hortan (Borrokazelaitan,) hemen goiyan do. Antsiles 'o, (borroka zelaitan) hor goiyan.
- Baita 're.
- Borroka zelaitan hor goiyan. Eta bizitza batin eoten zian Trabajadorik eta gue itxian berriz, eskoltak, 'o kintuak eoten zian. 'Ta Antsileskunen Trabajadorik. Hiru itxetan. Zortzi hillaetin eondu zin, e! Zortzi hillaete!
- Biño gerra 'ta geo?
- Gambaran lo itten zuten eta gue itxian eondu zin lau sargento, bian salan ohiyak jarri denak 'ta han itten zuten lau sargentok lo. 'Ta beste itxian Trabajadorikin alferezak itten zun lo. 'Ta Antsileskun berriz, zea, han Trabajadorik, han ez zen zeik, ofizialik ez zen eoten han. Trabajadorik bakarrak. 'Ta batek alde in zun Frintzira, eskapo in zun Trabajadore batek.
- Soldado batek ihesi.
- Soldado batek eskapo in zun 'ta geo nombatte pasoik ez 'o, ikaatu 'ro komei, berriz 'e honea torri.
- Korrika torri zen barkaziyua eskatuz 'ta hola 'ta.
- Hola, hurrungo urtian, 'o, hurrungo egunian Billarreko horta man, hor Aldakoko bazter hortan 'ta hor afusilatu in zuten. Tapa, hill in zuten!
- Hiltzen baizuten ordun! Zakurra biño aixuo!
- Gau batin hara jon eta geo goizeko berriz etorri zeneko enteatu 'ta hill in zuten hua zean.
- Iñorrek ez ziyoten ezer saten 'ta!
- E?
- Haik jaun 'ta jabe, iñorrek ez ziyoten ezer saten 'ta!
- Esan! 'Ta zeñek san ber zion hairi?

1.48. Irungo frontea

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/012
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:21:44. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Tiburtziok gogoan du Irungo frontea zeinen gogorra izan zen. Beorlegiren agindupean, soldadu pila joan zen, eta hemengo asko erori zen han. Tiburtzioren anaia frontean hil zen; behartuta eraman zuten. Auzoko asko eraman zituzten. Hika.

Transkripzioa

- Ze ai ziñazten zuek saten? Batea ai ziñazten 'ta! Ez dut aittu.
- Bai, ordun komeiyak ikusi baigenittun, komeiyak! Gue itxian 'e soldauk eondu zin ez dakit zembat hillaetin eondu zin. Denak guardiya 'ta handik Irun aldea, San Martzial aldetik eta, harek itten baizuten eta handikan derrotxe emate zuten batin eta bestin eta bestik eta bestin. Hillaetik in 'ttugu guk Irun ayeka azaldu gabe.
- Bai, bai. Ordun ez zioken azaltzeikan.
- Azaltzeikan 'e! Joe, (...)
- Geo handikan San Martzial (Sueltsu) alde 'ta hoitikan ta (...) gaiñin harrapatu zuten 'ta sekulako tiroteua itten zuten han 'ta. Bota 're bai, hemendik jendia jon 'ta, soldau franko bota zuten hemengua, hemenguk frentin jon 'ta gue itxe onduan barrena gizajuk, ardiyak mendiyen bezela. (...) Beorlegi kabroi harek biali zittun 'ta. Handik goitik betti zerrauran 'ta, geo zerrauran bazittuzten iñak defentsak alambrikin 'ta kristona 'ta bat (...) gizajua, alajainkua, alambria saltatzen ai zela hil 'ta bertan geldittua, alambrin zintzilik hantxe geldittu zen, gizajua, soldao bat. Bo...! Ordun!
- Hoik denak ikusi iñ zenittun? Zuk ordun hamaika urte 'ro izango zenittun!
- Nik ordun hamaika hamabi urte.
- Hamabi urte.
- Bai, hik hamabi urte ttun ordun. Hik hamabi urte, nik sei 'ta hik hamabi.
- Difuntua guria, gerrea jon zena hua 're. Haren zea, erretratukin 'e ni (sakristiya) ordun...
- Ya, ya ya.
- 'Ta harei erretratua hartua zea, illia mozteko makinak eta eamatea jon nitzan 'ta han harrapatu nun. Gerran hil zen hua 're, gizajua!
- Zer zen zuena?
- Zarrena.
- Anaiya? A!
- Joxemanul yun hua, ez?
- Joxemanul.
- Joxemanul, bai.
- 'Ta hua bertuta eamango zuten?
- Bai.
- Bai, bai, bai.
- 'Ta zuenatik ez al zen iñor zea...
- Hemendikan ez. Hemendikan zarrena ni nitzan.
- A! Zu ziñan zarrena?
- 'Ta zea, Pelun 'ta bazin (...) hemendik 'e bai. Pelukua 'ta zea, Telleikua 're bai.
- Telleiko Tomas bai.
- Telleiko Tomas 'ta zeakua, Joakin Txipiberrikua 're bai 'ta.
- Baita 're.
- Hoik barriyokuk. Erbittikua 're bai.
- Erbittikua... Bi anai...

1.49. Bonbak hil

- **Hizlaria(k):** Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-060/014
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Lazkanburuko semea, gauean bazkaketa egiten ari zela, aireplanoak botatako bonba batekin hil zen. Palankaritarra zen.

Transkripzioa

- Lazkamukua hor abioitikan 'o botata zein hil zen noski?
- A bai! Eduterio!
- Edulterio!
- Edulterio!
- Bai, han nik aittu ttut
(denak batera hitz egiten)
- (...) Behiyakin 'ta Austinen itxian ziozteken haik 'ta geo nazionalak ziozteken zean, Arkalen. 'Ta gabian ate duk zeakin, behiyakin bazkaketa 'ta zea aeroplano txar batzuk tortzen ttun tri...! Ttiki batzuk 'ta bombak holakuk botill hau bezain ttiki batzuk. Haitako batek bazterretik sartu 'ta harekin.
- Hill?
- Hil zen.
- Bai, bai.
- Bai, baiño hemen zean hil zen hua, e! Austi, Austiñen itxian.
- Hor herittu 'ta gue kamionan, gue attak eaman zun kamionetan kalea. 'Ta han bertan, Oiartzunen hil zen.
- Oiartzunen hil?
- Bai.
- Biño herittu ez zuten Lazkanburun in, hemen in zuten.
- Hor, hor, bai hor.
- Zubitene 'o Austiñenea, hemengo baserriy hontan.
- Geo atta torri zen: "hil da gizajua, hil da gizajua!" itten tzula... Palankaya.

1.50. Gurutzeko baserriak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-060/022
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gurutzen baserri handiak daude: Aldako, Sein... Arteaga Oiartzungo handienetakoa da: lursail asko eta onak ditu. Gerran etxe askori eman zioten su: Erbiti, Artia, Bordatxipi, Larraburu... eta gero

Irunen kale oso bati ere su eman eta Frantziara ihes egin zuten "gorriek". Bi bandoetakoei "Nazionalak" eta "gorriak" esaten zitzaaien.

Transkripzioa

- Pues hoi...
- Gurutzen?
- Aldako 'ta Sein.
- Sein 'ta Aldako 'ta hoik.
- Sein 'e Gurutze zeatzen dute, konsideratzen da. Gurutze bezela tortzen dia kartak eta hola, Seiñekuk 'e. 'Ta haundinak Sein 'ta... Aldako eta Artia. Artia bestia haundiya. Hiru haundinak hemen Oiartzunguk hoik izango dia.
- Terrenoz haundinak hoik bai.
- ¿Y Txipi no es más grande?(...) Txipi.
- Quién?
- Txipi.
- Txipi?
- Txipi. ¿No tiene una planta muy grande?
- Bai, biño baserriya zea bezela.
- ¿Era caserio no?
- Bai.
- ¡Caserío o, casa!
- Txipi 're...
- Terrenoz, Artia terrenoz haundina.
- Artia, Artia... Terrenoz haundiya izan ber du Artiak!
- Artia 'ta...
- Gaiña onak!
- Aldako 'ta Sein nik uste.
- Bai.
- Bai. Hoik izango zin.
- Txipin geo bazin zean, oain billak eta din hoi 'ta Txipi 're dexentia izango yun, ez?
- Bai. Txipik 'e izango zittun, biño... Ez, Artiakin ez kompaatu!
- Ez. Artiakin kompaatzeik ez!
- Artiak iatze tokiya 'ta larria asko 'ik e! 'Ta belasuk onak! Artia baserri haundiya 'uk.
- Baserri erra. Artia baserri haundiyenetakua da. Oiartzunen aurren aurrenetako baserriyak hoik dia.
- Hoi Lazkamokua da hango andria, ama, han bizitzen da.
- Bai, bai.
- Han bizitzen da. Gizona gazteik hil ziyon harrei 're, Manuel.
- Itxia guk iña da. Ni hantxe hasi nitzan ieltsero.
- Bai, e?
- Artian bai.
- Erre in baizuten. A! Hora ez!
- Iñ 'o berrittu? Berrittu ingo zuten?
- Berrittu. Hua...
- Berrittu, berrittu, dena bukatu. Hoa dena erre 'ta geo berriz 'e arreglatua zen pixkat.
- Biño nola erre zen? Gerra dembun, 'o...
- Gerra dembun!
- Gerra dembun bai.
- Erre in zittuzten. Hasi hortikan zea man ziyoten, Palankaiyan itxiai man ziyoten su, biño haik pixakin 'ta urakin 'ta in zuten itzali 'ta geo ordun torri zin honea. 'Ta ordun... gau batin man ziyoten denai hoiri. Zeatik hasi...
- Erbitti.

- Erbitti, geo zea, Artia...
 - Artia...
 - Geo Borda Ttiki...
 - 'Ta bestia zea...
 - Borda Ttiki.
 - 'Ta hoi denak...
 - 'Ta Erbitti azpiko aldekoa 're bai. Zein zen hua?
 - Larraburu.
 - Larraburu.
 - Larraburu, bai.
 - Larraburu.
 - Hoi denak, denak su man 'ta geo Irunen segidan kale bat dena su man 'ta Frantzira pasa zin, nazionalak sartu biño lenotikan. Haik denak utzita jon zien, biño dena su man 'ta erreta.
 - Hoi ze in zuten, republikanuk? 'O zeñek eman ziyoten su?
 - Gorriyak!
 - Gorriyak.
 - Gorriyak saten ziyotenak.
 - Bai, 'ta Irunen itxe pilla galanta.
 - Gorriyak 'o, ez dakit zein behintzat.
 - Bai, gorriyak.
 - Bai, gorriyak saten zin.
 - Nazionalak eta gorriyak.
 - 'Ta Palankaiyak in zun itzali 'ta haik eman 'ta jon in baizin.

1.51. Milaka soldadu

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/023
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:37:40. **Bukatu**: 00:40:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gurutzen soldadu asko zegoen; milatik gora. Arkalen eta Babilonian barrakoiak zeuden. Gurutzeko errepidean aritzen ziren instrukzioak egiten. Hika.

Transkripzioa

- 'Ta ordun etorri zian (...) Austiñen etxea.
 - 'Ta hemen Arkalen iondu zin soldauk zer zin gerra aurretik 'o gerra 'ta geo?
 - Geo, geo.
 - Geo, geo.
 - Gerra ondorin bai.
 - Geo.
 - Asko zin, ez? Istrukziyuk 'ta itten aitzen zin, ez?
 - Kantidadia!
 - Joe, hemen...
 - Hor 'ta geo Babilonian, hor Pikoketa aldeku hortan. Hor bi tokitan barrakoiyak. Beko txokuan, geo ermita 'at 'e bazen, meza mateko 'ta in zuten.

- Baita 're.

- 'Ta beste pixkat aurrexio jon 'ta goiko zea hontan. Han bos barrakoi, zian, zea, Trabajadorik eoteko.

- Zean, Babiloniyen.

- Babilonia.

- Babilonia beko zokuan do baserriya.

- Babiloniyen battun. Zuen itxe ondun battun, Antsillesku hortan 'e bai, Arkale berriku honta 'e bai.

- Bai, bai.

- Arkale berriku hontan 'e bai. 'Ta geo Arkalen beste bi tokitan, Arkale goiyan 'ta Arkale bian.

- Gue itxeko ondu hoi... Gue itxi ondoku hoik 'ta hoi denak desein 'ta denak hortikan Arkalea jon ttuken denak. 'Ta hoi hustu 'ta Arkalea jon ttuken. 'Ta horko denak. 'Ta geo Babilonian eta beko txoku hartan, Babilonia eta Arkalen. Bi tokitan bakarria jarri ttuken soldaduak. Hor 'ta han.

- Geo goiyan Pikoketan 'e battun.

- Bai, lenotik 'e bai.

- Lenoztikan Pikoketan. Garai beretxun.

- Lanin, lanin aittu zin garaiy hoitan zerbatte barrakoiyak han, gaiñekun eunez jornala itten. Pikoketan

- (...)

- Kamiyuk 'ta itten aittu zinian, ordun barrakoiyak bai han jarriyak. Eun bat pasatzeko 'ta komei, biño lotako 'ta han ez.

- Minetan 'e bai. Hemengo... Hemen zeaku hontan?

- Mokozorrotzen 'e bai.

- Mokorrozko mina hortan hor eondu ttun dembo pilla batin.

- Bai, hor eondu ttun. Biño gehina eondu zena hau.

-Gehina honea juntatzen zin. Istrukziyuk itteko hemen ibiltzen zin, karretera hontatik. Irisotikan hasi 'ta Txipiberriño. Dena soldadoz betia.

- Istrukziyuk ikasten, bai!

- Bi zean, biño totalmente, e ordun!

- Uan biño automobil gutxiyo ibiltzen zen ordun. Karreteran.

- Ni akortzen naz, ni... Istrukziyuk nola ibiltzen zin ondo. Orduko ya, zea, urte batzuk, zea, bazen gerra bukatua 'ta. Biño hau dena betia, e! Dena!

- Karo, eske pilla bat izango zin, ez? Soldauk, asko izango zin soldauk, ez?

- Bueno! Millaka.

- Biño barren hau 're bai geo, e!

1.52. Gerrara eramanarazia

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/014
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:31:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerrara eramanarazi zuten. Toki batetik bestera ibiltzen zituzten; gerra nora, soldaduak ere hara. Zortea izan zuela dio: teniente baten laguntzaile jarri zuten, eta, hartara, ez zuen frontera joan behar izan. Fronterako soldaduak behar zituzten; "Haiek ere beren atzea erraparatzeko behar ziguten". Tenienteak euskaraz bazekien, baina ez zuten uzten euskaraz hitz egiten, zigortu egiten zituzten. Francoren aldekoekin joan beharra: "ze erremiyo!" Askok egiten zuen eskapo

Frantziara, desertore. "Gerra zikiñ hua! Ez zen nahi ordu ahittu!"
Jarri niñuten.

Transkripzioa

- Ai...!

- 'Ta gerra 'ta gotuko za aski erki, Juakin!

- Bai, gerra 're, hara, han 'e ibilli giñan. Gerra zikiñ hoa!

- Noa eaman zizuten zui, Juakin?

- Ui! Eaman... Gaur hemen 'ta, handik zortzi eunea beste zoko batea igual. Nola, nola... Gerra nola zijun, soldauk 'e hara.

- Biño ze ibilli ziñan, hemen, Irun, barrena 'ta 'o...

- Ez, ez, hemen kampun, kampo. Geo nik suertia izandu nun, nik teniente baten asistente jarri niñun. Suertia izandu nun. Librexio.

- Ez haimbeste jon ber, kombateta 'ta ez zenun hambeste jon ber?

- Ez, ez. Ez.

- Biño hala 're...

- Guardiaya, guardiya itteko 'ta plan hoitako bai, biño frentea 'ta hola elkarrei tiroka ez nitzan behiñ 'e tokatu.

- Eskerrak!

- Ez. Atziaz errepetzeko 're ber, ber izaten baite.

- 'Ta gotzen za tenientin izena?

- E?

- Tenientin izena gotzen za?

- Bai, bai.

- Zein zen?

- Kauen... Eskuaraz 'e itten zun, biño, ñeo...! Gu euskaraz ikustia! Hobe erdaraz ikusita! Poza hartzen zun, biño ospas! Harrek bai, harrapatzen zun. Jostatzea 'ro kampo atea 'ta harrapatzen bazuten euskaraz ai zela, kastigua. Kastigua!

- 'Ta Francon aldekin jon ber izango zenun?

- E?

- Francon aldekin jon ber izango zenula?

- Ze erremeiyo! Ze erremeiyo!

- loziñek saten zun ezetz!
- Mekauen... Franco. Franco, frankista.
- 'Ta dembo asko iñ al zenun gerran?
- Gerran?
- Urtiak eta?
- Bai. Urte t'erdí 'o.
- Asko.
- Urte t'erdí 'o. Bai, ez zen nahi ordu attu! La ospa!
- Gerra bukatzen...
- Hemendik, hemendik Frantzira 're ihesiyan asko jotén zin, e! Gerra... gerra ez jotetik.

1.53. Desertoreak

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/016
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:31:13. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerrara ez joateagatik, Frantziara egiten zuten ihes askok, desertore. Senide gehiago ere joan ziren gerrara. Etxe bakoitzetik bi izaten ziren gehienez; hirugarrena libre izaten zen. Gerra bukatu ondoren, soldadutza, eta, ondoren, zaharrenez aurrera, etxera. "Hamakiña saltsa bai urtia haitan!"

Transkripzioa

- 'Ta zui burutik 'e pasako zizun alde ittia igual?
- Beno, bai. Biño, hemen alde inta 're beste tokira... Frantsesa ordun asko jotén zin hemendik, e! Desestore. Desertatu itten zin. Batak bestia eamanazi. "Ba, ni ongi no, ongi no... Torriy hai!" 'Ta hala, bat gehiyo 'ta segi! Harrek beste 'at eaman 'ta.
- 'Ta senidetatik beste anaiyak 'e jon ber izan zuten frentea?
- Hala tokatzen bazen. Bai, bi, bi, bitatik gehiyo ezin zuten 'zaten. Hirugarrenak libre izaten zun.
- A! Etxe beretik?

- Bai.

- A!

- Hirugarrena libre.

- 'Ta zue anain bat jon zen ordun?

- Zu, zukin batea anai bat jon al zen?

- Bai, biño bat bestia joteako libre igual kintua 'ta. Ai! Amakiña saltsa bai hor! Ordun, urti haitan.

- Salsa erra bai. Salsa 'ta izua erra, e!

- Bai. Erra bai. Soldao joteko e...! Beldurrak airin! Asko desertore joten zin. Desertore. 'Ta hara jon ezkeo ezer itteik ez. Libre.

- 'Ta zuk ze in zenun, gerra bukatzikin batea ya zuk 'e bukatu zenun? 'O lenoztik torri ziñan?

- Ez, ez. Ni gerra bukatu biño soldauskan gerran bukatu, 'ta karo, bukatu zen dembun, soldauska 'ta, zarrenaz aurrea 'ta itxea. Zarrenaz aurrea. Sartu berriyak zinak, geo zartuko zin haik 'e han zoztela.

- Biziyik atetzen bazin!

- Bai, bai, hoixe!

- Biziyik atetzen bazin!

- Hoixe.

- 'Ta denak biziyik ez zin jongo.

- 'Ta geo itxea torri 'ta...

- Berriz 'e lanea. Berriz 'e papelera.

- Gerran ez al zen itxi papelera?

- E?

- Seittu zun lanin? Gerra bittarte seittu zun?

- Bai, bai. Lana in zun papelerak. Lana itten zen.

1.54. Gorrietatik ihesi eta altxatuen beldur

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/012
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:16:39. **Bukatu**: 00:18:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran, Loiola hartu zutenean, bere anaia han zen soldadutza egiten. Francoren aldeko soldaduek Olanditxonen (Olantxene) jarri zituzten kanoiak eta Loiola aldera botatzen hasi ziren. Anaiak ihes egitea lortu zuen Loiolatik, eta, gero, beldurra zuen berriro ere Francoren aldekoengana aurkezteko. Baina, azkenean, ez zuten zigortu. Zinpi ta zanpa. Pestak ikusiyak.

Transkripzioa

- Gerra gotzen za zu, Domingo? Zuk ordun izango zenittun...

- Bai, hamaika urte nik. Gerra akortzen naz, zea... E... Gorriyak 'o saten zen leno, ezkerak 'o gorriyak 'o 'ta, haik San Markon zin sartuak. Gue anaiya difuntua han zen, zean... E... Loiyolan serbitzen. 'Ta haik sartu zinin, haik hartuko zuten, gorriyak 'ta geo Maxalendikan, Olantxengo zoku hortikan jarri zeak, kañoiyak 'ta hara hasi ber zutela tiroka 'ta alde itteko denak hortik. 'Ta hortik denak alde in genun, mando 'ta behi 'ta zokor 'ta hartu 'ta zeara, Aixtiurura. Denak. 'Ta kañoiyakin hasi zin, zimpiti zampa botzen zeara Donostiko kuartela 'ta. 'Ta geo guria 're, gue anaiya 're haikin batin atzea. Oaiñ, noaiño jon zin atzeka ez dakit. Biño, guria beti pentsatze ai 'men zen, guardiyan 'ta 're hasi 'men zen hua 're itten 'ta, "ño, nik oain alde in ber dit ba nolazpatte! Alde in ber dit ba! Berriz 'e hota, hota pasatzeko!" 'Ta eun batin eskopeta 'ta, zapatak 'o galtzak 'ta eantzi 'ta hankutsik torri 'men zen kamiyun. Bai torri 'men zen auro! Denak utzita alde in 'men zun! 'Ta geo hemen 'e hota... Hota arrimatzia ez atrebitzen 'ta Donostiyan izaki ezauna, ikatza hartzeko izauna 'ta han sartu. 'Ta geo haik abisatu, zeai, atta 'ta amai nola zen zea, mutilla hain itxian Donostiyan 'ta. Geo, geo presentatzeko berriz 'e hota, 'ta hota presentatu. 'Ta kastigoik ez zun izandu, beno, ez zen haren kulpa 're 'ta! Ba! Holaxe pestak kusiyak!

1.55. Gerran eroritakoak, gurdiz Lesakara

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Erlaitz inguruan fronte gogorra egon zen. Militarrak itzainen bila hasi ziren, zaurituak eta gorpuak Lesakara garraiatzeko. Domingo aitari bi semeak mandoekin bidaltzeko agindu zioten. Aitak erantzun zuen mandoak baietz baina semeak ez zituela bidali nahi. Eriyuk. Erittuk. Uztarriya, kurtela, kabilla, pertika.

Transkripzioa

- Hota zein, zea, San Markosen zozten gorriyak 'o ezkerak?

- San Markon eongo zin kontraiyuk. 'Ta hok hemendikan... Hemen, hemen mendi guziyak hartu zittuzten lembizi. Hemendik Erlaitzen 'e zea, frente gorra 'men zela. 'Ta geo hasi zin zeak, militarrak behiyakin 'ta zea, jendia eskaka hasi zen ayuda, herittuk eamateko. 'Ta zea, itzaiyak batzuk...

Itzaiyak joten zin 'ta igual soldauk toritzetikan 'o ez dakit... Zerbatte iruitten difentia, zean uztarriyan... Zean, uztarriya kurterin eamaten zen ba kabilla, zeai pirtikan sartzeko . 'ta kabill hua aber zer zen 'ta pistola zelakun 'ta... Ez dakit, akaso broman 'o, broman 'ta ezin san zer 'zu ezin san hoa. 'Ta tartin eskualdunak 'e tokatzen dia 'ta haikin. Haik hemendik Oiartzundik Lesaka herittuk eamaten. Lengo bire zarretik ezin jonik. Bi soldao ezin eamanik gurdiyan. 'Ta geo gue attai eskatu manduak. Aleiya, bi semik bialtzeko mandukin, zea burniziyuk eamateko 'ta, Pikoketa 'ta, Erlaitzea 'ta. 'Ta geo san 'men ziyoten, beno, oaiñ aurea jon ber zutela 'ta aber mando hutsak biali 'o ben mutillakin. 'Ta ez, gue attak ez, manduak utzi 'ta mutillak erretiatzeko. Geo hala, gerra gerra ai zela, geo gue anaiyak soldao zoztela, Eibarren kusi manduak. "'Ta hara, hara hi, gue manduak hemen ttuk! Hemen zabiltzak gue manduak, hemen zabiltzak!" Bai izautu 're auro!

- Ez, zea!

- Joe!

- 'Ta geo nozpatte bukatu zen gerra 'ro, 'ta holaxen.

- Hala 're utzi ziyotenin...

1.56. Aitaren ahaleginak semeak babesteko

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Hemengo giyantia Goñi zen. Domingoren aitak ez zituen semeak mandoekin batera bidali militarrengana; baina ez zekien erdaraz, eta ezin zuen bere nahia eskatu. Goñik lagundu zion. Maxalengo hiru anaiak segidakoak ziren eta denei tokatu zitzairen soldadutza gerra garaian egitea. Giyantia.

Transkripzioa

- Utzi ziyotenin manduak bakarrik eta semik ez...

- Bai, 'ta hemen, geo giyantia zea zen ordun, Goñi. Goñi... Goñi 're hon ayekakua izango zen, hua zea, zapel haundiya, gorriyak 'ta hemen borlakin 'ta biltzen zen hemen. 'Ta hua zen hemengo zea giyantia. 'Ta gue attak 'e ikatza 'ta maten Goñi horrei 'ta hoi 're izaun haundiya 'ta. Horrek 'e pixkat salbatu in zun gue atta. Horrek 'e hitz iñ itten.

- Karo.

- 'Ta gue attak 'e deus 'e enteintzen ez 'ta, zerbatte nahi, animua. 'Ta, mutillak kortzen, mutillak eta. Kastillanoz: " ¿ a dónde va usted, a dónde va? 'Ta ezin san, ezin san hijos 'e... Guk 'e ez dakigu biño, guk hombeste, hombeste sateko bakigu.

- Ordun ez.

- 'Ta geo Goñi hoi 're atzea 'ta aurea billi zen. Horrek harrapatu 'ta: "ze pasatzen da Higinio?" "zerbatte saten naute 'ta ez dut enteintzen" 'Ta geo harek san: "honek esaten du manduak utzi 'o semik eta denak biali!" "Ez, ez, semik itxea bialtzeko" 'Ta ordun semik etxeatu. 'Ta geo, treintaiseiseko zea zen, kinta tokatu anaiyai. Anaiy zarrenai 'ta geo soldao jon ber.

- 'Ta zein zen Loiyolan 'ta ibilli zena, 'ta hankutsik torri zena?

- Inaxio difuntua. Hoa ez 'zute izautuko.

- Nik izautu nun.

- Izautu al zenun?

- Eta harrei ze in ziyon? Batei tokatu ziyon sodauxka ittia.

- Bai, hua soldao zon ordun sartua. Treintaizinkon.

- 'Ta hua zen Loiyolan zona? 'O... Zein zen Loiyolatan zea in zena?

- Hua, hua, difuntua.

- Bai. Hua zer zen gerra hasi biño lenoztik sodao zona?

- Hala ingo zen! Lenoztik sartua izango zen! 'Ta geo beste anaiya tokatu 'ta geo hirugarrena tokatu zenin, aleiya, bitikan bat libre zela, ate zuten. 'Ta hala iondu zin puxka 'tin. 'Ta geo, geo... Zeatu, biali zutenin, bat bialtzin bestia jon.

- 'Ta nik len enteinttu ez dutena da...

1.57. Beren hegazkinak, eraso

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/015
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Domingoren anaia Loiolako kuartelean zegoen soldadutza egiten, errepublikazaleek hartu zutenean. Soldadutzan frontean ibili zen anaia: beren hegazkin batek bonbardatu zituen, deskuidatuta, eta zauritu egin zen. Beste auzoko bat ere han zen. "Eskoiak eta ezkerak esaten zen lehen, guk ez genun enteintzen miño".

Transkripzioa

- Ordun, anai bat zon soldao zona, eta ze in zuten, gorriyak hartu? 'O bea gorriyakin zon?

- Gorriyak sartu Loiyolan!

- A...! Hoi da, hoi da, hoi da. Handik eskapo in ber!

- 'Ta handik eskapo in nahi 'ta beák hartu 'ta beákin batin eaman!

- Hoi da.

- 'Ta geo... Beákin batin hasi guardiyak itten 'ta guardiyak itten jarri zenin, nombatte eskapo in nahi, berriz 'e lengo lekura pasa nahi, berriz 'e hota pasa nahi. Eskoiyak san zuten... Eskoiyak eta ezkerak saten zen ordun, 'o ez dakit, guk ez genun enteintzen zer zen, biño...

- Bai, bai, bai.

- 'Ta geo behintzat soldauska: "no! Nik noizpatte jon ber dit ba, alde in ber dit ba, alde in ber dit ba" 'Ta beti pentsatzen. Botak eta eskopetak utzi bertan 'ta hankutsik, kamiyun hankutsik soiñua atetzeko beldurak. 'Ta geo honea pasa.

- 'Ta karo, geo 're beldurra.

- Hemen beldurra geo sartzeko

- Karo

- 'Ta leno gue atta 'ta ikatzakin Donostira jon itten 'ta han izauna izaki karbonerua. 'Ta karboneruk itxian sartu hura 'ta han san nola eskapo torri zen 'ta haik hartu. 'Ta haik hartu zutenin, geo haik amai abixatu, seme bat bazutela han, zean Donostiyan. Hain itxian badola seme bat 'ta geo... Geo berriz 'e lengo lekura jon berko zula, 'ta geo lengo lekura entreatu be burua, biño... E... Beldurra, biño ez ziyoten kastigoik eman.

- Enteinttu zuten.

- Ez, ez ziyoten man.

- 'Ta geo hua non geldittu zen? Non aittu zen hua geo?

- Hua geo zea, Loiyolan, geo hok... Hoik hartu baizuten. Kaiñoiyakin 'ta hasi baizin. Biali baizittuzten hortikan 'ta geo Loiyolan sartu.

- 'Ta frentin 'ta ibilliya bai al da? Beste anaiya 'o...

- Frentin ibilliya da hokin. Hokin frentin. 'Ta batian betikan sartu 'men zin aurea 'ta abioiya torri 'men zen bestik bombardeatzeko 'ta hok bombardeatu!

- Jesus!

- 'Ta ez 'men zutela uste hain aurea jonak zila betik. 'Ta guria herittu iñ zen. 'Ta batzuk hill 'e bai, asko. 'Ta geo Bitorreneko zea 're bai! Bitorreneko... Bitorreneko, Bitorreneko Ezkerra saten geniyon... Manuel zun noski izena. Hua 're bai. 'Ta geo erretratua haundiya bai, ehunda gehiyo karri zittun harek zea, quadro haundi bat karri zun. Pena dakat hua ez altxatua. Urte mordoxka iyuki 'ttut, biño geo ez zela bertuko 'ta, biño gaur... Gaur telebisiyun hartzeko 'ta

- Bai, bai.
- Zarra hartatik berriya atera ingo luteke
- Berri berriya ateko zuten!
- Hoixe.
- Bai, oain bai.
- Bai. Gerran nola herittu zin denak... Jakin ezkie... Jakiñ ezkie zer baitako serbitu zula... Altxatuko nun, biño...
- Biño ordun ez geniyon kasoik itten.
- Ez 'ta pentsatu 're, biño oaiñ...
- Oain pena.
- Pena 'akat bai. Bai 'ta geo jakiñ ezkeo uan mandukin 'e ateko genittun erretratuk mendiyan 'ta nola ibiltzen giñan, biño... Uaiñ akortzen dia. Uaiñ pixka 't bertuta.
- Bai, uain kontutzen...

1.58. Gerra, Tornolan

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/025
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:41:55. **Bukatu**: 00:44:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Sei urte zituela etorri zen gerra. Auzoko batek eman zuen abisua tropak zetozela. Erlaitzetik botatako lehergaiak Tornolara iristen ziren. "Meta tartin ta komei". "Zizpa eerra bai". "Ttintta miño bai ona". Hark. Hika.

Transkripzioa

- Komeiyak. Hoi denak gue dembun pasa dia.
- Gotzen za zu ez?
- Sei urte nittula gerra torri zen. Nik sei urte nittun.
- 'Ta gotzen za zu!
- Ni bai.
- Ze gotzen za Frantxixka?

- Oi, Ayendolako Joxeantonio difuntua sango zattut. Oiañ mutilla ingo, iña zen. Eta gue itxian betti zea: "Hemen dila, hemen dila!" Holaxe san zun bezelaxe, goun. San niyon: "Libro bat erra beteko niked bai nik, ordutik hasitakua!" Gauza asko gouan iukitzen 'ttuzu geo. "Hemen dila tropak! San Antonen pasa dila" san zun. Holaxe san zun. 'Ta ahal zunak ahal zun tokira. Batzuk itxeta 'ta Ximoneko amona zenak 'e, "gaixua, gaixua" itten dula. Gue ama zenan (...) zen hua. Hoa gue itxea! 'Ta beste... ba, holaxe eozeiñ ixkiñata.

- Bai, itxe bateku besteta (...)

- Besteta holaxe. Denak beldurka 'ta gorde gizasemik berriz, meta tartin 'ta komei 'ta. Batin behintzat, ni gizasemin artin han niñun. Zea, meta tartin sartu 'ta hara granada sartu! Errotako atzin...

- Errota atzia... Zizpa erra bai! Zipi zapa errak betik gora! Metan tartin 'ta ez harrapatu! Granada hor sartu zenin, harkaitza 're hautsi zun hark. 'Ta...

- (...)

- Zeatikan, Erlaiztikan torri 'men zen hoa. Holoko gauzak pranko bai. Erlaiztik, geo... Zer da hoi? Garailde, zuek ez zenuten izautu, biño. Garailde difuntua, behiyak Errota eaman ber berriz. Gue itxea errota heriyun behiyakin torriya izango zen 'o! Haik berriz, han 'ta Garaialden (...) geo soruan. Arboldeiya eoten zen ordun, uan...

- E?

- Kambitu zen dembo batetik... Arboldeiya aleiya, izaten baizen Garaialdenin.

- A!

- Behiyak hara botik. Gu zea, gu bezela ibilliak izan liteke norbait (...)
Garaialdeneko zea hoa, terrenu hai. 'Ta behiyak han eukiyak zittun Garaialdek. Gui zea man, gazta 'ta ogi pixka 't, ttintta biño bai ona! Sekula ez naz ni azten hoi, e! Zea zin, anai-arrebak xaharrak, 'ta mango zigun ogi puska 't eta gazta, onak e! Gazta onetakua izaten zuten! Ttintta biño bai ona! Hoa san gabe ez zizuten maten.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Eliza eta gerra

- **Hizlaria(k)**: Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-011/016
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:34:40. **Bukatu**: 00:36:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

- **Laburpena:** Kongregazioak elizako talde batzuk ziren. Mutil eta neska taldeak. Hilero konfesatzera eta komulgatzera joan behar izaten zuten. Elizak esaten zuen gerrari indarra kendu behar zitzaiola. Herritarrek, ordea, bazekiten gerra ez zegoela euren esku.

Transkripzioa

- Kongregaziyuk berez zer zin?

- Oi! Kongreaziyokuk mutillak Luistarrak eta, neskak zea kongreaziyua... kompaziyo batea hamar 'o hamaika izango zittun kuadrilla batek eta beste hamar 'eo

beste haimbeste beste batek eta hola. 'Ta hillero, ta hillero jon ber 'zaten zen konfestu 'ta komulgatu 'ta ittea, 'ta hor kompon!

- Obligaziyuk besteik ez ordun!

- Obligaziyu... Oi! Oblitu aleiya! Gerra zela 'ta gerra kendu (bideo mozketa) in ber zitzaiyola 'ta ez dakit zer 'ta bakit zer 'ta, "ken kiyon ba jarri yonen bezela!". Batei san niyon... Batei san niyon: "zeiñek jarri du gerra?" "Ui! ez dakit, hau Madritik etorko da!" " A! ordun jon Madrida 'ta san gelditzeko,

hemen ez dugula guk gerra berrik!" san niyon. Ez dakit zaiñ zen. "Guk ez dugula gerra berrik". Lotsagabia izaki gu! Gaztiak eta!

- Ordun ez baziñazten lotsagabik, noiz izango ziñazten?

- E?

- Ordun, gaztiak ziñaztela lotsagabik ez baziñazten, noiz izango ziñazten, ba?

- Oi...! Ez, hala zen.

2.2. Gobada

- **Hizlaria(k):** Egimendia Aranburu, Korneli
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-011/018
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Udatiarrei arropa garbitzen aritzen ziren. Sutako hauts egokia izaten zuten kuelarako. Lehendabizi kuela egin eta gero, errekarra joaten ziren arropa jotzera.

Transkripzioa

- Zuek 'e arropa garbitzen ibiltzen ziñazten kampoko jendintzako!

- Kampoko jendintzako.

- Haik ze tortzen zin, udako? Udara pastea, 'o...

- udara, udara pasata tortzen zinak zin haik 'ta maten zuten arropa 'ta neguan 'e askotan bialtzen ziuten, hango arropak usai txarra izaten zula 'ta honea arropa garbitzea.

- Zuek usai onakin uzten zenutelako!

- Ez, han lejiakin garbittuko ziyoten 'ta, guk ez baigenun lejiak ibiltzen. Guk ibiltzen genun surtako hautsa ona, eurra ona izaten zen 'ta! Hautsa txui-txuiya. suilla 'o kuela batin jartzen genun, 'ta denak xabal-xabal-xabal han jarri, jarri jarri 'ta betetzen zenin,

ura botiz, ura botiz, ura botiz, betetzen zenin, geo surtako hautsa... Egurra 're ona izaten zen, zen pizarra guk herreruk genittun onduan 'ta, egurra ona maten ziuten 'ta, haik egurra 'o zerra... Handik zerra... zerrautsa karri 'ta zerrautsa jartzen geniyon gaiñin

eur puxka batzukin 'ta ur berua irakitten bota 'ta hala garbitzen genittun.

- A! Ura irakitten bota itten zeniyoten? 'Ta ez zun betikan sua eukitzen, zea harrek?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

- Bota itten zeniyoten ura irakitten!

- Ur berua... urak irakitten zunin bota 'ta kuela harrek zun azpiyan hola xolo batzuk, 'ta han zittun hola trapo batzuk sartuak. kompaziyo batea, bi... Lau xulo zittun 'ta...

Bi ta bi lau, lau xiri... Lau trap... Lau puxka hola xintxilik jarri 'ta geo ura itten zen handikan atera, ur berua. 'Ta uantxe ura berua atetzen zen demboan ya eosiyak zozten arropak pronto zozten.

- Señalke denin pasa zela!

- Pasa zela ur berua! 'Ta hala geo erreka jon maiyak 'ta denak hartuta 'ta hantxe pantorrilletan ez zen krak haundiyik izaten ordun! Geo han jarri ta maiya haundi bat eamaten genun,

maiya haundira bota arropak garbittuta 'ta silla 'o maiya ttiki bat bagenun arropa jotzeko 'ta arropa hartan zea hura, lengo hango usaiya 'ro zea hora kendu, astiñ astiñ in, jo jo iñ, astiñ astiñ iñ, 'ta hara bota 'ta geo anilla pixkat eman 'ta, libre. Han ura kentzen zuten,

han maiya hartatik zintzilik betti, ura botzen zuten ta ura botzen zutenin biyurrittu pixkat eta maindirik baratzin zabaldu.

- Hoi ze itten zen erropa kolorekukin 'o txuiyakin bakarrik, bakarrik itten zen?

- txuiya... maindirik bakarrik mate 'izkiuten. maindirik eta maindirik eta almhoadak eta ontzi trapuk. Bakarrik ematen ziguten. Gaiñekun koloezko 'ta hola ez.

- Ez, e?

- Haik itxian itten zittuzten.
- Biño kolorekuk 'e garbittu zittezken hola? Zuek itten zenuten bezela?
- Ez, haik ben itxian.
- Haik ben itxian.
- Kolozkuak... Kolozkuk nola ez baizun eosi berrik, haik ben itxian itten zittuzten. Bai.
- 'Ta zuek zuen erropak 'e erropa txuiya hola garbittu zenuten?
- 'O haikena bakarrik itten zenuten hola?
- haina bakarrik itten genun hala, geo eamateko, entregatzeko, jakittek. Batzuk marka izaten zuten, bestik ez, 'ta bestela itxekua, bo! Itxekungatik 'e importa ziun guri!
- Ahal zen bezela hua!
- Itxekua ahal zen bezela, jaboia 'ta urakin garbittu ta... ahal zen bezela.

2.3. Luxurik gabeko ezkontzak

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/015
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:29:06. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkontza: Aitabitxi-amabitxiak eta senide bakarra izan ziren bazkarian, beste inor ez. Soineko beltzarekin ezkondu zen, orduan ez baitziren oraingo zuri eder horiek. Bidaia Tolosara egin zuten. Gerran soldaduek etxeetatik errekiatutako arropak saltzen zituzten eta haietatik ahal zuena erosita egin zuen arrea.

Transkripzioa

- ...ezkonduak 'e.
- Denak?
- Denak.
- Dena eaman ber... 'Ta gotzen al tza ezkontza nola izan zen?
- E?
- Ezkontza nola izan zen gotzen za?

- Ezkontza guria... atautxi-amautxiyak eta akabo! Itxian bi bat familia 'o bazkai bat in genun 'ta... nik ahizpa eaman nun 'ta harek anaiya, atautxi-amautxi 'ta ez zen geyo bodik!

- Hara, senidik bakarrak?

- Senidi bakarrak, miño san dizut, miño juntatu bi baserri, bitakuak 'ta bazkai bat in genun. Ezauera bat eman elkarrei, zarrak 'ta gaztiak 'ta denak.

- 'Ta zeihen itxian? Non in zenuten Maldaburun 'o zuenin?

- Guriin. Bazkai bat in zen 'ta gue bodak!

- 'Ta jantziak nola izaten zin?

- Soineko beltza. Nik hala eaman nun. Ez oaingo traje zuri elegante hoik. Soineko beltza, zapata beltzak...

- 'Ta ze itten zen berria eosi 'o etxian itten zen?

- Ez, berria eosi genun. Guk berria eosi genun. Modu askotan ordun 'de jendia.

- Ahal zun bezela?

- Ahal zun bezela! Nik berriya erosi nuen. Harek traje azul marino 'ta nik soiñeko beltza.

- 'Ta erretratuik bai al zenuten? Ate al zenuten erretratua?

- Ne alaba baten etxian bada oaindak bodako erretratuak. Miño gue biyena bakarra, denekin ez genun atea. Ez giñen, ez genun umoreik 'o... geoko.

- Justukua in 'ta...

- Bai.

- Gañea go ikarriya eukiko zenuten ezkontzeko?

- E?

- Gogo ikarriya eukiko zenuten ezkontzeko?

- Ui! Denak juten 'ta gu 're...

- Hiru urte espetu 'ta geo.

- Gerran, aber! Holaxe.

- Eta geo otordua 'ro in 'ta kitto? Biajeik eta holakoik ez zenuten ingo?

- Ez, ez. Biajin Tolosaño jon giñen! Irunen ezkondu eta Tolosa fan giñen, 'ta Tolosan gaba pasa genun, 'ta eun pare bat 'o pasa genittun 'ta bakotxa... hara, haren etxea, hara ezkondu nitzen.

- Maldaburura?
- Maldaburura.
- Eta ba al zanakan arriua 'ro iña?
- Bai. Gerra denbun soldaduak itxetatikan 'ta rekisatuta bidian salduta 'ta banittun nik hartuak maindire batzuk 'ta bai, banittun 'ta denak ongi etorri zian. Gañekun, oain bezelako...
- Bai ordun: maindirik eta erropa batzuk?
- Bai. Arropa... aldagarriyak. Bai.
- 'Ta ze in zenittun, bordatu 'ta?
- Bordatuak? Ez dut uste bordatu nunik... ez, ez nittun bordatuko, nik ez. Hoinbeste eskola e'genuen e'nuen bordatu.
- Eta hoi nola izaten zen ordun? Eta ezkontzeko...

2.4. Karrikako eskola eta harrobia

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:31:43. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maistrak egunero behartzen zuen eskolara joatera. Karrikara joaten zen. Harrobiaren ondotik barrena joaten ziren eskolara. Gogoan du harrobian lan asko egiten zela.

Transkripzioa

- Nik ba al dakizu ze izandu nun? maixtra ona. kastillana zen maixtra. Pamplonako alaba. Hua zen maixtra, e! Jo, harrek eakutsi zin nei! Biñon eun bat faltatzen bazenun, itxea abisua, ez eunik galtzeko! Nei. Dena hartutzen nuna.
- Harrek zu jotia nahi?
- Hoixe! Bai, haik 'e eakustia... Anaiya zun maisua.
- 'Ta non maten zuten haik? Non zenuten eskola?
- Karrikan.
- Karrikan?
- Bai. oan pariente batzuk bizi dia haik eskola zuten tokiyan. Bai.
- Ordun eakutsi 're ongi ingo zun?
- Jo! Ez zun behiñ 'e jotzen. muttikuk jotzen zittun miño neskaik ez. Keba. Euna faltatzen bazenun, oi...! Santen zun, ez faltatzeko, e! Bestela ez zila gehiyo ametittuko.
- 'Ta zu gustora joten ziñen?
- Maixtra ona zen.
- Ui...! Ni bai. Ni denako pronto nitzan holakua. Saltxera xamarra.

- 'Ta nondik joten ziñazten, zeatikan....

- Kamiyoz kamiyo. Harrobiya nola da?

- Bai.

- Pues harrobiyan tartetik. Harrobiko langillik 'e han aitze 'izkigun ejuka. Zea, ordun lana itten zen harrobiyan e! Bagoiyak Hermoso saten ziyoten batek ibiltzen zittun bagoia harriz kargatu 'ta "hermoso" norbattek eskribittu bagoiyak. E' zitt aztutzen... Hai parrak itten genittun guk! "Ez al zen zu miño hermoso goik hemen letrerukin" "(...) Jarri zin nei, akatuko ñet eunan batin".

- 'Ta pertsona aitzen al zen haikin bultzaka...

- Bultzaka bai! Be ruedakin 'ta. Biño llanun, e! Llanun!

- Bai.

- Eta geo izaten zin, berriz, kaminero in ber zutenak, goiyan itxia bazen, harrobiyan, harren bazterrin hola txabola bat, 'ta han bizitzen zin.

- A bai, e?

- Zeak, geo kaminero 'ro ai ber zutenak. Bai, nik ne koñadua, oaiñ hilla do, biño bai, hala in zen. 'Ta andregai 're handik in zun, ne ahizpa, oaiñ biyek hillak dia!

- Eta geo ze itten zuten, haik trenea kargatu berko zittuzten?

- Bai, bai, bai. Geo trenbirez. Errentiko kargadora 'ro...

2.5. Auzoko haurren maistra

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/022
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:51:50. **Bukatu**: 00:52:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Arandaranera ezkondu eta gero, herritik eskatu zioten maistra lanak egiteko, auzoko hurrek ez baitzeukaten inor ikasteko. Maistra ona izateko afizioa eta pazientzia behar direla dio.

Transkripzioa

- Biño nik galdetzen nizun Joxepa, zu, zu maixtra ziñala.

- A! Ni maixtra, bai.

- Han Arandanen, itxian bertan maten zenun?

- E?

- Itxian bertan maten zenun eskola?

- Bai. Itxian bertan. Herritik abixtu ziten. Nik eskola ona nula 'ta umik gaizki zoztela.

' Ta neria 're banun 'ta...

- Eta, 'ta nondik hasi ziñan hairi iakusten? libruk 'ta bai al zenittun?

- Neonek afiziyo haundiya nun eskribitzeko 'ta. Bai. Hoi berez 'e ber da, e! Gaiñekun, afiziyua 'ta pazintziya 're ber da! Nik ez nun umeik sekula jo izandu! Ona esan in ber du! Nik maixtra ona izandu nun, neonek egiya san. Harek 'e sekula ez zun jotzen umeik.

2.6. Kale ingurua

- **Hizlaria(k):** Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-020/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:19:06. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Oiartzungo kaleetako lurra harri-koskorrez beteta zegoen. Maitxo Putxutxoerreka bezala ezagutzen den kalekoa da. Izenaren jatorria azaldu digu. Legarren komentua zegoen. Fraideak joan eta gero, etxebizitzak egon ziren, gerratik eskapo zihoazen makina bat bertan bizi izandakoak dira.

Transkripzioa

- 'Ta kale ayeka hoi, lengun zeñek esan zin, zea e... Plaza ez zela. Karo, oain zea da, e... Galipota 'ta xabala, biño len dena harriya 'o 'men zen.

- Goiko kalia?

- Bai. Ayunta...

- Xan Juan kalia?

- Xan Juan 'ta, plaza 'ta, Ayuntamentun aurria 'ta...

- Zea, galipota 'ro nola botatze 'ute, hola. 'Ta geo harri koskorak eta, goiko kalia dena harriya zen bai, hola. 'Ta uan dena kenduta jarri dutena.

- Goiko kalia ze saten yozue, San Juan kalii?

- Xan Juan kalia. 'Ta geo Xan Juan kalia zen guria 're... Gu bizi giñanak 'e hala zun zea. Biño nola tarte bat zen estua 'ta han bizi giñan Putxutxerreka saten zuten. Putxutxerreka.

- 'Ta zertik 'te zen Putxutxerreka?

- Baten batek hoi ate zulako.

- Biño han errekek bai al zen?

- E?

- Errekik bai al zen han?

- Erreka? Arritako bazterrian zen erre... Zea, ura tortzen zena 'ta aska bat behiyak ura iatea 'ta eamaten zutena. Harrek 'men zun izena erreka 'ta beste itxe batek Putxutxerrekako 'ro Xan Juango inguru hortan 'o, hara sartzeko ingurua Putxutxu. ' Ta Putxutxerreka.

- A...! Itxia bea Putxutxu.

- Itxia, bai. Hala saten zuten.

- 'Ta, zu gotzen al za Learren prailik zila?
- Bai. Juxtu juxtuan.
- Bai, hor ez.
- Ikusitzen genittun gue itxetik, terraza 'ro han zea haundiya zuten 'ta han ikusi bai, zea, biño sateko... Esplikatzeko zeak ez. Han bizittu ziala bai.
- 'Ta ze ordenatakuk 'o zin praili haik?
- Han?
- Ze praile... Zer zin, e... Kaputxinuk, 'o zer zin?
- Ez dakit ze zea zian.
- 'Ta noiz arte eondu zin haik?
- Nik amai 'ta aittua han izaten ziala 'ta guk ikusi izandu ttugu, biño... Beste... Geo denak jon in zian pixkan pixkan.
- A!
- Biñon kombentua zen leno, e!
- 'Ta geo ze in zuten, bota 'o...
- Ez, ez. Geo bizitzak jarri. ' Ta kampotik tortzen zian guziyantzat bazen tokiya. Gerra demboan. Itxi ttiki haitan bi 'ro hiru famili batian 'ta hala.
- Zuen itxian hartu al zenuten norbatte?
- Ez. Guk ez genun sekula iñor 'e hartu.

2.7. Etxean jaiotzea

- **Hizlaria(k)**: Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-021/006
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Senide gazteak zaintzen zituen Rosariok. Etxean jaiok dira denak, eta gogoan du jaioberria neska edo mutikoa zen esaten ziotela eta bera kontentu geratzen zela. Erditzerakoan medikua behar bazen, deitu egiten zitzaion. Oñtibia ibiltzen zen lan horretan. Orduan haur asko izaten zen etxe bakoitzean. Iturriotzen haur asko ziren.

Transkripzioa

- Ni zarrena.
- Ordun bestiy zaintzia 're tokatuko zizun?
- Bai, denetik tokatu nau. Denetik tokatu nau.
- 'Ta zuek itxian jaioko ziñazten?
- Bai, bai. Itxian, denak. 'Ta itxian bizi.
- Beste senidik nola jaio zin gotzen al za? Etxian?
- Bueno... bai. Gutxi gorabera. Jaiotzen zinin saten ziten, muttiko bat 'o nexka bat 'o karri zutela 'ta kuartoa joten nitzan 'ta ordun han eoten nitzan neria haikin 'ta, ni kontentu "launak karri izkite" 'ta hola. Gue bizimodua holaxe izandu da.
- 'Ta meikuk 'ta komadronak 'ta ez zin jongo? Itxekuk launduko ziyoten ez amari? 'O nola izaten zen?
- Bai. Meikua bertzen baldin bazin eamaten zin miño gañekun itxian izaten zin.
- Oñatibia.
- Bai, Oñatibia apaiza, ui, meikua. 'Ta hola.
- 'Ta geo Don Regino 're bazen?
- Baita 're, hua 're.
- Hua zaldiyakin 'o ez al zen ibiltzen?
- Bai. Hua, zea zittuzten, ez dakit ba nik, ibiltzen zen hua 're, 'ta eamaten zuten itxea biñon geyena Oñatibia gauza hoitan. Bai. Hola.
- 'Ta geo Iturriotzen mordoxka, zea, haur asko juntatuko ziñazten kalin?
- Bai, bai, mordoxka juntatzen giñan. Ne erarekuk bagifian franko.
- Hor nonguk izango zin...? Dispatenekuk eta zuen...?
- Bai, denetikan. Hor itxe asko zen 'ta, denetikan bazin. Denetakuk.
- Geo Garmendin 'de senide pilla bat izango zin?
- Han de mordoxka bazen. 'Ta denin bazin hor. Etxe guziyak betiak zin. Ez zen iñorre gabe.

2.8. Emietako bidean izuak jota

- **Hizlaria(k):** Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-021/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Emietan senideak zituen Rosariok, eta oinez joaten zen askotan enkarguekin. Behin, bidean izu gaitza pasatu zuen, hegazti pila batek bidea moztuta.

Transkripzioa

- Urruti gelditzen da e? Ez pentsatu, Emita. Ui, ni eun batin izutu nitzan asko. Asko gañea e. Banijun, bazkalondo bat zela uste'ut, eta banijun 'ta, kuak eta kuak eta kuak eta kuak hola sumatzen nittun birian... konpaziyo batea, ni banijun hola 'ta eskoitako zea batin, zoko batin, 'ta kuak eta kuak, "nik zer ttut hemen ordin oain?" saten nun nik "nik zer ttut ordin hemen?" 'ta beira jarri nitzan 'ta geo 'ta geyo, kuak eta kuak eta kuak, "nei jan ber ziten hok" hoixe pentsatu nun, "nei jan ber naute hoik, hemen, zokua

hontan" 'ta izu batekin! atera nitzan handikan! ui, hua izua, ez dut beñe nik... Emita, ba al dakizute non den Emita?

- Gutxi gorabera...

- Bueno, askotan jon naz ni Emita, miñon beñe e'nitzan euna hartan bezela izutu zeakin, heaztiyan zeakin. 'Ta zea zen, bi... nola saten da, bi... konpaziyoa hoi 'ta hau zea izango balike bezela, bi zoko. 'Ta haitatikan, ai! nik hua izua, nik saten nun "nik hemen geldittu ber 'te dut hoikin? nik..?" huaxe pentsatzen nun e. Hainbeste zea zin, ez dakit ze klase zin, nik eniyoten... enittun izautu 're iñ, miñon e'nitzan nahi ordu handikan atera! 'ta Emitako birian atzea sartu. Jesus! Hua poxa hartu nun sartu nintzanin! san niyoten "erki kostata torri naz gaur honea, Emita ez dakit noisnahi torriko nazen berriz".

- Hola izutu ziñan e?

- Izutu nitzan... denak kuak eta kuak eta kuak, denak geo 'ta arrimatuo 'ta geo 'ta arrimatuo 'ta zoko batin 'ta... Oi Jesus! Izutu! San nun bai "hementxe bukatu berko ut nik gaur".

2.9. Mojen eskola

- **Hizlaria(k)**: Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-028/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Kaleko mojen eskolara joaten zen, Gurutzetik oinez. Orain Manuel Lekuona Biblioteka dagoen tokian zeuden mojak. Eskolaz gain, zaharrak ere zaintzen zituzten. Zortzi urtera arte mutilak eta neskak batera ibiltzen ziren. Baina gero mutilak beste tokietara joaten ziren eta neskek segitzen zuten. Eskola beraiek garbitzen zuten, baina superiorak etortzen zirenerako garbiketa sakonagoa egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Bai.

- Noa joten ziñan?

- Monjeta.

- Kalea?

- Kalea. Oiartzungo... Kalea, oan zea Don Manuel bi... Len biblioteka don leku hortan zozten monja Merzedariak eta... Haik eukitzen zittuten orduko e... erareko person batzun zaintze zittuten, bertan eukitzen zittuten eta geo... Lembiziko plantan zozten bi eskola. Bat hasiyeretikan komuniyo ttikiya iñ artekuk, han neskak eta mutillak ibiltzen giñan eta geo, zortzi urte ingurun mutikuk handikan atera in ber izaten zuten eta nexkak pasatzen giñan beste eskolara, eskola haundiyagoa, adiñ gehiyoko eskolara. Eta bitan genittun bi monja, eskola ttikiya saten geniyonan Sor Maria Luisa eta eskola haundiyon Sor Maria Elena. Eta han hori, bukatu arte. Eta geo e... Zea, urtian behin tortze 'izkigun superiorak urte guziyan

intako lana haik baloratzen ziguten eta... Orduko itten genun eskola dena garbittu. Urte guztiyan guk garbitzen genun eskola, biño superiorak torri ber zuten egunero, oi... Egun hartako itten genun, bueno uan esango genuke bezela, liempieza generala. Eskola dena garbittu eta...

2.10. Eskolan zigortua

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Oso kontentu ibili zen eskolan, asko jostatzen ziren. Zigortu ere egiten zituzten. Bera ere zigortu izan zuten. Lotsa handia pasatu zuen eta etxera eraman behar zituen enkarguak egin gabe gelditu zelako kezka galanta ere bai.

Transkripzioa

- Hoi da, saten ai ziñan garbittu 'ta...

- Bai...!

- Berriz san 'zazu!

- Bai, ba hori. Guk urte guztiyan geonek garbitzen genun eskola eta geo superiorak etorri ber zineko, pues hobekiyo garbitzen genun. Uan saten den bezela, liempieza jenerala ingo bagenuke bezela. Ordun etortzen zin superiora haik, eta... Denak 'o gehiyenak 'o denak prepatua eukitzen genun haikentzako ongi etorriya, kantatzen geniyon eta gen ongi etorriya itten geniyon eta geo ba... Haik jartzen zizkiguten... Ematen genun lan bakoxtetikan pizarrea atera eta prueba batzuk eta... Bueno, gaiñekun e... Oso kontentu ibilli izandu naz ni oso gustora eskolan, e... Hango launakin jostatu 're asko itten genun eta bai, e... Erabat esateko, oso gustora, kontentu. Izaten zin, izaten genittun gen kastiguk, gen zeak, esan nahi nuke... Kastigatzen ziguten, miño kastigatzen ziguten zerbatt itten genulako! Ni goguan geldittu izandu dut egun batin pizarran in ber genun zea, e... Hiru 'ro lau artin lana eta genun bat falta, komonea 'ro jon zelako. Eta nik esan nun: " ¡Ba, si no viene que se fastidie!" eta monjak entzun. Eta... eguardiyan, eguardiyan zea bestik itxea bazkaltzea eta ni eta beste bi monjak kapilla zuten goiko pisun eta beák lembiziko plantan bazkaltzen zuten eta bizimodua itten zuten eta geo bazkal ondorin joten zin errezatzea kapillara. Eta jarri ziguten lembiziko pisutikan azkeneko bittartin guri eskailleratan kastigo eta geo beák zazpi monja zin eta zazpiyak guen ondotikan pasa eta kapillara errezatzea. Eta netzako kastigoik gorrena hora izandu zen. Denak han ikustia han kastigatua. Eta geo... E... Madre superiora 'ro saten geniyona, monjan buru itten zuna kapillatikan atera 'ta torri zen eta esan zin nei urruti bizi nitzala eta joteko itxea eta bazkalduta tortzeko berriz. Eta... geo e... Nahiko apurua pasa nun, zertikan eskolatik atetzen nitzanin nik enkarguk eamaten nittun itxea eta ni handikan

kastigua hura ordua biño lenotikan altxatu zin superiorak, biño orduko Antoneneko denda itxiya! 'Ta ez dakit nola moldatu nintzan itxian esateko enkargoik gabe zertik jon nintzan, zertikan badakit ez nula esan kastigatua eondu nitzala. Bai.

- Zerbatte asmatu zenun!

- Zerbatte asmatu nun. Zer ez dakit, biño zerbatte asmatu nula bai.

- Eta san bazenun kastigatua...

2.11. Doktrina, euskaraz

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Eskolara joaten ez zenez, amonak erakutsi zion doktrina. Baina amonak euskaraz erakutsi zion, eta, mojek gaztelaniaz erakusten zutenez, kezka zeukaten nahikoa prestatuta ote zegoen jauna hartzeko. Don Jose Luis Lekuona zen orduan apaiz.

Transkripzioa

- Doktrina bakarrataz kezkatzen zin. Bi komuniyo itten genittun, eta komuniyo ttikiy hoi itteko zortzi urte ingurun izaten zen, eta... Amona dotriña, beno, dotrika ez, errezatzen eakutsi zin. Eta geo hamabi urtetan komuniyo haundiya, eta klaro, ordun eskolan dena erdaraz itten genun eta... Eskolan jarri ziten, jarri ziyoten itxekuri aukera 'o erdaraz e... Ikasteko errezuk eta dotriña beák eakutsiko zitela, 'o euskaraz in nahi baldin banun itxian ikasi berko nula. Eta... Amonak eakutsi zin errezo denak eta dotriña dena buruz, beák buruz zekiye. Ez zekiye...

- Euskeraz zekin?

- Euskaraz. Eta... Ez zakiye beák letzen 'ta eskribitzen, biñon dotriña dena buruz zakan, zakin eta... Dotriña eta elizako kantak, eta bertso zarrak. Haik aittuta ikasiy izango zittun eta... komuniyo haundiya itteko garaiya torri zen eta... Ordun... Bestik, ne adiñekuk komuniyua ittea monjatatikan denak joten giñan, biñon zea, besti denak doktriña erderaz 'ta nik euskaraz. Eta... Apaiza Don Jose Luis Lekuona genun, arrontin apaiz ona, haundi bat. Enbil ttiki deitzen zin. Eta... Apaiz haundi bat, haundiya beziñ ona. Oiartzungua zen eta... E... Monjak kezkatuk, karo beák ez ziten dotriñik hartu 're itten eskolan eta bialtzen ziten... Bialtzen zuten nekin batin Estankoko Ana Mari, ni biño gutxi da zarrago eta hora bialtzen zuten aber doktriña zea, doktriña bai 'te nekiye. Eta horrelaxen in nun kumuniyua, amonak eakutsitako errezukin 'ta dotriñakin.

2.12. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/009
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Batzuek jaunartze handia eginda eskola ere utzi egiten zuten. Beste batzuek 16 urtera arte jarraitzen zuten. Maria Jesusek ere hamasei urtera arte jarraitu zuen, baina maiztasun gutxirekin. Kartilla, katona, entziklopedia ikasten zuten; denetik pixka bat. Behin diktaketa gaizki egin zuen eta zigortu egin zuten.

Transkripzioa

- Eta, hoi kumuniyo haundiyan.

- Kumuniyo haundiyan.

- 'Ta kumuniyo haundiya iñ 'ta seitzen al zen eskolan?

- Bai. Hamabi urtetan itten genun komuniyo haundiya eta hamasei urte arte jon nitzan ni. Biñon, ikasi oso gutxi. Oso gutxi zertikan... Hoi da, ez nitzalako joten. Bai.

- 'Ta doktriñatik aparte ta ze, ze ikasten zenuten?

- Ba... E... Hasitzen giñan kartillatikan. Kartillatikan... Zea lembiziko numeruk eta hoik ikasten genittun eta geo hurrena izaten genun katona. Bai. Katona izeneko liburu bat eta ya harrek jartzen zun e... Denetikan pixka bat. Zea bakotxetikan, asignatura sango... Uan saten dugun bezela, hortikan pixka bat kartzen zun gehiyo. Eta... Ya hori beste mailla bat zen. Eta... Ordun ya eskribitzen 'ta, 'ta geo ya hurrena izaten zen enziklopedia. Eta horrek ekartzen zun denetikan. Bai. Historia Sagradatikan hasi eta beno, gaiñeko ze, laburtua, laburtua biñon bai, gaiña liburu berin izaten zin historia eta hori dena, eta zeak, matematikak 'e bai, uan saten dugun bezela. bai, dena resumittua, biño hor ekartzen zun. Geo ya ordun hasitzen giñan ba... Problemakin 'ta hoi denakin. Ordun eun batin diktatu asko itten genun, e... Monjak letu, Sor Maria Helenak eta guk diktatu. Eta nombatte ni aspertua nozen eta san nun: "ba! Ingo dut, hiru zeak, este... Hiru..." e...

- Lerro 'o linea?

- Ez, esaera zen: capital de España es Madrid 'ta nik san nun: "ba! Lembizi capital... España, capital 'ta Madrid", biño hasi nitzan orden hortan: España, capital, Madrid 'ta saten nun: "ba! Hola laburruo ingo nau" biñon hiru relotan 'o in nun ongi, biñon handikan betti Madiriz, Madiriz, Madiriz... dena! Bueno, beste kastigo bat!

- 'Ta ze izan zen kastigua?

- Ba berrogeita hamar aldiz ittea! Bai. 'Ta holako lanak eamaten nittunin

itxea ittea.

- A! 'Ta itxian iñ ber!

- Itxian iñ ber! Bai! Klaro, e... Gaiñeko lanak in ber nittun eskolan eta hoik eamaten nittun itxea 'ta ni iñorrek ez zin galdetzen zer itten ai nitzan 'ta deus'e. Ni hantxe Madiriz-en tokiyan Madrid 'ta Madrid jartzen. Bai, 'ta gauz hoik uan gogoratzen 'ttut 'ta parre itteko gogua maten nau.

2.13. Ikasketen jarraibidea

- **Hizlaria(k)**: Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-028/011
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:25:47. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Zortzi urtera arte mutikoekin batera ikasten zuten; gero haiek eskola partikularretara joaten ziren. Mutil batzuek segitzen zuten ikasten; neskek, gutxiago. Gero egin zituzten eskola publikoak Beko Plazan.

Transkripzioa

- 'Ta geo zortzi urtetan, komuniyo ttikiya itten zutenin atera itten zin handikan.

- 'Ta haik noa joten zin?

- Pes haik joten zin... Ordun eskola partikular bastante zon Oiartzunen. E... lukitzen zuten Mitxelenatarrak, e... Josu dentista 'ta beno, dentista mekanikua 'ta Josu 'ta hoiken amak eta izebak, Mercedes 'ta Maritxuk, uan Zamateta don itxe hortan bigarren pisun eukiten zuten, haik, e... Geo... Zamo Zamoko maistrak 'e partikular ematen zun eta geo Minatako zerbatt, e... Ez dakit, e... Zer kargo zun e... Minan horrek, e... Arbelai oi... Luxia saten geniyon, eta kimikua 'ro hola zen zerbatte. Eta horrek 'e maten zun partikular. Ordun eskola partikular bastante izaten zin.

- 'Ta neskak 'e joten zin haita 'o mutillak?

- Mutillak generalin. Bai.

- Ofiziyua ikasteko 'ro hola?

- Ez! Ofiziyua ikasteko ez, eskola partikularrak zin, itxian ematen zittuten. Hoi lembiziko preparaziyu hoi! Gaiñekun ofiziyua ikasteko 'ta ez. Ofiziyua 'ta ikasi ber zutenak Oiartzundik jon in ber zuten nombattea. Geo eskola publikua izan zen beko plazan, biño hoi lenotikan zen. Bai. Eta geo ondorin 'e izandu zin, biño momentu hartan ni eskolan nabizela 'ta hoik akortzen naz gehiyo, beste batzuk igual, biño ez naz hoitaz hambeste akortzen.

- 'Ta ikasketakin jende gutxik seittuko zun arrontin!

- Bai.
- Emakumik gutxiyo oaindik.
- Bai. Ikasketakin gutxik seitzen zuten eta jon ber izaten zuten hemendikan derrior Donostira gutxinin. Bai.
- Geo gehiyenak josten 'o hasiko zinazten?
- Bai, bai. Hoi bai.
- 'Ta hoi seidan izaten zen, 'o...
- Bai. Bai, ni bintzat, ni bintzat, bai. Beno, igual da hamasei urte arte ibilli nitzelako 'ro, biño bai, segidan. Bai, neria bintzat, hala izandu zen.
- Gaiñekun burutik pasten al da, seittuko nuke ikasten 'o...

2.14. Trajeak eta berokiak

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/020
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:40:58. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Arropa jostean gain, plantxatu ere egin behar izaten zen. Izebak berezko dohaina zuen josteko, ez zuen inon ikasia. Aste Santuan, prozesiorako egiten ziren traje berri pila. Sortzez Garbiaren egunerako, berriz, beroki pila egiten ziren.

Transkripzioa

- Eta biyek aitzen zin eakusten 'o nola banatzen zuten lana?

- Ez batek zekiyen... zea... bestia 're hor aitzen zen, elkarrekin aitzen zin, miño harek gehiyena plantxa 'ta horrela. Plantxako asko baliyo zun, arropa josi bakarra ez, plantxa 're in ber da geo! Entregatzeko 'ta. Bueno! Hor garaia hartan, esto, Aste Santurako 'ta ze traje pillak josten zittuzten. Ordun ez zen jendia sastreira jotzen. Komuniyuko 'ta, Aste Santurako 'ta, gizasemin trajik eta, gure izebak... iñun ibili gabia zen zea e! Ikasten. Berezko zea zun, berezko doaiya zun, izebak bai.

- Amakin 'o ez zun ikasi? Beak ikasi zun?

- Ez, bere-berezkoa zun, oso, zea... eta zenbat gero, Aste Santuan, leno san zattut, trajik: Erramu Egunekeo 'ta, zea prozesioa joteko 'ta... O! Ze kanbiyua gauzakin! Prozesio zea, Aste Santun, bueno!

- Ordun denak illunak ingo zin ba! trajik?

- E?

- Denak illunak ingo zin, Aste Santuko itten bazin?

- Ez, ez, ez, ez... grisa! Grisa gehiyena, rayatua 'ro lisua edo, grisa gehiyena.

- 'Ta askok traje bakarra izango zuten bizi guziko?

- Ordun ez zen... sastreira jende aberatsa jongo zin miño gaiñekun. 'Ta mutikozkorrak Komuniyuk zila... geo Eguarritan 'o zean Ama Birjiñ euna, Kontzeziyoko, zenbat abrigo jesus! Miño gau 'ta egun, hor, ui! Bizimodu latza! Negua 're? Oaiñ ez bezelakua 'ta teillatutik betti ziriyaq iñak hola... teillatua genun libre, ez zea itxiya. Teillatua hau bezela, hola...

2.15. Ile luzea, ezin

- **Hizlaria(k)**: Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-039/002
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Rufinori noiz jaioa den galdetu diogu: 1924ko martxoaren 20an. Rufino urte askoan Erreterian lanean aritua da. Gogoan du garai haietan ilea luzea zutenei moztuarazi egiten zietela. Erreteriarako pertsonaia ezagun baten berri eman digu: Txarlot. Mekaniko ona zen eta asmatzaile gaitza. Ez zit gotzen. Mekanikotzan.

Transkripzioa

- Doktorikiñ ez zen, bestia. Bazen hor beste tipo bat Erreteriaran. Juakina, zein zen, zea, Erreteriaro ze hoa... Estilo... Illia haundiya... Oiañ illia haundiyaikin ibiltzen ga, 'ta ordun illia haundiyaikin harrapatzen zutenin, hartu 'ta ayuntamentun Erreteriaran moztu itten ziyoten illia! Bai. Zein zen hoa? "¿Qué estilo quieres que te cortemos el pelo?" 'ta "estilo golfo" "y ¿Qué estilo es?" "y el estilo que lleva..." Erreteriaro aguazillan jefia...

- Kastor.

- E?

- Kastor.

- Kastor, bai, Kastor. Estilo hua golfotaz besti harek. Zein zen zea hoa, bitxo hua? Kriston bitxua zen! Joe, mekanikotzan ta hola, papelera 'ta zeatu 'ta. Honek 'e izautzen zun hoa.

- Igual izautuko nun.

- Joe! Potton saardoteira torri eun batin 'ta zea hortan, soziedadeko bettiko malda hortan mutikozkorrak hartu horren bizikleta 'ta bizikletan gidoiya okertu ziyoten 'ta geo belaunan tartin rueda hartu 'ta zuzentzen nahikua zen, e! Tak. 'Ta ez utzi. " Ez, ez ez, holaxe jongo naz ni, 'ta holaxe jungo naz" Hala Errenteira. Jo...! Errenteian 'e papeleran bestek arreglatzen ez makinik 'ta hoa eaman 'ta harrek arreglatu. Ui...! Ze izen zun harrek? Doktorzikiñ ez zen ba, Doktorzikiñ bazela bai, biño bestia zen hoi.

- Hua kaputxinotan ayeka hartan bizitzen zen. (...) Biño Gasparren goiyan, bazterrian bizittu zen.

- Zein zen hua? Ba! Igual da! Harrei itten ziyon... Joe, harrek iña izan ber zula, zea! Errenteiko (Errekaxalon) 'o motorran bat prepatu ari batekin itxea argiya jarri 'ta jarri zun gau berin itxiak eta denak erre! Bai. Argiya jarri zun zean... Jo 'ta denak erre!

- Harrek argiya jarri!

- Nongua zen fenomenu hoi?

- Errenteian bizitzen zen.

- Errentikua bertakua?

- Bai, bai. Errentikua. Ez zit gotzen ze izen zuk harek...

2.16. Errotaberriko arrandegia

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/019
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Altzibarko Errotaberriren ondoan, arrandegia zegoen, eta, arrandegiaren ondoan, errota. Hantxe bizi ziren Rufino eta bere familia. Aita eta bera arrandegian lanean aritzen ziren. Aita bertan gaixotu zen eta bularretik hil zen. Arrandegian sobratzen zena lurpean sartzen zuten.

Transkripzioa

- Oain Pitusa don tokiyan itxe ttiki bat zen. Itxia, errota 'ta gu errotan bizitzen giñanak eta jornala man berrin gau 'ta eun lanin. Jelakin atetzen, ni muti koskorra. Deposittuk hustu 'ta tak tak karri 'ta nik deposittuk bete urakin. Makillakin neurtu goitik zembat neurtzen zun 'ta. Bi laun benga lanin, atta semik eta. Ordun guria in zen zeatik, petxotik jarri 'ta hartatik izorratu zen. 'Ta geo zea "pulmoniyatik hil duk", pulmoniya bai erki!

- Bai pulmoniya 're bai, mantxa...

- Lanin izorratu! Gau 'ta eun lanin! Barkuk baizittuzten beák hoik. Errotaberrikuk eta Olaizola y Madrazo'ro zea, barko... Pareja zutena. 'Ta karo, pareja zeaten zen demboan arrai bengá arrai guziya honea kartzen zuten 'ta hemen beexita jarri. Honoko, Aingeruko ondoko itxe beltz hoik eta guriak txatarreiya dakaten hoitan 'ta. Oain jendik aprobetxatzen 'ttu erki! (ze arrai usai...) saten ziyoten holako peskadillak tripa lertua baldin bazun, kajea 'ta lurrea dena, lurrea azpira. Lurrea, kriston indarra arraiyak, e! Arrai pilla erra bazin hoitan sartuak. Zapo buruk bai, holakuk! Mekauen! 'Ta geo arto tartin igual zeak zakurrak jun 'ta. Biño pilla erra arraiya! Josus! Hamakin bat kamioika arrai kartzen zuten horrea.

2.17. Errotaberriko iturria

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:00:56. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Errotaberriko iturria, gaur egun Pitusa fabrikaren barruan dagoena, oso ur onekoa omen zen. Altxibartarrek bertatik eramaten zuten edateko ura. Gero Aranburuko iturrira joaten zen jendea.

Transkripzioa

- Zea, iturriy hoik bai al zuten izena? Pitusak hartu zittun iturriy hoik 'ta... Zuek bai, deitzen al zeniyoten...

- Beti Errotaberriko iturriya guk. Errotaberriko iturriya.

- 'Ta geo hor, e... Embotillatzen zittuzten 'ta horko urakin ingo zuten?

- Oi! Hoixe! Hoixe!

- Negoziyua!

- Gaiña de balde 'ta aski ur ona bai! Ez? De balde! Haik dena eosiko zuten, ura 'ta dena!

- Kriston deposittua in zuten, hau bezela. Sukaldia biño... ez dakit zembat izango zittun, biño, ni Pitusan aittua bainitzan pixkatin. Urtebete 'ro pasa nun lanin. 'Ta hoeita... Ez dakit zembat metro kubiko zortzirehun 'o atetzen zin.

- Pilla!

- Hoixe!

- Klaro! Altzibar guztiya hortik hartzen bazun,

- Eateko jendik eamaten zun. Bestela ez, biño, eateko. Jon, torri 'ta itturri freskua! Geo jendia dena... Aramburuko iturrira amakin bat buelta in du jendik!

- Hamakiña...

- 'Ta oaiñ berriz, hora zer do tapatua?

- Ez baitakit nik.

- Uste 'ut galduxa dola hua 're, e!

- Hor pintxe eon nitzanin, horma baldin bazen, (...) goizero, lembiziko barrika koskor bat, barrika e

- Parrilla. 'O... Barrilla!

- Barrilla! Hartu bizkarrin 'ta...

2.18. Bataioa

- **Hizlaria(k)**: Berrondo lartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Lehen, jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zen. Inudeak oinez eramaten zuen haurra, mantoian bilduta. Amak etxean gelditu behar zuen, eta aitabitxi-amabitxiak joaten ziren bataiora.

Transkripzioa

- 'Ta bataiyatu hurrungo eunin in ber zen!

- Ordun bai.

- Bestela?

- Ordun bai. Ordun ziorra 'o, ez dakit ze izaten zen, bronka, errespeto haundiya zen! Egualdi ona bazen, txarra bazen, mantoian billu, 'ta ez zen zeik, e! Taka taka taka taka. Oseake oiñez ekarri ber zen.

- Ama ez zen joten haurakin.

- Ez, ez. Ama eun batzutan oyin. Oain jeikitzen dia auro! Pizkorruk dilako, biño oyin, oyin. Zazpi eun nei aindu ziten oyin. Eta ordun diferente izaten zen.

- Atautxiya 'ta amautxiyakin joten zin, ez? Bataiyatzea, 'o...

- Madrina. Bai, iñudia haurra eamateko, familikon bat 'o beste bizitzakua... Kompaziyo batea gue itxian izango zen seguraski, guk bi bizitzako baserriya genun. Hango amona zea, komadronea. Komadronea hango amona, eta geo hurrungo eunin bataiyua pues hango amonak 'o hango... Beste andria 're bazen eta geo atautxiya 'ta amautxiya. 'Ta ingo zuten Matteonin 'o Txikiardin 'o merienda lege bat eta bueltan bueltan etxea. Eta gehiyo ze...

2.19. Zamora

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/003
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Luisa Zamora baserrikoa da. Gogoan du nolakoa zen Zamora: sukaldia behean zegoen, beheko suarekin eta argirik gabe. Ateak irekiak egoten ziren beti, trankildade osoarekin. Sei senide ziren. Bospasei urterekin hasi ziren eskolan.

Transkripzioa

- A, bueno, ya geo...

- Jaiyo ziñan baserriya 'ta...

- Eta baserriya nolakua zen nahi 'zu jakiñ? Nik izautu nun baserriya sukaldia bian zula. Beko suakin, argiyik gabe. Ura bai, zergatik teillatoko... Entornua 'o buelta teillatokua zinkakin zeatu 'ta deposito haundi bat zen 'ta depositun ura bagenun. Oseake ura bagenun, biño argiyik ez. Argiya kinkiya, kandela... Ni oaiñ eoten naz harritzen, uaiñ hoimbeste su aitzen den kontutan, ordun itxiak su nola ez zun hartzen! Ze gambaran belarra eoten zen! Katuak toki guzitan bazin, 'ta katuk su ondun. 'Ta nik uaiñ asko pentsatzen dut, e! Ni ez nake biziko oaiñ han nei halako kezka ematen nau. Oaiñ pentsatzen jarrita e! Eta atiak erekiyak noix-nahi. Lasai torri zitteken nahi zuna 'ta bazter batin lo iñ 'e bai, lo 're bai. Oseake, trankilli... Trankillidade osuakin. Eta akortzen naz, su harrek nola zun latza goitik bera, oseake bian, hoi hor don bezela, eta geo hoi biño saliente haundiyokin zun hola tximeneta bezela eta handik latza deitzen geniyon guk, zen burni bat, hola kako batekin eta han e... Handik zintzillik jartzen zen eltzia. 'Ta eltzia izaten zin lurrezkuk ordun! Eta gue beste bizitzan txakur bat bazuten, este... Oillaor txakurra, beti gosiak eoten zena, eta sukaldia bian hola, bian baizen, erekiya harrapatzen bazun, eltzea jotzen zen! Eta burua sartzen zun eltzian eta klaro, hua berua nola baizen, trik, (sugorriyai) tiki taka 'ta eltzia hausten zun, ama tripak jaten! Batetik eltzia hautsi 'ta bestetik potajeik gabe eguardiko! Oseake... Biño pakin, e! Ez zen haserretzen gue ama, e! Ez zen haserretzen. Geo noizpatt sortu zin zeakuk, portzelanazko eltzia sortu zin, biño lendaizi nik lurrezkuk izautu nittun, e! Eta geo bai, ya geo obra in 'ta sukaldia gora iyo zen 'ta ya

ekonomikakin. Ya kambio. Ordun haik ekonomikak zun deposito ttiki bat onduan, eta ze garbitasuna ingo geniyon depositu harrei, bajatzen zijula ura, gaiñetik bota beti, gaintik bota beti. Oseake ur hua epela. Gaiñekun ur hotza eta ekonomika 're iñ in ber zenun! Zeatik nik oaiñ esaten dut, nik oaiñ botoiyai man eta in ber bazu kamamillo bat, in ber bazu kafesne bat berotu, ez zattu ezer kostatzen. Ordun salto iñ ber zenun 'ta geo ipurdiya garbittu gaiñea ontziy harrei. 'Ta oaiñ hala guztiz 'e kafeteira, zeatzea. 'Ta hor zein joten zen ordun gosaltzea kafeteira? Nadie. Horregatik, in dun difentziya. 'Ta geo, pues... Elkarren arrimun, ni ne anai difuntukin, hogeita bat hillabete 'ta bestik inguru hortan. Sei giñan, e, segido segido zeatuk. 'Ta sei... Bueno ni jaiotzeko anaiya bazenittun osaba 'ta izeba neska zarrak eta haik ilusiyo osuakin Txaparrea ekarri. Hua hor 'ta ama ya geldittu zen nekin bakarrakin, biño geo hala 're bost izandu giñan eta bost urtetik seira eskola hasten zen. 'Ta ordun Tolareberrira. Biño ibilli ber izaten genun Tolareberrira 're gue itxetik...

- Hua zein da, Zamalbideko hua?

- Bai. Ez ziun deus kostatzen gui ordun ibiltzia.

2.20. Euskara galarazita eta gaztelaniaz jakin ez

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/005
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Osaba apaizak senide guztiei ikasketak eman nahi izan zizkien. Bederatzi urterekin Donostiara eramane zuten, interna. Mira handia egin zuen. Ez zekien gaztelaniaz eta ez zuen hitz egiten. Bestela, euskaraz eginez gero, eraztunarekin zigortzen zituzten.

Transkripzioa

- Bazkaltzea 're itxea tortzen giñan, e! Eta hala, pues nik betzi urte arteiño. Biño betzi urtetan osaba bat bagenun apaiza, eta harren desioa zen nombatte denai estudyuk matekua, eta anai zarrena apaiz, hua ni biño leno jona zen seminaiyoa eta nei betzi urtetan Donostira eaman ziten en el Paseo de Francia Las Teresianas. Interna! Erderaz ez nakila! Gaiña obligatzen ziguten, e! Eskolan desdeluego ordun ezin zen hitzik euskeraz iñ, anillua maten ziguten. Eta anillua maten zigutenak eta azkeneko anillukin gelditzen zenak atetzeko garaiyan, zigorra! Eta bildurak, hitzik itteko bildurak! Karo, ez genun hitzik itten bildur horrekin! Eta geo hara jon, ama difuntukin, akortze naz, eta han ate zin pues una Teresiana, ez zin monja jantziyan, eran vestidas de señorita. Eta harrek hartu 'ta kapilla man zin 'ta: "mira que bonito, mira que bonito!" Nei kapilla man 'ta ni ate nitzaneko ama falta! Y quedate con el pastel.

Nik itten nittun nearrak! Onez onez hartzen ziten, biño keba! 'Ta azkeneko bronka bota batek, eta ordun kizkurtu nitzan, bai 'ta ya geo betzi urte in

nittunin feliz! Ya geo jarri nitzan, biño lendabiziyan... Gorra! Iñor izautzen ez, eta erderaz 'e jakiñ ez! Akortzen naz, lendaiziko urtian bukaeran, kursoko bukaeran, a San Francisco Javier eskursiyua. ¡Felicidad! Geo autobusa aberittu 'ta autobusa aberittu 'ta berandu torri giñan arratsin, illuna. Eta ailletu giñanin, el paseo de los Fueros beti akortzen naz oaiñik, Buen Pastorreko torria ikusi nunin, san nun: "¡Ya se ve el torre de Buen Pastor!" denak algaraz! El torre!

2.21. Karrera profesionala gerrak etena

- **Hizlaria(k)**: Berrondo lartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/006
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:13:40. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Irakasle ikasketak egin zituen eta geroztik beti lanean aritu zen. Oposizioak egiten ari zenean hasi zen gerra, eta ezin izan zuen lanpostua lortu. Klase partikularrak ematen hasi zen. Solchaga jeneralaren etxean ere aritu zen lanean.

Transkripzioa

- Gaiñekun, pues hantxe. Han estudiatu nun para maestra. Lendabiziko urtiak bertan, estudio general, geo urte bat... Zertikan hamalau urte arteiño ezin zen maestra hasi, eta hamaiketik hamabira batxillergo bezelako 'at in nun, hamarrekin el ingreso de bachiller, hamaikakin batxiller lendaiziko urtia, biño geo hamalaukin ya majisteiyo. Y ya termine magisterio con diecisiete añitos, diciocho ez nittun urruti juniyun diecisiete, 'ta oktubren dieciocho. Eta geoztik, beti, beti lanin. Non 'o han. En cuanto termine, bukatu nuneko, zeatu ziten. Baten deiya banun, esaminatzeko jon ber zula semikin Madridea 'ta aber jongo 'te nitzan, 'ta hamazazpi urte, ume koskorra, Errentira! Nada, pero... 'Ta geoztik pues que si particular por aquí, particular por allá... Eta geo bertatik deittu ziten, atzea berriz 'e zeatzeko, hara hutsak betetzea joteko. Zertik oposiziyok... Nik bildurra niyon oposiziyuk aitzen baldin ba... kampoia hemengo jendia jenealin kampoia tokatzen zen eta aitzen zenun... Itxian 'e halatso giñan, biño, behintzat, ez komonik, ez urik, ez ezer 'e, ez... Tokiy hoitan 'ta bildurra niyon 'ta geo gaiñea familitik hain urrutira jotia! 'Ta saten ziten: "In zizu oposiziyuk eta tokatzen bazattu ingurun, geldittu! Gaiñekun, hoeita bat urtekin diputaziyunak bazin. Veintiún años, mejores condiciones. Gurutzen zen, Gurutzeko eskolak, ez dakit izautu zenittun zuk, hoik diputaziyuna 'ro hola zin, biño hogeita bat urte ber zen. Eta geo pues, el año treinta y cuatro, termine el treinta y seis, nazionalan oposiziyuk hasi genittun. Lendaiziko ejerziyua aprobatu eta bigarrena itten ai giñala gerra hasi zen. 'Ta gerra hasitzikin... Se suspendio todo. Geo hala, gerra bukatu zenin, atzea... A! Ordun gerra bukatuta, partikularrak nittun hemen. Itxiita deitzen ziten, kampoia jendia asko zen hemen ordun. Nik ez dakit zergatik, 'o nola 'o, biño hola. Jende... 'Ta deittu iten zuten itxita eta han zeatu nitzan, eta geo... Donde Solchaga sobre todo eondu nitzan. Betenaiyua bizi den lendaiziko plantan, militar batzukin neska bat zainduz,. Pues oaingo neskamik biño hamakin batez okerro! Interna!

- Biño ¿de ama de llaves eras no?

- Bai, ama de llaves... Ordun kartzela eamateko mouko inoxentia! Zin jende ona izandua 'o oso aberatsa, biño semen batek (...) desfalkon bat iña. Nombatte firman bat eskatu 'yo amai, y ya parece que se hundieron. 'Ta ordun ongi bizi zin, biño lengo rangun ez. Eta haik joten zin astero, ben buelta itten zuten, ahizpa bat bazuten militarra kin espotua Donostin 'ta haina joten zin.

2.22. Gerraren mende

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerran, lanik gabe eta etxera joateko aukerarik gabe gelditu zen. Ahizpa kaleko etxe batean ari zen lanean, eta berarengana joan zen tropak Oiartzunen zeuden bitartean. Bixika atera zitzaion eta bertako amonak enplastoia jartzen zion.

Transkripzioa

- 'Ta hara jostea tortzen zen ne ahizpa! Joste ikastea! Eta esan nun: "ni noa jongo naz, ba!" Zertikan Pamplona eaman nahi ziten haik jotekin batin, biño ez nun jon nahi nik Pamplona! San nun: "(...)Haina presentatuko naz!" 'Ta "bai, bai" san zin. "Bai, bai, guetzat baldin bada, zuetzat 'e izango da" Eta nola baizen taberna eta hara surtitzen baizuten gerrako ber zen sumministro guziya, oseake matantza zela 'ta, iñon izatezkeotan, han bazen. Eta han pasa nun. Tropak hemen eondu zin bitarteiño, bildur errakin bai. Akortzen naz, bixika ate zin, ¿ai que horror! Hua miña! Biño hango amonak jartzen zin emplasto bat, 'ta aguanta metxa! Eta hango soldaduai, reketiai... Esto... Gu 're gaztiak eta loriak 'e botzen zizkiguten 'ta kontentu! Hala zeatu giñan! Felices. Eta geo handik bukatuta...

2.23. Ugaldetxoko eskola

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/011
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:22:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Eskola publikoetan aritzeko oposizioak egiten ari zela hasi zen gerra eta bertan behera gelditu ziren probak. Beraz, bere kontura hastea erabaki zuen. Ugaldetxon jarri zuen eskola. 27 urtean aritu zen

bertan, eta ikaslez gainezka eduki zuen eskola. Gero, herrian eskola gehiago zabaldu ziren eta pixkana husten joan zitzaion. Urteetara, gerran egindako oposizio haiek balio ahal izatea lortu zuen Alcaraz Zamora ministroak.

Transkripzioa

- Handik bukatu 'ta izango zen, nola zen? A, ne kontura ya erabaki nun eskola jartzia. Eta Ualdetxon jarri nun eskola partikularra, biño legalizatua. Eta han jendia izandu nun... Hasta decir basta! Zertik lepotik goraiño kaitzen ez! Geo itxea torrita, berriz... A, bueno geo... Han illunabarrin partikular ematen nun, biño geo ya espostu nitzanin, Ergoingo jendia hasi zen ba! 'Ta Ergoingo jendia ordun izautu nun nik ba! Beintxiki 'ta hoi denak. ¡Ui, menudos trastos! Biño jende majua! Ergoindik 'e jendia dezente zeatzen zen. Eta geo hala, pes, han pasa nittun hogeita zazpi, hogeita zazpi urte in nittun, 'ta hala berra, ez berra, ez dakit zergatik, kuestiyua da, jarri zuten eskola... Apaizak jarri zuten escuela diocesana, oaiñ biblioteca den hortan. Geo Juanito Adurizek konsejuko goiyan, eta geo in zuten nazionalak, Arrauko jendia tortzen zen, Arraun 'e in zittuzten bi, 'ta ordun neska eta mutillak aparte eon ber zuten. Nei inspektorak ezautzen zilako neskak eta mutillak uzten zizkin, biyek iukitzen, oaiñ, zertifikadoik ez zin maten mutillai mateko, neskantzat bakarrantzat. Eta geo zean in zuten, Ualdetxon bertan in zuten, eta Ualdetxon ittikin ya me vi... Y dije... Biali ez, porke legalizatua zon, biño jendia bakizu, batea 'ta bestea 'ta bestea... Eta gue Jangoikuk, ez dakit zuk sinistuko zuten, biño nik bai! Eta hau ibiltzen zen Asunzionen eta jotzen nitzan tarteka pues aber como iba y demás, 'Ta ez dakit hizketan hasi 'ta nola esan, pues ze situaziyotan arkitzen nitzan, 'ta "ya va haber trabajo pa usted" Hamalau urte, han in nittun! Geo jonta... Apuru errakin jon nitzan, berrogeita betzi urtekin, gaixua, e! Biño hiru seme-alaba nittun estudiantzen, e! 'Ta berrak itten 'ttunak! ¡Ai, con que dolor! Iñor izautzen ez, 'ta además era un colegio... Geo zeatu zen, juntatu zin pobrikin 'ta zea, biño de alta categoría era en un, en una época. Y sin ningún contra tiempo y muy bien, gracias a Dios, oso ongi. Geo ate zen lege bat, norbatte bazun poderia, Alcalá-Zamoran norbatt ote zen, que era el presidente de la república, norbatt ote zen kursillu haik muittu zittuna. Kursilluk in genittunak, aleiya.

- Oposiziyuk bai.

- Oposiziyuk, bai, kursilluk. Oposiziyuk. In genittunak eskubidia ganakala, después de meter un papeleo de mil demonios con notario y todo...

2.24. Baserritarrak ikasten

- **Hizlaria(k)**: Berrondo lartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/013
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara joan beharrean lanean aritu behar zutenak partikular joaten ziren Luisarengana. Baserritarrak asko etortzen zitzaizkion, salmentarako neurriak kalkulatzeko.

Transkripzioa

- Kontuk atetzia lurrakin 'ta baserritarrak tortzen zin.

- Klaro!

- Eta zea 're bai, eurra kubikatzea 'ta ordun oaiñ aztua dakat, ahora no tengo ni idea de la cubicación aquella biño libro batetik, zeak, egurra, ordun saldu itten zen eurra. Paota uste 'ut saten zutela itten zutela. Adarrak mozten zizkaten, eta hua panadeitako 'ta, karo, uaiñ eletrikukin zeatze 'ute, biño ordun egurrakin. 'Ta baserritarrak eur meta bat itten zunin, neurriyak karko 'izkizun, hombeste itten du alturan, 'ta hombeste itten du zean, pues itten genittun, behintzat, nolazpatte! (...) biño gaixtua nitzan, e!

2.25. Maistra ere ikasten

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/015
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:31:00. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Behin, ikasle bati ezin irakatsirik aritu zen, eta gero konturatu zen bera izan zela lezioa ikasi zuena.

Transkripzioa

- Horrek san al zizun? Ura bota 'ta... ez zen hura ez?

- A...! Eske... Harrek, harrek problema bat, eta harrek itten zun eosi biño, béak eosten zun biño merkio saltzen zun. Kontun atetzen zun. Eta zerbatte aitzea man 'ta bialtzen nun aber ba pentsatzen ote zun ba gehixio eta keba! Béak eakutsi nei. San niyon: "ez al za konturatzen, nola salduko 'zu ba zuk eosten zun, biño merkion? Zertik impuestuk patu ber 'ttuzu, bizi ber 'zu..." Eta "ugarittuta!" Ugarittu, ¿ya entiendes lo que es eso? Bendecida Klaro, esniai ura bota! 'Ta litro batekin itten bazittun... Hoi, hoi sekula...

2.26. Ugaldetxon maistra

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/017
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:33:22. **Bukatu**: 00:34:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

- **Laburpena:** Ugaldetxoko eskola txikia zen, baina 80 ikasletik gora eduki izan ditu. Gurasoek haurrari gor egitea nahi izaten zuten.

Transkripzioa

- Hoi ze izan zen, gerra bukatuta geo san nazu?
- Bai, bai. Oi, ya tenía título! Titulua izatikin! Geo...
- Lendabizi Parandan'o hasi ziñan, ez?
- Bai. Konforme, biño eskola erekitzeko laundu zin asko apaiza batek. Apaiz batek Irigoien. Don Pablo ez al 'zu... Zuk ez. Aitzia! Anaiya zun kontzejala 'ta harrek asko, tramitaziyua harrek laundu zin hua zeatzen. Gaiñekun papera mordoska bat in ber. Biño ezin deus kosta ez zien. Tokiya zen ttikiya, jende asko barriyotatik torriya. Gaixtua nitzan, biño torri itte'izkiten! ¡Más salaus que ni sé!
- Ez ziñan ordun hain gaixtua izango!
- Orduko gurasuk haurrai gor ittia nahi 'zaten zun, e!
- Hortan 'e difentzi erra bada!
- E? Ordun! Ui, Uaiñ! Nei gaur geo fusilatu ziten! Saten dut. "¡Menos mal de buena me libre!" Uaiñ, tampoco komparatu 're ez, hamabost eun, nik laroeitik gora izan izandu 'ttut, e! 'Ta kartillatik hasi 'ta hasta donde llegues.

2.27. Heziketa

- **Hizlaria(k):** Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-043/019
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Aldaketak: helduei errespetua, irakaskuntza...

Transkripzioa

- Ordun ez zen rekreatio, e! Pentsa 'zu noaiño giñan, ni baserritik heldu nitzan, eta umik ne zai zozten ya atian batzuk, behintzat, 'ta Don Regino meikua. Motua geldittu 'ta (...) Ui ama! Ze iñ ote 'ute hoik? Ze iñ ote 'ute? Eta ni ailletzikin aiyo in nei 'ta martxa. Eta san niyoten: "Ze iñ 'yozute, zer zenuten Don Reginokin?" 'Ta... Izena ez naz gotzen, biño san zun: "'joder', san du batek". 'Ta ordun meikua geldittu 'ta: "San 'zak berriz!" Uaiñ san ber hoi! Denak bocajarro, denak bocajarro! Ordun protestaik ez zen eskolan, e! Al contrario, gor iñ e! Gor in! Biño jo ahora...
- Beste aldea gehiyegi.
- Geo, oain dona da, dena graduatua, numero jakiña, san nahi zattut, dena

klase bera... Leno, berriz, dena difente 'ta deneta ailletu ber. 'Ta ez dela demboik, akortzen naz, komon bat bakarra...

2.28. Gaztelaniaz

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/021
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:37:20. **Bukatu**: 00:38:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Gaztelaniaz irakatsi behar izaten zen eta gurasoek ere hori eskatzen zuten.

Transkripzioa

- Deustako baliyo zuten, tripako miña baldin banu 'ro... Hain itxea jotzen nitzan, e! Eta ordun filan, errespetoz sartu ber izaten zin. Eta arratsaldin... Goiza baldin bazen, goizin, buenos días 'ta, dena erderaz in ber zen ordun! Euskeraz galaziya! Nahiko itten genun euskeraz, e! Haik hazteko ke remedio te iba a quedar, en fin! Eta gurasuk 'e gehina esijitzen zuna hoi zen, e! Erdera gutxi ikasten zutela! Gaizki ikusiyak! Leno be burua gezki ikusiyak!

- Karo berrak...

- Eta mutiku horrek beti saten zun, harrek beti "buenos días" 'o eta nik "felices" esaten 'ta, amana jon 'ta eun batin: "gue maestra hoi zer den, goizin san buenos días 'ta "que dices"! eta arratsaldin san buenas tardes 'ta "que dices!".

- Harek hoi ulertzen.

- Zea 're bai potoko potokua zen, 'ta gerra dembun potokoik ez zen, e! Más bien flaquitos, pero él todavía le veo terziopelozko txaleko batekin, auskalo, amanakin, ordun aprobetxatu itten zin 'ta! Un salao! be tripa haundiyakin 'ta Koxmito nik... Ez jakittetik ze jaten zun, biño, "zuk ze itten zu horren..." Gaiñea kolore batzuk 'ta "horren potokua eoteko?" 'Ta "nik potajia 'ta gisarua!" Los crios son salaus! 'Ta mutillak gehiyo gustatze 'izkit neskak biño, askoz 'e gaiñea, e!

- Zertik?

- Más brutos, pero más nobles.

- Jatorraguak dia.

2.29. Oinarrizkoena

- **Hizlaria(k)**: Berrondo Iartzabal, Luixa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-043/023
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:39:58. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- **Laburpena**: Dotrina euskaraz emateko baimena bazuten, baina gainontzeko guztia gaztelaniaz irakatsi behar zen. Leitzen, idazten eta txekorra saltzeko zenbakiak egiten jakinez gero, nahikoa izaten zen.

Transkripzioa

- A, karo, zuk nahitanahiyez eman berra zenakan erdaraz, e... Kastillanoz man berra zenakan. Eta haurrak ez bazuten

- Esto... Dotriña ez, dotriña euskeraz. Bagenun baimena. Dotriña bagenun baimena, biño gaiñekua, ahal zen guziya... Oaiñ euskeraz barriyoku denak, baserrikak zer! Lana zaila zen. Lana zaila zen! Biño gustoa, gustoa!

- Material dena 're erderaz.

- Dena erderaz. Con una enciclopedia, tenías de todo en la enciclopedia. Libro batekin tema guziyak han zenittun, denak. 'Ta geo matematika asko problemak itteko 'ta Bruñol librua ibiltzen genuna. Zertikan matematika asko zeatzen zen, manejatzen zen. Gehina eskribitzen 'ta letzen 'ta zeatu ezkie, gaiñekua ez ziyoten haimbesteko importantziyik ematen, biño letzen 'ta, baserriko kontu hoik, 'ta txekor bat saldu 'ta harren kontua atea 'ta, holako...

- Bai, bizimoduko ber zin zeak.

- Hori da.

- Bai.

- Hori da.

- Hoi jakiñ ezkie. Geo gaiñea gurasuk... Hoi da, ez? Nahiz 'ta... Ordun ze izaten zen, hamalau urte arte?

- Hamalau, hamalau.

- Biño askotan ya hoi jakitten zenin, atera 're bai eskolatik, ez?

- Bai, bai! Aurrea seittu nahi zunak. Hamabikuk bazin ya, kompazio batea, modua zunak.

2.30. Lana, ikasketen aurretik

- **Hizlaria(k)**: Berrondo lartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane

- **Erref:** OIA-043/025
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Oinarrizkoena ikasi ondoren, lehenbailehen lanean hasten ziren haurrak, eta neguan, baserrian lan gutxiago zegoenean, partikularra joaten ziren batzuk ikasten jarraitzera.

Transkripzioa

- Lanea, lanea. 'Ta neguan berriz hasten zin partikularra.

- A!

- Baserriyan hola izaten baizen, lan gutxiyo ordun. Eta Pikoketatikan etorri in ber zen, e! Nik ordun Pikoketa ez nekin non zen, eta zea, Ualdetxoa 're bai, e! Eta umi haik hola be garaiyin iruitzen ziyoten... Trena hartu nahi izaten zuten eta nik errita igual, oaiñik goiza zela 'ta. Geo konturatu nitzan, gaixuak! Ualdetxotik Pikoketaiño jon in ber da, e!

2.31. Menditik eskolara

- **Hizlaria(k):** Berrondo lartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-043/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:47:10. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola goizez eta arratsalde izaten zen eta ez zegoen autobusik. Auzoetako eskola asko itxi egin ziren eta urrutiko baserrietatik etortzen ziren ikasleak Ugaldetxoko eskolara.

Transkripzioa

- Gorra.

- Bai.

- Gorra! Bizimodu gorra. Zeatik nik hori saten 'yotet, Iturriotzen, Iturriotzen bertan Estrataburu, Zolotier... Zembat baserri! Bazkaltzea itxea jotzen zin, e! 'Ta hamabitan ate 'ta ordu bitako bueltan ber zuten. Biño haik arreglatu itten zin. Oaingo umik jar 'zazu korrika! Ni, ni, ni pensar! Oaingo umik ez du baliyo, e!

- Oainguk eta gu geonek 'e... Ne erarekuk 'ta 're ez, e! Ez, ez, ez. Zuenatik ondoren ya...

- Gu feliz.

- Goiz 'ta arratsalde izaten zen ordun eskola?

- Ordu bitatik lau t'erdita. Arratsaldia. Betzitatik hamabita goizin 'ta ordu

bitatik lau t'er dita. 'Ta geo partikularra. Y había de todo, material pa todo. Haundiyo ok beranduo gelditzen zin.

- Karo, partikularrea jongo zinak, han gelditzen zin, geo...

- Bai, bai, bai. Bai, bai, bai, bai.

- Eta zea, eunero 'ta gutxi jongo zin, eunero 'ta!

- Eunero.

- Bai?

- E... Zeatik zin Trabalekukuk zean Trabalukutik eta Frailik hil zen, anaiya, osaba izango zuten haik. "hobe zenuke lana emango bazeniyoke asteko 'ta astian behin torko balia!" Eske Trabaleku... Zuzperregi. Ume latza zen ordun, e! Illumpetan 'ta!

- Eta auzotan eskolak eta bazin, ba! 'O zue garaiyin...

- Ez. Gutxi.

- Bai, Portuberrin kompaziyo batea, biño Portuberrin kendu zuten ya! Portuberrin Santander.

- Bai.

- Santanderren. Biño Santanderreko pupitrik ne Ualdetxoa karri zizkiten nei. Ordun itxi ingo zen hua. Eta geo bestia hemen Aizabe 'o Aizate 'o... Hor bazen nombatte, hor bazen nombatte mendiyan

- Karrika ayekan?

- Aizate Iturriotzen izango zen. Biño Errentiko partea. Errenteiko partea.

- Txoritokieta inguru hortan zen nomatte.

- Txoritako ez, San Markoko ayekan ez, beste Txoritokita.

- Txoritokita baserriya.

- Bai. Ingurun hor.

- Bai, e...

- Nik ez dakit non den, e!

- Bainteta 'ta inguru hortan.

- Bai, bai.

- Nei eakutsi ziten non non zen han eskola.

- Bai, bai. Nik neonek ez dakit non zen, biño bakit bazela.

- Karo pasten dena da, auzotako eskolan, ira... Maestra aitzen zinak, ez

zekitela haimbeste, ordun haikin gauza batzuk ikasi 'ta geo igual zuena (...)
're jongo zin 'o...

- Dotriña ikasten zuten. Letzen akaso. ¡Lo esencial! Zertik ordun jende asko
zen firmatzen ez zekina, e!

2.32. Neskak eta mutilak, bananduta

- **Hizlaria(k):** Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-043/029
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Ikuskatzailearen baimena zuen Luisak neska eta mutikoei
eskolak emateko, baina orduan ezin ziren nahastu. Batera edukitzen
zituen, baina ahal zen bezala bananduta.

Transkripzioa

- U...! Galdera, galdera pilla erra bai! Zea, e... Gaiñekun, nexka 'ta
muttikuk, bueno, zuk bate ibiltzen zenittun, biño...

- Bai, banun baimena inspektorana. Zergatik nik estudiatu nun tokiyan,
hangua zen 'ta inspektora hoi y de ahi, le conocía y me dio permiso "sé tu
formación y te voy a dejar". Biño ordun delitua zen neskak eta mutillak
elkarrekin... Ongi separatuk 'ta... Negun torri izandu zin nei alguna
denuncia tendría zertikan kargatua eoten zen hasta decir basta! 'ta lanin ai
nitzala ya ne ondoaiño torriya hua, me quede. 'Ta ya me di cuenta nena
bakarra torri zen, oseake aquello ya sé yo que fue una... Un soplo soplo.
No, no, no, no.

- Bestela iñorrek, bestela 're tortzen zin, inspektorik eta?

- Bai. Urtian behingua seuru! Inspetoria tortzen zen! Ez zuten galdera
haundiik itten, istoi 'ta abar, biño pixkat hola zeatu 'ta... No. Biño urtian
behin jenealin bixita izaten genun guk inspektorina, e!

- 'Ta zuk separatuk eukitzen zenittun?

- Ahal genun zeatuna, ahal genua zertik tokiya 're gehiyegi ez zen. Nahiko
juntatuk! Zergatik dotriña 're eakutsi in ber 'zaten genun kumuniyo...

2.33. Maistraren trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-043/031
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:57:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Ugaldetxon, lehendabizi Paradan jarri zuen eskola, eta, gero, Aldabenera pasatu ziren, baina beti toki falta izaten zuen. Ikasle asko zituen eta denak adin ezberdinetakoak. Trikimailuak behar ziren denen atenzioa lortzeko. Leitzen eta idazten nola irakasten zuen.

Transkripzioa

- Separaziyuan 'o hola. Neska 'ta mutilla, 'ta neska 'ta mutilla ez. Ahal genun separaziyo zeatuna. Hemen prueba da, eskolak aparte zin, e! Beko plazan 'e bat mutillana zen 'ta bestia neskana zen. Maria Pilar zeak euki zittun, Gezalak, neska 'ta mutill. Harrek biyek izango zittun noski, bitakuk. Biño gaiñekun hemen, neska 'ta mutill, ez dakit... Ez dakit. Nik zertifikadoik ez nun mutillantzat. Un certificado de estudios aparte ate ber izaten zuten esamiña pasata.

- 'Ta noa jotzen zin?

- Donostira. Ez dakit zein tokita jotzen zin. No sé ahora, a dónde solían ir, pero hara jotzen zin, 'ta ni jenealin atetzen zutenin...

- 'Ta san 'zu Paradan hasi ziñala.

- Bai, zertik lokala ber, eta Paradan bai, Baraibarrena zen. Paradan... E... Taberna zen, ez dakit zuk izautu zenun.

- Aitzia.

- Karo botia do. Eske etxe hoi botia do. 'Ta horrek zun komedoria han 'ta komedoria utzi ziten nei. Han hasi giñan. 'Ta geo hoi berriya in zuten. Ni jontako tokiy hoi Aldabene. 'Ta hoi berriya in zuten 'ta geo hara pasa giñan. 'Ta han tokiya gehixio bazen, biño gehiyo ber nun.

- Larogei san 'zu?

- Bai 'ta gehiyo igual. Neguan gehiyo igual.

- Asko.

- Lana osasuna da, horregatik lana in zuek!

- 'Ta nola moldatzen ziñan larogeikin?

- Pues yo no sé cómo me arreglaba!

- Aurrin ttikiyak eta hola eukitzen zittun.

- Bankuk banittun 'ta ttikiyakin 'ta. Pues a todo y a todos le daba repaso al día, e! Lendabizi leziyuk 'ta, leziyuk bazin trampa... Toki fijun hua galdetuko nulako nik hirugarren puntua 'ta laugarren puntua (beitu) bai to! Eta geo pues leziyuk hartu, geo esto... Ditaduk, behintzat, fijo, e! Ditado, eskribitzen, behintzat ikasti hoi... Lendaizi kopia, kopia in ber, lendaizi muestrak in, geo kopia, geo ditado (...) 'ta lecturan lo mismo, lendaizi kartilla, geo katona y luego el patito. Inesek 'e sango luke oaindik el patito.

Harrei kosta 'men ziyon erki patito... Ne erreñak hala saten 'u: "patito zar hua erki kosta ziken pasten!"

- Zer zin, libruk? 'O...

- Libruk, libruk. Eta geo ya hortik aurrea, pues importantzi gehina maten 'tzaiyon leturai, letu 're bai. Den-denai ez bazeniyon ingo 're, saltoka, behintzat, atentziyua iyuki 'ta saltoka eote horrekin como ya te seguían la lectura truko batzuk ber día, de... De un poco de truco, que estén al tanto. Bestela... 'o kopitzeko man 'o, zerbatt, zigorra man 'ta ya, con eso ya tenían más cuidau! 'Ta geo kuentai maten zitzaiyon. Suma, tableruk jenealin (...) sumakuk eaman 'ta, hairi zeatu 'ta, geo restakuk eta, geo multiplikaziyokuk eta...

- Pizarrakin hola...

- 'Ta pizarrak, bai! Pizarrak. 'Ta tinta 're zeakin, geok iña. Zea guziyak tinta botzen zutenin, tinterua erra gelditzen yun zea, pupitria! Biñon, neskak kuido haundiya izaten zuten, e! Maiyak garbiyak iyukitzeko 'ta... Mutillan aldin...

2.34. Emakume langilea

- **Hizlaria(k):** Berrondo Iartzabal, Luixa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-043/033
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 01:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Ugaldetxoko eskolan berogailua ez zebilen oso xuxen; hotzak egoten ziren. Luisak ez zion lanari beldurrik. Ugaldetxoko eskolez gain, partikularrak ematen zituen, eta hiru seme-alaba hazi zituen bitartean. Gero, jubilatatu ondoren, bilobak zaindu zituen.

Transkripzioa

- Nik ikusten nun, negua 'ta, eskuk asko sartzen zittula pupitrea 'ta "gizajo honek ze demonio du?" 'Ta botill berua, ur beru iamana!

- Gixajua!

- Karo, han oaingo kalefaziyo eta...

- Nada. Uf! Estufa bat auro bai eosi, zeak ekarri zin gaiña, Xeberonekuk, apaiz horren meriyo Luzuriaganin lana itten 'ta hua zen estufa... Oartzungo ieltsero denak eaman nittun nik! Biño titzen ez zuna! Keba, keba! Guk negu guziyan ijito usai bat ber genun! Ke usaiya, arropan 'ta ke usaiya, ijitu usaiya!

- Oaiñ ya ez do usai hoi 're!

- Eta geo tubun uniyotan 'ta mutillak aski onak, Barrenetxea 'ta, Manolo

Barrenetxea 'ta hoik aski onak bai, hoik buztiña karri 'ta buztiñakin junta denak hartzen 'ta gu nola aitzen giñan! Biño bakar bakarrik, bian bagenun bizilauna, eta beko bizilaunak harrei empalmatuta bai, biño harrei kalte itten geniyon, béa sukaldeko gaizki, 'ta klaro, por nosotros... Gaiñekun batea jarri, beste jarri, 'o alturik ez du... Nik ez dakit zertik, ijito usai bat gue arropak! Ez ga hola bizittu gu. Hanketako hotz erra bai, gaiñea lendaiziko semia jaio zenin, puf! Arratsin loik itten ez. Hurrungo eunin loalik amorratzen! 'Ta lana in ber! 'Ta negu biziya! Leiyuk ereki kamiyo ayekakuk 'ta hotz errakin bai, zeai kontzetik, lua pixka 't despejatzetik.

- Jo!

- Jo! Sí! Hok ez dia konturatzen.

- 'Ta geo etxea torri 'ta etxeko lanak! 'O gizonak itten zittun?

- Asko artoxua zen. Artoxua zen.

- A bai?

- Artoxua zen. Ez, geo hok zeak amonak iukitzen zizkin, e! Gizonan amak iukitzen zizkin umik. Harrek haziyak zin 'ta geo hoi nijun ni leno satea, neriak ez nittun ne gustoa hazi, eta nik bukatu nunin, hau esperun eoki! La tuntuna de mí, en lugar de ir a viajar por ahí, le dije: " ya te voy a criar yo" eta nik haziyak, launduk, behintzat. Lotako béak hartzen zittun, biño gaiñekun ez zun kuidaduik haurranik euki izandu honek. Bi haurrak nik zeatu dizkat. Eta hoi 're pentsatzen eoten naz, hirugarren pisua, zertikan geo bizitzea torri giñan handik, itotiya ikaragarriya 'ta, pasteleiko atzi hortan, 'ta hirugarren pisun haurra nola antolatzen nitzan! Ordun 'e bazkaiya jarri, hairi jaten man, bestia ikastola zeatu, no sé cómo me arreglaba, pero ya pasó todo! Eta behiñ 'e ez nitzan berandu jon eskola! Eaman berandu behiñ ez, 'ta billa 're billa behiñ ez. Lo que más me llamaba la atención era esto, nik hoi ez nun enteintzen! Umik.

- Ikusi gabia hola!

- A, karo, hara joten ziñanin... Karo!

- Eta zeakuk 'e bai, e! Autobusin pargulituk, haik 'e hola iñez!

2.35. Jainkoaren grazia edo lanarekin irabazia

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/022
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:46:17. **Bukatu**: 00:48:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Arroxak gogoan du oso txikia zenean gertatukoa: amak sosa eman zion haur-zaintzen gelditu zelako. Ijitoa etorri eskean, eta

amak emandako dirua eman zion. Amona batek esan zion gauza ederra egin zuela eta jainkoak leihotik gauza asko sartuko zizkiola. Hika.

Transkripzioa

- ...'ttu honek. Hoik terreno hoik denak neriak dia; baatziak eta hoik denak, honenak dia, itxia honenak.

- Bai, bai. 'Ta ordun 'de oaiñ miño merkeuo zen miño ordun 'de dirua zen.

- Diru asko!

- Len 'de erregalo ez zela.

- Bai, diru asko zen ordun. Nik san niyon... nik anekdotak aleiya... nik kontatutako anekdotakin atera zula semoia, apaizak esan zin. Nik, beti gauzak gouan ibiltzen dia, zazpi urte nittula 'o hola, gue amak 'e in ber izaten zun, taberna zun 'ta jendikin artajorran 'ta lana, eta Mieltxo, leno san dut; Tromoiyana, horren amona zen Xaturnina, eta hoik... Mañula horren ama, Mieltxon ama 'ta hoik neskaxa gaztiak 'ta itten zuten fabrikan lana, miñon ez dakit, urtian hiru hilate 'ro fabrikak biali itten zittun, 'ta ordun artajorra 'ta ibiltzen zin eta gue itxea asko jotzen zin 'ta... horren ama Xaturnina, sekulan... oaindik 'e begitan zakanet. Zazpi urte nittun, oaiñ larogeita kontuk satea nijua, beno, gehiyo gañea... Eta ama neria haik... zelaira jon ber haikin 'ta bi sos man 'ta: "Zuk kontu haurrai" 'ta haur kontzen ni geldittu nitzan 'ta bittarti hartan amona hoi ailletu zen 'ta ijito bat eskea, ordun gehiyo ibiltzen zen eskian, 'ta nik ez dakit ba, bi sos haik amak manak izaki 'ta haik hartu 'ta man niyon ijitu harrei 'ta amona horrek ze esan zin... Oaiñ, saten zin apaizak, "'Ta oain ze pentsatu?", 'ta "Ui...", san zin "Ai, gaixua! Ze gauza erra in 'zun e! Ba, zuk hoi in 'zu 'ta Jaungoikuk leihotik gauza asko sartuko zattu zuri" 'ta ni "Ui, ze sartuko 'te nau?" Harta. Miño geo haundittukin pentsatzen bazu... honek san zina: "Nik hara: Gizon bat ona eman, famili erra, ume onak, neone... hoi denak leihotik 'o nombaitik sartuak izango dia". 'Ta horrekin sermoia ate zula. Anecdotas.

- Jaungoikuk emango zizun, miño zu saiatuta 're bai, ez?

- Klaro, harek beste saiatu in ber da. Betela lan erra zakan! 'Ta holako kontuk asko dia, bizitzan. Batzui san niyon: "Nik?" Attona zar batzuk hor bizi... "Atsua hau beti hemen dailla. Be denbu guziyan ez du lanik iñ", "Hik ez duk oaiñik ixkin bat 'e iñ nik aiña", behin san niyon atton batei: "Izkiñ bat 'e ez duzu zuk iñ nik in ttuten lanak, ixkin bat 'e".

2.36. Errepublikan dotrinarik ez eskolan

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/002
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- **Laburpena:** Juanitok gogoan du Errepublikan gurutze denak kendu zituztela eta dotrina ez zela ematen eskolan. Beren etxean hartzen zuten dotrina. Gerraren ondoren, berriro jarri zituzten gurutzeak.

Transkripzioa

- Hoa kendu 'ta zea, republikanuk jarri zianian, gurutzia denak kendu in zittuzten. Eskolan ez zen maten zeikan, dotriñikan 'ta hola. 'Ta geo berriz zea

- (...)

- Sí.

- Hemen gambaran?

- Bai, eualdi txarra itten zenian gambaran 'ta bestela berriz, kampun itzalin, biño zean, eskola barrenin ez. Hoi republikako demboan, enteintzen? Gu eskola joten giñanin. Geo berriz ya gerra hasi zenian, zea, berriz jarri zin gurutzik, biño geo, gerra hasi 'ta geo. Gerra bukatu zenian!

- Ya ya. Ordun, gerra aurretik, republika zelik, hor ez zen eskola maten.

2.37. Errepublikan, eskola euskaraz

- **Hizlaria(k):** Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-060/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Euskara » Euskararen egoera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerran ezin zuten eskolara joan, soldaduak sartu baitziren bertan. Errepublikan euskaraz ematen zen eskola. Bi maistra ziren: Delfina Perez, neskekin egoten zena; eta Maria Altuna, mutilekin egoten zena.

Transkripzioa

- Zu're gotuko za hoi, ez?

- Ni jorra gutxi iña naz eskola.

- Gutxi.

- Biño garai haitan!

- Bai, bai, garai haitan.

- Garai haitan 'e zen gerra 'ta ordun (...) eskola,

- Bai,

- 'Ta eskolik gabe geldittu giñan hemen 'ta, nik eskolan hamabost eun 'e ez 'ttut iñak.

- Soldauak sartu baizin, eondu baizin hor. Gerra zen bitartian.

- Eskolan?

- Lotan 'ta. Bai.
 - A...! Ordun akabo eskola!
 - Bai, biño geo berriz 'e seittu zun berriz.
 - Bai, biño geo ya ni eskolan hasteko, ya doktriña 'ta hoi den guk hemen eskolan ematen genun, hemen ez. Orduko ya, gu, ni juten nitzanin. Orduko bai.
 - Karo, zu ya gerra hasi 'ta, gerra bukatuta...
 - Ez, gerra bukatuta... Ni ya eskolan hasteko, ya zeatua zen.
 - Ya pixkat kalmatua.
 - Kalmatua bai.
 - 'Ta republikan ze maten zen euskeraz 'o kastellanoz? Eskola?
 - Hemen?
 - Bai.
 - Euskeraz. Euskeraz.
 - 'Ta maestra... Zer zen maestra 'o maisua 'o zer zen?
 - Maestrak. Bi maestra zian.
 - Bi? Bi bazin, e!
 - Bai.
 - Neskana 'ta beste mutillantzat.
 - Jendia asko joten zen. Honea barriyo guziya tortzen baizen. 'Ta bi...
 - Neskan mestra yun zea, Delfina Perez. Eta mutillan maestra zen Maria Altuna.
 - 'Ta Oiartzunguk zin hoik?
 - Ez.
 - Ez, Donostikua.
 - Ez dakigu.

2.38. Eskolak eta Eguazkialde

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/006
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Gurutzeko eskolak Diputazioarenak ziren. Juanito mutil koskorra zela egin ziren bere etxea eta eskola. Galdosena bezala ezagutzen dugun etxea Eguazkialde da eta bi puskatan egin da.

Transkripzioa

- 'Ta hoik zer zin, nik aitzia badut Diputaziyunak 'ro zila eskolak? Beste auzotan ez bezela diputaziyunak zila 'ro...
 - Bai, bai.
 - Garai haitan diputaziyuk in zittun hoik. Haiyen eskutikan behintzat. Haiyen eskutikan.
 - Ordun zuek beti izandu zuten hor eskola?
 - Hoik in zian ni mutil koskorra nintzala in zian. Eskola hoi 'ta itxi hau're bai honuzkua. Dembo berian in zian. Leno gu han bizitzen giñan 'ta geo eskola 'ta hau dembo berin in zian.
 - Hau gerra hasteko bukatua zen, iña zen.
 - Bai, bai, iña bai.

- Gu gerra, gerra gu torri 'ta seittun hasi zen gerra. Gu honea lartzatik honea torri 'ta seittun gerra hasi zen bai.

- Hogeita hamaseiyan.

- 'Ta enkarguta honea tortzen giñan ordun'e.

- Bai, itxi hau da bi puskatan, bi puskatan iña itxi hau. Hauzko ayeka, erdiyan hauzko ayeka, hau, aldi hau biño hamar urte gehiyo, zarruo, zarragua da. 'Ta hok anaiyak denak, ni ez gaiñekuak han jaiyuk dia 'ta ni berriz itxi hontan.

- Hau hemen.

2.39. Palankariak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/016
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:29:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Palanka jaurtiketan aritzen zen Baltasar; horregatik deitzen diete palankaritarrek ondorengoei. Xanisteban batzuetan, palanka tira eta posta barrura sartu zuen leihotik. Bera eta semea aritzen ziren.

Transkripzioa

- Hoik zean jaiyuk izandu 'ttuk, zean, este... Ameriketean.

- A bai?

- Bai, bai. Biajedenobios hara jon baizin hoik. 'Ta geo han lanin aittu 'ta han jaiyo 'ta torriyak bai.

- Atta... Balta... Baltaxar

- Bai, e?

- Bai.

- Atta, attona Baltasar zen hoikena. Baltaxar.

- Baltasar, bai.

- Baltasar. Palankaiya hua zen, begi bakarra. Begiya ez dakit nola galdua zun, begi bakarra zen.

- Harrekin ongi beituko zun?

- Atton konkor erra! Jolin!

- Bai. Hua gizon haundiya zen, e! Fuertia!

- 'Ta gotzen al zazte bea palanka titzen 'ta? Gotzen zazte?

- Bai, bai. Oiartzunen tiko zun harek.

- Oiartzunen beko plazan ti zun.

- Beko Plazan mutur batetik bestea tia 'ta!

- Hoixe. Fiestetan 'ta hola titzen zun. Bai. 'Ta semiak 'e bai, Joxek 'e. Hora hilla da.

- Bai. Harek dexente (...) zittuen, e!

- Xanistebanetan eun batin hola tira zin, 'ta zea sartu zin, Postako zea hartan, leiyotik hara. Tira 'ta jia barrera...! Barrenin graziyak ez zula ezer harrapatu! Lukasen, zea...

- Bai, leiyotikan.

- Leiyotikan.
 - Ordun...
 - 'Ta hua bakarra al zen hortan aitzen zena? 'O norbatt gehiyo bazen (...) palankaitarra?
 - Hemen ez. Hua 'ta semia, gaiñekun ez da hemen.
 - Hemen ez.
 - Hua numbatte berez zeakua zen, Goierrikua.
 - Goierritarra.
 - Goierri aldekoa, ez dakit ze herritakua zen, biño... Geo hemen esposatu zen, Txipin 'ta Txipira torri zin lembizi
 - Ez, ez, ez. Lazkamburura.
 - Lazkamburura.
 - Lembizi eosi zun Lazkamburu, geo hasi zian esneketan 'ta abar Donostira 'ta geo eosi zun Txipi.
 - Geo Txipi eosi.
 - Txipi eosi 'ta geo itxia arreglatu 'ta beák in zuten hoik.

2.40. Mirakruzeko nagusiak, mutil koskorretan

- **Hizlaria(k)**: Zabaleta Labandibar, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-075/003
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Mirakruzen bizi zirenean, meza-laguntzaile ibiltzen zen. Puertotik kamioiak ezin igorik ibiltzen ziren, eta mutil koskorrek kokoak eta platanok lapurtzen zituzten kamioietatik. Ategorrietakoak kontrarioak zituzten. Mendiolara joaten ziren lapatara.

Transkripzioa

- 'Ta holaxe. Hoi ya graba... Hartzen... hasiyo al 'zu hartzen?
 - Bai.
 - A...!
 - Hoi dena jasotzen ai da.
 - Pues... Geo monjatan monagillo 're ibiltzen nitzan ni ordun han.
 - Han?
 - Bai, Altomirakruzen. Monagillo! Jolin! Han itten genittun guk... Bo! Herreran eskolan ibiltzen giñan, Herreratik eskola, Altomirakruzea, pues, kamioyak ordun iyotzen zian puertotik kokokin, platanukin 'ta maldan gora ezin iyo garaiy haitan, bakizu, kia besteik ez, bum, bum, bum, bum, bum. Ke tartian 'ta, gu koko lapurtzen hairi! Bai. 'Ta itten genun koko hartu 'ta kolkuan 'o bolsillotan sartu, 'ta geo sakristiara joten giñan, zea, eskolatik ate orduko han izaten genun ilunaarrero zea, 'ta hara joten giñan 'ta geo han zean utzi. Beti kokok, ze sakristiyan... Hemen sakristiya saten da, zea 'ta... Hara jon 'ta han utzi kokuk barrenian, 'ta geo zea hoi jantzi 'ta apaizai launtzea joten giñan. 'Ta hua, gu, geo hara joten giñaneako, monja bat bagenun arron maja 'ta harrek torri 'ta denak biltze 'izkigun 'ta beák eaman. Bai, 'ta beák parra itten zigun, beti gui.
 - (...)ez zun maten?

- Ez, ez ez. Ez zun maten. Batin meza launtzen ai zela, (...) meza maten 'ta gu ra! Zuzenian jantzita jonga 'ta platanuak eta bolsillun, 'ta hola, aldarea distantzi puska itten zen 'ta nei platano bat hola eroi zian (...) ai giñala 'ta monja hua diximulo errian, atzin zea zon han ordun, silla bat, zea bitartian, bakarrikan monagilluk eta monjak eta ibiltzen zin. Monja hua jon 'ta platanua kendu 'ta sakristiyan eaman 'ta... Gu gaztetan arront... Boa! Altomirakruzen gu giñan ordun bertako nausiyak bezelaxe, muti koskor guziyak. Barriyoko zeak.

- Karo, hua dena zea (...)

- Ba! Gu denak han ibiltzen giñan... Muti koskor guziyak... Denak hantxe. Fubolian 'ta denak harrika, Ategorrietako jendiai,

- A bai?

- A! Barriyo bat bestiai. 'Ta Altomirakruzkuk jeneralin gorrotua Ategorrietakui ziyoten, geniyon, 'ta Intxaurrondo... Este... zea, Herrera aldea, geo eskola 'ta hara joten giñan beti 'ta, 'ta Intxaurrondoa 'ta, hoikin ya...

- Haikin ongi! Ategorrietakuk!

- Bai.

- 'Ta Ategorrietakuk zer zin (abetxixiuk) 'o hola? 'O zuek bezelakuk?

- Nik ez dakit, beti xexiyantiuk 'o... Ez dakit ze! 'Ta Ulia aldea iyo haik kuadrilla 'ta gu 're bai hortik betik gora Mendiola aldea. Mendiola ez dakit bakizun non den? Mendiola gaiñ hortan! Hara iyo 'ta gerra han, harrika bata bestiai. Bai. Hola ibiltzen giñan gu gaztetan, zea hoitan, gaiñ hoitan.

- Erki gotzen za?

- E?

- Erki gotzen za hoi dena!

- Jolin! Geo attakin lapata jaitan nola joten giñan 'e bai. Zea, Mendiolan hauzko aldea, arrokata. Lapata 'ta. Lapak harrapatzea 'ta.

- Bai, bai. bai.

2.41. Mandoei begira

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/002
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:00:52. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Domingoren familia Ardotzera joan bazen ere, berez Maxalengoak dira. Maxalengoak mandazainak ziren eta egur-ikatzak garraiatzen eta saltzen aritzen ziren. Domingok nahiago zuen mandoekin lanean aritu eskolara joan baino. Eskola gutxirekin gelditu zirela baina kontuak eramateko adina badakitela dio. "Aurreko opiziyua ondokuk e". "Holaxe puxkatin ibili ginan". Tratalaia.

Transkripzioa

- Lembizi eskola 'ta manduk eta itxian ikusten nittun muti koxkorretan 'ta, jode, eskola... Eskola haikin joteko bai goua, biño gauza ez! 'Ta eskola jon ber 'ta, eskola hasi giñan. 'Ta lembiziko eunetan gustora. Arropak eta, galtz... Zapatak eta, pollittak eta, geo hausten hasi zinin komeiyak! Hausten hasi zinin berriyik ekartzen ez amak eta, zaharrakin, bestik

berriyakin 'ta gu zaharrakin ez jon nahi 'ta, erdi nearrez hortxe goizetan. 'Ta beno, nolazpatte, nolazpatte, galtzerdiyak 'e orpotik hautsiyak eta, kampoate itten 'ta, nearrez goizero. 'Ta amak berriz, "segi, segi! Sartu azpira 'ta segi!" 'Ta eskola jon biño leno, berriz 'e kampoate aterik! 'Ta nolazpatte, nolazpatte, beti segi beti segi, segi, 'ta nozpatte hamar urtea 'ro ailletu giñan, 'ta hamaika urte komuniyo haundiya iñ 'ta, geo beti, beti manduri beira. Beti aurreko ofiziyua ondokuk 'e. 'Ta nozpatte koxkortzen lembiziko hasi giñan, ama jotzen zen ikatza saltzea zeakin, karrukin, 'ta gu amai launtzea. Ama guria fuertia zen 'ta indarra zun 'ta guk harrei laundu altxatzen 'ta geo harrek karrun gaiñea bota. 'Ta holaxe puxka 'tin ibilli giñan.

- Eta orduko eskola utziya 'o bi gauzak itten zenittuzten?

- Bai, utziya. Ez genun nahi orduko utzi! 'Ta oaiñ eskola ttikiyak gin geldittu ga. Beno, sumar 'ta restar 'ta multiplikar. 'Ta... uaiñ 'e... Uaiñ 'e txokor bat saldu ber baldin bada, bihatzak kontatuz ez ga diskuitzen, e!

- Diskuitu ez!

- Oain 'e kontuk atetzen 'ttut! 'Ta tratalaiya tortzen bada 're, ai! Guk 'e kontzen giñun gen tontuai, geonai!

- Bai. Karo.

- 'Ta hola ate 'ugu bizimorua. Geo, geo manduakin hasi giñan. Beste anaiyak gin launtzen 'ta. Geo bat soldao jon zen 'ta bestia 're bai gerra 'ta. Geo bat libratu zen, bi soldao zeneko, bat libre. 'Ta bat libre 'ta, harrei launtzen 'ta. Geo hua 're eaman zutenin, geo gu bi anaiyak gin geldittu 'ta bestik torri 'ta fabrikan hasi zin, zarrenak, 'ta geo... Azken... Ne aurrekua jon zenin ba ni attakin gin geldittu.

- A!

- Ni hamabost urtekin zazpi mandokin bakar bakarrik jotzen nitzan zeara, Errentiko kubostikan bentasa. 'Ta attak kargatu 'ta nik segi. Biño hale 'e eskola utzi nunin, konten jotzen giñan manduakin 'ta!

2.42. Aierdiko eskola

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara Aierdira joan ziren. Maistra kastillana zuten. Esku batean behatz bakarra zuen, baina harekin ederki kontzen zion masailari. Aierdin bertan bizi zen. Eskolara apaiza etortzen zen zinemarekin. "Holako santo eta halako santo ta... bai! guk santua lurrin aztarka, olluak bezela". "Bihatzen motza harrekin ta-ta-ta". "Lañtilde;eza geyegi re". Aztarka. Punttaran.

Transkripzioa

- Eskola Aierdira!

- Eskola Aierdira 'ta han 'e maixtra zea genun, kastillana. Esku batin bihatza bakarra zun, biño bihatz harrekin erki kontzen masailla! 'Ta kontuk eta hizketan ustegabin 'ta, etorri 'ta kontu bihatz motz batekin 'ta bestikin ta, ta ta ta... Ixillik!

- Bai makillakin 'e! E? Makillakin 'e! Harrek makillakin 'e jotzen zun, e!

- Makilla uste 'ut zea, bihatzak elkarren onduan jarri 'ta jotzen zula 're, uste 'ut jotzen zula, e!

- Baita buruan 'e!

- Ordun kazkako mordoska jasuk!

- Bai, leno maistra 'ta maistran 'ta mendin bizittu ga leno. Uan berriz, aldrebes.

- Uan aldrebes.

- Uan... Kutxilluk atetzen 'ute ume koskorak eta...

- Oain maisuk beldurrak!

- 'Ta ño! Hau 're...

- Ez, hoi 're...

- Hau 're ez da gauz iokiya e! Lañeza gehiyei 're...

- Bai, lañeza punttua eyote kontu 'ta! Hua gehiyeiya 'ta hau gehiyeiya

- Bai, hoi da.

- Horrei kontu ber ziyoten 'ta ez baiyote kontu!

- Ez. Batetik bestea in du 'ta! Karo, oaiñ hoi atzea itten zailla! Bai, bai. 'Ta harek kastillanua zen, 'o euskeraz bazekin...

- Kastillana zen.

- Ez zekin eskuaraz.

- Eskuaraz ez zekiyen.

- 'Ta nongua zen hua?

- A! Ez dakit nongotarra izango zen hua.

- Hua ez dakit nongua zen.

- 'Ta lo 'ta non itten zun?

- Hor ba, hor.
- Hemen, hemen, eskolan. Hor hiru bizitza bazin leno.
- Ez, bi, bi hemen. Bat maestrana 'ta bestia zeana.
- A bai. Joxepa 'ta bestia zea Txampaiñe bestia. Bi bizitza bazin bai.
- Oaiñ 'e bai, oaiñ 'e Jesukristo bizi den hauzku hoi, hoi herriyana da.
- Hor biziko zen maixtra!
- Hortxe.
- Eta bian eskola?
- Bian eskola.
- 'Ta mordoska...
- 'Ta eskolan... Eskola illunaarretan tortzen zen apaiza, 'ta zea itten zun, zinea, zinea bezelakua botzen zun. Zean, paetin jarri zea, maindire zui bat 'ta gu hor lurrin eseita 'ta hautsa 'ta gu hautsakin aztarka 'ta hautsa arrotu itten 'ta geo guri beira jarri zeakin, tele, zeakin... Apaatukin 'ta gu kieto ixi ixillik, kieto geldi geldiik. Eta apaizak ez iertzen. Biño apaiza beste aiyeka botzen ai zela, zea, holoko santo 'ta haloko santo, 'ta bai gu santua lurrin aztarka, oilluk bezela.
- Kaso pilla erra itten zeniyoten!
- Bestela kastiguk ikara maten baizuten!
- 'Ta hua illunabarrin tortzen zen! Illunabarrin?
- Arratsaldin.
- Arratsaldin.
- Bai. Eskola atetzeko punttaran 'o.
- Hoi ez al zen astian behin izaten?
- Astian behin tortzen zen.
- Ostiala izango zen. Ostialetan.
- Ez dakit ze eunetan tortzen zen.
- Ostiala uste 'ut zela.

2.43. Elizako betebeharrak

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis

- **Erref:** OIA-082/010
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Konfesatzera joan, eta azkarrena, aurrena. Apaiza batzuk gaiztoak ziren; besteak, hobeak. Libretarekin ere joaten ziren; pezeta jarri behar izaten zen. "Hua gaixtua zen arront". "Pekatua zer tzen ez genekigun miño".

Transkripzioa

- 'Ta konfesatzea jonta 're pizkorrena aurrea 'ta! Han Serora 'ro, emakume 't biltzen zen 'ta "aizu, zu zea, ni hau biño lenuo naz ni 'ta" beno, harek besotik heldu 'ta jarri aurrin 'ta hua 're moldatzen.

- Eta apaizak zein zin ordun?

- Apaiza...

- Don Antonio.

- Don Jose...

- Don Jose ez. Hau ez ordun. Don Jose Bergaetxe ez. Don (...).

- Ez geoztik geo.

- Geoztik. Don Antonio 'ta, Don Pablo 'ta, Don Juan 'ta.

- Don Juan 'ta Don Jose Luis.

- Don Jose Luis.

- Don Jose Luis tortzen zen. Bazen beste bat, Don Eustakio. Gaixtua zen arront. Harrei lurrin harri koxkorrak billu 'ta han belauneko jarrazi 'ta... Hua gaixtua zen. Biño Don Jose Luis 'ta hoik, ez, hoik pranko gizon onak zin.

- Don Jose Luis zea beti, "zuen txerri tokiyan bauk Jangoikua 'ta..." hola, dena holaxe.

- Bai.

- Gizajua!

- Ez zea 're joten giñan libreta 're. Astian pezta bat 'o ez dakit ze jartzen genun.

- Hillin, hillin ez al zen izaten, hillin pezta 'ro?

- Hillaetin pezta 'ro, hillaetin 'ta... Joten giñan 'ta be esplikaziyua itten 'ta gu berriz, esplikaziyua alde iñ nahi handikan 'ta. "Hi txikito, Jangoikua non duk?" " Leku guzitan!" "'Ta zuen txerri tokiyan 'e ba al duk?" "Ez, guk ez dugu zerri tokiyik!". "Beno, ongi ziok!"

- Jo, erra. Konfesatzea jonta ez zenuten pekatu haundiyik izango, Domingo?

- Konfesatzea, konfesatzea jon 'ta, behiñ 'e pekatua san ber, zer zen, pekatua zer zen 'e ez genekigun, biño... "Amai erritan 'ta amak sana in nahi ezik 'ta."

- Maldiziyon bat 'o beste 'o... Hola.

- Zerbatte barrenin saten zun 'ta salbe bat errezatzeko 'ro 'ta. Geo harek gurutzia eskukin itten zunin, ordun martxa! Poza erra bai ordun!

- 'Ta hara 're oiñez, kalea, ez?

- Oiñez, hoixe! Ordun ez zen kotxeik eta deus 'e.

- Dena oiñez.

- Oiñez.

2.44. Haurren heziketa

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/006
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:08:34. **Bukatu**: 00:12:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena**: Frantxiska Txarondokoa da eta Txanpañera ezkondu zen. Inguru hartan haur asko ibiltzen zen eta haiei errietan aritzen zen, ongi hezi nahian. "Gustatu zitt". "Kakaxu zikin bat". "Maisua denak maisu ber du". "Gu geok hor ibili giñan". Zapotia. Eju. Amilka. Hika.

Transkripzioa

- Ni prankotan mintzatu nion handikan 'e. Ni ixillik eoteko ez ona. Mezi zutelako itten nitzan maixtra... Maixu txar bat bazen. 'Ta umik aldrebes 'o baldin bazabiltzan, kasoik itten ez ziyon kakazo zikiñ bat. Kastillanua zen. Gu han eondu giñan dembuan. 'Ta batin neska hartu 'ta neska mutillak jon haunzko erreka 'ta botilla bete ur ahotik sartzen hor hasi 'uk. "Itto in ber al duk? 'O ze?" Eju ingo niyon. Ikaarrizko ejuak atetzen nittun! Da! Neska alleka batea 'ta mutilla bestea! Fuera! Nik behintzat, beexi itten nittin! Oaiñ 'e eju itten 'ute elizatik 'ta askotan. Uker daillenai beitu in ber dela 'ta! Nik banun hoi, e! Kostumbri hoi.

- Biño ordun kaso itten ziztuten, biño oaiñ ez lizuteke ingo!

- E?

- Uaiñ ez lizuteke ingo!

- Igual ez ziten ingo.

- U! Purrustan bat in 'ta! Hoi 're kambitu da erki! Izan 'e, zuk zuriak ez, biño illobak haziyak 'ttuzu, zuk, ez?

- Illobak nik hogeita hamar illoba 're baazkit nik. Itxekuk hamar bazin, itxe ondun bertan. Behintzat, aldrebes kusi ezkio nei... Hairi hoa, txar hoa galazten beti gustatu zit nei. Ez da oker ittia.

- Ez, ez. Eakutsi in ber da, ez?

- Bai, behiñ biño gehiyotan in izandu dut. Beste batin pilla bat lurrin amilka. 'Ta azpiyan dona nola eote, izango da? E? Eju iñ, ordun 'e eju in nun. Hauzko maldatik 're denetik beira jarri zizkiken. Ai...! 'Ta zea, iya itto, itto in ber zuten azpikua 'ro! Maixuk beira beira 'ta kasoik ez. 'Ta Galtzatako Maitxon alaba izango zen mintzatu zena. Zea: "amai sango ziot, e! Harrek hitza hoi ate zun. Maixua geruo mintzatatzen ai bazen, batez! Orduntxe neonek. Maixu denak maixu ber du!

- Biño maixua, zein saten 'zu? Ergoingo eskolatan, 'o Aierdin zen?

- Aierdin.

- A, bai, e? Zuk 'e izautu zenun eskola?

- Bai.

- A!

- Gu geok hor ibilli giñan. Bai, Jesus! Hua sua maten ziten nei halakutan! Gue Xegundo bea 're zako batin bat sartzan hasi ezkio, hark kazk! Itten 'men zun, e! Guriak! Hoi panadeiyan aittu zen Xegundo, guria. Geo soldao jon zenin, han 'e, han 'e aldrebesak agertu itten ba! Hor hasi 'men dia irin zakua hustu 'ta irin zakua bakizu zer den, zikiña da, 'ta hauts hua dena abea 'ro! Eta hoi muitzen 'zan ber zun guri hoi. Jeniyua beretxua izango genun 'ta muitzen zena. 'Ta hala zakotik itto ingo 'men zuten bestela 'ta, muittu in ber norbaittekin. Ba hoi, bo! Bestela jo 'ta akatuko zittula 'ta larri izan ber zittun. Indarra 're bai horrek. Zepotia beti izandu du gue Xegundok. Non eondu zen hua soldao? Burgosen...

2.45. Lixiba eta egurra

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/020
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:33:49. **Bukatu**: 00:37:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
 - Natura » Meteorologia
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Gobada nola egiten zen. Gaztainaren su-hautsak ez du balio lixiba egiteko, tinta baitu. Txarondoko atarian urkia zuten eta aitak senide guztientzako zurezko potoak eginarazi zituen, taloa eta esnea

jateko. Ilargiari erreparatu behar zaio egurra mozteko: ilbehera eta ilberri mugetan moztu behar da. "Etzizu ihartuko hura". "Denak esku antzakoak izaki". Hark. Lixiba. Zurazkua. Kierra. Abatxak. Barrika. Kupela. Karga.

Transkripzioa

- Bai, bai, amai beira ikasi genun!

- Erki. 'Ta geo zea 're kontatu zenin, goara 'ta nola itten zenuten!

- A! Kuela!

- Bai.

- Zu hartzen ai al za hoi denak?

- Bai, bai, hartzen ai da.

- Hartzen ai da.

- Bai, bai.

- Kuela saten geniyon lau hanka... Hiru... Hiru hanka izaten, izaten zittun, hoa. Itten genun arropa... Zeatu.... Kolozkua zeakin garbitzen zen, ai, saten zitzaiyon... Lixiba. Zea botzen zuna, zuriyak. Jarri arropa ahalik eta txukunena gaiñin 'ta geo... Ze jarritzen zen? Lembiziko arropan gaiñin jarri ber zen xapa, xapi garbi bat, geo xakuk... Zakukizkua 'ro holokua. Eta geo gaztaiñan zeak ez du baliyo izaten, len 'e san... San nun hoi lengun 'e!

- Su hautsak?

- Hautsak ez du gaztaiñanak baliyo! Tinta baitu!

- Bai, san zenin bai!

- Ikaarizko tinta du gaztaiñak. 'Ta bestela itten genun. Beste eozeiñ eur. Urkiya 're bagenun arbola galanta guk ataiyan 'ta. Urki arbola, gue atta zenak, biño denantzat potuk, harrek berriz erain, Garaten izaten zen hor Txantxagorriya 'ro 'ta, harrek itten zittun potuk. Geo gue anaiyak, Anjelek, 'e ikasi zun, biño... Ai...! Denantzako 'ta nik netzako aski politta zen hura, e!

- 'Ta potuk zertako? Eateko 'ro?

- Ez. Talua 'ta esnia jateko 'ta, nehi bazenun ura eateko 'ta, eurrezkuk. 'Ta talo 'ta esnia jateko arront ona, zea, potua zurezkoa, be kierrakin. Gue anaiyak itten zittun geo abatxak eta. Abatxa, ez 'zu behiñ 'e ikusi? Hua 're urkiyak inñ ez bazun 'e harrek! Gue... Iña kupela 're bazen, behiñ iña bazutela bakit guri haik. Barrika ttiki bat lembiziko in zun guriak, anaiyak, Olatzeneku horrek. Geo betzi kargako kupela uste 'ut béak in zula. Geo itxea... Itxeako zeakin, mateialakin gaiña. Zalaiyan beko onduan bazen gaztain bat ikaragarriya, 'ta harrekin inñ zuten, in zen betzi kargako zea, kupela. 'Ta bestia, zazpikua, hoa berriz, anaiya 'ta guk iña zen. Joxek iña izango zen. Denak holaxe, denak, denak esku antzakuk izaki!

- Bai,bai hala...

- Esku antzakuk eta ba al dakizu!

- Bai, bai.

- Iñ itten!

- Jo! Denak esku onekuk! 'Ta, zea, eurra botzekun beituko zuten illargiyai 'ta Frantxixka?

- Bai, uste 'ut... Izango zuten, ez dakit nik, gaztaiña 'ta, ze... Hoixe ez dakit sango 'izuten. Haik dena beák bazekiten biño.

- Ilbehera...

- Ilbeherin, ilberriyan mugatan 'ta, arbolak bota ber izaten baitia. Uste 'ut haltza 're, hoa 're jakitten zuten 'ta, haltza 're be zea du haltzak 'e. Ez zizu ihartuko hora be garaiyin botzen baldin baa. Hua 're eurra nahiko gorra.

- Haltza.

- Haltz eurra.

3. Baserria

3.1. Arropa-garbitzen

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/006
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Arropak nola garbitzen ziren baserrietan, ur putzuetan. Hankak uretan sartuta. Ura berotu egiten zuten eta astoarekin eraman putzura.

Transkripzioa

- Ibiltzen genun, estropajua. 'Ta eskuz, arropak berriz eskuz. (Alorpia) bazuten arropak garbitzeko 'ta (yana) jarri barrenin 'ta hankak hotzian. Denbo haitan gañea bazien... zer dia haik... hankak sartu 'ta arropak garbitzen zianak.

- Baserrian barrenin bertan.

- Ez urian. Ur-putzuk iñak.

- Itturriyan 'ro hola.

- Denbu haitan sartu hankak, eta harriyakin 'ta jarriyak miñon... 'ta arropak

'ta garbitzen zin.

- Neguan 'de bai?

- Bai, aber ze erremiyo! Ura berua, ura berua ibiltzen genun.

- A bai? Ze itten zenuten, itxian berotu?

- Berotu 'ta yeaman. Astua bagenun 'ta, Uderren 'e bai, ni jaiotako tokiyin 'e. Astuak be ontziyak, be xeltuak 'ta haitan arropak jarri 'ta yeaman 'ta geo garbittu. Hola.

- O, difentzi erra.

- Oaingo komodidadia...

3.2. Gari garaia

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/008
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:16:23. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Baserriko lana: golde lanak, 'larrantia'. Gaur egun gure inguruan ez da garia ereiten, baina lehen arruntagoa zen. Urederren egiten zuten garia eta gero azokan saltzen zuten. Baratzeko lanak: artoa eta babarruna.

Transkripzioa

- ...nintzala 'ta, etorri 'ta hain itxian. 'Ta hola.

- Eta ze... emakumik 'ta gizasmik lana berdin-berdin baserriyan 'o?

- Bai. Elkarri launtzen. latzi bila, metak ebaki, belarrak eta meta haundiyak eta itten elkarri, batzuk billu, bestik botatzen eo (ontatzen) 'o hola. Elkarrei... kanpoko lanak elkarrei launduta.

- Belarrana 'ta lan haundiya zenin denak aiko ziñazten, miño gañekun zer zenuten bakoi...?

- Geo zea, golde lanak, labrantia zena hartu 'ta babarrunak itten genittun, artua 'ta babarruna eta ogiya 're bai. Gariya.

- Gariya 're bai e.

- Bai, pixkat. Itten zen pixkat, olluántzako.

- A, olluántzako?

- Bai.

- Geo e'zenuten ogiya itteko ibiltzen?
- Olluái itxeko arrautzak itteko aiñe. Itxeko ber zena.
- 'Ta harei gariya ematen zen?
- Gariya zelayan itten genun.
- Miño gariya zertako itten zenuten, olluí emateko?
- Bai. Ez genun itten kantidade haundiya, olluentzako (...) bat.
- Eta ordun artua zer...?
- Artua geyo, 'ta babarruna.
- Eta artuakin ze itten zenuten?
- Artua hura 're olluantzat, 'ta babarruna gentzat. 'Ta arrautzak 'e bai, saldu 're bai arrautzak, asko bazien Errenteira joan 'da plazan saldu, 'ta diru harekin beste zerbaitt, batekin beste, denbu haitan.
- Eta ogiya?
- Ogiya, Irundik faten zen Hondarribi panaderua. Panaderuak eamaten zun ogiya.
- Ez zenuten zuek itten?
- Guk ez genun ogiyan lanik itten. Ez, guk ez.
- Ordun ez zenuten iriña itteko artua 'ta eamaten erroteta?
- Ez, heik errotatik eta eosten zittuzten. Beurek, panaderuk beurek.
- 'Ta beak iñ ogiya...
- Beurek iñ 'ta geo partittu 'ta guk eosi.
- Eta zer za geyena gotzen zana?

3.3. Zaharren agintea

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:35:10. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Senarraren baserrira ezkondu eta gero bi etxeoandreak nola moldatzen ziren: amaginarreba eta bera, alegia. Horrelakoetan, orokorrean, bi emakumeak izaten ziren etxeoandreak, baina agindu, zaharrek agintzen zuten.

Transkripzioa

- Inaxi, nola izaten da? Zu gizonan baserrira ezkontza za eta han oaindikan do hango itxeko andria? Eta zeïnek seitzen du itxeko andria izaten? Lenguk o' torri berriyak?

- Biyek. Zerbait faltatze 'enin alkarrei san 'ta, hantxe. Lenguk geneal, lengo zarrak. Mayoria lengo zarrak, aindu, 'ta holako tokitatik zerbaitt nik kartzen banun... harek ez zun zarra bastante 'ta joan 'ta ibiltzeko gogorik 'ta ni igual 'ta hola. Bai, ni hara fan miño len berak harek itten zittun: Ollua asko zuten 'ta arrautzak 'eo saldu 'ta batakin bestia azukrik eta karri itxea... hola zen bizimodua.

- Eta geo Maldaburura ezkondu 'ta geo 're joten ziñan zuen baserrira?

- Bai, bai. Faten nitzen.

3.4. Jaio, etxean

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/023
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:43:13. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Haurren jaiotza: haurdunaldian joaten ziren medikuarenera, begiratzera. Gehienek etxean izaten zituzten, parterarekin. Mina hasten bazen, orduan medikuari deitzen zioten. Ama edo senideren bat ere egoten zen beraiekin.

Transkripzioa

- Miño ahal genuna, ahal genuna man.

- Eta gotzen al za nola euki zenun lendabiziko alaba? Lehen itxian 'ta izango zin?

- Ez, Barinaga Erreniteiyan bazen medikua; Barinaga. Harekin. Lendabizikua zala 'ta komei, bakizu gauzak, lendabiziku fuertexego gauzak izaten diala 'ta zean, eta medikua eaman genun, 'ta Barinaga, harekin izan...

- Bea eaman zenuten?

- Bai, Erreniteitikan... lenotik faten giñen bijilatzea, alegiya nola heldu zen 'o zer zen, bai, beitzea. Ni esniakin Errentira tortzen nitzen 'ta esne hartzailliak eta giyatzen ziaten. Bai, holako in ber zen 'ta halako 'ta. Klaro, gauzak ondo tokatze 'ia 'ta bestik ez dia ondo tokatzen 'ta.

- Klaro, baezpare.

- Baezpadare.

- 'Ta ongi ate zen?

- Ondo ate zen, bai. 'Ta bigarregua 're Erreniteian bazen praktikantia Don Jose, Don Jose izena zuna, praktikantia zen. 'Ta bigarrena harekin. Hirugarrena; hemen Oiartzunen bazen zea Oñatibia, oain berriro haitakua hil da, hil 'men da. Oñatibia, harekin izandu nun. 'Ta laugarrena... Laugarrena? Horrekin: Barinagakin, 'o Oiartzungukin, 'ta bosgarrena 're bai.

- Miño ze itten ziñan? Maldaburun bertan euki zenittun 'o meikun etxea torri itten ziñan?

- Joaten giñan ikustea, bera... hitzeittea 'ta.

- Miño geo ya eukitzeko garaiyan?

- Eukitzeko garayin itxian. 'Ta miñak 'o hasitzen zienin ordun jon meikuta. Aber? bai, bai.

- Len gehinak itxian?

- Itxian. Denbu haitan dena itxian. Partera saten ziyotenak bazin emakumiak.

3.5. Taloa

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/028
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:54:43. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Artoa errotara eraman eta taloa jaten zuten. Taloa nola egiten den, pausoz pauso. Zerekin jaten zuten.

Transkripzioa

- Bai?

- Bai.

- Ondo ordun.

- Beti. Gaxtetan 'de bai. Apetittu ona genun. Talua jaten genun.

- Pilla'rra e?

- Talua.

- Talua?

- Bai, bai.

- 'Ta talua...?

- Talua, artua errotea eaman. Artua itten genun zelayian 'ta errotea... hartu, sekatu... seko-sekua, 'ta errotea eaman. 'Ta han itten zuten iriña, iriñ harekin mahaian... mahai bat horra propiyua 'ta holako xulo bat iñ hola... 'ta han gatza pixka't bota eta bueltan iriña 'ta maza iñ eskuakin, eskuk garbi-garbi inta, maza. Talua hura da. Geo harekin pelota ttikiyak iñ 'ta joka-joka xabal-xabal: talua. Zuk e'zenun ingo iñon?

3.6. Denak etxetik kanpo lanera

- **Hizlaria(k)**: Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-021/009
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Adurizenekoak oso ezagunak zituzten. Iturrioztarrak ziren, beren bizilagunak. Hori dela eta hasi zen bertan lanean. Etxean senide gehienek hasi behar izan zuten lanean. Aita ferratzailea zen.

Transkripzioa

- Bai badijua.

- 'Ta Adurizenin ze hasi ziñan? Zer zenittuzten familikuk 'o bestela?

- Ez, oso izaunak. Gue... esto, Iturriotzen gu ga gu Iturriozkuk eta haik 'e lenguk denak zin Iturriotzen gue itxian onduan, bat hemen... oseake, itxe kontran bizi giñan. Bi familiyak. Eta geo haik in zuten itxia, zea, sagardoteiya Aduriz, zenin han. 'Ta geo in zin haik hara jon, 'ta haik han 'ta guk Iturriotzen seitzen genun, 'ta hola. Miñon eunero joten nitzan lanea, hara joten nitzan, saardotegira.

- 'Ta saardotegiya zon oain don toki berin?

- Bai. Toki berin bai.

- Tokin berin zon, Aduriz.

- Bai, bai, han. Hantxe, 'ta hara joten nitzan ni lanea.

- 'Ta ze lan itten zenun?

- Bo! Denetikan! Jesus, Maria Santisima!

- Tokatzen zen guziya?

- Tokatzen zen guziya. Ez zen "hau in zazu 'ta hoiy utzi zazu" ez.

- Dena in ber?

- Dena. Posible zun guziya in 'ta ezin dena "beno, bihar ingo dut ezin baldin badut gaur". Miño ez, gañekun egunero joten nitzan. Pasa zen hango zea.

- 'Ta ze itten ziñan: etxetik eunero jon 'o han bizi ziñan?

- Ez, etxetik eunero joten nitzan, bai. 'Ta haik zin Iturriotzen leheno bizitzen

zinak ne itxian ondo-onduan, ne itxia eta haina pegante. Konfintza haundiya genun. Etxeku bezela giñan.

- Miño patu 'ta ingo zizuten ez?

- Bai, bai. Bai, debalde e'nitzan jongo. E'nun itxian sosik nik.

- Bai miño... izaunak zilako 'ro...

- Bai, izaunak zin miñon, jolin, lana in da geo pena da deus ez izatia 're.

- Klaro, ordun ber gañea.

- Hombre! Beti ber da miño, gue itxian gutxi sartzen zen 'ta.

- Zer zenuten? Baserriya?

- Guk? Ez, ez genun baserriyikan. Atta perratzallia genun 'ta perratzallin lana 're halako mokua zen, 'ta gañekuk, pues... lanea. A trabajar.

- 'Ta zer zun, etxian bertan perratzen zun?

- Attak? Bai. Bai noski, e? Bai bai, etxian zun.

- Errenteiyen.

- Beno lendabiziko itxian jarri zun harrek. Etxian zun perratokiya miñon geo... ez dakit nola zen ordun... ordun 'e izaten zin zeak... bakotxak ez dakit zenbat zea ber zun... jesus! zerbatte bazittuzten, ber zittuztenak 'ta guriai lehendabiziko behint... betenayuk 'o ez dakit zeñ, 'ta guriai lehendibiziko, 'ta in zuten ordun despatxatu in zuten guria. 'Ta geo pues Errentiyan hasi zen, beste launa, franzes bat hartu 'ta biek hasi zin. 'Ta han aittu zen, aspertu zen arte 'ro, gauza zen arte 'ro, han seittu zun. 'Ta hola.

- 'Ta gaiñeko senidik e lanin aittu berko zuten?

- Gaiñeko senidik 'e bat aieka batea 'ta bestia bestea 'ta denak a trabajar. Han ez zen iñondikan tortzen.

- Karri in ber?

- Ama 're oso zea eoten zen, hanketatikan eta mintxo 'ta, denak nahiko lanakin. Ba al dakizu zer den nahiko lana?

- Ez. Guk ez dakigu.

- Ez dakizute. Nik ikasi ttut ba denak.

3.7. Ikasketak, bigarren mailan

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/007
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Eskolara joateak ez zituen lanetik libratzen. Eskolara joan aurretik egin beharreko lanak izaten ziren, eta eskolatik etorri eta gero egitekoak ere bai. Askotan lana eskolaren aurretik jartzen zen; batzuetan, lan asko izaten zelako, eta, beste batzuetan, eskolari eman behar zitzaion adinako garrantzia ez zitzaiolako ematen.

Transkripzioa

- Len esan zattutena, sei urte in 'ta geo hasi nintzan eskolan, biñon... Ni goizian... Goizin eskola joteko eamaten nun esnia. Eta itxe batea biño gehiyota gaiña! Hasitzen nitzan Bordaxabarren eta bukatzen nun e... Don Pablon itxian, Don Pablo Irigoiyen apaizan itxian. Eta geo e... Lentxio aipatu zattuten bezela baita 're, geo eskolatik atetzin berriz enkarguk itxea

eamaten nittun. Eta hola gauz asko. 'Ta geo ioziñ abiso 'ro in ber baldin bazen, klaro, ordun batetik bestea jon ber izaten genun 'ta baita 're. 'Ta ni beti izandu naz oso beldurtiya illunduta, eta beti zea hoi izaten nun "jo, gaur nombattea jon ber 'te dut illunduta geo 'ro..." beldurra 'o... Zalantza hoi bai, beldurra, nik uste 'ut beldurra gehiyena.

- 'Ta e... Eskolan hasi ziñan sei urtekin?

- Bai. Sei urte inta, bai, zazpi gehiyo, aldeao izango zin. Bai.

- Eta... Eunero 'ta joten ziñan?

- Ez, ez, ez. E... Eta behin biño gehiyotan itxekuri atentziyua eaman ziyoten, hori, batzutan joten nitzalako eta askotan joten ez nitzalako. Ni zazpi urte ein biño pixkat lentxiotikan hasi eta hamasei urte arte jon nitzan, biñon hiru hillabetin urtian jon baldin banitzan beste betzitan igual ez. Eta hori, e... Askotan pes zerbatt iñ ber zelako. Egiya da, in ber izaten zen! Zertikan ordun e... Lan asko itten zen eta eskuz itten zen eta denantzako izaten zen lana. Biñon nik uste dut lanangatikan biño gehiyo zela importantziyik ez ziyotelako maten. Ez. Nei... E... Eskola joten nitzan garaiyan e... Itxian doktriña bakarataz...

3.8. Baserriko uzta saltzera

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/016
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:40:43. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Seastarrenekoak Errenteriako plazara joaten ziren saltzera. Arrautzak, oilaskoak, barazkiak... denetik eramaten zuten. Gerezia, berriz, pilaka eramaten zuten: 'burutia' jarri eta saskia buruan, oinez, Gurutzetik kalera. Plazan salmenta egin, etxerako erosketa batzuk egin eta Errenteria eta Oiartzunen arteko mugan zerga ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- 'O esniak eamaten geniyonai 'ro banatzen geniyon, bai.

- Kalea e... Baserriyan intako gauz asko eamango zenittuzten?

- Bai.

- Ze itten zenuten saldu? 'O...

- Saldu, trukatu onana dena! Handikan ateratzen zen dirua!

- Ze eamaten zenuten?

- Ba... Guk eamaten genun... E... Arrautzak, oillaskuk, e... Oilluak 'e bai, eta dena biziyik, e! Dena. E... kalea, kalea... Itxe partikular batea eaman ber

baldin bagenun, biziya eamaten genun, eta Errentira 're asko jotzen giñan plazara eta hara 're biziya eamaten zen. Eta geo... Hoitatikan aparte, pues eamaten genun berdura. Berdura, letxua 'ta holokua ez genun guk asko itten. Biñon... Tipula, eta patata, baina, illar motxa... Ilar motxa asko itten genun guk, lana 're gutxina harrek izaten zun. Eta geo fruta... Gereziya. E... Zean... Bi bizitzatan gerezi asko, gezi asko, arbola asko genittun. Eta gerezi klase bat biñon gehiyo 're bai. Eta... hori dena saldu itten genun.

- 'Ta eaman nola itten zenuten?

- Eaman? Ba... Itten genun guk, kantidade haundiyak eamaten genittun eta itten genun hiru 'ro lau personek billu gereziya. Eun guziya arbolan gaiñin. Biltzen genun eta bezperan eamaten genun kaleiño, utzitzen genittun Antonenin, e... Xiextuk. Eta geo xixterak izaten zin zabalak eta haitan nola altura gutxiyon gelditzen zin, gutxiyo hondatzen zen. Eta zea xixtera zabal hartan eamaten genittun eta utzitzen genittun Antonenin.

- Nola eamaten zenittuzten?

- Buruan.

- Buruan.

- Bai. Tobail batekin burutia iñ, buruan jarri hora buruan xiextuk direkto miñ gutxiyo mateko eta harren gaiñin.

- Oiñez?

- Sastiarrenetikan zea;ño, Learreko malda dena jetxi eta San Juan kalin zon Antoneneko, Antoneneko denda eta han utzitzen genittun. Pues hora ittea 're jotzen giñan hiru person 'o. Batzuk buruan zea, xiexto zabal hura, bestik xiextua besuan sartua 'ta han utziko genittun. Hurrengo goizin e... Jotzen nitzan ni, haik handik hartuko nittun, norbattei mesedia eskatuko niyon autobusin sartu arte, eta autobusin sartu 'ta Errentiko plazara. 'Ta hara jotzen giñanin, beste hambeste. Eta geo Errenteiyan... Segun, batzutan gehiyo saltzen genun, bestetan gutxiyo 'ta sobratzen zena, bai fruta, bai berdura utzitzen genun, zea, Elizegin ta karnizeian. Aranbideko... Karnizeya zuten Errentiko plazan, 'ta han utzitzen nittun. Benitak jasotzen zizkin, eta hurrengo goizin jotzen nitzanin haik saltzea, berriz eamaten nun gehiyo itxetikan eta harrek urakin bustitzen zin, e... Freskatuta jartzen zin eta... Ba saltzen baldin bazin, e... Kontentu!. 'Ta aurreko egunin eamantakoik ez baldin bazin saltzen berriz 'e buelta itxea. Baina 're bai, baina asko saltzen genun. Eta tipula 'ta patata 're bai. Patata asko itten zen ordun eta hoi izaten zen, prozesua hoi izaten zen. Eta geo Errenteiyan itten baldin bagenittun erosketak, Arraun hambesteko bat ordaindu ber zen, erosketa hura Oiartzuna pasatzeko. Bai. Nik uste 'ut horregatikan zula Arrauko itxe... Fatxada grixa zun horrek Arraguako benta izena. Bai. 'Ta hantxe patzen genun.

3.9. Esneketan aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane

- **Erref:** OIA-028/018
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Esneketa: baserri gehienetakoek etxetik zuzenean saltzen zuten esnea. Astoarekin, behorreakin... ahal zen moduan. Batzuek, Oiartzunen; besteek, Errenterian; askok, Donostian... Gerora aldatzen joan zen: etxeko gazteak ezkondu eta baserritik joaten hasi zirenean, esku gutxiago izaki, esnea banatzaile handiagoei ematen hasi ziren.

Transkripzioa

- Eta esniakin, esnia... Kalea? 'o...

- Esnia... Esniakin, e... Gehiyena, baserri gehiyenekuk beák esnia saltzen zuten direkto. Eta han guen auzuan, ingurun esan nahi nuke, Ameztoi inguruko baserriyak hola alde batea 'ta zean doztenak, ingurun doztenak, hamabostetikan hamarrek itxetik saltzen zuten esnia. Eta... Joten zin pes hori, bihorra zuna bihorrak, ne ama bihorrak jotzen zen, bihor beltz eder batekin. Txata, geo 're ni harren gaiñin ibiltzen nitzan. Eta... Bueno gaiñin, geo kontatuko zattut ze itten nun. Eta... E... Bihorrak 'o astuakin, asko zutenak bi astokin igual! Guen Austiñenekua adibidez, harrek, harrek eamaten zun bi asto haunditan. 'Ta jotzen zen e... Arraura, topoa. Arraun utzitzen zittun astuak eta marmitak hartu topun 'ta Donostira. Eta gehiyo 're bai, han zea inguru hartatikan. Len san zattutena, hamabost itxetikan, hamarrek beák saltzen zuten esnia. Biñon, geo hoi pixkaka pixkaka galtzen jotzen zen, han itxeko gaztiak ezkondu 'ta itten zinin, 'ta ordun ya haundiyoko batei ematen ziyon esnia. Guk eamaten genun Bordaxarrea. Alkizako famili bat hor bizitzen zen eta guk hairi eamaten geniyan. E... Geo beste bizitzakuk hasi zin, Galdosenai Xixtiyoko kruzea atetzen. Eta... Biñon, e... Gaztia zen bittarte, 'ta jende asko zen bittarte, norbeak saltzen zun itxetikan esnia, direkto bea jonta, e... Ne ama Errentira jotzen zen, harre hua ordun bihorrak Errentiño jotzen zen. Donostira jotzen zinak gehiyenak, Donostira jotzen zinak gehiyenak Arraun gelditzen zin, topua hartu 'ta Donostira joteko. Eta geo ya ondorin seittu zutenak, e... Ya jotzen zin bihorra 'ta karrukin, 'o astua 'ta karrukin 'o, 'ta geo ya hasi zin lembiziko kamioneta koxkorak eta. Eta ordun ya haikin len astuakin jotzen zena kamio hartan igual jongo zin bi emakume 'ro kamioi jabi harrekin ben esnia saltzea. 'Ta geo ya azkenea, esan nahi nuke, urtiak aurea jon ahala, baserri gehiyenekuk ya haundiyaguri ematen ziyon. Han inguru hartan askok ematen ziyoten Galdosenai. Galdosen Juanitoy, tabernakuri. Eta biñon, ne zean ne izaueran eta lembiziko urte hoitan 'ta, itxian be itxe baxotxetikan esneketa. Huraxe zen dirua, e... Baserriko diro sarrera hura zen. Eta geo, pes hori, len kontatu zattuten bezela, fruta baldin bazon frutakin, berdurakin, e... Geo... Beste diro sarrera zen animaliyana. Animaliyon umik.

3.10. Baseritik kalera, mira

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/004

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Mira egin zuen baserriatik kalera. Baserrian ez zuten ez argirik ez urik. Kinkilarekin ibiltzen ziren eta ura iturritik ekartzen zuten. Gogoan ditu kuela eta lixiba. Olokinen ura bazuten, baina hala ere, ur freskoaren bila Auztiko erreka joaten ziren.

Transkripzioa

- Ta mira iñ al zenun?

- Hoixe! Mira ingo e'nun ba? Han? Ez argirik, argirik ez zen e! Nere itxian, baserriya hartan... 'ta askotan, han inguru hartan ez zen izango, garai haitan. Kinkiya, kinkiyakin ibiltzen giñan, 'ta urik eta... zeara zelaira... esto, joten giñan iturrira urruti bastante, joten giñan baldikin uran billa. Hoixe, beitu e! sei urtekin oain dakat goguan nola joten giñan. 'Ta arropak garbitzea... geo arropak bai aittu: gure amak eta bazuten, kuela saten ziyoten hola barrika ondua balitz bezela 'o kupela ondua balitz bezela hola, eta han jartzen zittuten lixiban 'ta eunetan eukitzen zittuzten, zea, arropak beratzen, geo garbitzeko. Hori akortzen naz.

- 'Ta geo hemen ez, Olokinin?

- Hemen ez. Hemen ura bazen. Hemen ura bazen miño hala 'ta guzti... geo ura freskua nahi genunin hemen bai, zea, Auztiko erreka hamakin bat jonak, joten giñan. Eta zea, Estankoko hor...

3.11. Errotaberriko errota zaharra

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Errotaberriren ondoan, beste errota zegoen, orain Pitusa dagoen tokian. Bertan bizi izandakoa da Rufino. Gero, aitona-amonekin Olalden bizi izan zen. Rufinok bi errotak batera lanean ezagutu zituen. Gero gogoratu ZIN.

Transkripzioa

- 'Ta errota berritik aparte ba al zen beste itxe bat, errota zena?

- Bazterrin, bai.

- Bai, e?

- Oaindik zea da, Pitusa don hortan.

- 'Ta zuek ze san 'zu, han bizi ziñaztela, 'o Olalden?

- Han, han, han. Bueno, gue atta 'ta ttiki... Gaztetan. Nik Makutxon jaiyua izan ber dut, biño geo horrea torri bizitzen, 'ta hor bizittuk. 'Ta ama ate zizu kontuk, nik zazpi urte nittula hilla. 'Ta ordun amonakin 'ta gu, beti. Oi, Errotan hambeste dembo bai, han. 'Ta geo gue atta in zen Aldapakukin ezkondu, bigarren andria zun geo, biño gu haikin ez giñan bizi, gu beti Olalden, beti attonakin 'ta amonakin. Oi! Itxeko paperak itten hor, Olaldeko osaban izenetik ne izeneko... Peritua 'ro zer zen torriya? Eun batin, 'ta sukaldetik beira hola jarri 'ta harrek nei: "hor itxe bat bazen leno." 'Ta nik ez beitu 're in. Ez zela, 'ta ez zela. 'Ta geo neone: " ui la letxe, ni ze aittu naz esaten! Perituk itxia bazela 'ta nik ezetz!" 'Ta neone bertan bizittua, zeatua 'ta ezetz esan eta.

- Aztua zu 're?

- Aztua. Geo gotu zin. " Nik erra san ziot horrei itxeik ez zela errota, Errotaberrikua!" Joe! Bai, bi errota ikusi izandu 'ttut nik han lanin.

- Bai, e?

3.12. Portuberrin taberna eta bilera

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/024
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:52:13. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Portuberrin taberna zen. Jaietan bilera izaten zen Portuberrin; anaiak jotzen zuen soinua. Garai batean, Zaldinen izaten zen bilera. Arroxak ez zuen ezagutu baina entzuna zuen. Gaueko 10etan itxi behar zen taberna; bestela, Aritxulegin zeuden mikeleteak etortzen zitzaizkien. Hika.

Transkripzioa

- ...'ta karburua eosteko modua zunak 'o batzutan lapurtu Konpañiyaiy 'ta kandilla haik oso argi ona itten zuten, oso ona.

- 'Ta Portuberri taberna zuen gurasuk 'ta jarri zuten 'o...?

- Ez, aurrekotik. Beti izandu 'men zen. Ne attan attak 'ta amak eta... bai.

- 'Ta Tornolako taberna bakarra izango zen?

- Bai, huaxe. Ergoien 'e bakarra zen Bialde. Bakarra izaten zen, 'ta geo zen Tolare.

- Bialde lenoztik zen e?

- Bai, lenotik zen, bai.

- 'Ta han ze juntatzen zen? Tornolako jendia 'ta...

- Miño oan bezelako parranda itteik ez zionen, ez zon diruik eta. Diruik ez zon... Norbaittek lana itten bazun... Mutillak sasoiyik hobenekuk iñone lanik ez 'ta itxian zu. Ordun, lana zuna, oso abetsa zen e! Oso aberatsa lana zuna. 'Ta lan bat Arditturrin hasi zin, lanin jarri eta soldauxka bertan manejatzen zuten, soldauxka iñ.

- Hoi da, soldauxka jon berrin, han.

- Bai. 'Ta geo; bilera 're bai al zen Portuberrin?

- Bai. Ne anaiak jotzen zun... ne anaia gaizki... gerran hil zena horrek, gaizki zola ikasi ñun soinu jotzen 'ta oso erki zekiyeen. 'Ta beno, billera hoi izautu dugu. 'Ta lenotikan jotzen zun, itten zen bilera Zaldingo zabalían. Zuk ez dakizu non den Zaldin; Epeletikan gora. Han zabal... beitu, hara 're bilera jon itten ttunen jendia. Han otsutarra haitakun attak jotzen zun soiñua.

- Miño hoi zu etza gotuko.

- Ez. Joten zela 'ta soiñua bazela 'ta hoik bai, miño gañekun ez, ni e'naz sekula hoita... Ni Altzibarrea 're, San Pedrutan, ne denbo guziyan behiñ bakarrík torri yunen, nola itxian beti izaten baizen soiñua... Altzibarrea.

- 'Ta zein... Portuberrira bilerara Tornolakua bakarra 'ro kanpotik 'e...?

- Jotin zin e. Altzibar aiekatik eta jende batzuk, beno, jakiñak: pudientes un poco... lana zuten mutil batzuk eta hola, gaiñekun...

- 'Ta zuek hairi beira?

- Hairi beira, 'ta gañea ordun erretira zen; ez bazenun hamarretan itxitzen taberna mikeletik etortzen zin 'ta multa...

- Jote al zin haraiño?

- Autxilin eoten zin 'ta.

- A klaro.

- Autxilin beti pareja bat eoten zen.

- Gerra aurretik 'e bai?

- Bai! Han bizitzen zin. Han bizitzen zin. 'Ta geo gerra torri zenin mikeletik kendu zittuzten, kendu zittuzten.

- 'Ta zuek ze aitzen ziñazten, tabernin launtzen 'ta 'o dantzan 'o ze aitzen ziñazten?

- Denetik, denetik. Jaten ematen genun eta denetik itten genun. Gue amak hamakiña 'at kozina in ziñen. Jana 'ta geo Arditturrira torri izandu zin...

Goizutatik 'e han kiebra jo zula 'o... Eta Olatxen bizi ttunen hogeit 'ta geyo laun, beak... 'Ta hoik jaitan, jaiero gue itxiin, berindua prepatzen ziyon gue amak. 'Ta hola...

3.13. Ugarte, Ugarte Errota eta Ugarte Dolarea

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/003
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:05:57. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Jostatzen ibiltzen ziren, gordeketa. Etxe inguruan ibiltzen ziren, lau familia baitzeuden inguruan: Ugarte Errota, Dolarea eta Ugarte bera, bi bizitzarekin. Dolarea ezagutu zuen.

Transkripzioa

- Ordun e... Ze gotze... Zu ze gotzen za, e... Uarteko errotakin, 'ta Altziberrekin 'ta ttikitako ze... Ze zea 'ttuzu, rekuerdo?

- Ze rekuerdo?

- Bai.

- Ez dakit ba, ze klasetan esan 'e!

- Jostatzen 'ta gotze al za?

- E?

- Jostatzen ibiltzen ziñaztela?

- Jostatzen bai. Han ibiltzen giñan, batzutan gorde... Gordeka 'ta eziñ billatuik eta.

- 'Ta ze ibiltzen ziñazten, auzuan? Altziberren?

- Ez...! Itxe ingurun. Geo lau... Beste lau, beste lau itxe bazin, beno, beste lau famili bazin. Guria 'ta beste lau. Uarte Errota, geo Tolaria, 'ta geo beste bi bizitzako etxia. Bai.

- Bai.

- Lau guztita. Bertan.

- Uarte béak zer 'ttu bi bizitza?

- Uarten... Bai.

- Uarte haundiyan.

- Uarten bi bizitza... Zume bat, 'ta bestian... Ez dakit ba! Zein zen? A! zea, Antonio 'ta Felix, mutillak 'ta nexkak berriz, Pia 'ta Arroxa 'ta hola.

- Ordun koskorrei mordoxka juntatzen ziñazten?

- Bai, bai. Bai, bai. Garaiy haitan lau bizitza bazien. Lau. Han Uarten hiru. Bat bi bizitzakua zen, Tolare... Bestia tolariakin. 'Ta geo Uarte Errota.

- 'Ta tolaría 're izaute zenun zuk?

- Tolaría?

- Ibiltzen zela?

- Bai, bai.

- Oaindik kendu gabia zen?

- Bai, ordun bai. Oaiñ, oaiñ ez dut uste donik. Tolare, Tolare, beti baserriyan izena Tolare saten geniyon. Tolare.

- 'Ta geo, e... Hua zer zen zuena, 'o han beste batzuk bizi zin?

- Uarten leno maixterrak zian. Geo haik demboakin jabe in zin. Biño gu han giñan garaiyin oandikan maxterrak zian. Errentan beti.

3.14. "Kastillano burro"

- **Hizlaria(k)**: Zabaleta Labandibar, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-075/004
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:10:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Euskara » Euskararen egoera
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Gerraren ondoren, Etxeberriko osabak hil zirenean etorri ziren Karrikara, Donostiatik. "Kastillano burro esaten ziguten...". Bera noiznahi etortzen zen Altxatzikira. Altxatzikikoekin harreman handia zuten Etxeberrikoek. Nuisnai.

Transkripzioa

- Han ibiltzen giñan attakin. Mendiolako gaiñ hoitan barrena. Muti koskorra gu beti, attakin, bai. 'Ta geo handik aurea, pues... Leno san 'utena, zea, torri giñan honea, gerra ondorian, hemen osabak eta hil zienian 'ta... Ama ez zen oso gustoa torri, biño...

- Hua hara (...)

- Bai, hua hamalau urtekin jon 'ta beti han, harako baizon. 'Ta... Pues... Geo honea torri 'ta hementxe, kastillano burro batzuk saten ziuten 'ta...

- Ez zenekiten euskeraz?

- Bai, bagenakigun, biño gu ordun geunden deneta kostumbratua denea.

Uan atta 'ta amakin 'ta guk beti euskeraz hitzeitten genun, biño guk senidiak alkarrekin kastillanoz beti. Anai zarrenak 'ta biyek behintzat, guk, beti kastillanoz. 'Ta "kastillano burro hemen dia oain 'e, kastillano burro" 'Ta barriyo (erdiya) 'ta... Geo kasillanoz dena aztu guri!

- (...)

- Geo (dena aztu). Holaxeko kontuak genittun ordun.

- Ama nolatan zen hemendikan jona?

- E?

- Nolatan jon zen ama neska koskortan hara?

- Hoik... zea, Arzaktar hoikin... Harren attona bat bazen, Pedro Joxe 'ro 'ta...

Hua zerbatte zea zuten, familiarra 'ro, zerbatte, gue lengo zarretatikan. 'Ta

ama jon zen hara neskame. Hamalau urtekin Altomirakruza. 'Ta hola. Geo

ni... Beno, geo ni handikan honea noix nahi tortzen nitzan, zea Altxikiko

Maitxokin. Geo, Altxikiko horren ama, Maixte, zea zen, gue aman

amautxiya 'ro nola saten da? Amautxiya.

- Bai, bai.

- 'Ta geo Maitxo hoi 're, zea gue amakin hara... Gue amak hara eamaten

zun. Axaldin bizittua zen hoa, Axaldikua... Harren alabak 'e badia ba,

Axaldin?

- A. Bai!

- Pues Maitxon alabak. 'Ta hoik... Hoin erretratuk banittun nik hemen leno

'ta ez dakit zenek eaman 'zkgun, Altomirakruzko batek denak. Gure gazte

dembora han ibiltzen zin kuadrillanak eta hoinak eta.

3.15. Mandazain lanak ahitu

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/004
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Inguru hauetan lana ahitu zenean, Zerainera joan ziren lanera. Dena oinez. Han zegoela, soldadutzara deitu zuten. Ez zuen joan nahi baina derrigorrez joan behar zen. Soldadutzatik etorri ondoren, zenbait lantegitan ibili zen. Azkenean, paper-fabrikari bukatu zuen. Gaur egun, lan gutxiago egiten du, baina osasuna du falta. San Jun. Karranpa.

Transkripzioa

- Ni 're atta... Attak 're... itxian gelditu nahi 'ta, ni bakarrik ezin ba ibilli 'ta geo morroi bat karri genun Lesakatik. Geo morroiya 'ta biyek biltzen giñan.

- A!

- 'Ta geo hala, hala, hiru lau urte in genittun 'ta geo hemen lanak attu, 'ta

hemendik Zeraiña jon giñan. Han bazela lana 'ta hara jon giñan. Goizin ate

lautan itxetik, Maxalendik'ta illunaarreko zortzitako ailletu. Hernaniko...

Euna zabaltzeko Hernanira, Tolosa, Segura, Zeraiña azkeneko!

- 'Ta manduakin.

- Manduakin. Gaiñin aspertu, oiñez 'e aspertu 'ta, segi 'ta segi, 'ta behintzat, arratseko ailetu giñan 'ta geo han aittu giñan lanin. Geo soldao han... Eun batin fiestak tokatu, 'ta soldao joteko tortzeko deiya. 'Ta hua 're aldrebek. Hango fiestak utzi 'ta ez torri nahi 'ta bai, "torko 'ttuk itxea nausiyak billa eta hor jongo duk geo" 'ta. Derrigorrrin jon in ber geo. 'Ta azkeneko trenin torri giñan Errentira 'ta handik oiñez. Gaur ez litzake umia 't eskola jongo oiñez. 'Ta gu berriz, kilometruk oiñez.

- Bakar bakarrik.

- Ohittura 're hala zen 'ta!

- Bai, difentzi erra bai.

- 'Ta geo, soldao jon giñan 'ta soldaotik torri 'ta... Bi urte pasa nittun 'ta, handik torri 'ta nombatte lana in ber ba 'ta. Hortxe, lembizi piño zuitzen, 'ta piño mozten 'ta geo desmontin bazela lana, zea, San Junen 'ta desmontin 'ta... Ño! Nekatu itten! Geo beste gizon batek san Luzurenin bazela dirua atzeko moua 'ta harek bi anai mango zittuztela 'ta guk beste bi anai 'ta zortzi laun zozio. 'Ta han 'e bi urte pasa genittun 'ta bukatu. 'Ta geo Lizararzun, obra 'ta. Lizarazunin bi launek altxatu harriya 'ta bizkarrin hartu 'ta han hua ez zela posible hala ittia 'ta geo harrei esan, zea..."Zu gui launtzen hemen 'ta papeleran sartu ber 'zu" Papeleran sartu 'ta leno astian desmontin larogei duro irabazten 'ta geo fabrikan betzi durokin.

- Jo!

- Jo! Hua, hu jornalán mixeiya! Biño, segi 'ta segi 'ta. Errelebun 'ta. Errelebun 'e itxian laundu itten pranko, 'ta segi 'ta segi 'ta errealoik maten ez 'ta hasi nitzan ate in ingo nula 'ta hasi nitzan 'ta hango gizonak: "Aguanta zak pixka 't Domingo, aguanta zak pixka 't!" 'Ta aguanta 'ta aguanta 'ta gaur hola geldittu giñala, ez nun pentsatzen 'e!

- Buelta hartu?

- Buelta hartu 'ta jornala polittakin 'ta beno. Oaiñ hementxe. Baserriyan 'ta aittu ga 'ta azkeneko saldu denak eta oain, oaiñ bizi in ber 'ta oaiñ 'e zerbatt. Batin reuma dela 'ta, bestian zer dela 'ta, oaiñik komeiyak!

- Hoik lengo desgastik dia Domingo!

- Bai, bai.

- Karo. Oain dembua, dembua sobran, biñon... Nahi dena itteko...

- Nahi dena ezin iñ oaiñ! 'Ta beno, oaindikan pranko ongi no.

- Bai, bai.

- Botikik ez dut deus 'e hartzen oaiñik.

- A, ez e?

- 'Ta... Beno, batzutan karranpak hartu 'ula 'ta beti zerbatt izaten da, biño, behintzat...

- Harrittu itten al za?

3.16. Egur-ikatza

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/017
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:26:24. **Bukatu**: 00:28:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Behin, Altzibarko festetan txondorra egin zuten plazan. Mandoak kargatzea ez da nola halako lana; hori ere jakin egin behar da. Zakueta eramaten zuten egur-ikatza; bost zaku mandoko. Garai hartan, egur eskasia zegoen eta egur-ikatza eskuetatik kentzen zioten bezeroek. "Ber du bakotxak be opiziala, jatorra ez dut saten miño , pixkat ber da". Mandazaia. Hika.

Transkripzioa

- Bai, uaiñ, uaiñ... Oain dela bi hiru urte 'ro Oiartzunen in 'te zea, txondarra.

- Bai.

- Hor zea, Penaiko zoku hortan. Hor ailletu naz mandua kargatzen.

- Len 're itten zin hor txondarrak?

- Bai, bai. Len leno 're bai. 'Ta oain nombatte gootu ziyote kapritxu hoi in ber zutela 'ta...

- Bai. Horregatik, ohittura zeatzetik.

- Bai, aleiya, Altzibarko fiestetan in zandu 'men dula, zea, guekin aitzen zen gizon batek, zea Petxi 'men zun izena. Petxik txondarra in 'men zula Altziberren. Urte asko, gu gaztiak giñala! Ni ez naz akortzen.

- Biño... Ordun 'e izango zin kapritxua zuna 'ro, dirua zuna 'ro...

- Bai, horrea jon giñan kusteaa, nik 'e afiziyua ba, mandukin 'ta, kusteaa: "kusi ber dit ba, ze nola itten 'uten 'ta!" Nik urruti xamar jarri nitzan, haik ez kustetik 'ta zea, hasi zin manduk kargatzen 'ta manduk kargatzen jakiñ ez!

- Ai!

- 'Ta bateik san ziyon: "Ze, hi, nola itten da?" " Ez, nik ez zekit nola itten den!" Nei kusi harek! "A hor, non don gizon bat, horrei san kiyok!" 'Ta ni... nik esan 'be ezin ba jon!

- Karo.

- 'Ta geo... Geo izauty zitenin: "Hi ze, torri, torri yai, torri yai honea 'ta! Ordun jon 'ta zeatu nittun.

- 'Ta iozeiñ moun ezin kargatu? Hoi ongi kargatu ber (...)

- Ongi... Hemen 'e eozeiñ moutan hasten baza ez 'zu ongi ingo!

- Ez.

- Ber du bakotxak be opiziala, jatorra ez dut saten, biño bai, pixka 't ber da. Pixka 't ber da.

- 'Ta nolaz... Ze.... Ze eamaten zenittuzten, xiextuk, 'o zakuk 'o hola?

- Ez, ez. Zakutan. 'Ta geo zakuk in ber dia lazua, lazua jarri bi ixkiñetan, geo hain gaiñin beste bi, erdiyan beste bat.

- Bost.

- Bost.

- Karga 're gutxi izango zun zakuk beti jakiña, ikatzak karga ttikiya baizun.

- Bai.

- Egur ikatza.

- Eur ikatza. Bai, ordun ez zen deus 'e hemen. lozeiñ ixkitan, espoloyo kokorra... Ttikitan zea eurak hausten emakumi denak! Ikatza 'ta, ikatza... Neuan ikatzin ez iñon eta gu... Mendiyan hartu zea, ikatza 'ta Errentira zuzenin 'ta etorri 'ta lepotik heldu manduai zea: "Karbonero, nei zako bat, nei zako bat, nei zako bat!" Geo kastañero bazen Errenteiyen, ttiki bat. "Mandaziyak, kauendio! Nei hamar zako, e! Ikatz... Gaztañak erretzeko! Hamar zako, e!" "Bai, ez da denantzako ailletzen!" 'ta "Beno, nik ber dit ba!" 'Ta bertan deskartu denak.

- 'Ta gotze al za zakua zembatin saltzen...

3.17. Mandazainen bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/018
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:28:58. **Bukatu**: 00:32:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Maxalengoek egur-ikatza saltzen zuten. Egun osoan ibiltzen ziren mandoekin garraioan eta auzoko tabernetan bazkaltzen zuten. Semeak hasi arte, aita bakarrik aritzen zen lan guztiak egiten. Egun batean, San Antondik Erlaitzera eta handik Irunera joan eta itzuli egin behar izan zuen hurrengo egunerako txondor tokia prestatzera.

Nafar hizkera egiten. "Txondarrari tokia egin behar jiran-bueltan".
"Kontumbria zen Eup ittekua: eeeeeeeup".

Transkripzioa

- Zebatin saltzen zen 'o?

- Uste 'ut bost, bost peztan. Bost peztan saltzen zela.

- 'Ta zuek, karo, zuek bost pezta hoik jasoko zenittuzten, biño batzuk txondarra itten zutenin? Geo banatu in berko zenuten?

- Oi! Haikin patu! Zea, txondarra bukatzin zembat karga atetzen zen, kargako honembeste patu hairi. 'Ta haik 'e... Haik 'e diro gutxikin lana ingo zuten nahitanahieyz.

- Zuek 'e bai!

- Uan zakua... Bi milla pezta baliyo 'ttu. Bi milla pezta... Hamabi euro!

- Bai.

- Bai.

- Hamabi euro 'ta leno... Leno bost pezta. 'Ta geo gu 're ikatzakin 'ta... Bazkaldu 're nombatte in ber zaten zen ba 'ta! Iturriotzen... Zortzi errial kobratzen 'ta Matteonin sei errial. "'Ta beno, zea, Mattionea jon ber dugu, han bi errial gutxiyo kobratze 'ute 'ta hara jon ber dugu bazka ittea!" Hara, hara joten giñan askotan bazka ittea.

- Ordun bi errial asko baizen!

- Bi errial? Bai, eun euro biño gehiyo!

- Bai, hambeste ez, biño... Ba, asko!

- 'Ta Irunen 'ta Gurutzen 'ta non tokatzen giñan, bokarua jaten genun.

- 'Ta eunin... Kompaziyoa, hor ai baziñazten, e... Penai ayeka hortatik ai baziñazten, eunin zembat biaje itten zenittuzten?

- Bi biraje.

- Errentira?

- Bai. 'Ta lembiziko atta hasi zenin, orduan semik ez 'ta, bea bakar bakarrik. Kargatu zean, San Antondik gottiko mendi hoi zer da?

- Ze?

- Lesakako mugan San Anton gotti jonta!

- Bai, zean, Domiko aldi hortan?

- Bai, Domikotik 'ta... Domikotik eta geo txondarran jiran 'e atetzen zun ikatza 'ta berriz atetzeko tokiya in ber 'ta igual arratxin. Arratxin igual

mandua hartu 'ta zeara. 'Ta handikan zeara, Domiko ondotik hartu 'ta San Antonen barrena beko zokuan barrena Erlaitzea. 'Ta Erlaitzetik Iruna. 'Ta geo san 'men ziyon: "Beno, berriz torko naz!" "Zu, ez zea etorko honea gehiyo!, Gaur ez zea etorriko?" "Bai, bai. Ni etorko naz berriz 'ta zeatu, prepatu ni tortzeko!" 'Ta geo Irunen arreba zun zea almalzenakin, 'ta Irunen arreban itxian apaldu, 'ta arratxin mando gaiñin jarri 'ta dampa dampa Erlaitzea, Erlaitzetik beko zokoa, geo San Antonen barrena 'ta geo kostumbria zen ieup ittekua! Hola urrutitik "ieup...!" Eju haundiya 'ta ieup bat in 'men zun haundiya 'ta "Hara, hara hara, mandaziya hemen yeu, mandaziya, muittu berko dieu 'ta (muittu)berko dieu 'ta!" "Non heldu duk uain garai hontan? " 'Ta bai, berriz 'e txondarrak tokiya in ber jiran bueltan. 'Ta geo eun guziyan itxian. Biño...

3.18. Txondorra

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/019
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Martxoan, egurra botatzen zen, izerdia hasi aurretik. Hamar bat gizonek adar handienak botatzen zituzten, eta, gero, lau peoik egurra txikitu eta txondorra egiten zuten. Txondorra nola egiten zen: alkatea, tantaia... Txondorra ongi zaindu behar zen, beti egon behar zen gainean. Txabolan egiten zuten lo. Txondorgileak nor ziren: trumoitarrak, goizuetarrak, lesakarrak...

Transkripzioa

- Biño apurua jon in ber.

- 'Ta gaiñekun zuek ze itten zenuten, txondarra bea in ez zenuten itten!

- Ez, hok ez.

- Txondarra... Guk itten genittun... Lendabiziko in ber zen martxun dena bota. Zea, izerdiya hasi biño leno. Bestela izerdiya hasi 'ta arbola hondatu itten baizen. 'Ta izerdiya hasi biño leno bota lembiziko. Hortxe hamar bat gizon hartu, 'ta adarrak haundinak bota 'ta geo itten zen piyok hartu, lau bat pioi 'ro 'ta iurra txikittu 'ta txondarrak iñ. 'Ta ikatza, ikatza zeatu, ikatza iñ. 'Ta kargako honembestian. Oain zembatin ez naz akortzen.

- Lana zun horrek, e!

- Lana 'ta... Norbatte ber, bizitzeko, bizitzeko ikatza 're ber.

- Bazterreko iatze pizar guziyak zeatu, geo gaintik orbela bazen orbela....

- Txondarra itten zen lembiziko eur bat sartu. Eur luze bat erdi erdiyan. Hua, hua izaten 'men zen alkatia. 'Ta geo jiran bueltan, jiran bueltan,

embor zarrak 'ta kargatu 'ta geo itten zen iurra puskatu 'ta geo haikin in forratu bezela, gaintikan.

- Bai.

- Tantaiyakin 'ta enporratu. Geo hor larri billu zakar puska 't 'ta zakarrakin tapatu dena. 'Ta geo lur pilla bat harrotu lurra,

- 'Ta lurrakin...

- 'Ta bayan pasa, lur txiakin dena jira, dena tapatu. Geo erdiyan gurutzia, gurutzia, gurutzia, gurutzian... Zea erdiyan, zea, zolua du gotti tximiniya atea 'ta handikan bota geo zea, brasa. 'Ta geo brasa sua hartzen zunin, tapatu.

- Arrisko errin e?

- 'Ta geo ixkiñetan zoluak iñ. Ixkiñetan handikan kia atetzeko. Ixkiñetan zoluak iñ 'ta.

- Harrek lan haundiya zun.

- Ba, hua itten 'e... Len 'e gizon tontuk zin, biño... Hua itten 'e jakiñ in ber da, e!

- Bai, 'ta hua ioziñek ezin du iñ!

- Bai, ioziñek ezin du iñ!

- Posible du, ez, itzali 'ta dena bertan geldittu, 'o...

- Bai 'ta geo... Geo... Zulatu 're itten zen 'ta, zulatu ezkie zembait haizetan mendiyak su hartzeko arrixkua 're bai. 'Ta arratxin 'e bijilatu in ber!

- Hoi da! Gaiñin eon ber!

- Zaindu 'ta geo eurra txikittu 'ta pronto jarri.

- Bai, mantendu.

- Hua zulatua baldin bazen seittun tapatzeko! Bai, lan, lana... Lan puxka 't. Biño beste lanik ez zen 'ta ohitturak 'e segi hartan.

- Geo han eoten zinak 'e basuan aitzen zinak 'e arratxin guardiyan!

- Arratxin 'e guardiyan eon ber.

- 'Ta han bertan ingo zuten lo!

- Txabolan, txabolan lo. Txabolan bertan.

- 'Ta zein zin txondargillik? Izaunak? Bat zea zen, ez? Trumoiyana 'ro...

- Trumoiya... Bi anaiyak 'ta bestia Nikolax Hiru. Hoik langille polittak zin. Hoik ikatza... Ikatza erra itten zuten hoik. Geo, goizutarrak 'e bazin 'ta han Lesakan 'e bai.

- Uaiñ denak hillak haik, buf!

- Uan... Uaiñ 'e izango dia noski, biño asko asko ez.

3.19. Oiartzungo mandazainak

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Oiartzunen hiru mandazain ziren, hirurak ere auzoak: Maxalengoa, Xulua eta Isatsekoa. Maxalenen, aitona hasi zen mandoak erosi eta lan horretan. Garai batean, denerako behar zen mandoa. Adibidez, baserrietan obrak egiteko materiala eramaten zuten gorakoan, eta, beherakoan, ikatza ekarri. Pastak Hernanin erosten zituzten. Etxera etortzen ziren ferratzaileak. "Xintxo ibilita beti sosak aurretzen".

Transkripzioa

- Ordun ne atta 'ta izautzen zittun harek. San niyon zeakui: "ni 're hola 'ta hola" 'ta "Zeiñ haiz ba hi?" "Ni zea, holokon, Higinion holokon semia" " 'Ta "Joño! Izautzen dit hie atta nik aspaldi!" Bestia zea, Xulua zen bestia. 'Ta bestia Isatsekua bestia. Hiru mandazai.

- Hiruak auzokuk.

- Bai.

- 'Ta nolatan hasi zin... Hasi zinak zein zin? Zue atta 'ta? 'O aurrekuk?

- Hasi zinin ne attan atta, aurreko atta.

- A!

- 'Ta harek 'e... Hua hil zenin, harek 'e hiru mando utzi attai 'ta attak 'e mandukin bizimorua atea. loziñ baserritan 'e obra itteko ez baizen material 'ta deus 'e. 'Ta mandukin gottikun mateiala eaman 'ta bettikun ikatza karri. Bai, xoxak itteko biria politta 'men zela.

- Bai, biño manduak eosten 'e dirua berko zun, e! Attonak!

- Bai, bai. Bai. Bai.

- Garaiy haitan mandua eostia ez zen...

- Zintzo zintzo ibilli 'ta, beti sosak aurretzen. Zerbait tokatzen bazen 'e beldurrak!

- Geo hoi bakarra ez, kabestro dela 'ta, pasta dela 'ta...
- Pasta dela 'ta.
- Atzia dela 'ta.
- Karo. Mantendu, mantendu, mantenu bea.
- Pastak Hernanin itten zin. Pasterua Hernanin zen ordun.
- Pastak zer zin?
- Pastak, manduan bizkarreko pastak.
- A! Karga eamateko...
- Karga eamateko...
- Haik izaten zuten honen loitasuna bai gutxinin.
- Bai, beno, lori loriya haseran, biño geo sartzen zen asko. Ttikitzen zen asko.
- Zea, dena guatakin 'o...
- Bai, zean, gorruan, gorrun illia izango zen. Ardi illia ez, gorruna izango zen.
- Gorruna bai, 'ta holaxe pasta berriya bezela 'ta geo perratzia 'ta!
- Bai, bai.
- Non perratzen zenittuzten?
- Itxea tortzen zin. Errentiyan bazin perratzaillik. Bat Oiartzungua zen 'ta bestia prantsesa zela 'ro santen geniyan. Erdi betenaiyo holokua zen. Asko zekiyan harek aziendakin. 'Ta haik itxea, itxea tortzen zin.
- Itxea tortzen zin.
- Bai.
- 'Ta Maxalen, ordun Maxalen...

3.20. Mando bat beti aurretik

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/026
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:44:52. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Mandoak taldeka eramaten ziren, eta bat beti aurreraxeagotik. Ez zen kasualitatea: Aurreko mandoak bere gustuko tokian egiten du pixa eta gainerako guztiek ere hantxe egingo dute. Bitartean, ez dira gelditzen, pixagaleak amorratzen egonda ere. "Tirrit ta tarrat". "Hori gauza prezisua da e".

Transkripzioa

- Goiko ikatzen sokatik lotuak.
- A!
- Bai, biño beti jenealin bat aurrin, deus gabe.
- Beti aurrin. Bat beti aurrin. Hua...
- Aurrea bialiya.
- A! Nahiz 'ta bestik kargatuk izan.
- Bai, hua 're kargatua aurreku hura 're!
- A...!
- Biño, hoa pixka 't aurrexiotik.
- A!
- Beti... Beti aurrin, 'ta ez zenuteke xinistuko nik uan sango 'uten hau. Aurreko manduak ze itten dun. Aurreko manduak pixa itten du be gustoko tokiyan 'ta harek itten badu, denak ingo 'ute. Denak, e! 'Ta hurrungo eunin joten baza, han ingo 'ute, han ingo 'ute denak.
- Hoi duk marka e!
- Zu kompaziyo batea, bazuz hemendik Tolosa denak lotuta bazuz, barra, barra Tolosa, 'ta manduak bire guziyak pixallik jongo 'ia, 'ta bakizu pixallik... Pixak 'e iñ in berko 'u be garaiyin, bestela kontu txarra torko 'a. 'Ta horreatikan beti bat aurrin.
- A...!
- Beti bat mendiyen beti bat aurrin horreatikan botzen da.
- Ai ba!
- 'Ta geo itten da kuadrilla puxkatu 're bai. Beti gutxiyo. Eozeiñ mendi kroskatan 'e, denak pasa arte zu pixkat atentziyo pixka't hartu 'ta bestela, bat pasa 'ta aurrekua bestia tiraka tiritra! Eziñ torri biltzen da, harkaitzan eziñ pasik! Biño poliki, poliki denak hola pixkat atzea beitzuz... Horreatik sate 'ut ba, ofiziyo pixkat ber dela!
- Karo, hoi denak jakin in ber dia!
- Hoi denak jakin ezkió hobia!

- Karo!

- Ez dakina ibilko 'a, biño gaizki!

- Geo, bakarra baldin bada sei mandokin 'ta geo beste laun bat joten bada, bakotxa hirunakin.

- Geo hirunakin, hirunakin... Haikin aixuo berriz.

3.21. Trebeak

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Txarondon esku antzakoak dira gehienak, trebeak. Berezkoa dute. Ama eta osaba Anjel halakoxeak omen ziren, eta baita Anjel anaia defuntua ere. "Esku antzakoa". Kapotik. Hika.

Transkripzioa

- Hoa zen baliyo zuna. Zerkin ez zen izutzen zena izango. Harriya... Indarra ez zen oaiñ aiñekua ordun, biño! Halee hua galtzeko aiña izaki! Hua tornerua zen! Bea izatez gizona. Lanteyia zakan tornerua. 'Ta ona gaiña tornerua. Itxia iya sateko Txaondo Berri harrek iña da. Halaxekua zen hora. Halaxeko esku-antzakoa .'Ta osaba Anjel 'e hala zen 'ta ama guria 're hala zen. Hola berezkua karriya dia, zin haik.

- 'Ta beste senide...

- Gu geok 'e gauza pranko itten genun 'ta!

- Karo, denak izango ziñazten zuek.

- Batin hariyin 'ta galtzerdiyin 'ta... latze lanetako denak itten genittun. Denantzako galtzerdi bana, abarkakin 'o jantzi 'ta bero bero mendira, erki! 'Ta gue ama josten, ze iñ ez zekina berriz.

- Kontraiyoik ez.

- Ez, ez. Kontraiyok ez zun izango horrek! Guk esaten bageniyon: "ama, hoixe ze arropa politta! Ordun in ber diazu!" 'Ta tak! Ingo zun seittun.

- lual, iuala!

- lual, iuala! lual, iuala harrek. Tela karri 'ta, kampana in ber bazen kampana... Holaxe hartuko zun, tela hola kampanan kompaziyo batea 'ta hemendik hartu 'ta kampana gelditzen baida!

- A!

- Geo bi ayeka hoitan puska bana eatsi, motxxio baldin bazen 'ta jesus!
Atetzen zittun arropa batzuk! Polittaguk!

- Aski dotore ibilliyak zazte ordun!

- Bai. Gu jantziyakin... Ongi jazten giñan bai. Kapotik eta, ze ez zittun itten!
Kapa, kapotia be zorro 'ta guzi, aurrin botoiyakin, patrikak barrendik 'e
bai... Jesus! Neua 're aski ongi pasatzen genin guk, dembo hoitan 'e! Bi
esku patrikan sartzen battuzu barrengo ayekatik ez 'zu hotzik. Buruko zorro
'ta guzi! Aurrin botoiyak, beko hondoaiño lotua, 'ta bueno! Nahi genittun
bezelakuk itten zittun arropak!

3.22. Txabila

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/016
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Txarondon ardi asko zituzten. Haria egiten zuten, eta
galtzerdi asko eginak dira. Senarrak txabila egin zion, neurrira.
Erkatzezkoa. Ziría. Kakua.

Transkripzioa

- 'Ta ze, galtzerdiyak zuek...

- Nik banekin, neonek.

- Itten zenun?

- Bai, bai, bai.

- 'Ta zuenak itten zenuten...

- Gizonantzat aski errak in nittun! Hariya geok in 'ta, neonek in 'ta, oaiñ 'e
ingo nuke hariya, hariya.

- Ardi illetik?

- Bai. Ardi illia, garbittu illia lembizin, moztutzin illeik lakarrenak 'o beeixi,
gen itxian izaten genittun. Harrotu eskuz itten genun. Harrotu, orrittu saten
geniyon illia... Harrotu hitza. 'Ta geo txabilla. Itxian oaiñikan 'e han dakat
itxian. Altziberren baitut itxia nik. 'Ta han txabilla hantxe do goiko
gambaran 'ta gue gizonak, difuntuk, karri zin bat, haundi xamarra 'ta, san
niyon: "Hau haundiya da, hau ez da...Nik... Netzako haundiyegiya hau,
zeorrek ibilli berko 'zu!" Nik hola broman bezela. Geo... Deus esan ez
ordun, biño, jon 'ta... Berriz jon zenin, tornun iña ekarri zin txabilla bat,
dotoriaua arkaztezkua. Brillo gaitza botzen dun bezin dotoria. 'Ta geo
bakizu, erditik jarri ber izaten da ziriya, kakuakin. Ez zenun kusko igual...

- Erretratutan 'ta iual...

- Zuek ez 'zute jakingo biño. Geo erdiyan xolua iñ, kakua handik sartu, 'ta
jesus! Oaiñik hantxe do! 'Ta geo handik atetzekun, zeai gotu ziyon ordun,
e! Guriai! Bea 're pranko antza zuna zen Manolo bea 're. Pentsa 'zu! Jakiña,
kaku hora hausteko beldurra nombatte, hala zola! Hola izaten baizen.
Hautsitzeko beldurra! In zun, etzanta jarri, handik ateta, xolotik, 'ta sokakiñ

'o denak billu billu iñ 'ta txabilla billua hantxe do. Oaiñ 'e halaxe eongo da gambaran. Hoi txabilla iñ zin! Hariya dotoriao atetzen zen, berdiña askiya bai harekin!

- Joe!

- Ba, holaxe, gu holaxe giñan ohittuk!

- Hoi da, 'ta txabilla horrek ze itten zun? Hoi da, kardatuta zun hoa...

3.23. Artilea

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/017
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:28:58. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Ardiaren iletik haria nola ateratzen den: ardi-ilea garbitu, ongi harrotu, txabilarekin haria egin... Oheko arropa ere ardiaren ilearekin egin izan du Frantxiskak.

Transkripzioa

- Hua hartu 'ta hariya itteko?

- Zeorrek man ber zeniyon.

- Hoi da.

- Hartan 'e artia hoa 're bada. Geo eman ber izaten geniyon... Gue amak zun kostumbria hemen billu, dena, zea hari harrotu hora. Guk bate billu gabe pilla hartu 'ta aitzen giñan, ongi harrotua, e! Hoi bai. Segi, hariya itten. Ra ra, hondoaiño istanteko itten baita. In ber ziyon goiyan kontu, eskapo in gabe, hartan 'e ber da kontua, txabillakin.

- Itten ai zen heiñin biltzen...

- Ez, ez.

- Ez?

- Beko hondoaiño iñ arte euki 'ta ordun ez utzi gehiyo.

- A...!

- Gehiyo zabaltzen 'ta txabilla billu. 'Ta berriz hasi. Berriz benga, txabillatik, segi, illiakin. Hariya, illia noaiño 'ta bo! Itten ez genunik ez zen. Letrak itten ikasi nun nik eta ba!

- 'Ta denak kolore berakin ingo ze... Geo koloratu itten al zenuten?

- Koltxak 'e iñ genittun gen ohiyetako, esposatzeko. Haik 'e artillikin.

- Bai, e?

- Biño, lurrin jarri zea, xapiya, apropos eosi. Sobrekama bat 'e in nun nik behintzat, dotoria. Oaiñik hantxe eongo da itxian. Jakin nahi nuke zembat traste dakaten oaiñik.

- Biño hoik itxeko artillikin iñ al zenittun?

- Bai, bai, bai.

- Bai, e?

- Bai, bai.

- Biño...

- Izaten baigenun nahikua!

- A! Biño koloria... Kolore difentik 'ta maten al zenizk... Maten al zenizkaten beri harrei?

- Ez, illiai ez.

- Illiai ez.

- Garbittu ongi jaboia 'ta urakin, 'ta lehortzen zenin soruan, halako egualdiyakin udara partin itten baizittun dembo batin behintzat! 'Ta halaxe iñ, geo, zea, apropos ekarri tela. (Oratua) 'ro. Nik behintzat, eskutan iña nun.

- Aski politta izango zen hua!

- Bai. Oaiñik bizi da hua! Sobrekama 're bai gaiña! Be iuala gaiña, hola bueltan parpaillakin.

3.24. Haziendaren kofradia

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/023
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:39:57. **Bukatu**: 00:40:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Baserritarrek ez zeukaten aseguruik, gaur egun bezala, eta beren arteko elkarteak egiten zituzten ezbarrei aurre egiteko. Oiarzun kofradiatan banatuta zegoen eta ez zuten auzoekin kointziditzen. Tornolak bere kofradia zuen. Konpraia. Enkantia.

Transkripzioa

- Bai. Bai, bai. Biño, oaiñ ez da...

- Ez, oaiñ ez 'ttugu holako gauzik itten.

- Tornola 're zu gotuko za ba, zea, e... Kofraiya?

- A bai! Izaten zen hoa 're! Dembo batin.
 - Hoi zer zen?
 - Haziendan kompraiyia 'ro.
 - Gotzen za zu hoi, nola, nola funtzionatzen zun 'ta gotzen za?
 - Hoi ez dakit ba nik.
 - Hoi...
 - Hoi zer zen, hazienda bat 'o hiltzen bazen, hortako zen zerbatte, ez? Geo denan artin patu 'o...
 - Kompraiya, bai, izaten zen zerbatte...
 - 'Ta geo haragiya 're aprobetxatu igual denan artin 'o hola zen zerbatte, ez?
 - Bai, bai. Ona, ona baldin bazen haragiya.
 - Ona baldin bazen aprobetxatu 'ta geo patu ber bazen 'e, denan artin, 'o...
 - Zerbatte hola izango zen kompraiyan martxa.
 - Zerbatte hola uste 'ut zela hoi.
 - Hala uste 'ut.
 - Bai.
 - 'Ta karo, segun zenei tokatzen ziyon 'ta geo bestiai tokatzen, pues gauz bea, 'ta zeozer hola.
 - Bestiri, bai. Enkantia 'ro ze saten zen? Enkantia 'ro...
 - Ordun seguroik 'ta holokoik ez zen izango (...)gaiña 'ta...
 - Bai, nik 'e hola dakat aittua.
 - Portu Berrin azpiyan prankotan eondua zea, Iri zarran bat garbittua izaten zin attona difuntu horrek...

4. Lanbideak

4.1. Mokokorrotzeko meategiak

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Urederren idi-parea zuten. Mokokorrotz meategietatik materiala trenera garraiatzen ibiltzen ziren idiekin. 'Harloria' deitzen zioten harri zurixka ateratzen zen meategi horietatik, eta baita metala ere.

Transkripzioa

- Bagenittun iriyak e, iri pare bat, bai... 'ta harekin. Geo minasen; Mokokorrotz. Mokokorrotz deitzen den itxia bada 'ta mina han. Han harloria harria bereixten zuten, baliosua, Astuariasea 'ta eamaten zuten. 'Ta Bentasea eamanteko ez dakit zenbat patzen ziyoten, gutxi.

- 'Ta zein ibiltzen zen atta iriyekin?

- Atta bizizen artin bai, geo anaiyak. Harloria saten geniyona, harri zuri antzeko bat. 'Ta metala 're bai, (kaltzi klatzekuak). Bentasetikan bialtzen zuten halako tranbia ttiki bat zea propio hortako gauzak eamantekua. Hola.

- Eta ordun attak iriyakin ze itten zun? Minetatik hartu eta trena arte 'ro jetsi?

- Hemen, minetatikan hartu eta trena eaman 'ta ez dakit ze patu... gutxi, miño orduko dirua. Dirua zerbatte, familiya atetzeko aurrea.

- Hamar seme-alaba atetzeko!

- Aber!

- Lan pilla erra bai.

- Oaingo kontuik ez zen.

- Ez zen, ez zen...

4.2. Karabineroak

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/008
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:56. **Bukatu**: 00:19:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Polizia
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Txikiak zirenean, amak etxean edukitzen zituen. Ez zuen nahi kalean karabineroen seme-alabekin ibiltzea, haiek lotsagabeagoak-edo izaki. Karabinero asko zeuden Oiartzungo plazako etxeetan; gero, karabineroak erretiratu eta guardiak egon ziren. Guardiak Kontsejupean bizi ziren. Kartzela udaletxeko ganbaran zegoen. Teilatura atera izan zen atxilotutako bat.

Transkripzioa

- Ttikitan jostatzen 'ta ibilko ziñazten? 'O ttikitan 'e lana?

- Ttikitan amakin ioten giñan gu, itxian iukitzen ziguten. Bazterreko bizitzetan zeak izaten zian ba, karabineruak eta hola. 'Ta gu umiak kampotik torritaku hoik... Ordun denak... Uan denak izango dia gaixtuak, biño ordun haik lotsagabekuak 'o, gaizkiyo hitz eiñak eta hola. ' Ta gue amak iukitzen zigun itxian, ez haikin gaizki ikastetik. 'Ta hola. Karabinero tartian bizittu giñan urte...

- 'Ta non zin ba karabineruk? Ze itxetan zin?

- Leno bakotxa be itxia billatzen zun tokiyan.

- A, a!

- 'Ta geo guardiyak eoten zian berriz, geo karabineruk erretiratu zian 'ta guardiyak eondu zian kontsejupian. Goiko xaloi hartan ioten zian. Han bitzta batzuek bazian 'ta haitan batzuek, 'ta solteruak eta behintzat, beste

sala bat bazen 'ta han ioten zian.

- A! Kao, ze kartzelak 'e han zin, ez? Ayuntamentun?

- Bai. Kartzela 're han zen. Kartzelako gambara. Ui...! Zeako, ayuntamentoko gambara.

- Zuk aittu izan du al 'zu, oain esan 'zula gambara, norbattek ez al zun eskapo iñ?

- Eskapo ez dakit, biño leiyotik gaiñea atera, luzerotik eta ejuka 'ta sumatu zuten, erdi mozkorra 'ro jona, eamana. 'Ta ikusi zutenian korrika hura harrapatzea jonak. Leiyo... Handik salto ingo zun pentsamentuan 'o. Nik hoi aztua nakan, hoi san zunin akortu naz.

- Ni, attak 'o sana, bai. Bai, hoi da, 'o teillatoa ate zela, 'o...

- Bai, teillatoa, luzerotik teillatoa atera.

4.3. Josi eta josi

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/018
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Maitxoren izebak enkargu pila gaitza hartzen zuen josteko, eta gero ezin iritsirik aritzen zen. Goizaldera arte josten aritzen zen, eta baita jaiegunetan ere. Olokinen bi ahizpa aritzen ziren josten.

Transkripzioa

- ... nahiz eskolan ibili beti pixka bat, 'ta geo geyo. Goizaldea ate 'ta hortxe aitzen giñan, !ay! qué rabia josten goizalde arte 'ta aittu! Eguerri jaiak etorri, Xanistebanak etorri 'ta gure izeba? Bazkaltzeko 're astiyik gabe "Bai, bazkal... arratsaldeko... zea bezpeta 'ro ez dakit noa joteko 'ta" aindu arropa josiko dula 'ta oi... ezertako 're graziyik gabetanikan zea... Xanistebanak? Patxara errin bazkaldu 'ta lasai arrayo... keba! Muturka sartu zerbatte jateko 'ta korri berriz 'e arropak bukatzea arratsaldin norbattei aindua "Bai holoko ordutako..." eramango ziyola bere trajia 'ro soiña 'ro zelakua. Bo! ¡Qué miseria!

- Bat 'e disfrutatu ez. Ez jakin disfrutatzen.

- Haiek hola oittu zien 'ta berak disfrutatu ingo zuten, miño beti lanpian? Bo!

- 'Ta zer zin? Izeba bat miño geyo al zin ba josten aitzen zinak?

- Bestia zen izeban ahizpa; soltera. Beakin bizi zen.

4.4. Senarra zinegotzi

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:04:17. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Senarra, Manolo Iriarte, zortzi urtez izan zen zinegotzi. Mendiko gaia eramaten zuen. Gauean oso berandu etortzen zen udaletxetik. Frantxiska afaltzeko zain egoten zen, suaren aurrean, logaletua. "Auskalo nola ibiltzen izango zin". "Enpu inta atera giñan".

Transkripzioa

- Hua zea aittu zen, e... Konzejal! Iondu zen.

- Bai, zortzi urte in zittun.

- Zortzi urte in zittun?

- Ni pasia naz, amakiña zea bai! Gizona torri arte, igual mendira jon... Harrek mendiko zea 're baibaizekiyen, dena! Igual bea bialtzen zuten. Lanetik etorritzen zeneko, abisua! Ailletua! 'Ta jon in ber geo. Geo berriz, arratseko hamabiyak 'ta gizonik itxea agei ez! Herritikan. Hua al zen ba! Ni hantxe, suai juaz, zea, aurrea su erra nik eukitzen nun, 'ta neonek apaiya man nahi izaten berriz, nik. Bi, bi bakarrik izaki! 'Ta apaiya 're neonek man nahi aurreko alde.

- Hain berandu 'ta tortzen zen, e?

- Arront berandu tortzen zen.

- Lan asko!

- Ze aitzen zen... Ze... Izaten izango zuten! Izango zen ondoria 're.

- Karo, 'ta harrek 'e laundu nahiko zun 'ta!

- Hantxe... Han berko zuten denak durik gabe.

- 'Ta béak... E... Zea, ongi eamaten al zun konzejal? Karo, ze hor askokin... E... Asko haserratu 'ta ingo zizkaten?

- Auskalo nola ibiltzen izango zin, biño, nahiko eamaten izango zun noski!

- Zaila izango zen, e! Batzugin... Denakin ongi eman nahi 'ta...

- Bai, denakin ongi eamaten! Alkatia... Arkale eondu zen dembun eondu zen hora.

- Bai.

- Guk estreiñatu da Mamuta. Gue senar emaztik hantxe giñan afaiyan, zea merin... Afai merinda 'ro... Gehiyo bazin, biño... Enfu inta...

5. Familia eta harremanak

5.1. Gorriak eta erreketekak etxean bertan

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bileran ezagutu zuen gizona. Gerra etorri arte, ezin izan zuten ezkondu, gizona gerran baitzen. Inaxiren anaia aritzen zen gizonaren baserrian laguntzen. Inaxiren beste lau anaia gerran izan ziren: bi gorrietan eta bi erreketetan. Baina ez ziren haserre izaten beren artean; ez zen ez 'inkiik' eta ez 'temaik' beren artean.

Transkripzioa

- Nola zun izena zure gizonak?

- Ne gizonak Joxe.

- Non izautu zenun Joxe?

- Pues hoixen, bileretan. Gu atetzen giñan neska batzuk 'o 'ta haik 'e mutil batzuk 'ta elkarrei "Faborez" 'ta "bai" 'ta danak dantzan 'ta handik 'ta hemendik 'ta elkarrei launtzen 'ta hasi 'ta... Haik gitzasemik guri launtzen 'ta hola izautuak, 'ta geo ezkondu. Gu lenaotikan aurki(tu) ginan ez bazen gerra etorri, gerra torri 'ta hura eaman zuten 'ta akabo! Torri zen arte ez giñen... hiru urte e!

- Hiru urte: erra!

- Erra zen! 'Ta beste anaia, bi anai zin, bi anai 'ta hiru arreba, 'ta hiru arrebak Donostin neskame 'ta ama, atta hilla zuten eta hiru arreba Donostin neskame eoten zin etxetan, etxe partikularretan, 'ta bi anaiak 'ta biyak eaman! Miño maten ziyoten zerbait sueldo hillian ama sostenitzeko 'ro, ez dakizu?

- Bai miño, joe.

- Haik falta. 'Ta geo ne anai bat eondu zen denbu hartan, ne anai bat gazteguo ni miño, behiak eta bazittuztela 'ta haik jeitsi 'ta letxero bati maten genion, maten ziyoten, 'ta hola sostenitzen bizimodua, sostenittu.

- Klaro, nolapatte.

- Mutillakin 'e, anaiakin 're biali ber 'ta ne gizonai 'ta 're biali ber 'ta... haik 'e diru pixkat behar baizuten, (haik ez zuten). Han soldauxkan ematen ziyotena ez zen pasako, gutxi, ze sueldo mango ziyoten ba. (...) askoik, gutxi.

- Eta anaia 're gerratik atera zen? Biziyik ate zen baita 're? Gizonan anaiya?

- Gizonan anaiya 're biziyaik ate zen. Haik biyek biziyaik ate zin. 'Ta hoi hola 'ta neriak 'e ibili zien: bi billi zin reketetan 'ta bi gorritan.

- Bi gorritan ze? zue anaiak?

- Bai. Ne anaiak.

- Zuek anaiak bi ibili zin reketetan eta bi gorritan?

- Bi gorritan.

- 'Ta!?

- O! Ez zuten inkiik. Ez zuten elkarrenganako zeaik; temaik. Eaman deittu itten zittuzten eta eaman, 'ta horrekin... ez zuten.

- 'Ta geo gerra 'ta geo, berriz juntatuko zin ba?

- Gerra bukatu zenin itxian 'ta elkarrekin juntatu aleiya.

- 'Ta ez al zin haserraten?

- Ez, ez. Reketik ez. Konpreintzen zuten nolako... obligaziyo bat izan zela. Zertik reketik Irun aldian dena reketen zen.

- Obligatu in zittuzten?

- Bai, obligatu. Hola. Istoriyak!

5.2. Ezkontzeko gustagarria izan behar

- **Hizlaria(k):** Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-015/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Gurasoei bikotearen berri nola ematen zitzaien. Gurasoek zer esaten zieten: ez baziren gustagarriak ez segitzeko. Orain gauza hori okerrago doala, agudo aspertzen direla.

Transkripzioa

- Eta ezkontzeko ze itten zen gurasui permisua eskatu 'o hoi nola izaten zen Inaxi?

- Hoi? Guk ez genun permisui eskatu. Gurasuk esaten zuten, (beurek) esaten ziguten, elkarrekin hasi 'ta in giñanian, ba ezkontzeko kontuak eta hasi giñan esaten "pentsatu zein hartzen zuten elkarrekin e? Geo ez torri hemen kontukin, asike, pentsatu ondo. Ez bazu nahi gustagarriya elkarrekin ez seittu, ez duzula nahi ta kitto" san ziuten 'ta hortan fan dia,

gu hola fan giñen 'ta guriak 'e hola fan zien. Hala zan.

- Axertatu in zenuten ordun?

- Ui klaro, ze ingo zu ba? Oaiñ gauza hori okerrago doa. Separaziyua esate'utenez, separatzen eozein.

- Hoik ez dute ongi pentsatuko 'ro?

- Aspertu itten dia numaitt! Berrizaliak.

- 'Ta zuek ez al ziñazten aspertzen? Hainbeste urte elkarrekin?

- Ez, gu ez giñan aspertu. Gu ez giñan aspertu. Gu hantxe seittu genun elkarrekin.

- Gora berak izango dia miño...

- Bai izaten zien momentuak, eunan batin o' bestin igual erdi muturka antzin, miño geo atzea aixkiattu.

- Berko!

- Berko, hoixe.

- 'Eta Maldaburura ezkondu ziñanin, zer zin? Ez zen zue gizona...

5.3. Haurra eduki eta gero, ezin etxetik atera

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/024
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:45:45. **Bukatu**: 00:48:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Haurra izan eta gero, berrogei egunean ezin izaten zen ez etxetik atera ezta lan gogorrik egin ere. Haurra segituan bataiatzen zen, eta, amak etxean gelditu behar zuenez, aitabitxi-amabitxiak egiten zuten. Berrogei egunean ezin zen lanik egin, baina haurra amak zaindu behar. Orduan aita zelaian aritzen zen lanean.

Transkripzioa

- ... emakumiak. Hola enteintzen dan zerbatte partuko kontuz 'ta. Hura, haitako bat onduan eta launtzeko pixkat 'o komeri. Hala haziyak dia gue umiak. Denak denbu haitan gaiñea, denak.

- Eta parteratikan 'ta meikunetik aparte, zue ama 'o ahizpetako bat 'o ez al zen eoten?

- Bai, bai. Baita 're, klaro eukitzen genun, eta kobratzen zuna patu 'ta,

grazimenta pixkat eman harei 'ta... hola, kontuak.

- Eta zue garaiyan ba al zen oaindikan haurra euki 'ta geo izin zela berrogei eunetan 'o etxetik atera 'ro?

- Bai, beorregi eunian. Ez zen zeakin ibilli ber 'e, kargakin 'o... haurra izandu eta behintzat berrogei egunin itxetik ate gabe, berrogei eunea ordun kalea 'o... ordun atetzen giñan.

- Eta bataiyatu noiz itten zen haurra?

- Bataiatu seittuan. Seittun bataiatu. Gaur bezela jayo eta hurrungo egunin ya bataiatzea, komoduak, atautxi-amautxiyak preparatuak. Hori bai.

- Ama joten zen eliza haurrakin?

- Ez, ama ez zen... beste bat, ahizpa bat 'o haurrakin, amak ez daka atetzeik.

- 'Ta itxetik ezin al zen ate Inaxi?

- Berrogei eunin ez. Etxetik ez, eliza 'ta hola kanpoa ez.

- Miño baserriyan onduan bai?

- Bai, etxian jaiki 'ta in ber zen. Ez, lanin zelaian 'ta hola ez, ez, berrogei eunian. Nada!

- Miño etxian zerbatte lana aiko ziñazten?

- Honbre! Haurrak beren arropak 'e, hiru aldiz 'o... hiru miño geyo, kanbiatu ber izaten zen 'ta zikiña zela eta hau zela 'ta hua zela 'ta marru itten zula 'ta haiken harekin... han, harei kaso in behar. Amak gehiyena kaso.

- Gaiñea lehen amak ingo ziyon kaso, oain bezela atta 'ta ama biyek ez?

- Keba! Amak mayoria, attak zelaian lanin. Hala.

- Eta gor hazi ber izaten al dia haurrak, Inaxi?

- Segun. Nei... oain denbua joan zen 'ta komei miño nik errax. Errax 'o... ez behintzat holako goortasunik. Oaiñ 'de tokatuko die, denetik tokatuko die, batzuek parto gogorra bestik parto ariñaguak... bai. Petxua gaiñea ematen zitziayen orduan, denak petxua.

- Lehen ez zen biberoyik eta?

- Ez, ez. Biberoyaik...

5.4. Arropa garbitzeko teknikak

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/016

- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Natura » Meteorologia
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Arropak garbitzeko modu asko zituzten. Gobada, kuelak, arropa jo errekan... Arropa belar-soroan zabaltzen zuten, 'gau serenoan'. Txuri-txuri gelditzen zen.

Transkripzioa

- Bai. Nombatte hor deskargatzen zinak izango zin. Harri koskor pilla erra titzen 'izkiten nei urin, errekan arropa garbitzen. Oi, labandeyia biño (...)
Hotzik batez. Gaztia izatia zer 'te da, e! Amak saten zin: "urin ez sartu!
Hoztu ingo za 'ta!". 'Ta nik, ni kaskaorra izaki, e! Urin sartuta aixuo
garbitzen baizin.
- Ur gehiyo!
- Hoixe, bai! 'Ta geo, jarri 'ta seittun sekatu.
- Bertan jartzen ziñuzten lehortzen?
- Bai. Bertan jarriyak alambrik eta.
- 'Ta garbittu zekin itten zenuten?
- E?
- Garbittu, arropa zekin, jaboia ba al zenuten?
- Hoixe, bai. Jaboiyik eta lejiak eta bazin. Biño lejitan ez genun ordun
arropik jartzen. Gabez kampun utzi gau serenutan, lejia biño hobia izaten
zen. Mantxa guziya deseitten zen 'ta usai bat! Oain dena lejitan itten da,
biño...
- Belartan zabaldua?
- Bai, bai, bai., bai.'Ta gue itxia hain poliki baito, birian ixkiñin do 'ta biria
'ta irriyun artin soru haik.
- Xabalin erki!
- Bai, ba. Handik lapurtu 'ro itteko zen, han paseran tokatu 'ta hola iñ 'ta
sekula ez zin faltatu izandu 'ta geozko kampun utzi.
- Oaiñ igual emango littuteke, biño ordun denak holaxe eukiko zenittuzten
'ta!
- Bai.
- 'Ta zuk uara ba al dakizu zerrei saten zaiyon?
- guara? Bai! Arropa garbittu, berriz jabonatu dena, ongi, asko 'ta kuelak
izaten zin. Hola, hiru hankako zurezko ontzi batzuk. 'Ta han sartu 'ta hara
ura irakin 'ta hara bota.
Bestiya irakin 'ta bestia bota.
- 'Ta harrekin garbittu itten zen.
- Usai goxo askiya bai! 'Ta askotan berriz, kampun utzi. Jaboia man 'ta
arratseko!
- 'Ta gau serenukin lejia biño hobia da. txuri txuriyak, usai goxo askiyakin
bai, bai.
- Garai hartan zer zen, lejiak ez?
- E?
- Lejiak ez!
- Gutxi. Beandu hasi zin lejik.
- 'Ta ura irakitten bakarra botzen ziyoten, Joxepa, 'o zu gotzen al za hauts...
- Ez, ez. Kampun zon zeai, arropai ura botzen, irriyoko ura bota 'ta bota 'ta
bota 'ta. Euzkiyan beruakin mantxik 'o baldin bazen dena (...)zen
- 'Ta su-hautsa ez zenuten ibiltzen zuek?
- Bai. kuelatan eosi ber zinak bai. Kuela bat itxiya itten zen hora, ur irakiña

bota surtako hautsa paketin jarrita. Biño kampun hola utzita usai goxo askiya geo bai.

- 'Ta uara zerrei saten da, ura botzi horrei?

- Ez, e... Bai, bai, bai. ugara bai.

- 'O ze horrei...? Hiru hankako ze horrei deitzen da uara?

- Hiru hankako bai. kuela. Hiru hankako katxarro bat izaten zen.

'Ta azpiyan barriño bat jarri 'ta ura irakin 'ta hara bota, irakin 'ta hara bota.

Uan lejia bezela. Sano askiya bai! Usai goxo askiyakin!

- 'Ta txui txuiya gelditzen zen?

- Hombre!

- Bai, e?

- Mantxa guziyak joten... Kentzen 'ttu gau serenuk 'e. Oso zea ber du, burniyakin 'o mantxatua 'ro oso zaila ber du ez kentzeko.

- Ez kentzeko. 'Ta ordun ze itten zen, erropa txuiya zea, uara 'ro kuela hortan eta kolorekua ya errekan?

- Bai. Bai,bai,bai bai.

- Erropa kolorekua.

- Belauneiño sartu errekan 'ta aurrin harri haundi bat jarri 'ta dinbiti danba!

Ez gaitun beratzak izandu ez! Amak beti enkargu bat ematen zin: "urin sartu gabe, hotz do 'ta!" 'ta bai, ni itxetik ura orduko aztua! Bai, ez zen...

Osasuna zer 'te da! Jesus!

- Ez zenun katarroik izango!

- Pensa 'zu ez! Oain lenuo harrapatuko nuke, bai! Pensa 'zu betzi senide giñan 'ta bakarrik geldittua naz. Bat gerran...

5.5. Bileratik etxerako bidea

- **Hizlaria(k)**: Zabalegi Lazkanotegi, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-017/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Hamalau urterekin-edo hasi ziren bilerara joaten. Aitak, erretiratzeko, txistu egiten zien. Mutilak beti prest egoten ziren etxera laguntzeko, baina berak nobioa arrebaren bitartez egin zuen, bi ahizpak bi anaiarekin ezkondu baitziren.

Transkripzioa

- 'Ta noiz hasten ziñazten billerea 'ta? Ze garaikin hasten ziñazten billerea joten 'ta?

- Ba! Batzuk goiz 'ta bestik berrriz, beranduxio 'ta.

- Zu nola hasi ziñen? Gotze al za? Lendabiziko aldiz billera jon ziñanin?

- Zembat, billera jon nitzanin zembat urte izango nittun ba... Hamalau bat urte 'ro.

- Bai, e?

- Bai, izango nittun seuraski. Guk atta zintzua genun (...) 'ta gaiña goiz itxea!

- Xixto itten zun harrek?

- Biño harrei eskapo itten geniyon!

- Eskapo...

- aiy hai! Itxea jon 'ta sermoiyn! Ai hai! 'Ta kuartoa jon 'ta izorra!

- 'Ta ze ordutan... Billera ze ordutatik ze orduta izaten zen?

- Bilera? Pos...Urtiak... Jakiñak... Arrasaldin hasiko zen bostak aldin 'o hola. soiñua jotzen 'ta.

- Bostak aldin. 'Ta geo? Geldittu?

- Geldittu? Ilundu 'ta auro xamar. ongi, ongi.

- Geo ez zenuten bire asko itxea...

- Uan gabez dia fiestak, e! Toki gehiyenetan. Biño ordun hala izaten zin.

- Geo itxea ez zenuten bire asko! Oinez juteko!

- Bertan!

- Bertan!

- Bertan guk!

- 'Ta mutillak launtzen al zizuten?

- Haik pozik! Utzi ezkeo.

- Ez al zeniyon uzten?

- E?

- Ez uzten mutillai?

- Nahi genunik ez, behintzat. Aukeran... Aukera faltia ez zen 'zaten ordun! Edadi haitan! Ezkontzik 'e ez gotzen gaiña.

- 'Ta geo gizona izango zena, 'ta billeran izautu al zenun?

- E?

- Nobiyua nola in zenun?

- Nobiyua ez. Be arreban itxea. Be arreba zen ne koiñata, ne anaiyakin ezkondua. 'Ta hara joten nitzan ni 'ta hua 're bai 'ta hara! (...)

- 'Ta zer zazte, bi senide beste bi senidekin? Hara!

- Denak hillak. 'Ta pizkorrena neone. Saltsako...

- 'Ta nongua zen gizona?

- E?

- Aranangua zen?

- Bai. Bai.

- A...! Horregatik zu hara ezkondu!

- Bai.

- 'Ta ezkondu 'ta han bai al zin senide gehiyo zu ezkondu ziñanin?

- Bai.

5.6. Txikiardiko bilera

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Altzibarko bilera alderago zuten, baina beraiek Txikiardira joaten ziren, Errenteriako gazteak-eta ibiltzen zirela eta. Hamazazpi eta hemezortzi urterekin joaten ziren. Goiz etorri behar izaten zuten etxera; korrika etortzen ziren. Aita ez zen sartzen haurrekin; amak gobernatzen zituen denak. Lehen ez zegoen kapritxorik.

Transkripzioa

- 'Ta nobiyua itteko billerata jon ber?

- Bai, joten giñan Txikierdira 'ta han bukatzen zenian soiñua, korrika itxea!

- Txikierdira joten ziñazten? Altzibarrea ez?

- Altziberra 're bai, biño Txikierdin jende zeagua baizen. Errenteikua 'ta hola asko. 'Ta gu ze, hamazazpi hemezortzi urte 'ro. 'Ta hara jon 'ta handik auro bukatu ezkie, korrika atzea beitzeko demboik gabe. Egiya! Itxea ailletzeko auro.

- Nondik barrena tortzen ziñazten?

- Oi! Txikierditik? Ugaldetxon barrena. Handik atera 'ta goitik betti 'ta geogotti.

- Martxa errin!

- Korrika!

- 'Ta zer zen, illundu aurretik torri berra? 'O amezkilla 'o ze izaten zen?

- Bai. Guk... Ez ziguten amezkillik jartzen zertik, goiz izaten zen, biño goiz torri ber izaten genun. Bai.

- Bestela errita!

- Oi! Seguru!

- Zein zen gorrena, ama 'o atta?

- Atta ez zen metitzen. Aman kontura zen, bestela jeniyo bizikua baizen. 'ta harrek 'e zapeteko bat eman ezkeo... Ez, ez zen atta sartzen umikin.

- Ama.

- Ama. Harek gobernatzen zittun denak.

- Ez zun lan txarra! Zortzikin! Bai.

- Biño ez zen uan bezela. Uan, difente izaten zen ordun. Ez uan bezela, hau nahi dut, eta bestia nahi dut eta holako jostaillo 'ta bestia... No hay nada.

- Kapritxo gutxi!

- Batez! 'Ta gaiña kapritxoik 'e ez. Ikusten zen 'ta zea ez denak ikusten du zea 're.

- Klaro!

- 'Ta hola.

5.7. Urkabera jostatzeraz

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/014
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:32:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Eskolatik aterata, kalean ibili beharrean, zaharrenek txikienak hartu eta Urkabera joaten ziren. Karabineroak mingain-zikinak omen ziren eta amak ez zuen haien tartean ibiltzea nahi. Beren etxean ez zen behin ere potajea falta izan. Koskortuz geroztik, ordea, lan egin behar izan zuten. Maitxo kanpokoentzat jertseak egiten aritzen zen.

Transkripzioa

- 'Ta geo zaharra... Zaharrak gaztai zaindu 'ta ingo ziyon, ez?

- Hoixe! Zarrenak bestiai 'ta, pixkan pixkan denak bata bestia errepetu. 'Ta kalea ez jotiatik, gaizki ikasi besteik ez zela itten, 'ta Urkabea! Pasiatzea. Eskolatik atetzian, zarrenak ttikiyak hartu 'ta Urkabea. E... Auzuan lau biziña giñan 'ta lautatik hiru karabinero 'ro holokua izaten genun. 'Ta mingaiñ zikiñ holokuk izaten baizin, dembo batin behintzat, uan ez dakit nola izaten den jendia. 'Ta halakukin ez juntatzeatik 'o gehiyegi, Urkabea jon ber izaten genun. Merinda man eskura 'ta Urkabea, eskolatik atetzian, hala! Gaizki ikasteko beldurraz Urkabea errezatzea.

- 'Ta hala itten al zenuten?

- Ez dakit ze itten genun.

- Jostatu ingo zenuten.

- Jostatu.

- Geo han izango zin... Bueno oain... Ez dakit ordun izango zin. Gaztaiña 'ta ba al zin ordun Urkaben?

- Ez. Geoztik jarriyak dia. Leno zena piñua. Han denian, Urkabeko beko ayekan dena piñua. 'Ta piñu aldi bat botatzen zutenian, bestia 'ta hola.

- Ordun...

- Ordun 'e bizi. Potaje puxkat ematen baldin baziguten 'ta ahal zenetik eman 'ta.

- Gose asko pasik al zazte?

- Ez, goseik ez. Gosia ez. Potajin faltik ez.

- Potajia seurua!

- Seurua. 'Ta gue anai zarrena Donostira jotzen zen lanea 'ta Dono... Bizikletan ibiltzen zen. Bizikletan 'ta handik etorri itxea 'ta ez zun harrek be zeatuko, merin... Beno, akaso zerbatte merinda eamaten zuten e! Biño torri 'ta potajia. Hura aiñakoik bai al zen. Jan ezkeo potajia, ongi iña!

- Bai. Bai. 'Ta hua beti pronto amak!
- Amak hoixe!
- Ama aiko zen sukaldin?
- Karo!
- Biño zuek 'e zuen lanak izango zenittuzten?
- Esku lanak?
- Zuen... e... Zuen in berrak izango zenittuzten?
- Bai. Geo koskortu giñanian nik jerse asko itten nun.
- Jertxik?
- Kampoko... Jersiak.
- A bai? 'Ta non ikasi zenun?
- Amak eakutsi.

5.8. Besoetakoa hazten

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/016
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Amak ez zuen nahi izaten seme-alabak kalean ibiltzea. Anaiak Kontsejupean pilotan jostatzeko desiratzen egoten ziren. Lehengusu bat beraiekin hazia zen. Gurasoak hil zitzaizkion eta Maitxoren amaren besoetakoa izaki.

Transkripzioa

- Biño, izango jttuzu ongi pasatako zeak, e! Hanako Urkabea jotzen ziñaztenin ongi pasako zenuten!

- Ume koxkorak, pues jostatu.

- Karo. 'Ta zuek...

- Haizia ona hartu, zea, ibilli gabe. Haizia hartu 'ta.

- Karo, itxian nola eoten ziñazten...

- Itxian eon berrian, kampo! Biño... Urkabea 'ta hola. 'Ta zarrenak eta hola pelotan ibilli nahi 'ro hola 'ta: "ama, pelotan biltzen utziko nazu kalea

joten? " 'Ta ordu erdi bat 'o ordu bete 'ro...San: "Hambeste ordu arte".
Korrika konsejupea jun 'ta pelotan ibilli 'ta beitzin relojui beitu 'ta korrika
itxea.

- Karo.

- Gu ez giñen iñorrek in sesiyun aitzen.

- Karo, biñon, haurrak izaki 'ta muiitu, muitzeko ze hoi! Goua. Karo.
Normala.

- 'Ta gaiña guekin batin hazi genun lenguso bat.

- A bai?

- Ama hil zitziayon gaztetatik eta guekin batin bizittu zen.

- 'Ta zer zen, zuen eraretxokua?

- Gue anaiya biño, zarrena biño pixkat zartxio.

- A bai, e?

- 'Ta haik gelditzen zian hiru. Hiru anai... Bi anai zarrenak hamaika hilabete,
hamabi... gutxi! Difentzi ttikiya 'ute, zuten. 'Ta lehengusua pixkat zartxio
hiruak. Denak hola biño.

- 'Ta hua zuekin?

- Guekin.

- Biño anaiya bezela izango zenuten? Seniria bezela?

- Igual, igual. Geo komuniyua ordun hamar urtekin itten zen, eta amak san
zun hoiri komuniyua bialtzeko. "Batei bialtzen baut bakarrik, 'ta bestia..."
Hiruak igual igual jantzi 'ta betzi urtekin kumuniyua. Bikaiyui galdetu aber
ingo zun 'ta baietz, doktriña baldin bazekiyen. Sakristira jotzen zin ba 'ta,
baietz.'Ta hiruak batin in zittun kumuniyua igual jantzita. Jendia berriktan
aitzen baizen (...) 'ta. Bat bakarrik in bazun, "hau in du, beria ez baidu" 'ta
nola izaten da! Hola hiruak 'ta hiruak igual jantziyak.

- 'Ta ze in zizkan béak erropak?

- Amak dena. illoba zun 'ta. Béak hartu ber zun hazitzeko geo. Ordun hala
itten baizen! Norbatt besotakua baldin bazen 'ta gurasuak hil 'o hola hil,
joten zian padrinuan itxea.

- 'Ta amautxiya, zue ama amautxiya zun?

- Bai. 'Ta atta, atautxiya. Attan izenekua zen, gue attan izenekua zen hora
Pablo.

5.9. Bilerak

- **Hizlaria(k):** Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-021/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lan asko egiten zuen Rosariok, baina igandeetako bilerara ez zuen nolanahi huts egiten. Lehendabizi Altzibarrera eta gero Txikierdira hasi ziren. Ordua jartzen zen etxean eta erne ibili behar zen.

Transkripzioa

- Ni ez, ni ena gotzen.
- Txikierdira 're jotzen giñan. E Anttoni? Zu ez al za (...) Txikierdin?
- Ibili?
- Bai. A! Jo! Egunaldi txarra baldin bazen jibatzen giñan, urrutira jon ber genun 'ta.
- Ez ziñazten jotzen egualdi txarrakin?
- Bai. Oso zea ez baldin bazon jotzen giñan miñon, nahiko zea izaten genun itxetikan Txikierdira eta geo han pasatzen genun denbora eta berriz handikan itxea 'ta, nahiko komeiyak izaten genittun!
- 'Ta ordun eunez.
- Ordua jartzen zen etxian e!
- Bai?
- Hombre!
- 'Ta ze orduk zin?
- Ui, aztua dakat oaiñ miñon, ui bestela ez ziguten utziko hurrena, ez bagiñan etortzen han itxian santakun... hurrengun jai in berko genun.
- 'Ta amezkillak 'o ez al zin izaten ba?
- Amezkillak? Ez genun aitzen amezkillak noiz jotzen zun! Bai, hala saten zuten miño, ez giñan beti amezkillan beira eoten noiz jotzen zen.
- Ze in ber zenuten? Amezkillak miño lenoztik erretiratu 'o geo?
- Nola itten zen Anttoni?
- Ze ordutan izaten zin amezkillak?
- Ez dakit ze ordutan izaten zin?
- Hoixen ba, aztu 're in zigu 'ta.
- 'Ta dantzazalia al ziñan?
- Bueno, posible genuna itten genun. Hantxen ibiltzen giñan, 'ta kontentu! Dantzan ibili eta aste guziko kontentu. Que cosa ¿e? Ez genun ilusiyo haundiyan. Lehendabizi Altzibarren ibiltzen... izaten genun, eta geo berriz Txikierdira hasi giñan, horkua gelditu zen denboran. Txikierdira jotzen giñan. Bakizu non den Txikierdí? Hara jotzen giñan.
- 'Ta nondik barrena jotzen ziñazten?
- Kamiyoz.

5.10. Txikierdin dantzan

- **Hizlaria(k):** Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-021/016

- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Txikierdiko bilerara bidez joaten ziren, lagunekin. Dantza agarratuan ibiltzen ziren, baina Rosariok nahiago zuen sueltoan. Dantza eskatzen bazioten beti izaten zuen aitzakiaren bat ez egiteko, lotsatia izaki.

Transkripzioa

- Kamiyoz.
- Kamiyoz? A bai?
- Bai. Kamiyoz jon 'ta kamiyoz torri.
- Kamiyoz ze? Ugaldetxoño jon da?
- Bai.
- 'Ta geo Txipitotik gotti?
- Handikan gotti.
- 'Ta ez al da hor zeatikan, Zolotiarretikan 'o biria motzaguik ez al da hor?
- Ni behintzat e'nitzan hara sartzen, kamiyoz joten nitzan ni, joten giñan: nekin zinak 'e bai kamiyoz joten zin.
- Zer zenittun launak?
- Launak.
- Zein zenittun launak?
- Oi Jesus! Aztu 'izkit oaiñ zein nittun. Batzuk gonadunak eta bestik galtzadunak eta.
- Bitatik?
- Ui, txandaka!
- Ongi! Joe, aukera ordun.
- Jesus, Maria 'ta Jose!
- Oain bezela kuadrillak eta izaten al zin len 'de? Laun taldik 'ta izaten ziñazten?
- Bueno, denetik izaten giñan.
- 'Ta mutillak 'ta neskak batea?
- Bai. Batzuk, 'ta beste batzuk berriz aparte 'ta... Oaingo estiloa ordun 'e. Zuek nola ibiltzen zazte?
- Ba gu... Ahal dugun bezela. Hoi ez da asko kanbitu ordun.
- E?
- Hoi ez dela asko kanbitu. 'Ta dantza? Zea, agarraua uzte al tzizuten?
- Ez, nik ez. Utzi? Ui, agarrau 're ibiltzen zin, ni e'naz beñe ibilli miño... ni al suelto.
- A bai? Bakarrik?
- Bakarrik ni.
- Miño eskatuko zizuten ba dantzan?
- Ui, eskatuko ez zigun ba.
- 'Ta ze, kalabazak maten zenittun o?
- Ui, (...) "ez dut posible gañekun behintzat" "Ezin dut, miñ hartzen dut hankin 'o zean"
- Aitzakiya beti. Lotsatiya izango ziñan igual 'ta.
- Hoixen ba. Lotsatiya nitzan 'ta.
- Nahiz ta sardotegiyan lanin 'ta aittu...
- Bai. Lotsatiya baldin bada bat, hua lotsatiya izango da. Ni hala nitzan behintzat. Oaiñ, gañekun gustatzen zin nei 're mutil gaztiakin 'ta zea, saardoteiyan, 'ta broma 'ta ixtoiyak 'ta hoi denak, 'ta hoi denakin pues ni kontentu eoten nitzan, broma pasata 're.

- Nobiyua 're bazenun.
- E?
- Nobiyua 're bazenun.
- Bai.
- A bazenun nobiyua?
- Noizpatte bazen, ez dakit noiz 'de hasi giñan miño... Noiz hasi giñan Anttoni? Ni e'naz gotzen noiz hasi giñan.
- Denbo asko ibili ziñazten.

5.11. Sagardoaz gain, ura

- **Hizlaria(k)**: Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-021/018
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Aduriz sagardotegia gizonez josia egoten zen. Batzuk lataka aritzen ziren eta Rosariok ura bota izan die batzuei.

Transkripzioa

- Saardotegiyan gizon... geyena gizasmia ibilliko zin? Ordun emakumik ez zin jotzen.
- Ez gizasmia zen geyena, gizasmia bai.
- 'Ta toritu 'ta ingo zizuten?
- Bo! Batzuk bai 'ta bestik berriz e'zekiten toritu 're nola itten zen. Ze san 'de ba al zekiten batzuk?
- Batzuk zea ber gañea: launtza.
- Launtza. Denetik izaten zin. Jesus! Denetikan izaten zin. Latoso zikin batzuri... lata 'ta zikiña nazkatzen ziten 'ta, bai? Hartu zea sardua zetzeko potuk, litroko potuk eta izaten zin, ura 're bai, han izaten nun bertan basuk 'ta garbitzeko, handikan hartu litroko potukin 'ta muturrea titzen "segi hemendikan!".
- Atrebitzen ziñan e?
- Hombre! In berko! Bestela beák lata geyo jartzen zuten 'ta "segi hemendikan! Fuera!".
- 'Ta nausiyak ez zizuten ezer saten?
- Ezta deuse.
- Jakinki haik?
- Haik bazekiten. Neonek igual saten niyon beaiy ze in nun. 'Ta ongi in nula saten ziten. Erki in nula, mezi zunai iñ in ber zitzaiola in ber zena.
- Hairi 're tokatuko ziyoten?
- Hola bizittu izandu ga. Oain berriz, xintxo-xintxo hementxen.
- Lehen 'de txintxo ibilko ziñan?
- Bai, bai. Saiatzen nitzan. Xoxak nahi bainittun 'ta haik sortzetikan nonbaitikan. Ai Jesus! Ez dugu saardoteiko xoxa...

5.12. Kanpoan errieta, etxean errieta

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/005
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Arrazoia eduki edo ez eduki, haurrei errieta asko egiten zitzairen. Bai eskolan zigortuz gero eta baita adineko norbaitek errieta eginda ere. Gurasoekin ez zen orain bezala hitz egiten. Helduak hitz egiten ari baziren, haurrak bidali egiten zituzten ez entzuteko.

Transkripzioa

- Eta san bazenun kastigatu in zizutela? Errita igual? 'O...

- Bai, ordun... Ordun... Arrazoia baldin bagenun ta ez bagenun, eta zea gehiyokin, arrazoi gehiyokin beántzako eskolan kastitu zitela esatia netzako 're hala izango zen itxian. Gutxinin bintzat errita. Eta berdin pasatzen zen baita 're adiñeko personakin. Nahiz arrazoiyikan gabe zerbatte itten baziguten 'o saten baziguten, hura ahal baldin bazen hobe itxian 'o gurasuri ez esatia! Zertikan oso gutxitan arrazoiyari kaso ingo ziyoten, gehiyo ingo ziyoten zeñek esan zun 'ta zeñ zen persona hori. Bai.

- 'Ta aittu aittu´re gutxiyo, uan bezela ez.

- Ez, ez. Ez zen aitzen eta... Ez zen uan bezela hizketan aitzen gurasukin eta... Bueno, e... Esateko iñorrekin ez. Eta geo gaiña beste ohitura bat bazen, guen itxian behintzat, e... Beák ben artin ai baldin bazin e... Hizketan zerbattegitikan ni biali itten ziten beák zozten lekutikan!. Bai. Ez zen uan bezela hau gertatu da, 'o itxeko bateri hori gertatu zaiyo 'ro... Ez!. E... Ixilka pasatzen zen dena. Eta... Karo hoi netzako oso gorra zen! Zertikan igual izango zen gauz bat nik kompreinttu nittekena, 'o... Hura entetuta lasaiyuo eongo nitzana, miñon geo bialtzen zizuten eta ez zenekiyen zertik!. Ez zenekiyen. Eta geo enteatzan baldin baziñan, entetzen ziñan handikan demborata, 'o familiko batek esan zizulako zer gertatu zen, 'o bestela zu bittarti hartan e... Tortzen zizun hura 'o iziñ asmatuikan, "biño zer 'te zen ba nik iziñ aittu nun gauz hori" 'o... . Bai.

- 'Ta karo, 'ta horregatik galdetzen 'ta atrebittu ez.

- Ez, ez. Konfintzikan, konfintzikan ez, ez. Batez konfintzikan, 'ta... Hori e... Zembaitan pozikan esango, eta esanta lasaiyuo geldittuko nitzan ni neone 're 'ta... San ber niyon persona hura 're bai, miño... Bai, nik uste 'ut hortatikan gauz... Esan nahi nuke asko importik, importik ez zuten gauza askori e... Errezelo batekin gelditzen ziñan beti. Bai.

5.13. Jostaketak

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/010
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Jostatu pila bat egiten ziren: txingoka, kanikatan, gordeketa... Hilerrri zaharrean ibiltzen ziren. Sokarekin jolas bat baino gehiago zituzten. Hankak larrutu arte ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Bai aski gezki pasa! 'Ta jostatu pilla bat itten genun! Jostatzen giñan, ibiltzen giñan txingoka, e... Kaniketan 'e bat eta... Jo! Kanika kristalezko bat konsegitzetikan zer ez 'te genun itten! Gehiyenak lurrezkuk 'o, lurrezkuk ez, e... Buztiñezkuk izaten zin 'ta fuerte jotzen baldin bazeniyon hautsi itten zin. 'Ta kristalezko bat izatetikan... Jesus...! Bueno! Eta... Geo gordeketa 'e bai, eliz inguru hortan zimateyo zarra esaten yoten hoi 'ta, soka saltun 're pila bat, nik abillidade haundiya nun zea, e... Saltoka, e... Alturan soka pasatzeko. Bai. Eta klaro, gonakin izaten giñan 'ta geo komeiya! Jartzen genittun eskuak lurrian 'ta hankak gora 'ta hankan muturrakin soka billatzen bagenun bajatzen genun 'ta pasa beste aldea. Eta goian eoten zin monjetan e... Zea... Adiñeko person batzuk, gutxi ioten zin, biño, 'ta gizonezkuk 'o baldin bazin igual ejuka 'ta, 'ta monjak: "ez ziztela berriz 'e aldi horta jon, zuzte elizan beste aldea han ibil zizte jostatzen!". Eta bai, nik billatzen baldin banun hankan muturrakin soka, aixa pasatzen nun, biño klaro, ttikiya nitzan 'ta kosta itten zin, biño... E... Hanka bernia, hankan aurria, azala dena harrotua soka, soka pasatzikin, pasatzen. Bai.

- Nola izaten zen ba?

- Soka alturaketan, bai, saloka 're ibiltzen giñan, biño geo baita 're ibiltzen giñan alturaketan. 'Ta klaro soka lurretik altxatzen hasi eta gora 'ta gora 'ta gora zuk altxatzia 'o... Pasatzia posible zenun arte. 'Ta klaro, gora ailletzen zenin 'ta tiruo soka 'ta klaro, len san zattutena hankan muturrakin billatzen baldin banun seuru pasatzen nula, biñon azala dena harrotua 'ta zembaitan larrutu igual.

- Gomakin itten duguna guk, biño zuek sokakin.

- Biñon sokakin, klaro! Bai, bai, bai. Kontentu aski bai, biño hala 're aski kontentu, e!

- 'Ta ze ibiltzen ziñazten, neskak elkarrekin 'ta mutillak beste ayekatik?

- Ez, ez, ez.

- Denak batea?

- Ez, mutillikan ez, e! Zortzi urte arte ibiltzen zin...

5.14. Jostailu gutxi, baina irudimen handia

- **Hizlaria(k):** Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-028/013
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Hainbeste lanen artean, jostatzeko beta ere izaten zuen. Etxean, besteak siestan zeuden bitartean, bakarrik ibiltzen zen jostatzen, auzoan bere adinekorik ez baitzegoen. Etxeko barrutian bere txokoa egina zuen: jostailu gutxi, baina irudimenez betetako mundu ederra.

Transkripzioa

- Len jostaketakin aittu za. Gehiyena eskolan ibilko ziñan? Itxian, itxian, baserriyan gutxiyo?

- Itxian aprobetxatzen nun bestik siesta joten zinin. Bai. Eta... Ordun bakarrikan e... Asko ibiltzen nitzan san zattuten bezela, ne adiñekoikan ingurun ez nulako, eta bakarrikan ibiltzen nitzaneko banun ne txokua. Bai. E... Barrutiya, zalaiyan onduan arbolak eta zin lekua, barrutiya deitzen geniyon, eta han zen harri txuri zabal zabal bat, eta geo zittun e... Lurren azpiyan gordiak beste bi harri, biñon atetzen zin bastante eta izaten nun harri xabal hura nere itxia eta beste bi lurren erdi tapatuk zozten haik apalak. 'Ta ordun hora izaten zen ne itxia 'ta ne denda. Eta... Arbolan adarrakin eta geo e... Urritzari aixa kentzen zaio axala, urritz arbolari, hairi axala kendu eta itten nittun orratzak bezela haikin, moxtuta. Eta zertik itten nun hoi? Arkaleko soldaduk ikusten nittulako zea e... Aber, ez nau akordatzen oan... Istrukziyuk itten. 'Ta klaro, haik eamaten zittuten korreak, 'ta gerrikuk eta txapelak ben borla batekin 'ta, 'ta nik itxi hartan denetik nakan. Ordun itten nittun gaztañan 'ta adarrak hartu, 'o gerizayanak igual, sartzen nittun urritz makillai 'ta itten nittun haik bezelako korrea haik 'ta batzutan militarra nitzan, bestetan dendaiya 'ta bestetan itxeko andria! Biñon aztua, e! Zembat dembora eoten nitzan han. Ingurua dena garbi garbiya eukitzen nun.

- Bakar bakarrik?

- Bai, eta hura neria zen. Neria. Ta ez dakit iñoiz iñorrekin han ibilli nitzan, uste 'ut ezetz. Eta geo, pues... Zea 're bai, ordun garai hartako historiya. Itxian sala haundiya zen, eta, bi maiya eta silla pilla bat 'ta, eliza, jartzen nittun maiya oi... Sillak bi illaratan eta neonek jantziko nittun amanak 'o izeban arropak eta hankatakuk, mantilla haundi bat jarko nun 'ta gen ustez elizan geundela, ni bakarra nitzan biñon... Elizan gaudela 'ta apaizak, apaizak guri atzia man 'ta ordun meza maten zuten beák aldarea beira 'ta guk ikusten genun apaizan espalda. Ordun, 'ta kasuelidadia, ze nik aldaria nakan salan...

- Bai, han aldare bat zen bai!

- Guen itxian... Aldaria... Guen... Bai, ni jaiyotako itxian aldaria zon! Ordun

jartzen nitzan ni ne silla pilla haikin aldarea beira, eta apaizak ne... Guen ayeka beitu 'ta... Maten zunin be ordena nik itten niyon silla denari buelta eman, belauniko ioten nitzan bittartin, 'ta silla denai buelta man 'ta exeita jarri. Igual hamar 'o hamabi silla! Eta gustora! Bai. Gustora. Geo...

- Ordun jostailluk gutxi!

- Ez. Jostailluk eta... Jostailluk itten genittunak...

5.15. Jostatzen eta ehizan

- **Hizlaria(k)**: Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-028/014
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Zuhaitz adarrekin zankak egiten zituzten. Auzokoak biltzen zirenean, habietan ibiltzen ziren. Zozo eta birigarroei habia kendu eta hazteko hartzen zituzten. Garai batean horrelako hegazti asko jaten zen. Zankak egiten zituzten adarrekin. Auzokoak biltzen zirenean txori-habia bila bidaltzen zuten. Habia kendu egiten zen. Garai hartan, zozoa eta birigarroa jan egiten ziren.

Transkripzioa

- Jostailluk itten genittunak, goenek. E... Zea, este... Zankak. E... Arbola adarran kakuakin, kakuak zuten arbola adarrak guenak moztu eta guenak, guenak itten genittun zankak. Bai. Eta jartzen genittun alderantziz, eta haiken gaiñin ibiltzen giñan, bai. 'Ta geo nik baita 're, geo ya... Izebak eta ezkondu zinin 'ta haiken zapatik eta ez nunin, itten nittun alpargatari hiltze batekin egur puska bat josi, takoiyak. Eta han ibiltzen nitzan neriakin hankak ukertuta, biño iruitzen... Gustora! Gustora, bai!

- Imajinaziyuk ze itten dun!

- Imajinaziyua bai. Eta geo ba... Hori, igandetan 'ta auzokukin 'ta ibiltzen baldin bagiñan ba... Ordun 'e jostatzen gutxi. 'O txori kabitan, eta nola nitzan ni gaztina eta ttikina adar e... Mehe batin baldin bazon txori kabiya, nei bialtzen ziten. Gurason batek ikusi 'ta errita maten ziyoten arte. Ez han ibiltzeko nei. Zirikatu itten ziten, klaro! Beák ni biñon... Hasieran esan zattutena, zazpi urte 'o zortzi urte gehiyo, nei zirikatzen ziten 'ta... Ni nombatte harrotuko nitzan 'ta hantxe, txori kabiya billatzea, 'ta ikusten baldin bazuten gurason batek 'o saten ziyoten: "biñon, zuek juiziyo pixka bat ber 'ta hortikan eroi 'ta miña hartuko baldin baluteke, baldin baluke, ze ingo zenuteke?" 'Ta, biño bueno. Beste... Ni bintzat, haikin ibiltzen nitzan 'ta ni izugarriya...

- Konten!

- Hombre! Ni biño zazpi 'o zortzi urte... Neska zea... Zarraguk, eta mutillak

berdiñ! Haikin, beákin eamaten zitelako ni oso kontentu!

- Kabiyaikin ze itten zen? Kendu?

- Kendu! Eta... Hola haundi xamararak baldin bazin, zozua 'ro billiarrua 'ro holokua, hazi 're bai itxian. T'a ordun zozua 'ta billiarrua 'ta txoriya 'ta jan itten zen, e! Bai, bai bai. Bai. E... Zea, e... Lumatu 'ta lan pilla bat zun, biño ya ohittu, ohittuta geunden eta jan itten zen.

5.16. Olloki

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Astigarragako Olaberrieta baserrian jaio zen Maritxu. Sei urterekin ekarri zuten Ollokinera, aitabitxi-amabitxiekin. Normalean, baserriaren izengoitia hartzen du pertsonak, baina kasu honetan, Olloki aita eta osabari deitzen zioten eta handik hasi ziren etxeari Ollokine deitzen. Aitonak bertsolari ona izan behar zuen.

Transkripzioa

- ... zelayin.

- 'Ta hangua zer zenun gurasutako bat 'o?

- A ez dakit... hara ezkondu zian 'o... hori ez zattut esango. Han sortu giñan behiñipein betzi 'do hamar.

- Jesus!

- Bai.

- Eta noiz torri ziñan honea?

- Honea sei urtekin karri ziten. Nola... Osaba zen nere attan anaiya. Eta nola berak etzakaten... etzuten familiyik ba 'ta... ordun bakizu? Askok ez bazuten ere zeaikan... padrino-madrinak, atautxi-amautxiyak, jasotzen zittuzten hola, asko, len ohittura bazen. 'Ta etzuten beran familiyik eta honea karri ziten 'ta hementxe, hazi 'ta hezi, 'ta bukatu 're hemen in berko dugu.

- Eta Ollokinekua zein zen e...?

- Olloki saten ziyoten osabai, 'ta nere attai 're bai. Attona... attona... hoiyen attan atta edo... Hoin attona 'ro... Usurbilkua baiño han Olloki baserriya 'ro ez dakit zer zen han... bertsolaiya oso ona izan ber zun.

5.17. Baserria baino kalea nahiago

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Osaba-izebekin bizi zen eta urtean behin baserrira joaten zen gurasoak eta senideak bisitatzera. Hasieran, baserritik kalera mira egin bazuen ere, gerora nahiago zuen kaleko giroa. Olokinen jostundegia zegoen, eta neskatxek burua altxatzeko esaten zioten, baserritik etorri berritan lotsatia izaki Maritxu. Hika.

Transkripzioa

- Gañeko senidik baserriyan?

- A klaro, klaro. 'Ta haik... senidia baiño urtian behiñ 'o horrelaxe joten giñan hara, hemendikan Astigarraga bakizu? Gaur kotxik badia miño oiñez? Hor Txikierdin barrena... ui, nik ze amurraziyuk aittu egun hartan, ene!

- Ze joten ziñan izebakin 'o?

- Izebakin 'ta, urtian behiñ edo joten nitzan.

- 'Ta nondik barrena joten ziñazten?

- Ui, pues Ugaldetxon barrena. Txikierdin barrena.

- Oaiñ kamiyua den tokitik, gutxi gorabera.

- Bai, bai, bai. Hortxetik...

- Len estratak 'o...

- Kamiyoz-kamiyo, bai baiño gu kamiyoz joten giñen, mendiz izango zen aurrepiria miño... oiñez, 'o zea, kamiyoz. 'Ta bakizu zer den?

- 'Ta han bixita in 'ta buelta?

- Bai.

- Eun bakarreko 'ro?

- Netzako kastigu erra bai hemendikan...!

- Bai e?

- Ui aber? Hemen hola bizi 'ta lagun artiak eta utzi 'ta... urtian behin e hoi, biño ordun 'de pues...

- Miño ama 'ta ikusteko goua izango zenun?

- Ba! ez dakit.

- Geo ya galdu?

- Klaro, klaro.

- Hasiyera bai mira in miño...

- Si, pero... 'ta geo 're jon baziñan toki onetik txarrea, baiño txarretik onea torri ezkie aber!

- Klaro, hemen gañea kale ingurun eongo zen girua 'ta!

- Hoi ba, hoi ba. 'Ta launak 'ta, jesus! Geo hemen izeba aitzen zen josten: neska kuadrilla gaitzakin 'ta batekin 'ta bestekin kontuk esan 'ta o! Jesus! Ni honea torri nitzanin, akortzen na, Uarteko Karolina, uste 'ut hilla dela, Xegunda ez dakit izautu zenun... pues, Karolina hura geo Ameriketa jon zin ezkonduta, harrek esaten zin: "Altxa zan buru hoi, bestela txikorta jarriko ñet, zean, kokotza azpiyan". Klaro, baserritikan han zea hain mendi tontoretik ezerre zeatu gabia torri 'ta!

- Lotsatu?

- Klaro, hola. 'Ta hoinbeste neska hemen, josten bo! 'Ta Karolina hura tipo gaitza zen, 'ta gañea jartzen zin paretai kontra beira, "Altxa zan buru hoi, bestela jarriko ñet txikorta kokotza azpiyan buru hoi tente eukitzeko" saten zin. Hura beti broman...

5.18. Kalean jostatzen

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/010
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Oiartzungo kalean, haur asko elkartzen ziren, beti jostatzeko prest. Ez zuten gaiztakeria handirik egiten, baina beti zirikan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Jo! Juerga errak pasatzen genittun haiekin, ene! Zinturak lotu... pero, eske ateratzen giñan... arrosiyua izaten zen illunabarretan, 'ta arroxiyoko aitzakiyan atera, arrosiyoa joteko, 'ta juntatzen giñan mordoska, neska mordoska, launak 'ta denak hortxe, zea, geo neska 'ta mutil, juntatu 'ta Paul hoi tartin izaten genun: zinturak bildu elkarrenak eta estatua hor, horren goiti bera bota 'ta Donfelizeneko zeiai, oain jardiña nola in dute, Donfelizeneko itxia horrei aldabai lotu zinturak 'ta gu estatuan atzin gorde; ta-ta-ta, aldaba jotzen genun... hor 'ta beste... Muguruzanin 'ta bueno! Muguruzanin 'e aldaba gaitza zun atiak eta elizan aiñako hola zea bat bada hor eskalletan gotti iyota petrilla gisako bat? Haren atzin gorde gu 'ta

gauza berdiña hairi 're 'ta "¿Quién es? Zein da?" 'Ta gu erki, zein den, zea gorde 'ta zinturakin tira aldabai... iñorrez han! Miño guk, jesus! Zenbat holako pika... zeak... pikareskiyak itten genittun, bueno! Eta gozatzen giñan! ¡Qué bien lo pasabamos!

- Gañea haur asko juntatuko ziñazten plazan 'ta?

- Laun asko.

5.19. Neska-mutilak elkarrekin, baina gordean

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/011
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:23:33. **Bukatu**: 00:25:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Prendatan jostatzen ziren: Anton Pirulero kantari, galtzen zuenak halako tokira joan eta halako galdera egin behar. Heldu batzuk haserretu egiten ziren, baina beraiek halaxe gozatzen ziren. Neska eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren, baina etxeok ez zieten uzten.

Transkripzioa

- Lagun asko, juntatzen giñen bai.

- Koskorriya geitza izango zen?

- E?

- Koskorri geitza izango zela inguru hontan? Oain 'de bada miño...

- Juerga geitza! Antonenekui 'ta... geo prendak itten ere bai. Prendak! "Anton, Anton pirulero. Cada cual, cada cual, aprende su juego" eta hortan, geo galtzen zunak, prenda in ber zun 'ta "bueno, jon ber 'zu holako tokita, 'ta in ber 'zu hau galdetu" 'o besteta... Antonen kanta, "Anton, Anton..." zen 'ta Anton: zea, neska hoin attona zen, kaxkaxuia zen. Dendan hor eoten zen, 'ta hara jon 'ta "Aizu, Anton gazta zuria" ez "Zenbatin saltzen..." ordun, cada... bueno, oan beste modurako gauzak itten ttuzte, miño ordun gu gozatzen giñen prendak itten, bueno! 'Ta eozíñei: "Bueno, hola jon ber 'zu oaiñ horrea jon ber 'zu 'ta hoi galdetu ber yozu horrei 'o hau iñ ber yozu".

- 'Ta errita emango zuten zarrak?

- Bai, noski! "E, zea, ze ibiltzen zazte hemen, zea hola 'ta hola?" Miño gu... ume kontuk!

- Miño zarrai 'ta errespetu geyo? Jende helduai errespetua...

- Bueno, baiño gaixtakiyik, gaixtakiya preziso ez genun gauza txar... gure

juergarako. Haiei ez zitzaieten ondo iruittuko miño bueno!

- Zuek erki pasa?

- Bueno! Hay cada cosa... jesus! 'Ta gozaten giñan erki! Bueno! Neska 'ta mutil.

- Denak nasiyan, ez?

- Bai. Miño itxekun 'ta zeak... ixillik eta hola. Mutillakin 'ta ibiltzeko? Itxekun 'ta ixilik! Ez gaur bezela zea, neska 'ta mutil ez dia... ez zen ibiltzeik. Ibilliko bai pozikan egunez elkarrekin miño, gordeka 'ta hola.

- Miño hoi ya koskortuta? Ya neskatxa inta?

- Bai, bai, bai. Hamasei-hamazazpi urte 'ta.

5.20. Landetxeko nagusiak

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena**: Ollokinekoak Landetxeko porteroak ziren. Egiane deitzen zioten etxeari; egiatarrena baitzen Landetxe. Udaran etortzen ziren Oiartzunera. Etiketako jendea zen.

Transkripzioa

- Gañekun esan... Ollokine zer zen baserriya baita 're 'o itxia?

- Bai, hazienda eukitzen zuten bai. Behi pare bat edo horrela bai. Hoi, kanpu hau dena, todo esto...

- Ni gotzen naz hoi.

- Hori dena guk ibiltzen genun. Porteruk giñan e. Itxe zean, jubilatun itxe horren hoi denan zaintzen guk zaintzen genun. Porteros.

- Hoi... nola du izena?

- Nere izeba 'ta osaba... Egiania saten ziyoten, beak Egia zuten apellidua, Landetxe.

- Eta haik ze tortzen zin, udaran?

- Udaran. 'Ta urte guziyan gure mende, 'ta guk zaindu. Tarteka tortzen zin, jaitan edo horrela arratsaldia pasa edo miño gañekun...

- 'Ta haik zer zin Donostikuk ó?

- Donostiyan bai.

- 'Ta euskaldunak eta al zin?

- E?

- Euskaldunak 'ta zin?

- Hoixe! Jesus!

- Miño jende dotoria 'ta izango zen?

- Bo! Ordun, zea, lujo haundiya zen. Haiyek, gure nausiyak zin denboran, etiketa haundiko jendiak, de mucha... grandeza. Hiru neskame eukitzen zittuzten... hiru bai, 'ta gañea interina, itxe haundiya zuten han 'e Donostiyan, Kursalea pasa 'ta seittun dute, da itxia, miñon denak... bat bakarra da bizi da.

- 'Ta hemen neskamik bazittuzten?

- Bai.

- 'Ta herrikuk izango zin? Oiartzunguk izango zin?

- Ez. Han Donositikan zakazkitenak ekartzen zittuzten, geo interina hartzen zuten hemen, itxe haundiya baizen hau 're, hiru planta bazittun. 'Ta jende asko tortzen zin: kartzen zittuten Hazparreindikan bere ilobak, zazpi... sei 'ro zazpi mutil koskor, bakaziyutan. Abuztu guziya hemen pasatzen zuten eta...

- 'Ta haurra haik ibiltzen al zin... zuekin 'ta nasten al zin 'o haik ben?

- Koskortuk zin e! Bai miño hemen herriko jendekin 'ta ibiltzen zin e! bai, bai, bai.

- Tratua 'ta bazuten 'o aires de grandeza 'o zittuzten?

- Ez, hangu haik jendi zeaguk zin, korrientiaguk. Hoik, hemenguk ere gaztiak bai, biño zeak nausiyak berak eran de mucha categoría, kategori haundikuk. Ba! Aberatsa... zer zuten ez zekitela dirua! Hoiek?

- Eta zuek garaia hartan dirua ikusi 're ez askotan?

- Guk ez, baiño jendi hoiyek... esos...

- Oaiñ denak berdintxo bizi ga, miño len kriston difentziya?

- Bai, hori. Eta berdintxo ez, gaiñea leno haundiya ben ustez zianak, gaur están un poco más abajo que gu biño. Biño gu alletu gea a lo más alto e!

5.21. Klase diferentziak

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehen, klase diferentzia nabarmenagoa zen. Pobreak ez zuen ezer, eta aberatsak ez zekien zer zuen ere. Gaur egun, zorionez, egoera aldatu da.

Transkripzioa

- Aittu ni ai naz esan 'ta esan e! 'Ta esango 'ute "jendia hoi... ze ai da hoi erua hoi hor san 'ta san, esplikazyuk hoiri ematen". Hoi, egiya da e! Zertikan denak bizi izandu gea, zean, nik han, nere etxian, hoinbesteko familiya, oaindik aurrerapenik gabeko zea, eta handik honea torri 'ta diferentzia, 'ta geo, urtian poderiyun, orain, orain, aber ze kanbiyua in dugun. Denak e!, denak. Leno pobre antzeko jendia zena oaiñ alletu da aberatsan gradutara e! Porke aber, hasi zattiz kotxikin... eta itxiak, leno errentan izaten zen 'ta errentak 'e eziñ alletuik eta... mixeri... mixeriya? Bai, ez beiñipeiñ oaingo bizitza. Oaingo bizimodua ez, oso diferentia. Eziñak 'e bazian 'ta... oan baiño geyo; eziñak. Gaur jendia bizi da, pues, leno aberatsan kategorira alletuak.

- Bai, oaiñ eozeiñ joten da biajea 'ta...

- Edozeiñ, edozeiñ 'ta eskubide oso-osua. Eskubide oso-osua dakate. Baiñon lendikan, jesus! Difentzi erreko bizimodua! Difentzi errekoa, a! Gure izeba gaixua haik oaiñ bizi balia! 'Ta gure izeba bezela beste asko 'ta asko 'ta asko, 'ta ze bizitza: latza! Latza! 'Ta batez 'e, baserritarrak ere bai. Bizitza gorra eraman 'ttuzte baserritarrak, batez ee. Jo! Gaur aurrerapena asko 'ta asko dago, makinaiyakin, laneko, haziendak 'e kanpoa botzen dia 'ta len bezelako mazka itxea eaman berrik eta zeaik ez.

- Bai difentziya.

- Diferentzi haundiya, bizimodua asko aldatu da, lendikan.

- Miño, Maitxo, gerra ondorin 'ta zea, kalin okerruo pasako zen gosia...?

5.22. Aldaketak baserrian eta orokorrean

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ekonomia eta industria » Boom industrialia
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Lehen, baserrian familia guztia aritzen zen lanean. Gero hasi ziren gazteak fabriketara-eta neskame joaten. Etxean maiorazgoa gelditzen zen. Maiorazgoa emakumea ere izan zitekeen. Lehen, baserritarrak ez zuen ikasten, baina orain bai. Lehen, aberatsek bakarrik ikasten zuten. Emakumeak ikasten zuen gauza bakarra jostea eta sukaldean aritzea izaten zen.

Transkripzioa

- ...leno, y hoy en día pues...

- Klaro eta ezta, ezta... Estimatu 're berdín 'de ez, oaiñ.

- Keba, keba! Ez, ez. Ezta pentsatu 're, ezta pentsatu 're, estimaziyua. Eske gaur dakazu denetikan, san zattut ba, leno aberatsai beira eongo pozikan hau erosiko 'ta hoi aberatsak, buf! Eta oaiñ, aberatsan graduta gehixkunak... lana itten da, lana bada, eta baserriyak ere ez dia leno bezela. Denak errextasunakin jarriyak dia 'ta leno baserriyan famili guziya enpleatzen zen e! Arta-jorra zela 'ta, belar-ontzik zila 'ta, 'ta illar-biltzia zela, hosta-ittia... bueno, ze lanak ez zian baserriyan! Famili osuak. Eta gero urte batzutatik hasi zen, ya 'o neskame, edo fabrikara, baserritatik. Itxian ber zena, bat, geldittu; geoko izango zena, itxea: mayorazkua.

- Mayorazgua ze izaten zen? Igualtxu zun gizasmia 'o emakumia? 'O beti gizasmia gelditzen zen?

- Itxeako bat zeatua zeona, mayorazgua saten zen. Lomismo emakumia izango zen, igual.

- Zarrena normalin?

- Bai, jeneralin bai. Jeneralin bai. 'Ta geo leno denak batian, denak baserriyan bizitzen zin 'ta baserriyan, hango bizibidia, gañekun ez. Gaurko egunin lanea jotén za, zure soldata badakazu, y es muy distinto.

- Lotua baserriya.

- Bueno! Lotua 'ta lan asko iñak dia baserritarrak e. Goor lanak iñak baserritarrak dia. Enkambio gaurkun erraxtasun haundiyak daude, eta gaiñera esan zattutena, baserriyan bat, gero baserriyan jarraituko duna... 'ta gañekuk, pues 'o neskame dela, edo... gaiñea aber gaurko egunin ezeiñ baserritarrek karrerak badakazkite, neskak eta mutillak.

- Bai, bai, oso difentia da.

- Leno pentsatzen zen baserritarrak ez zutela baliyo ber estudiatzeko, y hoy en día cualquiera te tiene una carrera, y muy bien además. Beste dirodunak, ai 'ta ai 'ta ai 'ta ai, 'ta igual tutik 'e baliyo ez. Hala da, hala da. Zenbat... Jesus! Zenbatek zenbat diro bota alperrik eta alperrik kategoria nahi zutelako, enkanbio gaurko eunin pues normalidade guztiyakín edozeiñ baserriko neska edo mutillek dakazkitzu karrera ónakin. Leno ez zen posible.

- Hoi onea behintzat, in da.

- 'Ta gaurko eunin pues baliyo dunak, baliyo du 'ta ateratzen dia aurea. Askok eta askok.

- Ze zue erareko emakumik ikasten seittu gutxik, josten gehiyenak ez?

- Bai, ordun ohittura hala zen. Eta ezkondu ber zunak kozinan ikastea pixka bat. 'O taberna zean batin edo... kozinan ikastea hori 're bai. 'Ta geo jostia iruitzen zen gauza bera, gaurko eunin ondo da zeezer arreglo ttikiyak itteko jakittia, jakittia ona da...

5.23. Neguko lana prestatzen

- **Hizlaria(k):** Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-031/022
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Oiartzunen baziren jostundegi gehiago, baina trajeak egiten gehiena bere izeba aritzen zen. Udaran, ikasleak baserriko lanak egiten aritzen ziren eta ez ziren joaten jostera. Bitartean, izebak negurako lan guztia prestatzen zuen.

Transkripzioa

- Jostundi gehiyo? Baiño ez da nik nere burua alabatzetik eta gauza miño horrek gizaseme arropa e? josten baizun trajik eta horrela... kalia... eta galtzak eta... josten bai baiño beste... emakume prenda gehiyo. Jostunak bazian bai, bai: Joxepa Anbruziona saten geniyona eta Linonekuk, Linonekuk gero Ameriketa joan zian, torri zian 'ta berriz 'e hara joan zin, zea Iriberriku hoin zeak... Iriberriku Linon osaban 'ta andria, 'ta hoik josten aitzen zin hortxen zean Zulotxikiko goian. Eta besteikan...

- Postan 'o bazen norbaitt baita 're yeakusten aitzen zena?

- Postan bai, zea, hor Sanjose hoin ama, aitzen zen bai, josten. Hori bai, horrek itten zun gizasemina 're, oain trajik ez dakit, miño galtzak eta behiñibiñ bai, itten zittun. Bai, jostuna franko bazien hemen.

- Gañea trajia ittia ez da erraxa izango? Soiñak eta erraxauo, ez?

- Bai. Baiña lana, bo! 'Ta geo udaran ez zen etortzen neskatxak 'ta neguan haiyentzako denentzako lana izateko bakizu zenbat in ber izaten genun! Zea, lana mantentzeko, geo haik etortzen zineko, zertikan denak baserriyan enpleatzin zin, baserriya zutenak zailla zen jostea tortzia udaran, negu aldin bai, miño zertik denak baserriyan lana itten zuten, jesus! Belar ontzia zela, metak ittia, hosta txikiyak ittia, tontorrak kentzia... había cantidad de trabajo baserriyan leno, eta famili osuak itxian

enpleatzen zian. Gero, urtian poderiyun, hasi zian, san zattutena: 'o neskame dela, neskame 'o fabrikata, fabrikata 're asko jon zen. Beste bizimodu bat hasi zen. 'Ta ordutik honea aber ze aurrerapenak dauden baserriyan: hazienda denak kanpoa botatzen ttuzu, makinak battuzte behiak jeixteko...

5.24. Portuberritik Okillegira

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/002
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Arroxa Ergoien Portuberri baserrian jaio zen eta Karrikako Okillegira ezkondu zen. Gizona argentinarra zuen, baina gurasoak Ituren jaioterrira itzuli ziren, eta handik hasi ziren anaia eta biak Vasco-Navarra argindar enpresarentzat lanean. Portuberrin apopilo zegoela ezagutu zuen Arroxak gero bere gizona izango zena.

Transkripzioa

- Gue Dolorex bizittu zen han, Dolorex oaiñ Altzibarren bizi da, nik ez dait zenbat denbo izango den torriyikan, ni handik ezkondu nitzan Okillira, bai, treintaynueven ezkondu nitzan, el año treinta y nueve, el día de Santa Cecilia.

- Hogeita hiru urtekin?

- Bai.

- El día de Santa Cecilia ezkondu nitzan.

- Eta nola izautu zenun zea, mutilla.

- Ne gizona? Ne gizona argentinua zen, e... miño txikiyak zil... mueno, hamahiru-hamalau urtekin 'o torri zin familiya honea eta geo gerrako dembun nola jende asko detenittu zuten Makintxea, Portuberri ondoko zentrala hartan...ko gizona eraman zuten, bueno hortako, ne gizona 'ta hoik lttuinen bizittu zin, lttuinea torri zin Ameriketatik. Eta geo, klaro lemizi, karri zuten dirukin bi itxe eosi, esa es una historia, eta bizitzen jarri zin lttuinen, osasunik ez zulako etorri zin Ameriketatik ne suegruk eta banku batin jarri zuten dirua, itxia eosi 'ta gañekua, eta banku horrei... beste bankuk san 'men ziyon eun batin: "Dirua hoi hortik atetzia hobe 'zu zertik banku horrek soiñu txarrak ttu" 'ta gue... ne suegrak kontestatu 'men ziyon: "Ze nahi 'zu zurian jartzia 'o zer?". Efektibamente: bankuk kiebra jo eta sosik gabe gellittu zin. Eta geo ordun, béak eosi zuten tokiyan jarri zuten taberna 'ta zezena izaten zen ordun, oaiñ artifizialetik denak, eta han hasi zin bizitzen. Eta, e... hamasei urtekin 'ta hamabostekin bi zarranak, ne gizona 'ta bestia... Dominikan gizona, zea genun... Jon, lanea jon zin Frantziko ez dakit noa 're... 'Ta ordun ne gizonak miñ hartu zun han, arbol batek azpiyan hartuta, urtebete pasa 'men zun Pamplonako klinika batian. Eta geo, taberna nola baizen de Elgorriaga, Elgorriagan denbo batin

Baños de... Elgorriagan zin, oaiñ ez da, oaiñik 'e zoluak 'o han zozten. 'Ta horrea tortzen 'men zin Donostiko jende asko bañoa eta Vasco-Navarrako nausiyak 'e horrea jotzen 'men zin. 'Ta geo nola baizuten taberna 'ta ne suegrak oso ongi zekiyeen kozinan, eta hara hasi zin jotzen euna pasatzea 'ta taberna horta, 'ta han konfiantza in zuten eta ne gizona 'ta be... bi anaiak sartu zittuzten Vasco-Navarrin. 'Ta Ittuitikan oiñe... tortzen ttunen bizikletan haik eunero Pasaira Luzuriagana lanea, lemizi. Lemizi Luzuriaganin hasi zin 'ta geo Vasco-Navarrea pasa. Ittuindikan bizikletan eunero!

- Zenbat dembun?

- Nik ez dakit... bi ordu bai gutxinin... geyo!

- Miño urtetan 'ta hola 'o?

- Bai bastante urte, geo... zenbat urte zango zin? Sartu zenin hogeita hiru urte 'o, honea torri zenin zeara Makin... 'ta geo Makintxeko gizona hoi nola eaman baizuten detenittuta kartzela, harren tokiyan torri zen ne gizona. 'Ta geo bakizu, apopilo tokiyak eta ber izaten zin... ne itxea jon zen apopilo 'ta handikan in genun izauera.

5.25. Apopiloak

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/003
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Portuberrin apopilo asko ziren, baita bertan zahartu eta hil zirenak ere. Apopiloak etxeoak bezalakoak ziren. Lehen, etxean zaintzen zen zaharra. Hika.

Transkripzioa

- 'Ta in genun izauera 'ta handikan ezkondu giñan, bai.

- Bai, ze Portuberrin apopilo...

- Asko.

- Asko, ez?

- Lau 're hillak genittun, lengun saten aittu nitzan zeñei: "gu etxiin, denbo batin zarrrik ez dela itxiin, gue itxian apopiluk 'e lau hil ttuken, lau!". Gue etxea jon apopilo 'ta han bertan zahartu 'ta miña bat harrapatu 'ta bertan hil, bai. Zuk izautuko zenun Mieltzo, Mieltzo Tromoiya?

- Bai.

- Harren osaba bat 'e ne... han hil yunen. Juergan jon igandikin 'ta kanpoa atera jana 'ta kazkarra 'ta San Antonak eta hoztu da 'ta sotoa sartuta, han lau 'o bost sotun, eta hoi ikaragarriko hotzikarakin, 'ta goira eaman 'ta... minan lana itten zun 'ta minako gaitza zakan 'ta pulmoniya harrapatu 'ta hantxe hil zen, gue etxian hil zen. Mutilzarra, mutilzarra? Bai, berrogei bat urte 'o. Majua zen, miño juergista. Ixtoia? Ordun beztittu in ber izaten zen hiltzeko, no tenía ropa 'ta be anai bat, meno oaiñ ez da iñor bizi, ikatza itten ai zen tokira jon ne atta 'ta handikan 'ta haren trajikin jantzi eta enterratu zen. Holako ixtoiak dia, bai.

- 'Ta apopiluk ze itten zin: ya etxekuk bezela?

- Itxekuk bezela. Hoimeste urtian... Bestia 're Selpuukua zen, Selpuuko semia 'ta mutil zarra yunen 'ta itxian ez zela ongi 'ta hua 're gue etxea torri 'ta (bire) geitza zuten. Hoi denak... 'ta beste bat 'e... geo hasertuta itxea torri, Altxi, zuk ez zenun izautu, eta hura 're gue etxian sortu zionen, meno, neskaaxta jonta eroi zela ez dakit non 'ta herida in ez kasoik in 'ta geo handikan pulmoita 'ta... behintzat, de noche a mañana, han hiltzen hua 're. Eta beste bada attona, ne attan atta, mutilzar bat izaki anaia 'ta gaizki jarri zen 'ta iñoa 're joteko tokiyik ez 'ta... eta anaiak jaso 'ta hamar urte pasa ziñen harek oyin, hamar urte. Hura 're han hil zen. Lau mutilzar, san niyon "Mutil zarren tokiya". Aleiya, ate zen... oain nola josten din asko... famili asko da eamaten ttuztenak 'ta josten dinak eta ospitalea, 'ta ordun itxian kuidatzen zela xarra, 'ta hola ate genun ixtoia, hemen.

5.26. Ugarte Errota, martxan

- **Hizlaria(k):** Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-062/002
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Errota martxan gogoratzen du. Etxean ez zuten traba handirik egin; ezkondu eta bakoitza bere aiekatik joan ziren.

Transkripzioa

- Zeiñ geldittu... Errotan bertan norbatt... Bestik ingo ziñazten ezkondu, pentsatze 'ut. Eta jon.

- Bai.

- Eta errotan bertan zeñ geldittu zen?

- Errotan bertan oaiñkan ni ateta 're oaiñkan bazien.

- Bazen.

- Bai, bai. Haimbestetik. Hamar bat bagiñan 'ta!

- Karo, bai, bai, bai.
- Hamar bagiñan 'ta.
- 'Ta zu gotze al za errota martxan 'ta?
- Bai, bai, bai.
- Bai?
- Bai. Geo ba, ez genun traba haundiyik man ez. Zea xamar, biyurri xamar ibilli giñan.
- Biyurriya al ziñen?
- Denan, denan gustoa zailla da baita! 'Ta hola.
- Haimbestetik.
- 'Ta geo alta, ezkondu giñan 'ta san genun, bueno, oaiñ bakotxa be ayekatik.
- Zembat urtekin ezkondu ziñan?
- Zembat urte izango nittun nik ordun? Hoeita... Hoeita lau 'ro... Zerbatt inguru hoi.
- Eta... Ze...

5.27. Errenteriako paper fabrikan

- **Hizlaria(k):** Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-062/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Baserri bezala, Ugarte Errota ez zen handia eta lau anaia Errenteriako paper fabrikan hasi ziren lanean. 16 urterekin hasten ziren lanean.

Transkripzioa

- 'Ta zuek baserri haundiya al zenuten? 'O gehiyena errotakin aitzen ziñazten?
- Bueno, baserriya bezela haundiya ez zen. Bos behi 'ro hola. Bai, bai. 'Ta geo gaiñekuak hazi ahalin, 'o martxa hartu ahalin lanea. Papeleran lau anai aittu giñan, e! Lau anai aittu giñan.
- Gazteik hasiko ziñazten?

- Bai! Beno! Nik zembat urte izango nittun? Ba ez dakit ba! Hamasei bat urte 'o! Hasi nitzanin ni.

- Gazteik hasten ziñazten lanin, e!

- Gazteik, gazteik, gazteik. Bai, bai, behiñ hamabost hamasei urtekin lanea. Bai. Lau anai papeleran aitzen giñan.

- 'Ta haik zer zin, zu biño... Haik 'e auro hasiko zin?

- Gaztiena ni lautan.

- Ordun zu hasi ziñeneko, hoik hasiyak?

- Geo bosgarrena arotz... Arotzeiyan hasi zen, Errenteiyan. 'Ta geo gaztina Saastian hua 're lanea.

- Denak lanea.

- Denak lanea.

- Berko.

- Hoixe! Jango bazen!

- 'Ta papeleran pintxe 'ro hasiko ziñan ba zu!

- Pintxe, bai. Pintxe hasi ber. Geo bakantiak zinian beti: "Hi! Ni hemen nak, e!" 'Ta hola. Geo suertia duena, empleatu itten zen. Bestik berriz, empleatu behiñ ez. Sei beti lanin! Biño, beti izaten zin hamazortzi, hamar laun han jabe, maixo itten zuna.

- 'Ta ze aittu ziñan papeleran jubilatute arte?

- Nola jubila...?

- Papeleran ze aittu ziñan? Urte pilla bat aiko ziñan!

- Urte asko! Papeleran! Soldao jon nitzanin papeleran...

5.28. Soinu-jotzaileak

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/019
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:36:33. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Aisia » Kultura » Musika
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Joxe anaia soinu-jotzailea zuen. Paper fabrikari libre zenean, Altxabarren aritzen zen jotzen. Auzoko batekin ikasi zuen soinu jotzen. Anaia Auxtin ere aritzen zen soinuarekin, ttirripi-ttarrapa. Berari

dantza egitea gustatzen zitzaion. Altzibarren bilera ederra egiten zen. Iruñerreneko Fermin soinu-jotzailearen aita ere aritzen zen lehenago. Txikierrdin geroago jarri zuten. Soinu txar bat.

Transkripzioa

- 'Ta geo e... Ze san 'zu? Anai bat Joxe soñujoleiya?
- Bai. Soñujotzaillia.
- 'Ta hua aitzen al zen Altziberko billeran 'ta?
- Ez. Fijo han ez zen aitzen. Papeleran aitzen zen hura 're. Papeleran. Hua aitzen zen e, soñu jotzen han, libre zen demboan.
- Papeleran?
- Bai.
- A bai, e?
- Papeleran libre zenin, Altziberren 'e behiñ 'e, batzutan soñu jotzen zun hura.
- Bai, ze Altziberren Iruñerreneko Fermiñ 'o... Zeiñ aitzen zen soñu jotzen?
- Bai, bai, bai.
- 'Ta ordun tarteka anaiya 're bai?
- Bai, bai.
- Joxe.
- Joxe.
- 'Ta ongi joko zun soñua?
- Hoixen.
- 'Ta non ikasi 'te zun, 'o? 'O...
- Ikasi... Harrek ikasi zun... Mekauen... Erdikoitze saten yogun, esto... Gaztañetikan betti torri 'ta hor hiru, hiru itxe 'o baizin...
- Bai, bai, bai.
- E!
- Beno, hor, hor ikasi zun guriak soñu jotzen. Bai. Han ikasi zun.
- 'Ta zeñek iakutsi ziyon 'o gotzen za?
- E?
- Zeñek eakutsi ziyon...

- Hango baserriy hartan bizi zian bai, ez dakit nola zun izena. Biño harrek eakutsi ziyon. Harrekin ikasi zun soiñua jotzen.

- 'Ta eosi 're in berko zun ba soiñua?

- Bai, eosi... Eosi 'o ez dakit akaso igual mango ziyoten soiñua eosteko 'ro... Ez dakit. Hola ba.

- Ordun zea erra... Giro politta... Itxian jotzen al zun?

- Zeiñek?

- Anaiyak jotzen al zun soiñua itxian?

- Bai. Aitzen zen. Bai, bai. Be saiyuak itten zittun itxian. Bazen beste bat 'e hola. Gotu 'ta ba, behiñ 'o behiñ hartu 'ta tirriti tarrata (...) aitzen zene. Austiñ. Bai. Biño ez, hora kampun... Ez zen aitzen. Itxian zeozer.

- Itxian hua.

- 'Ta zui ez al zizun behiñ 'e gooik iñ?

- Be!

- Ez, e?

- Ez, ez zin iñ.

- Zuk ze itten zenun, dantza?

- E?

- Dantza?

- Dantza? Dantzan 'e gustatzen zin. Dantzan 'e pixkat ibiltzen nitzan. Altziberren 'ta billera erra itten zen ordun. Urti haitan. Karo, bestetan ez zen 'ta! Hara, neska 'ta mutill, hara! Balkoiyin jarriko zen, hala benga, tirripi tapa. Lenoztik 'e berriz harren atta aitzen zen. Bai, soiñu txar bat, soiñu koxkor bat (...) Geo horrek ikasi zunin, "bueno...! Hietzako oaiñ!"

- 'Ta kampotik 'ta denetik tortzen 'men zen jendia Altziberra!

- Altziberra? Bai, bai. Hala zen. Errenteitik 'e jendia pranko tortzen zen. 'Ta kalin, kalin 'e asko, bertako jende asko Altziberren. Asko.

- 'Ta Txikiardin 'e geo jarri zuten. Txikiardin 'e. Oaiñ han 'e ez da billerik ingo, Txikiardin?

- Ez, uaiñ ez.

- Aspaldiyan ez.

- Azkena hua... Hua geldittu zen, biño... Ez, nik ez nun izautu.

- Ez?

- Geo gu ya Hernanira 'ta joten giñan.

- Ya.

5.29. Inguruko bilerak

- **Hizlaria(k):** Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-062/020
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Loiolara askotan joaten ziren, topoan. Han ere bilera izaten zen. Soldaduak ere joaten ziren. Irunen ere egiten zen bilera.

Transkripzioa

- Hor zeara jotzen zen asko, Loiyola! Zeaku horta. Kauen! Soldauxkan kuartela dena nola da? Han. Nola du izena barriyu harrek?

- Loiyola, ez?

- Bai. Loiyola, Loiyola.

- Han zer... Hara jotzen zen jendia igandetan?

- Bai, hola... Behiñ, batzutan 'ta... Jaiyero ez, biño hola behiñ 'o behiñ. (Fronteran) hartu topo 'ta hara jetxi 'ta bueltako ... handik, kombinaziyo ona zen hura.

- Hoi zuek 'e bai? Zuen erarin? Zuen garaiyan?

- Bai, bai. Bai, bai. Jendia Oiartzunen sartu 'ta Loiyolan jetxi.

- Erki.

- Erki. 'Ta geo tortzeko, han iyo 'ta hemen jetxi. Tira. Biño han billera 're erki itten zen, e! Geo Loiyola... Soldauxka, soldao han kuartela zen, 'ta hortik jende berriya jotzen zen.

- Soldauk jongo zin.

- Bai, soldaduk 'e jotzen zin.

- 'Ta soldao izan arren, paisano jantzitzen zinak, jotzen zinak 'e bazin, biño behiñ 'o behiñ harrapatzen bazuten... Je...! Erne! Erne! 'Ta hola.

- A! Ba Loiyolakua ez nun aittua. Loiyola jotzen ziñaztenik ez nun aittua.

- Ez, e?

- Ez.

- Han, hara billera 're jende asko joten zen. Asko, asko.

- Ordun jongo ziñazten Arraura oiñez, eta topua hartu.

- Han topua hartu. 'Ta han topun jetxi.

- Erki!

- Bai.

- Uain 'e bada.

- 'Ta Iru... Irunea 're bai. Irunen 'e itten zen, zea, billera. Biño Irunen, kalin (beste ez e! handik pixkat apartexio. Han, hara 're jende asko joten zen.

- Extebenin 'ta hoitan?

- Bai.

- Han 'e, hara 're jende asko joten zen.

- Sana ziten bai, Extebenin itten zela, 'ta beste nombatte san ziten, biño ez naz gotzen non.

- Ya. Hara 're jende asko joten zen. Bai. Hoi 'ta Loiyola, biyek direziyo banatan. Bai. 'Ta Altziberren, 'ta Txikierdin 'ta gaiñekun...

- Pikoketakuk 'ta gotzen za zu? Pikoketan 'e itten 'men zen, 'o...

- Pikoketan 'e bai? Puldamentu haundiyik...

5.30. Bilerak non-nahi: "ai, gue denbuk!"

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/022
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:43:47. **Bukatu**: 00:47:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Aisia » Kultura » Dantza
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Gurutzen ere bilera izaten zela dauka gogoan. Katea aiekatik etortzen zen jendea. Azainen ere izaten zen soinua. Bileretara oinez joaten ziren. Neskei laguntzeko aprobeztatzen zuten. Ttapa-ttapa segi! Berak Juansendokoa zuen emaztea. Ai ai, gue denbuk!

Transkripzioa

- 'Ta Txikierdin 'e bai 'ta. Geo Gurutzen... Duda itte 'ut, ez dakit itten zen, igual han 'e ingo zen. Kate aldetik jendia tortzen baizen. Han bertan itten zen billera. Katian.

- Bai, hanguk izandu dute joera honea 'ta guk 'e bai hara.

- Bai, bai. Irundarrakin bai.

- Hoi topo... Trambia horrekin bi ayeketa 're kombinaziyua do. Donostira 'ta bestetik Hendaira.

- Bai, topukin erki.

- Bai.

- Kontu pilla erra, Juakin!

- Bai, ordun soiñua, bu! Nun-nahi soiñua! Han 'o hemen, 'o hor, 'o... Puf! Azaiñen 'e itten zen! Azaiñen 'e! Soiñua.

- Gotzen za?

- Bai. Zu ez al za gotzen?

- Aittua itten zela, biño bueno.

- Bai, bai. Azaiñen 'e itten zen. Azaiñe.

- 'Ta zaiñek jo 'ro itten 'te zun? Bertako norbattek? 'O...

- Bai, bertakua bai. Bertakua. Geo galdu zen... Asko, asko galdu 'iya holako billerak eta. Asko. Biño gu gaztiak giñan demboan, urti haitan, Azaiñen 'e bertako semia aitzen zen.

- 'Ta dena oiñez, Juakin!

- Bai, bai. Azaiñea jon in ber da, e!

- Bai.

- Han ez da, zea kotxin serbiziyoik! Han ttapa ttapa ttapa ttapa segi. Bai.

- 'Ta geo torri berriz?

- Bai. Jon, jotia bakarra ez!

- Bueno, geo aitzaki politta, neskai launtzeko etxea 'ta!

- Bai, hoixe. Pasaizo politta, paseo politta.

- Batzuk ez zuten nahiko, biño beste batzuk bai!

- Hoixe. Hoixe.

- Zuk Juansene... Juanseneiño jon berko zenun ba?

- Juansendo.

- Juasendora jon berko zenun andriai launtzea?

- Bai. Ugaldetxoa.
- Ugaldetxoa.
- Ugaldetxoa. Beno, Ualdetxo, Ualdetxo bertan ez, biño bai, aldian. Ualdetxotik aldian.
- 'Ta ze joten ziñazten, Altzibertikan, Altziberko billeratikan joten ziñazten?
- Bai.
- 'Ta berriz buelta Uartea?
- Uartea.
- Zuk bertan zenun, biño, harrei laundu in ber!
- Harrei launtzeko jon in ber. Haik bi ahizpa haik tortzen zin, hirugarrena bazen, bazuten... Hiru 'ro behintzat. Ai, ai, ai...! Gue dembo haik!

5.31. Egun osoan lanean

- **Hizlaria(k)**: Iñarra Lizaratzu, Manuel; Oiartzabal Etxeberria, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-063/004
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:11:22. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Errazkin, Aitor
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Manuel oso gazterik hasi zen lanean: hasieran, Erreterriako Laneran; gero, Astilleroetan; eta ondoren, Luzuriagan, erretiratu arte. Inaxik baserrian nahiko lana bazuen. Oso gazterik hasi zen mendira iratzeetan. Menditik etorri eta baserriko lanak. Baserriko lanaz gain, etxeoak. Amona sukaldean arrosarioa errezatzen eta beraiek ikulitutik erantzuten. Zamaka.

Transkripzioa

- Hoi lana ematen diazu kontatzeko!
- Ni, hamabi urte kunplituta, [aurreneko] hasi nitzan lanian. Errenteian, Fabril Lanera, ez dakit aitzia bazun... Bota zen. Han. Zortzi ordu, hiru pezta eunian. Hariya lotzen. Lana itten zen, ta haik'e lotzen.
- Nik esango zaittut... A, bueno, segi...
- Soldau joan arte. Soldau eaman tziatenian, ta etorri nitzenian ez nintzan hara jun. Han lanik etzen itten, biño irabazi're ez. Han ez zinen zikintzen baino, ta handik alde in gendun.
- Lanera?
- Lanetik alde in nun. Ta enkargatuak berriz: "Honea heldu al haiz uaindik? Hemen ez duk ezer irabazteko, moteil!" Ta... martxa in nun.
- Ta noa jun... Geo, beste...
- San Pedroa. Astilleroa.

- A...

- Han ere beste bi urte in nittun, ta hua're ez zitzaiten asko gustatzen, ta... Geo,... Luzuriagan sartu nintzen. Luzuriagan hogeita beatzi urte in nittun, pasiak... Ta jubilaziyua hirurogei urtetan eman ziguten, ta kitto.

- Ja... Nahiko lan inta!

- Uan ni(k) sango zaittut: hamalau urtetako hasi nitzan mendira iatzian (iratzea) bila, iatzia baakizu zer den... Bale. Aittona difuntukin, mendira, hara. Hamabost-hamasei urte nittun denboan, iatzia ebakitzen zuten, ta behiak lotzen zittuzten uztarriyan, behiak hartu, gurdiya jarri harrei, ta mendira... Hala, segi taka-taka-taka-taka-ta... Mendira jon ta, geo, genun irriyo bat; mendiya ayeka baten erdiya, ta beste erdiya atera in behar zen iatzia. Zamaka in zamakin edo bestela jorra erdiya jarri gurdiyai, ta goitti kartzen genun ta hura bota, lurrea. Berriz atzea jon, beste erdiya gurdiyan jarri, ta goitti ekarri. Ta bota zenun hua, harri gañin jarri. Gurdiya ondo jartzen zenun denboan, etxea. Etxea etorri. Ilunakin iual etortzen giñan... In ber izaten zien metak, ilunduta igual. Anaia, sega hartu ta mazka ebakitzea, bestia, metan gañea, ta ni sardia hartu ta gurditikan, iatzia botzea. Meta iten gendun denboan, bueno, oain segi, txokorra bota behiai errapea, ta txokorrai eana(ra)zi, azpiyak atea, azpiyak egin, behiai jaten eman, asper-asper iña, ta, geo, amona difunta sukaldin arrosayua errezatzen... Bai, hori bai, beak errezatu beharkou!

- ... Ta geo, ikullutikan gu, kontestatzen! Hoi, hoi egiya da, hoi egiya da... Konpa(ra)zio batea, sukaldia hemen bezela ta ikuilua hor bezela edo, hola genun... Ja aitzen genun...

- Klaro, dena bihan... Klaro...

- Bai... Bai, dena bihan, aitzen genun, biño amona sukaldian arrosayua errezatzen, ta guk ikullutik kontestatu... Ta in beharko ganea, e! Dudik jarri! Hua denak itten genittun denboan, afai bokarua in, ta hotzak akatzen, sua're itzaliya izaten genun, hotzak akatzen ohira. Hala! Hurrungo goizian, jaiki, goiz, zazpiyak laurden gutxi, zazpiyak, baratza berdurak jartzea. Ama Errenteira joaten zen esniakin, ta guk jarri ber genun berdura esne hartzailientzako: tipula edo, porrua edo, tomatia edo... Zena zela. Haik bildu, pronto jarri xexto batin, behiak jeitxitzen zittun amak, marmitetan esnia jarri, astua preparatu, ta ama, haik saltzea. Ta gu, itxeko lanak itten: bazkaiya jarri, azienda gobernatu, berriz azpiyak atera, mazka ebaki, ta eman. Ta kitto. Segi hor. Ta, goitti jon, ohiak in, etxia txukundu... Denak.

5.32. Altxatzikiko mutil koskorra

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Labandibar, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-075/005
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Udara Altxatzikin pasatzen zuen Joxek, eskolako barkazioetan. Altxatzikiko bi bizitzakoekin ibiltzen zen, denen enkarguak egiten. Barkaziyutan. Birexior. Pardelka arrautzak. "Hortxe gozatzen nitzan ni, mutikoskorra". Hika.

Transkripzioa

- Hola torri giñan behintzat handikan. Batzuk honea 'ta... Ni hementxe.
- 'Ta hoi, Altxatikira ze tortzen ziñan hairi launtzea 'ta, 'o...
- Zea pasatzea, eskolako barkaziyuk nola izaten dia, bi hilaeteko 'ro hiruko 'ro... Izaten zien ordun.
- Udarán?
- Ba, udarán. Barkaziyotan etorri 'ta igual lau hilaete 'ro ya aztu, hara jotia aztu 'ta geo noizpatte joten nitzan. Bai.
- 'Ta hemen ziñanin hangoko mira izaten al zenun?
- Nik batez. Ni beti honea. Beti honea ni. Bai, ni beti honea, beti honea. Geo hemen 'e, Altxikin, bi bizitza, hantxe bi bizitza zin garai haitan, oain bat 'o, biño... 'Ta hoikin mendira eurreta 'ta joten nintzan goizin jun haikin batin mendira 'ro 'ta illunduta torri 'ta lohitan hor ibiltzen giñan Sastarreko lohi zulu hoitan 'ta. Hortxe gozatzen nitzan ni, muti koskorra.
- Hoixe, huaxe gustatzen, e? Lana in berko zenun, ba?
- Bo! Muti koskorra, ni hortxe, enkarguak iten, kompaziyo batea, Altxikitik... Altxikiko Maitxo san 'uten horren ahizpa Garañon... Garañon espostua zeon, Xotera, 'ta gora 'ta bera, ni arrautzakin igual. Goitikan hartu arrautzak eta nik Garañoa eaman. 'Ta geo hanguak Altomirakruzuk tortzen zin arrautzak billa Garañoa.
- Bai, e?
- Bai, denak zea ibiltzen zian... Bai, 'ta... Jo! Batzutan ordia, handik... Altxikitik Garañoa bitartin bire xuhur zea bat zen ordun, (este...) Bire xuhur bat, belarsua (...) 'ta bian (...) ttiki bat eurrezkua 'ta. Eun batian banijuan pardelka, zea arrautzakin 'ta irristatu 'ta pa! Denak bizkar azpin hartu arrautzak. Tortilla bertan in! Jon nitzan Garañoa neri haik denak zintzilik, txikittu nittula 'ta (Altxiko Maixtek) hoik algarak.
- Ez zizuten erritik...
- Erritik ez ziten maten nei ordun. Muti koskorrai. Ez, behiñ 'e errita. Parra in 'ta "tortilla erra in duk hik!! Eta..."

5.33. Altxatikitik Saroberrekara arropa garbitzera

- **Hizlaria(k)**: Zabaleta Labandibar, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-075/007
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Altxatikiko senide gazteenarekin egoten zen gehiena. Altxatikiki inguruko baserrietan ez zuten urik eta Saroberrekara joan behar izaten zuten arropa garbitzea. Ogia gorri-gorri frijitu, azukrea bota eta "Ala! Goazen, Joxetxo".

Transkripzioa

- Jangoikuan andria!
- Bai, bai.
- Joe! Harrekin amakiña bat buelta iña no ni, Altxikitikan Oiartzuna seitako meza. 'Ta astua, astuakin biyek tortzen giñan. Astua... zea, esniakin, 'ta goizin esniakin bajatu 'ta eliza jon, 'ta harrek beti Altxibarren zea hoiyek...

Tarta zea hoitakuk 'o eoste 'izkin 'ta biyek martxa berriz mazkak ittea. Harren gain eoten zen, Antoninan gain eoten zen zea, hua zen gaztina 'ta han 'e kastigatu (...) izaten zen zea, behi janak ittea! 'Ta beti ni harrekin.

- Ze ittea? Behi kanak?

- Behi janak.

- A! Behi janak.

- Mazka, 'o... Nola saten... Hemen mazka 'o behi jana... Belarra... Harrek belarra ebaki 'ta nik bildu. Muti koskorra. 'Ta...

- Astuakin?

- Astuakin. Bueno gu ordun han... Nei bi bizitzatan, nei hango... Hango zea izate nitzen, Altxikin. Bi bizitzatan, e! 'Ta Antonina behintzat beti, hua zen gaztina han 'e, 'ta beti harrek nei beti eamaten zin zeara, launtzea. Hola ibiltzen giñan.

- 'Ta zu gustoa.

- Ni jolin! Ni gustoa. Nik horrengatik Donostira ez nun jon nahi izaten geo horrea. Donostira ez nun jon nahi izaten.

- 'Ta denak kaso ingo zizuten 'ta! Gustoa!

- Bai. Bi bizitzetan. Beste bizitzakua hor, Ualdetxon bizittu zen, zea, nola da hoi? Klementina. Igual izautuko zenun, ez dakit. 'Ta harrek berriz, ordun han giñan Altxikin, 'ta urik ez zen izaten hor baserriy hoitan, (habetan) bai, bueno, ura aldian 'ta zea biño. Haik Sauerrekako beko zokoa jotzen zin hortik, zea, Altzan barrena kriston birian jotzen zin zea erropa garbitzea 'ta. 'Ta erropa garbitzea hara (erramonen) jotzen zienian, astua dena erropaz betetzen zuten 'ta "Joxetxo, benga guazen" nei. Klementinak behintzat, beti nei eamaten zin launtzeko, 'o zeatzeko, beti 'o distraitzeko 'ro.... Beti behintzat, bakarrik ez zun...

- Hua zue zea pixkat (...)

- Bakarrikan ez zun harrek 'e jon nahi izaten. Neskak... Sasoi hartakuk gaiña hor e... Bildurra izaten zutenak. 'Ta beti ni muti koskorra. Zartayian gorri gorri gorri oliyotan ogiyak prentsatuta jarriko 'izkin, erreta, prejituta, ogiya prejittua, 'ta azukrikin bota 'ta haik paperin bildu 'ta: "Hala guazen Joxetxo, guazen zea, nekin!" 'Ta ni gustoa ordun! Gustoa bai. Ni Altxikin arront zea izaten nitzen.

- 'Ta ordun arropa garbitzea 'ta Sauerrekaiño...

5.34. Amabitxiak eta besoetakoak

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/010
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:18:37. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Aitaren ama zuen amabitxia, Frantxiska Anttoni, eta bere iloba besoetako ere Frantxiska da.

Transkripzioa

- Ni Frantxiska bakarra jarri 'men zin. Bai.

- Miño nahikua.

- Zea, nei... Zea, amona izango nun. Attan ama, amautxiya. 'Ta harek, bea... Nola zen hora? Joxepa Antoni... Ez, Frantxixka Anttoni izango zen, 'ta nei Frantxixka jarri. Bakarra jarri 'men zin.

- 'Ta zuk illoba bazu Frantxixka!

- Bai, bai.

- Hua zer 'zu, besutakua zuk 'e?

- Nik jasua, guk jasua. Manolo 'ta biyek. Bai. Bittartekun denak mutillak torri zin, 'ta haik mutill, nexkan desiuia 'ro...

5.35. Ilobak arrunt maite

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/012
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:20:28. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Iloba zaharrena nola jaio zen kontatu digu. Berez etorriko zen, baina praktikantea deskuidatu egin zen, eta herioan eraman behar izan zuten. Ilobak ttikitatik zaindu zituen eta arrunt maite ditu, eta baita ilobek bera ere. "Heriyun eaman ber". Jibatu.

Transkripzioa

- Txaondon jaiyoko ziñan!

- Txaondon jaiyua bai.

- Denak han jaiyoko ziñazten?

- Hamar hoik 'e han jaiyuk dia. 'O kampun jaiyuk 'e baia.

- Bai, gaztinak hala izango dia, ez?

- Zarrena eaman zen betti larri arraiyo! Gu marruez geldittu giñan jakiña. Umia erra baizen arront hoi, Josetxo hoi. Ikaraarrizko bultukin emakumii ba, 'ta hor zea... Ez balia iñorre jon meikun billa, hoa jaiyo ingo zen. 'Ta zein dia 'ta, karri 'ute praktikante txar mierda bat zen! Hoaxe sango yot nik holokuri! 'Ta ze ingo 'ta indiziyua jarri 'yo 'ta, geldittu umia!

- Ai ama!

- Ongi heldu zena! Jibatu ziyon ikaarri, jibatu iñon! Bu! Gu asko behintzat, marruez geldittu giñan hoa eamanta.

- Geo eaman ber!

- Heriyun eam ber! Zuk ba al dakizu, kupetatikan burniyakin kendu 'men ziyoten tirata! Handikan heldu 'ta iilliya!

- Earra pasa zun (...)!

- Arront mutiko erra zen gizajua 'ta! Beti arront mattia dut! Oaiñ 'e hala dut!

- Karo, zarrena beti...

- Zarrena... Biño denak matte nik, nik denak! 'Ta haik 'e bai izeba! Ikaarri maitte izaten naute!

- Erra da hoi, e! Frantxixka!

- Bai, bai. Denak matte.

- Izeba ikusteko zaletuk eoten dia haik denak!

- Ama normala izaten da, biño izeba ez da hain errexa izaten. Hoi da zaindu 'ttuzulako zuk!

- Hoixe, nik, ongi iñ gaiña! Ez sekula, ipurdiko bat man gabia dia haik, izeban partetik! Sekula nik haik jo. Itxura txar bat eakutsi ez 'ta, ahaleiñ, ahaleiñ guziya ongi iñ 'ta, horrek asko san nahi izaten du!

- Oaiñ bueltakin.

- Oain bueltan. Nei bueltan hortxe aittu dia...

5.36. Antsoxuak

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/019
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:31:44. **Bukatu**: 00:33:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Arreoa berak egin zuen. Ez du inoiz ontzirik hautsi, esku gozokoa izaki. Familiako gehienak antsoxuak dira. Amak berez ikasi zuen josten, eta hari begira ikasi zuen Frantxiskak ere. "Abilidadin paltik gabia". Antsoxu. latsi.

Transkripzioa

- Arriua in nun nik. Maindire mordo bat banun. Anaiyak, Anjel difuntu horrek, emana untzi pilla bat 'e bai. Zea osua, juego osua. 'Ta haik bat ez dut nik izango oaindik hautsiyik. Untziya arront gutxi hautsitakua naz ni! Eskutik ez nau eskapo itten! 'Ta batzuk prist! Eskapo aixa itten yote. Eskua berez izaten da holakua 'ta nei... Be! Baso bat 'ta platera batin apaletik 'o nolapatte irristatuta 'ro eroi! 'Ta gaiñekun besteikan hautsi gabia. Itxian 'e

ez nun hausten untzi bat!

- Ordun familitik 'zute esku ona ordun zuek! Abili... Zea izango 'zute... antoxuk izango zazte!

- Bai, bai. Antsoxuk izatia da, baliyo izaki, eskapo in gabe...

- Bai, bai.

- Zea, kontu itten!

- Bai, hoi da. Batzuk torpeguk 'o... Dia 'ta...

- Bo! (...) guziya hausten zun person batzuk.

- Bai, bai, hoi norbea izango da.

- Bai, norbeak izaten du, bai!

- 'Ta ikasi nola in zenun, galtzerdik itten 'ta, bordatzen 'ta hoi, zeonek? 'O amak iakutsita 'o nombatt ikasi zenun?

- Amak, amak baizekin! Amai beituta guk ikasi itten!

- Amak nola ikasi zun?

- Amak... Amak hoa 're... Karrikan ibilli 'men zin geo hoik Karrikan 'e bizittu zin. Larraldaban 'e bizittu zin geo Maimotxen 'e bai 'ta... Horrengatik saten zun, katuak umik ibiltzen zittun bezela ibilliyak zila 'ta. Saten aitzen zen 'ta. Hala ibilliyak haik 'e 'ta. Biño gue ama, jesus! Abillidadin paltin gabia! Paltik gabia zen hoa! Abillidadin paltik gabia! Harei beitu 'ta iozer iñ itten zun. Maindiri letrak 'ta, abezedaiyotik dotoria in nizkan nik. Abezedaiyua eatxi, letran zean jarri bete-betekun, uker haundiyik gabe in, aski zuzenak!

- Joe!

- Letrak.

- 'Ta zuk harrei beira ikasi! Amai beira!

6. Aisia

6.1. Irazusta harri-jasotzaileak

- **Hizlaria(k)**: Irastortza Artola, Inaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-015/026
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:50:14. **Bukatu**: 00:53:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Usategietatarrak auzoak zituzten. Garai hartako harri-jasotzaile ospetsuak ziren: Irazusta. Familia guztia kirolzalea zen. Ama ere segan ederki aritzen zen. Asko zaindu eta prestatzen ziren.

Transkripzioa

- Lezo.

- Eta Irungo muga 're onduan du.

- Bai, bai.

- Usatita 'ta hoik?

- Usatita? Gue auzua! Usatita Irungua eta Usatita Oiartzungua, aurrea Usatita Irungua 'ta goiyan, harrijasotzalliak eta, goiyan. Hil zien, Frantxixko hil zen, jasotzallia bera. Terexa 're hil zen, etxeko andria itten zuna hil zen. Hillak dia. Teodoro 're bai, harrijasotzen 'ta ibiltzen zena, semia.

- Oso ezaunak zin ez?

- Bai, oso ezaunak, ya lo creo. 'Ta balio zutenak! Hola.

- 'Ta ze aitzen zin harrijasotzen 'ta bakarra 'o aizkoran 'ta 're aitzen zin 'o haik?

- Harriko fama zen. Oaiñ 'e... aizkora ez zuten artaño, harriyakin zuten fama.

- 'Ta non barrana ibiltzen haik harrijasotzen 'ta?

- Harrapatzen zittuzten hor nun itten zien zeak feriyak! Oain nola tortzen dia laumbatetan 'ta tortzen dia? Igual. Tokiyak, tokiyak propiyuak.

- 'Ta haita?

- Haita joanta. Batak "hik hoimbeste" 'o elkarrei eskeintzen diruak eta gauzak. Ni e'naiz beñe fan, e'nitzen joan izandu. Miño hoik buf! fama haundiya zuten.

- 'Ta hoik auzuak zin zuenak?

- Klaro, auzuak... miño ondo kompontzen giñen. Oso ondo kompontzen giñen miño ne gizona e'zen... e'zen apostozalia, hura e'zen bate. Miño hoik bai, hoik apostozalik zien.

- Eta zer zin? Gañekun iriyak eta bazittuzten 'o...?

- Hoik ez zuten iriyik. Nik iriyak eukitu genittun ne jaiotetxian. Maldaburun ez, Maldaburun ez genun... behiyak.

- 'Ta Usatitakuk bazittuzten?

- Iriyak? Hoik ez. Dena haik behiya.

- Apustua itten zuten harriyakin 'ta?

- Ez zuten. Ardiyik ez genun iñork.

- Eta usatitarrak bezela izautzen zin 'o apellidungatik 'o zertin zin izaunak

haik?

- Irazusta. Irazusta Oiartzungu hoik. Irazusta; Levantamiento de piedra.

- 'Ta zer zin bi anai, san 'zu?

- Bai, bi anai aitzen zien: Teodoro, oain berriro hilla da, Joxemari... bi anai, atta gehina! Mayoria! Atta zuten harrijasotzallia mayoria. Hil zen hura 're. Miño ze? Arrautzak erruz jaten zittuzten haik, ya dozena arrautza igual eunian 'ta. Que mantenimiento. Haragiya propiyo karnizeitik jarriyak jakiñan gañian hoimbeste haragi 'o txuleta, hambeste arrautz... preparatuak! Gastu erra bai!

- Bai, apustua irabazten bazuten ongi, miño...

- Bai, orduan erremeiatzen zittuzten, ez bazittuzten iraazten (...)

- 'Ta zeñekin aitzen 'te zin haik apustun? Zein zin gehiyo harrijasotzallik 'ta izaunak? Gotzen za zu?

- Hoik zien hor... Oiartzungoak... beno, Oiartzunen hoik zien: Usategieta. Hoik zin.

- 'Ta hoik zer zin zue erarexkuk 'o hola 'o?

- Ez, ni miño zarraguak mayoria... atta ni miño zarragua, eta itxekoandre gazta itten zuna nekin 'o bi urte gaztegua, etxeko andre gaztia... zarra 're bai, zarrak hil zien... Segalaiya etxeko andre zarra. Bai! segan 'ta fuego aitzen zen andre haundi bat.

- Ordun denak zin hortako?

- Bai, bai. Denak. Holaxe zien kontuak.

- Erki.

6.2. Batzokiak eta beste

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/023
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:49:05. **Bukatu**: 00:51:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: Xanistebanetan aizkora-apustuak, harri-apustuak, zortzikoa, aureskua, ezpata-dantza... gogoratzen ditu. Gerra aurretik batzokiko dantzariak aritzen ziren. Batzokia non zegoen. Killirikupen ere batzokia zen, emakumeena; sukaldean-eta ikastera joaten ziren. Zirkulua. Berak ez zion kasurik egiten politikari. Aitari ere ez zitzaion gustatzen politika.

Transkripzioa

- 'Ta fiestak eta gotzen al za? Xanistebanak eta?

- Xanistebanetan aixkora apostuak eta harri apostuak eta hoi denak izaten zien. 'Ta zortzikua, auresku 'ta geo, zea... Gerra aurretik asko Batzokitik, dantzaiz hoik nola dia, nola saten yote?

- Poxpoliñak?

- E?

- Poxpoliñak?

- Poxpoliñak 'e bai 'ta mutillak 'e bai. Biño zea, dantzak itten zittuztenak. Bat hartu 'ta hola gotti jarrita.

- Bai. Ezpata dantzak 'ta...

- Ezpata dantzak. Ez nitzan akortzen. 'Ta holokuk eta denak izaten zian.

- 'Ta batzokiyan 'ta zein zin hor, e... zein, ze jende eoten zen batzokiyan? Zein zin horko... Bueno, buruak, 'o...

- Nik ordun horko gazteiya 'ta geo arratsin gizona zeaguak 'e batzokiyan biño, ez naz akortzen ze... Jende asko izaten zen batzokiyan, asko zen, e!

- Bai, herriko jende asko izango zen batzokiyan, ez?

- Jende asko. Batzokiya 're tokiya 're in zuten hor Romeroneko beko bizitzan. Nola da estatua? Harren beste ayekan bazen 'ta. Batzokiya 'ta bestia killikupia nola, han lendabiziko bizitza batzokikuk zuten.

- Hoi batzokiyak zakan baita 're?

- Emakumik ioten zian han. Kozina 'ta joten zian ikastea 'ta.

- Eta Zirkulua 'ro saten ziyotena?

- Hura... Nola zen taberna? Zeakua, beno, Zirkulua saten genun beti guk. Han zen lembiziko bizitzan zuten haik ben soziedadia.

- 'Ta hoik zein zin? Hoik ze...

- Nik ordun askoik enun (...) kaso asko itten kaso politikai.

- Nahiko lan bazenuten zuek!

- E? Ni sekula metittu politikan.

- Hobe!

- Ez, ez, egiya sate 'ut. Politika biño aurrerokua zen jateko xox batzuk irabazten aitzia txoakeitan biño! 'Ta gue attai ez zitzaion gustatzen

politikik. Lana in ber zunak denakin eon ber zula ongi saten zun harrek. Denakin ongi. 'Ta politikan sartu gabe 'ta denakin ongi.

6.3. Santioak eta lana

- **Hizlaria(k)**: Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-021/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Iturriozko santioak fama handikoak izan dira beti. Etxean bazkari berezia egiten zela gogoan du Rosariok. Festak ez ditu ongi gogoratzen, gazterik hasi baitzen Aduriz sagardotegian lanean.

Transkripzioa

- Fiestak 'e, geitzak izaten zin ez? Santiyuk?
- Bai. Santiyuk oso famatuk genittun.
- Gotze al za nolakuk zin?
- Santiyuk? Bueno, pixka 'at bai, biñon hola... kontentuguo, bazkaiya difente izaten zen Santiyu eunin 'ta. Haikin 'ta kontentu. Jesus! Erki kanbitu dia hortikan honea 're. Oaiñ 'e ez tuu lujo haundiyik ibiltzen biñon beste gauzikan da oaiñ. Beste gauzikan da. Holaxen. Ni berriz, gazte xamar hasi nitzan lanian. Saardotegira jotzen nitzan, Adurizenea, 'ta oaiñ jaiakin no handikan miñon gañekun han 'ta itxian 'ta.
- Zenbat urtekin jon ziñan Adurizenea?
- Oi, nik ez dakit zenbat nittun, miño gaztia nitzan oso. Seuru ez dakit zenbat nittun 'e neska.
- Hamabikin.
- E? Hamabikin. Bai.
- Goiz hasten zin ordun neskame 'ta.
- Bai neska.
- Zu bezela asko dia ibiliak neskame ez?
- Ai, jon ber baigenun. Ez baizen ailletzen dena itxian. Ni kontentu jotzen nitzan e, kontentu jotzen nitzan. Telefonua ai du. Hartuko 'ute?

6.4. Arrantzan eta perretxikotan

- **Hizlaria(k)**: Enbil Urdanpilleta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-028/015
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:40:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Berak egindako kanabera batekin ibiltzen zen arrantzan. Perretxikotan ere aritzen zen, nahiz eta garai hartan orain adina perretxikozale egon ez.

Transkripzioa

- Jan itten zen korrintin, bai!

- Ta arrantzan 'o ibiltzen ziñazten, 'o ibiltzen zin bestik 'o....?

- Bai. Nik hura 're bestik xiestan zoztela itten nun. Biñon... Arrantzan, makil puska bat, hariya 'o listiya, eta alambria ukertua. Eta... Exkaluk billatzeko. Exkaluk eta aingirak bakarrak izaten zin, eta klaro, aingira ikusi ezkeo nik ihesi ingo nun! 'Ta exkaluk, 'ta exkaluk ez nun billatzen. Ta gaiña zen dembo, dembo pasatzetik 'o aitzakiya harrekin etxetik jotetik. Nei ez zin geo jateko gustatzen. Ez txoriyik, eta ez exkaloik eta ez ezer 'e.

- 'Ta ordun perretxikotan 'ta ibiltze al tziñazten?

- Baita 're. Bai, gaiña... Guk, e... Xistiyoko haiztiya onduan genun eta zen haizti haundiya, urtetako haritza zon. Eremoz 'e haundiya zen 'ta arbolak 'e haundiya. Eta geo beák iatzia moztutzen zuten 'ta ordun iukitzen zuten oso garbiya, eta... Perretxiko leku ona zen. Geo nola zon itxian ondolik, onduan bertan, nik banekiyen non zozten ontuk, non zozten gibel urdiñak, non zozten onto arrautzak eta jendia berriz ez zen ibiltzen, oso gutxi ibiltzen zen perretxikotan. Beldurra gaiña, nik uste 'ut ez jakiñagatikan 'o ordun beldur haundiya ziyon perretxikuk jatiri. 'Ta ni gustora ibiltzen nitzan billatzen, biño geo jateko ez. Beti izandu dut, 'ta uan bertan'e bai, nei perretxikuk goroldiyo gustua 'ro billatzen yot. Bai. Biño billatu bai. Eta... Geo jon ez, ni jon 'ta... Ez nitzan urrutira 'ta itten, biño hora bai. Eta geo, pues, hori 're izaten zen, perretxikua biltzen genun eta len san dutena, ez zen uan bezelako, uan bezelako... Ez jakiñagatik, nik uste dut ez genula aprobeztatzen uan bezela, billu 'ta freskutan jaten genun, ez genun konserbatu 'ta ezer itten eta ordun pues banatzen geniyon kaleko jendiri, amistadia genunai, 'o esniak eamaten geniyonai...

6.5. Usategietako harri-jasotzaileak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref:** OIA-060/018
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
 - Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Usategietako aita-semeak harri-jasotzen aritzen ziren.

Transkripzioa

- Hemen herri kiroletan 'ta Usateietakuk 'e, zuek izautuko zenittuzten, hoik harri jasotzen 'o aizkolai 'o ze aitzen zin?

- Harri jasotzen.

- Harri jasotzen.

- Bai.

- Onak 'men zin, ez? 'O...

- Bueno.

- Gotzen al zazte?

- Onak bai. Atta behintzat, oso ona.
- Atta ona, 'ta semik hobio berriz.
- Be garaiyin atta zen harri ttikiyakin 'o ehun kiloko harriyakin hobena, hobenetako bat.
- Ehun kiloko harriyakin 'ta (...) 'e aitzen zen. 'Ta geo semia.
- Biño be harri propiyua yun ehun kilokua.
- Biño geo semia Teodoro, arront ona zen harriya jasotzen. Ehun kiloko harriyakin arront ona.
- Joxe Mai 're bai anaiya.
- Joxe Mai 're bai.
- Harri ttikiyakin.
- Gaztia berriz, hua 're harri haundiyakin hua hobia berriz zen. Uan bi zarrenak hillak dia 'ta uan gaztia bakarra bizi da.
- Bai, bai.
- Usatita zer da, Gurutze? 'O ya Irun da Usatita?
- Ez, ez, Oiartzun da.
- Oiartzun da.
- Oiartzun da?
- Oiartzun da bai.
- Muga aldian du, biño.
- Geo hauntzuo bada Usatitazarre 're 'ta harrek erdiya izan ber du Oiartzungun 'ta beste erdiya Irunguan 'o.
- Irungua.
- Baut zerbatte aitzia bai.
- Hala sate 'ute. Ez dakit.
- Usatita bea, zea... Gurutzekua.

6.6. Apustuak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/020
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:33:26. **Bukatu**: 00:34:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Lehen, herri-kirolak ez ziren jaietan eta erakustaldietan ematen, apustu eta desfioen bitartez baizik.

Transkripzioa

- Ta zea, gaiñekun hola... Hoi noiz, e... Usatita... Usatitakuk noiz aitzen zin... Karo, oain fiestatan 'ta esibiziyuk 'ta itten dia, biño len noiz itten zin?
- Apostuak itten zittuzten hoik.
- Hoik apostuk.
- Desafiyoka apostuak.
- Garaiy haitan esibiziyuk biño gehiyo zin apostuk. Zea, bat bestikin dirua jokatu 'ta. Dirua, apostua 'o.
- Garaiy haitan, ez dakit ba nik... Ze diru... Ze kantidade biño, hamar milla pezta 'ro, holakon batzuk izango zin, ez?
- Hamar milla pezta asko zen orduko!
- Hamar milla pezta zeñek zittun?

- Biño ba! Idea hala 'ut zerbatte, e! Hamar milla pezta ingurua 'o ote zin!
- Kuadrillan 'o juntatuta!
- Bata bestikin juntatuta, bestela, hamar milla pezta ez zen Oiartzun guziyan bat izango!
- Ez, ez. Egiya.

6.7. `Basarri´ren `Gazte denboran neska bati´ bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Rekalde ahizpak; Rekalde Urdanpilleta, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: OIA-111/011
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:19:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Basarri bertsolariaren bertsoak, `Gazte denboran neska bati´; Manuel Olaizola Uztapide Oiartzunera ezkondu zen. Basarri eta biak elkarrekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Beste gauza ez dugu kantatu "Emakumeak lore..."
- Bai, bai.
- Bai? Kantatu duzute lehenoa?
- Hori bertsuori ez, baiña kantatu dittugu bi.
- A bai?
- Hori ez dugu kantatu.
- Ez.
- Sarakua [ez dugu kantatu], `Basarri´nak.
- A, bueno.
- `Basarri´k Saran jarriyak.
- Saran jarriyak. Porke esan [zun], hara jun ta esan ziyola: "Bota nazu neri berso bat". E? Eta orduan...
- Bai, ta neskatxari bota zizkiyon.
- Eta bota zittun hiru berso eta gero bota ziyon bat berari.
- "Zorionean egin nuen nik Sara herrira bisita", ezta?
- Bai, ez dugu abestu.

Zorionean egin nuen nik
Sara herrira bisita,
ta txoraturik gelditu nintzan
damatxo bat ikusita. (bis)
Zu goratzeko ez daukat hitzik,
o bihotzeko Klarita,
hain zera bihotz-ikuitzalea,
ene hain zera polita! (bis)

- Hori da berari bota ziyona.

Nere begiak arpegi hori
sarri nahi dute aurrean;
soinez urruti banago ere
gogoz hor nazu hurrean.(bis)

- Oain azkenekua, e?

Zu goratzeko ez daukat hitzik...

- Ez. O utzi zazute ta oain azkenekoa. Zergatik hirugarrena ez zen hasi beharrik. Lehenengoa ta azkenekoa esan dugu.

- Hala da. Hala esan dugu.

- Ez gea dena... Lau zian, baiña lehenengoa ta azkenekoa gogoratzen [dugu] ondo.

- Aber, ze iruditzen... "Emakumeak lore bezela", ez?

- Bai, hori da azkenekoa.

- Hori aittatxona zen gehiena, ez?

- Gure aittak esaten zun oso zail dela emakume bati hainbeste gauza esatea horren hitz gutxikin.

- Bai, eta hor ikusten zala —`Baserri´ eta `Uztapide´ elkarrekin ibiltzen zian, hemen Oiartzuna ezkondu baizen `Uztapide´, ta— ordun, `Uztapide´ berez bertsolari hobia zela, baiñan ikusten zala `Basarri´k eskola gehio zula, eta batez ere abesti horretan ikusten dela benetan ze poeta zen.

- Oin abestuko dugu oain. E?

- Baiño mantsoxio, "porque no se entiende lo que decimos".

- Horren azkenekua.

- Aber, hasi gaittezen. Nota.

- "Emakumeak...", altoxio.

- "Emakumeak...". Ez, oso alto dago.

Emakumeak lore bezela
hartu ditzagun aurrena
ta goazen danok beroiek dauden
baratzatxoan barrena (bis)
danok usaitsu, guri ta mardul
hau begien gozamina!
baiña neretzat zu dan-danetan
klabeliñik ederrena. (bis)

- Hoi esaten zun gure aittak zela.

- Hoi baiño ederragoik zerbait ba al da, ba?

7. Ekonomia eta industria

7.1. Lan istripu latza

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/002
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:00:57. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Errandonean hogeita bat urtean ibilia da Maitxo; almazenean, lehendabizi, eta, okin lanetan, gero. Aurretik, Altzibarko paper-fabrikari aritu zen. Paper-fabrika erori egin zen; bera han ari zen lanean eta bi oiartzuar hil ziren istripu hartan.

Transkripzioa

- Lanian hogeita bat urte. Ardua 'ta partitzen 'ta ogi partitzen. Lembizi bertan hasi nitzan lanian, botillak garbitzen 'ta hola, 'ta geo neska falta zutela 'ta panadera hasi nitzan 'ta in nittun hogeita bat urte han. Altziberren beste zea bat in zuten, papelera bat. Ez dakit... Zu ez za akortuko?

- Ez, papelera ez naz gotzen.

- Papelera ez zen haundiya. Biño in zen han... Jende... Ez dakit zembat izango zen. Berroeita hamar biño gehiyo izango zin han behintzat, eta nombatte gaizki in zuten, zean... Gu giñan beko plantan. 'Ta goiyan jarri zuten makina bat, trapuakin aitzen giñan, trapua beeixten 'ta botoiyak kentzen 'ta hola. 'Ta jarri zuten makina bat zea, papera... Beno... Trapua puskatzeko kortadora 'ro ez dakit nola saten yoten horrei. Eta holako bat. 'Ta harren moimentukin nombatte in zen muiltu 'ta tetxua eroi bi ayeketa. Hola! 'Ta beko pisora. Beno, erdiko pisora. Lembiziko bizitzan giñan 'ta hautsi 'ta. Eta han giñan hamalau neska 'ro hola, eta gehiyo 're beste aldin bazian gizasemiak eta hola, biño. 'Ta geldittu giñan barrenian, goiyan ura baizen, terraza bezela 'ta ura hora dena gotik betti, burutik betti 'ta han geldittu giñan.

- Ai ama!

- Jetxi ber 'zandu genun leiyotik betti. Lembiziko bizitzatik.

- 'Ta iñor... Denak ate ziñazten?

- Bi hillak. Batek hemendik horreako difentziya baldin bazun. Bat hil zenak. 'Ta bestia paretan kontra geldittu zen zeakin, paretakin. 'Ta hura bizi zen itxeko bazterrin. Nik mixeiya ikusi besteik ez dut iñ!

- Jesus!

- 'Ta handik leiyotik 'o jarri ziguten eskaillerak 'ta handik betti jetxi ber genun. Hola.

- Beldur erra! 'Ta ate ziñaztenin kontentu!

- Bi hillak! Juanito Iragorri.

- Juanito Iragorri. Hemen e...

- Altziberren bizitzen zin hoik len-leno. Biño geo hura zean bizi zen, Iturriotzen be familiyakin esposatua. 'Ta hura hil zen eta bestia Otsuenenekua. Mutilla gaztia.

- Hil zinak, haik zin. 'Ta non zen papelera hoi?

- Papelera, bai.

- Non zen? Altziberren non?

- Altziberren. Nola da... Akortuko al tzait. Altzibertik abituta hor ezkerretan itxe bat bazen ba. Otsune ba al dakizute non den?

- Ez dakit uan seuru non den. Ba, igual du, igual du.
- Han zen. Altzibertik Ergoia, beno, Karrika aldea abitu 'ta nola da harrobiya? Pixkat honuntxixio.
- A...!
- In zuten 'ta! Han 'e suertia!
- Bai.
- Nik mixeiya besteik ez dut ikusi, e! Suerte txarrekoa izandu naz.
- Bai, zui gerra tokatuko zizun gaiña!

7.2. Arropa berria egin bakarrik ez, baita konpondu ere pila ederra

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/024
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:51:20. **Bukatu**: 00:54:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
 mugimenduak
 Lanbideak » Sastreak, jostunak
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Izeba eta biak aritzen ziren josten. Maitxo errietaka aritzen zitzaion enkargu gehiegi hartzen zituelako. Izeba onegia zen eta kapaz zen dirua ez zuenari ez kobratzeko. Asko ziren berria egiteko dirurik ez eta traje zaharrari buelta ematen ziotenak.

Transkripzioa

- Ez, ez, ez. Gure izebak pillaka han eukitzen zittun hartuak, biek aitzen giñan sesiyun... nik saten niyon "Zertako aintzen yozu geo ez 'zu posible ittia 'ta? Zertik aintzen yozu, geo ezin iñik, muturrak hausten gau 'ta egun hor ai ber 'zu". Biek aitzen giñan diskutitzen. Iñoi ezetzik esateko zeaik kapazidadeik ez, ba!
- 'Ta geo ezin alletuik?
- 'Ta askotan debalde 're ai ber izaten zun. Ikusten bazun... hortan zea zen... ikusten bazun behartsua 'ta eziñin zebillela 'ta kapaz zen ez kobratzeko itten zun lana. 'Ta beste batzuk berriz zea abusu gehiyegi: "Jarri nazu zeak, entretelak eta, botoiak eta... onak jarri e! Onak!" Bai... jarri 'ta geo... tsiu! Ezta akortu 're zea pagatzia, noizpatteko 'atin itten bazizuten! Miño ordun ez zen diruik, ez zen dirurik.
- 'Ta nei san izandu naute, ez zakatenak eta, trajiri buelta eman 'de bai.
- Nola?

- Kanpotik gastatu, eskatu dena...

- A bai! Hamakin bat lan bai hortan, arropak eta, ui! abriguk eta... asko iñ izandu dia horrela, jesus!

- Hoi zuek itten zenuten 'o hoi ya itxian itten zen?

- Ez, ez. Eskatu balitteke etxian ingo zuten, miño gaiñekun...

- Zuek?

- Bai, bai, jesus! Ez zen holako... Gaurko gaztiak probatu ber luteke pixka bat orduko bizitza zer zen, jesus! Hamakiñ bat arropa bai zea... 'o bes ahizpa batena igual, 'ta bestiri txikittu, urratu dena eta ttikiyagui egiñ arropa harrekin 'o abrigua edo txaketa edo soiña edo... bueno, holako arregluk! Ikaragarri.

- In 'ta konpondu pilla 'rra. Ze eosi batez. Saldu itten al zen arropa iña?

- Bai, itten zin, miño oaiñ bezela ezta pentsatu 're, keba, ezta pentsatu 're. Telak ordun. 'Ta gaurko eunin telak denda gutxi dia telak saltzen ttuztenak. Hainbeste arropa dago egiña 'ta.

- Oaiñ kapritxua da geyo, ittiana.

- Bai, bai, leno arregluk? Jesus! Zarragunak edo norbattek eman ziyola 'ta berri-berriya eoki 'ta dena eskatu 'ta berrikotik egin... hoi bai, asko.

- Zurtzittu 're bai geltzerdi pilla 'rra.

- Baita 're! Jesus! Gure izebak hamakin bat...

7.3. Soldata eskasa

- **Hizlaria(k)**: Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-039/004
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:09:16. **Bukatu**: 00:13:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
 mugimenduak
 Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena**: Rufino 14 urterekin hasi zen Errenteriako Esmalterian lanean. 24 urte egin zituen bertan. Behin eskatu zuen soldata igoera, eta hala ere, ez zioten onartu. Orain dela 50 urte etxebizitzek zenbat balio zuten aipatzen du. Gaur egun baino askoz ere merkeagoak ziren, baina orduko soldata txikiak kontuan hartzen baditugu, orduan ere garestiak ziren. Hor etorri zit.

Transkripzioa

- 'Ta esmalteiyen aittu ziñan lanin ordun?

- Ni hogeita lau urtian bai.

- Zembat urtekin hasi ziñan?

- Hamalautan. Hamar errialekin esan dut ba. Euneke hamar errial 'ta hogeiterte arte, zea, hiru pezta gehinekua, 'ta hogeitertetan duro batea. 'Ta hiru pezta eskatzen, irabazten nittun demboan direktoriri jorjala eskatu niyon 'ta "que había que gara honores para aumentar el jornal. Que había que ganar honores" Mekauenlaletxe! Geo direktorin bean neskamikin ibiltzen zena 'ta biyek gelditzen giñan illunabarretan ordukat sartzen. 'Ta imbentayua inta, hor Esmaltei inguruen urtitan iondu da Zabaleta, Lezokua. Ordun pintxe zonen 'ta harrek eamata kalefaziya. Paperak bota zittun 'ta gu han ai giñan bazterrin lanin 'o zean 'ta, jon 'ta paperak hartu 'ttugu 'ta mekauenlaletxe! Imbentayuk iñak. Presidente: Patrizio Etxeberria, Bizepresidente: Ajuria. Hirugarrena ez dakit zein Sarasola 'ta ne artin: "ez duk ne osaba, nik Sarasola bait biño!" Zea, gastos: benga denak paperan (ordenatu) 'ta paperin tantos. Y ganancias: dieciocho millones quinientas mil pesetas! Ate 'zizu kontuk oain dela hirurogeita...

- Hirurogei...

- Hirurogeita bost urte 'ro zea! Dieciocho millones, que no ganaba la fabrika! Mekauensuletxe! Geo han heldu da Pedro Oteiz. Hoi 're kas... Jode! Hogeita hamabost urte pasia zen Esmalteiyen 'ta san zin, hasi nitzen paperak itten aittu zen dembuan: "hobe zenuke bihar bertan jongo baziñake ne lehengusu bat ieltsero aitzen dena bada be kontura, 'ta harrena 'ta gehiyo irabaziko zenuke! 'Ta. Geo hor torri zitt: "Rufino, zea direktoriri omenajia ittia pentsatu dugu hombeste urte 'ttu 'ta, zea bota ber dia hiru duro 'ro!" Jode! Kusten 'zu, que había que ganar honores! Harrek ez du nekin honoreik irabazi! Nik zeak itteko! 'Ta " bale, bale." Ez niyon man! Dirua man harrei? Mekauenlaletxe! Rikardo Bengoetxea. Akaso Emilio izautu igual ingo zenun zuk, biño Rikardo Bengoetxea zen jefe... Zeakua, fabrikakua 'ta gu almagaren aitzen giñan 'ta hiru laun, hiru geldittu gu 'ta. " ¡Joe, esos tienen cojones, e! No han echau dinero!" "¿Dinero?" Béak asko patu bazun lenotik!

- 'Ta gaiña mixeiya hua irabazi, ikusi zembat ganantzi zittuzten 'ta miña man ber du, e!

- Jode! Orduko hemezortzi milloikin Oiartzun erdiya eosiko zen!

- Aixa!

- E?

- Aixa!

- Jode! Seberonia. Ate 'zu kontuk! Gu uan dela berrogeita hamar urte jon berriyak dia ezkondu giñala, 'ta Ualdetxon Seberonia zea, Intxixu, Intxixun aurrin don itxi hartan, setenta mil pesetas pisua! Zembat dembun iondu zen salgai! Ate 'zu kontuk!

- Ni akortzen naz, diru hoi kristona!

- 'Ta zea, 'ta hoa zea... 'Ta sesenta mil pesetas hor eondu zenin bazin zeakuk... Esmalteiyen, zea haik... Berrogei urte 'o gehiyo. Ate 'zak kontuk zeinek eosiko zin! Mekauenla! Diru hoikin, Oiartzunen erdiya aixal!

- Karo, biño, karo suelduk 'e holokuk izaki! Itxiak 'e garesti ordun!

- Hoixe!

- Orduko bai!

- Orduko bai!

- Gue osaba Juan Mai, Katalintxoko Juan Mai, honek izautuko zun. Harrek: "joe hamalau mila duro, ez littekek Ugaldetxon etxia patu Errentira lanea joteko! Toki errea jon dia! Hamalau mila... setenta mil pesetas...

7.4. Esmalterian enkargatu

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/005
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Errenteriako Esmalterian hogeita lau urte egin zituen lanean. Enkargatu zegoela, nagusiz aldatu zen lantegia, eta bera baino gutxiago zekien bat jarri zuten berarekin enkargatu. Bere urteetako lana baloratzen ez zutela ikusita eta hainbeste urtean lanean arituta zeukan soldata txikia kontuan hartuta, Esmalteria utzi eta oxigeno enpresan hasi zen lanean. HIKA.

Transkripzioa

- Toki errea jon dia hamalau milla pezeta, "sestenta mil pesetas"!

- ...joten zen ba lanea! Ugaldetxotik!

- Bai, biño itxian jabe in gabe geldittu. Esmalteiyan nik hoeita lau urte pasa 'ta enkargatua nun almazenian, 'ta iraazten nittun "dos mil doszientas pesetas".

- Hillaetin?

- Hillin, jornala.

- E! Enkargatu batek!

- 'Ta (Pabli) Martinez, han Martinezen semik. 'Ta Martinez eondu zen hogeita hamabost urtian almazenin, 'ta harrek alde iñ in zun. 'Ta harrek alde iñ in zun demboan, Alonso, Anatorio. Famoso zea, Errenteiyen bazen... Esmalteiyan beti zapel gorriyak in 'ta zea, reketin dembun 'ta jotzen zena 'ta hoa pasa! Mekauen Vitoiyak hartu zun Esmalteiya. Vitoitik karri zuten katxarro pilla bat 'ta pillatan denak jarri nittun 'ta. Nota hartu nun nik ze karri zittuzten 'ta. Harrek in zun... Xiriake nola Oiartzunen. Xiriake hemen bizi baizen 'ta rebisatu zittun Xiriakekin 'ta ofizina jon. 'Ta ofizinatikan torri zen 'ta: "Rufino, ¡Aquí faltan estas piezas y!" "¿Qué piezas faltan?" Papera nik han eskuan. "¡Apuí están esas piezas, e?" 'ta direktorikin torri zen. Vitoiko direktorikin. 'Ta: "¡Has guardau!" "¡No he guardau! Tú antes de ir al oficina tenias que haber revisau conmigo, no con ése. ¡Tenías que haber revisau!" 'Ta biyek hor armatu dugu. 'Ta Vitoiko txoferra han zen "Jo, si eso arma en Vitoria le despachan enseguida." 'Ta beste launak: "¡Sí, como ese es encargau él tambien, e!" biyek eta: "¡Cállate, que te voy a enseñar yo a tí!" " ¿Ya sabes tú para enseñar? Primero tienes que aprender, ya llevo yo veinticuatro años en el almacén y ¿Tú has venido ahora y me vas a enseñar tú a mí? " Vitoira jun 'ta zortzi eun 'o pasik zittun 'ta nombatte han kristona ikasiya izango zen! 'Ta ni seittun jon ofizina 'ta: "kontua nei!" 'Ta:

"Kontua zeba?" 'ta: "hola 'ta hola" "Jo, Rufino, ez zeatu! " 'Ta "ez zeatu! Ni ez naz horren bazterrin aiko, e! 'Ta kontua nei prepatu laumbateko!" ' Ta ez ziten prepatu 'ta ni gehiyo jon ez! Hau biali nun azkeneko jornalari billa! 'Ta geo Oxigenutan sartu in nitzan 'ta Oxigenutan sartu 'ta, zeatu ziten: "joe!" fabrika aitzen zen batek, la Fajek, Ergoingua. La Fajek: "joe, Rufino, in duk astaki erra, e! Enkargatua euki 'ta, Esmalteitik alde ittia! 'Ta: "astakeiya ingo nun, biño ni arron kontentu no! Erlebun lanin 'ta itxeko lanak itteko!" San niyon: " ba al dakizu zembat iraazten nun nik hillin? Bi milla 'ta berrehun peza eunin, 'o... hillin irabazten nittun! 'Ta oaiñ Oxigenutan ba al dakizu zembat iraazten duten? Zortzi!" "Mekauendios!! Nik 'e alde ingo nikek!" Eskerrak alde in nula, e! Difentzi erreko jorrala da, e! Bi 'ta berrehunetik zortzi milla peza!

- Joe!

- Karo 'ta jendik usteko zuten ondo kobratzen zenutela! Fabrika zelako 'ta! Biño...

- Enkargatua 'ta bi milla peza...

- Segurua 're juxtu juxtu juxtu patzen zuten!

- Geo nik inutillidadikin 'o belaunetatikan geldittu nitzan, a los cincuentayseis años geldittu nitzan. 'Ta osaba itxekua 're han ibiltzen zena zen neria, itxekua 'ta Juan Mai 're bai 'ta biyek erretirua hartu 'ta biziko zortzi milla peza hillero 'ta zeak, Juan Maik hamabi milla peza 'ta osabak: "Joe, edadi hortan jubilatatu 'ta ez du erretiro haundiyik izango! Nik hombeste urtian ibillita hamabi milla peza..." Nik san niyon: "nik ez 'ttut zuk haimbeste urte, biño hogeita hamabi iraazten 'ttu nik e! Errenteikua!" 'Ta harrek hamabi, nik hogeit milla peza gehiyo! Maldiziyoka han alde in zun! Gutxi kotizatua, biño Oxigenutan kristona patzen ziten jorrala, e! 'Ta noix-nahi propinak man, e! Difentzi erreko lanteiyak bazin, e! Joe! Eskerrak alde in nula nik! Beste alu harrekin hasertuta bestela! Bestela han ustelduko nitzan!

- Harrek in zizun bentaja!

- Apuntatzen ai al da hoi? Ez!

- Dena jartzen ai al da hoi? Joe!

- Biño hua ez da biziko?

- E?

- Vitoiko hua uaiñ ez da... 'O gaztegua al zen hua?

- Ez, zarruo zen, biño geo uste 'ut hanka moztu 'ta denak in zizkatela! Seittun miña harrapatu 'ta!

- (...) hanka moztu!

- Hanka moztu! 'Ta geo osaba han ibiltzen zena béakin 'ta: "hi! Hanka moztu ziotek zeai, Anatorioi 'ta..."

7.5. Erreterriako Esmalteria

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Erreterriako Esmalterian eltzeak egiten ziren. 2.000 artikulu ezberdin egiten zituzten. Estatu guztira bidaltzen zituzten. Langileei etxean behar zituzten eltzeak ematen zizkieten, baina zuzendariak sinatu behar izaten zuen, eta askotan ez zuen ematen eskatutako guztia.

Transkripzioa

- 'Ta ze lan itten... Karo lendabizian lanin hasiko... Esmalteiyan enkargado geo, biño ze... Pintxe 'ro nola hasi ziñan?

- Almacenin! Pintxe, pintxe ez zen difentzen. Amakin bat katxarro biali 'ta amakin bat pakete in bai. Pf! Benga paketik in, 'ta benga paketik in! (...)

- 'Ta noa bialtzen zen 'ta gotze al za?

- Jesus Maria! Espaiñi guzira! Denea! Pilla bat bai.Oaiñ...

- Ze itten zen? Esmalteiyan ze itten zen?

- Ze itten zen? Itxian ber den katxarrei guziya! Artikuluk uno potua zen, dos kazula, tres tapa, kuarto eltzia, zinko tapa, seis eltzia, siete kazua... Uandik gouan dakazkit, e! 'Ta mil... Dos mil artikulos bazin 'ta zea!

- Difentik, e?

- Joe, hoixe. Bazin katxarro pilla erra han, e!

- Oriñal pilla errak 'e izaten zin ba!

- Bai, oriñalak bai pilla erra! Josus...!

- Pilla erra bai.

- Boryonyo taberna Erreterriyan zean aurrin du, Maalengo ermitan aurrin. Oain ez dakit taberna don.

- (...)

- Maalengo ermita aurrin zen Bordiñon taberna leno 'ta Arruabarrenan 'ta garajik eta. Bordiño guekin aitzen zen. Erdi bertsolai holokua 'ta harrek hala saten zun: "biño oñalak kantidadia eamaten zuten (...). Ez duk posible, hoi itte itek nomatte arratsin betetzin (nik) leiyotik kampo bota. Beste...

Oriñala bazter guzita! Jo! 'Ta platera 'ta palangana 'ta holokua. 'Ta oaiñ ikusten 'zu, oaiñ zakurrai jartzeko 're nazka maten 'u katxarruk, e! Ikusita, e! Joe!

- Biño ordun (...)

- Ordun! Ordun, joe, ba al dakizu zembat katxarro! Zuk urtian pedido bat in ber zenun fabrikan itxeko 're, 'ta leno san 'uten zerrenda antijukin harrek... Harrei man ber zeniyon. Itxeko ber zinittunak direktoriai 'ta firmatuko zizun, biño askotan prezisuna igual urratuko zizun. Trik!(...) Eman ez!

- Biño arpegira beitu gabe, e! Mutur luze batekin, e!

- A! Etxeko... Etxeko eman langilliri eman itten zen?

- Itxeko...

- Harek firmatu in ber zun.

- A!

- 'Ta zuk eskatzen baldin bazeniyon, kompaziyo batea, kazulak hasi hamar zentimetrokotik eta bazin berrogeita hamarreiñokuk! Haundina berrogeita hamarrekua zen! 'Ta zuk eskatzen baldin bazenun haundi xamarra, trik trak! Urratu ingo zizun! Itxian bankete bat 'o jartzeko ber baldin bazenun, ematen ez!

- Oriñalak, hua mango zun!

- Bi esku ezkie, igual urratuko zun bat, e!

7.6. Lan arriskutsuak

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/011
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena:** Hain soldata txikiak zituzten lantegietan, handik kanpora ere lanean aritu behar izaten zuten gehienek. Rufino, Esmalteriako txanda bukatu eta gero, Errenteriako Udalarentzat lanean aritzen zen. Viteri kaleko tranbia txuriarentzako bidea egiten aritu zen. Garai hartan ez zegoen makinarik eta dena eskuz egin behar zen. Pikotxa aski ederki ezagutzen dute garai hartakoek. Arrisku handiko lanak izaten ziren, gainera.

Transkripzioa

- 'Ta geo, lante... Lanteitik aparte baserri... Zuek baserri, Olalde baserri koxkorra zen? 'O...

- Lanteitik ate 'ta Errenteiko ayuntamentuntzat, zeak, aittu izandu ga gu, guaintiak mantakin horrek 'ta hoikin 'ta. Zeiñentzako ez zekitenak. Kalle Biteiko trambia dena guk ate, tranbi biria guk ate genun zeatik hasi...

- Honek ez du izautuko hua, trambire hua. Trambire txuiy hua?

- Ez, ez.

- Bai, nik izautu dut.

- Honek deus ez.

- Joe! Biño hasi hauzko puntatik, Kalle Bitein hauzko puntatik hasi 'ta bueltan kalle Biteri dena, Alamendan bueltan. 'Ta pikotxakin guk ate genun hoa. 'Ta joe, galipota txarra da hausteko zen, e!

- Hormioiyan tipoa!

- Joe! Ho denak lertu odoletan! Pikotxa 'ta zeakin 'ta pikotxakin golpia oker xamar ematen bazen, zapa, pikotxa hautxi! 'Ta metro kontun adokiñin ongi atetzen giñala. Adokiñak 'ta juntatik rak, rak rak hondarra azpikua ate 'ta, harta jornada pixkat, biño joe, galipota tokatzen zenin! Ordua hiru peztan 'ta. Kastañon hasi beko puntatik 'ta goiko muturreiño urantzako zea, aska, aska atetzen. Fabriikatik ate 'ta geo.

- 'Ta hua zeñentzat aitzen ziñazten, ayuntamentuntzat?

- Ayuntamentuntzat. Urkiantzatz in genun Kastañon hamaika metro 'ta erdi. Zulua goitik betti ura harrapatzeko. 'Ta goiyan, goiko punta puntan zen 'ta goiyan tambor bat jarriya. Tambor hartan kablia goitik betti 'ta zu atzetik benga. Jonta osaba, txandaka, bat bian eun batin 'ta hurrengun bestia. Kan, kan, kan hasi 'ta bian ai zenak bai deskuitzen baza zaparra errak! Balantzaka, xestua balantzaka hasi 'ta bazterra jotzen zunin harriya dena goitik betti! 'Ta jo!

- Ordun ez baizen kaskoik ibiltzen!

- Deus ez. 'Ta, biño, txarrena izaten genun, ura asko jaiotzen zen, 'ta illunabarrin jon 'ta bi metro t'erdi 'ro igual zolua dena urez betia. 'Ta eskailletati zintzilik baldia bete batek 'ta bestik ta, ta, ta. Hua, hua hustutzen ordu bete biño gehiyo, bomba txar bat ez jartzetikan! 'Ta tokatu giñen hamar metro t'erdi. Ura biño beruo zulatua guk, geo ura bazterretikan eta hua ezin billatuik eta. Inaxio Urkia ehizira jon 'ta hua ehiziyen zen demboan, andria jon nola ai giñan ikusten 'ta beko zolo hura ikusi 'ta ate giñan demboan: "ez gehiyo honea torri, e! Ne andr, o gizona ehizitik torri artin!" Peligrun ai giñala 'ta ne gizona lanin, oi, ehiziyen 'ta gu peligro hautan 'ta gu jon ez. Bi eun pasatzen baldin bazenittun beldurra maten zigun geo jotia! 'Ta hua ehiziyen zon dembuan gu gehiyo jon ez! Han geldittu zen zolua, 'ta iñork bukatu ez.

- Eta han pasa zenittuzten orduak?

- E?

- Han pasa zenittuzten orduak?

- Haik kobrat... Patuko 'izkiunn, bestela... Joe! Biño, han 'e ze iraazten...
- Biño ze peligrun aitzen ziñazten lanin, e!
- E?
- Ze peligrun aitzen zen len lanin, e!
- Bueno, oain 're ieltseruk 'ta 're bai biño...

7.7. Pobre baina zoriontsu

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehen, diru gutxi erabiltzen zen. Baserritarrek diarioa edo kartilla izaten zuten. Dendetatik hartzen zutena idatzi egiten zuten, eta, gero, abere bat salduta ateratako diruarekin kitatzen zuten zorra. Lehen lan asko egiten zen, baina pozik bizi ziren. Portuberri baserria. Hika.

Transkripzioa

- ...ate genun, ixtoia hemen. Hola atetzen zin txarrak itxian.

- Len jaio 'ta hil: itxian.

- Itxian. Oain gañeko... oaiñ denak zarrak 'e denak diaiyo pixkat badugu, ordun iñork 'e ez zun e! diaiyoikan. Gabe jaso ber izaten zen gurasuai, itxea ezkontzen zen bat 'ta itxian itten zenakin bizi, 'ta hola. Sos askoik gabe. Kartilla beti 'ta dirua... 'o zerriya kumen batzuk saltzen zinin 'ta zokor bat saltzen zinin, 'ta zorrak patu. Hola. Hola bizitzen zin. Miño, nik saten dut beti, ordun parra in 'ta bizi... Oaiñ ez din inorrek parririk itten! Oaingo gaztiak ez du... beti... Nahikua izaki 'ta beti haserre do!

- Bai.

- Hoi da difentziya.

- 'Ta lana 're asko itten zenuten miño beti berriketan aitzeko 'ta denbua hartzen zenuten, ez?

- Ui, lana: Goizin jaiki 'ta lanea, geo gosaltzea, geo bazkaldu arte lanin zelayin 'o artajorran 'o ze denbo zen... udazkenin iatzia, iatzia ebatten ibitiyakin 'ta beno, dena hola. Miño, bakotxak ben tenorin ben lanak eta... neua tortzin artaxuitzen iji 'ta aja juntatzen bagiñan, norbatte joten bazen, gue itxian bakizu taberna 'ta beti mutil gaztia 'o norbaitt izaten zen... 'ta iji

'ta aja arto-txuitzen 'ta... Holako bizimodua zen, diruik ez zen miño konformidadia. Oaiñ ez do, oaiñ... Oso diferentia. San niyon honea torri zenai: "Mundua? Munduak buelta bat eman du! Bakarra ez: bi! Bi gañea, eman 'ttu". Oaiñ errespetua galdu da 'ta dena galdu da. Oaiñ iño... errespetua nik ez dakit nola san 'e: gauza askotan errespetoik ez do. 'Ta honek 'e battin kulpak: zemat gauza azaltzen dia umin aurrin, ikusi ber ez dinak, denak ikusten 'ttuzte. Nik, honen muttiko ttikiyak, oaiñ hogeita hamaika urte 'ttu: (beok) hor ai zin zerbatte peli... zea 'ta: "Gorka, hoi ez da zuk kusteko mokua" 'ta "Amona, hoik kalin ikusten dia 'ta!" kontestaziyua!

- Klaro, harek ya ikusiyak!

- Bai. 'Ta hola, la vida.

- Bai, eta Portuberri gañekun zer zen, baserri haundiya zen?

- Bai. Baserri haundiya zen gue etxia bai. Geo pasa zen karretera... Trabajorik in zuten 'ta zalaiyak 'ta erdittuta utzi zittuzten. Erdittuta geldittu zin. 'Ta miño... familiya 're gutxiyo 'ta lana 're gutxiyo aski 'ta...

7.8. 11 seme-alabarekin eta alargun

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/018
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:41:20. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Arroxa gazterik alargundu zen eta bakarrik gelditu zen 11 seme-alabarekin. Lau hilabete baino lehen atera behar izan zuten Okillegiko zentraletik eta Arraguara joan zen bizitzera. Arraguako bakailao fabrika hasi zen lanean.

Transkripzioa

- 'Ta hola.

- Bai, bai. Eske... gauza pilla 'rra in ttuzu zuk e?

- Askok. Nik bizimodo asko, klase asko eaman ttut. Nik hemen bakallo fabrika 'e zazpi urtian lana in nun e! Handik etorri honea 'ta ume asko 'ta jornalak bazittuzten, bi 'o hasiyak lanin miño ttikiyak, jornal ttikiyak, eta hamaika laun jateko eta... Bakallo fabrika itten nun nik goizian etxeko lanak, gauzak prepatu 'ta ordu bitan sartu, 'ta hamarretan atera. 'Ta bittarti hartan, ne nausiyak beti ordu erdi bat maten zin, berendatzeko ordu erdi bat, 'ta nei "geyo pasatzen bada 're etzu inportik" umik torri 'ta txapan gañin apaiya berotzen jarri 'ta denak iñ 'ta berriz jon. Zazpi urte 'ta erdi pasa nittun.

- 'Ta bakallo fabrika non zen?

- Hortxe bihan, oaiñ zea do; prontoiya.

- A, hor zen?

- Hor zen bakallo fabrika bai. Hor larogei 'ta geyo launek itten genun guk lana. Martxa geitza eondu zen hor bai. Ongi (zon), aldian zen 'ta...

- Bai. 'Ta noiz itxi 'ro in zuten hoi?

- Itxi zuten... bai, bastante denboa nausi bat... bi nausi zin 'ta sepaatu zen 'ta geo itxi in zuten. Geo, hainbeste denbun itxiya eondu da 'ta geo fubola 'o partidua hoi ereki zuten 'ta hoi in zuten.

- 'Ta zu han ziñan bittartin? Nola moldatzen zin hok?

- Eskolan zin, 'ta eskolatik torri 'ta hortxe. Ez zen ordun telebisiyuik eta deuse. Ahal zutena... 'o ben zeak itten, ben gauzak itten.

- Bai, 'ta zarrenak ya igual ttikiyak zaintzeko mouan ya?

- A bai, hok ya lana itten zuten hok e! Honea torri zinin, biyek. Esmalteiyan itten zuten, 'ta hau geo jon zen, ez zun fabrikan ongi hartzen 'ta neskame jon zen, zazpi urte pasa 'inen itxe batin, bai. Hola. Geo gue mutikozkorra hoik 'e... denak opiziyua baute hoik. Benez, halakuk etorri zilako. Gue Manolo da gaztina, mutilletan... hua denetan gaztina oaiñ, bi alaba hil 'zkinianen 'ta. Eta harrek, berak ikasi zun de moderadoria, burniyakin itten ttu oso zea... ona da, 'ta berak, berazkua. Sartu toki batin 'ta han ikasi.

- Hantxe ikasi, hartako baliyo.

- Bai, baliyo. Hola.

- 'Ta haikin ziñalik... bueno, jongo ga zea... Portuberritikan Okillira ezkondu ziñan.

- Bai. Handik in nitzan, handik ezkondu nitzan. Han pasa nittun hemezortzi urte, han nitzala gizona hil zin, akzidente batin hil zen 'ta hemezortzi urte. 'Ta ordun, gaur e 'nittitekenen bialiko miño libratu ber izandu nun lau hillate miño lehenuo itxia ne umikin, 'ta eskerrik asko ne kuñadu gizajua, beñe ez zin aztuko...

7.9. Alargun

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/020
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:42:06. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Koinatuak etxea aurkitu zion alargundu zenean. Baserri hartan ez zegoen ez ur indarrik ez argirik. Seme bat minez jarri zen. Koinatuak asko lagundu zion.

Transkripzioa

- Ze saten ai nitzan?

- Kuñauk... zea biali in zizutela...

- Bai, kuñauak bazun itxe zar bat, Lataborda oaiñ 'e han do. Hura zakan behiyakin 'ta hola, hutsa zon 'ta. Eta bera zentralin bizi zen.

- Makinetxin.

- Makinetxin. Eta harek esan zin... Lenbizi billatu genun etxia Xatur bizi zena hortan, miño ez dakit itxeko (zerbait zango zela) geo ukatu, in ziuten etxia. Zulukoerrotakua zen, hori, itxi hori. Zen, bizitza hori. Eta geo ordun kuñauk san zin: "Torri, arreglatuko ga, torri zeara baserriya horta 'ta...". Gue umik miñez jarri ttunen baserriya hartan. Klaro, geo han zentralin dena genun: argiya, ura itxea... dena zen zentralin, eta horrea torri 'ta hor ez urik eta ez argiyik eta deusez. Miñez jarri zin. Ne Felipek... eondu zen urte 'ta geyotan una lesión en corazón egin ziyon disgostukin eta penakin. Erki kosta zen hori, bai, gue Felipe bai. 'Ta hola. Geo behintzat hor ongi: potajia bazun ne koñaduk, illarra itten zun, baserriya baizun. Eta hua, gu haren amparun ongi eta hua 're gue amparun ongi. Hala saten zin ne koñaduk Portuberrikuk: "Zuek 'e ongi izango zazte, miño zuekin 'e erki bizi da Inuzentzio" 'ta "Bai, guk ahaleiñak itten ttugu bera ongi izatetik". 'Ta geo...

7.10. Bizimoduari aurre egiten

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:46:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Alargundu zenean, senarrak utzitako txondorretik atera zuen diruarekin terrenoa eta etxea hartu zuen Arraguan. Alargun-sari eskasa gelditu zitzaion, senarra hil zenean enpresa aldaketa tokatu zelako. Hika.

Transkripzioa

- ...Inuzentzio" 'ta "Bai, guk ahalegiñak itten ttugu bera ongi izatetik". 'Ta geo hau itxia itteko terrenua eosi nun lemizi, 'ta geo koñaduk in zin, miño nik jarrita dirua. Nik dirua... ne gizona hil zenin txon... gue gizona denatan zen saiatzen... zuk ez dakizu txondarra zer den.

- Bai, ikusi dut.

- Ikatza itteko, beno. Bai. 'Ta itten zin holakuk 'ta ikatza saldu 'ta beno, ahal 'zunak... 'ta hil zenin gellittu zin ez dakit zenbat... hoi eosi in ber izaten da. 'Ta torri zitzaian gizon bat: "Nik eosiko 'izut" 'ta "Ez. Neonek ingo ttut hoik. Gizon bat billatuko 'ut eta...". Neonek in nittiñen, txondarra haik eosi 'ta ikatza. 'Ta ordun hamar milla duro asko zen e! El año sesenta. Eta harrekin ni itxia itten hasi nitzan. Ni ez hasi, ne kuñadua, miño ne dirukin. 'Ta geo

zor utzi nuna kobratzeko atzetik beti, 'ta beste koñado batek esan zin: "Horrei muturra itxiko yogu 'ta nik mango 'izut dirua". Hoi denak ikusi ttut nik! Miño, ni hemen nion.

- 'Ta gizona, zentralan kargua zuna izango zen?

- Bai. Miño ze pentsa... ze pasatu zen? Ordun Iberduero... Vasco dena Iberdrolak hartu zittun. Miño gizona neria hil zenin Ibarduero pasik zin zentralak miño personala pasa gabia 'ta ni geldittu nitzan una... erretiru mixerable batekin cuatrocientas cinco 'ta hamaika ume. Ni geldittu nitzan, cuatrocientas cinco pesetas. Aquí estoy yo.

- Klaro, dena zuk ate ber?

- 'Ta hoi denak... san zin obispuk: "Ez dakazu eliza 'ta deus jon berrik zerua ederra 'zu", "Ez dakit, han 'e azkena izango naz ni, por tonta".

- Han 'de itxia in berko 'zu, ez zattuzte erregalo mango!

- Parra in zun, "Han 'e azkena izango naz ni por tonta".

- Jo miño, in zenun zuk zea erra e? Hainbeste seme-alabakin...

- Bai.

- 'Ta itxian jabe iñ!

- 'Ta itxian jabe, bai, 'ta gaur milloiak baliyo 'ttu honek. Hoik terreno hoik denak neriak dia; baatziak 'ta hoik denak, honenak dia, itxia honenak.

7.11. Paper fabrikara oinez, taka-taka

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/006
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:12:32. **Bukatu**: 00:13:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena**: Oiartzungo jende asko aritu zen paper fabrikan lanean. Oinez joaten ziren, taka-taka, zakotea eskutik zintzilik zutela. Gero ekarri zuen bizikleta.

Transkripzioa

- Ordun papeleran, e... Aittu ziñan. Oiartzungo jende pilla bat, ez?

- Askok! Askok! Oiartzundik papelerara asko jotzen zin, askok! Urti haitan bai.

- 'Ta nola jotzen ziñazten?

- E?

- Nola joten ziñazten?
- Nola joten giñan? Oiñez.
- Oiñez bai, e?
- Oiñez, bai. Taka taka. Zakotia eskuan zintzilik eta...
- Zakotia?
- Zakotia.
- 'Ta bizikletaik ez zenun zuk?
- Bai, geo karri nun biziketa. Geo urtian propina pixkat izaten genun, 'ta propina pixka harrekin 'ta xox pixar batzuketan 'ta biziketa karri.
- Ordun lujo geitza...
- 'Ta hoa biziketa geo trukaturta berriz beste biziketan jabe in nitzan 'ta, han geldittu zen nik aldeñ in nunin, 'ta han ez dakit ze iña 'uten ben harrekin. Tira! Putzoa bota baute 're ez dakit, akaso traba ingo zun 'ta!
- 'Ta zertik ez zenun karri ba?
- Ez nun ekarri. Ordun ez zen kontu hura 'ta. Geo tokiya 're ber da biziketantzako. Hoa bestei esker (...)
- Karo.

7.12. Paper fabrika: pinua, kanpotik

- **Hizlaria(k):** Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-062/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Sartu berritan pintxe ibili zen, bagoiak kargatzen. Egur pila izugarria etortzen zen. Pinua Pasaiaiko portura etortzen zen, Sevilla eta Malaga aldetik. Pizar bat.

Transkripzioa

- Zea... Papeleran ze lan itten zenun?
- Papeleran?
- Bai, zertan?
- Lembiziyen, harriyak bazian, harriyak... Harriya izaten du apaatuak. Motorra 'ta geo harriyan zea zen, biyek bat itten zuten. Martxan jarri 'ta

martxan. Biño motorra... Motorrixta izaten zen ordun. Haren lana, lantei ona zen. Ona.

- 'Ta zu ze aitzen ziñan, han makinan?

- Ni ordun sartu nitzanian, sartu berriya hartan, pintxe. 'Ta baoyakin, baoiya kargatu kampun 'ta eurrez, neurriya 'ro... Bagoiya zen bi metro 'ta bi metro raila jarriya 'ta pillan ondoa jon, eur pillan ondoa 'ta kargatu harren nibeleariño 'ta hartu trenbiri hartan 'ta geo harriyan aurea jon 'ta han 'e bazen tokiya, han hustu 'ta bestin (...). Lau harri bazien. Eurra karri 'ta eurra karri. Aurre zabal hoa dena lepoaiño betia eoten zen eurrez e! Urti haittan. Eur pilla izugarriya!

- Ordun 'e piñua izango zen!

- Bai, bai. Piñua! Batzutan haitza pizar, pizar bat izaten zen. Biño jeneal, piñua, piñua.

- 'Ta hua kamioyakin 'ta karko zuten?

- Pasaiño tortzen zen barkuan.

- Eurra?

- Eurra. Bai, bai, batzutan igual Sevilla aldetik, igual Malaga aldetik... Hoitan pillak ba in 'ta hola.

- Kampotik, e? Karo, hemen uaindik ez zelako!

- Hemen 'e bazen, pizar bat, zerbaitte itten zen, biño asko ber zen, e! Eur asko gastatzen zen! Izugarri! Izugarri! 'Ta oaiñ, oaiñ gehiyo ingo da!

- Oaindik seitzen du, oandikan, e!

- Oaiñ... Oaiñ nik ez dut ikusi 're in, oaingo motor zea hoiy biño... Bo! Sate 'utenez...

- Oain rapiduoguk eta izango dia!

- Bai, bai. Askoz 'e rapido. Bai.

7.13. Paper fabrikako makinak

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena**: Mila zaldiko indarreko motorrak zeuden paper fabrikan. Makinak nola ibiltzen ziren: egurra igurtzi egiten zen, igurtzika.

Transkripzioa

- 'Ta makina haik ze ibiltzen zin argiyakin? 'O... Ikatz... Zekin ibiltzen... Zekin jartzen zin martxan makinak?

- Oi! Harriyakin. Elezidadikin.

- Elektrizidadikin!

- Eletrizia dia, bai. Motorra berotzeko. Motorra berotzeko. Batzuk haundiyak, bestik ttikixiuk 'ta bestik karo... Milla zaldin indarrako motorrak 'e bazien 'ta. 'Ta hola.

- Klaro, indar haundikuk berko zuten!

- Bai, bai, bai.

- Haik eurra hartu ta dena txikitu ingo zuten...

- Bai 'ta geo uran presiyuakin, e, harriyan gaiñin kargatua do, 'ta harriyan presiyu harrekin, harrek zampatu itten du.

- A...!

- 'Ta harriyak hoa eortzika iurtzika, iurtzika attu itten du. Ikusten denin ya attuxe in dela, berriz 'e, berriz kargatu. Tapa ereki 'ta eurraz kargatu 'ta berriz 'e martxan jarri.

- 'Ta geo hua txikitzen txikitzen jongo da?

- Txikittu ez, iurtzika.

- Iurtzika.

- Bai, bai, iurtzika. Txikittu... Zerrautsa bezela ez da txikitzen! Ez, ez illia, illia balitz bezela.

- A...!

- Dena bat itten da.

- Biño geo papera itten den bittarte prozesu galanta in berko 'u, ez?

- Bai, bai, bai. Bai. Haundiya. 'Ta oaiñ berriz, auskalo! U...! Nola jarriya den! Dena berriya jarriya 'ute 'ta! Leno milla zaldiko indarreko motorra, 'ta oaiñ ez dakit zembatekua izango den.

- Auskalo. Jesus! 'Ta makina gutxiyo 're bai, 'ta...

7.14. Ordezko langilerik gabe

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/009

- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Paper fabrikak langile asko zituen. Hiru txandatan aritzen ziren, gau eta egun, makinak gelditu gabe aritzen baitziren. Norbait minez jartzen bazen, 12 ordu egin behar zituzten gainontzeko langileek; ez zen ordezkorik hartzen. Barkuetan etortzen zen egurra.

Transkripzioa

- 'Ta langille gutxiyo.

- Bai, bai, bai. Dudik gabe.

- Zuek zembat 'te ziñazten? Zu aittu ziñanin, zembat langille 'te zittun papelerak?

- Papelerak mordoska ba bai. Ez dakit zemba izango zittun totalin, biño, mordoska 't bai. Mordoska 't, mordoska 't.

- Ehuntik gotti 'ta bai, ez?

- Bai, bai. Ehun biño gehiyo. Hiru erreleo aitzen zin. Hiru erreleo. 'Ta erreleua... Bat miñez 'o alde itten bazen, hamabi ordu, hamabi ordu in ber. 'Ta geo eurra tortzen zenin, kampotik, barkua betia 'ta torri 'ta geo hor bagoiyak kargatu Pasaiyan, 'ta geo haik papelera karri. 'Ta han hustu, 'ta handik hasten zen.

- 'Ta zeak ze itten zun, e... Pasaira tortzen zin barkuk eta geo Pasaitik, zea...

- Pasaitik bagoitan...

- Bagoitan Errenteira, papelera.

- Papeleraiño.

- Bai. Errentiko estaziyoaiño.

- Hoi da. Papeleran onduan...

- 'Ta geo handik bazittun... Trenbiria jarriyak papelerako. Lezoa, Lezoa 're bai. Hara 're kombinatzen zun. 'Ta hola. Eur pilla erra bai han, papeleran

- Torri 'ta torri 'ta torri ibilliko zen.

- Bueno...! Eurra kantidadia! 'Ta oaiñ 'e bai, oaiñ 'e hala ingo da. Oain makina dena berriya 'ute 'ta.

- Bai, bai. Makina 'ta berriyak, biño papera itteko huaxe ber, eurra ber.

- Bai, bai. Eurra ber.

- Eta geo...

- Eurra 'ta geo zea 're bai, paper zar 'ta kartoi 'ta hoi dena beratu 'ta (...) 'ta dena txikittu, deseindu 'ta bildu 'ta (...) jarri.
- Biñon, zea, piñutik atetakua kalidade onekua izango zen papera.
- Bai, bai, bai. Ona.
- 'Ta zure garaiyan ze itten zin, zea, prentsarako 'ro periodikuk itteko paper haundiy hoik, bobina haundiy hoik itten al zin zuen garaiyan?
- Nola papera?
- Papera, zertako papera ateratzen zen?
- Zertako?
- Zertako ibiltzen zen handik atetzen zen papera?
- Oi! Periodikua itteko asko. Asko bai, periodikua itteko. Geo kartoiya itteko 'ta, liburuk itteko papera 'ta hola, klase horta.

7.15. Destajoan lanean

- **Hizlaria(k):** Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-062/011
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Ugarterrotan senide guztiak aritzen ziren lanean. Paper fabrikan, zortzi orduko lan txandaz gain, destajoan aritzen ziren lanean. Bestela, diru gutxi ikusten zuten. Norbait minez jartzen bazen, ez zen ordezkorik ekartzen. Beste lankideek ordu gehiago sartuta betetzen zen txanda. Gen postua.

Transkripzioa

- E... Uarte...E... Uarte Errotakua, Errota bea, zu aitzen ziñan lanin errotan?
- Bai. Bai. Errotan, errotan aitzen giñanak denak.
- Denak.
- Denak. Erreleun, ze erreleotan 'ta harrapatzen zun, gau txandan baldin bazon baten bat oyin igual 'ta bestia lanin 'ta. 'Ta hola.
- Ordun gurasuk eta zuek 'e aitzen ziñazten.
- Bai, bai. Hoixe, haikin batin. 'Ta eurra tortzen zen dembuan, deskargako, pues lanteiko kargu... lan hoa iñ 'ta geo eurra pillatzea. Eur pillak itten zian. Bos metro, sei altura pilla iña. 'Ta hara jotzen giñan 'ta han itten

genun, pes destajon lana itten genun. (...) Gen postua kubritzen genunin, hara jon 'ta handik sosak atetzea. Handik sosak atetzea.

- Bestela ez zen ailletzen. Sueldo bajuk.

- Bestela, bestela, gurasuak 'e... E!

- Karo.

- Bestela hua gordeta noa jongo ga. 'Ta guk 'e hala tortzen zen demboan, eurra hua manejatzeke, pes geo pilla itten zen demboan, zembat metro zien zeatu 'ta honenbeste, "bai, hambeste tokatuko 'ttek". Jornala biño haundiyo bai. Biño lana iñ 'e bai! Destajon aitzen giñan. Hoi itten. 'Ta hua geyo 'ta ahal zen guziya itten.

- Ze erreleua bea 're zortzi ordukua zen, 'o gehiyokua?

- Errelebua?

- Bai.

- Zortzi orduka. Bai, hiru laun izaten zien. Tres por ocho veinticuatro.

- Hiru eun?

- Bai.

- 'Ta beste eunak?

- Hiru eun ez! Tres por ocho veinticuatro, euna!

- Hoi bai, eun guziya martxan, martxan papelera.

- Bai.Bai. Tres por ocho veinticuatro. 'Ta geo miñez gelditzen bada bat, bajakin 'o hola gelditzen bada, hamabi ordu. Hamabi ordu. Harren zortzi orduak biyentzat. Beste biyentzako.

- Ez zen kartzen beste bat kampotik.

- Ez, ez. Nik ez nun halakoik sekula... Zortzi ordu 'ta baja 'ro norbatt tokatzen bazen, beste biyek hamabi ordu. 'Ta hola.

- 'Ta geo aparte len san zuna. Egur karraiuk 'ta!

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- Eta bakaziyuk eta?

- Bakaziyuk...

7.16. Igandeetan ere lanean

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane

- **Erref:** OIA-062/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Oporrak orain baino gutxiago izaten ziren, baina izaten zuten zer edo zer. Asteburuan ere lan egiten zuten. Igandeetan 12 orduko txanda izaten zen, hartara batek jai izateko. Gerrak han harrapatu zituen.

Transkripzioa

- Bakaziyuk 'e bai.
- Bai?
- Bai, bai. Bakaziyuk hartzeko aukera zenittun.
- Hillabete osua oain 'ta bezela?
- Ez dakit ba... hamabost eun 'o hogeieun 'o, zerbatt hola zien. Bai.
- 'Ta launbatin lana, ez?
- Geo, geo, eurra tortzen zenian, hara jon 'ta han jornal osua erki atea.
- Eta launbatetan lana itten al zenuten, Juakin?
- Bai, bai. landetan 'e!
- Bai, e?
- Pastan ai zenak, pastan ai zenak, jaiyan 'e lana. Bai. 'Ta makina urte askuan iandetan jai itten zun, 'ta uan berriz, atzeneko jarri zuten hua 're iandetan 'e lanea. Denak lana.
- Bakarra, iandetan aitzen zinak, txandaka aiko zin?
- Hoixe.
- landero ez ziyoten tokatuko?
- Ez.
- Zuen garaiyan 'e bai? 'O iandero, iandero...
- landero, iandero. landero. landero. Nik hoi zortzi ordu ez nun izautu. Geo hamabi ordu igandetan. Batek jai, batek bakarra, txandan. Bai. 'Ta eur, eur pillatzea joten giñanin, zortzi ordu papeleran fabrikan iñ, 'ta berriz eur pillatzea, hoa aparte, e!
- Aparte?
- Hoa bakotxa betzat. 'Ta hola.

- Lan faltik ez zenuten?

- Ez. Papeleran lan asko izaten zen beti. Askok! Jende asko ber zen han.

- 'Ta zea, gerrak 'e han lanin ai ziñala harrapatuko zizuten ba?

- Bai, dudik gabe. Handikan soldao... Gaiñekun papeleran jornala... Jurnal exkaxa izaten zen. Sosak atea bai, biño ordun podeiyoz. Ordun podeiyoz. Zortzi ordu iñ, 'ta geo berrito (...ra) jon 'ta, handik hemendik... Bai jauna!

- 'Ta ez ziñazten aspertzen?

- Aspertu!

8. Herria, azpiegitura

8.1. Arropa garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/017
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:36:30. **Bukatu**: 00:39:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa garbitzera errekarara joaten ziren, labaderoa jendez betea egoten zelako eta ura agudo zikintzen zelako. Beraiek bazuten ur-korrontea etxean, eta arraskan garbitzen zuten arropa. Gobada egiten zen, baina beraiek ez zuten egiten.

Transkripzioa

- Beno, lata erra maten ai naz, e!

- Ez, ez. Lasai! Zu gustora al zaude?

- Ez dakit ba, ze san!

- Nik galdetuko zattut! Ai naz ni galdezka!

- Bai, ai za biño...

- Nik jakin nahi nun, erropak nola garbitzen zenittuzten!

- Guk sukaldian. Fregaderan. Batzutan jotzen giñan zeara... Nola da?

- Labaderoa?

- Altziberko 'ta erreka hoi nola, Altzibertik Errentira jotzen dena? Pues horrea betti. Posta 'ro... Han bian ez dakit nola saten ziyoten. Han zea bazen, beno, oaiñ ez dakit nola esan. Iturriozko birian zen sagardoteiya, 'ro sagardo fabrika 'ro... 'Ta handik joteko ez dakit zer zela 'ta, istoriyak.

- Biño behintzat...

- Batzutan arropa garbitzea 're hara joten giñan.

- 'Ta hor beko plazan din labaderu hoik ez al zin garai hartan?

- Bai. Nik hoik beti izautu 'ttut hor. Biño konserbatu iñ 'ttuzte kendu gabe. 'Ta labadoria 're bai. Arreglatu 'ro zeatu 'ta. Biño hora nik han izautu nun.

- 'Ta ez ziñazten hara joten?

- Joten giñan, biño, launtzat zen tokiya. 'Ta ura gutxi korritzen bau denak han ur zikiña juntatzen da, 'ta irriyoa jon ezkeo berriz, zikiña urak eamate 'u.

- Karo.

-'Ta arropa ongiyo garbittu. 'Ta bestela itxian ura genun itxian. Denbo batin toki askotan ez zen urik, biño guk ura bagenun.

- A bai, e? Zuek bazenuten ordun? Bentaja erra bai!

- Bai. 'Ta batenak eta bestinak eta ahal zen bezela, pues arropa garbittu, pillla haundiya itteko 're bakizu, maiz garbittu berko Hainbeste launek. Ez zen han xobra askoik izango.

- Biño hoi eunero 'ta itten zenuten? Eunero 'ta garbitzen zenuten?

- Arropa?

- Astian askotan 'o? Oan bezela?

- Zikintzen zenian 'o. Ahal zen bezela garbittu. Ez batzuk bezala... geo saten zuten maindirik eta juntatu 'ta gobara ittea. 'Ta hura iosi 'ta itten zuten, biño, gue itxian ez.

- 'Ta zuk ikusi izandu 'zu, nola san 'zu? Gobara?

- Gobara saten zuten. Eta zeak, barrikak bezela... Aittu izandu 'ut nola saten ziyoten 'ta halako uan ez dakit ze jarri 'ta, ura berua bota 'ta, betik zirrittotatik atera 'ta ez dakit nola in 'ta. Biño gue itxian ez, gue itxian itturriya ereki 'ta han.

- 'Ta jaboia 'ro ze biltzen zenuten?

- Jaboia. Jabon Txinbo.

- Raka raka raka harrekin.

8.2. Plantxa

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/019
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:40:12. **Bukatu**: 00:43:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Lurrun-plantxa zuten etxean. Barruan egur-ikatz sartuta berotzen zuten. Ekonomikaren aurretik nolako sua zuten kontatu du: ez zen beheko sua, labetxoak zituen. Etxea erre egin zitzairen, eta konpondu zutenean, orduan jarri zieten ekonomika.

Transkripzioa

- Plantxak... Elektriokoik ez zen izaten dembo batian. Biño baporekua esaten ziyoten plantxa, gue itxian oso ona zen gaiña. Fuertia 'ta ona. Beste batzuk bazin geo ate zienak senzilluaguak, biño tapa hola zun, e! Kierra hemen. 'Ta handik, kierretik zun katxarro bat hola. 'Ta harrekin itxitzen zen, biño barrenian ikatzakin, egur ikatzakin sua inta jarri, 'ta berotzen zen, 'ta geo harrekin. E...Zeak beziñ ona zen hora.

- Zer?

- Eletrikua beziñ ona zela hura. Plantxa kasi bea 're hala zen, e! Gue amak... Aspaldi, beno, esposatu zenian 'o... losiya izango zuten 'ta ona. Geo bazian itten zutenak, biño txarraguak.

- Bazin beste batzuk, brasa sartu gabe, sutan euki,

- Baita 're.

- 'Ta hoztu bittarte itten zunak 'e.

- Baita 're.

- Biño karo, haik in berko zin noixnahi berotzen jarri.

- Berotzen jarri. Bat berotzen jarri 'ta bestikin plantxatzen. ' Ta hola, 'o bi 'o hiru plantxa jarrita.

- Biño zuk san 'zunak gehiyo aguantatuko zuten, brasakin?

- Harren brasa denin 'ta geo tarteka ber bazen asko, ikatza bota 'ta...

- Ongi garbittu, bestela erropa zikindu!

- Ez. Plantxa garbiya ioten zen gaiñetik.

- Kontuz kontuz brasa sartu 'ta...

- Uango aldian orduan... Atraso haundiya izandu zen, biño (ez, ez) guk plantx hura geo 're ibiltzen genun.

- Bai, e?

- 'Ta azkenin bestik hautsi zigun. Beti eskatzeko tortzen baizin gue itxea. Batek "plantxa utziko nazu?" 'Ta eaman 'ta adiós! Ez bentzat eta ez guetzat!

- 'Ta zer zenuten beko sua? 'O ekonomika?

- Ez genun bekua. Zea... maiya hau balitz bezelako zea bat denian. 'Ta gaiñ hartan itten genun sua. Sua itteko tokiya zun 'ta eskiñan labetxua 'ta bestin 'e bai, ikatza... Egur ikatzakin itten 'tena. 'Ta harrekin. Ez zen ez labeik eta ezer 'e, dembo batian. Geo bai, bagenun. Itxia erre in zitzaigun 'ta hura erre zenian arreglatu zuten 'ta ordun jarri zuten ekonomika.

- Okiyo ekonomika!

- Hura 're harrapatu genun.

- Hua seuruguo!

- Beno...

- Aspertu al za?

- Oi! Nik ze satia nahi 'zu?

- Labaderuna aztu in nau galdetzia...

8.3. Labaderoa

- **Hizlaria(k):** Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-020/020
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Labaderoa nolakoa zen eta nola garbitzen zuten han arropa. Ura ahal zen gutxiena zikintzeko moduan antolatuta zegoen tokia.

Transkripzioa

- Aztu in nau galdetzia. Labaderu... Lengun eondu nitzan labaderuiai beira, beko plazan.

- Beko labadei...

- Bai. ' Ta daka, hau labaderua baldin bada, daka hemen aska hoi, ez?

- Aska.

- Aska. 'Ta geo...

- 'Ta lau kantoitan kampoia harri batzuek.

- Bai.

- 'Ta jendia itten zen uretan sartu, o, ez! Sartu gabe itteko bazun

bazterretik zea. 'Ta handik hartu 'ta harri haitan garbittu 'ta erdiyan astindu. Harrek, horrek, horrek eta horrek denak botatzen ai badia zikiña 'ta ura ustez korrittuagatik ez da zeatzen 'ta, ura zikiña askotan! ' Ta gue amak ez baizun nahi 'zaten ur zikiñakin garbittu!

- Karo!

- Itturriya ereki 'ta dembo gehiyo ber zun, biño itxian.

- 'Ta ordun, harriyak zozten, askatik kampoko ayeka?

- Bai. Ez al za errepetu?

- Bai. Biño uste nun, diskuttuta alrebes jarriyak zittuztela!

- Bazterrian... Beno, hau da zea. 'Ta erdiyan hoi, horren zea bezela eta... Erdiyan geo ixkiñetan du... Nola esango nuke... Honea, kampoia zea bat, harri bat. Aber, hola arropa garbitzeko 'ta bazterrian zean bazterrian hola tokiya.

- Bai.

- ' Ta kampu hartatik ura hartu 'ta garbittu. 'Ta ura kentzen dena beste ayekatik joten da 'ta norbea ez da bustitzen.

- Hoi da. Biñon, garbitzen ai zena, pertsona jarko zen kampoko ayekatik.

- Kampoko... Klaro! Kampoko ayekatik...

- Harriya izango zen...

- Harriya, aska ez, askatik kampoia! Zikiña joteko!

- A! A! Bai, bai, bai. Karo, karo karo.

- 'Ta geo barrenian, ura tortzen zen, biño... Hola.

8.4. Askak

- **Hizlaria(k)**: Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref**: OIA-020/021
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:47:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Plazan bazeuden behiak zituztenak eta hauek bertako asketara joaten ziren ura edatera. Gaur egun dauden iturriak ere bazeuden orduan.

Transkripzioa

- 'Ta geo gororo bazten, uaiñ ez da... Depo... Zea, depositua den bazterra hartan, beste aska bat. Kendu 'ta ibilli zuten, geo jarri ingo zutela 'ta. Aska

hura, hura zen berriz, behiyak joten zianak zeako, Axeiyeneko behiyak eta... Hola behiyak zittuztenak eamaten zittuzten ura iatea hara. Han aska hura beti betia ioten zen ura zeriyoia.

- 'Ta Axeiyanak hemen izango (...)

- Axeiyanak hara joten zian. Ez, goro 're bazen beste aska. Bi aska zian, bero 'ta goro. Axeiyanekuak goikoa joten zin.

- Ordun behiyak kalin barrena ibilko zin?

- Goiko kalin betti!

- Oain hor behiya ikusteko!

- Oaiñ ez da behiyik 'ta holokoik! Biño orduan... Hantxe behiyak ikasiyak eoten zian noski! Atzetzen zittuztenian bat 'o bi joten zian, ura ian 'ta itxea.

- Ya ohittuk!

- Karo!

- 'Ta itturriyak non zin? Oaingo itturri berak al dia? Hor Xabale aurrekuk eta...

- Xabalen da oaiñ kantoiyian zea, 'ta leno zen, itxia nola da, zeak... Xabaleko itxi hoi, harrek goiko kalea ayeka hora... Kantoi hartan itturriya 'ta goiko kalin 'e beste itturriya. 'Ta geo zea, zeako Kamioneko 'ro, kontsejupeko atzi hartan berriz, beste itturri haundiy hura.

- Kastroneku hortan.

- Kastronekua, bai. 'Ta hola.

- Bazin itturri mordoska 'at! Ez?

- Kalian bertan. 'Ta geo bero 're bai, 'ta bian Posta aldian 'ta.

8.5. Garbitasuna

- **Hizlaria(k):** Bikandi Aristizabal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-020/022
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:49:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Garai batean, ura etxera garraiatu behar izaten zen. Ez zegoen ur-korronterik. Maitxoren etxean bazeukaten ur-korrontea, eta gero hasi ziren gainerakoetan ere jartzen. Orain bainerak eta dutxak daude, baina lehen ez zeuden eta Altzibarko erredera joaten ziren garbitzera. Etxean ere aritzen ziren, balde handiak jarrita. Garai batean atzerapena zegoen, baina garbi ibili nahi zuena garbitu egiten zen.

Transkripzioa

- Biño itxitan gehiyenian bazen geo. Len dembo batin ez zen urik izaten, karraitu in ber, biño geo ura zen itxe guztitan.
- Noiz jarri zuten itxe guztitan? Gotzen al za zembagarren urtia 'ro izango zen?
- Nik uste 't gue itxian beti izandu zela. Urik gabe ez giñan gu, urakin.
- Erki. Erki kambitu dia gauzak!
- Bai.
- Oaiñ ura mozten digutenin, jo! Hau desgraziya!
- 'Ta ordun gaiña gazteiyak itten zun, uaiñ itxea jon 'ta baiñera, 'ta han baiñatu 'ro, dutxatu 'ro iñ biño, ordun ez baizen holakoik! 'Ta beko plazatik betti jonta irriyua, Altziberko irriyoa 'ro jon, 'ta han ira itten 'ta baiñatzen giñen 'ta martxa!
- Han garbittu.
- Ordun 'e garbi jon nahi zuna joten zen. 'Ta itxian bertan iñ 'e bai. Balde haundiyak jarri 'ta han ura 'ta garbittu. Dembo batin 'e atrasua zen, biño garbittu nahi zuna 're garbittu itten zen. Txoakeiya da. Oaingo adelantoik ez zela.
- Hoi da. Biño garbiya berdin berdin. Len 're. Zuek garbiyak joten ziñazten. Nahiz 'ta dembo gehiyo ber 'o... Gehiyo kostat!
- Itxetik kampo ateko baziñan arpegiya 'ta garbittu ber izaten zenittun! 'Ta ez. Ordun 'e nahi zunak...

8.6. Bizikleta: garraio eta afizio

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/014
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:41:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Rufinok lan asko egiten zuen, baina bizikleta karreretan ateratzeko astia hartzen zuen. Behin, xanistebanetako karrera irabazi zuen. Beste behin, Mitxelenak bost minutuko bentaja eman zuen, eta hala ere, denak harrapatu, eskapo egin eta irabazi egin zuela kontatzen du. Garai hartan denak bizikletan joaten ziren lanera. Bidean, neskak zirikatze beta hartzen zuten. HIKA.

Transkripzioa

- Etxebeste 're bai.

- Zeiñ anai zin? Kampotik karri zittuztenak haik? 'Ta Mitxelenak ordun in zun bos minutu bentaja man. Pako Mitxelenak minutu... bos minutu bentaja man bestiri.. Eta, zeñ kristo anai zin karri zittuztenak launtzeko... Kampun biltzen zinak elkarrekin 'ta. Mitxelenak bos minutu kendu 'ta lurritan harrapatu zula. 'Ta Mitxelena, tak, geldittu zen be onduan 'ta. Launak giñan Mitxelena 'ta gu, 'ta Mitxelenak nei: "Jarriy hai atzin, nik martxa 'it aurea." "sei zak, sei zak!" Harrek seittun harrapatu du bos minutu manta, harrapatu denak eta...

- Béak eskapo in geo!

- Béak eskapo in. Nei esan zin: "segi zak!" Eta bai, aiba dio! Aurreko eunetik pikotxa 'ta palin txiki arraiyo iña! Erra entrenamentua itten genun guk! Joe!

- Entrenatu 'ta lanea!

- Buelta Frantziko pelotoiya miño haundiyuo in Errentira!

- Bizikletan? Joe, hoi pilla joten zin!

- Hoi pilla joten zin!

- Gu erori izandu giñala betzi! Matxaiñeneku hortan! Kauen... Ordun 'e izaten zela...

- Bai, halako biria 're.

- Biria? Bizkarretik helduta elkarrei. Elkarrei heldu 'ta denak jarriyak giñan 'ta bat trabatu 'ta tr...! Denak lurrea jota! Pedala hautsi nei! (...)Nula! (...) Ui! Joe! Ordun zin kontukin! Kubiartak hautsitzen baldin bazen, entreatu in ber 'ta... Kubiarta 'ta kamara berriya jartzeko. Zaarrak entreatu! Ni ibilli izandu nitzan...

- 'Ta geo berriyak errealo?

- Ni ibilli izandu nitzala kubiartan barrena, kortxua jarrita. Kortxukin barrena jarrita. Hogeita hamahiru kortxo uste 'ut sartzen zila. Joe! ebiya itten zunin, kortxua beratzen zen ta ordun ongi, biño gortzen zen demboan, mekauenlaputa, ipurdiko errak bai miñ erra! Kortxua gortzen zenin, ta ta ta ta! Joe! Gorriyak ikusi dittugu guk 'e! Jo!

- Bai, 'ta geo kubiarta atetzen baziyon, bollua, beste zea bat kapa loixio bat jarri barrendik petakua. Jo ibilli in ber da hola, e!

- Kamarak entreatzeko eun batin bi kamara elkarri lotuta hola jarriyak, lazua inta. 'Ta baguz Errenteira lanea 'ta. Nunguk zin kargaderoko atzi hortan bi ahizpa 'ro moja zeatu zinak. Bi neska. 'Ta Xegundo Xixtiyo, Benantxo Torrekua 'ta hiru 'ro bagiñala 'ta kamara hartu bi launek eta bat neskan ayekatik hartu 'ta bestia beste ayekatik 'ta bi neskak kamarakin hartu aurrian 'ta utzi in ber kamara azkenin! 'Ta utzi 'ta haik kargaderoko gaiñea bota kamarak gui. 'Ta geo kamarak billa, berriz 'e atzetik iyo, kargaderua itxiya atzetik eta. Joe! Alukeiya!

- Bixkarrondokuk.

- Bixkarrondokuk bai.

- Kargaderua... Kargaderua ez dakit hala deitzen yoten... Kargaderua zea da... Nola Gabierrota? Diputazyun zea? Hoi da kargaderua.

- Horrea, hor 'ta horrea bota neskak, han gaiñin bizi zinak baizin neskak.

8.7. Trenbidea

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/015
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:41:03. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Garai batean Zorrolako trena zena eta gero Karrikako harrobitik jaisten ziren bagoiak Olalde ondotik pasatzen ziren. Rufinoren arrebari trenak behatzak moztu zizkion.

Transkripzioa

- Han gaiñin bizi zinak baizin neskak!

- Zuek toritzen hasi hairi, biño azkenin beák toritu!

- Haik hauek toriatu!

- Harrobi hontatik eamaten zuten hara mateila. Trenabidetik... Trenabidia zen e, bagoiak. Zea, hortik, zea... Kargadorea.

- Ui! Gue itxi(...) beko itxian ondotikan. Horko trenak moztu zizkala ne arrebai bihatzak!

- Bihatzak ez, puntta, ez?

- Beno, jo 'ta moztuak zittun bi 'ro hiru! Bi 'ro hiru moztuak zittun. Trenak itxe ataiyan azpiyan han zea 'ta ume koskorak jostatzen 'o 'ta. Gerritik harrapatu bazun, igual ingo ziyon.

- Bai, e?

- Trenak eskua harrapatu!

- Ez sumatu trena? 'O ttikiya izaki igual!

- Hua ttikiya!

- 'Ta ondo ondotik pasatzen zen, Olalden ondo ondotik?

- Bai. Txatarra 'ta... Han do txatarreiya zea oaiñ 'ta Olalden biyen tartetik.

- Baratzan ayekatkan.
- Berez hiru metro itxian kantoira. Ez da izango.
- Gutxiyo! Atzeko atia guk esaten geniyona bertan, kontratikan.

8.8. Iturri ugari

- **Hizlaria(k):** Arbelaitz Sarasola, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-039/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Olalde inguruan iturburu asko daude. Ur-bilatzailea ekarri izan dute inguruko iturriak bilatzeko. Askok uste dute Pitusak horietako bat hartu zuela, baina Rufinok dio bat ez, bi iturburu daudela Pitusaren barruan.

Transkripzioa

- Hoixe! Dena barrenin hartu zuten. Geo beste itturriya bazen, gue baratzan pareta atetzen zena, kriston ura atetzen zen. 'Ta guk han esnia freskatzen 'ta iukitzeko 'ta, toki erra genun. Hoa 're zea karri, Errenteikua, zahori bezela itten zuna...

- Bai, sorgiña.

- Dios! Zein zen hoa? Etxabiguren. Karri 'ta barrenin zolua in, 'ta beste itturriya 're barrenin hartu. Geo nik hola, disputan hasi 'ta san izandu niyon zea batei, lanin ibiltzen zen kastillano batei: "¡Un manantial no, dos! ¡Hay dos manantiales ahí adentro, e! ¡Y ya sé yo donde hay más grande que esos dos!" Itturriya! Bai baita, gehiyo atetzen dena hor itturriya badela!

- Nik ian izandu dut, aski ona bai ura!

- Ura? Hor bestia kristona atetzen dena, zubiya biño goruo dela. Nola Olaldeko zubiya?

- Bai.

- Han goruo Pitusa zea itten duna. (Uka)

- Zubiya leno zen, oaiñ ez!

- Zubiya non da? Oaiñ 'e Olaldeko zubiya han eongo da, e!

- A! Bian, ya bai.

- 'Ta Torreneko baratzan 'ta zea hartan, joe, ura! Atzen da han, mekauden! Holako zulo batin bor, bor, bor...

- Bai, e?

- Pilla erra bai, bai. Errekan e! Errekan zean atetzen da.

8.9. Argindarra

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/023
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:52:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Arroxaren senarra Okillegiko zentralako arduraduna zen, baina Arroxak ere ikasi zuen zentrala maneiatzen. Zentralak jarri ziren arte auzoetan ez zegoen argirik; kandela eta kinkilarekin ibiltzen ziren. Hika.

Transkripzioa

- ..."Hik ez duk oaiñik ixkin bat 'e iñ nik aiña", behin san niyon atton batei: "Izkiñ bat 'e ez duzu zuk iñ nik in ttuten lanak, ixkin bat 'e".

- Klaro zuk: baserriya, geo zentralin 'e aitzen ziñan lanin 'o gizona bakarria aitzen zen?

- Bai, zentralin 'e eakutsi ziten, makinak maneiatzen nittiñen nik denak. Bai, bai, bai, eakutsi ziten. Nik zentralako martxa banekiyen, gizona nomattea eamaten bazuten ni gelditzen nitzan. Beno, gehiyo, beste bi gizonak 'e itten zuten lana, miño turnun itten zuten lana. Nik kasi nun. A! Oiañ berriro torri da... san niyon... "Aizu, Okilliko berri jakin nahi luteke", bi tokitik baizen indarra 'ta oaiñ saldu in zen fabri... hura, Iberduerok saldu in zun beste norbaittei, 'ta beste aiekatik heldu zen indar harrek makina diferentia zun 'ta "jakin nahi dute" 'ta horrek san ziyon hoi Iberdrolan enpleatu 'ta "Bueno, ni Iberdrolan enpleato eondu naz miño nik deus ez dakit hemen andre bat bada, seuraski harrek jakingo 'u", 'ta honea torri zen 'ta nik san niyon: "Harrek lanin ai baldin bada sei ordu bakarrik ttik" deposittu haundi bat zen "Makina lanin ai bada sei ordu" eta bost kilometroko kanalia zun treinta por treinta, ttiki-ttikiya, 'ta zotz bat aski ziñen itxitzeko, 'ta geo presa hutsa! 'Ta hura ne gizonak geo haunditu zun dena.

- Bai e?

- Jornalaz aparte.

- Be borondatez?

- Bai. Hura dena... haundiyugo, geo ez dakit cincuenta por cincuenta 'o ze in zuten. Gue honek, neska... oaiñ den, beno oaiñ, Goizutan bizi den Mari Carmenek hamaika ondar karraittu ziñen mando ttiki batekin. Hoi 're lan asko iña da, asko, denak gue umik lan asko in dute. Hoik e, hamahiru urtetako lanea jon dia denak gue itxian. Denak.

- Berko!

- Berko 'o, eskola miño nahiyo zutelako lanea jon, hara! Eskola...

- Bai e? Gañekun zuk eskola 'ta man...

- Bai, eskola badute. Be... nola izaten da? Eskola korrinti hori denak baute. 'Ta hola.

- 'Ta zea... Zentrala hoiken aurretikan argi korrintik eta ez zen izango, hoik izango zin lendabizikuk?

- Ez, ez, ez zen. Lemizi, ni neskaxa... beno, e'nitzan oainik, lemizi Portuberri 'ta hoita argiya jarri zutenin deposito ttiki bat jarrita, motor ttiki batin jarri zittuzten. Zenbat urte da ba? Nik ordun zenbat urte izango nittiñen? Beno, hamasei bat urte 'o, argiyak jarri zinin han, barriyu haitan. Gañekun ez zen... herriyatan 'ta hola bazin biño barriyutan, barriyo askotan ez zen argiyikan. Tz-tz-tz. Geo hasi zin jartzen barriyutan.

- 'Ta argiyik gabe nola moldatzen ziñazten?

- Ui, kandelakin 'ta kinkiya. Petroleokin izaten zen, kinki batzuk, kinkiyak izaten zin, muturrin izaten zun algadona... algadoiya bustiya eoten zen beti petroliokin 'ta xintxilik haik jarrita. 'Ta geo Arditturritikan torri... karburua izaten zen 'ta karburua eosteko modua zunak 'o batzutan lapurtu Konpañiyai 'ta kandilla haik...

8.10. Donostiatik Karrikara

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Labandibar, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-075/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Donostian jaioa da Joxe, Alto Mirakruzen. Gerraren ondoren etorri ziren Karrikako Etxeberri baserrira; ama zuten bertakoa. Alto Mirakruzen Parada zaharrean bizitu ziren. Etxe gutxi ziren orduan. Futbolean ibiltzen ziren errepidean. Arditurriko gaitza.

Transkripzioa

- Igual, lendabizi san 'zazu non jaiyo ziñan 'ta nola Donostiyan jaiyo...

- Donostiyan, Altomirakutzen jaiyua ni. Altomirakuzen jaiyua, 'ta geo honea torri giñan gerra ondorian. Zortzi urte nittula nik, gerra hasi zen 'ta geo gu honea hamar, ni hamar urte nittula honea torri nitzan. Biño lendikan 'e, hemen ibiltzen nintzan ni beti, e! Hemen 'ta Altxikin 'ta ibiltzen giñan gu. 'Ta handikan holaxe torri giñan 'ta, osabak eta hemen hil zinian, bat hil zen, osaba bat Arditturriko gaitza zula 'ro... Fakundo. Geo harrobiyan hil zen bestia, zea, harriya goitik torri 'ta, 'ta bestia... Afrikan soldauxka kumplittu,

'ta torri 'ta pulmoniyak harrapatuta hil zen beste osaba. 'Ta ordun torri giñan gu honea handikan.

- 'Ta haik zin aman anaiyak?

- Aman anaiyak haik. 'Ta ordun torri giñan gu honea, Altomirakruzetik honea bizitzea.

- Han 're baserriya zenuten?

- Ez. Baatza erra eukitzen genun han! 'Ta beti bi 'ro hiru txerri ibiltzen zittun gue amak. Bai. Han ordun zea asko ibiltzen baizen, billetako zerri jana 'ta, bota hairi 'ta...

- Karo!

- Txerri batzuk eukitzen genittun bai, han, Altomirakruzen. Parada zarrean... Oaindik han do, eskudu haundiy harrekin, Altomirakruzen ezkerreta. Parada zarre. Harrek azpikalditik zea zun, pisua, itxi harrek, hola balkoi haundi batekin 'ta zea aldea, Intxaurrondo aldea, zea, kara zula.

- A...!

- 'Ta han bizitzen giñan gu gehinian. 'Ta geo, gu koskortzen hasi ahalian, zeara, zea Arzakeneko aurreko... Herreratik gora joten za zeara Altomirakruzea.

- Bai.

- 'Ta altomirakruzen ezkerreta, gora zuzela ezkerretan, lembiziko itxi hartan, hirugarren... Balkoia beti han pasaeran beitzen dut, balkoi hartatik amakiña pixa iña gaude gu kamiyoa ordun. Garaiy haitan bai, garaiy haitan baserriyak bezelaxe zian, beno, pisuk zila.

- Han etxe gutxi izango zen?

- Etxe gutxi ordun Altomirakruzen. Futbolin ibiltzen giñan kamiyun 'ta.

- Oaiñ ibilli ber!

- Bai. Herrera aldea jarri portei bat, 'ta bestia Ategorrieta aldea 'ta futbolen aitzen giñan kamiyun han.

- Hango koskorreiya.

- Hango mutil koskor guziyak. Bai.

8.11. Gero eta samurrago

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/006
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:07:53. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Fabrikara bizikletan joaten zen, eta, gero, motoa lortu zion anaiak. Orain autoa dauka. Paeta joko it. Komeitan.

Transkripzioa

- Ordun ahal den gutxina, bai botika!

- Bai. Fabrikan lembizi biziketan hasi nitzan 'ta geo anaiya hor ibiltzen zen, kartoiyak eta txatarreiyan 'ta norbattek eman moto zar bat. "Hau mango 'it hiru milla peztan" 'Ta karri zin 'ta, hasi nitzan pruebetan 'ta: "joño! Hau biziketa biño hobia duk!" 'Ta harekin pasa nittun urte batzuk. 'Ta geo beste bat 'e hartu nun 'ta hogeita hamasei urte pasa 'ttu fabrikan. 'Ta uaiñ enkarguk kartzen 'ta hasi naz 'ta motukin ya ezin karri 'ta. "Zuk kotxe bat ber 'zu osaba!" zea, hillobak. " Bai, zea, nik paeta joko 'it lembiziko 'ta!!"

"Paeta, ez, ez! Nik komponduko 'ut hausten bada" 'Ta hola, hasi naz 'ta oain horrekin biltzen naz.

- Erki.

- Difentzi erra!

- Ekarri... Bai, lembiziko eunin iya paeta jo nun! Atzeka hasita! Ayeka batea beitu nun, biño bestia ez kusi nik! 'Ta geo bai, izautu nun!

- Ba, geo auro hartuko zenun!

- Geo ikasten joten da! Beti hartzen!

- Bai, biño motun ohittu 'ta geo kotxia... Bai, difentia!

- Bai, bai. Motun dena libre ikusten 'zu 'ta! Hor berriz, pixka 't

- Aittu 're, 'ro... Beti zea...

- Bai, 'ta... Manejuk ber dia hor 'e! Atzeka joteko 'ta geo toki estuan topatzen baza, jon in ber atzea 'ta!

- 'Ta motukin erki hartua izango zenun zuk!

- Motua iozeiñ xirrittotik martxa itten bainun! Oaiñ honekin atzeka jon ber! 'Ta bai, biltzen naz komeitan! Honekin 'e atzeka hastin sasita 'ta bestik berriz, eoteko, eoteko lasai, 'ta bestia pasa bazterretik eta...

- Biria estua da gaiña.

- Bai.

8.12. Ergoingo bidea

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/011
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:15:24. **Bukatu**: 00:16:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Gaur egun, errepidea bada, baina, garai batean, oso bide txarra zen Ergoienera. Autoa Olanditxoneraingo (Olandtxene) bakarrik iristen zen, eta Ergoiendik haraino ahal zen moduan joaten ziren; gaixoak, hankailletan.

Transkripzioa

- Neguan Ergoingo biri hoi dena, hor Ergoindik hasi 'ta Ualdetxoiño dena neguan iña da. Dena.

- Ni hoi juxtu juxtu akortzen naz e!

- Bai, Ergoien bazen gizon bat, zerbate, miñ zun hankin 'ta Olantxeko txokoaiño tortzen zen kotxia 'ta handikan angailletan Ergoia. 'Ta gu muti koskor giñala zen hoa, 'ta kusten genuz nola angailletan eamaten zuten.

- Karo.

- Ui! Zea, menditikan zea Zaldindikan 'ta menditikan hartu zea, puskak arrastaka 'ta Ergoien barrena Alziberra arrastaka. Bai. Dena lohiya zarra ikaarriya.

- Galipotik ez baizen, galipotik 'ta...

- Kamiyoik ez zen.

- Geo 're soldauk in zutenin, Pauko Errotatik gora in zuten, ez?

- Bai, biño ez zuten galipota bota!

- Bai.

- Hoi da.

- Todouno 'ro zea 'ro...

- Bai todouno 'ro hoi bota 'ta.

- Hor jendia hasi zenin tiroka 'ta bazter guziyak zikinduko zila 'ta jendia keja zen. Biño oaiñ kamiyua iñ denin, joño, uain kotxikin 'ta... Uain jendia eleante bizi da hor.

- Bai. Difentzi erra.

- Autobusa 're joten da 'ta!

- Bai. Nik holaxe izautu dut, biño. Difentzi erra izango zen, bai.

8.13. Garraio guztia aberekin

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/022
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Maxalengo heian, behiak eta mandoak izaten ziren. Semeak hazi arte, aitzak egiten zuen lan guztia. Gurdiarekin ibiltzen ziren, orduan trafiko gutxi izaki. Gurutzen, esneketaria ibiltzen zen kamioiarekin, baina, bestela, inor ez. Autobusa zaldiekin zen: korreoa. Bertsoak jarri izan omen dizkiote Oiartzungo korreolari.

Transkripzioa

- Ordun Maxalen giñan.

- Eta zer zenittuzen bian e... Behiyakin 'ta batea ez zenittuzten...

- Behiyak, lau behi 'ta geo pixka 't hauntxixio manduak.

- A! Mando errak izango zin?

- Bai, bai. Mando haundiyak zin. Bat haundiya, azken azkenin geo haundiya... Arront haundiya eosi zun karrun ibiltzeko. Harrei lau mandon karga bakarrik eamaten zittun zea, Iruna 'ta, Hondarrabira 'ta.

- Jo, indarra bazuten, e!

- Bai, bai. 'Ta karrua semik eta hazi arte attak bakar bakarrik, bea menditik kargatu 'ta direkto Iruna 'ta Hondarrabira 'ta. Behiyakin 'e jon izandu 'men dia. Oiartzundik Iruna 'ta. Ez zen oan bezela kotxeik izango.

- Ez.

- Kotxeik ez. Hemen Gurutzen esneketaiyak. Bakarra. Garai hartan.

- Hor katxarron bat. Zea itteko, autobus zarren bat 'o

- Autobusa bai zea... Oiartzunen gizona korriua, korriua... Korriua izena saten ziyoten zea, zaldiyakin!

- Bai, baita 're.

- Zaldiyakin karrun jendia eaman 'ta karri 'ta.

- Zu hoi gotzen za?

- Ez naz akortzen ni, ez.

- Atta 'ta.

- Bertsuk 'o kantak jarri ber 'zan zuten. "Kotxe korriua, harrek izaten du zaldiyik hobena" 'Ta ez dakit nola len 'e bersuk, lengo zarra 'e botzen zittuzten bertsuk.

8.14. Egur-ikatzaren garraioa

- **Hizlaria(k)**: Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref**: OIA-082/024
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:39:46. **Bukatu**: 00:41:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Mandazainek menditik auzoetara jaisten zuten karga, eta, han, gurdia betetzen zen eta hirietara eramaten zuten egur-ikatzak: Irun, Errenteria, Donostia... Gero, butanoa sartu zen, eta, suak kentzen hasi zirenez, egur-ikatzak sobera izaten zen.

Transkripzioa

- Alimaiyakin 'ta.

- 'Ta zuen karrua nolakua, nolakua zen? Karrua 'ro...

- Karrua...

- Gurdiyan itxurakua? 'O...

- Ez, ra, ra, radiyukin. Eurrezko radiyukin. 'Ta geo gaiñin zea, zea, burnizkua.

- Eta geo zer zittun, zeak...

- Geo... Erdiyan bi baranda ttiki 'ta atzea 'ta aurea... Arruin burni bat 'ta atzin beste bat.

- Deus ez. Holoko, holoko altura bat.

- Bai. 'Ta hogei zako eamaten zittun karrun. Karrua hartu 'ta Iruna. Irunen hustu zakuk eta berriz 'e, berriz 'e Ergoina igual, mandazaiñan zai birea.

- Ordun batzutan itten zenuten menditikan manduakin zeonek jetxi.

- Bai, arratsin deskargatu itxian, geo hurrengo goizin kargatu mandun bihor... Karrua 'ta geo Iruna.

- Karo.

- 'Ta geo bazka itteko mandazaiña tortzeko berriz Ergoina. 'Ta kargatu 'ta berriz 'e Errentira 'ro, Donostira 'ro. 'Ta berriz 'e bazkaldu 'ta mendira mandazaiñak. 'Ta, geo arratxin itxea deskargatzea.

- Ordun zuek manduakin hasi ziñaztenin, ze iiten zun, attak seittu karrukin igual?

- Bai.

- Lembizi mandukin 'ta geo karrukin?

- Bai, bai. 'Ta geo, hemen sartu zian, geo... Zea sartu zen butano sartu zen 'ta geo bo! Denak butanoa! Denak sobra geo!

- karo.

- Nik, anaiyak 'e Juakiñek 'e zerratokiya zerran moztuyez saltzen zun bizkarrin, eurra 'ta biño geo butano sartu 'ta akabo dena!

- Oi! Errenteiyan 'e bazen propiyo, zea karboneiya. Ikatza 'ta eurra saltzen

- Bai, bai, Errenteiyan.

8.15. Berrikuntzekin, ohiturak galdu

- **Hizlaria(k):** Elizondo Lekuona, Domingo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Erref:** OIA-082/025
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:41:36. **Bukatu:** 00:44:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Maxalengo arreba Irunera ezkondu zen, eta, anaiak lagunduta, ikatz biltegia jarri zuen. Anaia-ilobek, kalez kale saltzen aritu beharrean, biltegian uzten zuten egur-ikatz, eta, hartara, garraiorako denbora gehiago zuten. Gasa sartu zenean, sobera ziren egur-ikatz eta mandoak. Mandoak nola eramaten ziren. Toki izenak.

Transkripzioa

- 'Ta geo butanokin.

- Irunen 'e bai. Denin.

- Bai, bai. Irunen... Irunen kolan ioten zen jendia, zeakin izebakin.

- 'Ta izeba... Izebak eamaten al zun martxa? Hango almalzenana?

- Bai. Harek... Attak harei eamaten ziyon 'ta, harek'e hango xoxakin harek 'e bizimorua atea!

- 'Ta zer zen hara ezkondua 'ro izeba? 'O...

- Irunen ezkondu izeba.

- 'Ta béak jarri zun almalzena? 'O zeifnek jarri zun?

- Bai. Almalzena... Attak laundi ziyon almalzena jartzen. Geo... Almalzenak 'e ber baitia. Jon 'ta rau eskatu 'ta martxa itteko.

- Bajon bat, bajon bat.

- Bestela kalez kale ibilli ber da mandukin saltzen.

- 'Ta harta attak han utzi 'ta...

- Han utzi 'ta apaldu 'ro in 'ta martxa mendira berriz. 'Ta harek berriz, kiloka kiloka kiloka saltzen zun.

- Difentzi erra.

- Hantxe denak aurpegiyak beltz beltz iñak eta.

- bueno!

- Itxia 're dena beltz beltz iña, zeak, sala! Hautsa!

- 'Ta holak hegu haizikin 'ta okerro gaiña!

- 'Ta denak bukatu zin 'ta, oaiñ, oaiñ butano 'ta, gasa 'ta.

- Biño, hoi, kambiyu hoi attak 'e bizittu zun? 'O zuek gehiyo? Attak 'e... Atta geldittu zen lanin gabe? Ze...

- Atta... Ez, atta geldittuxi zen, biño geo anaiya geldittu zen. Ni soldao jon nitzanin, anaiya... Anaiya bakarrik 'ta... Ya jon zin, hemengo lanak jon zin. Geo mendiyen 'e eskabadorak 'e sartuak baitia zea, mandun tokita, denin. Leno dena toki txarrea mandua, oan toki txarrea eskabadorak!

- Ordun puska mateiletakua baldin bazen iriyak.

- Iriyak.

- Eta eurra surtako 'ta ikatza baldin bazen manduak.

- 'Ta oan berriz, eskabadorak kablikin... 'Ta biria béak itten du!

- Hondatu 're bai bazterrak.

- Guk berriz, aitzurrakin biriak in ber mendiyen!

- Bire xorrak!

- 'Ta... Jon da, dena jon da.

- Hoi itten zenuten, e? Mandua sartzen ez, 'ta zionek...

- Geok aitzurrakin biria in, bai! Geok atxurrakin biria in 'ta, geo eurra txikittu 're ez baizuten zea... Zaon tokiyan txikittu! 'Ta guk hara biria in ber mendiyen!

- Txondar zolua tokatu ezkie ongi, txondar zolun...

- Geo leku batzutan bate biriik in 'be pasatzen zin, biño... Ez, leku askotan. Biri in ber.

- Zenbait malkarretan...

- 'Ta urrutina urrutina noa jon izandu zazte?

- Urrutin urrutina, zea, Berdabiyo 'ta.

- U...!

- Berdabiyotikan betik gora zeara, Goizuta ayeka. Arkikutza goiko muura. Prantsesan Gurutzia saten ziyoten. 'Ta handikan Artikutza. Ikatza! 'Ta Artikuztik geo kamionekin.

- A...!

- Geo hasi zin kamionak eta, geo Artikuztik kamionakin. 'Ta, Berdabiyotik 'ta oiñez itxea arratxin!

- Biaje erra!

- Berdabiyotikan kamiyua kruzatu 'ta Zaldiñen barrena (Aixtikon) betti, Pagan betti, zarran, zarran, zarran, zintzerriya juaz.

- Bai, atzeko...

- Atzeko mandua zintzerriya juaz.

- Alkarrei lotuak 'o ze, eamaten zenittuzten manduak?

- E?

- Elkarrei isatxetik lotuak, 'o...

- Bai, zeatik lotuak, goiko...

8.16. Ergoien

- **Hizlaria(k)**: Pagadizabal Artola, Frantxiska
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-085/022
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:38:00. **Bukatu**: 00:39:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Ergoien auzoko zati bakoitzak bere izena du: Tornola, Haize egia, Eguzki aldea... Kontsejua. Herrira. Haizeeiya. Eguzkialdia. Egiya.

Transkripzioa

- Gu Tornolakuk giñan. Barrio Tornola.

- Barrio Tornola! Hoi...

- (...)

- Oaiñ ez dakit, ze... Ez dute hoi hautatzen noski oaiñ len bezela!

- Ya ez.

- (...)

- Len herriyan 'ta denin hala itten zen, e!

- 'Ta badia gaztiak ez dakitenak, e!

- Izango... Baie!

- Igual, igual! Oain ez da aitzen, e! Leno Tornola, Tornola...

- Bai. Biñon...

- In... Zea, Kontsejura 'ro jon ber zen zea guzirako, herrira 'ro, barrio

Tornola, denak korritzen zun. Bestia (Haizeiya) Haizeegiya, Ergoindik gotti. Hoin ayeka berriz luzkialdia da, Sau aldia.

- 'Ta Haizeiya zein da? Lete ayeka 'ta hoi?

- Bai. Aldi hoi da, egiya hoi, gottiño izango da.

- (...)

- Haizeegiya bai, Ergoindik gotti. Hara, zea aldea. Lete aldia...

- (...)

- Olatzene 'ta hoi denak?

- Bai.

- A! Hoi ez nekin!

- Ez, nik 'e hoi...

- Hoi 're hor sartzen da. 'Ta Lete 'ta baia hor.

- Bai. Ordun mordoska 't.

- Bai.

- 'Ta geo, hokena Euzkialde, zer dia, Ardotze 'ta Saua 'ta hoi denak?

- Bai, aldi hoi guk hala aittu izandu dugu. Euzkialde, aldia dela.

- Zelaiburu aldea 'ta...

- Zeok jakingo 'zute, zeok jakingo 'zute.

- Biño hola...

- Euzki aldia beti. Berua gaiña izaten dela san izaten saten 'ute. Euzki aldia. Ikaarri berua.

- Lete aldea bai, itzala gehiyo! Biño hola...

- Bai.

- Bai, guenin 'de erreka zokuan itzala denin, aldi hortan, zuenin 'ta, Ardotzen 'ta uaindik euzkiya.

- Euzkiya bai.

- Attak jakingo du hoi, Josetxo!

9. Euskara

9.1. Errekan arropa-garbitzen

- **Hizlaria(k):** Zalakain Irastortza, Roxario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Erref:** OIA-021/002
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Errekan garbitzen zituzten arropak, Makutsoren ondoan. Rosariok ama gaixorik zeukan eta goiz hasi zen lan horretan; amak etxean xaboitu egiten zuen, eta berak errekan garbitu eta xaboiak kendu. Buruan eramaten zuen baldea. Gobada egiten zuten, baina ontzi txikietan. Erreka eta irrioa ezberdindu ditu.

Transkripzioa

- ...askoz (...) behintzat.
- Bai ez...
- Ez gu oain beko irriyoa jon ber izaten arropa garbitzea ni joten nitzan bezela. Hamakiña bat iña no, jesus! Ura itxian jarri 'ta in zizkiguten arte.
- Itxea ura sartu zuten arte?
- Bai. Ura sartu zuten arte bai. 'Ta segi irriyoa, anda! Hotza zenin hotzakin eta berua zenin berua zenakin.
- Han ez zon kalentadorik...
- Ez da kalentadorik han. Ai...! Oaingo jendia ondo bizi da.
- 'Ta Iturriotzen ba al zenuten zea...? beko erreka noa jaixten zinazten?
- Beko erreka. Pues, beko erreka jotzen giñan 'ta han aitzen giñan arropa garbitzen. Beno, jabonatu etxian itten genun erropa, eta geo jon ta aklaratu han.
- Makutsoko erreka...
- Makutsoko erreka saten geniyon. Makutso da... zean... presa bat bada han. Bazen. Oain ez dakit nola don, 'ta presa haren onduan Makutso da. Etxian izena Makutso. Eta ondua harta jotzen giñan 'ta hantxe aitzen giñan ahal genun bezela, jela baldin bazen jelatutako urakin... Geo near pixkat iñ, etxea jonta ahal genun bezela berotu eskuak eta, holaxen...
- Eta ba al tzen harriyik 'ta jarriak al zozten arropa garbitzeko?
- Nun, zea irriyun?
- Bai.
- Bai, harriyak bazin zeak... harri zabalak bastante onak eoten zin 'ta haitan itten genittun. 'Ta geo jabonatu, berriz, etxian, geyena itten genun. Etxetikan...
- 'Ta errekan ze itten zen jo, arropa jo 'ro?
- Pues aklara... pixka bat ibili 'ta geo aklaratu han irriyun, ta ura hua kendu ta etxea eaman 'ta zabaldu.
- Nola zabaltzen zenuten, lurrin 'o zintzilik?
- Lurrin 'e in izandu dugu, 'ta zea, belarretan miño gañekun zintzilik, bai, zintzilik. Pintzákin.
- 'Ta gobara 'ro gotzen al za zu?
- Goara? Bai zea kubutan 'ta... nik baserritan 'ta ikusten nun bezela ez genun guk itxian itten. Itten genun guara miñon untzi ttikikyan 'ta itten genun guk guara, bai, itten genun. Haikin arreglatzen giñan.
- Ur berua bota 'ta... ez?

- Bai.

- Su hautsa 'ta...

- Bai 'ta... garbi-garbiak jartzen genittun behintzat eta. Txuriyak ateratzen zin.

- Miño lan pilla erra in da?

- A, bai bai.

- Eun osoko lana, ez?

- Aski gaztia nitzala hasi nitzan zeara... erreka saten geniyon... irriyua... ura hemen dijuna hoi da erreka esaten da. Erreka jon 'ta han aklaratu. Amak jabonatze 'izkin etxian 'ta ni jon 'ta han aklaratu. Gazte-gaztia nitzala.

- 'Ta kantidadia emango zenun ba?

- Hoi buruan eamaten nun barriñua. Hoik ibilliyak e? Hoik bizimoduk e?

- Xuxen-xuxen jongo ziñan...

- Hoik bizimoduk e? Ordutikan honea, jesus! Oain zein jongo da buruan barriñua hartu 'ta putzoa?

- Oain labadora hondatzen denin bai, madarikaziyo errak.

- Bai, egiya. Oain dena kanbitu baida, dena, kejatu itten da oain 'de jendia miño, oi!

- Bai, kejatu beti.

- Ez da kejatu ber den zea e... jesus, gu bizimodutikan. Ni zazpi urtetako 'ta hasi nitzan. Ama ez zen gauza izaten, hankatako miñak eoten zen, hankatan asko izaten zun miña 'ta... harek jabonatu itte 'izkin ni gazte-gaztia nitzan 'ta... beak jabonatu eta ni putzoa, baldia buruan hartu 'ta irriyua juten nitzan. 'Ta irriyun itten nun, pues, aklaratu. Aklaratzen nittun 'ta itxea eaman 'ta zabaldu haik 'ta bueno, txuri-txuriyak atetzen zin denak. Holaxen bizittu izandu na, urte askuan ni. Bai, hara, kontu polittak battuzute...

9.2. Euskara, debekatuta

- **Hizlaria(k)**: Sagardia Olano, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-031/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Gerra aurretik euskaraz egin zitekeen, baina gerra ondoren galarazita gelditu zen. Eskolan gaztelaniaz egin behar zen. Nau/Tzitt.

Transkripzioa

- Monja asko al zin?

- Bai, ez dakit, zazpi bat 'o ez dakit zenbat izaten zin.

- 'Ta haik kastillanoz aiko zin 'o euskeraz?

- Bai, kastillanoz, ordun euskera ez zen libre!

- Gerra aurretik 'e ez? Ez zen libre?

- Gerra aurretikan gehixio, baiño geo ondorin ez.

- Eta euskeraz hitz eiñ ezkie ze itten zizuten, ze zuek hasiyeran gañea e' zenuten jakingo katillanoz, ez? Eskolan hastin?

- Miño ai... ikasi.

- Berko, miño euskeraz ittetikastigui 'ro jartze al zizuten?

- E?

- Euskeraz hitz eittetik 'o?

- A bai, bai. Hoi 're bai. 'Ta geo, hortikan ere hor, ez dakit zertikan, aspertuta 'ro gure izebak eta, Beko Plazara. 'Ta han genun beste maestra, zea... 'ta klaro, launak 'e hala nittun nik: Rosita Ibañez bat eta... bestia zein nun... eramos traperas, traperas. 'Ta maestra hoi zen, naparra, kazkarra purrakatua e, napar kazkarra hoitakua. Antijuk hemen jartzen zittun eta gui zea... "Ala, venir aqui, venir" 'ta belauniko jarri guri han, kastigado eta kazk! hola jotzen zigun, aittu! Kask-kask-kask zeakin "Mecaguen vuestra fa..." hoi e'tzitt aztutzen e! nola sate... "¡Mecaguen vuestra facha cochina! No sé como no os cae la cara de vergüenza".

- Sate al zun?

- Aittu, maixtra baten leziyua: "Mecaguen vuestra..."

9.3. Mirua

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/017
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:29:40. **Bukatu**: 00:30:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Oiartzunen izengoitiak asko erabiltzen dira. Hemen potitotarrak eta miruak aipatzen dira. Hika.

Transkripzioa

- Txipin ordun ttuken hoik, oain Potitone dena, hoik ttuken hor. Hoiken ama 'ta atta 'ta amona 'ta Txipin zinak. 'Ta geo hoik biali 'ta itxia eosi zunin Palankaiyak hoi denak biali... Alde in ziten hortikan

- Bai. Mirua 'ta denak.

- Mirua!

- (denak batera hizketan)

- Miru-atsua, amonari miru-atsua saten ziyoten, numbaitikan kolka lapurtu 'men zula be txitukin 'ta geoztikan miru-atsua. Grabiela. Izena zun Grabiela. Emakume haundi bat zen, emakume haundi bat.

- Ahizpa 're bai bazin bestia, Mañula!

- Be ahizpa Mañuela.

- Mañuela bestia. Hua 're haundiya yun, e!
 - Bai, bai.
 - Biño hoik zer zin Mirutarrak?
 - Bai, bai.
 - Haik hemenguk, bai Oiartzunguk
 - Eta hoik bizi zin?
 - Hor Txipin.
 - Txipin.
 - Txipin.
 - 'Ta geo sartu zin Palankaiyak.
 - Geo Palankaiya. Haik bialita geo Palankaiya sartu zen. Horrea bai.
 - 'Ta gaiñekun, zea hemen...

9.4. Gurutzeko tabernak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/025
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:46:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Tabernaren aurretik, denda ttiki bat zuten galdostarrek. Auzoko esnea hartzen zuten eta Donostian saltzen zuten. Handik ekartzen zuten dendarako jeneroa. Sagardoa ere saltzen zuten eta pentsua ere bai: errejilloia. Gurutzezarrak goian zuen taberna, eta, behean, heia; hazitako zezena edukitzen zuten. Hika.

Transkripzioa

- Zer kambutu da gehiyo hola, itxuraz behintzat? Itxiak, baserriyak hola eroiyak eta baia? 'O...'O...
 - Baserriyak eroiyak hemen?
 - Len bazinak eta oain... Len ez zinak eta oain bai 'ta...
 - Ba al da iñor baserriya (...) hemen?
 - Baserriya zer?
 - Itxia berrituk.
 - Eroita 'ro geldittuak, aleiya, bai.
 - 'O berriyak iñak, 'o...
 - Larraburu. Larraburu ez zen iñ.
 - Larraburu ez zen in.
 - Erre zutena Larraburu ez zen in, geyo.
 - Zeaku hortan 'e bai. Beste Aitzolaetxeberri 'ro. Hor 'e bai. Paeta zarra bakarra dona, leno itxia zena.
 - Nun, nun?
 - ¡Aquí, donde Trapaa por ahí donde los tiros! ¡Donde tiran los tiros!
 - A! ¡sí!
 - A! ¡Ya!
 - Ahí hay un caserío, ahí, había un caserío, bai.
 - Sí.
 - Aitzolaetxeberri. Aitzolakua zen... Itxi hua zen.

- Gaiñekun hemen...
 - Gue barriyun... Ez.
 - Hor bestia (...) Oain itxe berriya iña don zea...
 - (...)
 - Guk itxe zarra saten geniyona. Hua 're erre in yun dena 'ta horrei, zea yun,
 - Bai, Irisokua.
 - Irisokua.
 - Bai, hua 're bai. Biño uan berriya iña.
 - Berrero berriya iña! Beste zarra leno bi bizitzakua 'o ez dakit zer zen. Matxines hor bizittuk ttun.
 - Ya, ya, ya.
 - Geo Auztira jon zena.
 - Auztira jon zin.
 - (...)Lo que menos ha cambiau.
 - Bai. Gutxi kambitu da.
 - ¡Y gracias a dios!
 - Bai,bai, ze bestik! Arragua 'ta Ugaldetxo 'ta hoi denak. Eta garai... Hau kamiyua galipota ez zen izango len?
 - Bai, bai.
 - Bai?
 - Hau zen dembo batian...
 - El camino de la reina.
 - Sí. La... La... Este...
 - Errege, errege biria 'ro...
 - Bai, bai.
 - Errege biria?
 - Dilijentziyak hemen ibiltzen zian. De Irun a Madrid iban, hemendikan joten zian dilijentziyak.

9.5. Pikoketako estrata

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Lekuona, Tiburtzio; Galdos Arbide, Faustino; Galdos Arbide, Juan; Mitxelena Aranguren, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Erref**: OIA-060/029
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:52:11. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Trabadoreek bidea egin aurretik, estrata zegoen Pikoketara. Nondik nora zihoan. Toponimia.

Transkripzioa

- 'Ta len Pikoketa aldea 'ta nondik zen biria?
 - Hor biria ona bai, zea
 - Estrata.
 - Len 'e bai, estrata. Miño geo soldauk in tzutenian, zeatua... Zampatua zeatua, ondo jarriya, biño asfaltatu gabia. Hoi hoeita hamar bat urte 'o asko gehiyo ez duk hoi asfaltatu zutela.
 - Biño lenoztik herri biria zen?

- Herri biria bai.
- Hemendikan Antsillesen barrena, Telleri, Telleritikan hortikan xuxenin Ameztietia.
- Ameztietia.
- Hacia Ameztietia.
- Geo Gorrintzolo.
- Geo ezkerreko ayekatikan Guardiko lepoa, Leungo xabala. 'Ta geo Arroixta, 'ta Arroixtatikan zuzenian Pikoketa.
- A la escuela por ahí...

9.6. Etorkinak eta euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Iza Artola, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-062/013
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:26:32. **Bukatu**: 00:28:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena**: Bertako jende asko ari zen paper fabrian, baina kanpoko jendea hasi zen gerora. Nagusiak erdaraz aritzen ziren, baina, behar-beharrean, euskaraz ere egiten zuten. Don Ignacio lurrita zen nagusia; Andrexenean apopilo egoten zen. Eskuaraz. Kaixo motel.

Transkripzioa

- 'Ta geo Oiartzungo jende pilla erra bai, biño kamptik etorriyak 'e izango zin?
- Bai, bai. Bazin.
- Kastillanuk eta!
- Bai, bai. Kastillanuk 'e bazin, kamptik torriyak. Bai, banaka batzuk bai. Biño eskualdun... Gue dembuan euskaldun jendia gehiyo zen. Biño gaur, gaur, zea, kastillanua, bueno...! Ez do ba!
- Biño zuek 'e kastillanoz han ikasiko zenuten!
- Bai, bai. Zerbatte ikasi ber! Zerbatt!
- 'Ta nausiyak 'ta nonguk zin?
- Nausiya berez, ez dakit nongua zen, biño harrei erdaraz aitzen zen guekin, karo, gui iakusteko 're hoa komeni zaiyo, biño ber berrian eskuaraz 'e itten zun, biño oso gutxi, e! Oso gutxi! Bai. Don Ignacio Yurrita. Euskaldunan apellidua zun.
- Biño ez dakizu...
- Don Ignacio! Mutill zarra zen. Andresenin eoten zen apopilo 'ro zea eoten zen. Jan 'ta ean han in, 'ta lo 're bai 'ta.(...) Kaixo mote!

- Len apopilua asko!

- Asko, asko.

10. Iritziak

10.1. Hildakoak non-nahi

- **Hizlaria(k)**: Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane
- **Erref**: OIA-052/009
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:19:38. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Ezin da irudikatu zer den gerra. Hildakoak non-nahi. Fusilamendua ere entzun zuen, Kastronean lotan zen aldi batean.

Transkripzioa

- Gerra... 'ta lengo esayera da: "Gerraik txarrena miño pake txarrena hobia da".

- Eske gu ez ga ezta imajinatu 're itten.

- Ez, ez, ez...

- Nahiz 'ta zuek kontatu 'ta iñalak iñ... haiñ-haiñ gorra, ez?

- Bai, bai. Ez da imajinatzen zer den gerra. Aieka guzi... nonahi herittua zu, ni beti akortzen na, goitik betti ogiyan billa helduki 'ta zea, Paotxikitako buelta itten du 'ta zokua hartan soldado bat hantxe hilla, miño hozkiya... jarri itten da noski. 'Ta Goñi, famoso Goñi; han, guardian han zebillen. Zea, honea heldu zin tropai nola zubiya bota baiziyoten pasua gabe geldittu zen hasta septiembre, 18 de juliotik ez zon pasoikan, dena mendiz ibiltzen zen eta Goñi horrek san zin: "Noa zuz neskatxa?" 'ta humildemente "Ogi billa" 'ta "Sartu kotxin". Lenotik ezauna, konfintza ez, miño ezauna, hemen Arrauan bizittua baizen, eta sartu 'ta berak eaman zu, nik harrentzat deus satekoik ez dut. Atzea, hara, soldadu hilla zon tokiya harta ekarri zianen, porke han baltzaten soldadu hil zina haik eramateko 'ta prepatzen, behiyak 'e, behi paria jarri 'ta gurdiyan eamaten zittuzten 'ta, hoik begitik ezin kendu zit soldadu haik kuneta zoluan. Aman semik izango zin zein bazin 'e, 'ta hola. Nik apusilamendua 're sumatu nun Oiartzungo kamposantun, ikusi ez nun iñ, miño sumatu? Kalin geldittu lotan, Kastronin ni lanea asko joten nitzan, eta gau batin tireteuak 'ta hango etxeko andre zarra, oaindikan 'e neska zarra bizi 'un. Kuartoa jon zin: "Ez ikaatu, afusillamentua da". Ui ama! Hura tarrapatuta 'ta geo tiro de gracia dela 'o pa-pa, ni... 'Ta hurrengo eunin josten ibiltzen nitzan ni 'ta neskame zon baten nobiyua 're han hil zuten, hemengua zen mutilla 'ta neska kampokua, neskame zona miño euskalduna. 'Ta hura nearrez nola Ollokinea jon zen, 'ta arratsa hartan hil zuten mutilla hura 're. Kinkirrinkiñenekua, mutil polit askiya bai! Bai, hil zuten...

- Aitzia bakat bai: Kinkirrinkiñenekua.

- 'Ta horrengatikan ba hoi. Ixtoriak dia... ahaztutzen ez dinak...

10.2. Gerrak dantzatzeko gogoia kendu

- **Hizlaria(k):** Pikabea Artola, Arroxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Erref:** OIA-052/027
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 00:57:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra etorri zenean, ez zen dantzarik izaten. Errespetu handia zegoen; izan ere, gerrara eraman zuten gauza zen guztia.

Transkripzioa

- Eta zea in zenin... gerra bukatu zenin, ui, gerra torri zenin bailia 're ya ez zen?

- Ez, ez, ez. Errespetua zon ordun. Iñorre ez zen hoitan, ya gerrea eaman ziten gauza zen guziya 'ta. Hemezortzi urte kumplittu gabe gerrea eaman zuten dena.

- Akabo bailik eta gaiñekuk.

- Bai, denak.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Nor da Janusz Borkowski? (101-035/002)

Duela 7 urte etorri zen Poloniatik Euskal Herrira bizitzera Janusz Borkowski. Hasieran Donostian bizi zen, eta orain Oiartzunen. 31 urte ditu.

2. Polonierari buruzko datu batzuk (101-035/004)

Poloniera hizkuntza eslaviarra da. Errusiera, kroaziera, txekoslovakiera eta eslovenieraren antza dauka.

3. Maitasunak ekarri zuen Euskal Herrira (101-035/005)

Bere neskalagunarengatik bizi da Euskal Herrian. Neskagalunak Erasmus egin zuen Polonian, eta han ezagutu zuten elkar.

4. Gaztelania eta euskara beharrezkoak Donostian bizitzeko (101-035/007)

Hasieran pentsatzen zuen Donostia oso turistikoa denez, ingelesarekin moldatuko zela. Baina gaztelania eta euskara ikasi behar izan ditu, hemen bizitzeko.

5. Bizitza sozial aktiboa Euskal Herrian I (101-035/008)

Poloniatik Euskal Herrira, aldaketarik handiena bizitza sozialean nabaritu du. Polonian plan gehienak etxean egiten dira. Euskal Herrian, berriz, kalean-eta plan asko. Euskal Herrian bizitza oso aktiboa da.

6. Bizitza sozial aktiboa Euskal Herrian II (polonieraz) (101-035/010)

Euskal Herrian bizitza sozial aktiboagoa, Polonian baino. Polonieraz hitz egiten du.

7. Poloniatik faltan ematen duena (101-035/011)

Planak egiteko beste modu bat, janaria eta familia faltan ematen ditu Poloniatik.

8. Poloniar lagun taldea (101-035/012)

Badaukate talde bat planak egiteko Euskal Herrian bizi diren poloniarrek.

9. Lagun euskaldunak (101-035/013)

Euskaldunekin harreman ona dauka, bikotea Euskal Herrikoa da, eta koadrilan planak egiten dituzte euskal munduan. Euskaraz inguratuta bizi da.

10. Euskara menperatzea ez da erraza (101-035/014)

Euskara ikasteko prozesua zaila izan da Januszentzat. Bere helburua euskaraz komunikatzea da. Baina batzuetan ez da erraza.

11. Gaztelania euskara baino errazago (101-035/015)

Gaztelania ikastea errazagoa egin zitzaion, ingelesarekin eta alemanarekin antzekotasunak dituelako.

12. Euskaltegian ikasi zuen euskara (101-035/016)

Euskara euskaltegian ikasi zuen.

13. Euskarak lagundu dio integratzen (101-035/017)

Bikoteari esker ez zuen integratzeko arazorik izan. Euskarak ere lagundu dio integratzen, bereziki euskaldunekin.

14. Poloniako hizkuntzak (101-035/018)

Polonian dialektoak dituzte, eta baita kanpoko beste hizkuntza batzuk ere.

15. Polonieraz oinarrizko hitzak (101-035/019)

Oinarrizko hitz batzuk esaten ditu polonieraz.

16. Polonieraz gustuko esaldia (101-035/021)

Polonieraz, Januszen gustuko esaldia.

17. Polonieraz abesti bat (101-035/023)

Abesti bat abesten du Januszek polonieraz.

18. Espainiako Gerra Zibilaren hasieran mendira ihesi (OIA-001/003)

Txikitako lehendabiziko oroitzapena gerra du. Lau urte zituen gerra hasi zenean. Etxetik mendira ihes egin zuten. Joaten ziren baserri guztiak jendez gainezka egoten ziren. Handik urtebetera errepidea egiten hasi ziren; Lesakakoa. Presoak 'trabajadore' izenarekin ezagutzen ziren.

19. Mutil koskorrak soldadu artean, nondik jango (OIA-001/011)

Errepidea egiten ari ziren bitartean, soldadu asko egoten zen Ergoienen; bertan bizi ziren. Mutil koskorrak haien arrantxotik nola jango ibiltzen ziren.

20. Nafarroako errotarako bidean, Guardia Zibilak harrapatu (OIA-001/013)

Gipuzkoan errotak itxi zituztenean, Nafarroako errotetara joaten ziren irin bila. Bera Goizuetara eta Lesakara joaten zen. Behin harrapatu egin zuten Guardia Zibilek.

21. Estraperloa (OIA-001/015)

Estraperloa. Gipuzkoako errotak itxita zeudela, hasieran irin bila joaten ziren Nafarroara, baina gero zuzenean ogia ekartzen hasi ziren. Guardia Zibilek zelatatzen zuten. Soldaduek lana bakarrik.

22. 'Trabajadoreak' goseak, eta mutil koskorrek ere bai (OIA-001/016)

Presoek gosea pasatzen zuten. Artasoroetan aleren bat bilatuko ibiltzen ziren. Galarazita zeukaten horrela ibiltzea, eta mutil koskorrek bazekiten.

23. Jostaketak (OIA-001/018)

Jostatzen zertan ibiltzen ziren. Jostaketa batzuk aipatzen ditu, eta horietako bat nola egiten zen azaldu ere bai.

24. Morroi (OIA-001/028)

Morroiak nola tratatzen ziren. Zer lan egiten zuten. Non egon zen morroi. Askok ibiltzen ziren morroi. Baserri handikoak defenditzen ziren, baina ez zuenak nonbaitera joan behar.

25. Ote-jotzen (OIA-002/002)

Emakumea gizasemea bezala lanean. Ote-garraioan. Otea jo, trazarekin. Jokia.

26. Jakiak (OIA-002/003)

Baratzean zer egiten zen. Entsalada letxuga hutsarekin egiten zuten; ez zuten tomatea jartzen.

27. Iratzetan (OIA-002/004)

Iratzea: herri lurretan iratze-lekuak. Denak garai berean. Markatu egin behar izaten ziren. Arauak jartzen zituen Udalak.

28. Su-egurra (OIA-002/005)

Egurra: herri lurretako egurra urtero zozkatzen zen. Auzo bakoitzak bere eremuak.

29. Egur-biltzen (OIA-002/006)

Herri lurretako egurra. Egurra nola ateratzen zen. Beheko suan erretzeko preparatzen zen. Ikatza kanpoko jendearentzako egiten zen. Txondorra. Garraioa. Salmenta.

30. Garraioa (OIA-002/008)

Egur-ikatzaren garraioa. Idiak. Itzainak.

31. Hazienda (OIA-002/009)

Hazienda herri lurretan. Lehen gehiena ardia eta behorra izaten zen. Betizuak. Baserrian zein animalia izaten zen. Artalde handiak ez; etxerako adina.

32. San Juan kaleko azoka (OIA-002/011)

Kalean azoka izaten zen astero, San Juan kalean. Animaliak bakarrik izaten ziren; barazkirik-eta ez. Killirikupen arraiketariak egoten ziren.

33. Baserritarrak kalera lanera (OIA-002/016)

Baserritarrak, baserriaz gain, lantegietara ere hasi ziren.

34. Bizikleta (OIA-002/020)

Bizikleta lanerako, eta baita afiziorako ere. Karrera irabaziak baditu. Espainiako eta Frantziako itzuliak herritik pasa izan zirenekoak. Ekipoak sortu aurretik ere karrerak egiten ziren.

35. Futbola (OIA-002/022)

Futbola: auzoen arteko partidak egiten ziren Beko Plazan. Arbitroarentzako dirua eman behar izaten zen.

36. Pilota (OIA-002/024)

Pilota: Auzoetan ez zegoen frontoirik; baserriko paretetan aritzen ziren. Oizartzungo kalera joaten ziren: Aldapa, Kontsejupe...

37. Bizikletan (OIA-002/025)

Asteburuetan bizikletan ibiltzen ziren, herriz herri.

38. Haurtzaroa (OIA-002/027)

Haurtzaroko kontuak: errekan igeri, fruta-lapurrerian. Erreka nolakoa zen.

39. Berrikuntzak (OIA-002/029)

Auzoko lehendabiziko irratia eta telebista.

40. Bilerak (OIA-003/002)

Bilerak -dantzaldiak- non izaten ziren. Ergoienen, Tolaren izaten zen. Jendea nondik etortzen zen. Musikariak: soinu-jotzaileak, "gazpanak"...

41. Artzain pandero-jotzailea (OIA-003/003)

Bera pandero-jotzailea da. Afizioa noiztik zuen. Jotzen nola hasi zen. Lehendabiziko panderoa nola sortu zuen. Norekin jotzen zuen.

42. Inauterietan baimen eske (OIA-003/005)

Inauterietan eskean ateratzeko, alkateari baimena eskatu zioten. Inauterietako jantziak, eskea eta afaria.

43. Urte zaharretako eskea (OIA-003/006)

Urte zaharretako koplak: gauez eskean. Urte batean, hiru gipuzkoar eta hiru nafar batera. Nor ziren eta zein ibilbide egin zuten.

44. Neskazaharra haserre (OIA-003/009)

Urte zaharretako koplak; kantatua. Neskazaharrarekin gertatutakoa.

45. Gaztain-jateak (OIA-003/011)

Gaztain erreak. Gaztain-jatea. Nola izaten zen. Toki batzuetan soinu eta guzti.

46. Matrakak elizan (OIA-003/013)

Karrakak edo matrakak. Elizkizuna nola izaten zen. Denak matraka jotzeko gogoarekin, baina apaizak esan arte ezin 'inkiik' atera.

47. Erramu Eguna (OIA-003/014)

Erramu Eguna: zeinek zama handiena eraman.

48. Garizumako txartel gorria (OIA-003/016)

Garizuma. Txartelak. Jaunartzera joaten ez zenari txartel gorria ematen zioten.

49. Apaiza pasatu arte, belauniko (OIA-003/018)

Garizuma: norbait gaixorik bazegoen, apaiza bera joaten zen etxeraino. Sakristaua aurretik joaten zen, zintzarriarekin. Bidean gurutzatuz gero, hauek pasatu arte, belauniko egon behar zen zain.

50. San Juanetako kanta (OIA-003/020)

San Juan suak: baratze eta belar-soroetan kandela jartzen zen. San Juanetako kanta abesten du.

51. Sagardotegien zerrenda (OIA-003/021)

Sagardotegiak Oiartzunen non. Auzoz auzo. Zerrenda. Dolareak.

52. Sagardotegiko giroa (OIA-003/022)

Sagardotegiko giroa. Meriendatzera joaten zen jendea.

53. Ur korrenterik ez etxeetan (OIA-003/026)

Ura. Ur korronterik ez. Ur-garraioa. Iturriak. Arropa nola garbitzen zen. Morroi zeneko garbiketarako ohitura.

54. Makisekin topo mendian (OIA-003/031)

Makisekin zer gertatu zitzaion. Mendian topatu zituen. Mutil koskorra zen eta pasatu zituen beldurrak.

55. Oiartzungo errotak (OIA-004/001)

Klaketa. Oiartzungo erroten zerrenda. Martxan ezagutu zituenak.

56. Errotak: zahia eta laka (OIA-004/004)

Zahia: artoaren azala haziendarentzako izaten zen, baina gosete garaian pertsonak ere jaten zuten. Errota batzuek besteek baino fama handiagoa zuten. Laka: ordaintzeko modua.

57. Malobra (OIA-004/005)

Ergoien nolakoa zen. Etxeak zuritzeko letxera Udalak ematen zuen. Herri bideak auzolanean konpontzen ziren; malobra esaten zitzaion.

58. Ergoien nolakoa zen (OIA-004/008)

Ergoien eroritako etxeak eta egindako berriak. Urtxalen, mandoen kanposantua.

59. Guardia Zibilak, Lambretta eta txakurra (OIA-004/011)

Guardia Zibilarekin gertatu zitzaiona. Kontrabandista zelakoan, ia gartzelara eramane zuten.

60. Ergoiengo jaiak (OIA-004/018)

Gerra ondoren hasi ziren Ergoiengo jaiak berreskuratzen, gerra ondoren dena hilda zegoen eta. Sanantonioetan. Udalak eta taberneak dirua ematen zuten eta eskean ere ibiltzen ziren. Egitaraua: dantza, txokolate-jateak, zinta-karrerak... Kanpotik jende asko etortzen zen.

61. Lehenengo harremanak (OIA-004/019)

Tolaren bilera. Kanpoko jende asko. Zein adinekin hasten ziren bileratan. Andregaiarekin noiz hasten ziren. Mutilek ematen zuten lehenengo pausoa. Emakumea ez zen ikusten tabernan. Etxera laguntzen.

62. Ezkondu aurreko preoiak (OIA-004/020)

Preoiak: ezkontzeko elizan egin beharrekoak. Apaizak abisua ematen zuen nor ezkonduko zen. Orduan izaten zuen aukera zerbait erreklamatu nahi zuenak erreklamatzeko.

63. Bilerak non (OIA-004/022)

Bilerak noiz arte egin ziren.

64. Mugetan zergak ordaindu behar (OIA-005/003)

Errepide eta bidegurutze askotan Guardia Zibila egoten zen. Probintzien arteko mugan gauzak pasatzeko zerga ordaindu behar izaten zen.

65. Toberak (OIA-005/004)

Toberak: Noiz eta nola jotzen ziren. Zer kantatzen zen: koplak.

66. Kanpokoak deposituan lurperatzen ziren (OIA-005/006)

Heriotza. Lur-ematea. Depositua zeri esaten zitzaion. Kanpokoak bazen, garesti ateratzen zen bere herriraino eramatea.

67. Arreoa, atsolorrak, elizan sartzea... (OIA-005/009)

Arreoa. Atsolorrak. Elizan sartzea. Amak ezin zuen etxetik atera haurra eduki eta hurrengo egunetan. Zuimenta.

68. Zerri-porronekin, zabor gutxi (OIA-005/012)

Zerri-porronekin: zer zen eta zertarako. Lehen zabor gutxiago egiten zen. Plastikoko gutxiago zen eta gauza asko sutan erretzen zen.

69. Toki izenak: erreka eta basoak (OIA-005/013)

Toki izenak. Erreka gehienek sortzen diren ondoko baserriaren izenak hartzen dituzte. Iturriak. Basoa: ixirua, haritz mota bat, lehen asko zegoena. Zuhaitz motak.

70. Toki izenak: basoa (OIA-005/014)

Mendia nolakoa zen. Iratze-lekuak non ziren, toki izenak. Zuhaitz eta baso motak. Fruta-arbolak. Basoa noraino zen jabetzeko, bertsoa kantatzen du.

71. Mendi bideak (OIA-005/015)

Bideak: estratak, mando bideak, gurdi bidea, herri bideak... Zerrenda, ibilbidea.

72. Esneketariak (OIA-005/016)

Garai batean nola garraiatzen zen. Askok aldatu dela, ez sinisteko moduan. Hildakoak, mandoan; txerriak, asto gainean... Esneketak. Esneketariak non ziren.

73. Artzaintzaren gorabeherak (OIA-005/018)

Artzaintza: 100 ardi edukitzea asko zen. Baserriaren gainbeherari buruzko iritzia. Artilea: lehen oso estimatua zen, baina orain ez.

74. Artzaintza: ardi-hazkuntza (OIA-005/019)

Bordak. Ardiari jateko zer ematen zitzaion. Aharia botatzea. Lehen, artzain gehiago eta ardi gutxiago; orain, ardi gehiago eta artzain gutxiago. Artantzua zer den. Ardien ohiko gaixotasunak.

75. Baserria: behorrak, garia eta tabakoa (OIA-005/021)

Garai bateko baserria: lehen behor asko egoten ziren baserrietan. Gogoratzen du garia eta tabakoa ere egiten zirela.

76. Ar-eske (OIA-005/022)

Ar-eske: animalia mota bakoitzerako izen ezberdina hartzen du aldi honek. Zerrenda.

77. Lanbide zaharrak (OIA-005/024)

Lanbide zaharrak: txorroskiferoak, eltze-konpontzaileak, mertzeroak, arropa-saltzaileak... ethez etxe ibiltzen ziren. Dentista lanak medikuak egiten zituen.

78. Maizterrak (OIA-006/002)

Bizimodu zaila. Maizterrak errenta ordaintzen lanak. Apaizari ere etxean zen onena ematen zitzaion. Diru gutxi izaten zuten, 'priolera'. Auzoan nor zen baserriaren jabe eta nor maizter.

79. Oiartzuarrak: harrikalariak (OIA-006/003)

Oiartzuarrek harrikalari fama genuen. Ondoko herriekin harremanak. Mugak.

80. Mairu-baratzeak (OIA-006/005)

'Romanun kanposantuak': mairu-baratzeak. Bazekiten ezin zirela urratu. Bazekiten bereziak zirela. Non dauden.

81. Sorgin kontuak (OIA-006/006)

Sorgin kontuak. Etxera goiz erretiratzeko kontatzen omen zituzten. Sakamantekas. Sorgin erreka Ergoienen.

82. Kataxulo (OIA-006/008)

Kataxulo. Atzeraka atera behar. Estua delako.

83. Kataxulo eta urrezko orrazia (OIA-006/010)

Kontakizuna: Askosti baserriko norbaitek urrezko orrazia hartu zuen. Berak ez ditu sinisten kontu horiek.

84. Garai bateko istorioak (OIA-006/012)

Berak ez du uste sorginik eta halakorik badenik, baina beti beldurrak, hori bai. Berak ez ditu behin ere ikusi. Garbuno eta Pagua, "aldexko elkarrekin ongi eramateko". Etxe aberatsak dira hauek. Errenteria, Lezo eta Oiartzungo kanpaien elkarrizketa.

85. Francoren bisitak (OIA-006/015)

Francoren bisitak: errepidea inauguratzera, 'Arriba España' zotalarekin idatzia, Tornolan. Ortiz de Zarateren omenaldian, Pauko Errotan, Ergoienen. Franco Donostian. Franco Artikutzan. Bere iritzia.

86. Ar-eske eta beste (OIA-006/017)

Abereak: Ar-eske. Zerrenda. Aketza, mandoa. Zikiratuak.

87. Hiztegia (OIA-006/018)

Hiztegia: antxoxua, ixurutegia, suilla, aingeru hila, arguyua, arrazoi motza, mendi fiñekua, esku extukua, orrakatua, xotildua, sasindu, uztarra...

88. Eguraldia (OIA-006/019)

Eguraldia: esaerak, hiztegia.

89. Belarretan (OIA-006/020)

Belarretan eta iratzetan: metak, metaxurrak. Harba: "Aranazko metaxurrak, egurra addarrakin, metaxurrak makillakuk". Metaziya zerekin egiten den. Iratze-garraiatzen.

90. Erloju gabe ordua nola jakin (OIA-006/022)

Mendira lanera: "Arre arre a Bunaniarre". Pinu landarearekin. Etxetik abiatzerako, hankak bustiak. Erlojurik ez eta ordua nola kalkulatzeko zuten.

91. Gosea (OIA-006/023)

Garai txarrean jaioak. Lehen, jaki hondatua jan, eta, hala ere, gaixotasun gutxiago.

92. Priolea' eta kintzena (OIA-006/025)

'Priolea': gutxi kobratu. Nagusiak zer egin zien kontatzen du: afarira gonbidatu, eta, gero, 'kintzena'tik kendu.

93. Mendi lanetan (OIA-006/027)

Pinu-aldatzea: behar zen baino pinu gehiago ekarri zen batean, hura ezin gorderik ibili zirenekoa. Zati honetan garrantzitsuena ez da istorioa bera, baizik eta kontatzeko erabiltzen dituen hizkera, toki izenak eta hiztegia orokorrean.

94. Morroi: txerri inausia ezin gobernaturik (OIA-007/001)

Klaketa. Arisluzietan morroi ibili zeneko peripeziak: egun bakarrean kilometro pila oinez. Goizean, Goizuetara joan-etorria, eta arratsaldean ere Esnaora joan-etorria; oraingo honetan, gainera, inaus zegoen txerriarekin.

95. Baltsak galarazita (OIA-007/003)

Baltsak galarazita zeuden. Alkatea zaintzen aritzen zen inork dantzatu ez zezan. Bera pandero-jotzen ari zela Oiartzungo plazan gertatutakoa.

96. Euskara eta baltsa galarazita (OIA-007/005)

Panderoa jotzeaz gain, kantatu ere egiten zuen. Kanta erdaldunak abesten zituzten, euskara galarazia zegoelako. Xanistebanetan apaiz pila egoten zen udaletxeko balkoian, baltsa dantzatzeko zutenak zaintzen. Harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zituzten.

97. Gisako oinetakorik ez (OIA-007/008)

Haur morroia: elurretan egon behar eta gisako oinetakorik ez. Nola moldatu behar izaten zuen ahal zuen gutxienez hozteko.

98. Hala ere, osasun gaitza (OIA-007/010)

Haur morroia: euritakoak ez zeuden, zakuekin ibiltzen ziren. Otorduak noiz eta nolakoak izaten ziren. Ardiak zaintzen egoten zen. Hotzak egonda ere, ez ziren gaixotzen.

99. Morroia eta nagusia (OIA-007/011)

Haur morroia: nagusiek ez zuten bete hasieran agindutakoa; diru gutxiago, ez eskola eta ez jantziak. Ez zen gehiago itzuli.

100. Haurrak lanera behartuak (OIA-007/013)

Haur morroia: haurrak ez ziren errespetatzen. Jo, ez zituzten jotzen, baina edozein ordu eta garaitan lan egitera bidaltzen zituzten. Bidean kilometro pila oinez, eta okerrena Guardia Zibila noiz agertuko beldurrak ibili beharra izaten zen.

101. Estalketa (OIA-007/014)

Animaliak estaltzea: animalia batzuek besteek baino denbora gehiago behar dute estaltzen. Noiz jartzen diren ar-eske. Zenbat denbora egoten den ernari animalia mota bakoitza.

102. Ernalketa (OIA-007/015)

Gaur egun, ardiak pastillarekin jartzen dira ar-eske, ez naturalki. Arrak berotu eta estali ahal izateko, emeak ar-eske egon behar du, bestela ezin du estali. Arkara garaian, ahariak elkarrekin borrokan ibiltzen dira, eta, handik aurrera, denak lagunak.

103. Zozketa: nork nor hil (OIA-008/024)

Zozketa egiten zuten, nork nor hil. Herriko gazte bati laguna hiltzea tokatu zitzaion. Ukatu egin zen, baina komandanteak bera hilko zutela esan zion.

104. Haizateko eskola (OIA-009/004)

Maitxo Haizatera joan zen eskolara. Belaztiko Tomaxa zuten maistra. Gero Erreteriarra joan zen, hango eskola publikoetara.

105. Amezkilak (OIA-009/007)

Amezkilak jotzen zuenean denek etxera egin behar zuten erretira. Bileran dantzan ari baziren ere, denak korrika etxera.

106. Nobio kontuak (OIA-009/008)

Askok bileran egiten zuten nobioa, baina Maitxok Txikierdin lanean ari zela ezagutu zuen Antonio, bere senarra izango zena. Behin Donostiara joan ziren danborrada ikustera. Garai hartan, mutilak ordaintzen zuen dena.

107. Urrutiko maitasuna (OIA-009/010)

Frantxiskak bazuen senargaia, baina, hala ere, pretendienteak ere izaten zituen. Mutila bizkaitarra zen eta eskutitzen bidez izaten zuten elkarren berri.

108. Kontakatiluak (OIA-009/012)

Maitxok ezkondu eta gero utzi zuen Txikierdiko lana, azkar gelditu baitzen haurdun. Auzoan argudioa egon omen zen, alegia, ezkondu aurretik geratu zela haurdun. Garmendira ezkondu zen, senarraren baserrira. Baserri handia zen: bi dolare zituen. Xabaleko sagardotegia Garmendikoek eduki zuten.

109. Barrikoteak (OIA-009/014)

Barrikoteak antolatzeko ohitura handia egon da beti Garmendin. Juanito Oñatibia-eta txistuarekin joaten ziren bertara. Estualdi batzuk ere eduki zituen afalkide batek.

110. Saltzeko balio egin behar baita (OIA-009/018)

Frantxixkak trebetasun gaitza zuen saltzen, besteek saldu ezin zituztenak ere saltzen zituen hark. Maitxok dio saltzaile ona izateko aurpegi alaikoa eta hiztuna behar dela izan.

111. Azenario-garbitzen (OIA-009/019)

Berrogeita hamar urte egin ditu Maitxok Erretereriako plazan saltzen. Eramaten zuten guztia etxean egindakoa zen. Azenarioak nola garbitzen zituzten.

112. Garmendiko baratzea (OIA-009/021)

Loreak ere saltzen zituen Maitxok, Garmendin bertan eginak. Ez zeukaten negutegirik. Neguan, azenarioa, porrua, aza... egiten zuten. Kamioian joaten ziren lehendabizi; gero, autobusean. Bizikletan ere probatu zuen, baina erori egin zen, eta ez zuen gehiago hartu. Bizimodua nola aldatu den aipatu dute.

113. Taxi-txirrinda (OIA-009/023)

Maitxo jostetik zetorrela, bizikletan eramateko eskaini zitzaion mutil bat. Bera gustura joan zen, oinez joateko luze baitzuen, eta mutila ere gustura.

114. Kasamentera (OIA-009/025)

Neska eta mutilen artean errespetu handia zegoen. Frantxixkak kuadrillako biri elkartzan lagundu zien, lehenengo pausoa emateko lotsatu egiten zirelako.

115. Oinetakoak eta arreoak (OIA-009/027)

Oinetakoekin ere izaten ziren festak! Baserritik alpargatekin jaitsi, bidean gorde, eta bilerara zapata dotoreekin joaten saiatzen ziren. Arropa eginik ez zegoen; oihala erosi eta josi egiten zen. Maitxok arreoak nola egin zuen kontatu digu.

116. Auzolana (OIA-009/029)

Auzolanean asko aritzen ziren lehen. Meta eroritako kontuak.

117. Emakumeak baserrian (OIA-009/031)

Emakumeek gizonak bezala egiten zuten lan. Baina baziren Garmendin emakumeei egiten uzten ez zizkieten lanak; behiak jaistea, esaterako. Gauzak asko aldatu direla diote.

118. Apopiloak, arropa-garbitzen eta zerbitzari (OIA-010/002)

Apopiloak zituzten etxean eta lan asko izaten zen. Hori gutxi balitz, Oiartzunera etortzen ziren udatarraren arropak garbitzen zituzten, kuelan. Usain goxoa zutela-eta neguan ere arropa bidaltzen hasi ziren. Etxean lan asko izaten zen, eta, hala ere, Soteronen eta Albisturrenen ere aritzen zen lanean.

119. Lana eta dantza, biak (OIA-010/006)

Altzibarko bilera plazan eta bera Albistur tabernan lanean ari zela, tabernatik korrika atera, 'irraako' bat egin eta berriz atzera, korrika, lanera joaten zen.

120. Altzibarko kioskoa (OIA-010/007)

Iruñiarreneko Manuelek jotzen zuen filarmonika. Balkoitik jotzen zuen soinua, eta, gero, dirua batuz, kiosko ederra egin zuten plazan. Kioskoa egin zenerako, Manuelek utzi egin zion jotzeari eta Donostiatik etortzen ziren musikariak.

121. Baltsa eta eliza I (OIA-010/008)

Agarraua ez zen libre. Behin, Corneliren seme bat eta soinu-jolearen arreba baltsean ibili ziren. Norbaitek bikarioari esan eta karta iritsi zitzaizen etxera, kongregaziotik kanpo zeudela esanez. Bi gazteak ez ziren beldurtu, xanistebanetan arratsalde guztia baltsean ibiliko zirela erabaki zuten.

122. Baltsa eta eliza II (OIA-010/010)

Corneliren semea eta Altzibarko neska bat kongregaziotik bidali zituzten baltsean ibiltzeagatik eta xanistebanetan arratsalde guztia baltsean ibiltzea erabaki zuten. Beraiek hasi eta han zeuden denak baltsean hasi ziren. Berrito karta bidali zieten elizatik: elizan sartzeko baimena bazeukatela, baina fede gabekoak zirela. Gazteak ez ziren beldurtu eta erantzun egin zuten.

123. Arozena txistulariak I (OIA-010/011)

Corneliren gizona Santos Arozena zen. Lizartzako txistulari sagakoa. Oiartzunera ere txistuarekin etorri zen, eta leku pila ederretara iritsi zen bere hura joaz. Mendian, sagardotegietan... toki askotan jotzen zuten txistulariek garai haietan.

124. Altzibar (OIA-010/012)

Altzibar: igandetako bilera bukatu zen, baina auzoa beti izan da mugimendu handikoa. Denda, taberna, sagardotegia... auzokoek ez ezik, ingurukoek ere erreferentzia zuten Altzibar.

125. Arozena txistulariak II (OIA-010/017)

Ezkondu eta gero ere Santosek txistua jotzen zuen. Mendira joaten ziren txistua jotzera. Arlepora, Artikutzara, Ergoiendik gora... joaten ziren. Sagardotegiak hasten zirenean ez zen etxean gelditzen.

126. Balerianaren behia (OIA-010/018)

Etxeko behia uholdeak eraman zuen. Gabierrotaraino eraman zuen urak; eta, hala ere, bizirik atera zen animalia gaixoa.

127. Arozena txistulariak III (OIA-010/020)

Kornelik gizona ez ezik, semeak ere txistulariak ditu, baita bilobak ere. Semeak aitarekin hasi ziren ikasten, gero kaleko txistulariekin aritu ziren eta Errenterian segitu zuten.

128. Arozena txistulariak IV (OIA-010/022)

Arozenatarrak: Santos, Korneliren senarra, bera bakarrik etorri zen Lizartzatik. Hango baserri batekoa zen eta senide guztiak txistulariak ziren, osabarekin

ikasiak. Santosek bere semeei erakutsi zion, eta haiek beren semeei, Korneliren bilobei. Irribarrez aipatzen digu lana besterik ez zegoela etxean baina haiek txistua jo eta jo aritzen zirela.

129. Txerria eta uniforme (OIA-010/024)

Gerra garaian, soldadu bati arropa garbitzen zion. Behin, txerriak uniforme txikitu zion. Estualdi ederrak pasatu zituen, baina soldaduak barkatu egin zion.

130. Izeba lisatzailea (OIA-012/005)

Ama Txanpañekoa zen, Ergoiengoa, eta beraiek han jaiok dira. Izeba lisatzailea zuten. Elizako arropa eta Oiartzungo beste etxe batzuetakoak ere plantxatzen zituen izebak, almidoiarekin. Casildak zestoan eramaten zuen arropa, Ergoiendik Oiartzungo kalera. Kaleko etxeak eta pertsonak aipatzen ditu.

131. Txanpañe (OIA-012/007)

Ergoiengo Txanpañe;en jaiok da Casilda. Aurreko zelaia berea zuten eta amak behia gobernatzen zuen bertan, belarra eta 'pagoxa'rekin. Ahizpa zaharrena igitaiarekin ebaki zen.

132. Aierdiko maistra (OIA-012/014)

Aierdin eskola: Asko elkartzen ziren bertan. Maistra Gasteizkoa zen, Sor Consuelo. Aierdin bazuen tokia bizitzeko, baina Postan zegoen apopilo, Ergoieneren gelditzeko beldurtu egiten omen zen eta.

133. Gerran, irakasle aldaketa (OIA-012/015)

Gasteizko maistrak ez zekien euskaraz. Elkar ulertzeko, hiztegia erabiltzen zuen. Gerra garaian, beste irakasle bat hasi zen Aierdin.

134. Gerratik ihesi (OIA-012/016)

Gerra garaian, senideak Irunera joan ziren, eta Kaxilda Larrezabalera, senarraren familiakoekin. Atxiloketak gertatu ziren.

135. Senarra militarrek eraman zuten (OIA-012/017)

Militarrek gidak behar zituzten alde batetik bestera mugitzeko; herriko bi hartu zituzten horretarako. Kaxildaren senarra zen horietako bat. Gero ere beraientzat lan egitera behartu zuten; arotza zen eta kutxak egiten jarri zuten.

136. Hiltzeko beldurrez (OIA-012/018)

Gerran, senarra Azainera joaten zen ogiak eramatera, eta bitartean, Larrezabalera joaten zen bisitan. Hango batek kalera jaitsi nahi izan zuen, eta hil egin zuten. Senarra hilko zuten beldurrak egoten zen.

137. Militarrei laguntzera behartuta (OIA-012/020)

Kaxildaren senarrak militarrentzat lan egiteari utzi nahi zion, baina herriko karlista batek mehatxu egin zion, uzten bazuen akabo zela. Beldur handia pasatu zuten senar-emazteek. Gerrak ez duela ezer onik dio Kaxildak.

138. Oiartzungo kaleetako harria (OIA-013/001)

Klaketa. Oiartzungo kaleko lurra harriekin egina zegoen. Oso arriskutsua zen; jende asko erortzen zen. Gaur egun Aialde kalea dena zegoen egokiena. Pixa kalea -Mendiburu-, berriz, oso txarra zen. Elizako eskailerak ere orain baino malkartsuagoak ziren.

139. Hilerrria (OIA-013/003)

Elizaren atzeko hilerrria txikiegi gelditu zen, eta, ondorioz, orain ezagutzen dugun Zurko baserriaren ondoko kanposantua egin zuten. Garai hartan tifusarekin asko hiltzen ziren.

140. Tifusa (OIA-013/005)

Gerra denboran hil ziren asko tifusarekin. Bere senarra ibiltzen zen gerrako eriak kanposantura eramaten eta tifusarekin hildakoak ere berak eramaten zituen. Lan horretarako lagunak ezin bilaturik ibiltzen zen, kutsatzeko beldurrarengatik.

141. Gaixotasunak (OIA-013/007)

Tifusarekin eta gripearekin hiltzen ziren asko. Gripea deitzen zioten, baina oso gogorra zen.

142. Sendagileak (OIA-013/009)

Bi mediku gogoratzen ditu Kaxildak: Don Bernardo Oñatibia eta Don Regino Galtzarain.

143. Sendagilearen lana (OIA-013/011)

Ez zegoen anbulatoriorik. Medikuek beren etxean egiten zuten kontsulta edo gaixoaren etxera joaten ziren. Don Regino zaldiz eta Oñatibia bizikletan.

144. Elizaldeko merkataritza (OIA-013/012)

Elizaldeko dendak: Faustinarena, Fermiñene, Xapaterone, Muguruzane... Bere senarrak aroztegia zuen Mendiburu kalean. Sozioarekin nola hasi zen kontatu digu Kaxildak; hitz gutxi nahikoak izan zituzten elkartzeko.

145. Plazako giroa eta ferria (OIA-013/015)

Plazan lehen baino argitasun gehiago egoten zen; pertsona gehiago ibiltzen ziren. San Juan kalean ferria egiten zen. San Anton egunean bertan ematen zieten bedeinkazioa abereei.

146. Aberatsak (OIA-013/017)

Oiartzunera etorri eta bertan bizi ziren kanpotar aberatsek Udalari diru asko ematen omen zioten. Neskameak oiartzuarrak zituzten. Gerra iritsi zenean, Arixmendi eraman zuten, hiltzeko, baina haiek ez zituzten ukitu.

147. Atxilotuak, gerran (OIA-013/018)

Gerra garaian, Feliciano Beldarrain zegoen alkate, eta militarrek Kaxildaren bila joan ziren alkatearen etxera lagun ziezaien. Alkatea eta iturrioztar bat hartu zituzten. Kaxildari etxera itzultzeko esan zioten. Atxilotuei zer gertatuko zitzaieen galdetu zuen eta militarrek ez zitzaieela ezer gertatuko esan zioten. Baina atxilotutako guztiak ez ziren itzultzen.

148. Jose Mari Egues, alkate (OIA-013/020)

Nafarroatik etorritako Jose Mari Egues alkatea izan zen. Denbora gutxi egin zuen, baina Urkaben landatzeko denbora eman zion.

149. Apaizak (OIA-013/026)

Don Idelfonso apaizak baserritar asko bere eskuetan zituen; harekin zuten konfiantza. Askok, hildakoan, beren ondasunak apaizari utzi zizkieten.

150. Xanistebanak (OIA-013/028)

Xanistebanak: zortzikoa, zahagi-dantza, bizkarrean saltoka ibiltzen zen beste "jostaketa arraro" bat. Bederatzietarako erretira. Hiru egun festetan. Kanpoko jende asko etortzen zen xanistebanetara.

151. Harrikalariak (OIA-013/029)

Kanpotik koadrillaka etortzen ziren. Ongi moldatzen ziren bertakoekin, baina arratsean harrikalariak ateratzen ziren bidera. Herriko zaindaria ere, San Esteban, harrika hil zuten.

152. Eliza eta dantza (OIA-013/030)

Altzibarko bilera oso polita izaten zen. Jende asko etortzen zen kanpotik; denak oinez. Lehen denean baltsa dantzatzen zen. Gero hasi zen eliza kongregazioetako jendea bidaltzen, baina hala ere, gazteek dantzan segitu zuten.

153. Jostaketak: ttabak eta tortoloxak (OIA-014/006)

Jostaketak: ttabak eta tortoloxak. Ardiaren hezurrekin eginak ziren. Sos batzuk izaten zituzten eta haiexek jokatzen zituzten. Beren lagun batek negar egiten zuen beti galdu egiten zuelako.

154. Jostaketak: marru-marruka eta jokoan (OIA-014/007)

Jostaketak: Marru-marruka, korrika, lehengusu batek min hartu zuen paretatik salto eginda. Bata bestearen etxera ere joaten ziren, eta han hizketan edo jokoan ibiltzen ziren.

155. Uretan (OIA-014/008)

Kaxilda Ergoiengo Txanpañekoa da eta inguruko etxeetako haurrak biltzen ziren jostatzeko. Zulatxipiko askan sartuta ibiltzen ziren, iturriko ura erreka baina freskoagoa izaki. Soin zaharrak eta alpargatak jantzi eta errekan ibiltzen ziren.

156. Garbitasuna (OIA-014/009)

Garbitu, errekan garbitzen ziren. Neskak, Txanpañe atzeko ibaian, eta, mutilak, Zuloagaerrotako presan. Etxetxo bat ere bazuten arropa aldatzeko. Neguan Aierdin garbitzen ziren; ur beroarentzako tokia egina zuten eta hantxe garbitu eta sukaldeko beheko suaren bazterrera joaten ziren hoztu gabe lehertzeko.

157. Otorduak (OIA-014/012)

Otorduak: potajea nahi zen guztia izaten zuten; jakia, askotan, zerrikia, eltzean egosita. Arratsean, gehienetan, patata edo bakailao tortilla. Jaietan, normalean, oilaskoa edo oiloa jaten zen. Edateko, pitarra.

158. Jaunartzea ospatzen (OIA-014/013)

Ospakizunetako otorduak etxean egiten ziren. Bi jaunartze egiten ziren: txikia eta handia. Handia gehiago ospatzen zen.

159. Arropa egin edo konpondu. Erosi batere ez (OIA-014/015)

Xanistebanetan arropa berria estreinatzen zen. Berria egiten zen, baina konpondu asko egiten zen. Trajeari buelta eman ere bai askotan. Soinekoak nolakoak ziren. Tablak aurrean bakarrik egiten ziren, buelta guztian egiteko oihal asko behar baitzen.

160. Zinema (OIA-014/017)

Sara Montiel espainiar aktoreak pelikula bat grabatu zuen Oiartzunen. Jende askok gogoratzen du gertakizun hau. Kaxildak ere oso gogoan du: plazan bizi ziren eta beren etxeko balkoia leporaino bete zen filmaketa ikusteko. Oiartzunen zinema egon zen; Don Jose Bergaretxe apaizak jartzen zituen pelikulak Kontsejun.

161. Garia nola egiten zen (OIA-016/003)

Baserri koskorra zen Ureder. Gauza asko egiten zuten soroan. Garia noiz eta nola egiten den: zer garaitan erein, noiz jaso, zer lan duen, 'larrantia'... Hazia makinekin ateratzen zen.

162. Erosi beharrean, trukatu (OIA-016/004)

Gari asko egiten zutenean, dendara joan eta behar zuten gauzarekin trukatu egiten zuten, sosa erabili beharrean.

163. Artoa nola egiten zen (OIA-016/006)

Artoak ematen duen lana. Jorratu bi eratara egiten zuten: aitzurrarekin eta bost hortzekoarekin. Bost hortzekoa pasatzeko behi mantsoa behar zen.

164. San Marko opila (OIA-016/008)

San Marko opilak. Garai bateko ohitura nola izaten zen. Amabitxiak besoetakoari oparitzen zion. Noiz arte oparitzen zen.

165. Haziendarentzako bazka (OIA-016/009)

Artoak ematen duen lana. Artaburua jaso, ganbaran jarri eta gero aletu. Artaberdea haziendarentzako bazka zen, eta, horretaz gain, arbia eta erremolatxa. Jorratzea lan handia zen eta askoren artean egiten zuten.

166. Portugesak mugan (OIA-016/012)

13 urterekin, Fonda San Martzialen neskame. Portugesak Fonda San Martzialen. Portugaldik alde egin eta Frantziara joaten zirenak. Harraskan aritzen zen lanean.

167. Esneketari (OIA-016/014)

Esneketan ibilia da urte askoan. Ezkondu aurretik, Uredertik Irunera, eta, Maldaburura ezkondu eta gero, Errenteriara. Marmitak nola garraiatzen zituzten. Etxeetan banatzen zuen esnea, eta sobratzen zena, plazan.

168. Janzkera eta orrazkera (OIA-018/002)

Nola janzten ziren: txanbrak. Orrazkerak: mototsak. Gizasemeak bizartegira joaten ziren, baina emakumeak ez ziren joaten ile-apaindegira. Lehengusuak jostunak zituen eta berak ere ikasi zuen. Gerran hildako anaia dotorea zen.

169. Karrikako harrobia (OIA-018/003)

Karrikako harrobiko kontuak. Aita bertan aritzen zitzaizen lanean. Goierri aldetik jende asko etorria zen lanera harrobira. Harrobian bertan bazeuden beraientzako etxeak.

170. Dolarea (OIA-018/004)

Martinmotzenez gogoratzen da. Dolarea zeukaten. Nolakoa zen eta dolarean nola lan egiten zuten. Bi ahizpak aritzen ziren dolareari eragiten eta aita gainerakoa gobernatzen aritzen zen. Gurdian garlia zutela etortzen ziren baserritarrak sagardoa eramateko.

171. Izar ikuskizuna (OIA-018/005)

Aitak berak ere entregatzen zuen sagardoa, garlian hartuta. Behin, sagardoa utzita heldu zirela, 'luvia de estrellas' ikusi zuten.

172. Eskola eta lana, balantzan (OIA-018/007)

Eskolarako ona omen zen eta maistrak errieta egiten zion eskolara egunero joaten ez zelako, lanean aritzen baitzen lehengusu baten etxean. Joxepak berak Azainen eman zuen eskola. Zer edaderekin hasten ziren haurrak eskolan. Agudo uzten zuten eskola, lan egin beharra baitzegoen.

173. Errekan garbitzen (OIA-018/009)

Errekan garbitzen ziren: "pobreak baina garbiak".

174. Karrikako maistra (OIA-018/011)

Eskolan gaztelaniaz aritzen ziren. Maistra erdalduna zen, Iruñe;ekoa, baina ahal zuena euskaraz egiten zuen. Ez zituen zigortzen euskaraz aritzeagatik. Eskola non zegoen. Karrikako errota egoten zen apopilo; hango hurrei eskolatik kanpo ere gogor egiten zien. Maistraren familiaren berri.

175. Maistra izateko jaioa (OIA-018/013)

Beste ahizpek ez zeukaten ikasteko gogorik, eta Joxepa eta ama saiatzen ziren haiei erakusten, maistra bokazioa eduki. Maistra zeneko kontuak. Arandarango kontuak. Artikutzara enkarguak eramatera joaten zenari hartzen zizkioten gauzak. Sorondon taberna zen. Mandazain asko ibiltzen ziren eta haien bitartez ekartzen zuten "enkarrukua".

176. Martinmotzene (OIA-018/014)

Jende asko pasatzen zen Martinmotzenetik eta amak beti ongietorria egiten zien denei. Aita zen bertakoa eta ama Zulatxipi bordakoa. Lehen auzokoak

asko egoten ziren elkarrekin, berriketaldi ederrak eginez. Auzolanean. Bizimodu garbiagoa zen ordukoa.

177. Ilargia eta ote-zamaria (OIA-018/016)

Ilargiak ote-zama zeraman gizasemea bereganatu zueneko kondaira.

178. Ote-jotzea (OIA-018/017)

Ote-jotzea: gerora makina bazuten, baina aurretik trabazarekin aritzen ziren. Otea behiari emateko zen, artoarekin nahasita.

179. Iratze-ebakitzan (OIA-018/018)

Iratzea: bi ahizpa joaten ziren iratze-ebakitzera, egun guztirako, zakotearekin. Aita joaten zen bila, gurdi gainean kantari. Kantatu egin digu. Besteek ez bezala, iratzea lotuta jartzen zuten, haizeak ez eramateko. Karrikatik gora, Irauztatik gora joaten ziren, Zaldinera ia ailegatuan den iratzelekura. Aitak lanetik etortzen zenean behien azpiak begiratzen zituen, ia ongi zeuden.

180. Belar lehorrak su hartzeko arriskua (OIA-018/019)

Etxeko metak egiten aita aritzen zen eta bera belarra ematen. Txukuna zen aita metak egiten. Jendeak utzi zion metak egiteari. Ahal zen belar gehiena ganbaran sartzen zen, su hartzeko arriskuarekin. Aranburu erre zela gogoratzen du. Auzoak familiakoak bezala ziren, elkarri laguntzeko. Orain aldatu egin da hori.

181. Bileratik goiz erretiratu behar (OIA-018/020)

Ama oso goxoa zen; aita gogorragoa. Bileratik goiz erretiratu behar zen harekin. Iturriozko santioetatik etxera etorri ziren batean, oraindik egun argi zen, baina hala ere atea itxita harrapatu zuten.

182. Kantatzeko zaletasuna (OIA-018/022)

Kantatzeko zaletasuna zegoen Martinmotzenen. Amak josten ari zela kantatzen zuen. Kanta euskaldun politak baziren.

183. Ameriketara (OIA-018/024)

Ama Zulatxipi bordakoa zen. Ahizpa bat zeukan Ameriketara. Herrian gertatu zitzaionarengatik joan zen hara. Joxepari idazten zion. Herrira itzuli nahi zuela idazten zion, baina ez zen etorri sekula.

184. Ezkontza (OIA-018/025)

Gurasoek ez baina beraiek ateratzen zituzten erretratoak. Ezkondu zenean soineko beltza zuen eta gizonak trajea. Pregoiak: hiru igandetan edo mezatan ematen zen ezkontzaren berri. Joxepa-eta Lezon ezkondu ziren, Oiartzunen denak begira egoten zirelako. Errenterian bazkaldu zuten eta arratserako etxean ziren.

185. Lana eginez ikasten (OIA-019/003)

Emakume asko ziren ofizioa ikasteko lanean aritzen zirenak. Joxepa Altxibarko taberna batera joan zen sukaldean ikastera eta hango haurra ere zaintzen zuen.

186. Etxetik kanpo lanean (OIA-019/005)

Lanean gazterik hasi zen. Ezkondu aurretik sukaldean aritu zen, eta arrain-fabrikari ere aritu zen; arratsean joaten zen. Arraina lapurtzen zuten nagusia loak hartzen zuenean. Friolera bat ematen zioten, lan gogorra eginagatik. Ez ziren 'beratzak'.

187. Fabriketara (OIA-019/006)

Errenteriako fabriketara neska asko joaten ziren. Garai hartan asko saiatzen ziren ofizioa ikasten. Ezkondu eta gero gutxiago joaten ziren. Baserriko gizasemeak ere joaten ziren fabriketara.

188. Altzibarko bilera (OIA-019/008)

Jostatzeko denbora gutxi izaten zuten; igandeetan ibiltzen ziren. Edade batetik aurrera, berriz, Altzibarko bilerara joaten ziren. Mutilak neskei dantza-eske aritzen ziren. Filarmonika-jotzaileak balkoitik aritzen ziren jotzen. Lezoko jende asko etortzen zen; ez zituzten harrika bidaltzen. Auzoetako festak ere baziren garai haietan. Musika eta dantza gogoan ditu: zortzikoak, makila-dantza...

189. Nobio kontuak (OIA-019/009)

Mutilek eskatzen zuten dantza. Dantzak ez zuen konpromisorik adierazten; gauza garbia izaten zen. Senargai edo andregai bat baino gehiago izaten ziren; ez zegoen hain gaizki ikusia.

190. Aldaketak (OIA-019/013)

Joxepak beti eduki du umore ona; ez da haserretu zalea. Ama halakoxea zuen; denekin ongi izaten zen. Auzokoekin harreman handia zuen. Jendea goxoa zen, lehengoa.

191. Sua eta ura (OIA-019/018)

Otorduak nolakoak ziren. Beheko sua zuten Martinmotzenen; ekonomiak gero hasi ziren. Laratzatik zintzilik ura edukitzen zuten eta janaria ondoan egiten zuten. Arropak garbitzeko kuelak erabiltzen zituzten. Ur-korrontea noiz hasi zen etxeetara.

192. Ozentzioko ermita eta Santa Kruz apaiza (OIA-019/019)

Arandaranera ezkondu zen Joxepa. Ozentzioko ermitan meza berezia egiten zen eta jende asko joaten zen. Santa Krutz apaizaren istorioak aditu izan ditu. Politikaz hitz egin digu: familia asko egoten ziren haserre. Zer ideologia zeuden.

193. Gerran ezer gabe geldituak asko (OIA-019/021)

Gerraren ondorenean deus ere gabe gelditu ziren asko, soldaduek harrapatzen zuten guztia eramaten zuten eta. Onak baziren tartean, baina ia denak harrapatzera joaten ziren.

194. Altzibarko fusilamenduak (OIA-019/023)

Gerra. Altzibarren hiru hil zituzten. Baziren neskak fusilamenduak ikustera propio joan zirenak. Erreketek nafarrak ziren eta euskaraz aritzen ziren beraiekin. Baserria erreketez josita zeukaten; ongi egin behar izaten zieten haiei.

195. Gerrak betidanik (OIA-019/024)

Ez luke beste gerrarik ikusi nahi. Baina lehenago ere izango ziren gerrak, beren amak aipatzen zituen karlistadak eta. Zer alderdi zeuden. Beraiek bazuten anaia bat, soldadu ez joateagatik, Frantziara alde egina.

196. Karrikako maistra (OIA-019/025)

Maistraren berri eman digu. Nor zen. Maistra ona zen eta ongi ikasi zuen berarekin. Etxean idatzi behar zenetan, bera aritzen zen. Eskolara egunero joaten ez bazen, maistrak joatera behartzen zuen.

197. Olaundietako ermita (OIA-022/002)

Olaunditu izeneko parajeen ermita zegoen garai batean. Ermitaren pareta zaharretako harriak erabili zituzten Lesakako errepeidea egiteko, gerra ondoren. Erramunek gogoan ditu pareta zaharrak eta kaxkoan zegoen gurutzea. Aitak kontatzen zien fraide batzuk ailegatu zirela bertara eta ermitaren oroigarri jarri zutela gurutzea. Ermita egon zen garaian meza ematen omen zen, eta Zaldin inguruko baserriar gazteak bertara hurbiltzen omen ziren, eta, zaharrek berriz, Zaldingo lepotik jarraitzen omen zuten meza, belauniko jarrita.

198. Liberalen mendekua (OIA-022/004)

Olaundietako ermita liberalek erreko zutela uste du Erramunek. Izan ere, Goienetxan karlistak zeuden, eta, liberalak Nafarroatik sartu zirenean, mendekuz, baserri ia denak erre zituzten.

199. Karlistak eta liberalak (OIA-022/005)

Portuburukoak karlistei laguntzen aritu ziren, liberalak sartu zirenean, eta karlistak Bizkaira ihesi joan zirenean, Portuburuko bi anaia haiei laguntzera joan ziren. Bitartean, aitona, erraina eta haur txikiak gelditu ziren baserrian. Liberalek baserria erre nahi zuten, baina aitona behiak atera bitartean gor egin zien. Eskapo egin zuten, eta, berriro Tornolara itzuli zirenean, baserririk gabe karobi batean moldatu ziren ahal zuten moduan. Auzolanean aritu ziren auzoko baserriak ahal zuten bezala konpontzen.

200. Edukazio handiegia (OIA-022/006)

Sarobeko amona oso eskuzabala zen. Behin, Erramunen aita mutil koskorra zenean, Saroben zegoen eta amonak janaria eskaini zion. Edukazioarengatik ezetz esan eta gero bidean lanak izan zituen, ahuldadea sartu zitzaionean. Geroztik halaxe esaten zien semeei: eskainiz gero, hartzeko.

201. Liberalak Sarobe erre nahian (OIA-022/007)

Liberalak Nafarroatik sartu zirenean, auzoko baserriak erretzen hasi ziren. Sarobera ere joan ziren. Hango amonak etxea erreko zutela baina nekatuak egongo zirela eta zerbait jateko esan zien. Ederki jan eta edan ondoren ezin hasiko ziren baserria erretzen, eta arropa zaharrak eskatu zizkieten soldaduek;

haiei sua eman eta ke gaitza atera zuten. Nagusiek urrutitik kea ikusi zutenean, lana bukatutzat eman eta alde egin zuten.

202. Txerri sorginak (OIA-022/009)

Sorginkeria franko bazen Tornolan. Erramunen anaia Inaxiori etxerako bidean pasatu zitzaiona ez da makala. Lanetik heldu zela, zerri-ama eta bere umeekin topo egin zuen bidean. Ondoko egunean bertara joan eta ez zuen arrastorik aurkitu. Erramunen ustez, sorginak auzokoak bertakoak ziren.

203. Sorgina txerritokian (OIA-022/011)

Auzoko baten txerria garrasika zebilen azkenaldian. Txerritokira joaten zen eta txerria izututa bai, baina ez zuen besterik ikusten. Legarreko komentuan bazen sorginkeriei aurre egiten laguntzen zuen fraide bat. Hark kandela eman eta harexekin joan zen txerritokira. Orduan ikusi zuen txerri izutuaren gainean emakume bat larrugorrian. Emakumeak alde egin zuen eta geroztik txerria lasaitu egin zen.

204. Ferradun sorginak (OIA-022/012)

Bere anaia eta lagun bat Portuburuko atarian zeuden eztabaidan. Halako batean, ferra-soinuak entzun zituzten, eta baita abere pila bat beren aurrean pasatzen ikusi ere. Hurrengo egunean, ez zegoen ferra-arrasto pizarrik ere.

205. Sorgina aitzurrean (OIA-022/013)

Auzoan bazeuden emakume batzuk sorgin sona zutenak. Haiei desairea-edo egiten bazitzaien, gero buelta izaten zen. Auzoko batek inguruko emakume bat ikusi zuen aitzurrarekin zotala ateratzen, baina hurrengo egunean belarra batere harrotu gabe zegoen.

206. Eskopetak hasi zirenean, akabo sorginak (OIA-022/015)

Auzoan baziren batzuk bihurrikeriatan ibiltzen zirenak, eta haien atzetik ibiltzen omen ziren sorginak. Auzoko gazte batzuk amona bati adarra jotzen aritzen ziren, eta, gero, sorginek franko jarraitzen zituzten. Eskopetak hasi zirenean bukatu ziren sorginak.

207. Fenomeno arraroak (OIA-022/017)

Erramunek ez du inoiz sorginik ikusi, baina gau-lanean ibili den denboretan gauza aski arraroak pasatu zaizkio. Gau-lana egiten ari zirela, argi ikaragarri bat ikusi izan zuten behin baino gehiagotan eta pentsatu ere bai: "Hori ez duk egunekoa". Garaitsu hartan, Intzensoerrek, brasaren moduko gauza gorri-gorri bat ikusi zuten. Eskuetan hartu eta erre egiten zuen. Zenbat eta ur gehiago bota, orduan eta gorriago. Gero aditu izan zuten errusiarrek zer edo zer botatzen zutela, probak egiteko edo.

208. Eskola eta lana (OIA-022/019)

Santanderrera joaten ziren eskolara. Gehienetan errezatzen aritzen ziren, eta, maistrak gehiketak egiten bakarrik zekienez, huraxe ikasita gelditu ziren. Gurasoek gehiago ikastea nahi zutenez, auzoan fraide ikasten ibili zen bati eskatu zioten beren seme-alabei irakasteko. Hartara, arratseko eskolan hasi ziren Txarondoko erroetan. Baina handik gutxira maisua burutik nahasten hasi zen eta ez zuten askoz ere gehiago ikasi. Beraiek nahiago zuten baserrian lanean aritu, eskolara joan baino. Beti izaten zen lana, gauean ere bai.

Bakoitza bere zereginetan aritzen zen sukaldean. Gerra aurretik ere taloa jaten zen. Ogia garestia zen eta hura kanpoan lanean aritzen zirentzat gordetzen zen.

209. Labea bai, baina irinik ez (OIA-022/021)

Erramunek ezagutu zuen labea, baina ogia egiten ez. Ilarra eta artoa entregatu behar izaten zen, eta tabernetan ere ez zen izaten ogia; patata egosiak zerbitzatzeko zituzten.

210. Arantzara irin bila (OIA-022/023)

Bere anaia Inaxio Arantzara joaten zen irin bila. Diru gutxi izaten zuen, eta ezin irin asko ekarri.

211. Irinarekin harrapatu eta atxilotu (OIA-022/024)

Auzoko bat Arantzara joaten zen irin bila. Behin guardia zibilek harrapatu zuten eta kartzelara eramane zuten, Lesakara. Tornolatar hura iturendarra zen, eta, sarjentuaren neskamea ere hangoa izaki, hari esker aske utzi zuten. HIKA.

212. Mandoa irauli (OIA-022/025)

Auzoko bat irinarekin zetorrela, Zaldin inguruan mandoa kargarekin malda behera irauli zitzaion. Arbaldak eta gainerako traste guztiak hautsi zitzaizkion. Han ibili zen bere haiek ezin gorderik.

213. Lesakako errepidea: soldaduak eta 'trabajadoreak' (OIA-022/027)

Lesakako errepidea egin zutenean, Portuburuko soroak erdiz erdi hartu zituzten. Artoa egin gabe zegoen oraindik eta moztuta behiei eman zieten; beraiek ezer gabe gelditu ziren. Gero gainera, 'trabajadoreak' gosea kentzeko artoa lapurtzen zieten. Egin aurretik gordetzen aritzen ziren. 'Trabajadoreak' Portuburu ondoan jaten zuten, eta, jan ondoren, andaluziarrak beren kanteekin hasten ziren, burua pixka bat distraitzeko. Portuburukoek esnea Ergoienera eramaten zuten eta falangistak etortzen ziren bila. Gero Olatxeko zubira eramaten zuten, errepidean ari ziren soldaduek kafesnea hartzeko.

214. Gazuratik gaztanbera (OIA-023/002)

Lesakako errepidea egiten ari ziren soldaduen buru batek gazurarekin gaztanbera egiten erakutsi zien Portuburukoiei.

215. Kailatua eta mamia (OIA-023/004)

Amak ardiei esnea kentzera bidaltzen zuen. Esnea epel zegoela hasten zen gazta egiten. Kailatua eta mamia ezberdintzen ditu.

216. Portuburuko emakume nafarrak (OIA-023/006)

Ama Leitzakoa zuen Erramunek. Aitak Aranon ezagutu zuen gero bere emaztea izango zena. Emaztea hain urrutikoa nolatan egin zuen galdetzen zuenean, aski modu politean kontaktzen zuen.

217. Pipatik erretzen (OIA-023/007)

Leitzara joaten ziren aitona ikustera. Txapelatik ateratzen zuen pipa, ongi takitu eta luze haritzen zen erretzen. Pipan asko erretzen zen lehen, Erramunek soroan aurkitzen zituen hautsi eta botatakoak.

218. Plazaolako trenean (OIA-023/009)

Leitzakoa zen Erramunen ama. Bertara joan izan dira, festetara. Egun osoa behar izan zuten Leitzatik Portuburura iristeko, bidean gose ederrak pasatuta gainera.

219. Baserriko produktuak (OIA-023/010)

Amak oilasko asko egiten zuen eta Errenteriara joaten zen saltzera, han baitzuen 'parrokiya'. Tripotx-odolak estimatuak ziren eta haiek ere eramaten zituen. Arkumeak ere saltzen zituen eta aparte gordetzen zuten dirua, arkumeak zenbat ematen zuen jakiteko.

220. Herrira saltzera (OIA-023/011)

Ama Errenteriara joaten zen baserrian egindakoa saltzera. Oiartzungo kaleraino, astoarekin, eta, gero, autobusean. Erramunek prestatzen zuen bazkaria, pozik, amak alpargata berriak ekartzen baitzituen.

221. Alpargatak urratu eta zapatarik ez (OIA-023/012)

Elizara oinetako zaharrekin joaten ziren. Bidean, Olantxeneko iturrian, hankak garbitu eta alpargata onak janzten zituzten.

222. Bidea (OIA-023/013)

Tornolatik kalera bide luzea zuten. Astoarekin bide batzuetatik joaten ziren eta oinez besteetatik. Astoek bidea ikasia izaten zuten, baina batzuetan eroarena jotzen zuten. Lesakako errepidea egiten hasi zirenean, jendeak pena handia hartu zuen, zelai asko urratu baitzituzten, erdiz erdi.

223. Zapatak eta trajea (OIA-023/014)

Jaunartzea egin arte alpargatekin ibiltzen ziren, eta orduan izaten zituzten beren lehendabiziko zapatak eta trajea.

224. Jaunartzea eta trajea (OIA-023/015)

Jaunartzea egin artean etxean egindako arropa izaten zuten. Jaunartzea egin eta gero, trajea. Errenteriara joaten ziren trajea egitera.

225. Iratzea ebakitzen (OIA-023/018)

Garai batean, iratzea oso estimatua zen baserrietan. Azpitarako erabiltzen zen, animaliei azpian ohe gisa jartzeko. Baserritar askok beren iratzelekuak zituzten, baina horretaz gain, baziren herri-lurretan zeuden iratzelekuak ere. Horiek denen artean banatzeko, arau bereziak zeuden. Horietako bat: lehendabiziko hiru egunetan ezin zen segarekin ebaki, igitaiarekin baizik. Auzotar batek araua hautsi zuen. Horrek isuna ekarri zuen, eta isunak, bertsoak.

226. Ameriketara (OIA-023/021)

Oraingo moduan, lehen ere baserriak ez zuen nahiko diru ematen eta asko izaten ziren Ameriketara edo Frantziara joaten zirenak. Erramunen aita eta osaba Habanako gerrara deitu zituzten, baina ez zuten hara joan nahi eta Frantziara alde egin zuten. Frantzian lanik harrapatzen ez eta Ameriketara joan ziren azkenean. Biek harrapatu zuten lana: osabak behiak zaintzen eta aitak larru lantegi batean. Baina gurasoak bakarrik gelditu ziren, zahartuak dagoeneko, eta beren aita itzuli egin zen.

227. Beltz euskalduna (OIA-023/022)

Aita ongi moldatu zen Ameriketara. Nagusia eta lagunak euskaldunak zituen. Beltz euskaldunak ere ezagutu zituen han.

228. Euskara galarazia (OIA-023/024)

Gerra ondorenean ez zuten uzten euskaraz hitz egiten. Bere bi arrebei pasatutakoa kontatu du: euskaraz hitz egiten zihoazela gizonezko batek erdaraz egiteko esan zien. Gero konturatu ziren polizia paisanoa zela. Tornolan, eskolan ere, euskaraz aritzen ziren. Gerra bukatu eta gero ikasi zuten zer edo zer gaztelaniaz, errepidea egiten ari ziren soldaduekin.

229. Kontrabandoan hasteko irrikan (OIA-024/002)

Erramun hamabost urterekin hasi zen kontrabandoan. Anaia ere ibiltzen zen, eta hari laguntzen hasi zen. Aski pozik bai, gainera. Anaia saiatu zen bera izutzen, baina ez zuen lortu. Gustura egin zuen lan eta gehiago egiteko gogoia eman zion.

230. Kafe-garraioan (OIA-024/003)

II. Mundu Gerran kafea pasatzen zuten mugan. Zaku handietan etortzen ziren, eta hauek txikiagoetan jartzen zituzten, gau-lanean eramateko moduan. Berak hamasei urte zituen, eta, hasieran, ezin zituen altxatu zakuok, baina ederki saiatu ondoren, lortu zuen zakuak garraiatzea. Edozer gauza, bera baino zaharragoekin kontrabandoan aritzeagatik.

231. Soldaduengandik gordeka (OIA-024/004)

Kafea pasatzen zuten garaian, Aritxulegiko errepidea egiten ari ziren soldaduak. Haiek ez ikusteagatik itzuli gaitza egin behar izaten zuten. Astoekin hasi ziren pakete-garraioan, baina hain bide txarra izaki, azkenean astorik gabe jarraitu zuten, bizkarka.

232. Mugaraino (OIA-024/005)

Endabordaraino joaten ziren paketeekin, eta, han, askotan, paketeak jasotzeko jende gutxi izaki, eta mugaraino joan behar izaten zuten.

233. Txakur kontrabandista (OIA-024/006)

Karabineroen artean bazen bat kontrabandoan ibiltzen zena. Ongi hezitako txakurra zuen hark: guardia zibilak usaintzen bazituen, abisatu egiten zuen, eta hartara, ez zituzten harrapatzen.

234. Muga (OIA-024/007)

Beratarrak mugaren beste aldean egoten ziren paketeak gora eramateko. Hemendik joandakoek Bidasoa ibaia pasatu behar izaten zuten. Toki bat baino gehiagotatik pasatzen zuten muga. Batzuetan hain ziren toki zailak, guardia zibilak ere ez ziren arrimatzen. Paketeak eraman eta askotan ekartzeko ere izaten zen. Hauek nahiago zuten paketea, hazienda baino.

235. Gaua bukatu, baina lana ez (OIA-024/009)

Paketeak eraman eta ekartzea tokatzen zitzaientean, askotan eguna argitzen zitzaien bukatu aurretik. Batzuek paketeak gordetzen zituzten hurrengo egunean jarraitzeko. Beste batzuk egun argiz arriskatzen ziren, lana bukatzeko. Nondik ibiltzen ziren aipatu digu: toki izenak. Kontrabandisten atzetik ibiltzen ziren guardia zibilek izengoitia zuten: nafarrek 'eltzetzuak' deitzen zieten eta hemengoek, 'beltzak'.

236. Haziendarekin kontrabandoan (OIA-024/011)

Haziendarekin ere ibiltzen ziren. Hauekin lana egitea zailagoa zen; izan ere, paketeak gordeta utzi daitezke hurrengo txanda arte, baina hazienda zaindu egin behar da. Behin, hazienda jaso behar zutenak ez ziren iritsi bere garaian; gaua eta eguna pasatu zuten behiekin. Ganaduak pasada handia hartzen zuen bidean: nekatuta egoten zen, eta gaixotu ere egiten ziren, mugako erreka pasatu eta izerdituta.

237. Mandoak ezin garraiatu (OIA-024/012)

Hazienda klase bat baino gehiago pasatzen zen: behiak, zaldiak, mandoak... Mandoak ohitu gabe egoten ziren eta komeria galantak ibiltzen zituzten ezin eramanik.

238. Animaliak pasatzen (OIA-024/013)

Animaliekin nondik nora ibiltzen ziren kontatu digu Erramunek. Eroslearen arabera, batera edo bestera eraman behar zituzten. Nafarroa aldetik etorrira, batzuetan Tornolatik jaisten ziren, eta, beste batzuetan, Bianditz eta Oialekutik barrena, Karrikara, eta, handik, Altzibarrera. Animaliak nekatuta egoten ziren eta ezin ailegaturik ibiltzen ziren bere haiekin.

239. Kubiartak pasatzen (OIA-024/015)

Hazienda gutxitzen joan zen eta gero paketeak bakarrik eramaten zituzten. Gerra ondoren dena behar zen hemen eta denetik ekartzen zuten. Denboraldi batean kamioien kubiartekin ibili ziren. Markak gogoan ditu.

240. Bezeroak gordelekura (OIA-024/016)

Kontrabandoa gordeta edukitzen zuten tokira joaten ziren batzuetan bezeroak. Ongi begiratzen zuten erosi aurretik. Behin enpresa bateko enkargatua etorri zen kubiartak erostera; nahiko lan izan zuen Tornolako maldetan.

241. Poliziak kontrabandoa harrapatu (OIA-024/017)

Behin polizia sekretukoak etorri ziren, bezero itxura eginez, kontrabandoan ekarritako kubiartak erosteko aitzakian. Kontrabandistek igerri ziotenean, batzuek alde egin zuten eta beste batzuek kubiartak gorde zituzten. Poliziaren furgoneta etorri zen Portuburura eta Erramun Antiguako kuartelera eraman zuten, beste bi bizilagunekin batera.

242. Antiguako kuartelean estutasun ederrak (OIA-024/018)

Erramun eta Tornolako beste bi bizilagun Antiguako kuartelera eraman zituzten, poliziak kontrabandoa aurkitu zuelako. Erramunek bazekien aski ederki kontrabandoarena, baina ez zuen aitortu nahi. Hala ere, ordurako poliziak bazekien aski ederki nor zegoen atzean, eta azkenean aske utzi zituzten; hori bai, deklarazioa hartu ondoren.

243. Kubiartekin borrokan (OIA-025/002)

Kontrabandoan gauza asko ibiltzen ziren; kubiartak, esaterako. Txanda batean, kubiartak goitik beheiti ihes egin zion.

244. Arriskuaz gain, lana (OIA-025/003)

Gauza asko ibiltzen ziren kontrabandoan. Bizkarrean garraiatzeko txarrena nikela zen: pisutsua eta kantoi zorrotzekoa.

245. Jendearen jarrera (OIA-025/006)

Kontrabandoan nikelarekin ziren batean, hain nekatuak zihoazen, guardia zibilak harrapatzea ere desiratu zuten. Gau-lanean ari zirela norbait bidean topatuz gero, hura gorde egiten zen, elkar ez izutzeko. Jendeak ez zituen salatzen.

246. Puntilla eta nylona (OIA-025/007)

Kontrabandoko materiala: puntilla arina zen, baina bultoa zuen handia. Nylona ere asko ibiltzen zuten. Haria bobinatan etortzen zen. 200 pakete baino gehiago pasatu zituzten batere galdu gabe. Besteek galtzen zituzten, baina beraiek ez.

247. Talde bakoitzak bere arduraduna (OIA-025/009)

Kontrabandoa taldeka egiten zen, eta talde bakoitzak arduraduna zuen. Paketeak galtzen baziren, arduraduna egiten zen kargu (galdu: guardiak harrapatu). Erramunek gutxitan galdu izan du, baina behin kafearekin harrapatu zuten.

248. Kamioia kargatzen (OIA-025/011)

Paketeekin mendian ibiltzeaz gain, kontrabandoa kamioietara kargatzen ere ibili izan da Erramun. Aski azkar egin beharreko lana izaten zen. Kamioia etorri, paketeak tira barrura eta alde. Lintzirin inguruan egiten zuten lan hau. Behin justu ibili ziren, guardia zibila gainean zutenean ihes egitea lortu bazuten ere.

249. Kontrabandoan harrapatu (OIA-025/012)

Kontrabandoa kamioira kargatzen ari ziren batean, guardia zibilek harrapatu egin zituzten. Gerora susmoa izan zuten kamioilariak berak ekarri zituela barruan. Izan ere, kamioilariari ez zioten kasurik egin eta kargatzen ari zirenei hasi ziren tiroka.

250. Sarara ihes (OIA-025/014)

Kamioia kargatzen harrapatu zuten hartan, anaiaren dokumentazioarekin zen, eta, anaiari ezer ez gertatzeko, bere burua entregatu zuen. Multa ikaragarria

jarri zioten kontrabandoa egiteagatik. Ezin zuen hainbeste diru bildu eta ihes egin behar izan zuen beste aldera. Hiru urte egin zituen Saran, bertako baserri batean morroi.

251. Kontrabandoaz (OIA-025/016)

Errodamendu eta broka asko pasatzen zen kontrabandoan. Gau-lanean ibiltzeko, karga bulto pixka batekin nahiago izaten zuten. Gehiena ekarri egiten zen, eraman baino gehiago. Gerra garaian industria galdua zegoen eta kanpoko materiala hobea izaten zen. Aduana libratu zenean bukatu zen kontrabandoa.

252. Kontrabandoa aspalditik (OIA-025/018)

Kontrabandoa aspalditik egiten zela aipatzen du Erramunek. Bere aitak ezagutu zuen kontrabandista baten berri eman digu. Oso azkarra izan behar zuen, eta kontaktu onak zituen. Behin, halako karga inportantea pasa zuen, han irabazitako diruarekin baserria erosi zuen.

253. Guardia zibil ustelak (OIA-025/020)

Lesakako guardia zibil batzuek etekin ederra ateratzen zuten kontrabandoaren kontura. Ez salatzearen truke ordaina eskatzen zuten. Goi karguetan zeudenak ere konplizeak ziren; ez zuten onartzen kontrabandista salatuko zuen guardia finik. Salaketei dagokienez, batzuetan beraien artekoak ere izaten ziren, eta baita pakete lapurtzaileak ere.

254. Lapurrak (OIA-025/022)

Gau-lana tramoka egiten zen. Talde bakoitzak ibilbide bat zuen: beste batzuek pasatzen zizkieten paketeak eta gero beraiek beste batzuei entregatu. Paketeak entregatu behar zizkien taldea agertzen ez bazen eta eguna argitzera bazihoan, paketeak gorde egin behar ziren mendian. Behin, pakete batetik lapurtu zieten, eta segidan konturatu ziren beren arteko bat izan zela.

255. Gazteak izaki (OIA-025/024)

Hainbeste urtean kontrabandoan ibili eta bitan bakarrik harrapatu zuten Erramun. Zorte handia izan duela dio. Lan arriskutsua zen, baina dirua ateratzen zen. Ihesaldi ederrak ere egin izan zituzten, baina orduan, gazteak izaki.

256. Diruak min egiten (OIA-026/002)

Kontrabandoan irabazitako dirua kobratzera joan zenekoa. Dirua gordean eraman behar eta komeriak.

257. Pertsonekin kontrabandoan (OIA-026/004)

Kontrabandoan, gauzez gain, pertsonak ere ibiltzen ziren. Erramun ez da inoiz pertsonekin ibili, baina askotan gurutzatu izan da pertsonekin zihoazen taldeekin.

258. Portugesak (OIA-026/005)

Behin, Portuburu ondoan, portugez talde bat aurkitu zuten. Kontrabandista batek pasatu behar zituen, baina loak hartu zuen, eta hantxe zeuden gordeta.

259. Goierriko kontrabandista (OIA-026/007)

Tornola aldean kontrabando mugimendu handia izaten zen. Karga bila etorri eta beren baserri ondoan kotxea sartuta gelditutako dezente izan ziren. Hauetako bat Goierri aldekoa.

260. Arditurrin lanean (OIA-026/010)

Arditurriko meategietan hiru urtean aritu zen lanean, soldadutzatik libratzeko. Garai hartan kontrabandoan ere aritzen zen; askotan, gau-lanean ari zirela lantegian sartzeko ordua ere iristen zitzairen.

261. Arditurriko meategiak (OIA-026/011)

Hasiberriak edozer lan egiteko erabiltzen zituzten Arditurriko meategietan. Lan nazkagarriena komunak garbitzea zen: meategi zulo barruan zegoen zulo bat hustu behar izaten zuten, baldeka. Arintxipiko harrobian ere aritzen ziren.

262. Barkuetara kargatzen (OIA-026/013)

Arditurriko meategietan ari zela, Kaputxinoetan barkuak betetzen aritu zen. Bagoiak mandoek tiratzen zituzten, baina azkeneko tramoan beraiek bultza behar izaten zituzten. Mandoek hankak hondatuak edukitzen zituzten, meak erreta.

263. Kaputxienoetako mea pila (OIA-026/014)

Arditurriko meategiak: trenak urteetan pilatutako materiala zen beraiek barkura kargatu behar zutena. Gogortutako zinka ezin zen pikotxarekin atera eta lehergailua erabili behar izaten zuten.

264. Arditurriko trena (OIA-026/017)

Arditurriko trena: egun batean berotu egin zen eta ura hartzeko gelditu ziren. Makinista eta langile bat elkarrekin haserretu ziren.

265. Septimoko arana (OIA-026/020)

Arditurriko meategietan bazen etorri handiko langile bat. Septimoa zulo handia zen, lizuna ateratzen zen paretetan eta zainak ematen zuten.

266. Beruna eta zilarra (OIA-026/022)

Azkeneko urteetan ustiatzen ez bazen ere, Arditurriko zulo batzuetan oraindik ere beruna agertzen zen. Erramun lanean aritu zenean ez, baina mutil koskorra zenean ikusi zuen beruna atera eta labaderora eramaten. Bere aitak esaten zuen, beruna bakarrik ez, zilar pixka bat ere bazuela.

267. Beruna, zinka eta burdina (OIA-026/023)

Erramunen aitaren garaian, beruna, zinka eta burdina ateratzen zuten Arditurrin.

268. Elamako meategia (OIA-026/025)

Aiako Harriaren goian ere badira zuloak: Larrazaingo zuloak. Enarriazpin gurdi pirrilen arrastoa ikusi izan dute beraiek. Aitak zaharrek esandakoak kontatzen zizkien: Artikutzara eramaten zutela handik ateratakoa, Elamako meategira, hango labeetan erretzeko.

269. Mea urtzeko egur asko behar (OIA-026/026)

Bere aitak esan izan dio garai batean burdina ateratzeko egur pila bildu eta sutan urtzen zutela mea. Horregatik eramaten zela Artikutzara, han egur asko zegoelako.

270. Olak (OIA-027/001)

Erramuni kontatu izan diote bere aurrekoek garai batean burdina ateratzeko harria erretzen zutela egur pila batekin. Penadegi inguruan bada Olaxar izeneko toki, horretarako erabiltzen zutena, eta toki gehiagotan ere egiten zuten. Zepa ere ateratzen zen toki horietatik.

271. Petrikiloa (OIA-027/005)

Erramunen aita Arditurriko meategietan zauritu zen. Medikuak ez zion itxaropen handirik eman baina petrikilo batek sendatu egin zuen.

272. Abarkak (OIA-027/007)

Garai batean oinetakoak ere justu izaten ziren, eta haiek hala-moduzkoak. Behi-larruarekin egiten ziren abarkak ez ziren oso erosoak: lehorrean irristalariak eta bustian bigunegiak. Antsoxua.

273. Emakumeak baserrian (OIA-027/009)

Aurreko bi belaunaldietan etxeakoandreak ziren kanpotik Portuburura ezkonduak. Biak nafarrak. Erramunen ama gogor hazia izaki, gero ere etxea eta baserria dena eramaten zuen. Amonak, berriz, behia hil, odolustu eta puskatzen oso trebea izan behar zuen. Etxean normalean semeak gelditzen ziren, baina batzuetan baita alabak ere.

274. Portuburutarrak Ameriketara (OIA-027/011)

Erramunen osaba bat gelditu zen baserrirako, baina erraina ez zen ongi moldatzen etxeakoandrearekin eta alde egin zuten. Gerora Ameriketara joan ziren. Hauen orde, Erramunen aita etorri zen gurasoengana, hau ere Ameriketatik.

275. Hiru duro zilar jaunartzean (OIA-027/013)

Jaunartzean hurbileko auzoak gonbidatu zituzten bazkaltzera eta hiru duro zilar erregalatu zizkieten Erramuni.

276. Karlistak (OIA-027/015)

Tarteka, karlistadetako balak aurkitzen zituzten baratzean. Erramunen aitonak karlistak ziren, baina aita ez.

277. Gerra hasiera gogoan (OIA-027/017)

Gerra zibilaren hasiera gogoan du Erramunek: artajorran ari ziren eta Arritxuerietan soldaduak ikusi zituzten.

278. Seastarrene (OIA-029/002)

Seastarrene baserrikoa da Maria Jesus. Berez Ameztói du izena, baina jendeak Seastarrene edo Kuatrone bezala gehiago ezagutzen du. Zer hazienda eta lursail zituen kontatu digu. Gurutzeko zein baserritan zeuden dolareak.

279. Egurra (OIA-029/003)

Egur asko behar izaten zen lehen. Seastarreneko lurretan bazegoen nahiko egur, baina ez zeukatenek herri-lurretakoarekin konpondu behar izaten zuten. Udalak zozketan ematen zuen eta auzolanean ateratzen zen egurra.

280. Argia eskas eta ura urruti (OIA-029/004)

Argindarra orain baino eskasagoa zen. Etxeetan instalazio sinplea eta arriskutsua izaten zen. Askotan izaten ziren aberiak, eta beti prest egoten ziren farolak eta kandelak. Ur-korronterik ez zegoen etxeetan. Egunean behin baino gehiagotan joan behar izaten zen inguruko iturrietara ur bila.

281. Adolfo Leibar ikerlanean (OIA-029/005)

Behin, ur bila joan zen batean, gizon bat topatu zuen iturrian. Uraren soinuaz eta txorien kantuz galdetu zion. Ondoren, katxarro batetik berak esandako guztia entzun zuen eta sorginkeria iruditu zitzaion. Adolfo Leibar zen gizon hura.

282. Pinto erreka (OIA-029/006)

Arropak garbitzera Peluko errekarara, Pintoko errekarara, joaten ziren. Arropak garbitzeko hankak errekan sartu behar izaten zituzten, baita neguan ere. Behiak ere errekarara eramaten zituzten edatera.

283. Arropak, txuri (OIA-029/007)

Arropa etxean garbitzen zuten eta errekan akklaratu. Bera xaboiarekin aritzen zen, baina gogoan du surtako hautsarekin ere aritzen zirela. Gauean belarretan zabaltzen zuten arropa eta txuri-txuria gelditzen zen.

284. Abioien eraso (OIA-029/008)

Gerra garaian, beste baserri askotan bezalaxe, Seastarreneen ere kanpoko jendea egon zen. Emakume batek, aginduei muzin eginez, maindireak zabaldu zituen baserri ondoan. Abiazioak ikusi, eta eraso egin zuen; justuan libratu zen baserria.

285. Errotak (OIA-029/009)

Gurutzen ez zegoen errotarik. Seasterrenekoak Ugarte errotara joaten ziren. Bera gerra ondoren jaioa da, baina badaki hemen errotak itxi zituzten garaian etxeakoak behorarekin joaten zirela San Anton eta Lesakako errotetara.

286. Zahia eta erremolatxa (OIA-029/010)

Errotan, beraientzako irina eta abereentzako zahia hartzen zuten. Zahia beste jakiekin nahastuta, bazka goxoa lortzen zen haziendarentzat; erremolatxarekin, esaterako. Erremolatxa urtsua izaki, hutsik ematen bazitzaion kalte egiten zion behiari.

287. Ugarte errota (OIA-029/011)

Ugarte errota ama-alabek eramaten zuten. Maria Jesusek artoa eramaten zuen errotara eta irinarekin itzultzen zen etxera. Ez zen diruarekin ordaintzen, irinarekin baizik.

288. Belar siloak (OIA-029/012)

Garai batean ere belarrentzako siloak bazeuden. Ez ziren gaur egunekoak bezalakoak, baina prozedura berdina zen.

289. Karea (OIA-029/013)

Berak ez ditu karobiak funtzionatzen ezagutu, baina bere garaian oraindik karea asko erabiltzen zen. Kareharri asko zen inguruan. Lurrari botatzeaz gain, behiari errapea sendatzeko ere erabiltzen zen. Ongarri guztia naturala zen garai hartan: karea, gorotza, pixa...

290. Denentzako lana (OIA-029/014)

Lan handia izaten zen baserrian, baina familia handia zenean lanak banatu egiten ziren. Egunero egiten ziren lanak banatuak zeuden, eta urtean behineko lan handienak denen artean egiten ziren eta baita auzolanean ere: belarra, iratzea, egurra... Haurrek ere lan asko egiten zuten.

291. Auzokoekin harremana (OIA-029/015)

Gaur egun mobilekin mezuak bidaltzea oso ohikoa bihurtu da. Garai hartan ez zegoen mobilik, baina ezta beharrik ere. Auzoekin harreman handiagoa zegoen lehen. Ezin zen haserretu nola hala.

292. Sagardo poteoa (OIA-029/016)

Garizuma garaian baserri askotan jartzen zen sagardoa salgai. Jendea txikiteoan bezala ibiltzen zen baserriz baserri. Bidezidorrak aski garbi egoten ziren garai hartan.

293. Maizter (OIA-029/017)

Seastarrenekoak maizterrak ziren. Urteko errenta ordaintzeko txekorra saldu behar izaten zuten, eta gainera, etxeko kapoi ederrenak oparitu etxeko jabeari. Urte osoko lanetik ateratako etekina, etxeko jabearentzat. Goserik ez zuten pasatu, baina egunero gauza bera jateaz aspertu, bai. Desiratzen egoten ziren egun berezi bat iristeko, zerbait ezberdina jateko.

294. Otorduak (OIA-029/019)

Otortuak nolakoak ziren. Merienda oso inportantea izaten zen. Normalean zelaian egiten zuten, lanean ari ziren tokian. Arrainketariak baserriz baserri aritzen ziren arraina saltzen.

295. Edariak (OIA-029/020)

Goizean oso goiz jaikitzen ziren. Gosari txikia egin, eta lurra lantzerak. Kanean ohikoa zen gosari txikitarako anis pixka bat hartzea. Gainerakoan, edateko, ardoa gutxi eta pitarra gehiena (sagardoa urarekin nahasia).

296. Kofradia eta trukea (OIA-029/021)

Kofradia: baserri mordoska elkartzen zen hildako animalien galerari aurre egiteko. Baserritik gauza asko saldu eta trukatzeko zen.

297. Gerraren ondorioak (OIA-029/022)

Gerra ezagutu ez bazuen ere, ondorioak ezgutu zituen. Dirua zuenak ere ezin zuen erosi, dena falta baitzen. Dena gelditu zen hautsia. Jende mutilatu asko ikusten zen kalean, eskean.

298. San Juan iturria (OIA-029/023)

Gerraren ondoren gaitz asko zeuden. Berak sarna eduki zuen eta San Juan iturrira eraman zuten sendatzeko. San Juan iturrira oiartzuar asko joaten zen. Oiartzunek Nafarroarekin harreman handia eduki izan du.

299. Herri lana (OIA-030/001)

Klaketa. Gaur egun administrazioak egiten duen obra asko lehen auzolanean egiten zen, batez ere baserrietako bideak. Udalak materiala edo erreminta ematen zuen eta bizilagunek egiten zuten lana. Pajina deitzen zitzaion.

300. Zabor gutxiago (OIA-030/002)

Lehen orain baino zabor gutxiago sortzen zen; batetik, produktuen banaketa sistemarengatik, eta, bestetik, ia dena berriz erabiltzen zelako.

301. Laranja jatea, luxua (OIA-030/003)

Gerraren ondoren gauza gutxiago zeuden aukeran eta gaur egun normaltzat ditugunak, garai hartan, luxua ziren; laranja, esaterako.

302. Udaberrian erein (OIA-030/004)

Baserrian urte guztian izaten da lana. Urtaro bakoitzak bere lan motak ditu. Udaberria hazia ereiteko garaia da. Abereentzako pentsoa etxean bertan egiten zen: tepla, alfalfa, allobria, oloa, artoa, ilarra, erremolatxa...

303. Artajorran (OIA-030/005)

Artoa behin baino gehiagotan jorratzen zen. Azkeneko jorraketan pagotxa edo arbia sartzen zitzaion tartean. Jorratzeko bostortzekoa edo karrama erabiltzen zen. Artoari dena aprobetxatzen zaio.

304. Pagotxa eta baserriko lana (OIA-030/006)

Gaur egun gure baserrietan desagertu bada ere, garai batean pagotxa ('paoxa') asko ereiten zen. Pagotxa animalien bazkarako belar mota bat da. Zenbat lan egiten zen baina zein jakintsuak ziren. Gazte asko joaten ziren beste baserrietara jorralelan lanera. Lehen ohikoa zen.

305. Iratzeetan (OIA-030/007)

Udazkenean baserriko lan neketsuenetakoa egin behar izaten da, iratzearena. Iratzeleku gehienak mendian daude. Lehendabizi moztu eta gero garraiatu, gurdia eta behiekin. Beraiek iratzeetan ari ziren bitartean, etxean zegoenak sagarra biltzen zuen. Sagar motak: txalaka, libra, olio sagarrak...

306. Emakume itzainak (OIA-030/008)

Baserri batzuk gurdiaren jabe ziren. Baina ez zirenek itzainen zain egon behar izaten zuten, iratze jorra ekartzeko. Seastarrenean gurdia behiek tiratzen zuten eta itzainen artean emakumeak ere bazeuden. Emakume baserritarrek gizonezkoek baino lan gehiago egiten zuten: kanpokoa eta etxekoa.

307. Ganbaratik heiara (OIA-030/009)

Uzta gehiena ganbaran jasotzen zen. Zati bat, jateko, bai pertsonak eta baita animaliek ere. Eta beste zatia, hazitarako. Belarra ere ganbaran sartzen zen: meta osoak igotzen ziren ganbarara, gero heiara jaisteko.

308. Heia (OIA-030/011)

Seastarrenen heia nola egina zegoen. Garai hartarako oso moderno eta praktikoa zen.

309. Inaurkina (OIA-030/013)

Udazkenean, iratze lanaz gain, gehiago ere egin behar izaten zen: barrutietako zakarra biltzen zuten behientzat, zer edo zer jaten baitzuten bertatik. Gainerako inaurkina azpitarako gelditzen zen. Zakar hori belar, iratze, lar, sasi eta "añarrak" osatzen zuen. Beste batzuek otea ere erabiltzen zuten behiak bazkatzeko.

310. Udazkeneko lanak (OIA-030/015)

Udazkenean, beste hainbat lan egiteaz gain, gaztain eta ezkur asko biltzen zuten Seastarrenen. Arto-zuritzen ere aritzen ziren.

311. Arto-zuriketa eta gidergaiak (OIA-030/016)

Arto-zuriketa denen artean egiten zuten, ganbaran. Artoa aletzen, berriz, ilunabarretan aritzen ziren, arrosarioa errezatuz. Neguan lanabesak konpondu eta gidergaiak gordetzen aritzen ziren: sahatsa eta urritza.

312. Moztu, kimatu, txertatu (OIA-030/018)

Egurra mozteko ilargiari begira. Kimaketa eta txertaketa fruta arboletan. Txertaketa zertarako den.

313. Aldaketak baserrian (OIA-030/020)

Baserriko gazteak fabriketan lanean hasi ziren, eta, esku gutxiago zegoenez, lana aurrezten hasi ziren. Pentsoa etxean egin beharrean, kanpotik ekartzen hasi ziren, eta geroztik ereinketa asko joan dira desagertzen: tepla, alfalfa, pagotxa, erremolatxa...

314. Garia (OIA-030/021)

Garai batean garia ereiten zen Euskal Herrian. Maria Jesus ez da gogoratzen, baina Elizaren aginduz ereiten zuten zatitxo bat. Gero ostiak egiteko erabiltzen zen gari-irina. Zainketa handia eskatzen du gariak.

315. Lupulua (OIA-030/022)

Urte batzuetan lupuluarekin esperimentatu zuten baserritarrek. Lupulu landarea zerbeza egiteko erabiltzen zen. Arrisku handiko negozioa zen. Izan ere, lan handiena egin eta gero, lupulua erraz ondatzen zen eta galera zekarren.

316. Behi motak (OIA-030/023)

Orain baserri askotan haragitarako hazienda izaten da, baina lehen ia dena esnetarako izaten zen. Gaur egun, esnetarako behi gehienak holandarrak dira, baina lehen beste arraza batzuk zeuden; betroiak, esaterako. Behia lanerako erabiltzen bazen, esne gutxiago ematen zuen.

317. Nafarmina eta lanparoaia (OIA-030/024)

Haziendak gaixotasun ugari hartzeko arriskua zuen: nafarmina, lanparoaia... Kutsakorra zenez, azoka asko itxi ziren gaixotasun horiengatik.

318. Hazienda zaintzen (OIA-030/025)

Baserriko diru-iturri garrantzitsuena izaki, animaliak ahal zen hoberena zaintzen ziren. Lanparoaia eta antzeko gaixotasun larrien kontra ezin zen zer askorik egin, baina gainerakoekin saiatzen ziren. Behiak ez ziren heiatik ateratzen orain bezala, eta, leku itxian egonda, errazago gaixotzen ziren.

319. Umea egiteko (OIA-030/026)

Beti hazienda kopuru bera eduki ahal izateko, txekor batzuk saldu egiten ziren eta behi onenaren miatxua aurrerako uzten zen. Baina bai baterako bai besterako, behiak umetu egin behar, eta, horretarako lehendabiziko lana, behia susara jarri orduko zezenarengana eramatea. Behia umetzeko garaian, ez zitzaion al baitariari deitzen; etxean beti zegoen norbait horretan trebea zena.

320. San Juan kaleko hiltegia (OIA-030/027)

Animalien hiltegia San Juan kalean zegoen, orain Iparragirre etorbidea dagoen tokian. Han tripak garbitzen aritzen zen emakumeari Maria Tripera deitzen zioten. Etxean hil zitekeen animalia, baina txerriaren kasuan, puska bat eramane behar zitzaion al baitariari, aztertzeko.

321. Patroiak (OIA-031/026)

Izebak enkarguak hartzen zituen. Dena preparatu, eta neskek haiek josiz ikasten zuten. Patroiak, paperean beharrean, lurrean egiten zituzten, klerarekin marraztuz.

322. Maizterra eta etxejabea (OIA-031/028)

Eguberrietan, maizterrek errenta ordaintzen zioten etxejabeari. Dirua emateaz gain, kapoiak oparitzen zizkioten nagusiari.

323. Josi eta plantxatu (OIA-032/001)

Maitxoren izeba jostuna zen. Baserritarrak goizean goiz etortzen ziren trajea probatzera. Izeba batek josi eta besteak plantxatu egiten zuen. Garai bateko plantxak.

324. Petrarena denda eta markesak (OIA-032/002)

Petrarena denda, oihalak eta josteko gainerako gauzak saltzen ziren. Maitxoren izebak denetarik egiten zuen: trajeak, soinekoak... baita alkandora pila ederra ere: Marques de Riscal eta Marques del Norterri.

325. Figurinak (OIA-032/004)

Garai hartan ere moda aldatzen zen. Soinekoak mota askotakoak ziren. Bezeroak figurinetatik aukeratzen zuen nolako soinekoa nahi zuen.

326. Jauna hartzera, baraurik (OIA-032/007)

Jauna hartzeko, gau osoa baraurik egon behar zen. Meza bukatzean, herriko taberna eta dendetan kafea eta bizigarria hartzen zen. Urte zaharretan, gauean juergan ibili eta zuzenean joaten ziren asko seietako mezara.

327. Agarratua, ezin (OIA-032/008)

Kongregazioko kideek ezin zuten agarratua dantzatu. Baziren apaizari jakinarazten zioten zelatariak herrian.

328. Corpora eta kalbarioak (OIA-032/010)

Corpus Egunean prozesio ederra egiten zen Oiartzunen. Kaleak maindire txuria eta ihiarekin estaltzen ziren. Kalbarioak ere egiten ziren.

329. Heriotza ere, kategoriatan (OIA-032/012)

'Primera', 'segunda' eta 'tertzera'ko entierroak zeuden. Aberatsen entierroetan eliza gehiago apaintzen zen.

330. San Cristobalen fusilatutakoak (OIA-032/015)

Gerra garaian, Maitxoren izeba jostunek militarren arropa konpontzen aritu behar izan zuten. Bitartean, Maitxoren osaba kartzelan zegoen, San Cristobalen. Tropak herrian sartu zirenean eraman zuten, espia zelakoan. Herriko hiru gazte hil zituzten kartzela hartan.

331. Tropak herrian sartzen (OIA-032/017)

Tropak Erreterria aldetik sartu zirenean, Ollokinekoak Landetxe aurrean zeuden. Maitxo gaztea zen, eta ez zen jabetzen zer zen gerra. Haiek plazara ikustera joan zenean atxilotu zuten osaba. Bere osaba bezalaxe asko eraman zituzten, eta beste asko hil ere bai. Batzokiak non zeuden.

332. Karlistak eta militarrek (OIA-032/019)

Kilirikupe gainean batzokia zegoen. Gerora 'Carlistak' izan zena aurretik batzokia zen. Arizmendinen militarrek egon ziren. Solchaga jeneralak uda herrian pasatzen zuen; gerra etorri zenean, Oiartzunen zen, eta bertan gelditu zen.

333. Umiliazioak (OIA-032/021)

Gerra:umiliazioak.

334. Gazi-kutxa (OIA-033/002)

Garai batean hozkailurik ez zegoenez, janaria beste era batera kontserbatzen zen; gazi-kutxarekin, adibidez. Gazi-kutxa txerriak gazitzeko eta gainerako haragiarekin sasiña egiteko ere erabiltzen zen.

335. Ferratokiak (OIA-033/003)

Baserriko lana egiteko makinariarik ez zegoenez, animaliak erabiltzen ziren. Horretarako, ferratu egiten ziren. Ferrategiak non-nahi zeuden Oiartzunen. Altzibarren, esaterako, bi bazeuden.

336. Ferrak (OIA-033/004)

Ferrak aberearen oinak babesteko jartzen ziren, lan egiten zutenei azazkalak hondatzen baitzitzaizkien.

337. Abere langileak (OIA-033/005)

Garraiatzeko eta tiratzeko, abereak erabiltzen ziren. Gehiena, astoa, baina baita idiak, mandoak eta zaldiak ere. Seastarreenen, Txata behorra zeukaten.

338. Gurdia (OIA-033/006)

Gurdiak zurezkoak ziren eta lan mota bakoitzera egokitzeko prestatuak zeuden.

339. Kapoiak (OIA-033/007)

Baserrri gehienetan zegoen oilategia. Oiloek, oilarrak eta oilaskoek osatzen zuten oilategia. Oilaskoak zikiratu egiten ziren, kapoi bihurtzeko. Zikiratzaile ezagunen artean Aranburuko Anttoni zegoen. Urte osoa kapoi ederrak zaintzen egoten ziren, gero etxearen jabeari oparitzeko.

340. Nagusia eta maizterra (OIA-033/008)

Baserrien jabeak Oiartzungo Joxisionera etortzen ziren errenta kobratzera. Baserritarrek errenta dirutan eta kapoi pareta oparitzen zieten eta jabeek bakailaoa ekartzen zieten maizterrei.

341. Antonene denda (OIA-033/009)

San Juan kalean Antonene denda zegoen. Denda handia zen eta denetarik zeukaten. Antonenen, beste denda askotan bezalaxe, taberna ere bazegoen. Igandeetan baraurik joan behar zen jauna hartzera, eta elizatik ateratakoan ongi etortzen ziren hango gosari txikiak.

342. Komertzio justua (OIA-033/010)

Garai bateko komertzioa zuzenagoa zen. Gauza asko trukatu egiten zen, dirua maneiatu gabe. Baserritarrek dendara eramaten zuten beren jeneroa, eta dendatik baserrian ez zituzten lehengaiak hartzen zituzten. Era berean, kaleko norbaitek zer edo zer berezia behar zuenean, dandan enkargatzen zuen eta baserritarrek jaitsi egiten zuten. Produktuak 'a granel' banatzen ziren. Zestoetan eta pardeletan eramaten zen; ez zen oraingo plastiko pila batzen.

343. Razionamendua (OIA-033/013)

Gerraren ondoren, razionamendua egon zen. Baraibarrenera joaten ziren bila. Haiek gerra aurretik ardo-biltegia zuten eta bertan jarri zuten razionamendurako biltegia. Oiartzungo okindegi eta ardandegiak.

344. Baserritarrak eta kaletarrak (OIA-033/014)

Baserritarrek, dendetara eta azoketara ez ezik, etxeetara ere eramaten zuten jeneroa. Kaletarrak ere igotzen ziren baserrira beren lana egitera. Herrian

denek ezagutzen zuten elkar eta denek zuten bata bestearen beharra; hori dela eta, harreman handia zuten elkarrekin.

345. Kategoriak (OIA-033/015)

Garai batean, klase diferentzia gehiago nabaritzen zen. Arropan, esaterako. Arropa gutxiago izaten zenez, hobeto pentsatuta egiten zen.

346. Uniformedunak (OIA-033/016)

Uniformedunak bazeuden: xixeroa, mikeletea, guardia zibilak eta soldaduak. Apaizak sotana luzearekin ibiltzen ziren. Don Jose Luis apaiza.

347. Berorika, zuka eta hika (OIA-033/018)

Apaizari eta medikuari berorika egin behar zitzairen. Gurasoei, zuka. Gurasoek seme-alabei, hika eta senideek elkarri ere bai. Eta lagunek elkarri, hika. Babilonia eta Arkaleko soldaduak ere aipatzen ditu.

348. Euskara eta erdara (OIA-033/019)

Etxean euskaraz hitz egiten zuten, baina kalean erdaraz egitera behartuak zeuden. Kargudun gehienak erdaldunak ziren. Apaizak kalean erdaraz, baina bakarka zeudenean euskaraz hitz egiten ziren. Emakume nerabe gehienek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartzen zuten, gehiago zirelakoan.

349. Neskak, erdaraz (OIA-033/020)

Kalean erdaraz egiten zen, baina etxean eta auzokoekin, euskaraz. Neskek beren artean erdaraz hitz egiteko joera zuten, baina gero mutilarekin hastean berriz euskaraz hasten ziren. Batzuek mutila kanpotarra egiten zuten eta harekin ikasten zuten erdara, baina nesken etxeak ez zekiten gaztelaniaz.

350. Euskaldun elebakarrak (OIA-033/021)

Baserrian asko kontu zitzaion euskarari. Administrazioako gorabeherak egiteko erdaraz zekien norbaiten laguntza behar izaten zuten askok. Maria Jesusen aitona-amonon garaiko gehienek ez zekiten gaztelaniaz. Eta ezta leitzen eta idazten ere.

351. Elizkizunak (OIA-033/022)

Mezak latinez ematen ziren, eta, apaiza, fededunei bizkarra ematen. Gizonak eta emakumeak bananduta esertzen ziren. Gutxienez urtean behin aitortu eta jauna hartzeko obligazioa izaten zen. Txartelekin eramaten zuen kontrola elizak.

352. Kongregazioko kideen betebeharrak (OIA-034/002)

Kongregazioak. Bost ordena: gudaritxoak... Nola janzen ziren. Don Pablok Erromatik ekarritako ohitura omen. Kongregazioak: Hijas de María, luistarrak, Jesusen Bihotzekoak eta frantziskotarrak. Ordena bakoitzak bere betebeharrak zituen; Hijas de María kongregaziokoek, esaterako, ezin zuten mutilekin dantzatu.

353. Soldaduak baserrietan (OIA-034/004)

Gerraren ondoren, soldadu asko zeuden Oiartzunen. Arkale eta Babilonian kuartelak zeuden. Soldaduak ere goseak egoten ziren, eta baserrietako lanak egiten zituzten janariaren truke. Gauza berri asko erakutsi zieten bertakoei jaten.

354. Soldaduen peripeziak (OIA-034/005)

Militar mandoek ez zuten nahi izaten soldaduak baserrietan ibiltzea. Askotan deitzen zituzten kuartelera eta zigorraren beldurrez joaten ziren. Masastuarekin batera erretzen zuten artaburua, eta halaxe jaten zuten.

355. Militarrek (OIA-034/006)

Noizbehinka, militarrek inspekzioa pasatzen zuten baserrietan. Kale inguruan militar mando asko bizi ziren, beren familiekin.

356. Gutxi behar giro ederra sortzeko (OIA-034/007)

Soldaduen eta baserritarren artean harreman ona zegoen, asko laguntzen baitzuten. Giro ederra egoten zen baserrietan: soldaduak kantari, fabriketatik itzultzen zirenen kaleko kontuak... Garai hartan ez zegoen telebista eta irratarik, hortaz, berriketaldi luzeak egiten ziren lanak bukatu ondoren. Lehendabiziko irratia Gurutzezarren ikusi zuen Maria Jesusek.

357. Pobre, baina apain (OIA-034/008)

Maria Jesus beti konturatu izan da bere amaren garaian-eta ez zegoela baliabide askorik baina hala ere zer apain joaten ziren. Arropa gutxi izaten zen, baina hura ongi pentsatuta egindakoa. Soin berari lepo eta aplike ezberdinak jarri ahal zitzaizkion.

358. Galtzerdiak eta eliza (OIA-034/009)

Hasieran, galtzerdiak punto ingles zeritzenak ziren. Geroago hasi ziren zetazkoak, eta, ondoren, kristalezkoak. Elizara ezin zen joan galtzerdi gabe. Behin, jauna hartzea ukatu zion apaizak neska bati: mediak zeramatzan eta apaizak uste zuen ez zeramala ezer.

359. Bizitza guztirako arropa, eta baita gehiagorako ere (OIA-034/010)

Gaur egun ez da ia josten; dena egina saltzen da. Baina garai batean, dena josten zen, baita barruko arropa ere. Igandeetarako arropa propioa egoten zen, eta hautsi arte erabiltzen zen. Denbora batean, ezkontzeko trajearekin lurperatzen zituzten hildakoak.

360. Aldaketak arropan (OIA-034/011)

Arropak asko iraun behar zuen, beraz, bai kortea bai kalitatea ongi begiratzen ziren. Kolore arruntenak urdin iluna eta txuria ziren. Gero hasi ziren koadrodunak eta kolore biziagoak. Emakumeen lehendabiziko galtzak orain dela urte gutxira arte ez ziren hasi, eta orduan ere mendira joateko edo.

361. Azal txuria, modan (OIA-034/012)

Gaur egun beltzarana egotea dago modan, baina, gure aitona-amonen garaian, azal txuria izateak fintasuna erakusten zuen. Baserriko neskatxak

eginahaletan aritzen ziren txuri mantendu eta kaletarrak emateko, baita horretarako egosiko baziren ere.

362. Orrazkerak (OIA-034/013)

Orrazkera ere aldatzen ari da. Mototsa asko eramaten zen. Ileari forma emateko kizkurgailuak zeuden; erne ibili behar zen horiekin, zimak erreko ez baziren.

363. Haurren orrazkera eta aldaketak (OIA-034/014)

Haurren orrazkerari dagokionez, neskek trentzak edo lazoak eramaten zituzten. Mutikoek, berriz, burua rapatua eta kopeta gainean mordoxka bat luzexeago. Gure amonek mototsa eramaten zuten, eta gure amak kardatzen hasi ziren.

364. Oinetakoak (OIA-034/015)

Garai batean oso diskreto janzten ziren eta gauza batzuk ez zeuden ongi ikusiak; takoi altuko sandaliak, esaterako. Maria Jesusen izeba batek gordeka janzten zituen, baserritik urrunduta, baina ez zituen inoiz erabili izan. Oinetakoei dagokienez, gehiena alpagata eta abarkak erabiltzen ziren. Eta oinutsik ere asko ibiltzen ziren.

365. Aterkia (OIA-034/016)

Baserrian euria egin edo ez, berdin egin behar izaten zen lan, baina hala ere ez zuten aterki gisakorik izaten.

366. Blusa eta trajea (OIA-034/018)

Garai batean blusa erabiltzen zen; gero hasi zen trajea. Traje bakarra bizi guztirako, eta askotan, familian konpartituta, gainera. Arropa gutxi izaten zen, eta askotan, lehortu arte zain egon behar janzteko.

367. Josten ikastea, ohikoena (OIA-034/019)

Emakume gehienek zekiten josten. Eskolara joango ez baziren ere, denak josten ikastera.

368. Gerra ondorengo gabezia (OIA-034/020)

Gerraren ondoren, pobrezia handia gelditu zen. Lan asko egin behar zen familia hazteko. Apopilo asko hartzen zen eta familia askok etxebizitza konpartitzen zuten. Esneketara joaten zirenek txerri-jana jasotzen zuten hirietan, baina etorkinen auzoetan ez zen asko biltzen lanik.

369. Jostundegiak (OIA-034/021)

Oiartzunen jostundegi asko zeuden. Maria Jesusek herrian ikasi zuen josten eta Errenteriara joan zen kortea ikastera. Corte Paris ikasten zuten.

370. Josten eta zirikan (OIA-034/022)

Emakume asko elkartzten zen jostundegietan eta giro ederra egoten zen. Lagun giroa eta elkar zirikatze aukera. Maria Jesus, zirikatze garaian, ez zen atzean gelditzen.

371. Oihal motak (OIA-034/024)

Oihal ohikoenak: garai batean, harizkoa. Gerora, vichy-a, zeta, perkala, batista... Gerora: popelina, pana, tertziopeloa, mezkla... Artilearekin ere lan asko egiten zen: jertse eta galtzerdiak. Gantxilloa egiten eta bordatzen eskolan erakusten zuten.

372. Arreoa (OIA-034/025)

Gure aurreko belaunaldira arte, arreoren ohitura egon da. Hau da, ezkondata bizitzen jarriko ziren etxe berrirako arropa egiten zuen emakumeak: horko maindireak, horko toallak, horko manteleria... eta baita barruko arropa txuria ere. Josteaz gain bordatu ere egiten zenez, ordu asko pasatzen zuten lan horretan. Ez zen arraroa, beraz, ezkondu aurretik auzokoei eta lagunei erakustea. Ezkontzaren berri ematerakoan txokolatea oparitzen zuen bikoteak.

373. Ezkongaien nahia: arreo on bat eta etxearen jabe gitea (OIA-034/026)

Ordu pila bat pasatzen zen arreoa egiten: beste lanak bukatu ondoren aritzen ziren, askotan loari orduak kenduta. Ezkonberriak arreoa egiten zenarekin joaten ziren etxe berrira. Orduan, gehienak errentan bizi ziren, baina gizongaia beti saiatzen zen etxe baten jabe egiten.

374. Emakume soinu-jotzailea (OIA-035/002)

Musikari gehienak gizonezkoak baziren ere, tartean bazeuden emakumeak; Iturriozko Portugal baserriko soinu-jotzailea, adibidez. Pikabea anaia-arrebak aritzen ziren soinu-jotzen. Arrebak, gainera, soinua jo eta dantza batera egiten zuen. Umore gaitza jartzen zuen Altzibarko bileran, San Juan iturritik bueltan.

375. Bezperak bukatu eta dantzara (OIA-035/003)

Altzibarko bilerara jende asko joaten zen. 'Bezperak' bukatu orduko, korrika abiatzen ziren. Erreterian bandak jotzen zuen, baina oso gutxitan joaten ziren bertara.

376. Kongregaziokoek agarratua debekatua (OIA-035/005)

Altzibarko bileran dantzan ibiltzen ziren. Pasodobleak eta baltsak jotzen ziren, baina beraiek beti sueltoan dantzatzen zuten. Kongregazioan zeudenek debekatua zuten agarratua dantzatzea. Hala ere, emakumea gehiago kastigatzen zuten gizonezkoa baino.

377. Ttunttuna, Kilirikupen (OIA-035/010)

Igandeetan Kilirikupen ttunttuna jotzen zuten. Baina jendea ez zen bertan gelditzen, nahiago zuten Altzibarko bilerara joan.

378. Arto tartetik harrika (OIA-035/012)

Astelehenetan igandeko gorabeherak kontatzen ziren jostundegian. Neska batzuek ibilitako komeriak: mutil batzuk etxera laguntzeko zain eta beraiek beste mutil batzuekin dantzan. Garai hartan normala zen arto tartean gorde eta harrika hastea; hortik datorkigu harrikalari ospea oiartzuarrei.

379. Kalabazak (OIA-035/014)

Nola ezagutu zuen Felix, bere gizona. Altzibarrera irundar pila etortzen ziren. Mutilak eskatzen zuen dantza. Neskek kalabazak ere ematen zituzten.

380. Apaiz 'casamentero'ak (OIA-035/016)

Baziren bikotea egiteko ausardia ez zutenak eta apaiza erabiltzen zuten bitartekari.

381. Arreoa (OIA-035/018)

Ezkontzerako arreoa prestatzen zuen neskak, eta, ezkondu aurretik, erakutsi egiten zuen. Etxeko arropa (zurimenta) eta ontzia prestatzen zen arreoan, zein baino zein dotoreago.

382. Garai bateko lababoak (OIA-035/020)

Arreoko zurimenta bisitentzako edo gertakari berezietarako gordetzen zen. Medikua etortzen zenerako toalla dotoreak ateratzen ziren. Lehen ez zegoen bainurik; komuna, justu-justuan.

383. Ezkontza eta jaiotza (OIA-035/022)

Ahal zen arreo dotoreena egiten saiatzen ziren neskak. Pregoia egiten zirenerako-edo erakusten zen arreoa. Hiru pregoi izaten ziren elizan, ezkontzaren berri emateko, eta, norbaitek zer edo zer argitu behar bazuen, orduan zuen aukera. Jaio etxean egiten zen, medikuarekin edota parterarekin.

384. Amatasuna (OIA-035/024)

Medikuak etxez etxe ibiltzen ziren erditzeetan laguntzen. Bera ez da gogoratzen atsolorraz, baina entzuna du. Amak ezin zuen erditu ondorengo egunetan kanpora atera, eta ateratzen zen lehendabiziko aldia elizara joateko izaten zen; 'eliza sartze' esaten zuten.

385. Linboa (OIA-035/026)

Lehen, haurra jaio eta lehenbailehen bataiatu behar izaten zen, bestela linbora, betiko ilunera, joaten omen zen, Elizaren arabera.

386. Euskara galarazita (OIA-036/002)

Karlistak euskararen kontra zeuden. Tristeia da norberaren hizkuntza ukatzea. Maitxoren ustez, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto da, eta batez ere gurea.

387. Euskaldun elebakarrak (OIA-036/003)

Baserritar gehienek ez zekiten euskara, eta administrazioan edozein tramite egiteko beste norbaiten laguntza behar izaten zuten. Maitxok dio hizkuntza guztiak errespetagarriak direla, eta zenbat eta gehiago jakin, hobe, baina euskara lehenengo.

388. Eskolan euskara galarazita (OIA-036/004)

Eskolan ere galarazita zegoen euskaraz hitz egitea. Zigor fin-finarekin jotzen zituzten euskaraz hitz eginez gero. Gaur egun hemengo andereñoak daude, baina lehen Gaztela herritik etortzen ziren.

389. Udala eta euskara (OIA-036/006)

Udal langile gehienak erdaldunak ziren; idazkaria, esaterako. Gero, haren ordean, herritar bat jarri zuten: Inaxio Zalakain. Bere arreba Fidela ere udaletxean aritzen zen lanean, eta baserritarrei asko laguntzen zien.

390. Gerraren ondorena (OIA-036/008)

Gerraren ondoren, batzokiak galarazita gelditu ziren. Gerra aurretik, Rafael Pikabea eta Aialde kalean zeuden batzokiak. Gerra ondoren, Falange eta JAPkoen lokalak zeuden. Falangistak kanpokoak ziren eta herria haien menpean zegoen. Salaketa eta ezinikusi asko egon zen garai hartan.

391. Oñatibarrak (OIA-036/011)

Oñatibatar gazteak oso abertzaleak ziren. Gerra aurretik batzokian eta ondoren Lartaun elkarteetan, euskal dantza eta musika irakasten zuen Juanito Oñatibiak. Alkatea aldatu zuten batean, Oñatibatarrek txistuarekin lagundu zioten alkate ohiari etxeraino. Oñatibia aitaren gogoz kontra.

392. Disparatene eta libretak (OIA-036/013)

Iturriozko Disparatene denda. Baserritarrek librete batean apuntatzen zituzten dendetatik hartutakoak eta hazienda salduta dirua zutenean ordaintzen zuten dena batera.

393. Salatariak (OIA-036/015)

Arizmendien komandantzia egon zen gerra garaian. Maitxoren osaba San Cristobal kartzelara eraman zuten; Arizmendien zegoen militar batek esan zion izebari nor izan ziren salatariak; herrikoak ziren.

394. Arizmendieneko etxeoandrea eta atxilotuak (OIA-036/016)

Oiartzuar asko atxilotu zituzten gerran, eta haietako batzuk San Cristobal kartzelara eraman zituzten. Fidantzapean aske utziko zituztela agindu zieten, baina libretak blokeatuta zeuzkatenez, ezin zuten fidantza ordaindu. Arizmendieneko etxeoandreak bitartez lortu zuten konponbidea.

395. Baserrietara, lanera (OIA-037/001)

Gerraren ondoren, miseria handia zegoen. Kaleko jendea inguruko baserrietara joaten zen laguntzera, janariaren truke.

396. Ogi bila, Nafarroara (OIA-037/003)

Gerraren ondoren, errotak itxi egin zituzten eta jendea Nafarroara joaten zen mendiz ogi bila, kontrabandoan. Bera ere joan izan da Ereñozura irin bila, izebarekin.

397. Errentan (OIA-037/004)

Gaur egun etxea erosteko ohitura dago, baina garai batean ia denak errentan bizi ziren.

398. "El que tiene Vespa, tiene neska" (OIA-038/002)

1958an, Altxibarko bileran bi Lanbreta agertu ziren, eta, handik aste batzuetara, bi Vespa. Neska guztiak nork estreinatuko ote zuen Vespa, eta zer

da eta, Vespakoak etxera lagundu Maria Jesus. Vespakoa Jose Luis zen, orain bere senarra dena.

399. Motoan zeharka eserita (OIA-038/003)

Neskak gonarekin ibiltzen ziren eta motoan zeharka esertzen ziren. Oso deserosoa eta arriskutsua zen motoan zeharka joatea. Gero hasi ziren zangolaka joaten.

400. Arreoa (OIA-038/005)

Arreoa: mutilarekin hastean edo hasi aurretik hasten zen emakumea arreoa prestatzen. Moja joaten zirenek ere egin behar izaten zuten. Ezkondu aurretik arreoa erakusgai jartzen zen, lagunek eta auzokoek ikus zezaten.

401. Zeukaten guztia gurdi batean sartzen zenekoa (OIA-038/006)

Garai batean, koltxoiak ere eramaten ziren arreoan. Maria Jesusek ez du ezagutu, baina badaki arreoa gurdian eramaten zela eta soinu bat jartzen ziotela gurdinari denek entzun zezaten. Baserria utzi behar zuten maizterrek San Martin egunean egiten zuten aldaketa, beren gauza guztiak gurdian hartuta.

402. Parterak (OIA-038/007)

Gure aurreko bi belaunaldiek dagoeneko medikuarekin erditzen zuten, baina parterak ere ibiltzen ziren oraindik. Orain dela 50 urte arte edo, jaio etxean egiten zen.

403. Atsolorra (OIA-038/009)

Jaio eta lehendabiziko lana bataiatzea izaten zen. Otordua etxean egiten zen aitabitxi-amabitxiekin. Egun batzuetara, berriz, atsolorra: auzoko emakumeak haur jaioberria ezagutzera joaten ziren.

404. Bular-tiratzaileak (OIA-038/010)

Maria Jesusek lehendabiziko haurra izan zuenerako, dagoeneko ospitalean erditzen zen. Hala ere, laugarrena etxean eduki zuen, eta oso esperientzia polita dela dio. Parterak bezalaxe, bular-tiratzaileak ere bazeuden.

405. Parterak: emakume ausartak (OIA-038/012)

Parterak etxekoandre normalak ziren. Ez zeukaten ikasketa berezirik, baina berezko trebetasuna zuten emakume ausartak ziren. Ama eta haurrarekin egoten zen partera. Izan zitekeen familiakoa -senidea edo gurasoa- eta gero beste etxeetan eta auzoetan berdina ibiltzen zena.

406. Borrokazelaietako sendagilea (OIA-038/013)

Kuranderak ere bazeuden. Maria Jesus Gurutzeko Borrokazelaietako amonaz gogoratzen da: fama handia zuen tiakoloiak erraz sendatzen zituelako eta gaixoari begiratu orduko tankera hartzen ziolako zer min zuen. Gela bat edukitzen zuen ukenduz betea.

407. Gaubeilak (OIA-038/014)

Lehen, jaio eta hil etxean egiten zen. Norbait hiltzen zenean, kanpoko senideak eta auzoak etortzen ziren kandela bedeinkatuekin. Beila egiten

zitzaion hil berriari: gorpuaren inguruan kandelak pizten ziren eta arrosarioa errezatu.

408. Heriotza (OIA-038/015)

Etxean norbait hiltzen zenean, lagunen eta auzotarren babesa egoten zen. Pena konpartituagoa izaten zen, eta horrek asko laguntzen zuen mina gainditzeko. Haurrek jaiotza eta heriotza, dena ikusten zuten etxean, eta horrek bizimodurako asko laguntzen zien.

409. Entierroa (OIA-038/016)

Hilkutxa biajeetan eraman behar izaten zuten jasotzaileek, txandaka. Gero hamaiketako ematen zitzaien kalean eta etxean bazkaria egiten zen gertukoekin. Ez zen batere bazkari alaia izaten.

410. Gobada (OIA-038/018)

"Guara" (gobada): astean behin garbitzen zen arropa eta oso zikina egoten zen; asko marruskatu behar zen. Lehendabizi, egurrezko mahai batean, eta, gero, errekan. Arropa zuria 'gau serenoan' jartzen zuten -oskarbian-. Familia handiak zirenez, zintzilik jartzean, ikusgarria gelditzen zen.

411. Haurtzaroa eta amatasuna (OIA-038/020)

Haurtzaroko oroitzapen onak ditu Maria Jesusek: kaleko giroa, batez ere. Kalean jende askorekin eduki zuen harremana eta aberasgarria izan zela dio. Bizitzako gauza garrantzitsuena ama izatea izan dela dio.

412. Mandazaina eta ama-alabak (OIA-040/003)

Rufinok gertakari xeble asko dakizki. Honetan, ama-alabekin apopilo zegoen mandazainarena kontatu digu.

413. Adarra jotzen (OIA-040/005)

Ameriketara 14 urte egondakoa, konfesatzera joan eta apaiza harritu egin zen hainbeste urtean konfesatu ez zelako. Ameriketatik etorritako hark egindako adar jotzea.

414. Adarra jotzeko makina (OIA-040/007)

Kontakizun barregarria: Ameriketako asmakizunak baino hobeak omen ziren hemengoak.

415. Karliten eskola (OIA-040/009)

Karlistei buruzko esaera: karlistek ekarri zuten eskola, lepotik behera eskapularioa eta ipurdi gainean pistola.

416. Apaizei, kanta (OIA-040/011)

Garai batean, apaizek botere handia zuten. Ez zen arraroa beraiei jarritako kantak egotea. Rufinok bat kantatu digu.

417. Sermoia (OIA-040/013)

Luistarrei apaizak emandako sermoia. Gaztetan ibili behar zen neskatan, ez zahartuta, fundamenturik gabe. Sagar zaharrak udazkenean lorea egiten du, baina batere balio ez duena.

418. Kazkazuri eta apaiza (OIA-040/015)

Apaiz batek sermoiak era bitxian ematen zituen, erdi bertsoka. Kazkazuri bertsolaria eztarri-soinuka hasten omen zen apaiz hura sermoia botatzen hasi orduko. Sermoiaren zati bat bota du Rufinok: "Oiertzungo mutil gazteek gauetan egiten dituzten akzioak...".

419. Kriskitinak (OIA-040/017)

Garai batean, Nafarroako San Juan iturrira jende asko joaten zen Oiertzundik. Jai giroan izaten zen, musika joz. Rufinok gogoan du emakume bat bazela kriskitinak jotzen trebea zena.

420. Festetara, bizikletan (OIA-040/019)

Goizuetako jaietara bizikletan joan izan dira eta baita Bentaberriko bilerara ere. Itzuleran istripua izan zuten bizikletarekin.

421. Beorlegiri bertsoa (OIA-040/021)

Gerra hasi zenean, Olaldetik Goikoetxera joan ziren. Beorlegi ezagutu zuen han. Berari jarritako bertsoa bota du. Goikoetxeko emakumea familia esperoan zegoen. Baserriz baseri ibili ondoren, Zaldinen eduki zuen haurra.

422. Erreketeak erreketei tiroka (OIA-040/022)

Olaldekoek uste zuten Karrikatik jaitsiko zirela erreketeak. Berez, Goikoetxera joan ziren ihesi, baina tropak Biraitara iritsi zirenean, Ergoien aldera hartu zuten eta Goikoetxetik sartu ziren. Beraiengandik ihesi hasi eta beraiengana joan ia. Arraskularretik Goikoetxera erreketeak erreketei tiroka ibili ziren, deskuidatuta. Errepublikanoak nor ziren ez zekiten; gorriak esaten zieten denei.

423. Euskara, libre (OIA-041/002)

Rufino 13 urtera arte ibili zen eskolan, gerra hasi aurretik, eta gogoan du garai hartan euskara libre zela eskolan.

424. Linboa (OIA-041/004)

Haurra jaio eta lehenbailehen bataiatu behar izaten zen. Izan ere, Elizaren arabera, bataiatu gabeko haurra linbora joaten zen.

425. Bertsopaperak (OIA-041/010)

Rufino bertsozalea da, eta bere osaba ere halaxe zen; harrapatzen zituen bertsopaper guztiak erosten zituen. Besamotz bat etortzen zen kalera bertsopaperak saltzera; lehendabizi kantatu egiten zituen eta gero saltzen hasi. Bertso bat kantatu digu.

426. Kazkazuriren ilobak (OIA-041/011)

Rufinoren osabak bertsolaria zuen osaba: Kazkazuri. Ameriketatik Kazkazurik jarritako bertso ezagunak aipatu ditu, baita zati bat kantatu ere. Bertsolari batzuk aipatu ditu: Uztapide, Frantsesa...

427. Bertsolari franko (OIA-041/013)

Rufino gogoratzen da behin Altxibarko Soteronen Uztapide, Basarri, Sailpuruko Balentin eta Krisostimo elkartu zirela. Gaupasa eginda zeuden, eta haiek bertsoak, noski.

428. Gaztelaniaz jakin ez (OIA-041/015)

Behin epaitegira joan zen Rufino eta han gaztelaniaz ez zekien herritar bat zegoen. Bera Erreterian lanean aritua izaki, hobeto moldatzen zen eta epaileak esaten zuena itzultzen aritu zen emakume hari. Garai hartan asko ziren erdara ez zekitenak.

429. 'Pello Errota' eta 'Txirrita' (OIA-042/001)

Pello Errota eta Txirritaren arteko bi bertso bota dizkigu Rufinok. Txirritak egindako apustu baten berri ere eman digu.

430. Inozentekeria (OIA-042/003)

Inozente egunean, mutil koskorrek egiten zutena: bi errealekoa iltzearekin lurrean josita jartzen zuten.

431. Arrastorik gabeko sorginak (OIA-042/005)

Rufinori berari ez zaio sorginik agertu, baina bere aitari bai. Behor saila ikusi; eta, hurrengo egunean, arrastorik ez. Txerri-ama umeeekin ikusi, kolpea tira eta harrapatu ez.

432. Sorginak bagarela eta ez garela (OIA-042/007)

Rufinok entzun izan du: "Sorgiñak, hainbeste ez gala, miño hoinbeste bagattuk".

433. Kazkazuri eta piztiak (OIA-042/009)

Oiartzungo familia ezagun batzuk izengoitia jaso dute, belaunaldiz belaunaldi. Kazkazuri joan da lanera eta nagusiak askan sartzeko agindu. Hark ezetz, piztiz beteta zegoela eta: han lanean ariki otsotar, azeritar eta intxixutar bat.

434. Ugaldetxora (OIA-044/002)

Luisa kalean bizi zen eta egunero oinez joaten zen Ugaldetxoko eskolara, lanera.

435. Heziketa (OIA-044/004)

Heziketa asko aldatu da. Lehen, ondokoari mesede egiteko prest egoten ziren. Zaharrak errespetatzen ikasten zuten.

436. Heziketa etxean hasten da (OIA-044/005)

Bere ikasle batzuek egunero laguntzen zioten emakume bati. Lehendabiziko eskola gurasoa da.

437. Hil kanpaiak (OIA-044/007)

Heriotza. Hil kanpaiak; agonia adieraztekoak ezberdinak ziren emakumeentzat eta gizonezkoentzat. "Estremuzioa".

438. Parterak (OIA-044/009)

Amona batzuek hiletetan eta jaiotzetan laguntzen zuten. Lehen, etxean jaiotzen ziren, eta gero hasi ziren ospitaleetan jaiotzen. Jaioberriei faja jartzen zieten: trosatua.

439. Jaiotza (OIA-044/011)

Haur jaioberria nola janzten zen: hiru pikuak, haurtzapiya. Parterak.

440. Bularra (OIA-044/012)

Oritzta txarra zen jaioberriarentzat eta beste ama batek ematen zion bularra lehendabiziko egunetan. Bularra eta biberioia.

441. Haurra zaintzen (OIA-044/013)

Bularra emateko nola konpontzen zen. Lanean ari zen bitartean, biberioia: behi-esnea urarekin nahasia. Haurra oinez hasteko aholku ezberdinak ematen zituzten amonak eta medikuak.

442. Gerra aurretik eta ondoren (OIA-044/015)

Maistra aritu zen bitartean, libratu zen Cara al Sol kantatzeaz. Hori bai, Francoren argazkia derrigorrezkoa zen. Luisak gogoan du gerra aurretik, Errepublika garaian, askatasun handiagoa zegoela: lauburuak, kaikuak... erabil zitezkeen. Hori bai, Karlista eta nazionalisten artean gorroto handia zegoen.

443. Arangurengo aita-semeak (OIA-044/017)

Gerrako gertaera: Arangurengo aita zinegotzia zen. Gerran, alde egin zuen bestaldera, eta, bere ordeztan, 16 urteko semea hil zuten.

444. Anduitzeneko alaba (OIA-044/018)

Gerrako gertaera: Anduitzeneko alaba hil zuen erreketen batek.

445. Bonbak eta pasahitzak (OIA-044/020)

Gerra hasi zenean, Solchaga jeneralaren etxean aritu zen lanean, eta, gero, Linonera joan zen, bere ahizpa han ari baitzen lanean. San Markosko bonbak entzutean, beheko bodegara jaisten ziren, babestuta zeudelakoan. Izeba moja Zamorara etorri zen gerran: gauean errezoak egiteko argia pizten zuten eta tropek pasahitza zela uste zuten.

446. Uzta, besterentzat (OIA-044/022)

Alde bateko zein besteko tropek baserrietako animaliak eta janariak kentzen zizkieten baserritarrei. Gerraren ondoren, baratzean egindakoaren zati bat entregatu behar izaten zuten. Beraientzat eskas gelditzen zen; eta, hala ere, kaleko senideekin banatzen zuten, gordean.

447. Erreketeen desfileak (OIA-044/024)

Erreketeek desfileak egiten zituzten plazan: "Por Dios, por Patria y Rey".

448. Irakasleentzako aholkuak (OIA-045/002)

Luisa urte askoan aritu da irakaskuntzan. Maistra ona izateko zer egin behar den esan digu.

449. Gerra, erdiz erdi (OIA-045/004)

Luisak ez daki zer den igandeetako dantzaldira joatea; gaztetasuna eten zion gerrak. Erreketeeentzat alkandorak egiten pasatu zuen gerra, eta ondoren Falangeko 'servicio socialeko' lanak egiten. Alderdien egoitzak non zeuden.

450. Senargaia (OIA-045/005)

Gerran, ahizpak lan egiten zuen etxera joan zen, Linonera. Han ezagutu zuen gero bere gizona izango zena. Ezkondu aurretik, aurrezten.

451. Idazteko tresnak eta etxeko lanak (OIA-045/007)

Idazteko gaiak aldatu dira urteekin: arbelak, lumak, planak... Etxerako lanak bidaltzen zituen Luisak, baina gurasoei lanik emango ez zietenak. Ez ziren orain bezala ibiltzen gurasoak, haurrei ezin lagundurik.

452. Ikasgaiak (OIA-045/009)

Luisak denetik erakutsi behar izaten zien bere ikasleei, baina berari gehiena matematika gustatzen zaio, eta, gutxiena, fisika eta kimika. Espainiako historia ere ez zitzaion gustatzen, erdia gezurra izaki.

453. Klase diferentzia (OIA-045/011)

Klase diferentzia: aberatsak eta pobreak. Udatiarrei, errespetua. A tiempoko mezak: 'funerales de primera, segunda y tercera'.

454. Hiletak (OIA-045/013)

Hilkutxa oinez eramaten zuten jasotzaileek. Ugaldetxotik ekartzen zutenean, Tolarieta inguruan zegoen harri handi batean hartzen zuten atsedean. Donostian zaldiekin eramaten zen gorpua. Lehen, elizara eraman aurretik, San Juan kaperan uzten zen gorpua.

455. Ikasle ohiak (OIA-045/015)

Bere ikasle askok jarraitu zuten ikasten: medikuak, apaizak... Eta horrek poza ematen du.

456. Emakume ausarta (OIA-045/017)

Luisa emakume ausarta da. Bere garaiko emakume gutxik jarraitzen zuten ikasten, eta berak -osaba apaizari esker- irakasle ikasketak egin zituen, eta gero, ezkondu aurretik, Ugaldetxoko eskola ireki eta 80 ikasletik gora edukitzeko ausardia eta indarra izan zuen. Umila izaki, berak garrantzia kentzen dio lorpen horri.

457. Ikasle kuttunak (OIA-045/019)

Ikasle asko ditu gogoan Luisak. Batzuk bihurriak zirelako, beste batzuk zintzoak, bereziak beste batzuk eta baita aski maitagarriak ere tartean.

458. Haurren eta helduen arteko harremana (OIA-045/021)

Katalintxoko aitona gogoan du Luisak. Haurrek harriak botatzen zizkieten baratzerara eta haserretu egiten zen. Gurasoak ez ziren asko agertzen eskolara; orain harreman handiagoa dute.

459. Su-kanpaiak (OIA-045/023)

Luisa Zamora baserrikoa da eta gogoan du inguruko hiru baserriak metei sua eman zioteneko. A zer beldurak pasatu zituen. Suteetan kanpaiak jotzen ziren.

460. Irakasle eta gurasoen arteko harremana (OIA-045/026)

Hurrekin lan egitea gauza polita dela dio Luisak. Orain pena du maistra gogorra izana. Bere ikasleak aurrera atera direla ikusteak poza ematen dio. Gaur egun maisu eta gurasoen artean dagoen harremana ongi ikusten du, baina maisuei autoritaterik kendu gabe.

461. Frantsesak jarriak (OIA-046/001)

Bertso-kantari, memoriaz. Lehendabizikoak ez dizkiegu jaso. Eskuetan daukan papertxoan, lehendabiziko bertsoaren hasiera bakarrik dauka idatzita. Hura leitu eta bertso guztiak ateratzen zaizkio, eta gero dio memoria txartzen ari zaiola. Hiru bertso bota ditu, anonimoak. Bertso batean esaten du Ezpeletako batek jarriak direla. Rufinok esaten du: "Frantsesak jarriak". Osabari ikasi zizkion.

462. Modernitatea (OIA-046/003)

Zortzi bertso abestu ditu. Buruz ari da. Gaia: modernitatea. Ez daki norenak diren. 6. pasartean aipatuko du behin bertsolari batzuen aurrean abestu zituela eta haiek ere ez zekitela norenak ziren.

463. Neskazaharrari (OIA-046/005)

Lau bertso bota ditu buruz. Frantsesarenak direla dio; doinu berezia iruditu zait. Jarraian, beste bertso bat bota du, hori ere buruz, neskazahar bati jarria. Ez daki norena den.

464. Egile ezezaguna I (OIA-046/006)

Behin, bertsolari batzuen aurrean abestu zituen 3. pasarteko bertsoak, modernitateari buruzkoak. Eta haiek ere ez zekiten norenak ziren.

465. Egile ezezaguna II (OIA-046/007)

Edariari buruzko hiru bertso abestu ditu buruz. Ez daki norenak diren.

466. Mendaro Txirristarenak (OIA-046/008)

Bi bertso abestu ditu, horiek ere buruz. "Bertsuak jartzera nua neskatzatza morena bateri..." Doinu berezia. Mendaro Txirristak jarriak izango direla dio.

467. Bertso-paperak (OIA-046/009)

Rufinoren osaba oso bertsozalea zen, makina bat bertso-paper erositakoak, Rufinok eskuetan darabilzkie horiek berak. Besamotz batek saltzen zituen kalean eta kantatu. Rufinok behin leitza nahikoa izaten zuen buruz ikasteko.

468. Konfesatzen (OIA-046/010)

Rufinok, bertsoak ez ezik, gertakari xeble pila ederra ere badakizki. Hona hemen neska bati zer gertatu zitzaion konfesatzera joandakoan.

469. Ganadu bila (OIA-046/011)

Xelebrekeria asko dakizki Rufinok. Hara zer gertatu zitzaion feriara gehiegi joaten zen senarrari.

470. Jaimitorea (OIA-046/012)

Jaimitoren txistea. Gaztelaniaz da, baina hasieran euskaraz hasi da eta entzutekoa da.

471. Goizuetarrak Oiartzunen (OIA-046/013)

Goizuetarrek xelebre fama daukate Oiartzunen. Zerbaitengatik izango da... Gertaera hau aditu besterik ez dago, beren umoreaz jabetzeko: goizuetarrak Oiartzunera intsentsu eske etorri zirenekoa.

472. Xarmangarria zera (OIA-046/014)

Xarmangarria zera...' bertso ezagunak kantari, guztira 4 abestu ditu. Egile ezezaguna dute (?)

473. 'Txirrita'renak (OIA-046/016)

Neskazahar gazteari bertsoak, Txirritak jarriak. Paperetik irakurrita abestu ditu.

474. 'Txirrita'ri (OIA-046/017)

Txirritari norbaitek botatako bertsoa.

475. Bertsolariak nonahi (OIA-046/018)

Lehen, plazatan ez zen bertsorik egiten; sagardotegietan-eta, bai. Oiartzunen gutxiena uste zena zen bertsolaria. Rufino gogoratzen da behin Tomasen Bordako Balentin, Krisostimo, Uztapide eta Basarri elkartu zirela Soteronen. Jaungoikoarenak bertsoa bota zuen, eta Uztapidek "hemen nonahitik ateratzen dituk bertsolariak".

476. Otañorenak (OIA-046/020)

Otañoren bertsoak kantatu ditu bertsopaperatik, jaioterriari, Baztani, jarriak.

477. Iparragirrerrenak (OIA-046/021)

Iparragirrerren bertso ezagunak 'Kantari euskalduna'. Bertsoaperean ditu.

478. 'Txirrita'renak (OIA-046/022)

Ameriketako bizitza bertsoak, Txirritak jarriak. 18 bertso dira, eta ia denak kantatu ditu.

479. 'Basarri'renak (OIA-046/024)

Osabak koaderno batean idatzita utzi zizkion bertsoen izenburuak. Basarriren bertso batzuk kantatu ditu, osabak zekizkienak. Basarrik bere liburuetan argitaratu gabeak.

480. 1956ko jelateari jarriak (OIA-046/026)

1956an jelate izugarria egon zen. Iburguenek jarritako bertsoak kantatu ditu.

481. Jelatan epelak esaten (OIA-046/028)

1956ko jelate ahaztezin hartan gertatutakoa. Gizona lurrean, elurretan ezin altxaturik, eta semeaz gaizki-esaka.

482. Egile ezezaguna (OIA-047/001)

Edariari jarritako bertsoak. Buruz ari da. Gero, irakurrita. Ez dakigu norenak diren. Zortzi bertso dira eta denak kantatu ditu.

483. 'Nere sentimentua' (OIA-047/002)

Antonio Urbietak Kazkazuri anaiari Ameriketatik jarritako bertso ezagunak kantatu dizkigu Rufinok: 'Nere sentimentua'.

484. Ollokiren bertsoak (OIA-047/007)

Ollokiren bertsoak. 13 bertso morroi kontuekin. Normalean, baserriaren izena hartzen du pertsonak, baina kasu honetan, Ollokine baserriak bertakoengandik zuen jaso izena. Izan ere, bertakoei Olloki deitzen zieten eta aita-semeak bertsolariak ziren. Maritxu Sagardiarekin egindako elkarrizketan horixe bera azaldu zigun, Olloki hauen iloba izaki bera.

485. 'Xenpelar'renak? (OIA-047/009)

Azken juizioko bertsoak. 18 bertso dira eta denak abestu dizkigu. Ez du jartzen norenak diren. Xenpelarrenak al dira?

486. Altzibarko dolareak (OIA-047/011)

Altzibarko dolareak: Martinmotzene, Peruene, Soterone, Aduriz, Iruinerrene, Herreronin... Olaldekoek, garlirik ez eta bi karga eta erdiko barrika trenbidetik eramaten zuten, Soteronera.

487. Ezezagunak (OIA-047/013)

Hiru neskazaharrei jarritako 10 bertso. Lehendabizi errezitatuz eta ondoren kantari. Ezezagunak.

488. Bertso onak eta txarrak (OIA-047/014)

Bertsolaritzari buruzko iritzia: bertsopaperetan hainbeste bertso eder leitu ondoren, telebistan-eta botatzen dituztenak ezin direla koparatu.

489. Ezezagunak (OIA-047/016)

Garai batean, edozer gauza gertatzen bazen, segituan bertsoak jartzen ziren. Oiartzungo gazte batek kontakatilu bati jarritako 20 bertso kantatu dizkigu Rufinok. Bertsoan agertzen da egilea.

490. Zapiraintarrak (OIA-048/001)

Zapirainek ezkontzari buruz jarritako 8 bertso (lehendabizikoa ez dugu osorik grabatu). Zapiraintarren gainean aritu zaigu Rufino. Bederatzi seme zituen eta hirurekin gelditu zen, besteak gerran galduta. Semeak kartzelatik aitari jarritako bertsoak; bat kantatu du.

491. 'Lexoti'ren bertsoak (OIA-048/003)

Jose Luis Lekuona Lexoti bertsolariaren 12 bertso kantatu ditu. Jose Mari Iriarterekin egindako apustu baten ondotik jarritakoak. Jose Mari Iriarte Rufinoren lehengusua zen.

492. Aitagure berezia (OIA-048/007)

Errezo berezia erakutsi digu Rufinok: Francori zuzendutako aitagurea.

493. Haur asko hiltzen ziren (OIA-049/003)

Aita zuten Txarondokoa. Ama, berriz, Maimotxekoa. Aita-eta bost senide omen ziren, baina ttikitan hilak. Garai hartan haur asko hiltzen ziren. Ez omen zegoen asterik haur baten entierrik gabe. Hika.

494. Pajina (OIA-049/004)

Gaur egun, errepidea egonda ere, Tornolatik kalera bitarteko bidea luzea da. Lehen, gainera, ez zegoen bide gisakorik. Auzoko bideak eta herriko gainerakoak ere auzolanean konpontzen ziren: pajina deitzen zioten debaldeko lan horri. Hika.

495. Gogor haziak (OIA-049/006)

Garai batean, denak oinez ibiltzen ziren, bidelasterrak non harrapatuko. Igandeetako mezara joateko, Olatxen hartzen zuten tren. Gaztetan garai gogorak bizi izandakoak dira. Gerraren ondoren, kupoa entregatu behar, beraiek goseak egongo baziren ere. Hika gipuzkera.

496. Etxeko janaria, tropentzat (OIA-049/008)

Gerra garaian, soldaduak etxez etxe ibiltzen ziren tropentzako janaria biltzen. Txarondokoei txekorra eramanarazi zieten hiltegiara. Baleak egiten zituzten, baina gero ez zuten ordaintzen.

497. Tropek, dena libre (OIA-049/009)

Egun gutxitan txekorra eta sei zikiru eraman behar izan zituzten tropentzat. Soldaduek menditik ere nahi zutenean hartzen zuten hazienda, fusilarekin hilda.

498. Gerrara behartuak (OIA-049/010)

Txarondon inor ez zen joan gerrara. Senideak gazteegiak ziren eta aita zaharra zelako libratu zen. Gainontzean, Tornolan, etxe bakoitzetik bat eraman zuten.

499. Tropen sartzea (OIA-049/011)

Tropak Oiartzunen nola sartu ziren. Tornola erdiz erdi harrapatu zuten. Arritxurietan egun batzuk egin zituzten tropek eta inguruko baserritarrek janaria eraman behar izan zieten.

500. Nafarroara, irin bila (OIA-049/013)

Gerraren ondoren, errotak itxi egin zituzten eta Nafarroara joaten ziren irin bila. Bera behin baino gehiagotan joan zen Arantzara.

501. Makoarekin lurra jiratzen (OIA-049/014)

Txarondon lan handia izaten zuten, lurrak malda ikaragarrietan baitzituzten. Makoarekin aritzen ziren, goldea ezin zuten sartu eta.

502. Auzolanean (OIA-049/016)

Makoa laia baino arinagoa da. Auzolanean aritzeko, hogeit hamar lagun baino gehiagoko koadrillak biltzen ziren.

503. Tornolako maldak (OIA-049/018)

Txarondok etxea txikia du, baina lur asko ditu. Behientzako baino ardientzako toki hobea da; hango maldak... Ardia zuten asko, ehunen bat edo. Errepidea egin zutenean, ardi bidea izorratu zuten. Gazta eta arkume-larrua saltzen zuten. Probetxu handia ateratzen zioten.

504. Tratantea (OIA-049/019)

Txarondon ardi asko zituzten. Behin aitak kolpean 40 ardi saldu zituen. Epeleko Leon, tratantea.

505. Ardi-salmenta, Frantziara (OIA-049/020)

Gerraren aurretik ardi asko saltzen ziren Frantziara. Mendiz eramaten zituzten.

506. Sasiardia: txikia baina gogorra (OIA-049/021)

Oiartzungo ardia sasiardia da. Aralarko ardia hemen hil egingo litzatekeela dio, bazka fina behar dutelako haiek. Hemengo belarra ahulagoa izaki, bertako ardia eta behorra horregatik dira txikiagoak, baina baita gogorragoak ere. Hemen dugun ardia bertakoa da, joan deneko 80 urtean bai, behintzat. Hika gipuzkera.

507. Mandoa (OIA-049/024)

Mandoa nondik ateratzen den. Mandoak ez du umerik egiten; lanerako egiten dute.

508. Astoa (OIA-049/025)

Garai batean astoa asko erabiltzen zen garraiorako eta lanerako. Txarondon hiru asto ere izan zituzten. Bat saldu zutela ere gogoan du. Hezten erraza dela dio. Hika.

509. Tornola (OIA-049/026)

Tornolako baserriak. Auzoan malda asko zen eta ezin zen hazienda nola hala erabili lanerako. 19 baserri dira Tornolan. Txarondo Tornolako kofradian sartzen zen, eta, Olatzene, Ugaldetxon.

510. Ikasketak (OIA-050/002)

Tornolako eskolan oinarrizkoa ikasi zuten, eta, zer edo zer gehiago ikasteko, Oiartzungo kalera joaten ziren oinez; Mitxelenean zegoen maistra bat.

511. Arditurriko meategien esku-aldatzea (OIA-050/004)

Mende hasieran, Arditurriko meategia frantsesen eskuetan zegoen, eta, I. Mundu Gerra etorri zenean, dena zegoen bezala utzita alde egin zuten. Handik

14 urtera, Real Compañía Asturiana hartu zuen. Frantsesek burdina ateratzen zuten, eta, asturiarrek, zinka.

512. Kaputxinoetako kargadorea eta aurrerapenak (OIA-050/005)

Arditurritik Pasaiara eramaten zen mea. Kaputxinoetan kargatzen zen itsasontzietara, atzerrian saltzen baitzuten dena. Frantsesek egindako azpiegituraz baliatu ziren asturiarrak. Asturiarrek ekarri zuten aurrerapena konpresoreak izan ziren, aurretik mazekin aritzen baitziren, eskuz.

513. Meategiak itxi zirenekoa (OIA-050/006)

Gazte asko soldadutzatik libratzeko hasten zen meategietan lanean. Jose ere halaxe hasi zen, eta meategiak itxi arte, bertan aritu zen, 26 urte denera. Meategia itxi zenean, bera nahiko ongi gelditu zen, erretiroa gertu zuelako, baina gazteek Legorretara eta Torrelavegara joan behar izan zuten. Askok ez ziren ausartu kanpora joaten eta bertan gelditu ziren, lanik gabe.

514. Etorkinak (OIA-050/007)

70 langile ziren meategiak itxi zirenean. Askok kanpokoak ziren eta barrakoietan bizi ziren: andaluziarrak, galiziarrek, santandertarrak, portugaldarrak... Galiziarrek ikasten zuten euskaraz, baina andaluziarrek ez.

515. Meategiak itxi bai, baina materiala ahitu ez (OIA-050/008)

Kanpoko langile asko barrakoietan egoten zen eta familia zuten asko Altzibarren jarri ziren bizitzen. Meategiak itxi zirenean, kanpotarrak errazago joan ziren beste meategietara, baina bertakoentzat oso gogorra izan zen. Urtebete lehenago-edo jakin zuten meategia itxiko zutela. Ez zen errentagarria. Meategiak ahitu omen ziren; urrutitu bai, baina ahitu ez. Zenbat planta zeuden. Meazuloak nolakoak diren. Beroa.

516. Zazpi ordu lurpean (OIA-050/009)

Lehendabizi bi txandatan egiten zuten lan, baina gero zazpi ordu segidan aritzen ziren zuloatik atera gabe. Etxera lehenago joaten ziren, baina gorputzarentzako txarra zen. Langileak bi taldetan zeuden banatuta: barruan aritzen zirenak eta kanpoan aritzen zirenak.

517. Arditurriko arduradunak (OIA-050/010)

Josek oso ongi ezagutzen zituen zoko guztiak eta fakultatiboari laguntzen aritzen zen, topografiatzen. Nagusiak ez zituzten ezagutzen. Arduradunak agertzen ziren tarteka meategietara. Oiartzungo kalean bizi ziren: bi fakultatibo, ingeniaria eta kimikoa.

518. Zator lana (OIA-050/011)

Topografoak prezisio ikaragarria zuen; zatorraren modukoa omen zen. Burdin bat jartzen zuen lurrazalean bi kilometrotara-edo, zuloa egiten hasi, eta, janez-janez, burdineraino iristen ziren, batere deskuidurik gabe. Meazuloa nola egiten zen. Hika.

519. Lan arriskutsua (OIA-050/012)

Zinkaz gain, beruna eta kobrea ere ateratzen zen. Azidoekin aritzen ziren langileak ahotik odola zeriela egoten ziren. Zulo barruan ere langile asko hiltzen zen, olio erreak botatzen zuen kearekin. Lantegi aukera askorik ez zen orduan: mendia edo meategiak.

520. Alargunen miseria (OIA-050/013)

Alargunek ez zuten ezer kobratzen hasieran. Gero hasi ziren zer edo zer jasotzen. Senarra meategietan hil zitzaion ama bati semea ere meategietan hasi zitzaion, beharrak eraginda. Lan zikina eta arriskutsua zen.

521. Mea garraioan (OIA-050/014)

Meazuloetako eta labaderoko langileez gain, gehiago ere bazeuden: trenbideen mantenua egiten zutenak eta makinistak, esaterako. Mea asko garraiatzen zen; trenak bi bidaia egiten zituen egunean. Labaderoan harria txikitu eta azidoekin nahastuz mea ateratzen zen.

522. Istripuak (OIA-050/015)

Azidoak eta keak gaixotu egiten zuen langilea, eta, horretaz gain, istripuak ere izaten ziren.

523. Harri gogorra (OIA-050/016)

Lur-jausi gutxi egoten ziren, granittoa gogorra izaki. Joseren garaian, makinekin aritzen ziren, baina lehen eskuz, mazekin.

524. Leherketak (OIA-050/017)

Lehergaia nola jartzen zen. Esku-palarekin kargatzen ziren bagoiak. Azkeneko lau urteetan ekarri zituzten makinak materiala kargatzeko. Dinamita zainduta egoten zen, lapurtzeko beldurrarengatik.

525. Beroa (OIA-050/018)

Meazulo asko daude Arditurrin, bakoitza bere izenarekin. Luzeenak bi kilometro ditu, abantzean, galerietan kilometro asko baitaude. Bero handia egiten zuen barruan eta tximiniak egin behar izaten zituzten haizea sartuko bazen.

526. Ur pila (OIA-050/019)

Mendi barrutik ur asko sortzen da. Ur bonbek gau osoan martxan egon behar izaten zuten, hurrengo egunean aritu behar zuten galeria hustuko bazen. Barruan hainbeste ur sortuta ere, eta erreka zulora sartuta ere, hala ere, sei hilabete behar izan ziren zuloa urez betetzeko.

527. Fabrika zaharra (OIA-050/020)

Arditurri zuloz josita dago. Olatxe baserriaren ondoan, fabrika zaharra deitzen diotenaren arrastoak daude. Haren ondoan dagoen tunela olarena da, ez da meazuloa.

528. Erromatarrek Arditurrin (OIA-050/021)

Erromatarrek lan asko egin zuten Arditurrin. Beruna ateratzen zuten. Oraindik badaude arrastoak. Beraiek urratu zituzten asko. Suarekin lehertzen zuten materiala. Hika.

529. Meazulo handiak (OIA-050/022)

Sei hilabete pasatu zuen urak zuloak betetzen. Oiartzungo eliza sartzeko adinako zuloak nonahi daude.

530. Ilunpetan lanean (OIA-050/023)

Kintaraino, argindarra jarrita zegoen; handik behera lanpararekin ibili behar izaten zuten. Ilunpetan lanean, begiak asko nekatzen ziren.

531. Lan baldintzak (OIA-051/002)

Arditurrin urtean bi buzo bakarrik ematen zizkieten lanerako. Garbigailua hondatu egiten zen buzoetan ekartzen zuten mearekin. Lan baldintzak: oporrak, txandak. Hika.

532. Lanpostuak (OIA-051/004)

Arditurrin, langile bat egun guztian engrasatzen aritzen zen, ehun motor baino gehiago baitzeuden. Beste bat botiketan aritzen zen.

533. Arditurriko mugimendua (OIA-051/006)

Arditurriko meategietan mugimendu handia izaten zen. Langileez gain, jantokira eta kantinara etortzen ziren hornitzaileak ere asko ziren.

534. Arditurri ixtearen arrazoiak (OIA-051/008)

Mea ahitu zela eta plastikoa konpetentzia gogorra zela jarri zuten aitzakia Arditurri ixteko, baina Josek dio garai hartako egoera politikoak izan zuela eragin nabarmenena.

535. Arditurriko meategien eragina (OIA-051/010)

Askori ematen zien jaten Arditurrik: kantinara ekarri behar zen jeneroa banatzen zutenei, makinentzako piezak ekartzen zituztenei, kamioi enpresari, Pasaiaiko portuari...

536. Estella (OIA-051/012)

Arditurriko meategietatik ateratzen zen mearen zati bat erabilgarria zen, baina gainerakoa hondakina zen. Labadoretatik ateratzen zen estella Ordokoren azpialdeko txokoan pilatzen zuten. Uholde garaietan estella hori Oiartzun errekarara isurtzen zen eta ondoko baratzetan sartzten zen. Horrek lurra antzutzen zuen.

537. Toki arriskutsua (OIA-051/014)

Meategietan ezin zen sartu, langile batekin ez bazen. Josek askori lagundu dio meazuloen barrura: erakusteko, eta baita txakur bat ateratzeko ere. Hika.

538. Zinka bilaka (OIA-051/015)

Zundaketak nola egiten ziren. Kabilarekin neurtzen zen. Zinka betetan egoten da, granito tartean. Zuloen izenak.

539. Lan istripua (OIA-051/016)

Otsamantegiko zuloan ari zirela, uholdeak izan zituzten eta urak galeriaren ahoa bete zuen. Tximini batetik atera behar izan zuten. Larri ibili ziren.

540. Lana, alferrik (OIA-051/018)

Meategietan lan asko egiten zen alferrik. Zuloa egiten hasi eta batzuetan zinka aurkitzen zen, baina beste batzuetan ez. Zundaketak egiten ziren, baina batzuetan ez ziren ongi ateratzen.

541. Granitozko lur azpiko mundua (OIA-051/019)

Aiako Harrian San Anton alderako norabidean egindako galeriak daude, azpitik. Beste alderaino pasatu gabe, baina arrimatuak. Meazuloak arriskutsuak dira tximini asko daudelako beherantz, baina ez dago lur-jausi arriskurik, granittoa gogorra izaki.

542. Nahiko ur (OIA-051/021)

Menditik ur asko sortzen zen, eta, udaran, erreka ura eskasten zenean, tresneria mugitzeko erabiltzen zuten meazuloetatik ateratzen zen ura.

543. Arditurri ongi ezagutzen (OIA-051/022)

Josek ongi ezagutzen ditu Arditurriko meategiak. Gaur egun ere jende askori aritzen da haiek ezagutarazten, baita ikasleei ere.

544. Ura ateratzen (OIA-051/025)

Mendiak ur asko sortzen zuenez, meazuloak azkar gelditzen ziren urpean. Egunero egoten ziren ura bonbeatzen eta horretarako ere langile bat zeukaten. Hika.

545. Maistrak (OIA-053/001)

Klaketa. Arroxaren familian maistra asko egon dira: izeba Maria eta bere ahizpak, Martxeli eta Xixili. Tornolako hurrei irakasten zieten Santander baserrian.

546. Etorkinak (OIA-053/002)

Erdaraz gerran ikasi zuten, etorkin asko etorri baitzen, eta euskara galarazita zegoen. Etorkin asko hartzen ziren etxeetan 'derecho cocina' deitzen zen eran. Hika.

547. Apopiloak (OIA-053/003)

Berak 11 seme-alaba zituen, eta, hala ere, familia bat hartu zuen apopilo. Etorkinak ziren eta gaua kanpoan pasatu behar zuten, bestela. Bere gelan sartu zituen eta berak lurrean egin zuen lo. Baina asko estimatu zion emakumeak; geroztik tratua izan dute beti. Hika.

548. Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona (OIA-053/005)

Arroxa beti saiatu izan da jendearekin ongi eramaten eta behar duenari laguntza ematen. Hika.

549. Etxearen jabe (OIA-053/007)

Etorkinek hasieran oso gaizki pasatu zuten; ezer gabe etorri ziren. Batzuetan etxeetan hartzen zituzten, baina beste asko txaboletan jarri ziren bizitzen. Gero hasi ziren beren etxeen jabe egiten, eta euskaldunak ere orduantxe hasi ziren etxea erosten. Ordura arte gehienak maizterrak ziren, etxe aldeko seme-alaba batzuk kenduta.

550. Bestek egindako ezkontzak (OIA-053/009)

Lehen, bestek egindako ezkontzak asko izaten ziren. Ezkondu eta harreman okerra bazen ere emakumeak jasan egin behar zuen, senarraren mende bizi baitzen. Emakumea kanpoan lanean hasi zenean aldatu zen egoera. Hika.

551. Pretendiente lesakarra I (OIA-053/010)

Arroxak pretendiente bat eduki zuen, gero bere senarra izango zena ezagutu baino lehen. Lesakarra zen eta San Antonen ezagutu zuten elkar. Eskutitz asko idatzi zizkion Arroxari, baina hau gaztea izaki eta ez zegoen hartarako. Urteetara, mutil haren semea ezagutu du. Hika.

552. Pretendiente lesakarra II (OIA-053/011)

Arroxak pretendiente lesakarra eduki zuen. Eskutitzak idazten zizkion elkarrekin egoteko, baina Arroxak ez zion kasurik egiten. Behin beste neska batekin ikusi zuen eta orduan pena hartu zuen. Hika.

553. Enplegatutakoarekin ezkondu (OIA-053/012)

Berak 18 urte zituen eta orduan ez zuen mutilik buruan. Orduan, enplegatutako batekin ezkontzea gauza handia zen eta bere gizona hala zen.

554. Amatasuna (OIA-053/014)

15 urtean eduki zituen 11 seme-alaba. Denak batera jaio eta denak batera hazi. Okillegiko amonarekin eduki zituen.

555. Okillegiko partera (OIA-053/016)

Okillegiko amona Maria aritzen zen han inguruan partera lanetan. Arroxak harekin eduki zituen bere seme-alabak. Alaba batekin odol asko galdu zuen, baina bizkortu zen, hala ere. Oilo-salda hartzen zuten bizkortzeko. 40 egun etxetik atera gabe egon behar zen, eta teila buruan hartuta atera behar zen. Artikutzan egiten zuen eliza-sartzea. Hika.

556. Etxean jaio (OIA-053/017)

Erditze guztiak ezberdinak dira. Orduan ez zen ospitaleetan jaiotzen. Bazegoen "Clinica Pilar"-edo, baina gehienak etxean jaiotzen ziren, praktikantea etxera ekarrita. Urruti bizi zirenak parterekin moldatzen ziren. Lehen haur asko hiltzen zen.

557. Osasuna eta zahartzea (OIA-053/018)

Medikuntza aldatu egin da. Pulmonia bakarrik zekiten. Gainerakoan, ez zen begiratzen ez tentsiorik, ez azukrerik... Orain lehen baino zahar gehiago daude. Lehen etxean zaintzen zen zaharra.

558. Arragua aldatua I (OIA-053/020)

Arroxa orain dela 50 urte-edo etorri zen Arraguara: etxe gutxiago, taberna gehiago, autopistarik ez... aldaketa asko. Hika.

559. Arragua aldatua II (OIA-053/021)

Taberna bat zegoen eta hura itxi zuten. Behekoak ere itxi dituzte. Erosketak egiteko kalera igotzen ziren. Hika.

560. Arragua aldatua III (OIA-053/022)

Arragua goia eta behea. Toki politagoa zen lehen, baina bera gazteago izanda ere ez litzateke beste inora joango. Hika.

561. Auzoko haurrak zaintzen (OIA-054/005)

Haur-zaintzen aritzen zen eskolatik aterata. Elkarri laguntzen aritzen ziren. Orduan ez zen diruan pentsatzen.

562. Gaztetako ibilerak (OIA-054/006)

Bilerak: Altzibar, Errenteriako zumardia, Touring...

563. Gaztetasuna (OIA-054/007)

Oso kontent ibiltzen ziren gazte denboran: Txikierdiko bilera, Monondi... bizikletan ibiltzen ziren.

564. Ugaldetxoko pelukera (OIA-054/008)

Txikitatik gustatu izan zitzaion ile-apaindegia. Errenterian hasi zen lanean eta ikasten batera, 14 urtetatik 18 urte bitartera. Gero etxean jarri zuen ile-apaindegia.

565. Bartzelonan (OIA-054/009)

Bartzelonan eman zuen hilabete pelukeria ikasten. Garai hartan emakume bat hainbeste denboran etxetik hain urruti egotea ez zen ohikoa, baina Bartzelonan auzokoak edukiki.

566. Ile-apaindegia eta behiak (OIA-054/010)

Errenterian lanean hasi arte ez zuen telefonorik ikusi eta asko kostatu zitzaion ohitzea. Etxean ile-apaindegia jartzeko behiak tokiz aldatu zituzten eta haien marruekin aritzen zen lanean.

567. Profesionala (OIA-054/012)

Errespetu handia eduki izan dio beti ofizioari eta baita bezeroari ere. Ikasi zuen lekuan halaxe irakatsi zioten eta berak ere halaxe egin izan du beti: Ikusi, entzun eta isildu.

568. Ile-apaindegi gutxi (OIA-054/014)

Ugaldetxoko ile-apaindegia ireki zuenean, bera izan zen lehenengoa auzoetan, eta Oiartzungo kalean bi besterik ez zeuden.

569. Emakumearen independentzia ekonomikoa (OIA-054/016)

Emakumea lanean hasi zenean, ile-apaindegira gehiago joaten hasi zen. Bere bezeroak Oiartzun guztikoak ziren, eta baita kanpokoak ere.

570. Orrazkerak (OIA-054/018)

Orrazkerak asko aldatu dira denborarekin. Lehen gehiena luzea eramaten zen: mototsak eta kardatuak. Lan handia eskatzen zuten orrazkerek.

571. Fabriketako emakume gehiago ile-apaindegian (OIA-055/002)

Ile-apaindegira fabriketan lan egiten zuen emakumea etortzen zen gehiena. Baserritarrak gutxiago etortzen ziren.

572. Ile luzetik motzera (OIA-055/004)

Ordura arte, emakumeek ile luzea eramaten zuten, mototsean bilduta. Gero hasi ziren mozten. Gogoan du amona bati zer pena eman zion ilea mozteak.

573. Aldaketak orrazkeran (OIA-055/005)

Ile-apaindegian hasi zenetik hona, estilo aldaketa asko egon dira. Bere garaian, mototsak ziren nagusi, ondekin eta baita kardatuekin ere. Moda berrietara egokitu behar izan zuen.

574. Jendearekin lan egitea (OIA-055/007)

Zaharrek gehiago zaintzen dute ilea. Ilea gauza bizia da. Ez zara patatekin ari; pertsonekin ari zara.

575. Gazte arduradunak (OIA-055/009)

18 urterekin ireki zuen ile-apaindegia. Orain, edade horretan, gazteegiak ikusten ditugu, baina, orduan, ardura eramaten ohitu behar izaten zuten.

576. Ileari garrantzia (OIA-055/011)

Lanik ez zuten emakumeak ere etortzen ziren ile-apaindegira; izan ere, ilea zaindu eta apaintzeko ez ziren zuhurkerian ibiltzen. Lehen orain baino gehiago orrazten ziren. Entierroetara joateko ere ilea txukuntzen zuten.

577. Ugaldetxo: errepideak moztutako auzoa (OIA-055/013)

Azkeneko urteetan Ugaldetxo asko aldatu da. Garai batean errepide nagusia bertatik pasatzeak bizitasuna ematen bazion ere, Oiartzungo industrialde ia guztia bertan egoteak eta trafikoak hartu duen indarrarekin, errepidea arazo bihurtu zaie. Auzotarrek ezin dute auzoan lasai ibili eta auzotarren arteko harremanetan eragina du horrek. Azkeneko urteetan Ugaldetxo ez dela batere zaindu kexatzen da Mañoli.

578. Ugaldetxo: zahartutako auzoa (OIA-055/015)

Lehen Ugaldetxo auzoa oso polita zela dio Mañolik, baina industrialdeekin baserri asko bota zirela eta gelditzen diren etxeetatik asko hutsak daudela. Gazteak auzotik joan egin dira eta zaharrak gelditu dira auzoan. Auzotarrek ezin dute lasai elkartu, toki egokirik ez daukatelako, errepidea baitauka erdiz erdi. Abiadura gaitzean pasatzen da trafikoa, bertan jendea bizi dela konturatu gabe.

579. Lehengo Ugaldetxo (OIA-055/017)

Lehengo Ugaldetxo nolakoa zen: etxe berrien tokian, baratzeak eta zelaiak. Orduan edozein tokitan ibiltzen ziren jostatzen. Beren seme-alabak Txipitonen ibiltzen ziren jostatzen. Ordurako errepide inguruan ezin zen, eta eskerrak han uzten zieten.

580. Zaldi-gurdiak, bizikletak eta ferratokia (OIA-055/018)

Lehen ez zen hainbeste begiratu behar errepidea pasatzeko: esneketariak zaldi-gurdiekin eta bizikletan ibiltzen ziren. Autoak ere ibiltzen ziren, baina orain baino lasaiago. Garrokoek Paradan zeukaten ferratokia ere gogoan du Mañolik.

581. Ugaldetxoko aldaketak (OIA-056/003)

Ugaldetxo asko aldatu da; lehen biziagoa zen. Auzoa hazi egin da fisikoki, baina giroa itzali egin da.

582. Erreka, muga (OIA-057/002)

Maitxoren jaiotetxea, Zabale, Ergoienen dago, eta Enrikerena, Borrondi, Karrikan. Baina eskritura zaharretan Borrondi Ergoienen sartzen zela aipatu digute. Karrikako errekek.

583. Apaiza, larri (OIA-057/003)

Lehen, jaio orduko bataiatzen zen eta entierroak ere garrantzitsuak ziren. Purgatorioa. Enrikek gertaera bat kontatu du entierro baten gainean.

584. Apaizei errespetua (OIA-057/005)

Maitxo esneketara joaten zen astoarekin. Askotan belauniko jarri behar izaten zuen. Makina bat aldiz belauniko jarria da, apaiza pasatu bitartean. Elizara joan ezin zutenei jauna ematen ibiltzen ziren apaizak. Enrike: errespetua apaizari, txapela kendu, berorika...

585. Baserrirako (OIA-057/007)

Enrike gelditzen zen Borrondin. Baserrian, haziendarekin gehiena aritzen zena gelditzen zen ia gehienetan. Inori galdetu gabe bidea hartzen joaten zen.

586. Borrondi baserria (OIA-057/011)

Baserri koxkorra zen Borrondi. Esne nahikoa ateratzen zuten eta garai hartan hori asko zen. Gaztetan lana erruz egiten da. Haserretzeko denborarik ez da izaten.

587. Gaztetan lana eta dantza, biak (OIA-057/013)

Borrondin behiak zituzten, esnetarako behiak. Maitxo baserrian ikasita etorri zen. Elkar ezagutzen zuten. Lehen denek ezagutzen zuten elkar. Bileretara nora joaten ziren: Altzibar, Ergoien eta Txikierridira. Mutilak eta neskak aparte, koadrillan. Auzo askotakoak elkartzen ziren.

588. Soldadutza, Leongo meategietan (OIA-057/014)

Enrikek Leongo meategietan egin zuen soldadutza. Oiartzuar batzuk joanak ziren aurretik, Francoren garaian. Han ikasi zuen erdaraz.

589. Karrikako eskola (OIA-057/015)

Karrikako plazan zegoen eskola. Gero jarri zuten Iturburun. Lehendabiziko maistra euskalduna zen, baina gerran bidali egin zuten. Gero fundamentu kaxkarra egon zen; batzuetan izaten zen eskola, eta besteetan, ez. Azkenean maistra bat etorri zen kanpotik, familia osoarekin.

590. Eskolan, erdaraz (OIA-057/017)

Maistra erdalduna zen eta erdaraz ematen zituen eskolak, baina maistraren alabak ikasi zuen euskara, Karrikako haurrekin ibilian. Maitxo Ergoien Aierdira joaten zen eskolara eta han ere erdaraz aritzen ziren.

591. Aldaketak heziketan (OIA-057/019)

Eskolatik ez zituzten ekartzen etxerako lanak, gaur egun bezala. Zein liburu erabiltzen zituzten. Garai hartan, ikasketak baino garrantzitsuagoa zen dotrina. Baserritarrek ez zuten segitzen ikasten. Maitxo zatiketak ikasi gabe gelditu zen eta ahizpak erakutsi zion gero.

592. Arropa gutxi (OIA-057/021)

Batzuk ez ziren eskolara joaten, arroparik ere ez zeukatelako. Zabalekoek etxetik urrutira joan behar izaten zuten arropak garbitzera.

593. Lanaren truke, eskolak (OIA-057/022)

Enrike Donostian ere aritu zen ikasten. Amak lehengusua jesuita zuen, eta, haren bitartez, Colegio San Ignacion aritu zen. Lanaren truke eskolak jasotzen zituen.

594. Haur langileak (OIA-057/023)

Enrike 15 urterekin hasi zen lanean, Errenteriako paper fabrian. 16 urtera arte ez zen libre gaueko txandan lan egitea, baina osabaren bitartez lortu zuen lanean hastea. Arrebaren bizikletan joaten zen. Lehendabiziko sosekin argia jarri zion bizikletari. Hura bai luxua!

595. Oiartzungo txirrindulariak eta pilotariak (OIA-057/024)

Enrikeren anaia, Joakin, txirrindulari ona zen. Bizkaiko Bira irabazi zuen. Oiartzungo txirrindulariak: Zabaleta, Mitxelenatarrak... Garai batean pilotari ezagunak ere baziren herrian.

596. Pilota (OIA-057/026)

Xanistebanetako pilota partidak. Pilotariak.

597. Aurrezki kutxara beharrean, dirua apaizari (OIA-057/029)

Maitxok gogoan du dotrinera joaten zirenean dirua ematen ziotela apaizari. Hark libreta batean sartzen zuen, aurrezki kutxan. Ezkontzean diru hori berreskuratzen zuten.

598. Apaizen indarra (OIA-057/030)

Garai batean, apaizek agintzen zuten herrian. Kongregazioak: baltsean ezin dantza egin. Erreterian denak baltsean, eta hemen denak sueltoan. Herrian, garai hartan, zazpi bat apaiz baziren. Izenak.

599. Dantzazaleak, kaxkarinak (OIA-057/031)

Baltsa nork dantzatzen zuen esateko txibatoak bazeuden. Dantzan ibiltzen zirenak 'kaxkarinak' ziren. Ez zen bikotea izan beharrik dantza egiteko; aurretik ere eskatzen zen. Ezetz esaten zuten neskak ere baziren.

600. Kaletarrak eta baserritarrak (OIA-058/003)

Kaletarrekin borrokan ez hasteko esaten zien aita, malizia handia izaten zutela haiek eta. Hika.

601. Errezoan (OIA-058/007)

Apaizak esandakoa bete behar izaten zen. Arrosarioa lanak egiten ari zirela errezatzen zuten: hostattikiyak lotzen, artazuritzen... Gaur egun, Elizak ez du hainbesteko indarra.

602. Heziketa etxetik hasten da (OIA-058/010)

Lehen, ttikitatik, etxetik, hasten zen heziketa. Enrike ez da gogoratzen aita jo zuenik, baina hark hitz bat esan orduko errespetua jartzen zuen.

603. Berorika, zuka, hika (OIA-058/011)

Helduei errespetu gaitza izaten zitzairen. Asko ziren aitona-amonei berorika aritzen zirenak. Apaizei ere berorika. Hika-zuka-berorika.

604. "¡Alto! ¿quién vive?" (OIA-058/018)

Gerra hasieran, Zabale hartu zuten tropek, eta Zabalekoak Emietara joan ziren, familiakoak baitzituzten. Baina Emieta inguruan, Arritxurietan ere bazeuden soldaduak. Haien ingurutik pasatzerakoan, "¡Alto! ¿quién vive?" oihu egiten zieten, eta hauek 'Español' esan, eta aurrera. Galbariomenditik etorri ziren tropak.

605. Baserria galtzen (OIA-059/002)

Lehen, esnearekin bakarrik ateratzen zen etekina. Gaur egun, irabazirik ez da, eta, gainera, galdu egiten da. Lehen, baserritarrak agintzen zuen erostunarekin; orain, alderantziz.

606. Jateko ohitura aldaketak (OIA-059/004)

Lehen ez zen tomate gordinik jaten entsaladan. Enriquek soldaduskan ikasi zuen tomatea jaten. Hemen ez zen jaten; tifusa ematen zuela uste zuten. Soldaduek arbia ere jaten zuten.

607. Baserrian, lan eta lan (OIA-059/006)

Lehen, pentsua baserrian bertan egiten zen. Errejilloia. Hazienda ongi zaintzen zen; ahal zen onena ematen zitzaion. Lan asko egin behar zen. Lehen, baserriarrak ez ziren etxetik atera ere egiten.

608. Karrika: baserri auzoa (OIA-059/008)

Baserri oneko alabek ez zuten nahi izaten zakotearekin lanera joaten zen senarrik, baina beraiek ere lan pila ederra egin behar izaten zuten. Karrikan baserri asko zegoen garai batean. Enriquek esaten du hemendik hamar urtera ez dela alerik geldituko. Karrikan zenbat esne ateratzen zen.

609. Arraskuerrota (OIA-059/010)

Arraskuerrotan irin ona egiten zen. Pentsua ere saltzen zuten. Gerraren ondoren errotak itxi zituztenean, Arraskuerrotako gizonak asmatu zuen gordean irina egiteko sistema, baina harrapatu egin zuten. Arraskuerrotakoa, Borrondikoa... Hernioko gurutzea jartzen aritu zirenetakoak ziren.

610. Lan bikoitza (OIA-059/012)

Garai bateko amonek lana erruz egin behar izaten zuten etxeko lanak egiteko. Taloak egiteko bakarrik: aurretik ura ekarri, egurra garraiatu, beheko sua piztu...

611. Presondo eta Etxetxo (OIA-059/014)

Karrikako taberna eta dendak: Presondo eta Etxetxo. Gerra garaian, bietan izaten zen bilera.

612. Itzainak (OIA-059/015)

Itzain asko ibiltzen zen Karrikan. Lorra: egurra arrastaka ateratzen zen menditik. Itsasontziak egiteko pertika luzeak ateratzen zituzten. Pertika bat ateratzeko, zortzi idi pare: bertsoak jarriak. Itzainak nor ziren. Gertaera: bi behi pare, bakoitza bere gurdiekin, etxera bidali zituzten jabeek, eta beraiek tabernan geratu ziren goizaldera arte. Arlepoko meategiak.

613. Errepiderik ez (OIA-059/017)

Lehen, behia eta gurdiekin asko ibiltzen ziren. Iruinabarrenekoek halaxe ekartzen zuten jeneroa Donostiatik. Errepiderik ere ez zegoen. Artikutzakoa gerra aurretik egin zuten. Enrikeren aita aritu zen bertan lanean.

614. Atsolorra (OIA-059/018)

Enrike gogoratzen da Borrondin norbait jaiotzen zen bakoitzean ospatu egiten zela: atsolorrarekin. Aranburuko izeba: zikiratzailea, partera, hildakoak janzen zituena, odolkiak egiten zituena... Esku onekoa zen.

615. Aurrerapena (OIA-059/020)

Enriquek dio beren aitona-amonetatik gurasoetara aldaketa gutxi egon zela, baina gurasoetatik beraietara bizimodua arrunt aldatu dela. Lehen, fabrika ale batzuk zeuden. Emakumeak ere joaten ziren lanera, baina ez zegoen industria asko. Gehiago zen basogintza, harrobiak, igeltserotza, ikazgintza... Txondorrak gogoan ditu eta baita mandozainak ere ikatza garraiatzen. Artikutzako bidea egin aurretik, Zaldingo bidetik ibiltzen ziren.

616. Zorrolako tren (OIA-059/022)

Donostiako Udalak erosi aurretik ere jende asko ibiltzen zen Zaldingo bidetik Artikutzara. Beraiek ez zuten Zorrolako tren ezagutu, baina gurasoek, bai. Trenbidea Pikabenea jauregikoena zen, aberatsak izaki.

617. Paper fabrika (OIA-059/024)

Enrique urte askoan aritu da Errenteriako paper fabrikan lanean. Oraindik haurra zela hasi, eta erretiratu zen arte. Erreforma handien lekuko izan da; kanpora joan behar izan zuten makina berriak ezagutzera.

618. Aldaketak industrian (OIA-059/026)

Paper fabrika Euskal Herriko enpresa zen hasieran, baina gerraren ondoren, Papelera Española izendatu zuten. Lehen, eskulan gehiago zuen, baina, makinak sartzen joan diren heinean, langileak erdira murriztu dira. Lehendabiziko jornala gogoan du Enriquek: zazpi duro eta bi pezeta. Astean kobratzen zen.

619. Greba (OIA-059/028)

Hamar eguneko greba gogoan du Enriquek. Urte pila bat eduki zituzten soldata igo gabe. Guardia Zibilak etorri zitzaizkion etxera, lanera joatera behartuz. Sindikalak hasi ziren mugitzen eta orduan mugitu zen jornala.

620. Motoa, luxua (OIA-059/030)

Beste lantokietan gehiago irabazten zen fabriketan baino. Motoa erostea luxua zen. Herrian gutxik zeukaten motoa; medikuak. Eta automobila ere gutxik; esneketariak eta.

621. Konformidade eta patxada handiagoa lehen (OIA-059/032)

Zailtasun gehiago ezagutu zutelako edo, konformidade handiagoa zuten gure aurrekoek. Beste patxada bat zegoen. Gaur egun, presaka ibiltzen gara.

622. Errege Bidea (OIA-060/027)

Desagertutako baserriak: Larraburu, Aitzolaetxeberri, Etxezarra. Gurutzeko errepeidea benetako errepeidea da, garai bateko Errege Bidea baitzen. Irundik Madrilerako bidea egiten zuten dilijentziek. Hika.

623. Igandean meza eta erosketak (OIA-061/002)

Jende gehiena igandeko seietako mezara joaten zen. Kanean, dendak, ile-apaindegiak eta tabernak irekiak egoten ziren ordurako, orduan aprobetxatzen baitzuten auzoetan bizi zirenek erosketak egiteko.

624. Galdostarren kamioia (OIA-061/003)

Bederatzietako mezara joaten zena alferra omen zen. Baserritarrak goiz hasten ziren lanean; esneketan aritzen zirenak, batez ere. Gurutzeko baserritar gehienek Galdosenera jaisten zuten esnea. Gero, Juanito eta Faustinoen aitak eramaten zuten Donostiara. Beren kamioiak autobus zerbitzua ere egiten zuten.

625. Guardia Zibilak errondan (OIA-061/005)

Guardia zibilak ere Galdostarren kamioian igotzen ziren Gurutzera, erronda egitera. Arraguan garita zegoen eta han egiten zuten erreleboa.

626. Juanitok apustua irabazi (OIA-061/006)

Gaur egun baserri gehienetara pista dago, baina garai batean bide eskasak izaten ziren. Altzitik Gurutzera estrata zegoen, baina malda handikoa. Behin apustua egin zuen Juanitok, eta aitaren kamioiarekin igo zen.

627. Aireplanoa zela uste (OIA-061/008)

Altzira ez zen behin ere automobilik igo, eta, Juanito kamioiarekin igo zenean eta hango argiak ikusi zituztenean, uste zuten aireplano bat erori zela. Estrata txarra zen, baina hegoa zegoenez, lehorra zegoen. Hika.

628. Apustu kontuak (OIA-061/010)

Juanitok apustua nondik nora atera zen kontatu digu. Kamioia aitarena zen eta kezkatuta egon zen hura, leihotik begira, semeak zer egiten zuen erne. Hika.

629. Baserritik kanpo, lan gutxi (OIA-061/011)

Lehen ez zegoen hainbeste lantegi eta baserritik atera behar izaten zen dirua, esnetik batez ere. Meategietan ere aritzen ziren batzuk. Tiburtzio, esaterako, Arditurrin aritua da eta baita San Narzison ere. Hika.

630. Argindarra eta Kukullu (OIA-061/012)

Etxe gutxitan zegoen argindarra, eta, zegoen tokian instalazioa txarra zenez, askotan joaten zen argia. Kukullu irundarra aritzen zen Gurutze aldean argindarra jartzen. Pikoketan haizearekin ere jarri zuen. Hika.

631. Ura igotzeko beleak (OIA-061/014)

Argindarraren instalazioak kaxkarrak ziren. Etxeetara ura igotzeko beleak jarri ziren. Oraindik ere badabiltza Gurutzen. Ergoiengo Simoneko Angel Artolak jarri zituen. Hika.

632. Ura eta sua lortzeko, lan egin behar (OIA-061/016)

Lehen ez zegoen ur-korronterik etxeetara. Iturritik makina bat ur garraiatu behar izaten zen. Beheko sua izaten zen etxe gehienetan. Gero hasi ziren su ekonomikoa jartzen. Otaxa: suak pasatako egurra. Taloa nola egiten zen. Hika.

633. Aurrerapenak (OIA-061/017)

Gurutzeko lehendabizikoetako telefonoa Galdosenen jarri zuten. Ertxingo amona penatan, beheko sua kendu eta ekonomikoa jarri zutenean. Hika.

634. Bilerak nonahi (OIA-061/018)

Toki askotan izaten ziren bilerak. Ezagunenak Altzibar eta Txikiardikoak ziren, baina baserri askotan jotzen zen soinua; Pikoketan eta Amezketan, esaterako. Irunen: Xorruene, Estebene eta Katean... Galdostarren osabak, Borreiak, toki askotan jotzen zuen soinua. Neska kontuak. Pallakatu. Hika.

635. Sorgin txiki (OIA-061/020)

Sorgin txikiren kontua. Maindire batekin ateratzen zen baten bat, eta harrapatu egin zuten. Atorrante bat. Otarre-xestua. Hika.

636. Harrikalariak: garai batean bai (OIA-061/022)

Oiartzuarrek harrikalarien fama dugu. Gure gurutzetar hauek ez ziren haserretzen kanpokoekin; ez ziren harrika aritzen. Garai bateko kontuak omen.

637. Kontrabandoa: ibilbidea (OIA-061/023)

Tiburtzio eta Santos kontrabandoan ibiliak dira. San Antondik -Lesakatik-etortzen ziren, kanaletik barrena. Bi etapatan egiten zuten: lehendabizi Gurutzera eta gero Gaintxurizketara. Paketeak kendu izan dizkiete. Hika.

638. Kontrabandoa: zer pasatzen zuten (OIA-061/024)

Santos ez zuten behin ere harrapatu; zortea izan zuen. Batzuek zintzo ordaintzen zuten, eta besteek, ez. Zer ibiltzen zituzten: puntillak, koloniak, iratzargailuak,... Automobilaren pieza asko. Ardi-larruak ere bai, Frantzia aldera. Baina gehiena handik hona. Hika.

639. Mendinzarreko eskola (OIA-061/026)

Arraguako Mendinzarren eskola zen. Han ibili zen Santos. Bidea egiteko bota zen Mendinzar. Hika.

640. Ameztietan eskola (OIA-061/028)

Ameztietan eskola edo dotrina ematen zuen bertako amonak.

641. Eskerrik asko'. 'Sango yogu'. (OIA-061/030)

Oiartzunen 'eskerrik asko' esan eta askotan erantzuten dena: "Sango yogu". Alegia, "ez horregatik" esatea bezala da.

642. Korrikalari apustua (OIA-061/031)

Apustuzaleak ditugu gurutzetarrak; koadrilla hau bai, behintzat. Altzin barrikotea egin eta agudo atera zen apustua.

643. Taloa eta ogia (OIA-063/006)

Gorriak ikusia da Inaxiren ama. Gaur egun taloak egiten ezagutu du jende askok. Izan ere, gaztetatik hasi zen Inaxi taloak egiten. Ogia ere izaten zen, errazionamenduan banatzen zutena, baina ez dakit zer baino gogorragoa. Irina Nafarroatik ekarri behar izaten zen.

644. Nafarroara irin bila (OIA-063/007)

Manuel gogoratzen da arto irina Nafarroatik ekartzen zutela. Taloa egiteak lan handia zuen, eta hura ere ez zen sobera izaten, irina falta izaten baitzen. Gosea kentzeko, artoa txikitu eta esnearekin egosiz jaten zuten. Ttentteka jarri. Surtan.

645. Galtzerdi txuriak jantzi nahi (OIA-063/009)

Josten Ollokinen ikasi zuen. Galtzerdiak eta oinetakoak eskas ziren orduan eta galtzerdi txuriak mezarako bakarrik izaten ziren. Baina Inaxik galtzerdi txuriak

jantzi nahi eta haren peripeziak! Puntua nerez ikasi nun, libru ta beira. Ni izandu nitzan ollanda bat. Holaz. Hika.

646. Blusa josten, gordeka (OIA-063/010)

Anaiaren alkandorarekin beretzako blusa bat egin zuen Inaxik. Amaren gordean egin zuen. Zipiztu.

647. Goiz erretiratu behar (OIA-063/011)

Ezkongai zeudenean, Manuel Inaxik lanak bukatu zain egoten zen. Inaxi berandu erretiratzen zen dantzalditik eta etxean zigorra izaten zuen zain. Garai hartan, 10etarako etxean egon behar zen.

648. Nobio kontuak (OIA-063/013)

Bileratik berandu joaten zelako, amak afari gabe uzten zuen. Inaxiren amak ez zion uzten bikoteari bakarrik egoten. Inaxik bost edo sei mutil izan zituen Manuelen aurretik.

649. Nobio zuhurra (OIA-063/015)

Nobio batek ezkontzeko eskatu zion Inaxiri, baina mutil zuhurra zela eta, utzi egin zuen.

650. Atxarraztalua sufiziente ibiliko duen emakumea behar (OIA-063/017)

Beste nobio batek ere ezkontzeko eskatu zion eta Inaxik ea zein baldintza jartzen zion galdetu zion. Mutilak halaxe erantzun zion: atxarraztalua sufiziente ibili behar zuen emakumea behar zuela. Hura ere utzi egin zuen Inaxik.

651. Nobio gezurtia (OIA-063/019)

Inaxiri nobio batek gezurra esan zion, eta utzi egin zuen. Aurretik oparitutako ordularia ere itzuli zion; mila puska eginda, baina baita itzuli ere.

652. Elkarrekin hasi zirenekoa (OIA-063/020)

Manuelekin nola hasi zen. Tolosara joan ziren, inauterietara. Ordularia oparitu zion Manuelek.

653. "Adoración nocturna" (OIA-063/021)

Manuel "Adoración nocturna" eliza taldekoa zen. Erreteriarara jaitsi eta gaua elizan pasatzen zuten. Ehiztariak eskopetarekin joaten ziren goizeko lauretan. Herniora asko joaten ziren, trenez eta autobusean. Lehendabizi, oinez ibiltzen ziren, eta, gero, bizikletan. Hika.

654. Zamalbidetik Erreteriarako bidea (OIA-063/022)

Erreteriarara oinez ibiltzen ziren, Zamalbidetik. Bide eskasak ziren. Alpagatekin joan eta kalean zapatak jantzi. Astoa ere trabatuta gelditzen zitzairen. Asto bat ito egin zen, gainera. Bidea konpontzen hasi ziren, baina gerra etorri eta bertan behera gelditu zen. Gero, Lapaza medikua alkate jarri zenean, errepidea egin zuten.

655. Gerra garaiak (OIA-063/023)

Inaxi justuan atera zen bizirik gerran. Arropak zabaltzen ari zela, Munuanditik tiro egin zioten. Zentimetro batzuegatik libratu zen. Soldaduek baserritik dena eramaten zuten. Ezin zen ezer esan. Udaletxean entregatu ere egin behar izaten zen, eta, etxean, goseak. Manuelen etxetik 16 oilasko eraman zituzten. Hainbeste lan eta penarekin, beharko igandeetan dibertitu.

656. Bilerak non-nahi (OIA-063/025)

Frailenean bilera egiten zen. Alpargatak ederki urratzen zituzten dantzan. Unzaskon ere jotzen zuten soinua, Listorreta inguruan. Garai hartan ez zeuden orain bezalako aurrerapenak, baina jendea enteratzen zen dantza non izaten zen.

657. Baserrian beti lana (OIA-063/027)

Manuel ere aritzen zen baserrian lanean, lantegitik etorruta. Belarretan, artajorran, behiak jaisten, azpiak ateratzen, arrosarioa errezatzen... Nahikoa esne ez sukaldean, eta errapetik ahoko zulora. Baserria lotua da. Inaxiri gehiena hazienda zaintzea gustatzen zitzaion.

658. Hazienda pallakatu (OIA-064/001)

Hazienda gobernatzea ez zen jaten ematea bakarrik: garbitu ere egin behar izaten zen. Eskuilarekin garbitu ondoren, animalia goxatu egiten zen, pallakatu, eta animaliak eskertu egiten zuen.

659. Iratzetan (OIA-064/002)

Behien azpitarako iratzea ekarri behar izaten zen. Lan handia zuen. Egun guztia hartan aritu eta gero ere eguneko betiko lanak egin behar izaten ziren. Iratze-lekuak non zituzten. Toponomia: Unzasku, Listorreta, Urdau (urdaburu), Malbazar... Segan aritzea emakumeentzat gogorra zen.

660. Etxean eta kanpoan lanean (OIA-064/004)

Manuel lantegitik etorruta ere baserrian lanean aritzen zen, eta askotan, baita auzolanean ere.

661. Esnari ura (OIA-064/006)

Behin, xanistebanetan, postrea prestatu zuen Inaxik. Marmitatik esne pixka bat hartu, urarekin bete, eta arroz-esnea egin zuen familiarentzat. Baina aita haserretu egin zitzaion, esnari ura botatzea bekatua omen. Txantxilla. Atetzen tzeian.

662. Zer jan, huraxe eman (OIA-064/008)

Aguazilak baserritarrak zaintzen aritzen ziren; esnari ura botatzea galarazita zegoen. Ur pixka bat botaz gero ez da nabaritzen. Haurrentzat ere ura botatzen zitzaion behi-esnari; bestela, lodiagia izaten zen. Behi guztiek ez dute esne berdina ematen. Lehen, behi zuriak ziren hemen; esne lodiagoa izaten zuten. Uztarrian dabilen behiak ere ez du esnea hain goxoa izaten. Animaliari zer eman jateko, halaxeko haragia: txerriari ogi asko emanda, gizen gehiegi; giñarra ateratzeko, artoa edo ezkurra. Atak haragia belaka. Oiloari artoa ez bazaio ematen, arrautzak txuriagoak. Bazenekizun.

663. Haziendaren gobernua (OIA-064/009)

Garai batean, hazienda ongi gobernatzen zen; belar asko egiten zen. Orain pentsua ematen zaio. Oiloak kaiolan arrautzak azkarrago egiten ditu, baina kanpoan dabilenak arrautza hobea.

664. Baserritik lantegira (OIA-064/011)

Manuel arotza da. Laneran ikasi zuen arotz. Soldadutzaren ondoren, San Pedroko astilleroeta joan zen. Barkuan arotza behar zela-eta joan zen, baina itsasoan mareatu egiten zen. Gero hasi zen Luzuriagan.

665. Luzuriaga (OIA-064/015)

1960an, 3.000 langile zituen Luzuriagak. Makinak sartu zirenean, langileak kanpora. Land Rover-aren motorra egiteko minutu bat pasatzen zen. Makina berriekin, 43 segundoan bost motor egiten ziren. Gero itxi egin zen eta Lasartera joan ziren. Nafar asko etorri zen Pasaia ikastera. Zalantza zuten lantegia edo baserria eta Manuelek esaten zien hobe zutela lantegia. Gero esan izan zioten fabrika hobeto zeudela.

666. 30 hilabeteko soldadutza (OIA-064/017)

Manuelek Burgosen eta Albaceten egin zuen soldadutza. 30 hilabeteko soldadutza. Alfer-alferrik.

667. Konfesioak (OIA-064/019)

Konfesio kontuak. Apaizek matrimonioaren bete-beharrak ongi egiten ziren galdetzen zuten garai batean. Baraua ez hausteko aurpegia garbitzeko beldurrez ibiltzen ziren. Gauzak aldatu dira eta horrela hobeto, dio Inaxik.

668. Baltsa dantzatzea, bekatua (OIA-064/021)

Txikierdin baltsa dantzatu eta txibatoek apaizari esaten zioten. Zigortu egiten zituzten, kongregazioko zinta gabe jauna hartzera, eta jendea esamesaka. Hika. Geok aitzen genittun.

669. Elizaren aldaketak (OIA-064/023)

Inaxik dio jainkoa bera izango dela, baina legeak jartzen dituztenak ezetz. Manuelek erlijioak indar handia zuela dio. Albaceten soldadutzan gertatua kontatu du: mezatan barre egiteagatik tenienteak kargua hartu zion soldaduari. Lehen, haurra hurrengo egunean bataiatu behar zen; orain, hilabeteetara. Inaxiren garaian, haurra eduki eta 8 egun etxetik atera gabe egon behar zen; ateratzekotan, teilarekin egin behar zen. Egin gabetenikan.

670. Desagertutako baserriak Ugaldetxon (OIA-065/002)

Ugaldetxon aldaketa asko egon dira azkeneko urteetan: etxe asko egin dira, errepideak auzo erditik... Industrialdeak egiteko baserri asko bota ziren. Zuaznabar errota oraindik zutik dago, baina asko bota zituzten: Palazio, Txoko, Olai, Juansendo, Olazar...

671. Ugaldetxo, lehen (OIA-065/004)

Ugaldetxon orain baino zerbitzu gehiago zeuden garai batean: ferratokia, ile-apaindegia, denda...

672. Etxeen prezioak (OIA-065/007)

Gaur egungo etxebizitzaren prezioak ez du zerikusirik orain dela 50 urtekoekin. Garai hartarako ere garestiak ziren, baina eskuragarriak. Inaxi eta Manuelek gogoan dute auzoko etxe bat 15.000 pezetan (90 euro) jarri zutela salgai.

673. Salataria eta fusilatua I (OIA-065/014)

Emakume batek salatu, eta San Pedroko bat fusilatu egin zuten. Fusilatutakoaren alabari egurra emateko agindu zion Manueli nagusiak. Hezurak atera zituztenean, emazteak ezagutu egin zuen gizonarenak zirela; gerrikoarengatik ezagutu zuen. Fusilatuaren eta salatariaren semeak biak apaizak ziren eta elkar ezagutzen zuten. Kontzientzia astoak jana.

674. Salataria eta fusilatua II (OIA-065/016)

Fusilamendutik ihes egin zuen batek eta baserri batera iritsi zen. Hango emakumeak salatu egin zuen. Ihes egin zuen, baina harrapatu egin zuten falangekoek eta bertan hil zuten. Salatariaren eta fusilatuaren semeak apaizak ziren, eta, elkarrekin zihoazen batean, salatariaren semeak hildakoaren semearekin erakutsi zion aita hil zuten tokia.

675. Senarraren mende (OIA-065/018)

Baziren emaztearen mende bizi ziren gizonak, baina normalean alderantziz izaten zen. Inaxik dio gizonari obeditu egin behar zaiola erakutsi ziotela, baina bera ez zegoen ados horrekin.

676. Ohitura, hika (OIA-066/002)

Hikari buruz: zenbat aritzen diren. Nor nori aritzen zaion. Normalean semeek hika errazago egiten diete alabei baino. Hika.

677. Norekin hika eta norekin zuka (OIA-066/004)

Auzokoekin hika aritzen dira: zaharragoekin zuka, eta edadekoekin eta gazteagoekin hika. Hika.

678. Zaharragoei, zuka (OIA-066/006)

Edadeak markatzen du nori egin hika eta nori zuka. Zaharragoari errespetuarengatik zuka egiten zaio. Neskek gutxiago dakite hika mutilek baino. Hika.

679. Txikiardiko dantzaldia (OIA-066/007)

Neskatxak egin eta dantzaldietara joateko erdaraz ikasi behar izaten zuten. Txikiardi gogoan. Dena bekatua zen eta arrimatzeko beldurrez ibiltzen ziren. Hika.

680. Lehengo kantak eta kontuak (OIA-066/009)

Maillolik hantxe hartu zuen gizona, Txikiardin. Oraingo gazteek ez dakite jostatzen. Joko eta kanta asko ahaztu dira. Kantatzen. Hika.

681. Auzoan jostatzen (OIA-066/011)

Jostaketak: 'ministros y ladrones'. Kantak. Auzoaren goiko aldekoak jaisten ziren beheko aldera, baina behekoak ez ziren igotzen. Hika.

682. Auzoko denak lagunak (OIA-066/013)

Bihurri samarrak ziren. Denak elkarrekin ibiltzen ziren jostatzen. Gurasoak haserretzen ziren batzuetan, gutxitan baina. Senide pila bat zeuden eta auzoen artean ere elkar zaintzen zuten. Hika.

683. Iturriozko festak (OIA-066/015)

Iturriozko kalean ibiltzen ziren jostatzen. Inauterietan txerriak eskapo. Iturriozko festak: zezenak, asto-karrerak, ijito-ezkontza... Kalekoak baino hobeak. Hika.

684. Iturriozko jaiak; haiek bai festak (OIA-066/016)

Garmenditarrak dantzan ateratzen ziren santiyoetan. Titiriteroak ikustera joaten ziren etxetik aulkia hartuta. San Inaziotako desfilea, Oiartzun guztian bueltaka. Antzerkia. Lehen ez zegoen hainbeste aukera eta auzoko festen zain egoten ziren. Aldaketa. Hika.

685. Ilusioa ez da galtzen (OIA-066/017)

Ilusioa ezberdina zen: Kas bat edo gaileta batzuk nobedade ikaragarria ziren. Maillolli datorren saninazioetan zer edo zer egitera animatu da eta ondokoak animatu ditu. Hika.

686. Festak antolatzen (OIA-066/019)

Zer edo zer egin behar dela-eta antolakuntzan hasi dira: asto karrera egiteko badagoela astoa Frantzian (Iturriozko baserria da Frantzia). Bizikleta karrera eta zintena ere aski polita izaten zela. Auzoko jostunak aipatu dituzte; arreoak eta guzti egiten zituzten. Hika.

687. Auzoko bizitza (OIA-066/021)

Auzoan, garai batean, hiru denda zeuden, jende gutxiago bizi baziren ere. Baina orduan ez zegoen supermerkatu edo antzekorik. Hika.

688. Eskolak (OIA-066/023)

Tronpeoko malda ongi ezagutzen dute iturrioztarrek, kalera joateko bidean baitago. Eskola: Domi mojetan ibili zen, kalean. Mari Jose ta Maillolli, auzoko eskolan. Oraindik gogoan dituzte Francoren garaiko kantak. Erdaraz kantuan. Hika.

689. Erdaraz eta euskaraz (OIA-066/025)

Eskolan, erdaraz. Dotrina, euskaraz. Duroak, errealak... Hika.

690. Auzoan beti hika (OIA-066/027)

Hika: auzoan, lagunen artean denek hika egiten dute. Beste auzokoekin hika hasten dira, eta, ikusten badute ez dakiela, zuka. Konfiantza asko dagoenean, hika. Biek aritu behar dute hika, bestela, zaila da bestea zuka ari bada. Hika.

691. Iturriotz: hikaren tenploa (OIA-066/029)

Gehiena Iturriotzen hitz egiten da hika. "Burla itten zigutengan, zakarkian hitz eingo bagenuke bezala, ziki-zaka ta... Ta hara oain, guk gorde azkenin!". Hika.

692. Hikarako ohiturak aldatzen (OIA-066/031)

Auzoan, neska eta mutilekin hika, baina senar-emazteen artean zuka. Hikarako ohitura hori berreskuratzea zaila da. Hika.

693. Auzo guztia jostatzeko (OIA-066/033)

Jostaketak: ministros y ladrones. Nola jostatzen zen. Auzo guztia zeukaten gordetzeko. Sotoetan ere sartzen ziren, irekita egoten baitziren. Nor ziren behekoak eta goikoak. Behea, soro aldea. Goikoak behera jaisten ziren, baina behekoak gora ez. Hika.

694. Fruta lapurtzen eta errekan (OIA-066/035)

Gurasoak siestan zeudenean, fruta lapurtzera joaten ziren. Lehen fruta-arbola gehiago zeuden. Errekara ere joaten ziren. Han zuten hondartza. Soinak zituzten bainu-jantziak. Hika.

695. Auzoko pertsonaiak (OIA-067/003)

Auzoko baten kontuak. Asto zahar batekin ibiltzen zen. Zer esaten zuen.

696. Auzotarren kontuak (OIA-067/005)

Auzoko batzuen gainean; borondate onekoak ziren, baina zikinak egoten ziren. Pikuak eskaintzen txapelan, eta txapela zorritz betea. Hika.

697. Aspalditik egiten da sagardoa Igerobiaundin (OIA-068/003)

Jesus Igerobiaundin jaioa da eta bertan bizi da. Baliyone ere deitzen diote etxe horri. Aspalditik egiten dute sagardoa bertakoek. Lehen sagardi asko zituzten. Oiartzungo baserriar askok ekartzen zuten sagarra bertan jotzera. Bi mokoi ekartzen zuten jeneralean baserriarrek, bi karga t'erdiko barrikak. Pitarra asko edaten zen lehen, ardoa baino gehiago.

698. Neurriak eta garraioa (OIA-068/004)

Garai batean, dena neurtzen zen. Karga sagarretik 200 litro ateratzen ziren. Eraman garlian eramaten zuten, behiekin. Beraiek jartzen zituzten garliak. Bat baino gehiago zituzten; handiena 9 karga t'erdikoa, bi mokoi sartzen zirena. Urte batean, 19 bidaia egin zituzten garlia batekin Hondarribiko kupeltegira. Bi behi pare behar izaten ziren Gurutzera igotzeko, eta, handik behera, pare batekin aski.

699. Sagardotegiak, oraingo tabernak bezalakoak (OIA-068/006)

Sagardoa basoka saltzen zen. Jendea meriendarekin etortzen zen sagardotegira bertara, eta han txotxetik basokaka edaten zuten. Zelaia dena betea egoten zen jendez, denak eserita jarrita patxadan. Horixe zen garai hartako ohitura.

700. Baserri askotan egiten zen sagardoa (OIA-068/007)

Xixeroa pasatzen zen zerga kobratzera. Behin, xixeroak hala esan zion Jesusen aitari: egun hartan -egun berean hasten ziren sagardotegi guztiak- 66 baserritan hasi zirela sagardoa ematen. Dolare asko zeuden. Dena eskuz egiten zen garai batean. Iyerokuak izango ziren lehendabizikoetakoak motorra sartu zutenak. Isastin bi ardatzeko dolarea zen. Mokoi.

701. Sagardiak eta sagar motak (OIA-068/009)

Lehen, dena sagardia zen; belarra eta sagarra. Sagar klase asko daude. Garai batean, klase onak, gainera; orain baino hobeak. Txalaka hutsarekin egin zuten behin. Zortzi egunerako etorri zen, bizi-bizia, bere aitak ez omen zuen behin ere ikusi sagardoarekin jendea hain erraz mozkortzen.

702. Proba asko egin behar (OIA-068/010)

Proba asko egin behar izaten ziren ahal zen sagardo onena egin nahi bazen. Sagar mota ezberdinak nahasita, sagardo ona ateratzen da. Kupelera bota eta probatzen joan, eta, ez badoa ongi, erdia hustu eta berria bota. Orain denak berdintsuak ateratzen dira. Lehen ez zen liga kentzen; orain, bai. Ligak gazitu egiten du sagardoa.

703. Sagardoa etorri (OIA-068/011)

Sagar biziarekin egindako sagardoa agudogo etortzen da. Lau kargako bukoia egun batean hustu zen.

704. Lan handia du sagardoa egiteak (OIA-068/012)

Lehen lan handiagoa zuen sagardoa egiteak. Dena baldeka garraiatu behar zen; ez zegoen bonbarik. Hori bai, oraindik ere sagarra eskuz bildu behar da, kizkiyarekin edo ahal den bezala. Baina jendea ere aiseago biltzen zen lanerako. Tiniya.

705. Aldaketak banaketan (OIA-068/013)

Lehen ez zen botilaratzen. Jendea etortzen zen bila eta garliarekin eraman edo bertan edaten zuen. Tabernariak sagardotegira etorri eta zein kupeletatik botilaratu aukeratzen zuten.

706. Berrikuntzak sartu dira, baina sagardoa betikoa da (OIA-068/014)

Kupeletik kupelera bada ezberdintasuna; baina garbitasunak du eragina; ez zurak. Kupelak, gehienak, gaztainarekin egiten ziren. Urdaiari kalte egiten diona gazia da, eta hori ligak egiten du, horregatik kentzen da. Sagardo huts-hutsa garbia gelditzen da. Kontserbatzeko, bitaminak botatzen dira; bestela, beltzatu egiten da. Hor dago ezberdintasuna. Gainerakoan, sagardoa betikoa da.

707. Sagardoa, pitarra, xixarra, muztioa... (OIA-068/015)

Lehen, sagardoa bakarra edaten zen. Ura ere ez zen edaten. Sagardoa edo pitarra. Xixarra ere, egin berria, edaten zen. Hurrengo muztioa da; hura da onena sagardoa egiteko. Xixarra lehen aprobeixatu egiten zen; orain bota egiten da. Mikatxa.

708. Zortzi egun sagardotegitik atera gabe (OIA-068/017)

Saltzen jartzen zen egunetik hasita, jendea sagardotegiz sagardotegi ibiltzen zen, orain tabernetan bezala. Jendeak zortzi egun-eta egiten zituen bertan, jan eta edan. Bertan jartzen zuten jatekoa; arraina gehiena, haragi gutxi. Txoritokietan eta Zuantzan eta... gizaseme eta emakume, denetik ibiltzen ziren. Baziren emakumeak, gizonak bertan bete-bete eginak, eta sagardotegiraino joaten zirenak arropa garbiarekin, aldatuko baziren.

709. Mozkor kontuak (OIA-068/019)

Igerobiaunditik mozkortuta atera zen bat uretara eroria aurkitu zuten. Ia itota zegoen, baina bizirik atera zen.

710. Zaldi-karroetan sagardotegira (OIA-068/022)

Oiartzundik eta kanpotik ere etortzen zen jendea Igerobiaundira. Hendaiatik zaldi-karroetan etortzen ziren. Hiru bat milako sei bat kupel zituzten eta egun eta erdian saltzen ziren.

711. Barrikotea (OIA-068/023)

Barrikoteak beti izan dira. Kupelak baino txikiagoak dira: 50, 60 edo 100 litrokoak, kuadrillaren arabera. Baserrietan egoten zen barrikotea. "Gomitu launak eta..."

712. Aldaketak (OIA-068/024)

Gaur egun, makinaria berria sartu da, baina sagardoa egiteko prozesua berdina da. Orain, gainera, garbitasuna errazagoa da eta sagardoa hobea da. Lehen, sagardoak tenporada bakarra irauten zuen; orain, makinariari esker, gehiago. Garai batean, familia guztia aritzen zen sagardo lanetan.

713. Berrikuntzak (OIA-068/026)

Hasieran, beraiek estutzen zuten sagarra. Gero, motorra jarri zuten. Ondoren, ardoa egiteko dolarea ekarri zuten. Horrekin burdin gustua hartzen zuela eta, hura kendu eta orain daukaten herdoilgaitza jarri zuten.

714. Lehen, sagardoaz gain, hazienda lana ere bai (OIA-068/028)

Sagarra estutu ondoren gelditzen den patsa haziendarentzat izaten da, pentsu bezala. Igerubihaundin lehen bazuten hazienda; kendu egin zituzten, lan handia ematen zuen eta. "Jeniua ezin kendu".

715. Txertaketa (OIA-069/002)

Sagarrondo batzuek besteek baino sagar gehiago ematen dute. Txertaketa: sagarrondo onenarekin ahal bada. Txabiarekin txertatzen zen, baina orain hazitik ateratako landarea sartzten da: urte gutxitan ematen du, baina azkar hasten da ematen.

716. Txabiaren hazitik, landarea (OIA-069/003)

Berak egin izan du txabiaren haziarekin landarea. Prozesua: txabia lehortu, patsa kriban pasatu eta hazi pila bat atera zuen. Erein eta landare pila atera zitzaion. Dena saldu zuen.

717. Sagardotegiko giroa (OIA-069/005)

Sagardotegietan bertsolari asko ibiltzen ziren. Igerobiaundin ere bai: Mitxelena, Lizaso, Uztapide... Tokan aritzen zen jendea. Dirua eta sagardo erronda jokatzeko zen. Gaurkoa baino politagoa zen, txotxean denak. Giro ederra egoten zen. Sagardua don tokiyan bertsua bakizu...

718. Giro ona, orokorrean (OIA-069/006)

Behin, Jesusen aita eta morroia, 36 sagardotegi probatu behar zituztela-eta, abiatu ziren; laurdena ere ez zuten egin. Betekada ederrarekin etorri ziren etxera. Sagardotegietan giro ona egoten zen, denak lagunak. Batzuk gaiztotzen ziren, hala ere, eta ezin bidalirik ibiltzen ziren.

719. Ilargiaren eragina (OIA-069/016)

Ilargiak eragina izaten du sagardoan; mugitu egiten da. Ilbeheran kupelak jarioren bat badauka, handik hasten da itotika. Botilaratzerakoan ere badu eragina; ilbeheran eginez gero, hobeto.

720. Gurutzeko lagunak (OIA-070/002)

Gurutzeko Seastarreneko beheko bizitzakoek sagardoa egiten zuten eta Peluko lagunarekin joaten zen bertara.

721. Arraguako triperia (OIA-070/004)

Arragan triperia zegoen, topo estazioaren ondoan. Lohia eta usain gaitza egoten zen eta animaliek ez zuten handik pasatu nahi izaten. Aristizabal sagardotegira joaten ziren behiekin. Eta astoarekin esnea jaisten zuten auzora, Lanbarrengo esneketariak jasotzen baitzituen inguruko esneak.

722. Arraguako aldaketak (OIA-070/006)

Lanbarrendik esneketaria etortzen zen: Lartzabal, Arragua eta Ugaldetxo inguruko baserriko esneak hartzen zituen. Bide txarra zuten Bidagurutzetatik - Birauztatik- Arraguara, oso irristalaria. Ingurua asko aldatu da.

723. Bide zailari umore ona (OIA-070/008)

Bidea irristalaria zen, tupa baitzen. Nolakoa zen. Herri lurra zen eta ez zuen inork zaintzen. Astoarekin jaisten ziren. Hori bai, beti umore onean egoten zen Joxe Mari: txistuka eta kantari. Xabier Leteren ama, Edurne Bergaretxe, berari entzuten egoten zen.

724. Bergaretxetarrak (OIA-070/010)

Joxe Mari Bidagurutzetakoa da eta ondoko Arizabalon -Aitzolan- Bergaretxetarrak bizi ziren. Bergaretxetarrak elgoibartarrak ziren. Aitak Eibarren tailerra zuen, baina gerran kendu egin zioten. Sekula baserrian aritu gabeak ziren, baina, pazientzia handikoak izaki, ongi moldatu ziren bertara. Pallakatu.

725. Arizabaloko jabeak (OIA-070/011)

Donostiako bidaurtarrak ziren Arizabalo eta Arizabaloetxeberriko jabeak. Bergaretxetarrak eta alkizatar batzuk zeuden maizter. Gero, Conde de Romanones eta Markes de San Damianek hartu zuten. Kanpotarrak ziren. Udaran bakarrik etortzen ziren.

726. Gurasoen berri (OIA-070/013)

Bidagurutzeta baserri txikia zen. Maizterrak ziren eta familia handia: 11 senide eta gurasoak. Aita zen Birauztakoa eta ama Ergoiengo Urdairekoa.

727. Familia handia (OIA-070/015)

Ama ez zen sekula eserita egoten, ezta jateko ere, eta emakume ederra zen. Aita, berriz, ttiki-ttikia zen eta behin ere ase gabekoa. Senide asko ziren eta azkar hasi behar izan zuten lanean. Bera aitarekin gelditu zen baserrian, soldadutzara joan arte.

728. Gerra hasiera (OIA-070/016)

Gerra hasiera gogoan du. Oiartzunen bi hilabete egon ziren, Erreteriarra sartu ziren arte. Ama-sembleak Irastortzara, ondoko baserrira, zihoazen Ama Birjina eramatera eta han ikusi zuten errepidea soldaduz josia, gurdiak hornigaiz beteta.

729. Argindarra (OIA-070/018)

Iturria Errotaxarren ondoan zuten. Argindarra, berriz, Arizabaloko jabeak jarri zien. Peluberritik etortzen zen kanala, Urkabetik zehar. Udar ez zen betetzen ur-depositua eta askotan argi gabe egoten ziren. Kinkilla.

730. Lan handia, eta ilusioa handiagoa (OIA-070/019)

Ur korronterik ez zuten etxean: euria egiten zuenean teilatutik hartzen zuten. Estanixen errekan garbitzen zuten arropa, harri leun bat jarrita. Umore onarekin ibiltzen ziren. Lehengo eta oraingo familia oso ezberdinak ziren. Gabonetan denak elkartu eta gutxi behar zen jatekoa berezia izateko: kapoi zaharren bat edo oilo zaharren bat eta arroz-esnea. Gutxitan jaten ziren horrelakoak: Urtezaharretan, Eguberrietan eta xanistebanetan. Miño gosiak ez giñan hil e.

731. Bertsozaleak eta euskaltzaleak (OIA-070/021)

Bertsozaleak ziren etxean. Anaiak euntalako afizioa zuen. Bertso jarriak saltzen ziren. Buru ona zuen Joxe Marik, behin irakurrita gogoan hartzen zuena. Etxean irakurri zaleak ziren denak, eta euskaraz bazen, gehiago: Zeruko Argia aldizkaria hartzen zuten.

732. Eskola gutxi, baina buru ona (OIA-070/023)

Berak esatea gaizki dagoela baina buru ona zuela dio. Oiartzunen Bekoplazara joan zen eskolara. Don Ignazio Iurrita Aranburu usurbildarra zuten maisua. Irakurtzeko afizio gaitza zuen, baina gaizki idazten omen zuen. Soldadutzara joan zenean uste zuen tontoena izango zela, eta pixkorrena bera izaki.

733. Soldadutza gogorra Burgeten (OIA-070/024)

29 hilabete egin zituen soldadutzan. Toki txarretan tokatu zitzaion. Lehendabizi, Iruñera. Handik, Burgetera: udara txarra egin zuen, elurra eta izotza. Gosea, zorriak, sarna eta hotza besterik ez zuten ezagutu. Ahal zuen guztiak alde egiten zuen Frantziara. Han pasatakoak ez dira sinistekoak.

734. Soldadutzan hildakoak (OIA-070/025)

Burgeten egin zuen soldadutza. Gaizki pasatu zuten. Eskualdeko mutil indartsuenak ere bertan hil ziren. Gero berriro Iruñe itzuli ziren, eta han estraperloan erosten zuten janaria, eta, gutxienez, ez zuten goserik pasatu.

735. Gerran baino okerrago soldadutzan (OIA-070/027)

Joxe Marik Burgeten egin zuen soldadutza. Lezoko Amutene baserrikoak zioen Burgeten soldadutza egindakorik inor ez zegoela sano. Oiartzuar bat ezertarako gai ez zela bidali zuten handik, soldadutza bukatu aurretik. Joxe Mariren anaiak gerra garaian hobeto ibili ziren bera bake garaian soldadutzan baino.

736. Bidagurutzeetan erreketek (OIA-071/003)

Gerra hasiera gogoan du Joxe Marik. Lartzabalen soldaduak ikusi zituzten eraso egiten, eta berriro Oiartzunera itzultzen. Errenteriara ezin sarturik ibili ziren bi hilabetean. San Markos eta Txoritokietatik botatako kanoikadek Mendin eta Larria txikituta utzi zituzten. Bidagurutzeta erreketez beteta egon zen eta bertakoek Beloagatzikira (Pelutxikira) joan behar izan zuten.

737. Bi anaia gerrara (OIA-071/004)

Anaiei soldadutza gerran egitea tokatu zitzairen. Toki ugaritan ibili ziren. Trintxerak egiten aritu zen zaharrena, Madrilgo frontean. Beste anaia atzeraxeago ibili zen. Beloagatzikin zeuden artean, ez ziren atera ere egiten. Senide zaharrenak ateratzen ziren, mezara edo enkarguetara edo.

738. Mendinzarreko eskola (OIA-071/006)

Mendinzarren eskolak ematen zituen Anttoni maistrak. Donostiako lehengusuak gehiago zekien erdaraz. Anaia zaharrena bihurria zuen Joxe Marik.

739. Anaia eta lapurrak (OIA-071/007)

Anaia zaharrenak errebolber zahar bat eta pistola ttiki bat edukitzen zituen, baina lapurrak atera zitzaizkion batean alferrik izan zituen. Ikurrinarekin zuen ordularia lapurtu zioten.

740. Bidagurutzeta inguruak (OIA-071/010)

Audele aldea aldatu da, baina Bidagurutzetatik Lezo aldera ez da hainbeste aldatu. Etxe izenak: Euskitze eta Errotalegor. Lartzabal Conde de Billapadiernak hartu zuen. Rita Hayworth aktorea etortzen zen bertara. Arizabalon Conde de Romanones eta Marques de San Damian semea. Garañoa.

741. Bidagurutzetatik kalerako bidea (OIA-071/011)

Bidagurutzetakoak kalera joaten ziren eskolara eta baita gainerakoetara ere. Auztegi errekaeren ondotik.

742. Kanpotarrak oiartzuarrei burlaka (OIA-071/012)

Kanpokoek Oiartzungoei burla egiteko esaten zituztenak: Oiartzunen festak nola egiten ziren. Harrikalari fama beti izan dugu, baina Joxe Marik sekula ez

du ikusi izan: "Miño zerbatte izango da, sua don tokitik ateratzen men da kia ta...". Zintzoak zirela eta neskatara-eta gutxi joaten zirela.

743. Gaztetan non ibiltzen ziren (OIA-071/014)

Gaztetan Altzibar eta Txikierdiko bileretara joaten ziren gehienetan. Tarteka Errenteriara edo Donostiara. Zirkoa ikustera Amara; eta, euskal bilerak egiten zirenean, zezen-plazara.

744. Oiarzungo potajeari kantatutako bertsoak (OIA-071/016)

Joxe Mari oso bertsozalea da. Buruz bertso asko dakizki eta batzuk kantatu zizkigun. Honako hauek Oiarzungo potajeari botatako sei bertso dira. (Bateria ahitu zen eta mozketak bat dago 4. bertsoa hasi eta berehala. Gero editatzerakoan konpontzekoa).

745. Bertsolariak eta apaizak (OIA-071/018)

Potajearen bertsoak Bergaretxe apaizari askotan kantatzen zizkion. Apaiza eta Kaxkaxuriren arteko espa.

746. 'Txirrita', 'Uztapide' eta 'Lazkao Txiki'ren bertso kantatuak (OIA-071/020)

Hiru bertso kantatu dizkigu Joxe Marik. Lehenengoa, Txirritari txapelketan puntua emanda erantzundakoarekin. Bigarrena, Uztapideri Eibarren puntua emanda erantzundakoarekin, eta, hirugarrena, Lazkao Txikiri Ergoienen lau puntuak eman eta botatakoa: zakurra, kizkurra, muturra eta lapurra. Lazkao Txiki imitatuz bota du bertsoa.

747. Bertso-paperak (OIA-071/022)

Joxe Marik leituta eta adituta, bietara hartzen zituen bertsoak buruz. Lehen, bertso-paperak igandero saltzen ziren. Bertso jarrien saltzailea besamotza zen. Anaiak erosten zituen eta Joxe Marik gogoan hartu. Bertsolariya aldizkariaz.

748. Bertsozalea eta bertso-jartzailea (OIA-071/024)

Bertsolari asko zituen gustukoak Joxe Marik. Txirrita, Lizasotarrak, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Manuel Lasarte, Xenpelar... Bera ez da bat-batean aritzen, paperean jartzen ditu, ezberdina dela dio.

749. Pilotari (OIA-072/002)

Bertsozalea izateaz gain, pilotan ere gustura aritzen zen Joxe Mari. Baina aukera gutxi izaten zuten pilotan aritzeko. Igandeetan, mezaren ondoren, pila bat elkartzen ziren Kontsejupean, txanda ezin harturik. Soldadutzan ere ibiltzen zen, Beran.

750. Aldaketak pilotan (OIA-072/004)

Gaurko gazteek duten laguntza izan bazuen, akaso pilotari ona aterako zatekeen Joxe Mari. Orain pilotan gaizki ari direnei ere txalo egiten diotela dio.

751. Eskuak pilotarekin ez baizik eta lanarekin gogortuak (OIA-072/006)

Garai batean, neguan pilotan ibilita, artesituta izaten zituzten eskuak, haragi bizitan. Oraingo pilotak gogorragoak dira, baina orduan eskuak ere gogorragoak izaten zituzten. Ote-jotzea. Sagardoa.

752. Pitarra (OIA-072/007)

Garai batean, baserrietan pitarra izaten zen edateko. Bidagurutzetan, bi barrika sagardo eta 14 kargako kupel handi bat pitar egoten zen urte guztirako. Ardoa, gutxiago.

753. 'Ilargia putzura eroria' ipuina (OIA-072/010)

Ilargia putzura eroria ipuina kontatu du. Zeruko Argia aldizkarian mutil koskorretan buruz ikasi bezala kontatu du.

754. Arane baserria (OIA-073/002)

100 anega gatz jan behar omen da elkar ezagutzeko, dio Lorentxak. Aranera ezkondu zen Lorentxa. Inaxi bertakoa da. Lur onak ditu baina Arane ez da oso handia. Anea.

755. Baserriko lanabesak, bazka eta iratzea (OIA-073/005)

Lanabesen izenak herritik herrira aldatzen dira: atxarraztalua Oiartzunen, gozpala Lezon. Sardea, kakua, gozpikua... Lehen pentsoa etxean egiten zen: erremolatxa, pagotxa... Araneko iratzelekuak: Paularren eta Pikoketan.

756. Jostunak (OIA-073/007)

Biek ikasi zuten josten. Inaxik lehendabizi Iturriotzen eta gero Erreterian. Mendibilgoen izeba zen jostuna.

757. Arropak (OIA-073/009)

Inaxik Erreterian ikasi zuen 'korteia'. Etxerako asko josten zen. Beren garaian soineko asko egiten ziren: zetazkoak eta. Jertseak ere bai, eskuetan. Igandeetako arropa ez zen astean janzten.

758. Orduko modak (OIA-073/010)

Garai hartako soinekoak nolakoak ziren. Kolore ilunak erabiltzen ziren eta loratuak ere asko. Beren amak beltzez janzten ziren, nahiz eta alargunak izan ez. Amonek buruan zapia jartzen zutela ere gogoratzen dira. Beraiek ere jartzen zuten, baserrian lanean aritzeko. Ixurria.

759. Elizako koruan (OIA-073/011)

Inaxi kalean asko ibiltzen zen. Urte askoan aritu da abesbatzan. Hasieran, Mari Carmen Galtzarainek erakusten zien abesten, eta naximentuarekin kuadrilla ederrak ateratzen ziren. Elizako koruan Don Pablo apaizarekin eta gero Oñatibiarekin ere aritu zen. Meza latinez izaten zen.

760. Eliza, euskaraz; eskola, erdaraz (OIA-073/012)

Mezak latinez izaten ziren, baina abestiak euskaraz. Naximentuarekin ere euskaraz kantatzen zuten. Garai hartan euskarari elizak kontu zion. Eskolan egiten zen erdaraz. Lorentxak dio beraiei ez ziela inork galarazi euskaraz

egitea. Gero hurrei bai; eskolan erdaraz egin behar izaten zen. Inaxi 11 urte arte mojetara joan zen eta gero publikora, Bekoplazara.

761. Erdara, hika... (OIA-073/014)

Kalean denak erdaraz aritzen ziren, eta baserritar asko ere bai, konplejuarengatik. Hika norekin egiten duten. "Noiz edo noiz".

762. Berorika (OIA-073/015)

Berorika. Garai batean bai, apaizei, medikuari, al baitariari... Familia batzuei ere bai. Alkateei beti ez.

763. Ttunttuna (OIA-073/017)

Oiartzungo txistulariak: Oñtilde; atibia, Jose Mendizabal, Arozenatarrak... Kilirikupen txistua jotzen zen igandeetan. Ttunttuna.

764. Eskualdeko bilerak (OIA-073/018)

Inaxi Altzibarko bilerara joaten zen. Han Iruinarreneko Manuelek jotzen zuen soinua. Txikierdin Galdosek jotzen zuen soinua. Errenteriara ere joaten ziren. Lorentxak han ezagutu zuen Araneko Pio, gero bere gizona izango zena. Lorentxa Irungo bileretara ere joaten zen: Xorruenera eta Bentetara.

765. Ilundu aurretik etxean (OIA-073/019)

Ilundu aurretik etorri behar izaten zuten etxera, orain gazteak kalera ateratzen diren tenorean.

766. Oiartzuera (OIA-073/022)

Oiartzungo euskalkiaz: hemen erdia jan egiten dela dio Inaxik; hori bai, norberak bere nortasuna behar duela. Hizkuntzaren transmisioaz.

767. Jostatzen eta lanean (OIA-073/023)

Oraingo hurrek ez dute denborarik jostatzeko ere. Lehen, lan gehiago egin behar bazen ere, jostatzeko beta izaten zuten. Eskolatik atera orduko, merindatu eta auzora jostatzerara. Haurra pixkanaka hasten zen baserriko lanetan.

768. Baserria (OIA-073/024)

Aitzur eta belar lanak ziren gogorrenak. Baserriak lehen ere ez zuen dirua ematen, baina jateko adina ematen zuen. Gauza asko egiten zen baserrian: barazkia, taloa, txerrikia, sagardoa... Mendibilen dolarea zen. Mendibil ingurua asko aldatu da: etxe asko egin dira geroztik.

769. Mendibil ingurua (OIA-073/025)

Mendibil ingurua, baserri ingurua zen. Desagertutako baserriak: Baldibar, Tolarieta...

770. Pikabeatarren palazioa (OIA-073/026)

Pikabeatarren palazioa. Handia zen. Lorentxa ez da gogoratzen baina Inaxi bai. Palaziotik aparte kotxerak zeuden.

771. Txaparre aieka (OIA-074/002)

Txaparre aieka eta kalea, lehen, aparte zeuden; baina, orain, dena bat da, eraikuntzarengatik. Lehen, ilunpean beldurrak ibiltzen ziren: sakamantekas, sorginak... Oraingo aurrerapen asko ere sorginkeriak direla diote.

772. Ameriketako lehengusuak (OIA-074/003)

Aranekoek lehengusuak dituzte Ameriketan. Inaxiren amaren senideak ziren Ameriketara joan zirenak. Behin etorri zen bisitan hara joandako osaba bat, Inaxi ttikia zela. Gogoan du opariak ekarri zizkiola.

773. Emigrazio-immigrazioa (OIA-074/005)

Inaxiren amaren senideek, Ameriketara joan eta gero ere, idazten zioten ahizpari. Han lana aurkitu zuten. Lehen jende asko joaten zen Ameriketara. Orain ere etortzen dira hona.

774. Gerrako oroitzapenak (OIA-074/007)

Gerra gogoan dute bi koinatek. San Markosetik kanoikadak. Baldibar baserrian nafarrak egon ziren. Aranekoek Larrazabalera alde egin zuten; gero, Arraskuerrotara. Sagarbisti gerra denboran erre zen. Soldaduek beraiek ere ematen zioten su. Lezon erre zuten baserri bat. Ez dadila gehiago etorri gerra.

775. Gerraren ondoren, jakirik gabe (OIA-074/008)

Nafarroara irin bila joaten zen Inaxiren ahizpa. Errotak itxi egin ziren Gipuzkoan, eta, Nafarroan, ez. Baserritarrei janari guztia kentzen zieten.

776. Gerraren ondoren, jakia kendu (OIA-074/010)

Soldaduei jaten emateko kenduko zuten jana. Ogia kontrabandoan ekartzen zen. Gero, errotak ireki zituzten eta nahiko talo jaten zuten.

777. Errazionamendua (OIA-074/011)

Errazionamenduekin zer ematen zuten: ogi gogor batzuk. Azukrea, txokolatea eta olioa neurtuta. Kategoriak ere bazeuden: Estatuarentzat lan egiten zutenentzat, gauza gehiago. Tabakoa lortzeko ere, ilaran egon behar zen.

778. Gerraren ondoren, gaixotasunak (OIA-074/012)

Gerraren ondorengo goseak eta garbitasun ezak gaixotasunak ekarri zituen: tifusa, azkura, zorria, kukusua...

779. Arropa garbitzera, erre kara (OIA-074/013)

Aranekoak arropak garbitzera erre kara joaten ziren eta edateko ura Bordako iturritik ekartzen zuten. Baina ura baino gehiago, pitarra edaten zen lehen. Lehen, arropa ongi zikindu arte ez zen garbitzen. Ura ezin zen ongi kendu eta denbora gehiago behar izaten zuen lehortzeko. Garbigailua asmakizun ederra da.

780. Gobada (OIA-074/014)

Gobada gogoan dute. Arropa xaboiarekin beratzen jarrita. Egosita ez dute gogoan. Lehortzeko, belarretan zabaltzen zuten arropa. Gau serenoan jarrita, txuri-txuri gelditzen ziren. Euria ari bazen, ganbaran. Ganbaran uzta gordetzen zen: artoa, patata, belarra... Trasteak ere bai; dena gordetzen zen.

781. Aldaketak eta aurrerapenak (OIA-074/016)

Gauza asko aldatu dira, baina oraindik ere badago jendea borondate onekoa, eta aurrerapen asko ere onerako dira: "Mobila ongi ibiliz gero, izan leiken gauza onena da, baina lapurra, gainerakoan".

782. Harremanak aldatuz (OIA-074/018)

Lorentxak gogoan du Txaparreko atarian emakumeak eserita nola egoten ziren, berriketan, eta haurrak jostatzen. Orain ez da inor ikusten. Inaxik dio bidaiatzera kanpora joaten garela eta bertakoa ez dugula ezagutzen.

783. Ezkondu eta gero (OIA-074/020)

Lehen, ezkondu ondoren, hasieran harremana mantentzen zen familiarekin, baina gero atzentzen joaten zen. Kotxerik ere ez zegoen eta amak etxetik kanpo ezin denbora asko egon.

784. Gaubeilak (OIA-074/022)

Gaubeiletan jende asko elkartzen zen; batzuk, umore ederrarekin, eta, etxekoak, negarrez.

785. Ura, urruti (OIA-075/008)

Edateko ura urruti zuen Altxatzikik: kanposantua esaten dioten tokian iturri ttiki bat zegoen. Behiak ura edatera Ozentzioko iturrira joaten ziren. Behiak bi egunetik-edo eramaten ziren edatera, eta, orduan, kolpean edaten zuten eta tripa bete-bete eginda itzultzen ziren etxera. Lintzura.

786. Petrolioia, eltzera (OIA-075/009)

Argindarrak ez zen izaten baserri askotan. Meategietan lanean aritzen zirenek karbuoarekin egiten zuten argia, eta, bestela, petrolioarekin. Behin eltzea zaintzen utzi zuten Joxe, eta, sua pizten hasi zenean, petrolioia isuri zitzaion eltzera. "Batin in nioten marka politta bai".

787. Katua akabatu (OIA-075/010)

Behin, bizilagunen katua akabatu zuen deskuidatuta, eta, gero, errieta egiteko beldurrarekin, eskapoka ibili zen. "Kasualidadea! katua ez men da akatzen... ja ta seko geldittu zin!".

788. Auzolanean (OIA-075/011)

Etxeberrira bizitzera etorri eta gero ere, Altxatzikikoekin auzolanean segitu zuten. Etxeberrikoek egurra Penadegiko zokotik eta iratzea Beinberriko zokotik ekartzen zuten. Iratze asko ekarri behar izaten zen. "Holaxe ibiltzen giñan, mendi zar habetan".

789. Egurketan (OIA-075/012)

Udalak banatzen zuen egurra. Ordaindu egiten zen. Egurra behiekin ekartzen zuten. Gurdi gainean xixtuka. Toki izenak. "Hor ibiltzen ginan eurketan". Burniziya, trunkazerrak, aixkorak...

790. Lehen egur gutxiago zegoen (OIA-075/013)

Lehen orain baino egur gutxiago zegoen. Orduan, mendiak garbi-garbi egoten ziren. Iratzelekuak ziren gehienak. Beraiei Penadegi aldea gelditzen zitzairen gertuena. Oiantzabalgo lehengo aitonak, "nafar ttikiak", esan ziona. Sueurra.

791. Gerran hilak (OIA-075/014)

Iragorriko kanposantuko fusilamenduak entzuten zituzten Altxatik. Garañoko gizona gerran hil zenean, Joxek igo zuen gutuna Altxatikira abisuarekin; baina bera gaztea zen, eta ez zen konturatu orduan.

792. Tiroak bai, galanki: pakun! (OIA-075/016)

Ozentzio mendian, soldadu "normalak" eta Arraskularren erreketak egon ziren. Amak oiloak prestatzen zituen soldaduentzat. Ezin zen kanpoan egon; azkar egiten zuten tiro. Gauean meazuloetan gordetzen ziren. "Tirua bai galanki; pakun!".

793. Babarrunak garrafoietan gordeta (OIA-075/017)

Karrikako mendietatik, San Markotik tiroak nola ateratzen ziren ikusten zuten, eta Oiartzun aldean nonbait "bum!" lehertzen. Lursailen arabera entregatu behar izaten zuten baserritarrek babarruna. Beraiek garrafoietan gordetzen zituzten, baratzean lurperatuta. Erregistratzera etortzen ziren.

794. Errotari azkarra (OIA-075/018)

Artoa Fanderiara eraman behar izaten zen gero, baina gerra garaian ez zioten hainbeste kasu egiten. Nafarroan errotak libre, eta, hemen, itxita. Arraskuerrotako aitonak asmatu zuen modua irina gordeka egiteko, ganbaran, baina teilatutik irin-hautsa ateratzen zen eta handik galdu zen. Jendea elkar bijilatzen aritzen zen.

795. Ogi gabe etxera (OIA-075/019)

Beraiek Goizuetara edo San Antonera (Lesaka) joaten ziren irin bila. Ogia ere ekartzen zuten. Behin, bidean zetozela, ogia falta zutela konturatu zen, bila joan zen, baina falta. Neska batzuek kendu zioten susmoa zuen. "Astua beti ttikitti-ttikitti, be saltu alua horrekin!"

796. Janaria, gordeka (OIA-075/020)

Aitak Donostiatik ekartzen zuen ogia, gordeka. Zakote kaxa babarrunez beteta eraman, eta buelta ogiz beteta. Guardia Zibilak autobusean ibiltzen ziren Goizuetara. Errotakoek esaten zieten noiz zetorren korreua. Goizuetako autobusa: korreua.

797. Goizuetako bidea (OIA-075/021)

Goizuetara ordu pare batean sartzen ziren. Nondik joaten ziren: Sorondo, Otraitz, Txaradi, Urraidako harrizko zubia, Santoslepo... Toki izenak.

798. Goizueta inguruak (OIA-075/022)

Ahuntza bilaka Goizueta inguruan. Nafar hizkera egiten. Toki izenak. Furtetako.

799. Ahuntzen bila (OIA-075/023)

Behin saio ederra egin zuten Goizueta aldean ahuntzen bila. Semearekin batera joan zen. Ahuntzak nola harrapatu zituen.

800. Kontrabandoa (OIA-075/024)

Kontrabandoan ere ibilia da Joxe. Galtzarrieta inguruan txakur bat atera zitzaion; Guardia Zibilena zen. Kontrabandoan eta horrelakoetan ibili beharra zegoen sosa atera nahi bazen, lantegietan diru gutxi irabazten baitzen garai haietan. Burnaizta, Galtzarrieta... toki izenak.

801. Orduko jornalak (OIA-075/025)

14 urterekin herri lanean hasi zen, Gaztañe zaharrarekin, pinu zuloak egiten. 12 pezeta irabazten zuten egunean (eurotan 7 bat zentimo). Jai goizetan ere lanean aritzen ziren. Jornala astera kobratzen zen. "Gaizkitxo tortzen zen ba...", "Ordun diruak balio zun". Basoketaiak.

802. Santioetan, bazkaldu eta Iturriotzera (OIA-075/026)

Egun osoan basoan aritu ondoren, ilunabarrean, Arandanera joaten ziren artajorrara. Santio egunean, bazkari ederra ematen zieten han. Irrintzika jaisten ziren Iturriotzera, festetara.

803. Azegaineko bilera eta apaizaren baimenak (OIA-075/027)

Azegaineko bilera ("Azain"). Arlepon taberna. Azainen soroan denak saltoka ibili, eta Arlepora, jatera. San Joxe eguna seinalatua izaten zen Azainen. Apaizari eskatu behar izaten zitzaion baimena, Garizuma zen eta. Eruan baitan.

804. Don Regino medikua (OIA-076/001)

Klaketa. Oiartzungo medikuak: Don Regino. Zaldiarekin ibiltzen zen. Hagina kendu izan dio Joxeri. Dardaria zeukan eskuetan eta asko kostatu zitzaion.

805. Castro medikua (OIA-076/003)

Oiartzungo medikuak: Castro. Erbi-zakurrekin ibiltzen zen, ehiztari amorratua baitzen. Botika onenak errezetatzen zituen.

806. Etxeberriko amona eta Don Julio (OIA-076/005)

Oiartzungo medikuak: Don Julio. Amonarengana etortzen zitzairen. Bera baino osasuntsuago zegoela-eta ez zuen jakiten zer eman. Joxeren amak txokolatea eta ardoa ematen zion amonari, eta amona pixkor-pixkor jartzen zen. Sasoiko emakumea zuten amona.

807. Axeritarrak eta Etxeberrikoak (OIA-076/006)

Amonaren senideak erretratua ateratzera joan ziren kalera, eta argazkilaririk aurkitu ez. Axeritarrak ziren amona eta. Aitona zen Etxeberrikoa bertakoa. Aitona-amonak, senar-emazteak, ezkerrek ziren. "Iloba dugu guk ezkerre jatorra".

808. Mairuak, ola-etxea eta Zorrolako tren (OIA-076/008)

Amonak kontaktzen zuen inguruan mairuak aritu zirela lanean, eta Etxeberri bera ola-etxe edukitzen zutela. Zorrolako trenbidea ondotik pasatzen zaio, errekaen beste aldetik. Joxek ez du gogoan tren hori, baina amonak ezagutu zuen. Makinista Altzatxikikoa zen.

809. Amona: emakume gogorra (OIA-076/009)

Emakume gogorra zuten amona. Biloba guztien artean, Joxerekin konpontzen zen hoberen. Amona egun osoan artajorran aritzen zen, bakar-bakarrik. Seme-alabak Karrikara joaten ziren eskolara, eta, joan nahi ez zutenetan, amonak makilarekin segitzen zituen eskolaraino.

810. Karrika eta Altzibarko eskolak (OIA-076/010)

Joxeren aurrekoek Karrikan zuten eskola, eta, beraiek, berriz, Altzibarrera joaten ziren. Karrikan norbaitek jarri zuen gaueko eskola, edadeko jendeari zer edo zer erakusteko. Joxeren anaiak maistrak baino gehiago zekien. Anaia bizkorra zen, baina oso gazterik hil zen. Maistra eroa.

811. Gaztetatik lanean (OIA-076/011)

Joxe ez zen oso gustura joaten eskolara. 14 urterekin herri lanean hasi zen eta 16 urterekin Altzibarko paper fabrikan. Soldadutza Arditurriko meategietan egin zuen. Paper fabrika desegin zenean, harrobian hasi zen, eta handik Diputaziora pasatu zen. Errepideak egin eta konpontzen aritzen zen. Garai batean, aurrerapenik ez zegoen eta dena eskuz egin behar zen. Lan zikina zen.

812. Lan istripua (OIA-076/012)

Diputazioan lanean ari zela, istripua izan zuen. Auto batek harrapatu zuen lanean ari zela. Lankideek uste zuten hil egin zela. Lan txarra eta arriskutsua da, izan ere, errepideetakoa.

813. Altzibarko paper-fabrikan mutil koskorak lanean (OIA-076/014)

Altzibarko paper-fabrikan mutil koskorak ere aritzen ziren lanean. Arrisku handiko lanetan, gainera. Asko gelditzen ziren makinetan harrapatuta. Behin, gazte bat harrapatu zuen eta ez zen ausartu abisatzera. Eskerrak Joxek bere tokitik ikusi zuen.

814. Altzibarko paper fabrikan, lan arriskutsu franko (OIA-076/016)

Mutil koskor bat kortaderan aritzen zen eta makinak harrapatu zuen. Joxek ikusi eta atera egin zuen. Eskapada ederrak egiten zituzten gazte haiek.

815. Altzibarko paper fabrika erori zenekoa (OIA-076/018)

Altzibarko paper fabrika erori egin zen, langileak bertan zirela. Joxe ez zuen harrapatu. Arratsaldean joan beharra zen lanera, baina abisua eman zioten. Langileak ezin atera ikusi zituen. Emakume pila batek egiten zuen lan bertan. Bi langile hil ziren eta beste bat oso gaizki ibili zen.

816. Paper fabrika zergatik erori zen (OIA-076/019)

Altzibarko paper fabrika zergatik erori zen. Gainean ura zegoen. Makina baten dardarizoak eragin omen zuen istripua. Trapua txikitzen aritzen ziren emakumeak, papera egiteko.

817. Soldadutza Arditurrin (OIA-076/021)

Garai hartan, Arditurrin meategietan lan eginez gero, soldadutzako zerbitzua betetzen zen, eta, hartara, ez zen herritik kanpora joan behar. Joxek halaxe egin zuen. 29 hilabete pasatu zituen meategietan.

818. Mando lana Arditurrin (OIA-076/022)

Mandoa hil zitzaion Arditurrin eta haren lana egiten pasatu zuten soldadutza denbora. Hala ere, kontent, soldadutza ona pasatu zutela eta, barruan baino hobea zela kanpoan lan egitea eta. Barruan aritzen zirenek lo egiten zuten zuloan.

819. Ur asko meazuloetan (OIA-076/023)

Ur asko zegoen meazuloen barruan. Bi bomba martxan, septimoan, ura kenduko bazen. Beste mandoa zuloan ibiltzen zen, bagoiak planora ateratzen. Eta planotik labaderora beraiek ateratzen zituzten. Arditurrin mugimendu handia zen.

820. Lana bai, baina jan ere bai (OIA-076/025)

Martinmotzenek eta haren andreak, Anttonik, eramaten zuten jantokia. Joxek goizean katua edo zer edo zer eramaten zion Anttoniri, eta hark eltzea prestatzen zuenean, trapu txuria jartzen zuen balkoian. Egurraren aitzakian eltzea jasotzen zuen Joxek eta ederki bazkaltzen zuten. Jende haundia.

821. Gerezi landare bila joan eta jorrarekin itzuli (OIA-076/027)

Hirurak aldera ateratzen ziren meazulotik. Tiroak lehertu bitartean, denak Sextoko zabalera. Batzuk, makila-tiran, eta soka-tiran, besteak. Enkargatuak gerezi landareak bilatzera bidali zituen behin: Pikoketara joan eta gazta eta ogia jaten denbora pasatu eta gero, korrika gerezi batzuk ipurditik aterata itzuli ziren.

822. Martinmotz, enkargatu (OIA-076/028)

Beren enkargatua Martinmotz zen. Leoneko meategietan ibilia zen. Kinkila. Hika.

823. Arditurrin, baldintza onak (OIA-076/029)

Paper fabrikan baino gehiago irabazten zuen meategietan. Hiru hiletik behin primak izaten zituzten, eta hura kobratzean, sagardotegi guztiak jiratzen zituzten. Razionamendua ere ederra izaten zuten meategietan aritzen zirenek.

824. Eskutitzen bidez ezagutuak (OIA-077/003)

Joxe Luix Oiartzungo Larrazabal baserrikoa da eta Gregori, Aranokoa. Joxe Luix gerran zauritu zen, eta, sendatzen ari zela, Gregorirekin idazten hasi zen. Lehen, ohitura handia zegoen eskutitzak idazteko.

825. Dena oinez (OIA-077/004)

Bederatzi urte egin zituzten nobio. Joxe Luix Erreterian aritzen zen lanean. Handik atera, Larrazabalera joan eta handik Aranora joaten zen segidan, Gregorirengana. Garai hartan, dena oinez. Aranon ezkondu ziren. Ezkon-bidaia Iruñe;era egin zuten.

826. Arano (OIA-077/009)

Gregori Aranokoa da. Hauek Hernanira dute joera. Goizueta-Hernani egiten duen autobusa hartzen zuten: korreua. Jai arratsaldeetan dantza izaten zuten Aranon. Faten.

827. Dantza (OIA-077/010)

Joxeluix ez zen dantzazalea, baina Gregori bai. Santiagoetan izaten ziren jaiak, Aranon. Anaiekin baltsean ibili, eta, apaiza, hala ere, errietan.

828. Apaizaren debekua (OIA-077/011)

Eliza asko aldatu dela diote biek. Orain dela 50 bat urteko San Roke Egunean, alaba ttikia manga motzetan eraman zuten, eta apaizak galarazi egin zien santuari muxu ematea. "Eztitt beñe haztutzen hoi".

829. Dantzaldiak (OIA-077/012)

Larrazabaltarrak ez ziren dantzazaleak. Gregoriren familia bai, ordea. Aizegaineko bilera. Filarmonika.

830. Dantzazaleak (OIA-077/014)

Gregoriren familia oso dantzazalea zen. Ez da inoiz ahaztuko familia guztiak plazan dantzatu zuen aldi hartaz. Garai hartan sueltao dantzatzen zen: "Ilehengo dantza hori".

831. "Amaixkillak" (OIA-077/015)

Gregorik gogoan du amezkilak jotzerako etxera joan behar zela. Behin, txokolate-jatera gonbidatu zituzten eta ez zituzten amezkilak entzun. Etxera joateko beldurrak egon ziren; aitak ez zien errieta egin baina hurrengoan goizago joateko esan zien.

832. Erreterian lanean (OIA-077/016)

Jose Luis igandeetan joaten zen Aranora, Gregorirengana. Ordurako hasia zen Erreterian lanean. Lehendabizi, 'Real Compañía Asturiana'n, Kaputxinoetan, eta, gero, baldintza hobeak zirela eta, 'Compañía Nacional de Oxigeno'n hasi zen, eta han segitu zuen. Tarteka, ordubete gehiago sartu behar izaten zen estatuarentzat. Purrusta.

833. Lan eta lan: andregaiarengana joateko denbora ezin atera (OIA-077/017)

'Compañía Nacional de Oxigeno'n txandaka aritzen ziren. Jaietan ere lan egin behar izaten zuten. Lantegiko soldatak ez zuen nahikoa ematen eta beste lanetan sartu behar izaten zituzten ordu gehiago. Libratzen zenean joaten zen andregaiarengana, Aranora.

834. Altzibar eta Basterotxiki (OIA-077/019)

Basterotxikira ezkondu ziren. Garai haietan zaila zen etxea aurkitzea. Altzibar arrunt ezberdina zen garai hartan. Basterotxikin eskola zegoen.

835. Altzibarko etorkinak (OIA-077/021)

Altzibar asko aldatu da. Etxe asko egin dira beraiek etorri geroztik. Jende asko etorri zen kanpotik. Etxeetan lan egiten hasi ziren emakume etorkinak. Sukalde batean hiru familia. Etorkinek euskaraz jakin ez eta beraiek gazteleraz ere ez.

836. Neskame (OIA-077/022)

Gregori baserrian aritzen zen eta gero neskame joan zen, baina aita gaixorik jarri zenean, Gregori etxera itzuli zen. Ezkondu arte.

837. Eskola aukerarik ez (OIA-077/024)

Joxe Luixek ezin izan zuen denbora luzean eskolara joan. Lehendabizi Karrikako eskolan egon zen. Hiru hilabete egin, eta zerbaitengatik eskola eten egin zen. Gero Aizegainen ere jarri zuten eskola, baina han maisuak negu bakarra egin zuen.

838. Aranoko maistrak (OIA-077/025)

Gregori, Aranoko eskolaz: Lehendabizi, maistra zahar bat izan zuten. Harekin ez zuten leitzen ere ikasi. Gero, Iruñetik etorri zen maistra, eta, hura gogorragoa izaki, ez zuten eskolara joan nahi izaten, baina aita behartu egiten zituen. Gero, Zarauzko beste bat ere eduki zuten. Haiekin ikasi zuten leitzen, eskribitzen eta erdara pizar bat.

839. Dotore jantziak (OIA-077/026)

Gregorik gogoan du jaunartzea Aranoko jostun batek egindako soineko batekin egin zuela. Erretraturik ere ez zuten atera. Amak arropa politak josten zizkien: "Beti dottore jantziak". Jaia iritsi eta arropa berria janzteko ilusioa izaten zuen. Gaztaro "alegria ta arront politta" izan zutela dio.

840. Beharrarekin ikasia (OIA-078/002)

Joxe Luixek ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan. Fabrikan bertan ikasi behar izan zuen. Eskolaren beharra handia izan duela dio. Baina beharrarekin ikasi egin du. Jubilatu etxean bertan, 20 urte aritu da hango kontuak egiten.

841. Aizegainen eskola (OIA-078/003)

Berak baserrirako gelditu behar zuen hasieran, eta beste senideek eskola gehiago izan zuten. Trumoitarrak Aizegainen gaueko eskola jarri zuen eta han egin zuen negu bat, inguru hartako beste baserriar gazteekin batera. Trumoiak ikazkina zen, baina fraide ibilia zenez, zer edo zer bazekien.

842. Lan asko egina (OIA-078/004)

Joxe Luixen eskola lana izan zen. Gregorik dio, lan asko egina dela bere gizona, baina senideetan hobekien ere bera dagoela. Andreak ongi zaintzen duela.

843. Larrazabal inguruko basoak (OIA-078/006)

Larrazabal inguruan baso asko dago. Jende asko ibiltzen zen basogintzan: ikatz egiten, txondorra... Orain pinua dago, baina lehen: haritza, pagoa, norteko haritza...

844. Oinez (OIA-078/008)

Joxe Luix oinez asko ibilia da. Gaztetan, halabeharrez, eta, gero, afizioz. Baita erretiratu eta gero ere. Gregori ere asko ibiltzen zen. Erretiratu ondoren makina bat antolatutako zeharkaldi eginak dira eta sari asko dituzte etxean.

845. Oinez asko ibiliak (OIA-078/009)

Senar-emazteak biak asko ibiltzen ziren. Orain gutxiago. Bihotza nekatuta zeukala eta, markapasos jarri zioten Joxe Luixi. Antxoika-antxoika.

846. Bihotzeko kontuekin, bihotza nekatu (OIA-078/010)

Bere garaian oinez asko ibili zelako nekatu omen zaio bihotza Joxe Luixi. Baina ibiltzea gustatu izan ez balitzaio, joango ote zatekeen zortzi urtean Aranoraino, Gregorirengana?

847. Jaiotetxea gogoan (OIA-078/011)

Gregori ezkondu eta Alzibarrera etorri zen. Geroztik, Aranora gutxitan joaten zen. Ez zen hain erraza joatea: garraio gutxiago, haur txikiekin... Bertan bizi zirenean oholezko etxea zuten eta berria egin zuten, ilusio ikaragarriarekin.

848. Frontean zauritua (OIA-078/013)

Gerrara "boluntario" joan behar izan zuen Joxe Luixek, beste bost oiartzuarrekin batera. Frontean ibiltzea tokatu zitzairen. Kontraeraso bat izan zuten eta kopatuak egon ziren. Orduan zauritu zen Joxe Luix eta ospitale militarretan egon behar izan zuen. "Mutilado de gerra" da. "Oain kusita gotzen tzit, gu re hola ibili giñun ba".

849. Soldaduak ere gose (OIA-078/015)

Soldadutza tokatzen zitzairen. Boluntario joatea hobe zela esan zieten eta halaxe joan ziren bost oiartzuar. Orain bera bakarrik bizi da. Soldaduek ere gosea pasatzen zuten. Jan berorik jan gabe ibiltzen ziren egunetan. Mendiz mendi ibiltzen ziren. Gauez tiroketak. Ez dio inori desiratzen gerran ibiltzea.

850. Aranon errota irekita (OIA-078/016)

Gregorik dio gazteek ez dezatela gerra ikusi. Berak ere gogoan du gerra: Aranoko plazara falangeak iritsi eta bertako gazte bat eraman zuten. Gerra ostean, artoari eskerrak taloak janez-eta konpondu ziren. Aranon errota irekia zeukaten, baina baziren urrutira joan behar izaten zutenak. Oiartzungo asko Goizuetara joaten ziren irin bila.

851. Larrazabalen argindarra (OIA-078/017)

Lehen baserri askotan ez zegoen argindarrik, baina Larrazabalen Arraskuerrotako errotari zaharrak jarri zuen; Asteasuinzarrak. Bertako urarekin eta motorrarekin jarri zuen argindarra. Ote-jotzeko makina ere motor harekin jartzen zuten. Aranon, Gregorik beren etxean beti ezagutu du argia, Arranbide zentrala gertu baitzuten. Argia joaten zenerako, kinkila egoten zen.

852. Aranon ere aldaketak (OIA-078/018)

Gregorik bere herria, Arano, nolakoa zen kontatu digu. Bi denda zeuden. Eliza eta frontoia. Jende gutxi bizi zen, lanera asko ateratzen baitzen, dirua irabaziko bazuen. Orain jendea itzuli egin da, lehengo etxeak erosi eta konponduta. Oso polita dago.

853. Larrazabalgoek Goizuetarako joera (OIA-078/019)

Larrazabalgoek Oiartzungo kalea baino gertuago zuten Goizueta; hara joaten ziren irin bila eta enkarguak egitera. Oiartzungo kalera gutxi joaten ziren.

854. Jauna hartzeko: bi ordu oinez eta baraurik (OIA-078/020)

Larrazabalgoek jaunartzea Oiartzunen egin zuten. Baraurik joan behar izaten zen jauna hartzera, eta Larrazabaletik Oiartzungo kalera bi ordu baino gehiago ziren oinez. Ezin zen ura ere edan. Aitona-bilobak goizeko 6etako mezara goiz etortzen ziren. Eliza oraindik itxita aurkitzen zuten. Mezatik atera eta gosari txikia Altxibarko Torren egiten zuten.

855. Lana eta dirua: aldaketak (OIA-078/021)

Gauzak asko aldatu direla diote biek. Gregorik dio emakumearentzat orain gogorragoa dela, kanpoan eta etxean egin behar dutelako lan. Baina senarrek laguntzen dietelako poza hartzen du. Lehen ez zen fabriketan-eta lan aukera handia izaten. Orduan, baserrian izaten zen nahiko lana. Larrazabalen saldu zen lehendabiziko behiarekin 1.000 pezeta jaso zuten (sei bat euro). Orduan asko iruditzen zitzaien.

856. Lantegiko soldata, eskasa (OIA-078/022)

Sosari hobeto kontzen zitzaion lehen. Orduan zorrari ikaragarritzko beldurra izaten zitzaion. Jornala hartu eta lehendabiziko gauza errentaren dirua jasotzea izaten zen. Emakumeentzat ez zegoen aukera asko: baserrietara joaten ziren lanera, jertseak egiten aritzen ziren... Ahal zena egiten zuten. Lantegietako soldata eskasa zen eta senar-emazteek, biek, beste nonbaitetik atera behar izaten zuten dirua.

857. Lehen dirua eskas eta orain osasuna eskas (OIA-078/024)

Joxe Luixek dio orain ekonomikoki hobeto daudela baina sosak gastatzeko osasuna falta dutela. "Hola da bizi ta hola izango da. Gazteik hil nahi ez eta zahartu eta bakizu... gauza ez zahartu ezkiotz. Miño ez giñazke kejavu..." dio Gregorik.

858. Zamateta etxea (OIA-079/002)

Zamateta etxeak ukiluak zituen. Behean, beren etxea eta bizartegia zeuden. Gero farmazia, denda, aurrezki kutxa, iturgintza... Etxearen kontra aska zegoen; behiak izaten ziren plazan eta beren gisara joaten ziren ura edatera.

859. Gurasoak kanpokoak (OIA-079/005)

Ama Lazkaoko Imaz baserrikoa zuen Xabierrek. Izeba Oiartzunera ezkondua zuen, eta harengana etorri zen. Aita, berriz, Bergaratik etorri zen eta Joxe 'Barbero'rekin hasi zen lanean. Gerran, aita Frantziara desterratu zuten eta ama sei seme-alabarekin gelditu zen. Xabier Lazkaora joan zen, amaren baserrira. Zirripili-zarrapala.

860. Barberua (OIA-079/007)

Lazkaon hiru urte egin zituen, amaren baserrian. Handik etorri eta bizartegian hasi zen aitarekin; jubilatuta arte aritu da bertan. Gaztetan ez zitzaion gustatzen lanbidea, baina aitak berarekin nahi zuen. Azkeneko urteak gustura egin ditu, ordea. Jendearekin oso gustura egon da.

861. Mendizalea (OIA-079/009)

Oso mendizalea da Xabier. Gaztetan oso lotua zegoen bizartegiarekin, igandeetan ere irekita izaten baitzuten. Lehen, igandeetan irekitzen ziren dendak, baina gero aldatu egin zen. Igandeetan ixten hasi zirenean eduki zuen denbora mendira joateko. Zirriki-zarraka.

862. Perretxikuak (OIA-079/011)

Perretxikuzalea ere bada Xabier. Lartaunen antolatuta izan dituzte perretxiku lehiaketak. Betiko perretxikuak biltzen ditu. Izenak. Mendizalea: oportetara joaten zirenean ere beti mendi aldera joaten ziren.

863. Mendiak, garbiago (OIA-079/012)

Mendi garbiak ziren lehen. Dena iratzelekua zen; orain, otea. Mendiak asko jantzi dira zuhaitzekin. Zenbat lan egiten zuten baserritarrek.

864. Bideak garbi (OIA-079/014)

Herri bideak ongi ezagutzen ditu Xabierrek. Asko galdu egin dira. Zakarrak hartu ditu. Lehen garbi zeuden, denak oinez ibiltzen baitziren. Gerra denboran Berinberrira joan ziren, eta gogoan du hango mutilak oinez joaten zirela eskolara. Kalera erosketak egitera astoekin etortzen ziren. San Juan kalean astelehenero izaten zen feria.

865. Igandeetan: meza eta enkarguak (OIA-079/015)

Igandeetan, dendak eta tabernak irekita egoten ziren. Baserritarrak orduan etortzen ziren kalera, goizeko 6etako mezara, eta orduan aprobetxatzen zuten enkarguak egiteko. Goizeko 6etako mezan ez zen orratzik sartzeko tokirik ere izaten. Txikierritik eta Gurutzetik kamioietan etortzen zen jendea.

866. Elizaren eragina (OIA-079/016)

Lehen, lagunekin elkartzeko aukera ere mezatan izaten zen. Ez zegoen telefonorik orain bezala. Elizak markatzen zuen egutegia. Urtean behin jauna hartzeko obligazioa zegoen; txartela ematen zuten kontrolatzeko.

867. Telefono zerbitzua (OIA-079/018)

Xabierren etxean, bizartegiaz gain telefonoa ere eduki zuten: 25 urte egin zuten lokutorio zerbitzua ematen. Telefono zerbitzua Diputazioak zeukan, eta Xabierren osaba bat bertako zuzendaria zen. Hark animatu zuen familia

telefonoa jartzera, herrian behar handia zegoela eta. Baserrietan ez zen inon telefonorik. Basarri bertsolariak telegrama bidez abisatzen zien Uztapide eta Mitxelenari zein bertso-saio zituzten.

868. Lokutorioa, gainezka (OIA-079/019)

Kabina bat zeukaten etxean. Jendeari deitzen lagundu behar izaten zioten. Etorkinek asko erabiltzen zuten beren urrutiko senideekin hitz egiteko. Konferentzia eskatu behar zenez, igual bi ordu zain egon behar zen. Hantxe izaten zuten etxea jendez beteta. Gero Telefonikak hartu zuen zerbitzua eta gero eta etxe gehiagotan hasi ziren telefonoa jartzen, eta kendu egin zuten lokutorioa.

869. Telegramak (OIA-079/021)

Udaleko telegramak beraiei iristen zitzaizkien. Gobernadoreak urtero bidaltzen zuen abisua inauteriak ezin zirela ospatu esateko. Enpresentzako telegramak ere beraiek jasotzen zituzten. Atzerritarrez etortzen ziren eta deletreatuta jasotzen zuten mezua. Nomenklatura guztia gogoan dauka. Euskaraz ere dena deletreatuta. Dolumin pila bat izaten ziren eta haiekin ere abisuak egin behar ziren etxez etxe.

870. Ur-kontagailu gutxi (OIA-079/022)

Udaletxean ere aritzen zen lanean, baina ordu batzuetan bakarrik, aitak bizartegian nahi zuen eta. Dionisio sakristauak begiratzen zituen ur-kontagailuak. Hark utzi zuenean, Xabier hasi zen. Auzo askotan ez zegoen urrik, eta, hasieran, lan gutxi zen, baina urteekin, kontagailu gehiago jarri zituzten, eta horrek lan gehiago ematen zion.

871. Udaletxeko lan baldintzak (OIA-079/023)

Ur-kontagailu gehiago jartzen hasi zirenean, lana pilatu zitzaion, eta, bizartegian ere jarraitu nahi zuenez, beste bati eskaini zion lana. Udalarentzat aritu zenean, ez zuten udal langile gisa eduki, eta lan baldintza eskasekin ibili zen. Garai hartan horrela egiten ziren gauza asko. Ezto.

872. Maizter izatetik, jabe izatera (OIA-079/027)

Zabalatar bizkondea Oiartzungo baserri eta lur askoren jabea zen. Senide baten senarra zorpetu egin zen, eta, hura kartzelara eraman aurretik, euren ondasuna saltzen hasi ziren. Orain dela 20 bat urteko gertaera horrek oiartzuar askoren egoera aldatu zuen. Izan ere, baserritar asko maizter izatetik jabe izatera pasatu zen.

873. Etxebizitzen merkatua (OIA-079/029)

Xabier urte askoan aritu da kontratisten diru-kontuak egiten. Hori dela eta, oso ongi ezagutzen du etxebizitzaren merkatua. Gaur egun gaina jo du etxebizitzaren salmentak eta zergatik izan den azaldu digu.

874. Eraikuntzaren krisia (OIA-079/031)

Kontratatik pobreen kontura aberastu direla dio Xabierrek. Asko eraiki da, eta, azkenean, lehertu egin da: baina ez Gobernuak neurriak hartu dituelako, baizik eta merkatuak berak goia jo duelako. Bankuetako interesak igo direnean igarri da.

875. Lehen, gehienak maizter (OIA-080/002)

Etorkin pila etortzen hasi zenean, etxe berean familia bat baino gehiago jarri zen bizitzen, "derecho cocina" deitzen zen moduan. Hau da, denak sukaldea konpartituz. Learren eta Bordaxarren jende pila jarri zen horrela bizitzen. Dirua aurreztu zutenean, etxeak erosten hasi ziren. Euskaldunak ere, haietatik ikasita, orduantxe hasi ziren maizter izatetik etxe jabe izatera pasatzen.

876. Zabalatar bizkondeak (OIA-080/004)

Oiartzunen etxe eta lur asko zituzten Zabalatar bizkondeek, orain dela hogeita bat urte gehientsuena saldu bazuten ere. Beraiek esaten zuten urteak egunak hainbeste sukalde zituztela Euskal Herrian. Ordizia ingurukoak zituzten aurrekoak. Haiek joan ziren Ameriketara eta handik ekarritako diruarekin hasi ziren ondasunak biltzen. Ama Zuaznabarkoa zuten, oiartzuarra.

877. Maizterren urteko errenta (OIA-080/006)

Zabalatar bizkondaren administratzailea urtero etortzen zen Kaxkaxuri tabernara baserriar maizterren errenta kobratzera. Maizterrek, errentaz gain, oilasko, kapoi eta etxeako onena eman behar izaten zioten jabeari. Jabeak, trukean, bakailaoa: garai hartan 'el jamon de los pobres' deitzen zena.

878. Kaleko dendak: San Juan, plaza eta Aialde kalekoak (OIA-080/007)

Oiartzunen, biztanle gutxiago bazen ere, orain baino denda gehiago zeuden. Oiartzungo kalean, etxe bakoitzeko komertzioaren bat zegoen ia. Iturgintza, garajea, janari-dendak, oiha-dendak, txokolategia, ardandegia, sagardotegia, tabernak... Denda bakoitzak etxearen, jabearen edo ofizioaren izena hartzen zuen. Baraibarrene, Antonene, Xapaterone, Petrine, Exkerrene, Tomaxene...

879. Kaleko dendak: plaza eta Mendiburu kalekoak (OIA-080/009)

Xabalen taberna zegoen: Fonda. Eta behean, sagardotegia. Botikariak denetik zuen. Mendiburu kalean: dendak, aroztegia, harategiak, arrandegia, tabernak, zapateroa...

880. Kaleko dendak: plaza eta Bekoplaza (OIA-080/010)

Udaletxearen inguruan: bizartegiak, farmazia, 'Caja de Ahorros Provincial'... Bekoplazako komertzioak eta etxeak: aroztegia, Sorondonea, Posta...

881. Bizitza handiko plaza (OIA-080/012)

Plazak bizitza handia zuen. Garai hartan, auzoetan bazeuden dendak, baina gremio gehienak Oiartzungo kalean zeuden. Posta banatzeko herritar bat nahikoa zen: Agapito aritzen zen, eta, haren ondoren, sakristaua. Gero jarri zuten bulegoa. 'Caja de Ahorros' udaletxe azpian zegoen.

882. Militarren presentzia (OIA-080/014)

Xabier ttikia zen garai hartan, baina gogoan du gerra eta ondorena: kale bete soldadu egoten zen. 'Trabajadore' pila bat zeuden; 'trabajadoreak' deitzen zieten, baina gerrako presoak ziren. Desfileak egiten zituzten militarrek. Gerran bertan, tropa nazionalak estatuko hiri bat hartzen zuen bakoitzean, mitina izaten zen plazan, eta herritarrak derrigortuta zeuden bertara joatera.

883. Aita, kartzelan (OIA-080/015)

Gerran aita atxilotu zuten. Iruñeko San Cristobal espetxean hiru urte egin zituen. Aurretik Frantziako gerratik ihes egin zen eta ez zeukan paperik. Hori zela eta, desterratu egin zuten. Frantziara joan zen. Ordurako, II. Mundu Gerra hasia zen, eta kartzelan egin zituen beste hiru urte. Zigorra bete ondoren, bere egoera legeztatzea lortu zuen eta Oiartzunera itzuli zen, familiarengana.

884. Gosea (OIA-080/016)

Aita kartzelan zegoen bitartean, amak gorriak pasatu zituen sei seme-alabak mantentzeko. 'Auxilio Socialen' jaten ematen zuten, baina ez zen nahikoa. Senideak familiakoen etxeetara banatu ziren. Orduan joan zen Lazkaora, amaren baserrira. Errazionamenduko kartilak. Baserritarrek uzta entregatu behar izaten zuten. Ilarak egin behar izaten ziren dendetan, eta ia ezer ez lortzeko.

885. Gerran eramanak (OIA-080/017)

Aita Bordelen zen kartzelan. San Cristobalen zegoela, ez zuten komunikaziorik. Oiartzuar asko eraman zituzten. Batzuk hil egin zituzten. Gaur egun, biktima batzuk errekonozituta daude; baina beste batzuk, ez.

886. Karlista edo nazionalista (OIA-080/018)

Garai hartan ez daki zein alderdi izango ziren, baina orduan denak karlistak edo nazionalistak ziren. Ezer egin ez zuen jendea atxilotu zuten gerran. Oraingo gazteak gauzak ongi jakin gabe aritzen dira kritikatzeko.

887. Batzokiak kendu (OIA-080/019)

Gerraren aurretik, baziren batzokiak. Gerraren ondoren, frankismoak bereganatu zituen. "Zirkulu" bezala ezagutzen zen etxea, esaterako, gerra aurretik batzokia zen. Gero, frankistek hartu zuten, eta Carlistak deitu zitoten -handik hartu zuen izena-. Gero, Frente de Juventudes izan zen, eta, ondoren, Acciñ Catálica. Pikabene jauregian, dotrina ematen zen. Gerra garaian, tropak egon ziren eta bertako jabeak alde egin behar izan zuten.

888. Oiartzun, udaran jauntxoak beteta (OIA-080/020)

Jauntxo askok pasatzen zuten udara Oiartzunen. Batzuk bertakoak ziren: Pikabenekoak eta Arizmendikoak, esaterako. Beste asko, kanpokoak: militarrek eta tituludun jendea: Marqués del Norte, Marta Figuerola, Marqués de San Damián, Conde de Villapadierna...

889. Aberatsak, Oiartzunera (OIA-080/022)

Oiartzunera udara pasatzera etortzen zen jende aberatsa: Beldarraindarrak, Madrilgo Lasatarrak...

890. Aberatsak ere gerratik ihesi (OIA-080/024)

Oiartzungo jauntxoak: Egiatarrak, Indianoko alemanak, Beldarraindarrak... Gerra garaian, askok alde egin zuten eta gero pixkanaka itzuli ziren.

891. Lartaun: kultur elkarte baino gehiago (OIA-080/025)

Gerraren ondoren, baina oraindik ere Francoren diktaduran, Lartaun elkarte sortu zen Oiartzunen. Kultur elkarte bezala sortu zen, baina herriko gizarte gaietan eta politika aldatetetan ere lan handia egin zuen. Besteak beste, Oiartzunen egin nahi zen fundizio lantegi handi baten proiektua atzera botatzea lortu zuen. Udaletxean eta Diputazioan ordezkari izan zuten, baina kideetako batzuk kartzelan egon ziren.

892. Lartaun, elkarte erreferentea (OIA-080/026)

Lartaunek, garai batean, mila bazkideetik gora izan zituen. Herrigintzan erreferentea zen herrian. Zinema egiteko proiektua ere izan zuten, baina udaleko eskuineko ordezkari bat aurka jarri zen eta ez zuten lortu.

893. Diktadurari erresistentzia (OIA-081/002)

Oraindik diktadurapean zirela, Jose Antonio Agirreren 'De Gernika a Nueva York pasando por Berlin' liburu kargamentu bat pasatu zen Hendaiatik hegoaldera.

894. Ikurrina galarazita (OIA-081/004)

Behin, autobusetik ikurrinak botatzen aritu ziren, Errenteriatik Oiartzunera bitartean. Botijo-saltzaile batek bildu eta botijoak ikurrinekin apaindu zituen. Atxilotu egin zuten botijo-saltzailea.

895. Aberri Eguna eta Manzanas jauna (OIA-081/005)

Bergaran Aberri Eguna zegoen deituta, baina garai hartan galarazita zegoen. Xabier-eta joan ziren, baina guardia zibil eta polizia betea zegoen ingurua eta atxilotu egin zuten. Handik egun batzuetara, Irungo komandantziatik deitu zion Manzanasek.

896. Beste aldera ihes (OIA-081/007)

Bizkaitar batzuei muga pasatzen lagundu zien. Haietako bat aita izan berria zen eta negar batean ibili zen mendiz mendi. Grebetan-eta ibilitako jendea zen.

897. Urte askotako borroka (OIA-081/009)

Xabierren aurrekoek aldatetak ikusteko esperantza zuten. Gaur egungo eskubideak ikusiz gero, ez lirakeela mugituko uste du Xabierrek. Orduan ez zen amestu ere egiten hainbestera iritsiko zenik.

898. Kudeatzaile eta kontu-hartzaile (OIA-081/011)

Bizartegiko lanaz gain, Xabier urte askoan aritu izan da hainbat oiartzuarren diru-kontuak eta gestioak egiten. Bi igeltserorekin hasi zen, eta, pixkanaka, gero eta jende gehiago hasi zitzaion zerbitzua eskatzen. Lana pilatu zitzaion. Lehen kontu guztiak eskuz egin behar ziren. Kalkulagailuak bazeuden, baina motelak ziren eta ez oso seguruak.

899. Arian ikasia (OIA-081/013)

Gestio eta diru-kontuak egin dizkio herritar askori, baina ez berez eskola asko zuelako. 14 urte arteko eskola izan zuen, baina beti izan du zaletasuna leitzeko eta informatzeko, eta asko praktikatuz ikasi du. Bizartegiaz gain,

beste lan mota asko egitea tokatu zitzaion gaztetatik. "Indakun damuik ez dut izaten".

900. Aldaketak (OIA-081/016)

Miseria zer den ezagutu dute: baserriak ez urik, ez argirik eta ez biderik gabe. Erditzeak etxean. Familia galantak: ume zaharrena gazteak zaintzen. Gaurko gazteak ez du ikasi eskuetan daukana baloratzen.

901. Mandazain ofizioa (OIA-082/027)

Aurrekoekin ikasi zuten ofizioa. Karga ongi orekatu behar da; bestela, mandoa gehiago nekatzen da. Kargarako pieza bakoitzak dauka bere betekizuna eta denak ongi jarri behar dira beren tokietan; mandoa amildu egin daiteke, bestela. "Geok in ber izaten genun". Garrotia. Enkomendayua. Beiraka. Okerra. Sokarriya.

902. Basoko arauak (OIA-082/028)

Egur-ikatzak egiteko onena pagoa da. Pagoak markatu egiten ziren. Zein adar moztu, zigilua jartzen zioten, eta, behar ez zen adarra moztzen bazen, isuna.

903. Basoaren enkantea (OIA-082/030)

Baso gehienak herriarenak ziren eta Udalak markatzen zituen pagoak egur-ikatzak egiteko. Zein adar bota behar zen markatu, kargak kalkulatu, eta, gero, enkantean ateratzen zuten. Mandazainek erosten zuten, eta gero beraiek ordaintzen zieten txondorgileei eta gainerako peoei. Xulua, Isatse eta Maxalengoak ziren Oiartzunen egur-ikatzak garraiatzen aritzen zirenak. Joka. Hika.

904. Jurnalak eta erretiroak (OIA-082/032)

Batzuetan, mandazain batek hartzen zuen enkantea, eta, gero, besteen artean banatzen zuen. Gero, gazteak ere hasi ziren joka. "Karga kontun patu". "Dirua billu in ber tzen, zintzo aski bai". "Ta holaxe gue bizimodua". "Kastigua; andria hartuta re kastigua, ta gabe re bai, hemen kastigukin bizi ga".

905. Lana erruz eta jana eskas (OIA-082/033)

Gaztetan lan asko eginak dira, eta, askotan, eskas eta gaizki janez. Eta hala ere, adin honetara iritsi dira. Lehenago, beren gurasoek taloa eta sagarra bakarrik izaten zuten jakitarako, eta gazta. Besazurtenak.

906. Abereak, ongi zainduta (OIA-082/034)

Lehenago zaharrek ilusio handia izaten zuten abereekin: asko apaintzen zituzten eta baita zaindu ere. Izerditzan zirenean, mantekin estaltzen zituzten; bestela, gaixotu egiten ziren. "Geok ez genekiulako, geoztik ikasi ttugu guk e", "Ze ikusi, harta". Hika.

907. Norteko trenbiderako trabesak (OIA-083/002)

Mandazain lan gehiena egur-ikatzak garraiatzen egin du Domingok, baina Norteko trenbiderako trabesak garraiatzen ere aritu izan da. Bi metro eta erdikoak ziren eta mando bakoitzak bi garraiatzen zituen; bi aiekatan bana.

908. Norteko trenbideko trabes asko, Oiartzungoak (OIA-083/004)

Zaria ingurutik Norteko trenbiderako mila trabes baino gehiago atera izan dira. Uzpurura ateratzen zituzten mandoekin eta gero kamioietan jaisten zituzten. Haritzarekin egiten zituzten trabesak. Arbola moztu eta bertan egiten zituzten oholak, neurrira. Harpa.

909. Mendiko lana (OIA-083/005)

Norteko trenbiderako trabesak mendian bertan egiten ziren. Bi espeka jarri, bueltaka-bueltaka aldamera igo eta han moztu. Mandazainek handik errepideraino eramaten zituzten. Karga orekatzeko, harriak erabiltzen zituzten.

910. Mandoak gehiegi kargatuta (OIA-083/007)

Añarbe ingurutik Altzibarrera ere aritu izan dira tabloiketan, mandoekin. Idiekin ekarri behar ziren kargak ekarri zituzten mandoekin, eta txiki arraio egin ziren abereak.

911. Mandoa: garraiorako egokia (OIA-083/009)

Animaliari karga tamainan jartzen bazaio, asko aguantatzen du. Maxalengoek beti tamaina berean ibiltzen zituzten; ez zituzten behartzen. Mandoa jarrita egoten zen karga eramateko; berdin zuen zein karga mota jarri. Jaiegunetan ostikoka ibiltzen ziren, indarra nonbaitetik bota behar eta. Uhalaren atalak: aztal uhala, petrala, txintxa...

912. Animalien izenak (OIA-083/010)

Mandoek izena zuten: Pequeño, Rubio, Castaño, Niño, Cartucho, Moñongo... Baserriko animalia batzuei izena jartzen zaie, eta beste batzuei, ez. Behiei eta txakurrei, bai, esaterako, baina txerriei eta oiloiei, ez. Beren txakurra Crus da.

913. Xuxen ibiltzen den mandoa (OIA-083/012)

Mandoa 10 eta 20 urte bitarte bizitzen da, izan duen ibileraren arabera, asko behartu den edo ez. Xuxen ibiltzen den mandoa hilez gero, pena izaten da. Egur-ikatzaren salmenta jaisi zenean, aitzak denak saldu behar izan zituen. Domingok geroztik eduki izan du mando bat: "mazkaketako ta iatzia kartzeko ta".

914. Aberea ongi ezagutzen (OIA-083/013)

Domingo mandazaina izaki, gerora ere eduki izan du hazienda handia: mandoa, behorra... Ongi ezagutzen ditu animaliak eta baita zaindu ere. "Ez ernai gelditzen ta geo nerbiosua ikarriya ta". "Tetanuak joko zattu". "Hainbeste denbun patu gabe eta nik eztaikit zertako zauden zu".

915. Hazienda gobernatzeko ikasten (OIA-083/014)

Pertsonak ez du berehala ikasten animaliak gobernatzeko. Behiak gaixotzeko beldurrak, heiak itxita edukitzen zituzten, eta gero konturatu ziren bero hark berak gaixotzen zituela; errapeko mina jartzen zitzairen. Lehen, esnea galtzeko beldurrak, tira eta tira aritzen ziren errapeari, eta orain badakite behia ez bada jaisten ez zaiola esnerik egiten, jarri egiten dela. Gaur egun baserriarrak duen egoeraz.

916. Auzoetako tabernetan bazkaltzen (OIA-083/016)

Mandazainak egun osoan aritzen ziren garraioan eta tokatzen ziren auzoan bazkaltzen zuten: Iturriotzen baziren, Disparatenean; Ergoien baziren, Tolaren... Tolareko aitona, Migelek, laguntzen zion Domingori, oso mutil koskorra zela hasi baitzen mandoekin lanean. "Hortxe denak eroka ta zerrika denak hizketan".

917. Pagota (OIA-083/018)

Egur-ikatzaz gain, pagota ere garraiatzen zuten. Pagotik ateratako egur koskorra zen pagota, okindegietako labeetan erabiltzen zena.

918. Maldizioka (OIA-083/020)

Leitzako Kaitanoren gainean. Mandazaina zen hura ere. Lotsakitan ibiltzen zen. Mandazain gehienak maldizioka ibiltzen omen ziren beren animaliekin. Zeraingo apaiza harritu egin zen Maxalengoek maldiziorik botatzen ez zutelako, eta sermoia egin zuen. "Maldizio huts-hutsa". Hika.

919. Ilintxa (OIA-083/022)

Ilintxa: txondorrean erretzen ez zen egurra, baina oso ona sua pizteko, lehor-lehorra.

920. Mandoak zintzarriekin (OIA-083/024)

Mandoak zintzarriekin ibiltzen zituzten: trillun-trallun. Deskuidoan mando bat askatzen bazen, zintzarria geldituz gero igarri egiten zioten; bestela, urrutira alde egin zezakeen. Hika.

921. Kontrabando kontuak (OIA-083/026)

Kontrabando lanetan, ardiaren marraka egiten zuten abisua emateko. Domingok ikusten zituen kontrabando lanetan, baina bera ez da ibilia. Gogoan dauka batzuk harrapatu egin zituztela, baina, guardia zibila euskalduna izaki, barkatu egin zituen. Toki izenak.

922. Makina bat haur hazia (OIA-084/002)

Anttoni Tolareko neskamea da. Bertako bi belaunaldi berarekin haziak dira. Beti maite izan ditu haurrak. Bere ahizpak ere laguntzen zion.

923. Bilerara ere haurrekin (OIA-084/003)

Bilera eta festetara ere zaintzen zituen haurrekin joaten zen. Behin baino gehiagotan, dantza hasi baino lehen etxera itzuli behar izan zuen bere haiekin. Hala ere, nobio bat baino gehiago izan ditu Anttonik. Bilerak eta festak: Altzibar, Gaztañe, Iturriotz. Kalamidada.

924. Hobe ezkondu gabe (OIA-084/005)

Nobio batek ezkontzeko eskatzen zion eta Anttonik ez zuen nahi; hobeto zegoen ezkongai. Pena handia hartu omen zuen mutilak. Ezkontza batean ama-bitxi joan zenekoa: bikarioak uste zuen galtzerdi gabe joan zela. "Arront tonta gertatu za".

925. Ezkonduta edo ezkondu gabe, zer da hobe? (OIA-084/007)

Auzoko lagun bat bisitatzera joan zen batean, eztabaidan aritu ziren ea nola bizitzen zen hobeto, ezkonduta edo ezkondu gabe. "Hartzan!" Hika.

926. Tolareko lanak (OIA-084/008)

Tolare, tabernaz gain, baserria ere bazen. Etxetik urruti ere bazituzten lurrak eta hara joaten ziren patata ereitera, eta baita txerriarentzat ezkurra eta gaztaina biltzera ere. Toki izenak.

927. Tolare: taberna eta denda (OIA-084/009)

Ergoien asko aldatu da. Lehen, taberna gutxiago zegoen, baina bera beti gogoratzen da Tolare eta Bidealde bazeudela. Tolaren, tabernaz gain, denda ere bazen. Auzoko mutiko bat ogi bila joan zen diru gabe eta etxeakoandreak ez zion eman nahi izan. Anttoniren amak semea bidali zuen ogia erosi eta bizilagunei eramatera. "Erki zion". Marruez. Hika.

928. Gramola (OIA-084/012)

Tolaren gramola zegoen. Errenteriatik ekarri zuten eta oso polita zen. Berak askotan jartzen zuen. Kontuz jarri behar zen.

929. Pinatxone (OIA-084/014)

Gaur egun Pagoalde industrialdea dagoen tokian, torno fabrika zegoen. Antonio Pinatxok sortu zuen 1946 aldera. Auzoan, fabrikari, Pinatxone deitzen zitzaion. Langile asko zituen eta Tolaren bazkaltzen zuten askok. Bertako etxeakoandrea operatu zutenean, ezin izan zuen jarraitu denei bazkaria ematen.

930. Otordurako aukera (OIA-084/015)

Tolaren beti eman izan da jaten. Ez orain bezalako aukerarekin, baina beti egon da otordua egiteko modua. Mendira joaten ziren batzuk edozer jango zutela esanda, eta gero haientzat jakia ezin bilaka aritu behar. Amurraziyua.

931. Tolareko bilera (OIA-084/016)

Igandeetan bilera izaten zen Tolaren. Manuxio Borreiak jotzen zuen soinua. Bertako eta kanpoko jendea biltzen zen. Filarmonika.

932. Baile zerratua (OIA-084/018)

Bileran baile zerratua egiten zela eta, udaletxean parte eman zuen norbaitek. Anttonik esan zion alkateari hara gezurretan joaten zirenei ostiko eman eta aurrean bidaltzeko. Barre egin zuen alkateak. Soinu-jotzen Manuel Inazio Galdos eta pandero-jotzen Joxe Luix Lardi aritzen ziren. "Oso gizon propioa zen hura". Hika.

933. Albisturren apopiloak (OIA-084/019)

Ur-korrontea oraindik jarri gabe zegoen garaietan, Tolarekoek Altxuko iturritik ekartzen zuten ura. Tolaren ez ezik, beste toki askotan ere lanean aritu izan da Anttoni: Albisturren "kabañak" prestatzen eta arropa garbitzen aritu izan zen. Albisturren dolareak zeuden eta maindireekin estaltzen zituzten. Zontzorroizko errepidea egiten ari zirela, apopilo asko egoten zen bertan. Hika.

934. Fede handia (OIA-084/021)

Oso kristau fededuna da Anttoni. Ahal izango balu, egunero joango litzateke mezara. Joandakoen alde kandelak eta mezak jartzea gustatzen zaio, baina gero ezin du joan, erortzeko beldurrak ibiltzen baita beti. Ez du hiltzeko penarik, munduan nahikoa ikusi duela eta. "Ez ga moldatzen jotia, ez ta nahi izatia bakarra aski". Zurmillua.

935. Etxenagusin soldaduak (OIA-084/023)

Gerra garaian, Etxenagusi soldaduz josita egon zen. Altzibarren fusilatutakoek hantxe pasatu zuten gaua. Presoak edukitzen zituzten. Etxenagusi gaur egun desagertuta dago. Tolareren ondoan zegoen. Anttoniren jaiotetxea zen.

936. Angula baino nahiago sardina zaharra (OIA-084/026)

Igandero afaltzera joaten zen kuadrilla bati gertatutakoa: denak angula jaten ari ziren eta beraietako batek sardina zaharra nahiago zuen. Lotsarri zikina. Hika.

937. Txarondoerrota (OIA-085/027)

Txarondoren azpiko aldean, Txarondoerrota dago. Frantxiskak ez zuen ezagutu martxan, baina sutegia ere bazuela dio. Aska oraindik han du. "Herioak begiak gorri". "Holako kontuk asko". Iraitzen. Hark.

938. Gerra eta gosea (OIA-085/028)

Gerra: Arritxurietan zeuden soldaduek tiro egiten zieten etxetik ateratzen zirenei. Izan ere, 7etatik aurrera, ezin zen kanpoan ibili; baina, hala ere, baserritarrek beren lanak egin behar izaten zituzten. Oraingo gerrak ez luke bat ere zutik utziko. Gerraren ondoren, gosea. Ilarra gordeka. "Euntalako pesta". "Nolapatte gobernatze izango zun". Gaixua. Hark. Zama-otia.

939. Auzokoekiko harremana (OIA-085/030)

Zaila izaten da auzokoekin ongi moldatzea, batez ere muganteak direnean eta hazienda tartean dagoenean. Aita ez zen sesiozalea eta gazteei ere ez haserretzeko esaten zien. Hika.

940. Portuberri taberna eta bilera (OIA-085/031)

Portuberri Tornolako taberna zen. Soinua jotzen zuten jaietan eta huraxe zen Tornolako bixitasuna. Gainerakoan, lana. Auzolana: gerraren ondoren elkarri asko laguntzen zitzaion.

941. Kontuak eta kantuak (OIA-085/033)

Aita aritzen zen kontuak kontatzen. Ttikiena belaunen gainean jarrita, kontu-kontari. Estrataburuko laguna zuen Txarondoko aitonak, eta, biak elkartzen zirenean, haien kontuak eta kantuak! Marraka.

942. Sorginkeriak (OIA-085/034)

Tornolatar gehienek ezagutzen dituzte sorgin kontuak. Frantxiskak dio horrelako kontu asko izaten zela garai hartan. Frantxiskaren osabari gertatutakoak ere sorginkeria dirudi. "Euntalako mutila". "Gorriak ikusiak". "Holaxeko komeiak". Zabra. Marru.

943. Aiako Harriko zomorroak (OIA-085/036)

Auzoko emakume batek sorginak ikusten omen zituen, Aiako Harriko zomorroak edo. Egun jakina omen da sorginkeriaz baliatzeko. "Ne hitzak etzala iñor ofendittu".

944. Sorgin gaiztoak ere bai (OIA-085/038)

Sorginek, norbaiti txarra egiteko, kandelak jartzen zituzten. "Halako kontuak aittu izan ttugu haintzako".

945. Txerri-hiltzea (OIA-086/003)

Txerria hiltzea lan handia da. Lagun asko behar dira eta bezperan ere lan asko egin behar da: porrua, tipula, perrexila txikitu.. Txerriak dena du ona; jaki asko ateratzen zaio. Txermoniak auzokoen artean banatzen ziren.

946. Artilea (OIA-086/006)

Txarondon ardi asko zituzten eta eskulan asko egiten zuten ardiaren ilearekin. "Nei re gustatu izan zitt kozina".

947. Kardakia (OIA-086/008)

Garizuman, etxeko sua bedeinkatzen zen kardakiarekin. Euntalako.

948. San Juanak (OIA-086/009)

San Juan sua: suaz gain, baratze eta zelaietan kandela bedeinkatuak jartzen ziren, gau osoan.

949. Koplariak (OIA-086/010)

Eguberrietan eta urte zaharretan eskean ibiltzen ziren koplariak.

950. Txondor eta karobi (OIA-086/012)

Tornolan txondor asko egiten zen, eta karobiak ere bazeuden. Karea baratzerako eta etxea margotzeko erabiltzen zen: zomorroak akabatzen zituen. Eskuekin eta begiekin erne ibili behar zen, kare biziak erre egiten baitu.

951. Falangeak (OIA-086/014)

Gerra Tornolan: Falangeek jatekoa botatzen zioten. Konboiketariak zirela esaten zioten. Aberea lapurtzen zuten baserrietatik. Neska txarra.

952. Militarrak (OIA-086/016)

Ardiak zaintzen aritzen ziren anaia eta biak. Txarondo errotan militarrak zeuden.

953. Altzibar auzoa lehen (OIA-093/004)

Umea zela, Altzibar auzoa nolakoa zen azaltzen du. Asko hazi da ordutik hona. Lehen zegoen denda bat oraindik ere han dago. Torre taberna gogoan du.

954. Altzibar auzoko sagardotegiak (OIA-093/005)

Garai batean, Altzibar auzoan 6 sagardotegi zeuden; banan bana aipatzen ditu. Lehen sagardotegi asko baserrietan egoten ziren.

955. Gerra ostean Goizuetara ogi bila (OIA-093/006)

Umetan kalean jostatzea asko gustatzen zitzaion. Gerra osteak gosea ekarri zuen, eta beraiek Goizuetara joaten ziren ezkutuan ogi bila; ogi hura etxerako eta saltzeko izaten zen.

956. Errazionamenduko ogia: txarra eta gutxi (OIA-093/008)

Gerra ostean, ogia errazionamenduan banatzen zuten: txarra eta gutxi egoten zen ogi hura. Nafarroan janaria bazuten, Francoren alde egon zirelako gerran. Nafarroara ogi bila joateko, zaldia eramaten zuten, baina ez ziren gainean joaten. Harako bidea nolakoa zen azaltzen du. Handik ekartzen zuten ogia berehala saltzen zuten.

957. "Pakito Beltza" (OIA-093/011)

Umetan egun guztia kalean ematen zuen jostatzen: "Pakito Beltza" esaten zioten. Orduan, pilotan frontoian jokatzeko, ordaindu egin behar izaten zuten. Kanikatan, zibotarekin... ere aritzen ziren jolasten.

958. Txorien habiak harrapatzen (OIA-093/012)

Txorien habiak harrapatzeko amorratua izaten zen. Habietako umeak amak haz zitzaizkien ekartzen zituen etxera; xoxokumeak saldu egiten zituzten gero. Habiak inguruko basoetatik ekartzen zituzten eta nola harrapatzen zituzten azaltzen du. Txori mota bakoitza bere erara zaindu behar izaten zen.

959. Altzibarko harrobian lan egindakoa (OIA-093/015)

14 urte zituela hasi zen lanean Altzibarko harrobian. Han legarra, hartxintxarra eta hondarra egiten zituzten. Lan-prozesua nolakoa zen azaltzen du.

960. Harrobiko harriak (OIA-093/016)

Harrobian bagoiak kargatzen zituen Pakitok. Harri handiak nola lehertzen zituzten azaltzen du.

961. Erreterian obra handiak egin zirenekoa (OIA-093/018)

Erreterian obra handiak egin zituzten 5-6 urte inguruan: zer lan egin zituzten aipatzen du. Garai hartan, enkarguak egiten zituen gehienbat Pakitok, pintxe izan zen. Bi nagusi izan zituen orduan: bata Portugalkoa eta bestea Extremadurakoa; haiekin gaztelaniaz egiteko moldatzen zen.

962. Erreterian uholdeei aurre egiteko hartutako neurriak (OIA-093/020)

Erreterian ura pasatzeko tunelak egin zituzten. Tunela egiten ari ziren bitartean, uholdeak izan ziren, eta horma zati bat erori zen. Erreterian askotan izaten ziren uholdeak, eta horregatik tunela egin zuten. 1933an tranbia errailetik irten, eta hildakoak egon ziren.

963. Pakitok izandako lehenengo bizikletak (OIA-093/022)

Bere lehenengo bizikleta gogoan du; pixkanaka bizikleta hobeak lortzen joan zen. Bizikletarako zaletasun handia izan du: Pasaian lan egiten zuela, Altzibarra joaten zen bazkaltzera ia beti.

964. Pasaiaiko Luzuriagatik Zestoara (OIA-093/023)

Erreterian lan egin ostean, 1948an Pasaiaiko Luzuriagan hasi zen lanean. Moldekatzailea izan zen han. Luzuriagan hainbat lan mota egiten ziren, baina pixkanaka kentzen joan ziren lan mota batzuk. Orduan, 22 lagun Zestoara Sorazuren fabrikara joan ziren lanera.

965. Fabrikak eta baratzea (OIA-093/024)

Zestoako Sorazuren fabrikatik Lasartera joan zen lanera; 9 urte eman zituen han. Gerora, Erreteriara bidali zuten guardia-lanak egitera fabrika batean. Han zegoela, baratzea muntatu zuen. Gustura ibili zen horrela.

966. Laneko azken urteetan oso gustura (OIA-093/025)

Angulak harrapatzera joateko eskaini zioten, baina ezetz esan zuen. Baratzean lanean zebilela, lantegiz aldatu behar zutela esan zioten. Han eman zituen laneko urterik onenak.

967. Erregulazio-plana eta erretiroa (OIA-093/026)

55 urte zituela, erretiroa hartu zuen, erregulazio-plana egon baitzen orduan. Erretiroaren baldintzak nolakoak izan ziren aipatzen du.

968. Luzuriagako garai latzak (OIA-093/027)

Luzuriagan 3.000 langile izan ziren garai batean. Erregulazio-planak izan zirenean, protestak egon ziren fabrikan. Behin 3 hilabeteko greba egin zuten Luzuriagan, soldatak igotzeko eskatzen. ELA sindikatuan denbora asko egon zen Pakito.

969. Txirrindulari profesional izandakoa (OIA-093/029)

Txirrindularitzarako zaletasuna gazte-gaztetatik eduki izan du. Lehenengo bizikleta 350 pezeta kostatu zitzaion; bigarren bizikleta, ordea, 600 pezeta. Zenbait lasterketatako oroitzapenak gogoan ditu. 2 urte izan zen txirrindulari profesional Añorgan, Cementos Rezolan. Oiartzunen egon izan dira taldeak, baina gerora.

970. Txirrindularitzako lasterketak eta entrenamenduak (OIA-093/030)

Txirrindularitza-lasterketetan parte hartzeko zer egin behar izaten zuten aipatzen du. Errenterian Turin taldean ibili zen 2 urtez; ahal zuenean entrenatzen zuen, lana ez baitzuen inoiz utzi. Entrenatzeko zer ibilbide egiten zituzten azaltzen du; kaleko arroparekin ibiltzen ziren bizikletan.

971. Erori bai, baina ezer larririk ez (OIA-093/031)

Bizikletan zebilela, lesio gutxi izan zuen. Behin Lekeition bizikletatik erori zenekoa kontatzen du. Hainbatetan erori izan den arren, ez du istripu larririk izan.

972. Txirrindularitzako arrakastak eta baldintzak (OIA-093/033)

Pakitok txirrindularitzako hainbat lasterketatan hartu izan du parte. Lekuona ekipoan zegoela, Bizkaiko itzulia irabazi zuten. Txirrindulari amateur zenean, ez zieten ordaintzen, baina noizean behin bazkari batera gonbidatzen zituzten; profesional zela, batzuetan ordaintzen zioten.

973. Txirrindularitza profesionala utzi zuenekoa (OIA-093/034)

Añorgan txirrindulari profesional gisa zebilela, zer janzkera izaten zuten azaltzen du. 23 urte zituela, utzi egin zuen txirrindularitza profesionala, Luzuriagan lanean asko nekatzen baitzen.

974. Lartaun zikloturista taldearen sortzailea (OIA-093/035)

Lartaun zikloturista taldea sortu zuten hiru lagunaren artean 60-70ko hamarkadan.

975. Lehengo eta oraingo drogak txirrindularitzan (OIA-093/037)

Lehen txirrindularitzan "Simpatin" hartzen zuten. Drogak asko garatu dira lehendik hona.

976. Pospolinetako kantua: "Errotatxo maitea" (OIA-111/004)

Batzokia eta pospolinak. Abestu egiten zuten. Antzerkia egiten zuten batzuek. Doktrina ere bertan ikasten zuten. "Errotatxo maitea". Mutilek ikurrinarekin egiten zuten dantza.

977. "Oiartzun alde" kantua (OIA-111/005)

Aita oso kantuzalea zen, eta bi ahotsetara abesten erakusten zien. "Oiartzun alde" kantua; Basarriren bertsoak.

978. Mendibururen kantua (OIA-111/006)

Aita Mendiburu Oiartzungo jesuitari egindako kantua abesten dute.

979. "Xarmangarria zera" abestia (OIA-111/008)

"Xarmangarria zera" kantua, Iparraldekoa, aita erakutsitakoa, abesten dute.

980. "Eguzki denean" kantua (OIA-111/009)

"Eguzki denean" kantua, Iparraldekoa.

981. Don Manuel Lekuona eta "Aintza zeruan" kantua (OIA-111/012)

Abestiak artoa zuritzen ari zirela ikasten zituzten, aitarekin, baita bazkalondoan ere. Baserriz baserri ibiltzen ziren kantuan, Eguberrietan. Don Manuel Lekuonak abesti berri bat ematen zien urtero. "Aintza zeruan" kantua abesten dute.

982. 'Ehun dukat' antzezlaneko kantuak (OIA-111/014)

Antzerkiak egiten zituzten Oiartzunen, erdaraz eta euskaraz. Astigarragara joan zen, eta hankak ilunduta zituelako "hanka zikina" esaten zieten. Don Manuel Lekuonaren Ehun dukat antzezlanak. Sari bat irabazi zuen.

983. "Oiartzun, gogor erantzun" (OIA-111/015)

Oiartzungo Don Pablo apaizak kantuak erakusten zizkien umetan. "Oiartzun, gogor erantzun" kantua. Gipuzkoako kongresu eukaristikora nola joan ziren jantzita.

984. "Neska gazte balientia" kantua (OIA-111/016)

San Estebanetan kantatzen duten beste kantu bat. "Neska gazte balientia", Oiartzungo kanta.

985. Eskolako kontuak; erdaraz ahozkatzeko arazoak (OIA-111/018)

Eskolan "madre" eta "cinco" gaizki esaten zutelako maistrak esaten ziena. Anekdotak bat kontatzen dute.

986. Erdara ikasteko, eraztuna (OIA-111/019)

Oiartzungo eskolak: mojak eta eskola publikoa. Mojek erdaraz egiten zieten, eta beraiek ulertu ez. Katonetik kartilara. Ugaldetxo auzoko eskola. Erdaraz ikasteko, eraztuna. Azkenari makilarekin jotzen zion maistrak.

987. Eskolako kontuak, anaiarenak (OIA-111/023)

Anaia eskolako komunean sartu zuen maistrak; hark atea bota zuen.

988. Umeentzako abestiak (OIA-111/025)

"Haurtxo txikia sehaskan dago" sehaska kanta. Amonak Joxe Antoniori kantatzen zion kanta. Amak kantatzen zuen abestia, erdaraz: "Señor San Jose".

989. Erdarazko abestia, amak kantatzen zuena (OIA-111/026)

Amak erdaraz kantatzen zuen kantu bat abesten dute, arrantzale herri bati buruzkoa: "En la falda de una montaña".

990. "Artzain buruzuri bi" kantua (OIA-111/027)

Eguberrietako kantua: "Artzai buruzuri bi".

991. "Agertu da Jaungoikoa" (OIA-111/028)

Eguberritako kantua. "Agertu da Jaungoikoa". Mari Carmen Gantzarain zen abesbatzako irakaslea.

992. San Nikolasen kanta (OIA-111/029)

San Juan festak eta San Nikolas. San Nikolasen kanta, etxez etxe kantatzen zuten kalean.

993. 'Agur Maria' kantua (OIA-111/032)

Agur Maria kantua abesten dute. Antzezlan batean kantatzen zuten. San Juan abestia ez dute gogoratzen. Gerra aurretik Santa Ageda ospatu zuten, batzokiak antolatuta.

994. Oiartzungo bertsolariak; 'Pello Errota' (OIA-111/033)

Oiartzunen bertsolari asko zeuden. Igandetean, denak joaten ziren mezetara. Corpus Eguneako prozesioa. Sagardotegian biltzen ziren gazteak, eta bertsoan aritzen ziren. Inguruko herrietatik ere joaten ziren sagardoa edatera. Pello Errota eta haren arreba.

995. Bertsopaperak; osaba Benantzioren bertsoak (OIA-111/034)

Bertsopaperak saltzen zituzten Oiartzungo plazan. Aitak asko zituen, baina gerra etortzean bota egin zituen. Osaba Benantzio Rekaldek jarritako bertsoak.

996. 'Basarri'ren bertsoak; "Oiartzungo neskatilak" (OIA-111/035)

Basarrik langile batailoietan zegoela jarritako bertsoak, Lesakara festetara joan zirenekoak. Basarriren beste bertso batzuk, Oiartzungo neskatilei jarriak.

997. Langileen Batailoietakako mutilei jaten ematen (OIA-111/037)

Langileen Batailoiak Aritxulegin egoten ziren, eta ahal zutenean Ugaldetxora joaten ziren. Amak potajea ematen zien. Gaizki jantzita ibiltzen ziren. Taloak. Batek bonbilla lapurtu zien.

998. Hizkuntza aldatzea kosta (OIA-117/006)

Juleni gertatu izan zaio ezin mintzatzea inguruak espero duen hizkuntzan, inguru horretan bertan dagoen norbaitekin aurrez eraikiak dituen hizkuntza ohiturak direla eta. Bestalde, ingurua edozein dela ere, Julenek euskaldunik gertuan sumatzen badu, beti pizten zaio hari euskaraz egiteko premia moduko bat.

999. Euskaraz ez dakienik kuadrillan sartzerakoan (OIA-117/007)

Lagunarte euskaldunera euskaraz ez dakienik sartzen denean suertatu ohi den egoerari buruz. Julenek kontatzen du arreba baten lagun belentziarra etxera oporretan joan zitzaienekoa.

1.000. Oiartzun herri euskalduna (OIA-117/009)

Oiartzun euskalduntzat dute Julen eta Asierrek. Asierren ustez, aldea suma daiteke hizkeran auzotik auzora, diferentziak txikiak izan arren.

1.001. Iturriotz auzoan emakumeak noka (OIA-117/010)

Izango da, bestela ere, Oiartzunen noka egiten duen emakumerik, bistan da, baina Iturriotz auzoan sasoiko da emakumeen arteko hiketa.

1.002. Euskaraz bizi (OIA-117/011)

Asier euskaraz bizi da ia %100ean, Oiartzundik irtetea gutxi tokatzen baitzaio gaur egun. Julenek Donostian egiten du lan, eta maiz samar tokatzen zaio gazteleraz egitea. Donostia euskalduntzen ari dela dio, baina era berean, euskaraz normaltasunez egin nahi izatetik oso urrun dagoen jendea ere ikusten du.

1.003. Euskara lantokian (OIA-117/012)

Judo eskolak emateko garaian buruhausteak izaten ditu Julenek hizkuntza kontuekin.

1.004. Kuadrillako hizkuntza joerak (OIA-117/013)

Orokorrean euskaraz aritzen dira kuadrillan Asier eta Julen, baina mintzagai duten gaiaren arabera, gerta liteke gaztelerara jotzea.

1.005. Gazteleraren menpe bizi gara (OIA-117/015)

Egunerokoan euskara hutsean jardun nahi izanagatik ere, ezinezkoa da ia. Gazteleraren presentzia uneorokoa da eta eragina handiegia.

1.006. Bertsolaritzaz eta herri kirolez ezin gazteleraz jardun (OIA-117/017)

Asier txikitan ez zen batere bertsozalea. Gaur egun, izatekotan, korte zaharreko bertsogintza maite du; egungoa txukunegia iruditzen zaio, finegia. Julen bertsotan ibilia da, haurra zela; utzi egin zuen gero, eta gaur egun damutu egiten zaio.

1.007. Esamolde eta irain batzuk (OIA-117/019)

Koadrillan ohikoak dituzten esamolde eta irain batzuk aipatzen dituzte Julenek eta Asierrek.

1.008. Goitzenak jaiotetxearekin bat (OIA-117/020)

Garai batean jaiotetxearen izenetik jartzen zitzaion jendeari goitizena. Egun, galdu egin da ohitura hori, eta abizenetik edo izen deituren laburduratik deitzen dio jendeak elkarri.

1.009. Hitanoa beherantz, Oiartzunen ere (OIA-117/022)

Asierrek dio geroz eta gazte gutxiagok egiten diola elkarri hika, Oiartzunen. Tradiziozko moldeen transmisioan eten nabarmena sumatzen du, bai adizki alokutiboei dagokienean, eta baita, orokorrean, herriko hizkerari dagokienean ere.

1.010. Lehengusuarekin hika (OIA-117/023)

Asierrek lehengusu gazteago bati hika egiten hasteko erabakia hartu zueneko.

1.011. Hitanoa familia barruan (OIA-117/024)

Asierrek eta Julenek nabaritzen dute emakumeek hika aritzeko joera txikiagoa dutela. Zergatiak zein ote diren eztabaidan ari dira, eta bakoitzak etxean sumatutakoen haritik tiraka ari dira.

1.012. Kuadrillan egun batetik bestera erabaki zuten hika egiten hastea (OIA-117/026)

Egun batetik bestera hika egiten hastea erabaki zuten koadrillan, eta trebatzea, aldiz, sare sozialetan eta txat-etan idaztearen poderioz lortu zuten.

1.013. Hitanoak zer eskaintzen dion hitzunari (OIA-117/027)

Tratamendu informalak zer eskaintzen dien galdetuta bere iritzia ematen du bakoitzak. Julenek dio oraindik ez dela seguru sentitzen hika egiten duenetan. Asierren esanetan, euskararen erregistro informaleko berariazko tratamendua da.

1.014. Hika aritzean egun ohikoa den akatsa (OIA-117/030)

Asierrek aipatzen du zenbait menpeko perpaus eratzerakoan, eta zehar estiloan aipamenak egiterakoan hitzun askok, egun, gaizki erabiltzen dituela hikako adizkiak.

1.015. Joxan Tolosa zuka mintzatzen? (OIA-117/031)

Joxan Tolosaren pasadizoa aipatzen dute Asierrek eta Julenek.

1.016. Tratamendu informaleko zenbait joera (OIA-117/032)

Asierrek hitanoarekin lotutako zenbait ohitura eta joera aipatzen ditu, berba lagunaren adinarekin zerikusia dutenak, gehienak.

1.017. Aitak eta osabak elkarri hika (OIA-117/034)

Hiztunen artean adin tarte handia izanagatik ere, elkarri hika egiten dioten kasuei buruz.

1.018. Euskalkiak eta hitanoak eskolan presentzia beharko lukete I (OIA-117/036)

Asierren ustez, tokian tokiko hizkera eta hitanoa eskolan erakutsi beharko lirateke, euskara batuarekin batera.

1.019. Euskalkiak eta hitanoak eskolan presentzia beharko lukete II (OIA-117/038)

Asierren ustez, tokian tokiko hizkera eta hitanoa eskolan erakutsi beharko lirateke, euskara batuarekin batera.

1.020. Beste euskalkietako hitzak (OIA-117/047)

Norbere herritik kanpora esaten diren hitzak ulertu eta ikasteari buruz.

1.021. Reyes Prados (OIA-117/051)

Reyes Prados telebista aurkezlearen kasua hartzen du Asierrek ahotan, euskara ikasteak "beste Euskal Herri bat" ezagutzeko aukera ematen duela esateko.

1.022. Patata zorroaren anekdota (OIA-117/058)

Julenek izebari behinola Bartzelonan gertatutakoa kontatzen du.

1.023. Azken urtetan asko aldatu da oiartzuarren hizkera (OIA-117/059)

Asierren ustez hainbat faktorek eraginda eta halabeharrez aldatzen ari da euskara. Dena den, berak nahiago luke hainbeste aldatu ez eta Oiartzungo hizkerari eutsiko balitzaio.

1.024. Hizkuntzak ongi menperatzea helburu (OIA-117/064)

Julenen iritziz hizkuntza guztiak txukun eta behar den modura egitea garrantzitsua da, eta euskararekin, bada, are eta gehiago.

1.025. Hizkera eta nortasuna (OIA-117/065)

Asierren iritziz herriko hizkera egitea bada nortasun kontua. Nork bere herriko hizkera egiten duenean bada nor den, nondik datorren eta zer izan nahi duen adierazteko modu bat.

1.026. Karrikatik Arraguara, Villabonatik pasata (OIA-118/002)

Oiartzungo Karrika auzoko Arozkene baserrian jaio, handik karrika auzoko kaleko etxe batera, Villabonara ezkondu, Oiartzungo Ugaldetxo auzora itzuli, eta, azkenik, Arragua auzoan bizitzen bukatu.

1.027. Lan klase ugari probatu eta langintza askotan jardundakoa (OIA-118/005)

Gaztetan baserriko lanetan ari behar izaten zuen Maritxuk, esate baterako, etxerik-etxe esne partitzen, Oiartzunen. Osasun arazoak medio, ezin izan zuen fabrikari lan egin, eta zerbitzari lanetan aritu zen bolada batez.

1.028. Zerbitzariak non-noiz lan egiteko antolatze modua (OIA-118/006)

Kamarera talde bat arduratzen zen, jatetxeen beharren arabera, zerbitzari gehiago deitzeaz.

1.029. 24 urterekin ikasten hasi (OIA-118/007)

Zerbitzari lanetan zebilela, beso bateko ukalondoa eta besteko eskumuturra batera hautsi zituen Maritxuk. 24 urte zituen orduan, eta ikasketei ekin zien, unean sortu zitzaizkion beldur eta lotsa guztiei aurre eginez. Administrari Ikasketak egin bitartean, irakasle lanetan ere aritu zen, bai Erreterian, eta baita Oiartzungo Karrika auzoan ere. Eskola partikularrak ematen ere ibili zen, eta baita bere bokazioa aurkitu ere.

1.030. Arozkene Berriko eskola (OIA-118/008)

Hiru urtez-edo aritu zen Maritxu Arozkene-Berrin eskolak ematen. Garai hartan amaitu zituen administrari ikasketak, eta irakasle izateko praktikak ere orduantxe egin zituen. Ikastolan lan egiteko aukera sortu zitzaionerako, ordea, Donostiako San Migel Patronatuan lanean hasia zen.

1.031. Artaso taldea: Karrikan hurrekin lanean. Dantzari txikiak. (OIA-118/009)

Karrika auzoan hurrekin egindako lana kontaktzen du Maritxuk. Garai hartan hezkuntza munduarekin harreman handia zuen berak, bai eta hurren aisialdi munduarekin ere: udalekuak... Eta bere gogo eta jakintza guztia bideratu zituen Karrika auzoko hurrekin aisialdian lan egitera. Taldeari Artaso izena zergatik jarri zioten azaltzen du.

1.032. Mezetan dantzarako toki eske (OIA-118/010)

Maritxu Karrikako hainbat hurrekin aritzen zen dantzak irakasten. Entseatzeko tokirik ez zutela eta, meza egun batean erabaki zuten "eskaria" egitea.

1.033. Elizako dirua apaizari eskatu (OIA-118/011)

Auzotarrek mezetan atabakara botatako diruaren parte bat apaizari eskatu ziotenekoa kontaktzen du Maritxuk.

1.034. Karrika auzoko txabola eta Maritxuren despedida (OIA-118/012)

Karrika auzoko Bidasoro baserriko Joakin Arozenak txabola bat egiteko lur-saila utzi zien auzoko gazteei, dantza taldea aurrera ateratzeko entseatzeko tokia izan zezaten. Maritxu Villabonara ezkontzera zihoan, eta txabola altxako zuten tokian berean agurtu zituen auzoko gazteak, eta txabola izango zenaren lehendabiziko harria jarri zuen, egun hartan bertan.

1.035. Karrika auzoko dantzari txikien desagertzea (OIA-118/013)

Maritxu Villabonara ezkondu eta berehala desagertu zen dantzari txikien taldea.

1.036. Artaso, Karrika auzoko Elkarte (OIA-118/014)

Dantzari txikiek hasiera batean mesede truke lortutako lur-sailean berean altxa zuten gero Artaso Elkarte.

1.037. Oñatzenen pospoliñak berpiztu nahian (OIA-118/016)

Jon Oñatibiak Oñatzenen pospoliñak berpiztea proposatu zion Maritxuri. Maritxuk ontzat hartu zuen proposamena, baina handik hamabost bat egunera istripuz hil zen Oñatibia.

1.038. Pospoliñak aurrera ateratzen (OIA-118/017)

Maritxuk, Jon Oñatibia zendu zela, bakarrik egin behar izan zuen aurrera pospoliñ taldeak aurrera ateratzeko egitasmoarekin. Gerra aurrean batzokitan sortutako dantza eta kantu errepresentazio moldea zen poxpoliñena, eta haur eta gaztetxoek hartzen zuten parte halakoetan. Maritxu Barriola donostiarraren laguntza izan zuen Maritxuk.

1.039. "Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin bilduma I (OIA-118/019)

"Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin bilduma idatzi zuen Maritxuk 2014. urtean. Errenteriako euskaltegi batetik liburua aurkezteko deitu zutenekoa kontatzen du. Maritxuk berak argitaratu zuen liburua, gastu guztiei bere poltxikotik aurre eginez. Ez zaio batere damutzen. Oso pozik dago. Animoak eta kritika onak jaso zituen liburuagatik.

1.040. "Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin bilduma II (OIA-118/021)

Liburua idazteko motibazioak nondik.

1.041. EPA-HHI ikastaroan (OIA-118/022)

EPA-HHI (Helduen Hezkuntza Iraunkorra) ikastaro batean ari zela ere animatu zuten aitonari bildutako ipuinez osatutako liburua argitaratzera.

1.042. EPA-HHI ikastaroetan 3 urtez (OIA-118/025)

EPA-HHI ikastaroetan 3 urtez ari izan da Maritxu, euskaraz idazten trebatzen.

1.043. "Hiltzeko zorian dagon gizona" ipuina (OIA-118/028)

Maritxuk "Hiltzeko zorian dagon gizona" ipuina kontatzen du, bera txikia zela aitonari jasoa.

1.044. "Nagusia eta morroia" ipuina (OIA-118/030)

"Haika, mutil!" kanta famatuaren aldaki bat, ipuin moldean jarrita.

1.045. Mikel Laboarekin lanean (OIA-118/031)

Maritxu Mikel Laboarekin aritu zen lanean bolada batez, Donostiako Patronatuan

1.046. "Zeruko kantak" (OIA-118/033)

Maritxuren aitonak, ahoko mugimendu gaitzak eginez, bilobei esan ohi zien aho-korapilo antzekoa da "Zeruko kantak" delakoa.

1.047. "Erregearen hiru alabak" (OIA-118/035)

Maritxuren aitonak bilobei ipuin kontatzen hasi baino lehen sarrera gisa baliatu ohi zuen hitz-jolas errimaduna da "Erregearen hiru alabak".

1.048. "Ama emaidazu jaten" hitz-jolasa (OIA-119/002)

"Ama emaidazu jaten" hitz-jolasa edo haur kanta.

1.049. Aho korapiloak eta kantak onuragarriak haurrentzat (OIA-119/003)

Kanta eta aho korapiloak ariketa ona dira haurrentzat, arreta jartzen eta burua lantzen ikasten dutelako.

1.050. Eguneroko bizitzari lotutako kanta eta hitz jolasak (OIA-119/004)

Eguneroko bizitzari lotutako kanta eta hitz jolasak izaten ziren Maritxu haurra zenekoak.

1.051. "Txoriaren atxiloketa" (OIA-119/007)

"Txantxangorria txantxote..."

1.052. "Txoriaren atxiloketa", azalpena (OIA-119/009)

Ahozko euskal literatur pieza baten azalpena, behinola Maritxuri haren aitak emana.

1.053. "Txantxote"-ren esanahia (OIA-119/011)

"Txantxangorria txantxote, birigarroa alkate, zizare punta batengatikan atxilotu naute" ahozko euskal literatura piezan "txantxate" zein "txantxote" hitzak jaso izan dira. Maritxuk bere bertsioa ematen du.

1.054. "Esneketaria eta esne hartzailea" (OIA-119/013)

Esneketari bati kargu hartu zion eroslearen kexa eta esneketariaren erantzuna biltzen dituen pasadizoa.

1.055. Esnea lapasteko arriskua (OIA-119/014)

Behin behia jetzita, esnea ez galtzeko aholkuak. Maritxuk bildutako pasadizo hau lagun artean aipatzen omen zuten hala egokitutako egoeratan, txiste edo gertaera umoretsu moduan.

1.056. Esneketaria, ikazketaria... (OIA-119/015)

Esneketaria, ikazketaria, egurketaria... hainbat langintzatan aritzen zenari erreferentzia egiteko modua.

1.057. Esnea mamitzea edo kalatzea (OIA-119/017)

Esnea mamitzea edo kalatzea zerri esaten zioten.

1.058. Galdutako esnea berreskuratzen (OIA-119/018)

Galdutako esnetik mamia aprobeatzerik bai omen da, galtzearen zergatia jakinez gero.

1.059. "zatan" aditz laguntzailea ez da oiartzuera (OIA-119/020)

"Zatan" aditz laguntzailea baztan ingurukoa ote den dago Maritxu. Izan ere, aitonari jasotako ipuin askotan Baztan aldeko kontu eta hizkera azaltzen dira.

1.060. "Oiartzungo etxe batzuei baten batek botatakua" azalpena (OIA-119/022)

"Oiartzungo etxe batzuei baten batek botatakua" piezaren nondik norakoak.

1.061. "Oiartzungo etxe batzuei baten batek botatakua" (OIA-119/023)

"Oiartzungo etxe batzuei baten batek botatakua" hitz-jolas edo jostaketarako ume-kanta.

1.062. Zuberoa jatetxea, Oiartzungo Garbuno baserria. (OIA-119/024)

"Oiartzungo etxe batzuei baten batek botatakua" hitz-jolas edo jostaketarako ume-kantan azaltzen diren baserriei eta kontuei buruzko azalpenak.

1.063. Abarka handiekin gari-hazi bila (OIA-119/025)

Oiartzuar bat Nafarrora gari-haziak lapurtzera joan zenekoa kontaktzen duen kondaira. Ataungo "San Martiniko" kondairaren bertsioa, besteak beste.

1.064. "Aranbire, pantasi handi; gona luzia Garagartzako" (OIA-119/027)

Oiartzuarrek "pantasia" hitzari ematen dizkioten esanahiak.

1.065. "Hau da hau, karetx-ipurdi!" (OIA-119/028)

Karetx-ipurdi (karetx = garatxo) espresioaren esanahia azaltzen du Maritxuk.

1.066. "Kiyo, kiyo, Kantoyakua" (OIA-119/029)

Kioa zer gaixotasun den azaltzen du Maritxuk

1.067. "Txintxua ta izpiya" (OIA-119/031)

Izengoiti kontuak. Oiartzungo "txintxua" eta "izpiya"ren arteko adarjotzea.

1.068. "Seme Gazteena" (OIA-119/034)

"Aitona sutondoan ipuin kontari" liburutik ateratako ahozko literaturako pieza.

1.069. Hurrei azalpen egokiak ematearen garrantziaz (OIA-122/002)

Hurrei azalpen egokiak ematea zein garrantzitsua den azaltzen du Maritxuk. Berak, txikitan, "otso" animalia izena entzun aldiro, "hartza" irudikatzen omen zuen; urteak egin zituen uste oker hori buruan.

1.070. Astoa eta otsoa (baseliza zaharreko gertaerak) ipuina (OIA-122/003)

Maritxuk "Astoa eta otsoa" (baseliza zaharreko gertaerak) ipuina kontaktzen du, berak idatzitako "Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin-liburura bilduta dagoena. Aitona zutenak kontaktzen omen zien, txikiak zirela.

1.071. Hika, zuka eta berorika (OIA-122/005)

Maritxuk bildutako ipuinetan animalien arteko elkarrizketak hika izaten dira, ia beti. Tratamendu horrekin izan duen harremanari buruz mintzo da.

1.072. "Ijitoen entierroa" (OIA-122/007)

Maritxu Gaztelumendi Urruzolak idatzitako "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bilduta dagoen euskal ahozko literaturako pieza.

1.073. "Pazko eguneko bazkaria" (OIA-122/010)

Maritxu Gaztelumendi Urruzolak idatzitako "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bilduta dagoen euskal ahozko literaturako pieza.

1.074. Pazko asteari buruzko azalpenak (OIA-122/011)

Pazko asteko ohiturak eta ospakizunak nolakoak ziren. Ardagaiari su emanda ibiltzen ziren haurrak baserriz-baserri.

1.075. Esne kontuak (OIA-122/013)

Maritxuk esnari buruzko hainbat kontu azaltzen ditu.

1.076. Maria Inaxi eta Bartolo. Bertsoak. (OIA-122/016)

Garai bateko ligatze kontuen berri ematen duten bertsoak kantatzen ditu Maritxuk, "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bilduta dituenak.

1.077. Ameriketara joan aurreko gosaria (OIA-122/019)

Pernando Amezketarra aipatzen duen pasadizoa, Maritxuk "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bilduta duena, behinola aitona zutenak kontatua.

1.078. Pernando Amezketarra eta Txirrita (OIA-122/021)

Maritxuk Pernando Amezketarraren eta Txirritaren gaineko hausnarketa egiten du.

1.079. Oso emakume gutxi famatu eta goratu izan da (OIA-122/023)

Maritxuk gizaseme famatu askoren berri izan du, baina oso emakume gutxirena.

1.080. Karrikako haurrak eta Zaragozako maistra (OIA-122/024)

Bizitzan aurrera egiteko oso oinarri eskasa jaso zuen Maritxuren belaunaldiak; baina jasotakoarekin egin behar izan zuten aurrera, eta gaur egungo belaunaldi gazteekin moldatzeko eta elkar ulertzeko gai izatea belaunaldi oso haren meritutzat du Maritxuk.

1.081. Gurasoen eta seme-alaben arteko ezin ulertuak (OIA-122/025)

Maritxuk sumatu izan du ezin ulerturik ikasketa maila eta belaunaldi ezberdinetako jendearen artean.

1.082. Sorginaren pasadizo edo kontakizuna (OIA-122/027)

"Sorginarena", Maritxuk "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bilduta duena, eta aitona zutenak kontatu ohi ziena.

**1.083. Sorginaren pasadizo edo kontakizuna (II)
(OIA-122/028)**

"Sorginarena" pasadizo edo kontakizunaren gaineko azalpen eta hausnarketak

**1.084. Hizkuntzaren beharra, gero eta urriagoa
(OIA-122/029)**

Euskararen egoerari eta komunikazio ohiturei buruzko iritzia. Maritxuren ustez gero eta gutxiago hitz egiten du jendeak, eta hizkuntza maila gero eta pobreagoa da.

1.085. "Zezen ona eta astoa" ipuina (OIA-123/002)

Maritxuk "Zezen ona eta astoa" ipuina irakurtzen du, berak idatzitako "Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin-liburura bilduta duena.

1.086. Alkiza, oilo-herria (OIA-123/004)

"Alkizako oiloa" ipuina kontatzen zien aitonak, Maritxu-eta txikiak zirela. Urteekin, ipuina gogoan gorde zuen, baina oiloa nongoa zen ahaztu. Maritxu Alkizar batekin ezkondu zen, ordea, eta orduan gogoratu nongoa zen aitonaren ipuineko oiloa.

**1.087. "Alkizako oiloa eta Larraulgo azeria" ipuina
(OIA-123/005)**

Maritxuk "Alkizako oiloa eta Larraulgo azeria" ipuina irakurtzen du, berak idatzitako "Aitona sutondoan ipuin kontari" ipuin-liburura bilduta duena.

**1.088. Aitona haurren ipuin eta jolasen gidari
(OIA-124/002)**

Txikitako etxeko giroa. Aitonak beheko suaren jiran biltzen zituen haurrak, ipuinak kontatzeko. Eguraldi txarra bazen, aitonak txingoka jostatzen jartzen zituen haurrak, sukaldean bertan.

**1.089. "Alkizako oiloa eta Larraulgo azeria" ipuina
(OIA-126/001)**

Maritxu Gaztelumendik "Alkizako oiloa eta Larraulgo azeria" ipuina kontatzen du.

1.090. "Zezen ona eta astoa" ipuina (OIA-126/003)

"Zezen ona eta astoa" ipuina kontatzen du.

**1.091. "Santo Kristo Lezokoari promesa" ipuina
(OIA-126/005)**

"Santo Kristo Lezokoari promesa" ipuina kontatzen du.

1.092. Erregeren hiru alabak (OIA-127/002)

Maritxuren aitonak errimadun pieza hau kontatzen omen zien beti, behin eta berriz, ipuin kontari hasi aurretik.

1.093. "Tomaxen zelebrequeriak" ipuina (OIA-127/004)

Maritxuk "Tomaxen zelebrequeriak" ipuina kontaktzen du. Berez, lau pasarte argi bereiz daitezke ipuin honetan, baina Maritxuk kontakizun bereko zatitzat dituen, batean eman ditugu guk.

1.094. "Axerko eta katakuxantxa" ipuina (OIA-127/006)

Maritxuk "Axerko eta katakuxantxa" ipuina kontaktzen du, berak kontaktzen dituen guztiak bezalaxe, "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bildua duena.

1.095. "Egiptora ihesi" ipuina (OIA-127/008)

Maritxuk "Egiptora ihesi" ipuina kontaktzen du, berak kontaktzen dituen guztiak bezalaxe, "Aitona sutondoan ipuin kontari" liburura bildua duena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com